

MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

1956 - 2018 *Arrasate-
Mondragón*

HACIA UNA MEMORIA COMPARTIDA



MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

Pag. 1-321 orr.

HACIA UNA MEMORIA COMPARTIDA

Pag. 325-649 orr.

1956 - 2018 *Arrasate - Mondragón*

MEMORIA PARTEKATU BATERANTZ

*ARGITUZ,
Giza Eskubideen
Aldeko Elkarte*

2018ko maiatza

IKERKETA-TALDEA

Gamiz, Aintzane
Moñux, Jon
Ormazabal, Sabino
Salinas, Maitena

ARAU-ESPARRUA

Astigarraga, Juana Mari
Pego, Laura

DISEINUA ETA INPRENTA:

ORIGINAL komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA: SS-1386-2018

ISBN: 978-84-09-07224-8

PROLOGOA

Arrasateko EAJ, Arrasateko EHBildu, Arrasate-Mondragón-eko PSE-EE, Arrasateko Baleike Udal Taldea eta Irabazi-Arrasate

2016ko irailean, Arrasateko Udaletxean ordezkari-tza politikoa zuten alderdi guztiek osaturiko Memoria eta Bizikidetzeta mahaia abian jarri zen, EAJ-PNV, EHBildu¹, PSE-EE, Baleike eta Irabazi² ko ordezkari-ek osatutakoa. Mahaiko kideak jabetzen ziren, gertatutakoaren memoria lantzeak, hau da, jasandako giza eskubide urraketa larri-ek eta sufrimenduei erreparatzeak, gaur egun oraindik oso bizirik diren zauriak eta zenbaite- tan ukatuak edo isilduak izandako sufrimenduak izendatzea suposatzen zuela. Bai eta egindako lanak, bizikidetzaren berreraikuntzari ekarpen bat egin ziezaion iraganarekiko begiradaren inguruko kontsentsua ezinbestekoa zela ere jabetzen ziren.

Azkenean eta hilabeteetako elkarrizketa sakonen ondoren —non Argituz eta Intxorta 1937 Elkarteko adituen aholkularitza nahitaezkoa bilakatu den—, memoria parteka- tua eraikitze-ko beharrezkoak ziren oinarri-ko kontsentsuak lortzea posible izan da. Aurkezten diren liburu-etan jasota gelditu den memoria alegia. Bide honi ekiteak elkarren arteko eskuzabaltasun ariketa bat suposatu du, non bakoitzak izan ditzakeen iraga- narekiko irakurketa desberdinetatik harago, bizikidetzaren bideari ekite-ko beharrezko akordioa lehenetsi egin da.

Guzti honek fokua irekitzea suposatu du, gureak bezala bizitu izan ditugun sufrimen- duez harago jo eta urrunago sentitu ahal izan ditugun horiengana hurbilduz. Ezer ber- dindu edo nahastu nahi gabe, baizik eta gertatutako guztiari tokia emateko, ahanzturan erori gabe. Lan hauen bitartez biktima guztiei dagozkien egia, justizia eta erreparazio- rako oinarriak jarri nahi dira, bai eta Udalerri-ko sufrimendu egoera guztiak ikustarazten lagundu ere.

Gertatutako guztiari zentzua emateko, memoria lanketa II. Errepublikaren ezarpene- tik abiatu eta gaur egunera arte heldu behar zela adostu ondoren, arrazoi metodo- logikoengatik lana bi garaietan banatzea adostu zen. Intxorta 1937 Elkartek, Memoria Historikoa berreskuratzen eskarmentu handikoa eta jada Arrasaten lan handia aurrera- tuta zuena, 1936-1956 garaian gertatutakoa jaso du. Ikuspegi historiko zabal batetik, II.

1 EHBildu, Sortu, EA, Alternatiba eta independenteak osaturiko koalizioa.

2 Irabazi Ezker Anitza-IU, Equo eta independenteak osaturiko koalizioa.

Errepublikaren aurkako Altzamentu militarrek eta Frankismoak Arrasateko emakume eta gizonengan izandako eragina jasotzen saiatu den lana gauzatu du.

Bestalde, Argituzek, giza eskubideen aldeko Elkarreak, jada Udallerri desberdinetan egindako lan desberdinek frogaturiko eskarmentua izanik, 1956-2018 garaiko memoria lanketa egin du. Bere lanean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegi-tik, Udallerrian izandako giza eskubideen urraketak eta indarkeria-ekintzak jasotzen dira.

Lan bakoitzak, testuinguru bakoitzari dagokion berezko hurbilketa metodologikoa errespetatu nahi izan du, baina zenbait elementu komun partekatuz: egiaztaturiko eta onarturiko metodologia bat erabili, gertatutakoaren egiazko memoria zehatza jaso, eta memoria inklusiboa eta ez partziala jaso. Hau da, bi lanek gure Udalerriko bizikidetzaren eraikuntzari ekarpen bat egitea izan dute helburu.

Beraz, Intxorta 1937 Elkarreak eta Argituzek egindako bi liburuak izenburu berarekin aurkezten dira, hau da, "Memoria partekatu baterantz". Jabeturik —urte luzetako konfrontazioaren ondoren— izandako indarkeria-ekintzen eta giza eskubideen urraketen egiaren eremu komun eta partekatu baterantz abiatzea prozesu dinamiko bat dela.

Azkenik, hilabete hauetan zehar Memoria eta Bizikidetzaren mahaia osatu dugun kideok, bihotzez eskertu nahi dugu bai euren testigantza eman ez edo informazioa, dokumentazioa edo datuak erraztuz euren laguntza eta konfiantza adierazi duten pertsona oro. Jasotako narratiba pertsonalak eta bizipen zintzoak dira, zalantzarik gabe, Udallerrian hamarkadetan gertatutako guztia dimentsionatzen laguntzen dutenak, euren ekarpena ere bizikidetzari ekarpen bat bilakatuz. Aldi berean mahaiak, Intxorta 1937 eta Argituzeko kideek egindako dokumentazio bilketa izugarria, azterketa eta erredakzio lanak eskertu nahi ditu. Euren lanari esker mahai kideen borondatea eta konpromisoa egingarria bilakatu delako.

Jakinda lan hauek ez direla prozesuaren bukaera, gure nahia Udalerriko bizikidetzaren berreraikuntzan aurrera egiten jarraitzeko lagungarria izango zaigun oinarri partekatua izatea da.

AURKIBIDEA

SARRERA	6
1. ZERGATIA, HELBURUA, EDUKIA ETA IRIZPIDEAK	9
1.1 Zergatia eta helburua	9
1.2 Edukia	10
1.3 Kasuak sailkatzeko irizpideak	17
2. ARAU-ESPARRUA: <i>BIKTIMA</i> KONTZEPTUA ETA HAREN ESKUBIDEAK	21
2.1 Biktima-izaeraren eta biktimaren eskubideen inguruko nazioarteko 18 adierazpenak eta gomendioak	21
2.2 Biktimaren estatutua Europar Batasunean	26
2.3 Estatuko legeria	26
2.4 Autonomia Erkidegoko legeria	29
3. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ARRASATEN	33
3.1 Bizitzeko eskubidearen urraketa	33
3.2 Osotasun fisikoaren, psikikoaren eta moralaren urraketak	49
3.3 Giza eskubideen beste urraketa batzuk	64
4. ARGITZEKO DAUDEN KASUAK	83
5. LABURPEN TAULA	91
6. BESTE INDARKERIA ETA SUFRIMENDU GERTAERA BATZUK	93

7. UDALERRIAN BEREZIKI ERAGIN DUTEN GERTAKARI AZPIMARRAGARRIAK	99
8.ZENBAIT TESTIGANTZA: INDARKERIAZ, GGEEEN URRAKETEZ, BIZIKIDETZAZ ETA MEMORIAZ	115
8.1 Indarkeria-gertaerek solaskideengan eragindako zirrarak	116
8.2 Giza eskubideen urraketak eta biktimak	137
8.3 Bizikidetza	175
8.4 Memoria eta etorkizuna	196
8.5 Formula berriak	211
9. TESTUINGURUAREN KRONOLOGIA: INDARKERIA-GERTAKARI BATZUK, ARRASATEN	217
9.1 Frankismoaren azken urteak	217
9.2 Francoren heriotzatik Konstituziora arte	242
9.3 Konstituzioaren ondoren	254
10. PROPOSAMENAK ETA AZKEN APUNTEAK	311
EPILOGOA	315
BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK	317

SARRERA

Memoria kolektiboari heltzea kontuzko lana da; izan ere, memoria horren inguruko pertzepzioa aldatu egiten da metatutako esperientzien arabera. Gizarte gisa memoria inklusiboa eta partekatua negoziatzeak ia ezinbestean dakarkigu gurea eta kanpokoia erkatzea. Kasu zehatz honetan, gizarteak oro har eta biktimek bereziki pairatutako sufrimendua, hainbat modu eta indarrekin funtsezko giza eskubideak sistematikoki urratuz eragindakoa: hilketak, torturak, bahiketak, estortsio ekonomikoa, jazarpen-indarkeria eta sabotajeak, besteak beste.

Txosten honen helburua Arrasate herriarekin lotutako gertakizunak eta zenbait biktima agerraraztea da; gaur egun, eta agian etorkizun laburrean, tokiko bizilagunen arteko bizikidetzaren errealia eta iraunkorra zailtzen duen guztia argitzeko. Txostenaren ikuspegiak Giza Eskubideei dagokienez Nazioarteko Zuzenbideak darabilen printzipio unibertsaletako bat du oinarri: "giza eskubide urratu bakoitzeko, egia-, justizia- eta erreparazio-eskubidea", bazterketarik ezaren printzipioarekin bat eginik. Ez dagokio txosten hau idatzi duen taldeari azaltzen duena baloratzea edo epaitzea, ezpada, liburu honen bidez, Arrasaten edo herriarekin lotuta gertatutakoa ikertzea, aztertzea, biltzea, erkatzea eta argitaratzea, betiere helburu politikoekin 1956tik 2018ra bitartean gertatutako indarkeriari dagokionez. Gertakizunen kronologiak, hainbat pertsonaren lekukotzek, argitalpen honen eraketan erabilitako irizpideek, baita oinarritzat hartu diren printzipio juridikoek ere, behar besteko zorrotasuna ematen diote txosten honi bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Halaber, helburua da udalerrian (eta, zabalduz, euskal gizarte osoan) bizikidetzaren berreskuratzea eta memoria partekatu bateranzko bidea egitea.

Garrantzitsutzat eta premiazkotzat jotzen dugu indarkeriaren gordintasuna zuzenean bizi izan duten eta biktima izan diren pertsonen lekukotasuna biltzea, hain zuzen, Memoria bizi horrek bere izatea utzi aurretik eta errealitateen (ezen ez usteen) gainean lan egiteko aukera galdu aurretik. Sufrimenduak ahitzerrainoko mina egin duenean era guztietako sentsibilitateei lekua egiteak dakarren zailtasunaren jakitun izanik, txosten hau bizikidetzan aurrera egiteko beste tresna bat balitz bezala irakurtzeko gonbidapena egiten dugu, ikuspegi eta errealitateak hurbildu daitezkeen edo, gutxienez, besteenak eza-gutu ditzagun. Azken batean, memoria partekatua eraikitzen laguntzea da helburua. Zauriak osatu nahi baditugu, isiltasuna ez da aukera bat. Hori erakusten digu historiari; beraz, gure ikuspegia da gertakizunak eta horiek eragindako traumak eta eragin emozional, psikologiko eta fisikoak ezagutaraztea. Askotariko egiak erakustea, oinarritzat esparru bat onartuta: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta nazioarteko tratatu, arau eta aholkuak. Pertsonen duintasuna errespetatzea bere alderdi guztietan.

Garrantzitsua da aipatzea txosten honetan egia guztiak azaltzen direla, kontakizun guztiak, gertakizun guztiak, bildu ahal izan ditugun ikuspegi guztiak. Datuak eta gertakizunak faltako dira, eta akatsak ere izango dira beharbada: aldez aurretik eskatzen dugu barkamena horiek direla eta. Gure nahia da eginiko lana oinarri eta abialeku izatea memoria sozial partekatu batera iristeko, zer gertatu zen, nola gertatu zen eta zergatik gertatu zen ulertzen laguntzeko eta, batez ere, denon artean bizikidetza eta konfiantza berrezartzen laguntzeko. Gertatutakoa ez dadin ahaztu eta etorkizuneko belaunaldiek gertatutakoa ezagutu dezaten eta gure akatsetatik ikas dezaten.

Errespetu eta esker on handiena adierazi nahi diogu txosten honetarako datu eta lekukotasunak emanez laguntza eman duten guztiei. Izan ere, badakigu zein mingarria eta zaila den hala jokatzeko. Dena den, euren eskuzabaltasunari esker, landa-lan zorrotza egin ahal izan dugu eta, hobe ezina ez den arren, gogo onez egindakoa da.

POST-DATA: Txosten hau amaitzearekin batera, lan honetan landutako gaiaren inguruko gertakizun garrantzitsu bat gertatu da, ETAREN disoluzioa. Hortik abiatuta, euskal gizarteak helburu politikoko indarkeriaren pean bizitako denbora-aldi bat itxi da. Hala ere, hainbat hamarkadako askotariko indarkeriak eragindako ondorioak ez dira desagertu. Dena den, sortu berri den egoerak leihoa irekitzen die aukerei, azken aldiko indarkeria-iraganen sortutako zauriak ikertu eta sendatzeko. Halaber, baliagarri izan beharko luke bizikidetza bilatzen duen gizartearen eratzeko, non tentsio bakarrak erkidego anitz eta askotariko bati dagozkionak baitira. Hain zuzen, erkidego horrek aurre egin beharko die erronka horiei, elkarriketa zintzoaren giroan, bestearen ulermena bilatuz, ezberdina errespetatuz eta sor daitezkeen dibergentziak, beti bakearen eta demokraziaren bideak ibiliz konpontzeko.

1. ZERGATIA, HELBURUA, EDUKIA ETA IRIZPIDEAK

1.1 ZERGATIA ETA HELBURUA

Duela urtebete inguru, Arrasateko Udalbatzak herriko memoria hurbila lantzeko zuen egitasmoa helarazi zion Argitutuz giza eskubideen aldeko elkarteari; zehazki esanda, udaletxeko Memoria eta bizikidetza Mahaiak eginiko proposamena izan zen. Ondoren ospaturiko bilera pare batean, *Argitutuz* elkarteak “Memoria partekatu baterantz” izeneko txostenen ezaugarriak azaldu zituen, bereziki, oinarri teorikoa eta erabilitako metodologia zein irizpideak. Horrez gain, udalbatza osatzen duten talde politiko guztien aldetik bizikidetza ulertzeko eran gutxieneko adostasun maila bat lortzea ezinbestekoa dela azpimarratu zen, ekimena aurrera eraman ahal izateko. Azkenik, hasiera guztietan ohikoak diren zalantzak argitu ondoren, iazko iraila aldera datu bilketaren lanari ekin zitzaion eta urrirako lehen elkarrizketak ere gauzatzen hasi ziren.

Aipaturiko “Memoria partekatu baterantz” erako txostenen hasera Erreterian eman zen, bertan aurkeztu baitzen 2015eko azaroan, era honetako lehen esperientzia. Geroztik, eredu horrek jarraipena izan zuen, Lasarte-Orian eta Elgoibarren buruturiko lanetan, 2017 urtean zehar.

Txosten hau Arrasateko iragan hurbilaren ikuspegi kritiko bat da eta herrian jazo diren motibazio politikozko indarkeria gertakariak ez ahaztea du helburu; bai gertatutakoaren memoria partekatua eraikitzen joateko, baita bizikidetza berrosatzen laguntzeko ere. Tamalez, orain artean norberak bere zauriei erreparatu die soilik eta ez ditu bestearenak antzeman. Lan honetan bildutako gertakari traumatiko ugariren berri jasotzeak eta zenbait herritarren lekukotza mingarrien ezagutzak arrasatearren begiradak zabaltzen lagun dezake, baita aniztasunean eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako bizikidetzan urratsak ematen ere, etorkizunari begira.

Testu honekin ez zaio amaiera ematen lehendik hasitako prozesu bati, aitzitik, bideak zabalik dirau. Lan honek tresna bat izan nahi du, gero eta arrasatear gehiagok prozesu hori sakontzen eta osatzen jarrai dezan. Gainera, memoriaren ezaugarri anitzek ez dute nahiko lekurik liburu baten mugetan gordeta izateko. Izan ere, memoria kolektiboa etengabe doa eraikitzen denboran zehar.

Pentsamendu soziala funtsean memoria bat da, eta bere eduki osoa oroimen kolektiboez osaturik dago, baina gizartearengan bizirik irauten dute oroimen horiek soilik gizarteak, bere egungo markoak landuz, berreraiki ditzakeenak.³

³ HALBWACHS, Maurice (2004), *Los Marcos sociales de la memoria*. Bartzelona: Anthropos.

Halaber, nostalgia erakartzeaz gain, oroitzeak pentsarazi ere egiten du; iraganari buruzko norberaren ikusmirak birmolda ditzake, begirada kritikoaz eginez gero. Bestalde, memoria partekatu bat ezin da eraiki soilik biktimekin edo sufrimendu zuzena jasan dutenekin, herritar guztien parte hartzea behar du. Azken batean, memoria ez da betebeharrak, "eskubide zibil" bat baizik⁴.

1.2 EDUKIA

Txostenaren egitura hiru zati nagusitan dago antolatuta, gero beste zenbait ataletan banatzen bada ere, aurkibidean ikus daitekeen moduan.

I) IRIZPIDE OROKORRAK

Lehen zatian, txostenaren oinarri teorikoa jasotzen da, alegia, abiapuntutzat hartutako ikuspegi orokorra; betiere, giza eskubideei buruz nazioarteko zuzenbidearen arau eta irizpide nagusietan oinarrituta. Halaber, erabilitako metodologia -zenbait ikuspuntu, prozedura eta irizpideren multzoa- azaltzen da eta bere funtsa tresna baliagarria izatea litzateke, bi xede lortzeko. Batetik, bulkada politikoz sortutako indarkeriazko gertakariak zehaztasunez biltzeko eta aztertzeko modu bat erakustea, gertakari horien egilea edonor izanik ere. Eta bestetik, bidean urratsak elkarrekin emateko tresna lagungarri izatea, aniztasunean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako bizikidetzarantz. Atzera begiratzeak ez du zertan iraganera iltzatuta geratzea adierazi beharrik, iraganetik irakaspenak jasotzea gerorako ikasketa baliagarria izatea, bai, ordea.

Beraz, lanerako aintzat hartu diren oinarri teorikoak adierazten dira hasierako ataletan, hau da, aztertutako garaia, gertakariak sailkatzeko irizpideak, araudi esparrua, biktimaren definizioa, ...

II) ARRASATEKO GERTAKARIAK

Bigarrenik, udalerrian eman diren indarkeriazko gertakariak biltzen dira. Giza eskubideen urraketa mota desberdinetan sailkatuta dira, hala nola, bizitzeko eskubidearen urraketak, osotasun fisiko zein psikikoaren aurkakoak eta gainerako urraketak. Horrez gain, taulak eta laburpen-irudiak ere ageri dira. Dena den, gaizki ulertuak saihesteko, berezita jaso dira zentzu zorrotzean urraketak ez diren gertakariak, era horretan eskubideen urraketak argi eta garbi ikus daitezten.

4 VINYES, Ricard (ed.) (2009), *El estado y la memoria*. Bartzelona: RBA

III) ZUZENEKO TESTIGANTZAK

Azkenik, elkarrizketatuak izan diren hemezortzi lagunen testigantzak jasotzen dira, bederlatzi emakume eta beste hainbat gizonetzko. Jakina, txostena burutu ahalizateko lekukotzak izan dira gure iturri nagusienetako bat, hemerrotekak, txostenak eta liburuez gain. Nor elkarrizketatu zehazterakoan oreka eta aniztasuna izan dira erabili diren irizpideak.

Jarraian, gertakari guztien kronologia mardul eta zehatz bat biltzen da. Ez da lan erraza izan, baina jasotako guztia zorrozki egiaztatuta dago. Gertakariak, ahalik eta datu xeheenekin, dagozkien testuinguruan kokatuta daude, irudi osatuago bat izate aldera.

1.2.1 MOTIBAZIO POLITIKOA

Egungo gizartean indarkeria mota ugari ematen dira, hainbat jatorri eta arrazoi daudelarik haien oinarrian; zenbaiten iritziz, estrukturalak izan daitezkeenak, gainera. Kasu honetan, ordea, arrazoi politikoek bulkadaz gauzatu diren giza eskubideen urraketak eta indarkeriazko gertakariak jasotzen dira soilik. Tamalez, genero bereizkeria, arrazakeria eta xenofobia, bazterkeria soziala, delinkuentzia eta abar izan ohi dira indarkeria kasu gehienek atzean aurkitzen diren jatorrizko arrazoiak. Horiek guztiak aztertu eta aurre egin beharra begi bistakoa da; alabaina, lan honen helburuetatik kanpo geratzen dira eta beste ikerketa batzuei legokieke lan horiei eustea.

Beraz, arestian esan bezala, txosten hau motibazio politikoak direla eta gauzatutako indarkeria gertakariak aztertzeraz mugatzen da. Azpimarratu behar da, "motibazio politiko" kontzeptuaren erabilera erabat deskriptiboa dela, azterketa burutzeko irizpide lagungarri gisa. Alegia, indarkeria sailkatzeko tresna bat baino ez da, testuinguru zehatz bati egiten dio erreferentzia. Indarkeria horren irudia osatzen laguntzen du, ez du inolaz ere justifikatzen, ezta eragindako kalteak gutxiesten ere, hau da, ezaugarri horren bitartez, ez da inolako baloraziorik egiten.

Testu honetan zehar, giza eskubideen urraketak eta bestelako indarkeriazko gertakari batzuk izendatzeko "politiko" adjektiboa txertatzen denean, nazioarteko zuzenbideak interpretatzen duen adiera berarekin erabili da. Hain zuzen, izaera hori duten delituek adierazi asmoz eta ondoko zehaztapenez:

- Indarkeriazko ekintza gauzatzen duenak (biktimarioa) edo hautatutako biktimak (edo biktima taldea), giza eskubideen urraketa jasango duenak, edo batak zein besteak dute izaera "politiko" hori.
- Gauzatzen diren indarkeriazko ekintzek estatus politikoak zein legeak aldatzeko xedea dute edota hori aldarrikatzen dute. Alderantziz ere izan daiteke:

xede horretan ahalegintzen direnak jazarri eta zigortzen dira, terrorismoaren aurka borrokatzeko edo kalte larriagoak saihesteko dela esanda justifikatuz.

- Gizartean edo politikan inpaktua eragin nahi da, edo herritarrak geldiarazteko beldurra sorrarazi nahi da, edo eskarmentu gisa erabiltzen da. Ez da justizia laguntzen, ez da ikertzen, zigorgabetasuna ematen da...

Aipaturiko irizpide hauexek jasotzen dira, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak plazaratu zuen *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimak*⁵ izeneko txostenean, 2008ko ekainean. Horrez gain, azken garaietan euskal erakundeek egindako lege eta txosten ugari behin eta berriz erabiltzen dute termino hori, zertaz ari diren zehazteko eta indarkeriak sailkatzeko, hainbat indarkeria mota ez nahasteko helburuarekin.

1.2.2. AZTERTUTAKO ALDIA

Orain arte, *Argitu*zek iragan hurbilaz landu dituen txostenetan, 1956 urtea hartu izan da azterketa horien abiapuntutzat eta Arrasateko kasuan ere irizpide bera erabili da. Ikerketa hau 1956 urtetik aurrera Arrasaten gauzatu diren indarkeriazko gertakarien inguruko azterketa bat da. Arrazoa honakoa da, urte horretako otsailaren 10ean, Frankoren errejimena lehen aldiz salbuespen-egoera agindu baitzuen Espainiar Estatu osoan. Hain zuzen, neurri hori jada ez zegoen gerra zibilarekin zuzenean lotuta. 1936ko kolpe militarretik hogeitaz urtera, diktaduraren garaiko errepresio aro berri bati eman zion irekiera, gorpuzten ari ziren langileen zein ikasleen grebak eta mugimendu antifrankista, orokorrean, gogor zanpatu asmoz. Salbuespen-egoera haren aginduz, Espainiarren Foruen 14. eta 18. artikulua baliogabetu ziren; artikulua horiek bizitokia hautatzeko eskubideari eta atxilotuak polizia-etxeetan 72 ordu baino gehiagoz egon arazteko eskubideari eragiten zieten. Bitxia da gogoratzea nolako testuingurutan erabaki zen errepresiozko neurri hori, hain zuzen, Espainiar Estatu Nazio Batuen Erakundearen onartua izan, 1955eko abenduan, eta handik hiru hilabetera.

Jarraian, diktaduraren gobernuko barne krisia gertatu zen, ministro batzuen aldaketa barne. Soziologikoki elementu berri bat agertu zen, Espainiako Telebistaren lehen emanaldia urte berean izan baitzen, propaganda frankistaren tresna garrantzitsu bat gehiago bihurtuz. Espainiak, independentzia eman zion Marokon zuen protektoratuari; Frantziak urte berean Tunisia eta Marokon egindakoari jarraikiz. Aldi berean, Espainiako Alderdi Komunistak (PCE), gerra zibilean zein gerra osteko erresistentzian ere paper nagusia izan zuenak, "berradiskidetze" estrategia aldarrikatu zuen 1956 urtean, mugimendu antifrankistan eragin sakona ekarri zuelarik. Hau ez da lekua gai honetaz

⁵ LANDA, Jon Mirena (2008) *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena*. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza.

luzatzeko, baina 1936ko "altxamendutik" hogeit hamar urte igarota zirela kontuan hartuta, agian, badira nahiko arrazoiak frankismoaren bigarren aroa hasita zela pentsatzeko.

Bestalde, erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzak, 1956 urtean, Munduko Lehen Euskal Kongresua antolatu zuen, Pariseko Orsay jauregian; besteak beste, euskal kulturari bultzada berri bat emanez. Euskaltzaindiak bere lehen Batzar Nagusia ospatu zuen Arantzazun eta urte zein leku berean *Jakin* aldizkaria sortu zen. Lehen gau-eskolak ematen hasiak ziren Donostian, eta bestalde, Segura Irratia sortu zen⁶. Ordurako, Arantzazuko basilika berria jada eraikia zegoen eta handik gutxira, Oteiza bere eskulurretan hasiko zen lanean. Izan ere, zenbaiten iritziz, 1956 urte ingurua gerra osteko euskal kulturaren berpizkunde baten hasieratzat har daiteke. Horren harira, "1956ko idazle belaunaldiaren ekarpena nabarmendu zuen batez ere *Jakin*-eko zuzendariak: «Euskara eta euskal kultura zentralitatean jarri ditu belaunaldi horrek»"⁷.

Eta horrez gain, Arrasatera etorruta, garrantzi handia izango zuen gertakari bat eman zen 1956an, ULGOR kooperatiba orduan sortu baitzen; gerora arlo sozio-ekonomiko eta kulturean eragin nabarmena ekarri zuena bailara osoan zehar.

Iraganari buruzko txostenak eratzean, ika-mika ugari sortzen da sarritan, aztertu beharreko aroaren abiapuntuko urtea finkatzeko garaian. Izan ere, euskal gizarteak iragan hurbilean jasan duen motibazio politikoko indarkeriaren azterketari ekitean, zenbait ikerketek 1960 urtea du abiapuntutzat. Beste zenbaitzuk, ordea, 1936 urtea hartu ohi dute indarkeria horren jatorritzat. Egia esan, badira arrazoi anitz aukera bata zein bestea egiteko. Alabaina, txosten honen egileon hautua tirabira horietan ez erortzea izan da, begirada malguago bat behar baita gai honetan ere, memoria partekatu baterantz jo nahi bada.

Jakina, irizpide hori jarraitzeak ez du inolaz ere adierazi nahi 1956 urtearen aurretik, diktadurapean izandako gertakariak albo batean utzi behar direnik, edo 1936ko altxamendu militarretik hasitako gertaerak -edo lehenagoko garaietatik- sakonki aztertzea merezi ez duenik. Aro bakoitzak, ordea, bere ezaugarri propioak ditu eta ez da egokiena izaten dena nahastea, ezta guztiz aldentzea ere; prozesu historiko eta sozialak zatiezinak baitira, aro desberdin horiek zenbait unetan elkar ukituz. Memoria historikoa eta memoria hurbila ez dira bi memoria, sailkapen metodologiko bat baizik, iraganari egitiko begirada errazteko. Bi testuinguru desberdin dira, jendarte mota eta eragileak ere desberdinak, baina, azken batean, memoria eraikitzen doan gizarteak txirikordatu egin ditu bere oroimenak denboraren lokarrian.

Illo horretan, memoria historiko eta hurbilak modu berezian lantzeak ez du zertan eragotzi behar geroan bi memoria horiek era bateratu batean uztartuak izateko. Are gehiago, garai jakin batean, joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, bi memoriak aldi berean gainjarriak agertzen dira, aipaturiko bereizketa gaindituz. Beraz,

⁶ ATXAGA, Mikel. *La implantación del euskera a través de treinta años de historia*, 72. zkia, EUSKAL ETXEA.

⁷ AGIRRE, Lorea. www.berria.eus/ 2017-11-16

egoki deritzogu etorkizun hurbilean euskal lege integral bat onestea, memoria historikoa zein memoria hurbila, biak aintzat hartuko dituen.

Txostenaren hasierako urtearen zergatia azaldu da arestian, eta jarraian, amaiera 2018 urtean kokatzearen arrazoia agertzen da. Azken urteotan, 2011tik aurrera, indarkeria kasu larrienak (bizitza eskubidearen aurkakoak) amaitu badira ere, indarkeria desberdinen ondorioak hor diraute oraindik (biktimen senideak, zaurituak, presoak, kalte psikikoak, mesfidantzak, pintadak,...). Alabaina, denborazko muga bat ipini behar zaio txostenari, ez, noski, memoriari; ezta ere herritar desberdinen artean egin beharreko elkarlanari; horrek segida behar baitu oraindik, zauri asko baitago itxi gabe. Memoriari ezin zaio epe mugarik ipini, ez baitu iraungitze datarik, memoria gordetzen duen komunitateak horri eusten dion artean, behintzat.

Egia esan, txostenaren lanketa ixtear zegoenean eta erredakzio taldea amaierako dataz eztabaidatzen ari zen egun bertsuetan, ETArek desegitearen albisteak etorri da. Jakina, kasualitatez izan bada ere, lan taldeak arrazoi nagusitzat hartu du ETArek amaiera, bere lanari itxierako data emateko gertaera gisa aukeratuz. Beraz, txostenaren zehar jasotako gertakarien zerrenda 2018ko maiatzean amaitzen da, testigantzak biltzeko elkarrizketa gehienak 2017-18ko neguan burutuak baziren ere.

1.2.3. MEMORIA BERRESKURATZEA

Jadanik, urte eta erdi igaro da indarkeria mota desberdinek eragindako bi biktima arrasatearren alabak elkarrekin azaldu zirenetik, *Memoria plazak* antolatutako ekitaldi batean. Bi emakumeek, Olatz Etxabek eta Sandra Carrascok, euren aita galdu zuten atentatu banatan; Iñaki Etxabe, Batallón Vasco Español-ek erail zuen 1975 urtean eta Isaias Carrasco, ETAk erail zuen 2008an. Bi garai, bi testuinguru desberdin, bi atentatu egile, bi bizitza apurtuta, bi familia saminduta,... baina urraketa bat, berbera, giza eskubideen begietara.

Neguko ilunabar hartan, saminarekin batera, oroimena ere partekatu zen eta iragana orainera ekarria izan zen, edo hobeto esanda, norberaren iraganak. Memoria ariketa nabarmen bat izan zen, herriaren aurrean bi sufrimendu mota desberdin agerian utziz. Honelako edo antzeko ariketa ugari beharko dira garai berrietan, zeren eta horiek gauzatu ezean, nekez izango da hurbilketarik eta bizikidetzarik, bizkar emanda egon den jende askoren artean.

Ildo horretan, aurrera bidean, iragana lehenago argitzeak duen garrantziaz, azpimarra merezi dute Olatzek, 2016ko ekimen hartan, esandako hitz batzuek: *Egia, justizia eta erreparazioa beharrezkoak dira. Aurrera egiteko zauriak sendatu behar dira. Nire ustez, biktimok ez dugu politikarik egin behar. Gure paperak pedagogikoa izan behar du. Datozenera erakutsi behar diegu zer gertatu den.*

Gauza bera esan daiteke, hurbileko mina ikusteaz gain, sufrimendu desberdinak eza-gutu eta aitortzearen beharraz, Sandrak eginiko adierazpena: *Gorroto sentimendua aldatu egin da. Lehen ETAko biktimak bakarrik ikusten nituen. Beste aldeko biktimez ez nuen ezer jakin nahi. Baina, ezker abertzaleko batekin hitz egiten hasi nintzen eta lehen ulertzen ez nituen edo nahi ez nituenak ulertzen hasi nintzen.*

Halaber, aipagarria da, atzera begiratu beharraz, indarkeriaz, sufritu duen jendeaz, kontakizunaz eta egiaz, Kirmen Uribek idatzitako galdera zein gogoetaz osatutako pasarte, *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016) eleberrian:

Ze unetan pasatu ginen gu, herri bezala, izotzaldi luze batera? Gure kontzientziek ere orbita aldaketa bat izan al zuten? Zergatik ez genuen aurreikusitako, gizabanako eta gizarte bezala, gerora gertatuko zena? Zergatik ezin izan genuen geratu indarkeria espiral hura? Zergatik isildu ginen askotan? Zergatik ez genuen onartu bestearen sufrimendua? Zergatik bihurtu ginen harrizko, Ondarroako elizako irudi haien antzera?

Ez naiz gai orain galdera horiei taxuzko erantzunik emateko, ez naiz nor sentitzen balizko erantzun horiek neure buruari sinetsarazteko ere. Baina, behinik behin, egun nahi dudana da atzera begiratu eta orduan sufritu zuten guztien lekuan jartzea, beraien mina sentitzearen neurea balitz bezala. Eta ondoren beraiei entzun, banan-banan entzun, nahiz eta haien kontakizunak desberdinak edo kontrajarriak izan; eta gero egiara hurbildu, jakinik egia osagarria dela beti, pieza asko dituen, pertsonak adina agian, eta ikuspegi eta sentipen desberdinak biltzen dituela bere baitan.⁸

1.2.4 TESTIGANTZEN BILKETA

Zuzeneko lekukotzak eta iritziak bildu asmoz, 18 lagunekin burutu dira beste horrenbeste elkarrizketa. Bederatzi emakume eta bederatzi gizon. Adinari dagokionez, solaskideak 30 eta 75 urte artean kokatzen dira. Lau kasutan, elkarrizketatu diren pertsonak hildako biktimen senideak dira (bi alaba eta bi arreba). Horiez gain, beste zortzi biktima edo beraien seme-alabekin ere bildu gara. Nola edo hala, solaskide guztiek lotura dute edo izan dute Arrasaterekin, hemen jaiok izan ala ez; gehienak Arrasaten bertan bizi dira gaur egun.

Elkarrizketak antolatzeke garaian, Memoria eta bizikidetzaren Mahaiak (EAJ-PNV, PSE-EE, EHBildu⁹, Baleike eta Irabazi¹⁰ taldeetako ordezkari politikoez osatuta) proposatutako pertsonengan oinarritzea izan da erabili dugun irizpide nagusia, horrekin batera biktima izaera duten pertsona multzoa izan da beste irizpidea eta hirugarrenik, herri mailan izan dezaketen eragina dela eta, interesgarritzat jotzen genituen zenbait pertsona

⁸ URIBE, Kirmen (2016), *Elkarrekin esnatzeko ordua*. (318-319 or.). Susa: Zarautz

⁹ EHBildu: Sortu, EA, Alternatiba eta independenteez osatutako koalizioa.

¹⁰ Irabazi: Ezker Anitza-IU, EQUO eta independenteez osatutako koalizioa.

ere bai. Azken batean, Arrasaten ematen den iritzi aniztasuna bermatzea izan da gure xede bakarra. Hain zuzen, ez dugu bilatu herritar guztien edota gehiengoaren iritzia jasotzea, hori guretzat ezinezkoa litzateke; baizik eta herriko tradizio politiko, giro edota sentsibilitate desberdinak biltzea eta nola edo hala haiek guztiak ordezkatuta sentitzea. Herritarren gehiengo zabalak bere burua, era batean edo bestean, islatua ikusiko balu, beteta izango luke lan honek bere helburua.

Jarraian, testigantzen atala burutu ahal izateko ezinbestekoak izan diren pertsonen izen abizenak biltzen dira, norberak duen ezaugarriren batekin batera. Euren lekukotzarik gabe hutsune bete ezina geratuko litzateke txosten honetan eta bere zentzua ere galduko luke. Hori dela eta, egitasmo honetan solaskide gisa parte hartzeko egin duten ahaleginarengatik, baita erakutsi duten jarrerarengatik ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei, orri hauetatik. Eskerrik asko!

- **Abalde Galparsoro, Javier.** EMK-ko militante ohia.
- **Agirreurreta Arzamendi, Lourdes eta Guadalupe.** Komando Autonomoek, 1979an, erail zuten Jose Luis Agirreurreta Arzamendiren arrebak.
- **Arantzabal Arrieta, Iban.** *Goiena* komunikabide taldeko zuzendaria.
- **Arrieta Gonzalez, Amaia.** Arizmendi ikastolako irakaslea.
- **Azpiazu Aranburu, Amaia.** EAJ-PNVko zinegotzia.
- **Carrasco Romero, Sandra.** ETAK, 2008an, erail zuen Isaias Carrascoren alaba.
- **Etxabe Okina, Olatz.** BVEk, 1975ean, erail zuen Iñaki Etxaberen alaba eta Triple A-k, 1978an, erail zuen Agurtzane Arregiren iloba.
- **Garcia Raya, Francisco.** PSE-EEko kidea, Arrasateko agrupazio sozialista zuzentzen du 2017ra arte. Zinegotzi Udaletxean (1987-2015 artean). Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide (2003-2009). Legebiltzarkide 2009tik 2012ra Eusko Legebiltzarrean.
- **Garitano Ezkurra, Juan Karlos.** EAJ-PNVko zinegotzia, 1991-1995; 2011-2015 eta 2015- 2019 legealdietan.
- **Jauregi Iza, Maria Dolores.** PSE-EEko zinegotzi Jose Luis Lana zenaren alarguna.
- **Lamarain Cenitagoya, Iciar.** Partido Popularreko zinegotzi ohia Arrasate/Mondragonen, 2003-2011. Euskara, Kultura eta Kiroletako Foru Diputatua Araban, 2011-2015.
- **Monge Sarabia, Julia.** Feminista eta memoria historikoaren ikerlaria Intxorta 1937 elkartean.
- **Sarasua Maritxalar, Jon.** Mondragon Unibertsitateko irakasle, bertsolari eta idazlea.
- **Urrizalki Azpiroz, Ramon.** Kooperatibista jubilatua.
- **Yarza Mendizabal, Jose Ignacio.** EMK-ko zinegotzi ohia Arrasaten, 1979-1983.
- **Yuste Hernandez, Marino.** IU-EBko militantea Debagoiengan.
- **Zugasti Azkarraga, Javier.** IU-EBko kidea eta PCEko militantea gaztetatik.

Arestian, aipatutako pertsoez gain, beste hainbat lagunen elkarlana ere izan dugu hainbat gertakarien inguruko informazioa prestatzean edo egiaztatzean. Eurek emandako laguntza ezinbesteko iturria izan da txostena osatzerakoan. Hori dela eta, kolaboratzaile hauei ere gure esker onik zintzoena adierazi nahi diegu: Maria Ubarretxena

Cid (Arrasateko alkatea), Eneko Barberena Mondragon (EH Bilduko zinegotzia), Oscar Garcia Horrillo (PSE-EEko zinegotzia), Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJko zinegotzia), Igor Urizar Murgoitio (Sí se puede-Baleike taldeko zinegotzia), Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi-Ganar taldeko zinegotzia), Aitor Orobengoa Ortubai (EEko zinegotzi ohia, ISEA S. Coop.eko zuzendaria eta gaur egun LKSn), Olga Fernandez Vicario (Ambrosio Fernandez alaba), Juan Ramon Garai (Intxorta 1937 elkarte), Kepa Ormaetxea Milikua (lau alditan torturatua izan dela salatu duen pertsona), Xabier Zubizarreta Lasagabaster (HBren izenean alkatea 1987tik 1997ra eta 1999tik 2003ra EHren izenean), Jose Luis Etxebarria "Porru" (Udaltzaingoaren buru ohia), Ana Mari Mateos Rodriguez (Jose Antonio Mateosen arreba), Jose Ignacio Gaztañaga Vidaurreta (Crescencia Vidaurretaren semea) eta beste herritar batzuk ere, beste zenbait arlotan.

1.3 KASUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

Giza eskubideen urraketa jasan duten pertsonen gaineko azterketak egiten direnean, eztabaida ugari izan ohi da biktima horien izaera finkatzean. Biktima horiek bere osotasunean har litezke ala euren artean bereizi behar dira lehenik, ezer egin aurretik? Zenbaiten ustez, giza eskubideen urratzailearen arabera sailkatu behar omen dira biktimak, alegia, biktimarioa nolakoa izan, biktima halakoa, eta horren ondorioz, trataerak ere bestelakoak merezi omen dituzte. Azken batean, zilegi ote da biktima batzuk zein besteak begirada berdinean batez aintzat hartzea, gizartearen zein erakunde publikoen aldetik.

Illo horretako hainbat ika-mikaren lekuko izan gara denok. Guk, ordea, eztabaida antzua dela diogu. Izan ere, motibazioa, egoera edota urratzailea nolana hikoia izan delarik, funtsezkoa da nazioarteko zuzenbidearen irizpide orokor bat gogoratzea, non biktimen arteko bereizkeriak ez duen lekurik, hau da, biktima guztiak berdinean dira dagozkien eskubideei dagokienez. Beraz, giza eskubideen urraketa berdinei egia, justizia, aitortpena eta erreparazioa jasotzeko eskubide berdina dagokie. Jakina, horrek ez du kentzen urraketa bakoitzaren baldintzak ondo jasoak izan behar ez direnik.

2005eko abenduaren 16an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, bere 64. osoko bilkuran, 60/147 Ebazpena onetsi zuen: "Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketa eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta arauak". Bertan, XI. printzipioa biktimen arteko bereizketarik ezari buruzkoa da, eta hau dio:

25. Oinarritzko printzipio eta arau hauen aplikazioa eta interpretazioa bat etorriko dira, salbuespenik gabe, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauarekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin, eta ez da inola ere bereizkeria onartuko, mota eta arrazoia zeinahi direla ere.

Alabaina, oinarrizko irizpide hori ukatu nahian, dena nahastuz eta egoera mota guztiak korapilatzeke saiakera bailitzan, kritikatzan da zenbait sektoreren aldetik. Horren harira, egokia deritzogu *Argituzeko* kideok, 2015ean, argitaratutako artikulua berreskuratzea:

Topiko ugari baztertu behar ditugu, arinkeriaz tratatzen baitituzte giza eskubideei loturiko gaiak eta, azken batean, giza eskubideen kontra egiten dute. Azken aldian gehien erabili den topikoetako bat da ezin direla ETaren biktimak eta beste biktima batzuk parekatu, parekaezinak direlako. Dirudienez, beste biktima batzuk ere badaudela aitortuz gero, terrorismoari zilegitasuna ematen zaio. Hala ere, beste biktima batzuk ere aitortzea giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunetan ezarritako betebeharrak betetzea da, eta itun horiek diotena betetzeak inori zilegitasuna ematen badio, Zuzenbide Estatuari ematen dio zilegitasuna, ez terrorismoari.¹¹

Gertatu den guztia ez da berdina; hori egia da. Hala ere, urte hauetan pairatu den sufrimendu guztia bildu behar da, nahastu gabe, modu ordenatuan, batzuk eta besteak alderatu gabe, bizikidetzan berriz ere eraiki ahal izateko. Memoria partekatu batean ezin daiteke ezer ahaztu. Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbide-estandarren arabera sufrimendu guztia giza eskubideen urraketa baten ondorio ez denez, beharrezkoa da gertatutako guztia behar bezala sailkatzea eta ordenatzea, jarrera irekiarekin. (...) Horrez gain, sailkapen horrek inklusiboa izan behar du, biktima guztiek memoriarako duten eskubidea bermatzeko eta euren saminaren bizipena islatua ikus dezaten. Hori dela eta, honako bi esparru bereizi ditugu:

1.3.1 GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

Lan honek aztertzen dituen giza eskubide nagusiak bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikologikorako eskubidea dira. Horrez gain, beste era batzuetako indarkeriei buruzko datuak eta lekukotzak ere jasotzen saiatu gara: askotariko jazarpenak, pertsonen aurkako mehatxu larriak, estortsio ekonomikoa, adierazpen askatasuna ukatzea, askatasun demokratikoak ukatzea edo ondasun higiezinak egindako erasoak, bakoitza bere garrantzi-mailarekin.

Ikusi dugu oraindik ere biltzeko asko dagoela. Horrez gain, pertsona batzuek oraindik ere ez dute behar besteko indarrik edo nahirik hainbeste min eragin dieten gertakariak kontatzeko eta berriz bizitzeko. Beste alde batetik, beste datu batzuk oraindik ez dira publikoak. Hala ere, ezin da itxaron gertatutako guztia argitu eta bildu arte, ekiten jarraitu behar dugu, bizitza aurrera baitoa eta gertakari batzuk, baita haien protagonistak ere, duela berrogeita hamar urte baino gehiagokoak dira. Berandu baino lehen biktimak eta haien familiak zaindu eta lagundu behar ditugu, bai eta dagokiena jasotzen dutela bermatu ere: jasandako kalteekiko proportzionala den erreparazioa, egia eta justizia,

11 ARGITUZ. *No habrá comparaciones si no se discrimina*. El Correo eta El Diario Vasco, 2015-11-05

inolako bereizketarik gabe. Horrez gain, bermatu behar dugu ez dela gauza bera berriz gertatuko eta, horretarako, haien biktimizazioa eragin duten kausetan beharrezko aldaketak egin beharko ditugu.

Aipatu dugun moduan, giza eskubideen nazioarteko arauen urraketak eta giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimei, egia eta justiziaz gain, jasotako kaltearekiko proportzionala den erreparazioa ere badagokie. Erreparazio horrek ondoko elementu hauek hartuko ditu barne: lehengoratzea, kalte-ordain ekonomikoak, birgaitzea, beharrak asetzea eta errepikatuko ez dela bermatzea. Eta hori erakundeen artean egin behar da.

Horri dagokionez, Arrasateko Udalak, udalerrri-mailan, dagozkion jarduketak egiten jarraitu beharko du memoria berreskuratzeari eta udalerriko biktimak aitortzeari dagokionez, eta falta diren kasuak txertatu beharko ditu. Hauek dira, besteak beste, bere egitekoak: laguntzea, omenaldiak egitea, oroitzeko ekitaldiak egitea, gertatutakoa hainbat bitartekoren bidez ezagutaraztea (topaketak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hezkuntza eta transmisiorako proiektuak, ...), behar bezala argitu ez diren gertakari buruzko tokiko ikerketak sustatzea, ... Horretarako, mesedegarria izango litzaiteke erakundeen arteko koordinazioa, sinergiak elkartzeko, informazioa eta irizpideak trukatzeko eta lan bera ez bikoizteko.

1.3.2 **BESTE SUFRIMENDU BATZUK**

Ikuspegi juridiko batetik, aurreko atalean aztertu diren urraketa egoerez gain, badaude beste hainbat kasu nazioarteko giza eskubideen estandarren arabera zehazki giza eskubideen urraketatzat hartzen ez direnak. Gertakari horiek ez dira sartzen Nazio Batuek, Europar Batasunak edo estatuko zein erkidegoko legediak ematen duen biktimaren definizioan; zehaztapan horiek guztiak txosten honetako 2. atalean ageri dira, biktimaren araudi esparruari, biktima kontzeptuari eta eskubideei buruzkoan.

Aipatutako egoerek bere konplexutasuna eduki arren, izaera politikoa duten gertakari bortitzak dira, baina ezin dira inolaz ere giza eskubideen urraketekin alderatu. Hala ere, ezin dira bazter utzi, gure historiaren parte direlako eta gertakari bortitz horien atzean ere sufritu duten eta sufritzen duten gizakiak daudelako. Gainera, kasu batzuk ez dira behar bezala ikertu, familia eta abokatu batzuen iritziz, eta zauriak benetan ondo osatu nahi baditugu beharrezkoa da horiek argitzea.

Nolanahi ere, badaude hiltzaileak, baita hildakoak ere. Baina indarra modu desegokian erabiltzeko kausak, egileak, helburuak eta asmoak ez dira berdinak, ezta ere zigorgabetasun-mekanismoak, hartutako erantzukizuna etab. Elementu horiek guztiak argitu beharko lirateke.

Esparru honetan, kasuistika zabala topa dezakegu, edozein modalitate eta posiziotan, batzuek tiro egitea erabaki dute, eta beste batzuek ez. Pertsonaren batek gainean arma bat badarama, une zehatzen batean arma hori erabiltzeko prest dagoelako da. Hala ere, baliteke beste norbaitek lehenago berari tiro egitea. Edonola ere, zaila da giza eskubideen eremuan kokatzea borrokalari armatua izatea erabaki duen norbait, segada "estrajudizial" batean erailtzen ez badute behintzat. Hala ere, horretarako, pertsona horrek armak erabiltzeko batere asmorik ez zuela ziurtatuko duten lekukoak, behar dira. Egoera eztabaidagarria, baina gerta zitekeena.

Horregatik, kasu hauek beste atal batean jaso dira, argi eta garbi gera dadin zer den eskubideen urraketa bat eta zer ez. Horrekin, gainera, ahal den neurrian gaizki ulertuak ere saihestu nahi dira, gertatuko diren arren. Eta hori ulergarria da hainbeste urtetan pilatu den mina eta gorrotoa kontuan hartuta.

Giza eskubideen urraketa larria jasan duten biktimen prozesua era egokian bideratu ondoren, Arrasateko Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien adostasunez, eman beharreko hurrengo urratsak zehaztu beharko lituzkete, nazioarteko estandarren arabera giza eskubideen urraketatzat hartu ezin diren gertakari horietan bizia galdu edo larriki zauritu ziren pertsonak udalerrri-mailan nola oroitu aztertzeke.

2. ARAU-ESPARRUA: *BIKTIMA* KONTZEPTUA ETA HAREN ESKUBIDEAK

Orri hauen helburua da azalpen bat ematea, laburra bada ere, biktima kontzeptua zehazten eta haien eskubideak mugatzen dituzten arau nagusien -eta giza eskubideen nazioarteko sistemako beste tresna batzuen- irismena eta edukia ulertzen laguntzeko. Horretarako, nazioarteko esparrua zehaztuko dugu, gero Europako nazioz gaidikoa aipatuko dugu, eta, azkenik, estatukoa eta autonomikoa. Nolanahi ere, ez da tresna horietako bakoitzaren azterlan zorrotz bat; aldiz, biktima kontzeptua eta haien eskubideak zehazterakoan erabakigarriak izan direnak aztertuko ditugu labur-labur.

Aurretik, aipatu behar da nazioarteko nahiz barneko arau-esparruan biktimen aitortza nahiko berria dela, bai zentzurik zabalenean bai zuzenbideko subjektu gisa. Zuzenbide Penal tradizionalak delituaren arduradunean jartzen zuen arretoa, biktiman jarri ordez. II. Mundu Gerran eragindako giza hondamendien ondorioz sortu ziren biktimen eskubideak defendatzeko mugimenduak eta korronteak. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da Jerusalemen egin zen Biktimologiaren I. Sinposioa (1973): han jaiotzen baitzen biktimologia diziplina zientifiko gisa. Ondorengo hamarkadetan onartu zituzten nazioarteko erakundeek eta estatuak biktimen aldarrikapenak.

2.1. *BIKTIMA* IZAERAREN ETA *BIKTIMAREN* ESKUBIDEEN INGURUKO NAZIOARTEKO ADIERAZPENAK ETA GOMENDIOAK

Nazioarteko adierazpenak, gomendioak eta beste dokumentu batzuk erabakigarriak izan dira biktimei egia, justizia eta erreparaziorako eskubideak bermatzeko. Egia da arau-ikuspuntu batetik estatuentzat ondorio loteslerik ez duten dokumentuak diren arren, badutela indar lotesle "moralak". Aldaketak eragiten dituzte legerietan eta, horretarako neurri egokiak hartu direnean, bidea eman dute biktimen eskubideak neurri batean gauzatzeko.

Hasteko, Nazio Batuetan 1985ean onetsitako aitortpena aipatuko dugu. Testu horrek ematen du *biktima*-ren lehenengo definizioa, eta "delitua" edo "botere-gehiegikeria" pairatu duten pertsonen eskubideak aitortzera dago bideratuta.

2.1.1. **BIKTIMA KONTZEPTUA: DELITUAREN ETA BOTERE-ABUSUAREN BIKTIMENTZAKO JUSTIZIAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOEI BURUZKO ADIERAZPENA (1985)12**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean berariaz aitortu zuen munduan milioika pertsonak jasan zituztela “botere-abusuaren eraginpeko delituen eta beste ekintza batzuen ondoriozko kalteak”, eta horien eskubideak ez zirela aitortu.

Adierazpen horretatik abiatuta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Deklarazioa Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarritzko Justizia Printzipioen gainean” idatzi zuen. Horren helburua izan zen nazioarteko komunitateari eta estatuei laguntzea kalte-tuei eskatzen zuten laguntza ematen.

Horretarako, adierazpenean *biktima* izendapenari ematen zaio definizioa adierazpenearen beraren ekarpen nagusietako bat dela esan daiteke. Are gehiago, 1985ean sortutako kontzeptuaren funtsezko elementuak, ondoren ikusiko ditugunak, gerora beste biktima-kategoria batzuekin arduratu diren nazioarteko hainbat tresnek bereganatu dituzte.

• **A. -Delituen biktimak**

1. *Biktima-tzat joko dira banaka edo taldeka kalteak (lesio fisikoak edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarritzko eskubideen gutxieste nabarmena pairatu duten pertsonak, gertaera horiek Estatu Kideetan indarrean dagoen legeria penala (botere-gehiegikeria debekatzen duena barne) urratzen duten ekintzen edo hutsegiteen ondorioz gertatu badira.*
2. *Biktima-tzat jo ahalko da pertsona bat, adierazpen honekin bat etorritik, egilea identifikatu, harrapatu, epaitu edo kondenatu den gorabehera, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen ahaidetasun-lotura gorabehera. Halaber, biktima kontzeptuak barne hartzen ditu biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu diren pertsonak ere.*
3. *Adierazpen honetako xedapenak pertsona orori ezarri ahalko zaizkie, inolako bereizketarik gabe (arrazak, kolorea, sexua, adina, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoa edo bestelakoa, uste edo jardura kulturalak, egoera ekonomikoa, jaiotza edo familia-egoera, jatorri etnikoa edo soziala edo ezintasun fisikoak).*

Adierazitako definizioan, Nazio Batuek “delitu” baten *biktima* kontzeptuaz sartutako elementu definitzaileak honako hauek izango lirateke:

- Biktima da estatu kideetan indarrean dagoen legeria penala urratzen duten ekintza edo hutsegiteen ondorioz kalteak pairatu dituen pertsona oro.

12 Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarritzko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean hartua. Honako honetan dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

- *Kalte-tzat* zer jo daitekeen zehaztean, adierazpenak zabal jokutzen du; izan ere, kaltetzat jasotzen ditu lesio fisikoak edo burukoak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideak nabarmen gutxiatea.
- Halaber jokutzen du zuzeneko biktimak aintzat hartuta, zeharkako biktimak ere aintzat hartzen dituenean. Ildo horretatik, biktimak dira biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu direnak ere”.
- Halaber, beste zehaztapen garrantzitsu bat egiten du, txosten honetarako garrantzitsua dena. Zehazki, hau esaten duena da: **pertsona bat biktimatzat jotzeko, ez da beharrezkoa kaltearen eragilea “identifikatua, atxilotua, jazarria edo errudun izendatua” izatea.**¹³

Eskubide hauek aitortzen dira: justiziarako sarbidea eta justiziaren bidezko tratua; ordainak ematea; kalte-ordainak ordaintzea; laguntza materiala, medikuarena, psikologikoa eta soziala.

Biktimen lehenengo taldearekin (“delituena”) jarraitutako bideari jarraituta, adierazpenak “botere-gehiegikeria” kontzeptua definitzen du: ekintza edo hutsegiteen bidez barneko zuzenbide penalaren urraketatzat jo daitezkeenak paratzen dituztelarik, gertakari horrek urratu egiten du giza eskubideen inguruko nazioarteko araua eta, horrenbestez, kaltetutako pertsonen biktima-izaera aitortzen zaie.

• B. -Botere-gehiegikerien biktimak

18. *Biktima-tzat joko dira: nazioko zuzenbide penalaren urraketa izatera iristen ez diren baina nazioartean giza eskubideen esparruko arauak urratzen dituzten ekintza edo hutsegiteen ondorioz, banaka edo taldean kalteak (lesio fisiko edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideen gutxiespen nabarmena pairatu duten pertsonak.*
19. *Estatuek aztertu egingo dute botere-gehiegikeriak debekatzeko eta gehiegikeria horien biktimei irtenbideak emateko arauak txertatzea legeria nazionalean. Zehazki, irtenbide horien artean daude ordainak ematea eta kalte-ordainak ordaintzea, bai eta beharrezko laguntza eta babes materiala, medikuarena, psikologikoa eta soziala ematea ere.*
20. *Estatuek aztertu egingo dute biktimen inguruko (18. paragrafoan definitu dira) nazioarteko itun multilateralak negoziatzeko aukera.*
21. *Estatuek maiztasun jakin batekin berrikusiko dituzte indarrean dauden legeria eta jardunbidea, egoera aldakorretara egokitzen direla bermatzeko. Halaber, botere politikoaren edo ekonomikoaren gehiegikeria larriak eragiten dituzten egintzak debe-*

¹³ Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarriko printzipioei buruzko adierazpena, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean (2. paragrafoan) jaso.

katzeko legeak onartuko eta aplikatuko dituzte, eta beste horrenbeste egingo dute egintza horiek saihesteko neurri eta mekanismoekin. Bestalde, egintza horien biktimetarako eskubide eta baliabide egokiak ezarriko dituzte, horiek baliatzea erraztuz.

22. Zenbait urteren buruan, 2005eko abenduan, Nazio Batuen Asanblada Nagusiak, delitu-biktimaren definizioa oinarri hartuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketen biktimen eskubideak babesteko printzipio- eta zuzentarau-sorta bat onetsi zuen, ondoren ikusiko dugunez.

2.1.2. BIKTIMEK JUSTIZIARAKO ETA ERREPARAZIORAKO DITUZTEN ESKUBIDEAK:

Giza eskubideen nazioarteko arauetan adierazitako urraketen biktimek eta zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioak eskuratzeko duten eskubideari buruzko oinarriak eta jarraibideak, 2005ekoa.¹⁴

2005eko abenduaren 16an, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketak pairatu dituzten biktimek errekurtsioak aurkezteko eta erreparazioak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak onartu zituen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Honako hau izango da *biktima* kontzeptua:

- "V. Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen ageriko urraketen biktimak, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimak.*
8. *Agiri honen ondoreetarako, biktimatzat joko dira giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak edo nazioarteko zuzenbide humanitarioa larriki urratzen dituzten ekintza edo hutsegiteen ondorioz banaka edo taldean kalteak (lesio fisiko edo burukoak barne), sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo funtsezko eskubideen gutxiespen nabarmena pairatu duten pertsonak. Hala dagokionean eta barneko zuzenbidearekin bat etorruta, biktima kontzeptuak barne hartzen ditu biktimarekin zuzeneko lotura duten senide edo mendeko pertsonak, bai eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa saihesteko esku hartzean kaltetu diren pertsonak ere*
9. *Pertsona bat biktimatzat joko da, urraketaren egilea identifikatu, harrapatu, epaitu edo kondenatu den gorabehera, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen ahaidetasun-lotura gorabehera".*

Printzipio horiek giza eskubideen urraketa larrien biktimei aitortzen dizkiete aurreko biktimei aitortzen zitzaizkien eskubide orokorrak. Halere, eskubide jakin batzuk hedatu egiten dira (hala nola, asebetetzeari eta ez errepikatzeari lotutako neurriei dagozkienak). Hitzez hitz, estatuei honako betebeharrak ezartzen zaizkie:

¹⁴ 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua. Hemen dago eskuragarri: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

- a. *Lege- eta administrazio-xedapenak eta beste neurri egoki batzuk hartzea urratzeak eragozteko.*
- b. *Urraketak eraginkortasunez, azkar, osorik eta inpartzialki ikertzea, eta, hala badagokio, neurriak hartzea ustezko arduradunen aurka, barneko eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorrira.*
- c. *Giza eskubideen edo zuzenbide humanitarioaren urraketen biktima direla diotenei justiziarako sarbide bidezkoa eta eraginkorra ematea (aurrerago deskribatuko den moduan), urraketaren arduraduna azkenean zein den gorabehera.*
- d. *Biktimei baliabide eraginkorrak ematea, baita erreparazioa ere, aurrerago deskribatzen den moduan¹⁵.*

Zehazki, biktimek eskubide hauek dituzte: a) gizatasunez tratatuak izateko eta beren duintasuna eta giza eskubideak errespetatzeko; b) jasandako kaltearen erreparazio egokia, eraginkorra eta azkarra izateko; eta d) giza eskubideen urraketari eta erreparazio mekanismoei buruzko bidezko informazioa eskuratzeko.

Urraketen biktimek erreparazioa izateko eskubide hori giza eskubideei buruzko nazioarteko xedapenetan eta tratatuetan ezarrita dago¹⁶.

Erreparazioak erreferentzia egiten dio estatuak giza eskubideen urraketengatik eragindako kalteak zuzentzeko hartu behar dituen neurri multzoari. Erreparazioa jasandako urraketen larritasunarekin eta kaltearekin proportzionala izan behar da. Bidezko erreparazioa ez da hartu behar konpentsazio ekonomiko hustzat, eta, kasuen arabera, hone-lakoa izan daiteke: **lehengoratzea, kalte-ordaina, errehabilitazioa, asebetetzea eta berriz ez gertatzeko bermeak.**

Lehengoratzeak, dagokionaren arabera, honako hauek hartzen ditu barruan: askatasuna berrezartzea, giza eskubideez gozatzea, identitatea, familiako bizitza eta herritar-tasuna, bizitokira itzultzea, berriro lanean hastea eta ondasunak itzultzea.

Europako esparruan, biktimen eskubideak jasotzen dituen tresna nagusia hau da:

¹⁵ 60/1947 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua, 3. parag.

¹⁶ Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna (2. art.), Arrazagatiko Diskriminazio Modu guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Ituna (6. art.), Torturaren aurkako Ituna (14. art.), eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (39. art.). Delituen eta Botere Abusuaren Biktimentzako Oinarritzako Justizia Printzipioen Deklarazioa, legedia nazionalean tipifikatutako delituetan arretoa jartzen duena, bai eta botere abusuetan ere, besteak beste, giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren nazioarteko zuzenbidearen urraketak barne hartzen dituztenak; Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna (7. art.); Giza Eskubideei buruzko Amerikar Ituna (25. art.); Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren erabakiak. Horiek ere aitortzen dituzte biktimen eskubideak. Azkenik, Erromako Estatutuak ezartzen du Nazioarteko Gorte Penalaren eskumena "biktimei edo haien kausadunei eragindako kalte-galeren irismena eta tamaina erabakitze" eta "zuzenean kondenatuaren aurkako erabaki bat emateko, adieraziz biktimei eman beharreko erreparazio egokia, besteak beste lehengoratzea, kalte-ordaina eta errehabilitazioa" (75. art.). Ikus. "Protección Jurídica Internacional de los derechos humanos durante los conflictos armados", Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2011, 96. eta 97. or.

2.2. BIKTIMAREN ESTATUTUA EUROPAR BATASUNEAN

2012ko urriaren 25ean onartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituena¹⁷.

Zuzentarau honek biktimari buruz ezartzen duen definizioa ez dago Nazio Batuek emandakoarengandik urrun. Hori horrela, 2. artikuluan, biktima honela definitzen da: "kalte edo galeraren bat jasan duen pertsona fisikoa, bereziki lesio fisikoak edo mentaltak, kalte emozionalak edo galera ekonomikoa, arau-hauste penal batek zuzenean sortua". Era berean, zeharkako biktimaren kontzeptua jasotzen du eta, gainera, haren baldintzari eusten dio, arau hauslea identifikatu, atxilotu, akusatu edo kondenatua izan den gorabehera".

Zuzentarau hori, ekintza legegile gisa, **Europar Batasuneko kide guztiak nahitaez bete behar dute**; hala, EBko herrialde guztiak bete beharreko helburu bat ezartzen da, baina herrialde bakoitzak banaka erabaki behar du hori nola egin. Zuzentarau horrek biktimei aitortzen dizkien eskubideak gutxienekoak dira, hau da, **estatuek nahitaez errespetatu behar dituzte, eta Zuzentarauak emandako babes eremua areagotu dezakete, baina inola ere ez murriztu**.

Zuzentarau horretan, biktimak eskubide askoren titularrak dira; eskubide horiek multzo hauetan bana ditzakegu: informaziorako eskubidea, prozesuan parte hartzeko eskubidea, babesteko eskubidea, laguntzarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea¹⁸.

2.3. ESTATUKO LEGERIA

Espainiako legedian, biktimen eskubideei buruzko araudiaren sorrera eta garapena ez da beti modu berdinean egin. Azken hogeita hamar urteotan hainbat arau onetsi dira eta, horri esker, Estatuak biktimei eskaintzen dien estaldurak nolabaiteko bilakaera izan du, kalte-ordainak jasotzeko eskubidea eta lehengoratzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

90eko hamarkadaren erdialdean, **35/1995 Legea, Indarkeriazko Delituen eta Sexu-askatasunaren aurkako Delituen Biktimak Laguntzeko eta Sorostekoa**, onetsi zen, modu orokorrean, baita **hori garatzen zuen araudia ere**¹⁹. Delituen biktima guztiak zuzentzen zaien araudi hori aurrerapauso handia izan zen biktimen eskubideen aitortzari

17 Hemen dago eskuragarri: <http://www.boe.es/doue/2012/315/L00057-00073.pdf>

18 Saikapen hori egin dute egile hauek, besteak beste: ECHEBURUA ODRIOZOLA, Enrique / BACA BALDOMERO, Enrique / TAMARIT SUMALLA, Josep Maria edo PEREZ RIVAS, Natalia.

19 738/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 23koa, delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa.

dagokionez. Arauaren indarraldia gaur eguneraino luzatzen da, eta erreferentziako araua izango da delituen biktima gehienentzat.

Handik urtebetera, terrorismoaren biktimen tratamendua inoiz baino modu osatuago eta xehatuagoan arautu zen, terrorismoaren arloko delituen biktimek jaso beharreko laguntza eta ordainen araudia onetsi zenean, **uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretuaren bidez**. Araudi horrek bereizi egiten zituen terrorismoaren biktimak eta indarkeria- edo sexu-delituen biktimak. Dekretuaren helburua zen eskaintzen ziren laguntzak modu kualitatibo eta kuantitatiboan hobetzea eta terrorismoaren biktimei laguntza integral pertsonalizatua eskaintzea. Araudi horretan aipagarria da **ordaina dakarten kalteen** kontzeptua zabaldu egiten dela, eta merkataritzako nahiz industriako establezimenduek eta ibilgailuek jasandako kalteak ere bertan sartzen direla. Xede hauetarako laguntzak ere gehitzen dira: ikastekoak, gizarte- eta psikologia-laguntzakoak (senideentzako laguntza psikologikoa eta psikopedagogikoa barne), kalte materialen-gatiko ordaina eta terrorismoaren biktimen elkarteei diru-laguntzak ematea²⁰.

1999an bi arau garrantzitsu hauek onetsi ziren: alde batetik, abenduaren 23ko 1974/1999 Errege Dekretua, Terrorismoaren Biktimei Aitorpen Zibila egiteko Errege Aginduaren Erregelamendua onartzen duena; horrek kalte-ordainena edo laguntzarena ez beste alderdi bat garatzen du, eta xede du biktimen kolektibo hori aitortzea eta omentzea, eta ohore-dominak ematea ekintza terroristetan hildako pertsonen, zaurituei eta bahituei, euren memoria ohoratzeko. Beste alde batetik, **urriaren 8ko 32/1999 Legea, terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustekoa**; horren xede nagusia da bermatzea kaltetuek dagokien zenbatekoa jasotzen dutela delituaren egilearengandik, kalte-ordain zibilen bitartez. Hala, zenbateko ekonomiko horiek Estatuak ordaindu beharko ditu, baita jarduketa judizialak egin ondoren kalte-ordain horiek aitortzeko epai irmorik ez dagoenean ere²¹.

Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimei dagokienez, 2007an **abenduaren 26ko 52/2007 Legea** edo Memoria Historikoaren Legea onetsi zen, biktima horien eskubideak gainerakoengandik bereiz arautzeko (Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen). Lege hori hainbatek kritikatu dute, baita nazioarteko organismoek ere, ez delako guztiz gai biktima horien egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea bermatzeko²².

20 Neurri berri horiei aurrekontuetan estaldura emateko, bi arau hauek onetsi ziren: abuztuaren 1eko 13/1997 Legezko Errege Dekretua, terrorismoaren biktimen aldeko Loteria Nazionalaren zozketa bat egiteko baimena ematen duena, eta urtarrilaren 23ko 73/1998 Errege Dekretua, loteriaren zozketa bidez lorturiko irabaziak biktimentzako laguntzetan banatzeko irizpideak arautzen dituena.

21 Horrez gain, aipatu behar dugu 2004an Terrorismoaren Biktimei Babesa Emateko Goi Komisariora sortu zela, abenduaren 17ko 2317/2004 Errege Dekretuaren bidez. Organo hori Gobernuko Presidentetzaren mende zegoen zuzenean, eta, besteak beste, Estatuako Administrazio Orokorreko organo eskumendunen jarduketan jarraipena egiten zuen, koordinatu egiten zituen eta lankidetzan aritzen zen, terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza emateko. Hala ere, handik bi urtera, organo hori ezabatu egin zen, irailaren 8ko 990/2006 Errege Dekretuaren bitartez.

22 Bortxazko edo Nahitaezko Desagertzei buruzko Nazio Batuen Lantaldearen txostena. Espainiako misioa. NBERen dok.: A / HRC/27/49/Add.1, 2014ko uztailaren 2koa.

Bukatzeko, aipatu beharra dugu **irailaren 22ko 29/2011 legea, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babestekoa, baita hura garatzen duen dekretua ere**²³. Lege horrek testu bakarrean elkartzen ditu kolektibo horren eskubideak arautzen dituzten arau guztiak, eta eskubideak areagotzen ditu.

Legearen hitzaurrean, honako xede nagusi hau ezartzen da: biktimak omentzea eta aitortzea, eta errespetua eta elkartasuna adieraztea. Memoriaren, duintasunaren, justiziaren eta egiaren printzipioek indar handia hartzen dute lege horretan. Araudi horren azken helburua da biktimei erreparazio osoa ematea, eta araudia atzeraeraginez aplikatzen dakieke **1960ko urtarrilaren 1etik** aurrera gertatutako egintza guztiei.

Horretarako, izaera integrala duten hainbat neurri hartu dira, xede hauekin: biktimen eta haien memoria aitortzea eta duintasuna sustatzea, babes osoa ematea, ordainak jasotzeko eskubidea bermatzea, arreta-neurriak indartzea, biktimen eskubideak aitortzea, kalte-ordainei loturiko administrazio-izapideak malgutzea eta koordinatzea, biktimen tratamendu prozesalean esparru zehatz bat ezartzea eta, azkenik, mehatxuak eta hertsatzea jasaten dituzten pertsonen behar duten aitortza eta laguntza ematea.

Lege horren edukiaren onuradunak hildako pertsonak eta haien senideak, kalte fisiko edo psikologikoak jasan dituztenak eta kalte materialak jasaten dituztenak izango dira. Halaber, ohorezko eran titularrak izango dira eta ohore-domina jasoko dute hildakoen senideek, odolkidetasunezko bigarren mailara arte, eta atentatu terrorista bat jasan duten baina lesiorik pairatu ez duten pertsonak. Berritasun aipagarria da araudiaren hartzaileen artean mehatxatutako pertsonak ere sartu izana.

Azkenik, aipatzekoa da 4/2015 Legea, Delituaren Biktimaren Estatutuarena²⁴, eta 1109/2015 Errege Dekretua, abenduaren 11koa, Legea garatzen duena eta Delituaren Biktimen Laguntza Bulegoak zehatz araupetzen dituen.

Europako araudiarekin bat etorrira, arau hori 2. artikuluan bildutako irizpideak betetzen dituztenei aplikatuko zaie:

"2. artikulua. Esparru subjektiboa. Biktimaren kontzeptu orokorra

Lege honen xedapenak aplikatzekoak izango dira:

- a. *Zuzeneko biktima gisa, bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisiko ororentzat, bereziki delitua egiteak zuzenean eragindako lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak badira.*

²³ 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Araudia onartzen duena.

²⁴ 671/2013 Errege Dekretua, irailaren 6koa, 29/2011 Legearen Araudia onartzen duena.

b. Zeharkako biktima gisa, delitu batek zuzenean eragindako pertsona baten heriotza edo desagertzea dagoenean, egitateen erantzuleak badira izan ezik:

1.a Legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidearentzat eta hiltzeko edo desagertzeko momentuan haiekin batera bizi ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabentzat; heriotza edo desagertzea gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsonarentzat eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren horren seme-alabentzat; zaintzapean zituen guraso eta ahaideentzat –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoretzapean edo familia-harreraren araubidepean dauden pertsonentzat.

2.a Aurrekorik izan ezean, lerro zuzeneko gainontzeko senideentzat eta anai-arrebentzat, horien artean biktimaren legezko ordezkariak duena lehenetsita.

Lege honen xedapenak ez zaizkie aplikatuko delituaren ondoriozko kalteak nozitu dituzten hirugarrenei”.

2.4. AUTONOMIA-ERKIDEGOKO LEGERIA

Biktimek dituzten eskubideen errekonozimenduaren arloko jarduna terrorismoaren biktimei zuzendutako laguntzen programa batekin hasi zuen Euskal Autonomia Erkidegoak; **221/1988 Dekretuak, abuztuaren 4koak**, arautu zituen laguntza horiek. Honako laguntza hauek jasotzen zituen dekretuak: lehentasunezko laguntza psikopedagogikoa Eskolaurreko eta OHOKo ikasleentzat; ikasketa-bekak; garraio eta jantokirako laguntzak; doako osasun-laguntza halako laguntza baten onuradun ez ziren kalteentzat; enpresei zuzendutako laguntzak, abal eta diru-laguntzen bidez; partikularrei zuzendutako laguntzak, beren ondasunei kalte egin zaienean.

Hainbat urtean eztabaida sakonetan sartuta ibili ondoren, esparru honetako araudia osatu egin zen 2008an azkenean, **ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Euskadiko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa**, onartuta. Arau horren xedea ETAREN biktimei ez ezik beste talde armatu batzuen biktimei ere laguntza eta babesa ematea da, hala nola GALen, eskuin muturreko taldeen eta beste talde parapolizial²⁵ batzuen biktimei. Lege-testuan, III. Titulua nabarmentzen da, biktimei zuzendutako laguntzei buruzkoa, non terrorismoaren biktimei laguntza integrala ematera zuzendutako neurrien multzoa jasotzen den (kalte materialak erreparatzeko laguntzak,

25 “Parapolizial” terminoa gero eta gehiago erabiltzen da, eta, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak kaleratutako txostenaren arabera, hauek hartzen ditu barnean izendapen horrek: “bereziki trantsizio politikoaren urteetan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan segurtasun-indarren adostasunarekin eta zenbaitetan segurtasun-indarren zuzeneko parte-hartzearekin (ekintza klandestinoetan parte hartuz edo segurtasun-indar gisa bete beharreko zereginetatik kanpo, baina laguntza aktibo edo pasibo batekin) jardun zuten kolektibo edo taldeak”. 2008ko ekaina, 307. or.

laguntza eta tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntzarako laguntzak, etxebizitza eta enplegurako laguntzak²⁶.

2010eko abenduaren 15ean, **azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua**, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena, argitaratu zen EHAAn (239. zk.). Araudi horren bidez, 4/2008 Legeko III. Tituluan jasotzen den edukia garatu zen, eta han aurreikusitako babes-sistemaren eta laguntza integralaren aplikazioan aurrera egitea lortu zen horrela.

Aipatutako arau horretan aurreikusitako sistema integralaren barnean, hainbat neurri hartzen dira esparru hauetan: kalte materialen ordaina emateko jarduketak; kalte materialen prebentziorako jarduketak, hala nola mehatxatutako edo jazartitako pertsonen etxebizitzetan, establezimenduetan edota ibilgailuetan segurtasun-sistemak ezartzea; laguntza juridikoa; osasunaren eremua eta laguntza psikologikoaren eremua; irakaskuntzaren eremua; enplegu-politikak; funtzio publikoa (funtzio publikokoak diren biktimei hainbat eskubide emateko aukera hartzen du kontuan Legeak); etxebizitzaren eremua; eta aparteko laguntzak, Legeak babesten ez dituen premiazko egoera pertsonalei edo familiarrei erantzuteko.

Horrez gain, nabarmendu beharra dago azken urteotan esparru arau-emaile hori motibazio politikoko indarkeriaren biktimen beste kategoria batzuetara hedatzen ere hasia dela, euskal kasuan. Hala, ildo horretatik, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 31n, **Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasa dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez Besteko Proposamena** onartu zuen; aipatutako proposamen horretan, biktimok aintzat hartzeko eta haien sufrimendua arintzeko neurriak eta ekintzak abiarazteko eskatzen zitzaion Eusko Jaurlaritzari. **Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean**, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako **giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko**, ekarri zuen horrek une hartan; diktadura frankistan Euskal Autonomia Erkidegoan bitako indarkeria-egoerari egiten zitzaion erreferentzia horrela.

Dekretu horrek barnean hartzen zuen denbora-esparru mugatua oztopo zen 1978ko abenduaren 29az geroztik izan ziren giza eskubideen urraketan biktimei egia, justizia eta erreparaziorako zituzten eskubideak betetzeko. Beraz, eta biktima horiei laguntzeko asmoarekin, berriki **12/2016 Legea, uztailaren 28koa, onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko**²⁷; 1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean eta motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan izan diren giza eskubideen urraketan biktimei aitortpena egin eta ordaina eman nahi zaie horrela.

26 DE LA CUESTA, 31-32. or.

27 Txosten hau aurkezteko unean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurso bat tramitatzen ari da Konstituzio Auzitegian 12/2016 Legearen aurka.

12/2016 Legeak hiru baldintza xedatzen ditu, giza eskubideen urraketa bat lege horren aplikazio-eremuan sar dadin: a) motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatu izana; b) urraketa horretan funtzionario publikoek nahiz norbanakoek parte hartu izana, hala taldean jardunez nola bakarka; eta, c) giza eskubideen urraketaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin izana. Gainera, Legean jasotzen diren giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztutako salaketak ikertu ez diren kasuetan, Legearen aplikazio-eremuan sartuko litzateke defentsa-gabezia ere.

Azkenik, nabarmendu beharra dago 12/2016 Legeak, biktimei laguntza ekonomikorako eta osasun-laguntza egokia jasotzeko eskubideak bermatzeaz gain, beste eskubide batzuk ere ematen dizkiela, errekonozimendu publikorako eskubidea edota egia jakiteko eskubidea, esate baterako. Kontuan hartuta, betiere, jasandako bidegabekeriaren errekonozimendurako lehen bide bat dela kalte-ordaina, baina ez bakarra.

Argi eta garbi ikusi ahal izan denez, bada lege-esparru oso bat, nazioarteko arauetan oinarritzen eta autonomia-erkidegoko legedian garatzen dena, biktimei eskubideak babesteko eta defendatzeko xedez. Hala ere, ñabardura bat egin nahi dugu: gai horren inguruan estatuan eta autonomia-erkidegoan dauden arauak ez dituzte kontuan hartu orain ate euskal kasuan izan diren biktima guztiak.

Ildo horretatik, ETaren indarkeriaren biktimek, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea (1999) onartu zenetik, lege-esparru bat izan dute, eta esparru hori indartu egin da gerora Euskadiko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legearekin (2008) eta, 2011n, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearekin. Dena den, Segurtasun Indarrek –edo horien adostasunarekin–, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek eragindako indarkeriaren biktimei kasuan, esan beharra dago horietako gehienak ez direla behar bezala errekonozitu. Hala ere, ezin da ukatu giza eskubideen zapalketa larrien biktima direla, bizitzeko eskubideari edota osotasun fisiko eta psikikorako eskubideari dagokienez, esaterako, eta azken kasu horretan leudeke torturarekin lotutako kasuak. Tratu anker, gizagabe eta iraingarririk ez jasotzeko eskubidearekin lotutako urraketak nahitaez jaso beharrekoak dira, ez baitaie batera jaramonik egin horrelako salaketei: ez dira ikertu, eta salaketen ia % 100 artxibatu egin dira.

2017ko abenduan aurkeztu ziren *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*, Kriminologiaren Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzaren aginduz eginiko lana.²⁸ Ikerketak baieztatu egin du torturen eta/edo tratu txarren 4.113 salaketa motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan. Ikerketa honek argia eman du ezkutuan iraun duen eta ukatu egin den fenomenoaren inguruan, eta gogoan hartu behar da egoera horrek berbiktimizatu egin dituela ukitutako pertsonak.

²⁸ Dokumentua lotura honetan eskura daiteke: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10774/CONCLUSIONES_-_Investigacion_tortura-malos_tratos_18-12-2017.pdf

Esan beharra dago, dena den, biktimen eskubideen aitortza eta babesaren esparruko asimetria hori konpentsatu egin dela, neurri batean, azken sei urteotan. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa, onartuz lehenengo. Eta, berrikiago, beste hau onartuz: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Bi arauon bidez, giza eskubideak zapaldu zaizkien biktimek –segurtasun-indarrek, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek 1960tik 1999ra bitartean egindako giza eskubideen urraketen biktimek–, lege-esparru bat dute bere errekonozimendurako.

Aipatutako 107/2012 Dekretuaren babespean biktima-aitorpena erdiesteko aurkeztutako 239 eskabideetatik 187ri baiezkoa eman zitzaien (hots, aztertutako kasuen % 78,24ri). Euskadiko 12/2016 Legeari dagokionez, gobernu zentralak konstituzionalitate-errekurtsoa aurkeztu zuen, eta Epaitegi Konstituzionalak onartu egin zuen. Bere idatzian, gobernuak Konstituzioaren 161.2 artikulua aipatu zuen, eta horrek guztiak Legearen artikulua jakin batzuen indarraldia eta aplikazioa ekarri du; besteak beste, pertsona ukituen eskabideak ebazteaz arduratzen den Balorazio Batzordearen funtzionamenduari lotutako batzuk. Txosten hau amaitu denean, ez da ebazpenik eman.

3. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK ARRASATEN

3.1. BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Txosten honi dagokion esparruan, 18 pertsonaren bizitzeko eskubidea urratu da Arrasaten. Urraketak herrian bertan edo bertatik kanpo gertatu zaizkie Arrasaten jaiotako pertsonari edo Arrasateko bizilagunei.

Beste 4 kasutan, ostera, oraindik ere ikerketa eta alderaketa gehiago egin behar da; izan ere, bertsio kontraesankorrak daude, bai eta argitasun gehiago behar duten hainbat elementu ere (horregatik ageri dira, hain zuzen ere, beste atal batean).

Arrasaten izandako bizitzeko eskubidearen urraketak honakoak dira, ordena kronologikoan:

BIKTIMA	DATA	ADINA	EGILETZA
Luis Santos Hernandez	1974/12/17	52	ETApm
Argimiro Garcia Estevez	1974/12/17	50	ETApm
Jesus Pascual Martin Lozano	1975/10/05	25	ETAm
Juan Moreno Chamorro	1975/10/05	26	ETAm
Esteban Maldonado Llorente	1975/10/05	20	ETAm
Iñaki Etxabe Orobengoa	1975/10/05	50	BVE
German Aguirre Irasuegi	1975/10/12	38	"Inkontrolatuak"
Constantino Gomez Barcia	1977/03/13	21	ETAm
Agurtzane Arregi Letamendi	1978/07/02	38	Triple A
Aurelio Salgueiro Lopez	1978/08/28	46	CAIA
Emilia Larrea Saez de Adana	1978/11/05	52	Guardia Zibila
Enrique Gomez Alvarez	1979/06/25	25	BVE
Juan Luis Aguirreurreta Arzamendi	1979/11/16	32	CCAA
Xabier Perez de Arenaza Sogorb	1984/03/23	35	GAL
Mario Manuel Leal Baquero	1984/12/05	29	ETA
Antonio Ramos Ramirez	1986/06/08	28	ETA
Ambrosio Fernandez Recio	2007/01/05	79	Kale borroka
Isaias Carrasco Miguel	2008/03/07	43	ETA

ETA:	Euskadi Ta Askatasuna
ETApm:	ETA politiko-militarra
ETAm:	ETA militarra
BVE:	Batallón Vasco Español
“Inkontrolatuak”:	eskuin muturreko kideak eta Estatuko Segurtasun-Indarretako (ESI) zenbait kide zituzten taldeak. Arestikoen laguntzarekin eta inpunitatez aritu ziren
CAIA:	Komando Autonomo Independentista eta Antikapitalista
CCAA:	Komando Autonomo Antikapitalistak
GAL:	Askapenerako Terrorismoaren Aurkako Taldeak
Triple A:	Alianza Apostólica Anticomunista
Kale-borroka:	indarkeria zerabilten zenbait talde ez armatuk eragindako kale-borroka eta sabotajeak

HILDAKOEN SINOPSIAK:

nor ziren eta nola hil zituzten



1974

LUIS SANTOS HERNÁNDEZ

Luis Santos Hernandez, guardia zibila, tenienteordea eta Arrasateko postuko komandantea, 52 urte zituenean erail zuen ETApn-ko komando batek. 1974ko abenduaren 17an gertatu zen, 20:45ak aldera. Uniformea jantzita zegoen Luis Santos, Argimiro Garcia Estevez agentearekin ardotan (azken hori kaleko jantzita). Argimiro Garcia Estevez ere erail zuten. Seat auto batetik metrailatu zituzten biak. Merkatu ondoko Txoko tabernatik atera ziren (egungo Otalora kalean), eta Ferixaleku kaletik zihoazen, Gurea zinemaren parean. Arrasateko erietxera eraman zituzten. Argimiro Garcia hilik iritsi zen. Luis Santosen bizitza salbatzeko ahaleginak egin zituzten medikuek, eta Gurutzetako ospitalera premiazko lekualdatzea prestatu zuten; baina, 23:25ean hil zen. Salamancako Alamedilla herrikoa zen, 25 urteko alaba baten eta 24 urteko seme baten aita. 30 urte ziren Guardia Zibilean sartu zenetik, eta 7 zeramatzan Arrasateko kuartelean. Luis Santos Serradilla del Llanon (Salamanca) lurperatu zuten. Barne Ministerioak 13/1996, 29/2011 eta 32/1999 legeen arabera kalte-ordainak ordaindu zizkion familiari.



1974

ARGIMIRO GARCÍA ESTÉVEZ

Argimiro Garcia Estevez Guardia Zibileko lehen agentea zen. 50 urte zituen, eta ia sei urte zeramatzan Guardia Zibilaren Arrasateko kuartelean. Salamancako Aldeadavila de la Ribera herria zuen jaioterri. 1974ko abenduaren 17an, Argimiro Garcia ardotan zebilen Arrasateko postuko tenienteorde eta komandante Luis Santos Gonzalezekin. Gurea zinemaren parean zeudela, ETApn-ko kide batzuek metrailetaz tirokatu zituzten Seat auto batetik. Autoa lehen-txeago lapurtu zuten, gidaria pistolaz mehatxatuta. Erasotzaileek autoa gertalekutik gertu utzi zuten; izan ere, ihes egitean, atentatuaren lekutik 400 bat metrora beste auto bat jota istripua izan zuten. Argimiro Garcia hilik iritsi zen herriko erietxera, eta Luis Santos tenienteordea, berriz, 23:25ak aldera hil zen, medikuek ezin izan baitzuten salbatu. Argimiro Garcia guardia zibila zen 1949az geroztik. 12 eta 26 urte bitarteko lau alabaren eta hiru semeren aita zen. Barne Ministerioak 13/1996, 29/2011 eta 32/1999 legeen arabera kalte-ordainak ordaindu zizkion familiari.



1975

JESÚS PASCUAL MARTÍN LOZANO

1975eko urriaren 5ean Arrasateko guardia zibilen patruila bat bidali zuten Arantzazuko Santutegi ingurura (Oñatitik gertu), ikurrina bat kentzera; izan ere, frankismoak debekaturik zuen ikurrina garai hartan. Patruila hartan bidali zuten 25 urteko Jesus Pascual Martin Lozano guardia zibila, erakundean zortzi hilabete zeramatzana. Arrasateko kuartela izan zen haren lehenbiziko lantokia, eta bakarra. Segoviako Villaverde de Iscar herriko familia bateko bost anaietako bat zen Jesus Pascual. Antza denez, egun hartan jai-eguna zuen, ez zegoen zerbitzuan, baina kide batek txanda aldatzeko eskatu ziola-eta igo zen Land Roverrean, Jose Gomez Castillo kaboa buru zela. Patruila ikurrina hartuta Arrasatera bidean zihoala, Arantzazutik Oñatirako errepidean kilometro bat egina zuen, ETAk errepidearen ezkerretara zegoen mendoitz batean ezkutatu-tako bonba bat lehertu zenean. Indarrak 20 metrora bota zuen ibilgailua, hainbat aldiz iraulita. Jesus Pascual Martin Lozano, Juan Moreno Chamorro eta Esteban Maldonado Llorente bertan hil ziren. Jose Gomez Castillo kaboa eta Juan Garcia Lorente gidaria larri zauritu ziren, eta Barakaldoko Gurutzetako ospitalean ingresatu zituzten.



1975

JUAN MORENO CHAMORRO

Caceresko Villamesiasen jaiotako Juan Moreno Cahomorro guardia zibilak 26 urte zituen 1975eko urriaren 5ean ETAk jarritako bonba batek eztanda eginda hil zenean. Hiru seme zituen. Juan Moreno guardia zibilen patruila batean bidali zuten Arrasateko kuarteletik Arantzazuko Santutegi ingurura, ikurrina bat kentzera. Agindu hori betetzen ari zirela, Land Rover batean zihoazen patruila-kideak, Oñatira bidean, Arrasateko errepidea hartzean. Orduantxe, bonba batek eztanda egin zuen ibilgailua handik igarotzean. Marka gorri batek adierazten zuen puntu zehatza, eta ibilgailua bertatik igarotzean urrutiko agintea erabilita aktibatu zuten artefaktua erasotzaileek. Lurrean zeutzan Jesus Pascual Martin Lozano, Juan Moreno Chamorro eta Esteban Maldonado Llorenten gorpuak: bertan hil ziren hirurak. Jose Gomez Castillo eta Juan Garcia Lorente larri zauritu ziren, eta Barakaldoko Gurutzetako ospitalera eraman zituzten. Arrasateko Guardia Zibilaren kuartelean jarri zuten beila-kapera, eta San Juan Bataiatzailearen elizan egin ziren hileta-elizkizunak. Ekitaldia bukatutakoan, *Cara al Sol* abestu zuten bertaratuek. Handik bost egunera, ETAk bere gain hartu zuen atentatua, Parisen.



1975

ESTEBAN MALDONADO LLORENTE

Esteban Maldonado guardia zibilak 20 urte zituen, eta denbora gutxi igarota zen Guardia Zibilak Arrasaten zuen kuartelera igorri zutenetik. Aita eta anaia ere guardia zibilak zituen. Esteban Maldonado Badajozko San Pedro de Méridan jaio zen, eta ezkongabea zen. 1975eko urriaren 5ean, patruila batean abiatu zen Arantzazuko santutegira, bertako eremu garaienean jarritako ikurrina bat kentzeko agindupean. Agindutakoa beteta, Oñatira bidean zihoan patruila Land Rover batean. Kilometro bat egina zuten ETaren komando batek errepidearen ezker aldeko mendoitz batean ezkutatuak bonba bat aktibatu zuenean. Esteban Maldonado, Jesus Pascual Martin Lozano eta Juan Moreno Chamorro agenteak bertan hil ziren. Juan Garcia Lorente gidaria eta Jose Gomez Castillo kaboa zauritu egin zituzten. Arrasateko kuartelean jarri zuten beila-kapera, eta hileta-elizkizunetan Guardia Zibilaren zuzendari nagusia eta Gipuzkoako gobernadore zibila izan ziren. Hiru agenteei meritu militarren domina eta polizia-merituaren gurutzua, bereizgarri gorriduna, ezarri zizkieten. Esteban Maldonado Llorenteren gorpua Almerian lurperatu zuten, Cabo de Gatan igarotzen baitzuen haurtzaroaren zati bat.



1975

IÑAKI ETXABE OROBENGOA

1975eko urriaren 5ean, Batallón Vasco Español erakundeak familiaren Etxabe-Enea jatetxean erail zuen Iñaki Etxabe Orobenkoa, 39 urtekoa. Jatetxe horretan egiten zuen lan Iñaki Etxabek, Kanpazar gainean (Elorrio). Familia bezalaxe, biktima Arrasatekoa zen. Alaba bi eta seme bat zituen. Erasotzaileek Etxabe anaietako Luis ere hil nahi izan zuten, bertan baitzen une hartan; baina, sukalde barruan gorde ahal izan zuen bere burua. Tirogileek ke-potoak jaurti zituzten lehenbizi jatetxe barrura, bezeroek ez zituzten identifikatu. *Euskal Herria y la Libertad*-en arabera, erasotzaileak "guardia zibilak zirelako zantzuak daude"²⁹. Zenbait egunen buruan German Agirre Irasuegi hil zuten, eta haren erailketa egileei buruz jakin zezakeenarekin lotu zen. atentatua baino hiru hilabete lehenago, beste bonba batek kalte handiak eragin zituen Etxabe-Enean, eta jatetxearen ondoan aparkatutako autoak metrailatu zituzten. Ekainaren 28an beste artefaktu bat aurkitu zuten Jokin Etxabek Baionan zuen jatetxean. Lokala hustu ahal izan zuten orduan. Hilketaren bezperan, atentatu parapolizial baten eraginez Jose Etxaberen autoa txikitu zuten Donibane Lohizunen. Hiru urte geroago, Triple A-k Agurtzane Arregi Letamendi erail zuen, eta senarra, Juan Jose Etxabe, larri zauritu.

²⁹ Hemen jasoa: "Euskal kasuan izandako bitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri. Arrasate, 1960-2010". Bakerako eta Elkarbizitzarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritza, 2015, 22. or.



1975

GERMÁN AGUIRRE IRASUEGI

German Aguirre Irasuegi 11 eta 9 urteko bi semeren aita zen. 38 urte zituen eta Bergaran jaioa zen, Arrasaten bizi arren: taxi-gidariaren plaza bat zeukan bertan, eta horixe zuen ogibide. 1975eko urriaren 12an hilda aurkitu zuten Legutioko (Araba) Santa Engrazia urtegian, “kuarteletik 500 metro ingurura”. Halaxe deskribatzen dute *Libertad Digital* eta *Vidas Rotas*-eko “In Memoriam” atalean (2010: 62). Hiru tiro zeuzkan buruan, gertutik egindakoak. Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako txostenean esaten denez, “gaiari buruzko informazio zehatza dutela eta, eskuin muturreko taldeak daude lotuta Iñaki Etxaberen atentatuarekin”. Bestalde, Euskal Memoriaren *La guerra no declarada* lanean (2014: 574) zuzenean egozten zaio “Triple A talde parapolizialari”. *Foronda txosten*-ean (2014: 128) “eskuin muturraren eta talde parapolizialen terrorismoak eraildako zibiltzat” jotzen dute. 2000. urtean, biktimaren seme Jokinek Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordera jo zuenean, ponentziak bere iritzia jaso zuen. Honela dio: “familiak susmatzen du Guardia Zibilak erail zuela”³⁰.



1977

CONSTANTINO GÓMEZ BARCIA

Constantino Gomezen aita eta hiru anaia guardia zibilak ziren, bera bezalaxe. Lugokoa zen, eta Oñatiko kuartelean zegoen. 21 urte zituen 1977ko martxoaren 13an, beste bi guardia zibilekin eta horietako baten neska-lagunarekin Renault 12 auto batean zihoala ETaren komando batek metrailatu zuenean. Herriko Alexander diskotekatik atera ziren eta, gidaria Arrasateko kuartelean bizi bazen ere, Oñatiko kuartelera bidean zihoazen, bertan baitziharduten Constantino Gomez, Miguel Santaella Carretero eta Jose Castaño Vazquez agenteak. Bergarako errepide-rako bidegurutzean, zenbait ordu lehenago lapurtutako Seat 1430 auto bat euren aurrean geratu zen, pasatzen uzteko seinale bat aprobetxatuta. Armatutako bi pertsona jaitsi ziren autotik, eta Renault 12an zihoazenen kontra tiroka hasi. Gidaria eta neska-laguna, erasotzaileen asmoa ikusita, makurtu egin ziren; baina, atzeko hiru lagunek tiroak jaso zituzten. Miguel Santaella Carretero oso larri zauritu zuten, Jose Castaño Vazquezek zauri arinak izan zituen masailean, eta Constantino Gomez Barcia handik gutxira hil zen, Arrasateko erietxera eraman bazuten ere. Barne Ministerioak 13/1996, 29/2011 eta 32/1999 legeen arabera kalte-ordainak ordaindu zizkion familiari.

30 Indarkeriaren biktimen ponentzia. Eusko Jaurlaritza. Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordea. I. liburukia. Gasteiz, 2000, 197. or.



1978

AGURTZANE ARREGI LETAMENDI

Agurtzane Arregi Letamendia Arrasatekoa zen izatez, baina Urruñan bizi zen eta arropa-denda batean egiten zuen lan. 38 urte zituen, eta 13, 11 eta 9 urteko bi alabaren eta seme baten ama zen. Senarra, Juan Jose Etxabe Orobengoa ETako kide nabarmena izan zen, ondoren ESBra gerturatutakoa. Hain zuzen, Etxabek jatetxe bat zeukan Donibane Lohizunen, eta hainbat atentatu egin zizkioten bertan. Lapurdiko herri horretan egin zuen senar-emazteen aurkako atentatua Triple A-ko (Alianza Apostólica Anticomunista) "Batallón Adolf Hitler" taldeak, 1978ko uztailaren 2an: Agurtzane Arregi erail zuten (17 tirok jo zuten), eta Juan Jose Etxabe zauritu (18 bala-inpaktu jaso zituen urdail, sabel, gibel, beso eta hanketan). Egun hartan, 10 minutu inguru zeramatzan Jose Etxabek Juri-Berri kalean, Peugeot 604 autoaren barruan irratia entzuten, emazteak lana noiz bukatu zain. AAAko kideek, baina, ez zuten tirorik bota biak auto barruan egon zirenera arte: biak ziren jomuga, eta biegi egin zieten tiro. Uztailaren 7an ekarri ahal izan zuten senideek gorpua Arrasatera, eta milaka pertsona gerturatu zuren San Juan Bataiatzailearen elizan egin zen hileta-elizkizunera.



1978

AURELIO SALGUEIRO LÓPEZ

Aurelio Salgueiro Lopezek 46 urte zituen, eta zazpi semeren aita zen. Guardia Zibilaren informazio-zerbitzuko lehen kaboia zen, eta hogeitun urte inguru zeramatzan Arrasaten lanean. Komando Autonomo Antikapitalistak taldeko bi kidek erail zuten Arrasateko Arbolapeta plazatxoan, Izkiña tabernaren aurrean. Seguruenik talde horren lehenbiziko erailketa izan zen hura. Komandoko hirugarren kide bat zuten auto batean zain handik gertu. 1978ko abuztuaren 28a zen. Komando Autonomo Independentistak eta Antikapitalistak taldeak hartu zuten bere gain atentatuaren erreibindikazioa. Kaleko jantzita zegoen Aurelio Salgueiro eta, ohi bezala, postetxean gutunak bilduta kuartelera bueltan zihoan. Baina, buruan eta toraxean jo zuten lau balek eten zuten itzulerara. Arrasateko erietxera eraman zuten, baina hilda zegoen ingresatu zutenerako. Hurrengo egunean egin zen bere aldeko hileta-elizkizuna San Juan Bataiatzailearen parrokan: lankideek eraman zuten hilkutxa, Espainiako bandera gainean zuela. Aurelio Salgueiro Lopez Monforte de Lemos (Lugo) herrian jaio zen, eta han lurperatu zuten. Barne Ministerioak 13/1996, 29/2011 eta 32/1999 legeen arabera kalte-ordainak ordaindu zizkion familiari.



1978

EMILIA LARREA SÁEZ DE ADANA

Emilia Saez de Adanak 52 urte zituen. Eskoriatzakoa zen jaiotzez eta Arrasateko Larrea baserrian bizi zen. Hiru semeren ama zen. Etxean eta baserrian egiten zuen lan, eta arrautzak eta ortuko barazkiak saltzen zituen. 1978ko azaroaren 15ean baserrian zegoen, Jesus Murgiondo semea eta Crescencia Vidaurreta auzokidearekin eserita; bisitan joan zitzairen azken hori, alabarekin batera. Egun horretan bertan, arratsaldean, Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek Aretxabaletako kuartela metrailatu zuten. Kaleko jantzita zihoazen hainbat agentek Arrasateraino jarraitu zituzten, eta tiro egin zieten: kideetako bi hil zituzten eta beste kide bat eta bi oinezko zauritu zituzten. Hiru minutu igarota, Arrasateko hainbat guardia zibil agertu ziren bertara, baina uniformerik gabeko guardia zibilak ezagutu ez eta tiro egin zieten. Balek ez zituzten guardia zibilak jo, bai, ordea, Emilia Larrea: lepoan jo zuen bala batek, eta bertan hil zen. Beste bala batek Crescencia Vidaurretaren izterra jo zuen. Zenbait egun igarota, bi guardia zibil gerturatu ziren baserrira barkamen-eske: alarguna negar batean atera zen eta, mesedez, joan zitezene eskatu zien. Gertakariak ez zuten inongo zigorrik eragin. Familiak indarkeriaren biktimatzat onartzeko eskaria egin zuen Indarkeriaren Biktimen Legearen babesean, baina Barne Ministerioak ukatu egin zuen eskaria. Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordeak, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren esparruan, biktima-izaera onartu die bai Emilia Larreari, bai Crescencia Vidaurretari.



1979

ENRIQUE GÓMEZ ÁLVAREZ

1979ko ekainaren 25ean Batallón Vasco Españolak (BVE) 25 urteko Enrique Gomez Alvarez erail zuen Baionan. ETako kidea zen, eta poliziarri ihes eginda Ipar Euskal Herrian babes hartuta zebilen 1974az geroztik. Aipatutako egunean, haurdun zegoen Kristina Larrañaga Arando bikotekidearekin batera zihoan Baionan bizi ziren etxera bidean. Peugeot 305 bat jarraika zutela konturatu ziren, eta laguntza eskatzen ahalegindu ziren: Udala tabernan sartu ziren telefonoz deitzera; baina, lau lagun sartu ziren bertara, eta dozena bat tiro bota zituzten Enrique Gomezaren aurka. Anbulantzian hil zen Enrique Gomez, Baionako ospitale zibileran bidean. Eusko Jaurlaritzaren TBLZk emandako *Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenak* dioenez, "Jean Pierre Cherid izan zen atentatuaren egilea" (2008: 26). Enrique Gomez Leongo Porqueros herrian jaio zen eta haurtzaroan joan zen Gasteizera, gurasoek bertara migratu zutenean. Gasteizen bizi izan zen, Samaniego ikastetxean ikasi zuen, bai eta gerora Jose Obrero lanbide-eskolan ere. Bertan ikasi zuen euskara eta ondoren bera ere aritu izan zen euskara-irakasle Arabako hiriburuan, Arrasatera joan zenera arte. Arrasatekoa zuen bikotekidea, Kristina Larrañaga Arando, eta Arrasaten bizi zela sartu zen ETAn.

1979

JUAN LUIS AGUIRREURRETA ARZAMENDI



Arrasatekoa zen jaiotzez Juan Luis Aguirreurreta Arzamendi, eta 32 urte zituen Komando Autonomo Antikapitalistak erakundeak 1979ko azaroaren 16an erail zuenean. Bi semeren aita zen. Seminarista izan zen. Ondoren Juan Bautista Uribecheverriaren igeltserotza-enpresako bulegoan egin zuen lan. Handik Pinturas Velasco enpresako administrazio-lanak egitera igaro zen. 1921-1923 eta 1938-1948 bitartean Arrasateko alkate izandako Domingo Arzamendiren biloba zen. Bere etxean gertatu zen atentatua, Ignacio Zuloaga kalean. Bazkalostean lanera itzultzeaz zela tirokatu zuten bi pertsonak: bi tirok jo zuten bularrean, eta batek lepoan. Komando Autonomo Antikapitalistek atentatua bere gain hartu zutenean, biktima Ordena Publikoaren Indarren isil-mandatarari izatea egotzi zion, eskuin muturreko taldeak zuzentzeaz eta Polizia Politiko Sozialeko kide izan izanaz. Familiak irmo ukatu zituen akusazio horiek biktimaren memoria errebindikatzean; hain zuzen, familiaren esanetan, Juan Luis Aguirreurreta ez zen alderdi politiko bakar bateko kide ere, eta ez zuen poliziarekin edo eskuin muturreko taldeekin inongo harremanik izan. Senideen hitzetan, akusazio haiek "zurrumurru axolagabeak ziren, inongo egiaztapenik gabeak", baina "ondorio oso larriak eragin zituzten". Gaur egun ere haren izen ona errebindikatzen du familiak.



1984

XABIER PÉREZ DE ARENAZA SOGORB

GAL edo Grupos Antiterroristas de Liberación delakoek ETAko kide Xabier Perez de Arenaza Sogorb erail zuten 1984ko martxoaren 23an, Saint Martin de Biarritzeko gasolindegian auto barruan zegoela. Motor batean zihoan pertsona batek autoaren haizetarakoaren kontra bost tiro bota zituen, eta bala batek buruan jo zuen Xabier Perez. Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoko Biktimei laguntzeko Zuzendaritzak (TBLZ) egindako *Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostena*-k (2008: 61) jasotzen duenez, atentatu horregatik kondenatu zituzten Jean Philippe Labade, Patrick de Carvalho eta R. Sampietro. Xabier Perez de Arenazak 35 urte zituen erail zutenean. Bi alabaren aita zen. Aretxabaletan jaioa izan arren, zortzi urtez bizi izan zen Arrasateko San Josepe auzoan, 1983an Lapurdin errefuxiatu zen arte. Gamey enpresan aritu zen 15 urte zituen geroztik, doitze- eta muntatze-lanetan. Guardia Zibilak bi aldiz atxilotu zuen, hainbat protestatan parte hartu zuela eta, eta azkenean Gamey enpresatik kaleratu zuten. COEseko eta LABeko kide izan zen garai hartan. Martxoaren 27an udaletxeko kapitulu-aretoan jarri zen Xabier Perezen beila-kapera.



1985

MARIO MANUEL LEAL BAQUERO

1985eko abenduaren 5ean 29 urteko Mario Manuel Leal Baquero erail zuen ETAk Renferen Arrasateko geltoki zaharrean. Agentea Aretxabaletako Guardia Zibilaren kuartelean zegoen destinatutik. Auto barruan zegoen, kaleko jantzita, ETaren komando bateko bi kidek gertutik tiro eginda zazpi balak jo zutenean. Erasotzaileek ETako hirugarren kide bat zuten zain auto batean, eta harekin egin zuten ihes. Pontevedrako zen Mario Manuel Leal, zenbait iturrik Aviléskoa (Asturias) zela dioten arren; izan ere, Avilésen bizi izan ziren bere gurasoak tarte batez, baina gerora jaioterrira itzuli ziren, Faro de Vigora hain zuten ere. Bost urteko neskatila baten aita zen. Hileta-elizkizunak hurrengo egunean egin ziren, gorpua bertan zela, Aretxabaletako Jasokundearen elizan; jende gutxi gerturatu zen ekitaldira. Gorpua zeraman furgua Avilésera abiatu zen ondoren, eta bertan lurperatu zuten gorpua. Guardia Zibilaren iturriek baieztatu zuten, atentatu hartan erabilitako armetako bat hamar urte geroago aurkitu zuten Arrasaten, Jose Ortega Lara bahituta izan zuten zuloan. Barne Ministerioak 13/1996, 29/2011 eta 32/1999 legeen arabera kalte-ordainak ordaindu zizkion familiari.



1986

ANTONIO RAMOS RAMÍREZ

Antonio Ramos Ramírezek 28 urte zituen 1986ko ekainaren 8an, ETak bizitza ukatu zionean. Erasotzaren bere autoan, Talbot Horizon batean, sartzean zegoen Arrasateko San Andres auzoko Doctor del Valle kalean, 23:00ak aldera. Guardia Zibileko kabo lehena larri zauritu zuten, eta Debagoieneko ospitalera bidean zeramatela hil zen. Oñatiko kuartelean zegoen destinatuta Antonio Ramos Ramirez. Gutxienez bost aldiz egin ahal izan zuen tiro erasoaldiari aurre egiteko (*El Pais*, 2015/05/05; *El Diario Vasco*, 1985/06/09). Espera (Cádiz) zuen jaioterri, eta Euskal Herrira destinatuta aurretik Sevillan bizi izan zen. Bost urteko seme bat zuen, eta emaztea sei hileko haurdun zegoen orduan. Hileta-elizkizunak Oñatiko San Miguel elizan egin ziren, eta Guardia Zibilaren agente-kideek eraman zuten hilketxa lepoan kuarteletik elizaraino. 1983ko urrian beste atentatu bat pairatu zuen Antonio Ramosek; arin zauritu zuten orduan. Land Rover batean zihoan eta ETak artefaktu bat zartarazi zuen Oñatiko errepidean. Atentatu hartan 28 urteko Jose Reyes Corchado Muñoz hil zen.



2007

AMBROSIO FERNÁNDEZ RECIO

2007ko urtarrilaren 5eko goizaldean, Ambrosio Fernandez Recio 79 urteko erretiratu etxetik aterarazi zuten, auzokide guztiak bezalaxe, bera bizi zen Jokin Zaitegi kaleko eraikinean sua piztu zela-eta, beheko solairuko La Caixaren kutxazain baten aurka kale-borrokak egindako eraso tarteko. Berrogeita hamar pertsona ingururi eman behar izan zitzairen ostatu Arrasate eta Eskoriatzako hoteletan. Hotzak eta kalean egon beharrak, kearekin eta Ambrosio Fernandezek zituen arnasa- eta bihotz-arazoekin batera, gizonaren osasun-egoerak txarrera egitea eragin zuen, eta Debagoieneko ospitalean ingresatu behar izan zuten lehenbizi, eta Txagorritxuko ZIUngo gero. Arrasateko Udaltzainen buru Jose Luis Etxebarriak azaldu zuenez, "osasun-egoera okerra zuen, tronbosia eta arnasa-arazoak baitzituen aurrekari". Edonola ere, udaltzainburuak nabarmendu zuen suteak "gizonaren osasun-egoera kaltetu ahal izan zuela"; izan ere, ingresatu zutenean "aldikako dardarak" zituen, bai eta "kontzientzia gutxitzea eta hipotentsioa" ere. Txagorritxun "intubatu egin behar izan zuten, eta bentilazio mekanikora konektatu"³¹. Bi hilabetera hil zen, martxoaren 3an. Zerrenda gehientsuenetan agertzen ez den arren, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak terrorismoaren biktima izaera onartu zion³². Ambrosio Fernandezek alaba bat zuen, Olga Fernandez Vicario. Ambrosio Fernandez Burgosen jaioa zen, jubilatua aurretik Amat altzairu-fundazioan egin zuen lan eta, ondoren, Fagor kooperatiban.



2008

ISAÍAS CARRASCO MIGUEL

Isaias Carrasco Miguel Bidelan enpresako langilea zen AP-1 autobidean, eta PSE-EEko zinegotzi ohia (2003-2007). 2008ko martxoaren 7an erail zuen ETAK, bere etxetik gertu, Navas de Tolosa kalean. Isaias Carrasco lanera joateko autoan sartzear zela, 13:30ak aldera, ETAKo kide bat gerturatu zitzaion eta bost tiro bota zizkion. Lau urteko seme txikiak, Adeik, etxeko leihotik ikusi zuen dena. Adei semeaz gain, beste bi alaba zituen Isaias Carrascok, 20 eta 14 urtekoak. Larri zaurituta eraman zuten Arrasateko ospitalera, baina bihotz-birikak bi aldiz gelditu ostean hil egin zen. 43 urte zituen, eta Arrasate zuen jaioterra, gurasoak Morales del Torokoak (Zamora) ziren arren. Isaias Carrascoren alarguna, Marian Romero, egun hartan gaueko txandan izan zen lanean, eta goizez etxe batean. hori Quintana de la Serena (Badajoz) herrian jaio zen eta Arrasaten bizi zen bost urte zituenetik. Isaias Carrasco UGT (Unión General de Trabajadores) sindikatuko afiliatua zen. 2007ko maiatzaren 27ko udal-hauteskundeetan hautatu ez zutela eta (seigarren postuan zegoen PSE-EEK aurkeztutako zerrendan), uko egin zion bizkartzainari. Behin, gutxienez, mezu hau zeraman oharra jaso zuen postontzian: "badakigu non zauden"³³.

31 S. Iribarren barne-medikuntzaren esparruko mediku laguntzaileak sinatutako txostena, 2007/03/03koa.

32 Iñaki Egañak aipatzen du, Breve historia de ETAn (Tafalla: Txalaparta, 2017, 139. or.), beste kasu batzuen artean, armagabeen taldeen eta kale-borrokaren sabotajeak aipatzean "Ambrosio [Fernandez] Recio, Arrasaten, haren etxepeko sabotajearen sortutako kea arnasteagatik, biktimen elkartek izaera hori aitortzen ez dioten arren".

33 Zoomrights.com Indarkeria terroristaren bidez urratutako Giza Eskubideen Urraketen Behatokia, Buesa Fundazioa eta Bakeaz: <http://www.zoomrights.com/?p=1465>

3.1.1. BIZITZA-ESKUBIDEAREN URRAKETAK ZENBAKITAN

HAMARKADAKA

	70EKO HAMARKADA	80EKO HAMARKADA	90EKO HAMARKADA	2000 - 2009 HAMARKADA	2010 - 2016 HAMARKADA	ARGITU GABEKO KASUAK
ETA eta CCAA	8	2	-	1	-	-
BVE, AAA eta GAL	4	1	-	-	-	-
ESI	1	-	-	-	-	4
Kale borroka				1	-	-
GUZTIRA	13	3	-	2	-	4

- Txosten honek landutako gaiari eta espazioari dagokionez, 18 kasutan urratu da bizitza-eskubidea. Biktimitako 2 emakumeak dira, eta 16 gizonak. Beste lau kasu ere badira, oraindik argitu ez direnak (kasu horietan guztietan gizonak dira biktimak).

- Txosten honek landutako denbora-tarteari dagokionez, Arrasaten izandako lehen-biziko erailketa Luis Santos Hernandez eta Argimiro Garcia Estevez guardia zibilek 1974ko abenduan bizi izandakoa da. [Oraindik argitu gabeko kasuen artean, Jose Luis Mondragon Elorzaren kasua dugu, aurrekoa baino lehenagokoa; 1974ko maiatzean gertatu zen, Hondarribian]. Arrasaten gertatutako azken erailtzea 2008an izan zen, Isaias Carrasco Miguelena, hain zuzen ere.

- Egileei erreparatuz gero, hauek dira ondorioak: ETAk 9 pertsona erail ditu, Komando Autonomo Antikapitalistak erakundeak 2. BVEk 2, beste komando parapolizial batek 1, Triple Ak 1 eta GALEk 1. Guardia Zibilaren tiroek Emilia Larrea hil zuten, eta kale-borroko eraso batek herritar baten gaixotasuna larriagotzea eraginda, sortutako konplikazioek heriotza eragin zioten. Barne Ministerioak terrorismoaren biktimatzat jotzen du.

- Aipatutako 18ko kasuetatik 16 antolatutako atentatuak dira, eta 2 egindako poliziek noranahi eginiko tiroek eta kale-borrokoaren erasoaldi batean kutzazain bat erretzean sortutako kea arnasteak eragindakoak.

- Hildako edo eraildako kasu gehienak 70eko hamarkadan gertatu ziren. Hala ikus daiteke grafikoa. Ez dago kasurik 90eko hamarkadan, eta azken biak hurrengo hamarkadan gertatu ziren.

- 14 kasutako *modus operandi*-a edo jarduteko prozedura su-armak erabiltzea izan da: arma laburrak erabilia gertutik egindako tiroak edo metrailleta-sua. Ez da Arrasaten bonba-atentaturik egin; bai, ostera, Arantzazutik Oñatirako errepidean: Arrasateko kuarteleko hiru guardia zibilen aurka egin zen atentatua, hain zuzen ere. Emilia Larrearen heriotza ere su-armak erabiltzearen ondorioz gertatu zen, bera jomuga ez bazen ere.

Anbrosio Fernandezek kasuan, jatorrizko ekintzatik eratorritako bestelako elementuek eragin zuten gizonaren heriotza.

- 2008ko martxotik gaur arte, hots, azken hamar urteotan, ez da heriotza eragin duen atentaturik gertatu Arrasaten; halaber, ez da egon motibazio politikoko testuinguruak sustatutako eta heriotza eragin duen eraso edo tiroketarik.

ADINAREN ETA SEME-ALABEN KOPURUAREN ARABERA

	40 URTETIK BEHERAKO BIKTIMAK	40 URTETIK GORAKO BIKTIMAK	AITARIK EDO AMARIK GABEKO NESKA UMEZURTZAK	AITARIK EDO AMARIK GABEKO MUTIL UMEZURTZAK
ETA eta CCAA	7	4	12	14
BVE, AAA eta GAL	5	0	6	4
ESI	-	1	-	3
Kale borroka	-	1	1	-
GUZTIRA	12	6	19	21
ORAINDIK ARGITU GABEKO KASUAK	4	-	1	-

* Aitarik gabe geratutako neska-mutilen kopuruari bi gehitu behar zaizkie; izan ere, emakume bi haurduen zeuden senarra atentatuan galdu zutenean.

- Hildako biktimarik gazteena Esteban Maldonado Llorente guardia zibila izan zen: 20 urte zituen erail zutenean. Adinean aurreratuen zegoen pertsona, ostera, Ambrosio Fernandez Recio izan zen, 79 urtekoa [argitu gabeko kasuen artean dago Jesus Maria Markiegirena, eta hark ere 20 urte zituen hil zutenean].
- 20 urtetik beherako 40 haur geratu dira umezurtz, aitarik gabe edo amarik gabe (bi kasutan, zehazki). 40 haur horietako 19 neskak dira, eta 21 mutilak [argitu gabeko kasuen artean, neska bat geratu zen aita gabe].
- Heriotza-atentatuetako bi kasutan gutxienez (bata ETAk eragindakoa, bestea BVEk eragindakoa), hildakoen alargunak haurdu zeuden. Alargunetako batek buruaz beste egin zuen.
- Zenbait kasutan, seme-alabak bertan zeuden euren ama edo aita hil zutenean, edo gertatik ikusi zuten, edo biktimaren azken unean gertalekura bertaratuta besotan hil zitzairen.

GERTALEKUAREN ARABERA

	ARRASATEN EGINIKO ATENTATUAK EDO ERAILKETAK	ARRASATETIK KANPO HERIOTZA ERAGIN DUTEN ATENTATUAK
ETA eta CCAA	8	3
BVE, AAA eta GAL	-	5
ESI	1	
Kale borroka	1	-
GUZTIRA	10	8
ORAINDIK ARGITU GABEKO KASUAK	2	2

- 10 atentatu edo heriotza gertatu dira udalerrian, eta 8 Arrasatetik kanpo [argitu beharrekoei dagokienez, bi pertsona hil ziren Arrasaten, eta bi udalerritik kanpo].

- Talde parapolizialek Arrasatetik kanpo egindako erailketak Kanpazar gainean (Elorrio), Legution, Donibane Lohizunen, Baionan eta Biarritzen gertatu ziren. Arrasateko kuartelko hiru guardia zibilen kontrako heriotza-atentatu bat, ETAk egindakoa, Arantzazutik Oñatirako errepidean gertatu zen.

- Arrasaten tiroketa hauetan eragin ziren hildakoak: 2 biktima ardotan zebiltzala Txoko tabernatik irtetean, 1 Alexander dantzalekutik irtetean (ibilgailu barnean, Bergarara begira dagoen bidegurutzean), 1 postetxean gutuneria jaso ostean kuartelera bueltan (Izkiña tabernaren aurrean), 1 baserrian jarrita zegoela (Larrea baserria, egun eraitsita dago), 2 etxetik gertu (biktimak lanera zihoazela, Ignacio Zuloaga eta Navas de Tolosa kaleetan), 1 ibilgailuan sartzeaz zela San Andres auzoan, eta 1 Txagorritxun, bi hilabetez ingresaturik egon ostean, bere osasun-egoerak txarrera egin ostean Jokin Zaitegi kaleko La Caixaren kutzazain baten aurkako erasoaldia tarteko.

- Arrasatetik kanpo gertatutako atentatuei dagokienez, hauxe da laburpena: 3 errepidean gertatu ziren (jeep barruan), 1 biktimaren jatetxean, 1 biktimaren taxian, 1 lanetik ateratzean (biktimen ibilgailuaren barrenean), 1 laguntza-eske sartutako taberna batean, eta bat gasolindegri batean (ibilgailuaren barrenean).

JAIOLEKUAREN ARABERA

	ARRASATEN JAIOTAKO PERTSONAK	ARRASATETIK KANPO JAIOTAKO PERTSONAK
ETak eta CCAAk eraildakoak	2	9
BVEk, GALEk. eraildakoak	2	3
ESlek eraildakoak	-	1
Kale borrokak eragindakoak		1
GUZTIRA	4	14
ORAINDIK ARGITU GABEKO KASUAK	3	1

- Aurreko koadroari erreparatuta, hildako biktimen artetik 10 gehiago dira Arrasatetik kanpo jaiotakoak (14), Arrasaten jaiotakoen aldean (4).

- Arrasatetik kanpo jaiotako biktimen artean, hiru Debagoienekoak ziren: Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak, hain zuzen ere. Gainontzekoei dagokienez, 2 Salamancan jaio ziren (Serradilla del Llano eta Aldeadavila), 1 Caceresen (Villamesias), 1 Badajozen (San Pedro de Mérida), 1 Segovian (Villaverde de Iscar), 2 Lugon (bata hiriburukoa zen, bestea Monforte de Lemoskoa), 1 Pontevedran, 1 Leonen (Porqueros), 1 Cádizen (Espera) eta 1 Burgosen.

- Udalerrian eraildako sei guardia zibilak Arrasateko kuartelean (3), Oñatikoan (2) eta Aretxabaletakoan (1) zeuden. Oñatitik gertu hildako hiru guardia zibilak Arrasateko kuartela zuten lantoki, eta bertan bizi ziren (3). 9 guardia zibil horien artean, bada Arrasaten hogei urte inguru igaroak zituenik, bai eta Debagoienez hilabete gutxi eginak zituenik ere.

IZAERAREN ARABERA

	ZIBILA	GUARDIA ZIBILA	ETAKO EDO CCAAKO KIDEA
ETA eta CCAA	2	9	-
BVE, AAA eta GAL	3	-	2
ESI	1	-	-
Kale borrokak eragindakoak	1	-	-
GUZTIRA	7	9	2
ORAINDIK ARGITU GABEKO KASUAK	-	-	4*

* Horietako batek ETA utzia zuen eta une hartan modu autonomoan ziharduen.

- Orotara, Arrasaterekin lotutako 7 herritarri, 9 guardia zibili eta 2 ETAkideri urratu zaie bitzitza-eskubidea [argitu beharreko kasuen artean, bat ETako kidea zen, eta beste bat

ETAko kide izandakoa; ordea, gertakariaren sasoian modu autonomoan ari zen; beste bi Komando Autonomoetako kideak ziren].

- Herritarrei dagokienez, 1 familia-jatetxe bateko langilea zen, 1 taxi-gidaria zen, 1 arropadenda bateko saltzailea, 1 baserriko eta etxeko lanetan aritzen zen, 1 administraria zen pintura-enpresa batean, 1 erretiraturik zegoen eta 1 Bidelan enpresako AP-1 autobideko ordaintokiko langilea zen.

- Eraildako bederatzi guardia zibilei dagokienez, 1 tenienteordea zen, 2 lehen kaboak (horietako bat, gainera Informazio Zerbitzuetakoa), 1 lehen agentea eta 8 bigarren mailako guardiak.

- Eraildako ETAko kideei dagokienez, batek euskara-eskolak ematen zituen tailerrean lan eginaz bat, batek doitze eta muntatze-lanak egin zituen urte askoan Gamey enpresan. [Argitu gabeko kasuei dagokienez: bat tornulari-doitzaile zebilen, batek tailer batean lan egin zuen Ipar Euskal Herrira ihes egin aurretik, batek Feliciano Aranzabalen enpresan egin zuen lan eta bat Politeknikako maestria-ikaslea izen.

3.1.2 EGOERA DEBAGOIENA ESKUALDEAN

HILDAKO BIKTIMAK

DEBAGOIENA, UDALERRIKA	ETA, GAA + KALE BORROKA	BVE, AAA, GAL...	POLIZIA EDO GUARDIA CIVILA	GEHIAGO IKERTU BEHAR DA
Arrasate	12	5	1	4
Antzuola	2	-	-	-
Aretxabaleta	3*	1*	-	-
Bergara	3	1*	2	-
Elgeta	-	-	-	-
Eskoriatza	1	-	1*	-
Leintz-Gatzaga	-	-	-	-
Oñati	10*	-	-	1
GUZTIRA ERREALA	26	5	3	5
		34		5

* German Agirre bere jaioterrian (Bergara) eta bizilekuan (Arrasate) hartu da aintzat. Emilia Larrea jaioterrian (Eskoriatza) eta hil zuten herrian (Arrasate) ageri da. Xabier Perez de Arenaza Aretxabaletan (jaioterria) eta Arrasaten (umea zenez geroztiko bizilekua) ageri da. Mario Manuel Leal Aretxabaletan (bertan zegoen destinaturik eta han bizi zen) eta Arrasaten (bertan hil zuten) ageri da. Antonio Ramos Oñatin (bertan bizi zen, kuartelean) eta Arrasaten (bertan hil zuten) ageri da. Oñatin eraildako hiru guardia zibila, Jesus Pascual Martin, Juan Moreno Chamorro eta Esteban Maldonado, Oñatin (hil ziren herrian) eta Arrasaten (destinaturik zeuden herrian, euren bizilekuan) ageri dira. Orotara ematen den datuan, baina, **kasu horiek guztiak behin baino ez dira aintzat hartu** ("Arrasate" atalean ageri dira kasu horretan).

3.2 OSOTASUN FISIKOAREN, PSIKIKOAREN ETA MORALAREN URRAKETAK

Hildako pertsonak ez bezala, ez dago zauritutako biktimen inguruko zerrenda ofizial publikorik, datuen babes-politikaren ondorioz eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaorde Nagusiak ebatzi gabeko demanda eta auziak dituelako. Erakunde batzuek sarbidea izan dute datu globaletara, baina ez da izenik eta udalerririk ezagutarazi.

Arrasateri dagokionez, oinarri dituzte gure landa-lana, lekukotzen bilketa eta kontsultatutako hemeroteka eta argitalpenak. Atal hau honela sailkatu dugu:

3.2.1 ETAREN ETA KOMANDO AUTONOMO ANTIKAPITALISTEN ATENTATUETAN ZAURITUTAKO EDO BAHITUTAKO PERTSONAK

- Udalerrian hamar pertsona zauritu dira ETaren atentatuetan (bederatzi guardia zibilak dira).
- Halaber, ETak eta Komando Autonomo Antikapalistek 8 pertsona erasotu eta bahitu dituzte Arrasaten, ibilgailua (pertsonala zein lanekoa) lapurtu zitzaien 6 zibilak aintzat hartzen badira; izan ere, maletategian sartu eta/edo ahoa estalita zuhaitz batera lotu zituzten aurkintza baztertuetan: 1 langile lotu eta isilarazi zuten, eta Julio Iglesias Zamorak eta Jose Antonio Ortega Larak 116 eta 532 egun igaro zituzten bahiturik zulo berberean, udalerriko industria-gune batean.

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
05/10/1975	José Gómez Castillo, cabo gc.	Bonbak larri zauritua	ETA
05/10/1975	Juan García Lorente, gc.	Bonbak larri zauritua	ETA
13/03/1977	José Castaño Vázquez, gc.	Hainbat	ETA
13/03/1977	Miguel Santaella Carretero, gc.	Balaz oso larri zauritua	ETA
21/01/1980	Manuel Fernández García	Balak besoan eta hanketan	ETAm
03/12/1984	José Sáez Eslava, gc.	Ultzera korneala, urradurak ezker hankan	ETA
03/12/1984	Manuel Castillo Fernández, gc.	Higadurak, ebaki eta kolpeekin, aurpegian; eskumuturra hautsita	ETA
03/12/1984	José López Berrio, gc.	Hainbat higadura: masailalboa, homoplatoa...	ETA
03/12/1984	Alejandro García Joaquín, gc.	Ingresatua (zauri arinak)	ETA
13/05/1985	Francisco Arias Cuadrado, gc.	Ukondoa, besaurrea, izterra	ETA

Arrasaten 116 eta 532 egun bahituta

DATA	BIKTIMA	ONDORIOAK	EGILETZA
1993/07/05etik 1993/10/29ra	Julio Iglesias Zamora	Zulo batean egon zen bahituta, industria-gune batean, 116 egunez	ETA
1997/01/17tik 1997/07/01era	José Antonio Ortega Lara	Iglesias egon zen zulo berean egon zen bahituta, 532 egunez. Zenbait tratamendu behar izan zituen, eta ondorioak pairatzen ditu.	ETA

Pistolarekin mehatxatuta bahitutako pertsonak, autoak lapurtu eta Arrasaten atentatuak egiteko

DATA	BIKTIMA	ONDORIOAK	EGILETZA
17/12/1974	Seat ibilgailu baten jabea	Pistolaren mehatxupeko lapurreta	ETA
13/03/1977	Francisco Murgoitio Azkoaga	Maletategian sartu zuten	ETAm
28/08/1978	Renault 5 TL baten jabea	Zuhaitz batera lotu zuten, Eibarren	CAA
15/11/1978	Renault 12 baten jabea	Pistolaren mehatxupeko lapurreta	CAA
16/11/1979	Morris MG baten jabea	Zuhaitz batera lotu zuten, Udalan	CAA
03/12/1984	JME, R-4 baten jabea	Zuhaitz batera kateatu zuten, Udalan	ETA

Indarrez ibilgetu eta langile bati eskuak lotu zizkioten

DATA	BIKTIMA	ONDORIOAK	EGILETZA
10/02/2001	Recambios Egido-ko langilea	Zutabe batera lotu zuten plastikozko bridekin eta paketatzeko zintarekin estali zioten ahora, trokelatzeko makina bat lapurtzeko	ETA

3.2.2 SABOTAJEETAN EDO KALEKO EKINTZETAN ERASOTUTAKO PERTSONAK

- 7 pertsona zauritu dira kale-borrokaren erasoetan edo arrazoi politikoak tarteko dituzten egoeretan suertatutako erasoetan: ertzain bat eta alderdi politikoetako sei pertsona (5 PSEko eta 1 EAJko). Beste 2 pertsona ospitaleratu egin behar izan zituzten kale-borrokako ekintzen ondoren.

- Artefaktu su-eragileekin eginiko atentatu eta eraso batzuek bankuen, herriko etxearen eta abarren gaineko etxebizitzak hustu beharra eragin dute, goizaldean. Eraso esanguratsuenak Jokin Zaitegi kaleko La Caixaren aurkakoak izan zen. 2007ko urtarrilaren 5ean gertatu zen, eta sute handi batek adin guztietako pertsonak, higiezinako hiru portaletan bizi zirenak, etxetik aterarazi zituen. Berrogeita hamar bat pertsona (24 familia) kaltetu zituen keak.

DATA	BIKTIMA	ONDORIOAK	EGILETZA
03/03/1988	Jose Luis Lana Etayo, PSE-EEko zinegotzia	Botilarekin buruan jo. Jostura-puntuak	Manifestariak
03/03/1988	Dionisio Rodriguez, UGTko sindikalista	Aurpegian	Manifestariak
03/03/1988	Jose Luis Mendiara Elexpuru, zinegotzia eta UGTko sindikalista	Jostura-puntuak	Manifestariak
14/02/1996	Oscar Garcia Horrillo, GS	Jipoa eman zioten institutuko komu- netan	Ezezagunak
27/09/1996	Kalez jantzitako ertzain bat	Kalean erasotu zuten	Ezezagunak
08/03/2001	Jose M ^a Loiti, EAJko zinegotzia	Hiru jostura-puntu atzamar lodian	Burua estalita zuten
22/02/2006	PSE-EEko tokiko militantea	Zauririk gabe atera zen bi suziri pirotek- niko jaurti ondoren	Ezezagunak

Ospitalean ingresatutako pertsonak, euren etxeak eraso zituztelako edo kale-borrokako ekintzek etxeak kaltetu zituztelako.

DATA	BIKTIMA	ONDORIOAK	EGILETZA
2000/04/25	Jose Ramos Prieto, PPko zinegotzia	Ospitalera eraman zuten, zaintzaperara, bere etxea molotov koktelekin erre ondoren osasun-egoera erkina zela eta	Kale borroka
2007/01/05	Ambrosio Fernandez Recio*, banku baten gaineko etxebizitzako bizilaguna	Jubilatua arnasa hartzeko arazoekin; bere osasuna okertu egin zen erasoaren ondoren	Kale borroka La Caixaren kutxazain baten aurka

*Pertsona hori martxoaren 3an hil zen Txagorritxuko ospitalean.

Erasoa egoitza bateko langileei

DATA	BIKTIMAK	EZAUGARRIAK	EGILETZA
2016/11/06	EAJ/PNVren Batzokiko bi emakume langile	Pintura gorria jaurti zuen fatxadara eta jaurtiketa eragozten saiatu ziren bi emakume langileei	Ezezagunak

3.2.3. ATENTATU EDO ERASO PARAPOLIZIALETAN ZAURITUTAKO EDO BAHITUTAKO PERTSONAK

- 15 pertsonak (2 emakume, 8 gizon, 2 urteko ume bat eta taberna bateko 4 bezero) pairatu dituzte eraso parapolizialak. Horietako hiruk birritan pairatu zituzten erasoak. Gainera, biktimetako bat bahitu egin zuten, eta emakumeetako bat bitan erasotu zuten: behin bahitzen saiatu ziren, eta beste batean bizirik atera zen, nahiz eta bi lagun hil zizkioten.
- Pertsona horien guztien artean 5ek lotura zuten ETArekin; gainerakoek ez. Bi LKlkoak ziren, beste bi CCOOekoak eta ez da gainerako biktimen filiaziorik ezagutzen.

1975-1982

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1975/11/16	Arkaitz Iturbe Ormaetxea	Metalak urdailean	Triple A
1978/07/02	Juan Jose Etxabe Orobengoa	18 bala-inpaktu	Triple A
1979/01/13	Jose Manuel Pagoaga Gallastegi	Ikusmenik gabe, eskua gaizki	AAA eta ATE
1979/08/02	Angel Iturbe Abasolo	Balaz zauritua	BVE
1980/08/30	Noelia Olabarria Gandiaga, LKlko kidea	Balaz zauritua	BVE

1983-2016

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1984/08/23	Etxabe tabernako lau bezero	Hainbat	GAL
1985/10/18	Angel Padin Rico, CCOOekoa	Bahiketa, mehatxuak, bularrean GAL siglak irudikatu zizkioten	"Inkontrolatuak"
1986/06/08	Angel Padin Rico, CCOOekoa	Berriz ere bahitua, GAL siglak irudikatzen dizkiote izterrean, eta belarra janarazten diote	"Inkontrolatuak"
1987/05/30	Jose Ramon Iriarte "Txerra", LKlko eta Komite Antinuklear eta Ekologistetako kidea.	Pistolekin sartu ziren bere etxean, GAL siglak irudikatu zizkioten besoan eta galdekatu egin zuten	"Inkontrolatuak" Guardia Zibilak zirela esan zioten
1987/09/21	Jose Ramon Iriarte "Txerra", LKlko eta Eguzki-ko kidea.	Berriz erasotzen dute. Burua estaltzen diote. Hainbat ebaki gorputzean eta GAL siglak bularrean.	"Inkontrolatuak"

Atentatu parapolizialetatik bizirik egin zuten ihes

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1975/11/16	Txomin Iturbe	Autoaren azpiko bonbak behar baino lehenago egin zuen eztanda	AAA
1976/03/02	Angel Iturbe Abasolo eta Isidro Garaialde	Bonba atzeman zuten ibilgailuaren azpian martxan jarri aurretik	Aldarrikatu gabe
1979/08/02	Arantxa Sasiain	Auto baten azpian ezkutatu zen, baina beste bi lagunak erail egin zituzten	BVE

Talde parapolizialen bahiketa-saiakerak

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1979/02/21	Arantxa Sasiain	Askatzea eta ihes egitea lortu zuen	Ezezaguna

Bahiketa-kasua, galdeketa eta droga tarteko

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1993/12/06	Angel Paunero Bejerano, CCOOekoa (Bergarako Epaitegian egindako salaketa)	Bahiketa. Drogatu egiten dute. Galdekatu egiten dute. Biharamunean esnatzen da, hiru pertsonarekin batera, auto batean. Hau esaten diote: "Pertsonaz nahastu gara". Askatu egiten dute.	Ezezaguna

3.2.4 ESTATUKO SEGURTASUN-INDARREK LARRI ZAURITUTAKO PERTSONAK

- Atal honetan jasotako gertakizunak testuinguru ezberdinetan gertatu dira; beraz, bi zatitan bereiziko ditugu: a) mobilizazioetan zauritutako pertsonak eta b) polizia-operazioetan zauritutako pertsonak.
- 15 kasutan indarra proportzionaltasunik gabe erabili zen manifestazio eta protesta politikoak jazartzeko.
- Irizpide gisa darabilgu Legea Betearazi behar duten Funtzionarioentzako NBEren Jokabide Kodearen 3. artikulua, bai eta Legea Betearazi behar duten Funtzionarioen Indarraren eta Su-armen Erabilerari buruzko Oinarrizko Printzipioak ere³⁴.

34 OSSE, Anneke (2007). *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derechos humanos*. Madrid. Amnistía Internacional (EDA) eta Amnesty International Nederland.

- Jarduera horietako hamalau Guardia Zibilari dagozkio, eta bat Ertzaintzari.
- Gutxienez bi adingabe daude.
- Hemen ez dira jasotzen greba, manifestazio eta protestetan ESlek kargak zauritutako, kolpatutako eta ubeldutako pertsonen beste kasu batzuk: pertsona askok ez dute ospitaletara jo edo ez dute jendaurrean nor ziren azaldu nahi izan. Bestalde, kasu larrienak besterik ez ditugu aztergai, nahiz eta badakigun beharbada ez ditugula bildu multzo horretan sar litezkeen pertsona guztiak. Izenak ez dira publiko egin gehienetan.

Hainbat mobilizaziotan zauritutako pertsonak

1975-1978	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1977/03/10	Andoni Bereziartua	Kolpeak buruan	Guardia Zibila
1977/03/10	Fermín Díez Pinillos	Beheko masalezurra apurtuta	Guardia Zibila
1977/03/10	Vicente Elorza Gorosabel	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	Esperanza Iñarra	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	Adela López	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	José Medrano	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	Concepción Uriona	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	Vicente Zeziaga	Hainbat kolpe	Guardia Zibila
1977/03/10	Jon Goikoelea Díaz	Ingresatua pronostiko erresebatuarekin	Guardia Zibila
1977/05/12	Kepa Akizu	Jipoi nabarmena	Guardia Zibila
1979-1982			
1979/01/15	Héctor Landaluce, 15 años	Traumatismo larria	Guardia Zibila
1979/01/15	Hilaria Agredilla	Konorterik gabe	Guardia Zibila
1979/06/25	Félix Guridi Agirreurreta	Bala sorbalda aldean	Guardia Zibila
1979/06/25	Jesús Errasti Elorza, 15 años	Bala eskuin izterrean	Guardia Zibila
1983-2016			
1999/09/27	Agustin Ibarluzea	Traumatismoa burezurrean gomazko pilota baten ondorioz	Ertzaintza

- Garai jakin batzuetan ohikoak izan dira proportziorik eta jomuga argirik gabeko kargak, hainbat protesta-ekintza eta gertakarien aurkakoak. Zehazki, manifestazioetan ez zebiltzan hainbat oinezko eta pertsona kolpatu eta zauritu zituzten; halaber, ostalaritza-establezimenduetako bezeroak kolpeka irtenarazi zituzten. Horregatik guztiagatik, udalerriko udalbatzaren osoko bilkuretan aho batez adostu zen eskatzea "ordena publikoko indarrak tokiko agintarien mende egotea, era horretako ekintzen ugaritasuna

delata eta” (1976/12/19)³⁵. Antzera, “Ordena publikoko indarrak udal-kontrolaren mende” jartzea erreklamatu zen (1979/05/05) era horretako jarduerak saihesteko. Aipatutako lehenengo saioan 22 alkatek egin zuten bat Arrasateko Udalaren eskabidearekin. Berebat, 1979ko ekainaren 26an, Korporazioak, ezohiko osoko bilkuran, berretsi egin zuen benetako sua erabiltzea manifestazioei aurre egiteko, eta OPlen udal-kontrola, argitasuna eta ardurak egozte erreklamatu zuten.

*Guardia Zibila ikusten zenuen txalekoekin, metrailetan eta mugitzen zen guztiari tiroak botatzen. Benetako tiroak. Nik uste dut gutxienez bi zauritu zituztela balaz. Kontua da mundu guztia ikusten zenuela udaletxean. Jendea ikusten genuen korrika, haurrak, gurasoak, Guardia Zibila zoratuta sar zitekeen lekuetan sartzen: tabernak, etxeak, pisuak... **Jose Ignacio Yarza***

*Ni neure lagunekin nengoen eta hor geunden, IKEReko biribilgunean. Pertsona batzuk ari ziren manifestazioan... ez dakit zergatik. Pankarta batekin ikusi nituen eta, bat-batean, Ertzaintzaren hiruzpalau furgoneta iritsi ziren eta handik ez zen inor ateratzen. Ertzain mordoa hasi zen irteten, pilotak jaurtitzen hasi ziren, denak hasi ziren korrika... Gu leku garaia batean geunden. Ertzaintza gugana zetorren eta gogoratzen dut nire neba hartu eta estali nuela, gu ere joko gintuztela pentsatu bainuen. Ertzainak ikusteak harritu egin gintuen; izan ere, estalita zihoazen denak, beltzez, pilotekin, kaskoekin... **Sandra Carrasco***

- 1976ko abenduaren 18an, Guardia Zibila Gurea zineman sartu zen, euskal musikako jaialdi bat abian zela. Hiru ikurrin ikus zitezkeen [ikurrina egun gutxiren buruan legez-tatu zen, urtarrilean]. Bertan zegoen jende guztia handik irtenarazteko, ke-poteak, gas negar-eragileak eta gomazko pilotak jaurti zituzten. Kanpoan, bestalde, beste guardia zibil batzuek porra eta mosketoiekin jipoitzen zuten jendea irten ahala. Gaitza da era horretako ekintzetan eragindako kalte pertsonalak kuantifikatzea. Alkateak poliziaren karga zuzendu zuen tenientearen eta karga agindu zuten arduradunen dimisioa eskatu zuen.

Polizia-operazioetan zauritutako pertsonak

1975-1978	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1975/06/07	Manuel Gonzalez Fernandez	Bala-zauria hankan	Guardia Zibila
1976/05/15	Pedro M ^a Sasiain Larrucea	Balaz zauritua atxilotzean	Guardia Zibila
1978/11/15	Juana Martin Lorenzo	Bala batek burua ukitu zion	Guardia Zibila
1978/11/15	Roberto Beltran de Heredia	Bi bala ezker sorbaldan	Guardia Zibila
1978/11/15	Javier Bravo	Indarkeriaz kolpatua	Guardia Zibila
1978/11/15	Crescencia Vidaurreta Garcia	Balak ezker izterra zeharkatu zion	Guardia Zibila

³⁵ El Diario Vasco, 1976/12/27.

1979-1982	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1980/02/07	Txomin Iturbe Abasolo	Bala batek hanka batean jo zuen, beste batek lepoa ukitu zion	Frantziako Polizia

- Guardia Zibileko agenteek 1978ko azaroaren 15eko agenteek zauritutako lau pertsonei dagokienez, hala Herri Batzorde Ikertzaileak nola Giza Eskubideen zuzendari Jose Ramon Recaldek idatzitako txostenak (Eusko Jaurlaritzako barne-afaretako sailburu Txiki Benegasek agindu zion) bertatik bertara egondako lekukoen testigantzak bildu zituzten. Bigarren txostena biribila da: "agerikoa da azalezina dela indar publiko baten ondorengo jardunbidea; izan ere, hausnartu gabe egiten du tiro, eta hildako bat eta zenbait zauritu eragiten ditu herritar zibilen artean"³⁶.

- Juana Martin Lorenzo, Roberto Beltran de Heredia eta Crescencia Vidaurreta Garciaren kasuak Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez eraturako Ebaluazio Batzordearen aurrean aurkeztu eta aztertu ziren, eta hiru pertsonei aitortu zitzaizkien biktima-izaera.

- Crescencia Vidaurretari tiroa jaso zuen egunean bertan egin zioten ebakuntza, eta behin betiko alta 1979ko otsailean eman zioten. Inoiz ez zuen gertakizun horiei buruz jendaurrean hitz egin. Gertakizunaren ondorengo urtean traumatikoak izan ziren: besteak beste, ez zituen jasaten petardoek eragiten dituzten ezta edo eta ekitaldi publikoetara joatearen beldur zen.

- **Barkamena eskatzen dute.** Guardia Zibileko agente oso gazte batek ospitalera jo zuen, Crescencia Vidaurretari eta bere familiari barkamena eskatzeko, zauriak eragin zituzten tiroengatik. Oso urduri zegoela esan zuen. Halaber, bi guardia zibil Emilia Larrea zenduaren baserrira joan ziren, barkamena eskatzera; alabaina, alargunak, negarrez, alde egiteko eskatu zien, mesedez.

3.2.5 TORTURAK, TRATU TXARRAK EDO ZIGOR KRUELAK, ANKERRAK EDO UMILIAGARRIAK SALATU DITUZTEN PERTSONAK

- Koadro honetan ezagutarazten dira Arrasaterekin loturik publikoki edo epaitegietan salatutako kasuak.

- Hurrengo koadroan agertzen diren kasuak Euskal Herriko UPV/EHUko IVAC-KREIko datuekin erkatu dira (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideak, Bizikidetzeta eta Kooperazio Idazkaritza Nagusiak eskatu zuen txostena, 2017ko abenduan): *1960 eta 2014 bitartean Euskal Herrian izandako tortura eta tratu txarren ikerketa proiektua*. Datuak babestu

³⁶ Eusko Jaurlaritzako Barne-gaien Sailburutzaren oharra, 1978ko azaroaren 16ko gauean emandakoa. *El Diario Vasco-k eta Egin-ek argitaratu zuten biharamunean.*

beharraren ondorioz, ezinezkoa da txosten hau egitean eskurazin izan zaizkigun Arrasateri lotutako bestelako kasuak ezagutzea.

- Gure zenbatespenaren arabera, 404 pertsona atxilotu dituzte³⁷ Arrasaten edo beste leku batzuetan, jaiolekua edo bizilekua Arrasaten zutela³⁸. Kopuru horretatik 111 kasutan egindako torturen eta/edo tratu txarren salaketak bildu eta erkatu ditugu (pertsona batzuek zenbait atxilotetatan gertatutako torturak salatu dituzte; baten batek, 4 aldiz).
- Salatutako kasu guztietatik 101 gizonak dira, eta 10 emakumeak. Azken horien artean nabarmentzekoa da Arantzazu Markaide Nafarrete (18 urte) salatutako torturen aldagai sexista. Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez aitortu zitzaion biktima-izaera. Halaber, bi pertsona osasun zentroetan ingresatuak izan ziren.
- 69 kasutan, salaketak Guardia Zibilaren aurkakoak dira; 40 kasutan, Poliziaren aurkakoak (behin, bi estamentuen aurkakoak); 1 kasutan, Ertzaintzaren aurkakoak.
- Erantsitako koadroan ikusten denez, torturak salatu zituzten 42 pertsona kargurik gabe aske geratu ziren (horietako batzuk epailearen aurretik ere ez ziren igaro). Beste 6 espetxean denbora-tarte bat igaro ondoren atera ziren: 1 gizon hilabete egon zen preso, eta bere kasua itxi egin zen handik urtebetera; 1 emakume sei hilabetez egon zen preso, harik eta bere kasua itxi eta aske utzi zuten arte; 2 pertsonak (neska batek eta mutil batek) hiru urte igaro zituzten espetxean, eta epaiketarik gabe askatu zituzten. Emakume batek ia bost urte preso egon ondoren Epaitegi Konstituzionalak absolbitu zuen, eta bere osotasun fisiko eta morala bortxatu zela aitortu zuen.
- Kasu horietakoren bat Maria Servini epaileak Argentinan Frankismoko zenbait karguren eta poliziaren aurka irekita duen kereilan aurkeztu dira.

KRONOLOGIKOKI, HAUEK DIRA SALATUTAKO KASUAK:

1960-1978	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1960/09/20	Juan Jose Etxabe Orobengoa	Espetxea	Guardia Zibila
1960/09/20	Jon Ozaeta "Gautxo"	Espetxea	Guardia Zibila
1961/07/19	Juan Jose Etxabe Orobengoa	Sei hilabeterako	Guardia Zibila
1962/05/21	Jose M ^a Lasagabaster Arriola	Espetxea	Polizia
1962/05/21	Gregorio Etxabe Orobengoa	Espetxea	Polizia
1965/10/29	Gregorio Etxabe Orobengoa	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/07	Jose M ^a Gorosabel Ezkurra	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/07	Juan Jose Aranzabal Cenciaga	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila

37 Informazio askotan (bereziki hemerroteketakoetan) manifestazio eta ekitaldi batean edo bestean eginiko atxilotetak aipatzen dira, pertsona-izenik eman gabe. Atxiloteta horiek ez dira kuantifikatu, nahiz eta kronologian jaso. Gaiaren inguruko lan zehatzagoa egin behar da.

38 Era batean edo bestean ETArekin lotutako 42 arrasatear atxilotu dituzte Ipar Euskal Herrian, 1 Belgikan, 2 Mexikon, 2 Madrilan eta 14 Arrasatetik hurbil dauden herrietan. Baten bat behin baino gehiagotan atxilotu dute.

1968/07/07	Santiago Berezibar Irasuegi	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/07	Jose Manuel Laspiur Viteri	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/07	Juanjo Mascariano Zubizarreta	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Juanjo Ansoategi Etxebarria	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Agustin Bergaretxe Unamuno	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Jose Antonio Jauregi Zaitegi	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Juan Antonio Aranburu Zabala-Oianguren	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Jose Luis Ezkurra Arregi	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Luis Javier Arrieta Berezibar	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Miguel Angel Agirre Alzola	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Jose Makazaga Arriola	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Jose Vicente Errazti Zumalde	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/08	Juan Jose Orueta Trojaola	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/09	Fernando Barreno Moreno	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/09	Leandro Barreno Moreno	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/09	Eusebio Unamuno Loidi	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/09	Alberto Xaitegui Garay	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/07/14	Kepa Ormaetxea Milikua	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/08/00	Mikel Zubia Murua	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1968/12/07	Mitxel Lopez Losada	Aske	Polizia
1968/12/07	Jose M ^a Dorronsorio Ceberio	Espetxea	Guardia Zibila
1969/08/18	Mikel Etxaburu Biain	Espetxea	Guardia Zibila
1969/08/18	Juan Ramon Garai Bengoa	Espetxea	Guardia Zibila
1973/09/26	Jesus Maria Zabarte Arregi	Espetxea	Guardia Zibila
1974/11/06	Kepa Ormaetxea Milikua	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1974/11/06	Enrike Pagoaga Gallastegi	Espetxea	Guardia Zibila
1975/02/12	Joaquin Arrieta	Aske, kargurik gabe	Polizia
1975/02/12	Andoni Garai Bengoa	Aske, kargurik gabe	Polizia
1975/02/12	Juan Ramon Garai Bengoa	Aske, kargurik gabe	Polizia
1975/04/05	Kepa Ormaetxea Milikua	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1975/04/25	Javier Ansoategi Etxebarria	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1975/04/25	Piedad Egidazu Landaluze	Aske	Polizia
1975/04/26	Jose R. Zabalo Lequericaonaindia	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1975/04/27	Pakito Arriaran Arregi	Espetxea	Polizia
1975/04/27	Luis Maria Etxabe Orobengoa	Behin-behinean aske	Polizia
1975/04/29	Jesus Aranzabal Gamarra	Espetxea	Polizia
1975/04/29	Ramon Loiti Garitaonaindia	Espetxea	Guardia Zibila
1976/02/08	Juan Ramon Garai Bengoa	10 egun preso eta ez ziren kondena jartzera iritsi	Guardia Zibila
1976/02/08	Antxon Lopez Losada	Aske, karguekin	Guardia Zibila
1976/04/03	Arantzazu Markaide Nafarrete	Sei hilabetez egon zen espetxean; azkenean, kasua itxi egin zen	Guardia Zibila

1976/04/27	Mikel Etxabe Urteaga	Espetxea	Guardia Zibila
1976/04/30	Enrike Pagoaga Gallastegi	Espetxea	Guardia Zibila
1976/05/11	Piedad Egidazu Landaluze	Behin-behinean aske	Guardia Zibila
1978/11/21	Esperanza Mercader Solagaistoa	Espetxea	Guardia Zibila
1978/11/21	Jesus M ^a Zabarte Arregi	Espetxea	Guardia Zibila
1978/11/21	Santiago Gallastegi Larrañaga	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1978/12/02	Jose Maria Ugartemendia Agirrezabalaga	Espetxea	Polizia
1978/12/05	Koldo Errasti Urbiet	Espetxea	Polizia

1979-1982	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1979/01/14	Luis Arana	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1979/01/14	Jon Agirre Agiriano	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1979/01/14	Jokin Arregi	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1979/01/14	Mikel Etxagibel	Aske, kargurik gabe	Guardia Zibila
1980/06/10	Danel Ansoategi Etxebarria	Aske, kargurik gabe eta epailearen aurretik igaro gabe	Polizia
1980/11/07	Pedro Juan Guridi Arozena	Espetxea	Polizia
1980/11/07	Ramon Bidaburu Otadui	Espetxea	Polizia
1980/11/07	Francisco Ansoategi Iribecampos	Aske, epailearen aurretik igaro gabe	Polizia
1980/11/07	Ramon Arzamendi Madinabeitia	Espetxea	Polizia
1980/11/16	Mikel Zubia Murua	Espetxea	Guardia Zibila
1981/03/24	Vicente Senar Huete	Espetxea	Polizia
1981/05/10	Francisco Martin Robles	Espetxea	Guardia Zibila
1981/05/11	Julia Pagaldai Leibar	Espetxea	Guardia Zibila
1981/05/11	Juan Agirre Agiriano	Espetxea	Guardia Zibila
1981/10/16	Fernando Reyes Azurmendi Velez de Mendizabal	Aske, epailearen aurretik igaro ondoren	Guardia Zibila
1981/10/18	Jose M ^a Juaristi Querejeta	Espetxea	Polizia
1981/11/14	Joseba Imanol Talledo Zubillaga	Aske, karguekin	Polizia
1982/03/09	Agustin Aranburu Garcia	Aske, kargurik gabe	Polizia
1982/07/14	Kepa Ormaetxea Milikua	Espetxea	Polizia
1982/07/14	Eugenio Ochoa Ugalde	Espetxea	Polizia
1982/07/14	Ramon Urrizalki Azpiroz	Espetxea. Handik hilabetera atera zen fidantzapean, eta 1983an itxi egin zen kasua	Polizia

1983-2016	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1983/02/01	Jose Luis Encinas "Piter"	Espetxea	Polizia
1983/11/09	Jose Ramon Arcauz Arana	Aske, epailearen aurretik igaro gabe	Polizia
1984/06/15	Jesus M ^a Zabarte Arregi	Espetxea	Guardia Zibila
1987/10/03	Jose Askasibar Aperribai	Espetxea	Polizia

1985/03/10	Edurne Iturbe Bengoa	Espetxea	Polizia
1985/03/10	Felix Lopez Losada	Espetxea	Polizia
1987/10/03	Enrique Letona Biteri	Espetxea	Guardia Zibila
1987/10/08	Eugenio Ochoa Ugalde	Kargurik gabe aske, epailearen aurretik deklaratu ondoren	Guardia Zibila
1988/03/29	Jose Ignacio Gaztañaga Bidaurreta	Espetxea	Guardia Zibila
1989/09/17	Rafael Etxabe Urteaga	Espetxea	Guardia Zibila
1989/09/17	Jose Ignacio Iturri Pildain	Espetxea	Guardia Zibila
1989/09/23	Kristina Zeziaga Mendizabal	Espetxea	Guardia Zibila
1995/03/13	Mª Angeles Uribe Altuna	Aske 16an	Polizia
1995/03/13	Juan Manuel Gorostidi Salinas	Aske 16an	Polizia
1997/01/13	Josu Arcauz Arana	Espetxea	Guardia Zibila
1997/01/17	Antxon Guinea Lasurtegi	Espetxea	Polizia
1997/07/01	Jose Miguel Gaztelu Otxandorena	Espetxea	Guardia Zibila
1997/07/01	Jose Luis Erostege Bidaguren	Espetxea	Guardia Zibila
1997/07/01	Javier Ugarte Villar	Espetxea	Guardia Zibila
1997/07/01	Josu Uribetxeberria Bolinaga	Espetxea	Guardia Zibila
1997/07/03	Emiliano Arrizabalaga Ruiz-Azua	Preso zegoela, ospitalera eraman zuten bihotzeko sindrome batek jota uztailaren 24an	Guardia Zibila
1997/11/12	Joseba Garitaonandia Ansoategi	Espetxea	Polizia
1998/09/01	Enrike Pagoaga Gallastegi	Aske hilaren 5ean	Polizia
2000/08/21	Iker Garitaonandia Ansoategi	Aske, kargurik gabe	Ertzaintza
2001/06/13	Jesus Mª Goikoetxea Garralda	Espetxea	Polizia
2001/06/13	Premin Sampedro Larrañaga	Espetxea	Polizia
2003/11/18	Saioa Alzua Galparsoro	2 urte eta 6 hilabetez egon zen espetxean, eta epaiketak gabe atera zen	Polizia
2003/11/18	Gaizka Azkarate Garai	2 urte eta 6 hilabetez egon zen espetxean, eta epaiketak gabe atera zen	Polizia
2005/03/29	Eneko Ostolaza Ikarán	Espetxea	Guardia Zibila
2005/04/07	Gorka Aztiria Etxeberria	Espetxea	Polizia
2005/04/07	Gaizka Olabarrieta Kormenzana	Espetxea	Polizia
2008/01/06	Igor Portu Juanena	Larri ingresatu zuten ZIUn 16 orduren buruan Espetxea	Guardia Zibila
2008/01/06	Mattin Sarasola Iartzabal	Espetxea 2018an, GEEEk Espainia kondenatu zuen tratu anker eta umiliagarriatik	Guardia Zibila
2009/11/24	Irati Mujika Larreta	Espetxea 2014an absolutu zuten. Epaitegi Konstituzionalak babestu zuen 2016an, eta bere osotasun fisiko eta morala bortxatu zela aitortu.	Guardia Zibila eta Polizia

- Aurreko koadroetan aipatutako salaketen filosofiaren helburua da alegazioen zerrenda bat egitea; zehazki, ikerketa ofizialen falta dela eta, gutxienez arrazoizko erantzunik gabe geratu direnak jaso dira, Europako bederatzi epaiek berretsi dutenez. Halaber, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandakoak hartu dira aintzat, hala nola Irati Mujikaren ingurukoa.

“OSOTASUN FISIKO ETA MORALARI DAGOZKION ESKUBIDEAK URRATU ZIREN”

Aurreko koadroan iruzkindutako azken kasuan (Arrasateko Irati Elkarteko langile Irati Mujika Larretari dagokio; izan ere, 2009an atxilotu zuten, Segiren aurkako operazio batean) Epaitegi Konstituzionaleko Lehenengo Aretoak onartu egin zituen neska gazteak torturen inguruan aurkeztutako diligentziak behin-behinean ixteko erabakia. Zehazki, 2012an aurkeztu zituen, eta 2013an errekurtsua jarri zuen.

2016ko irailaren 19ko epaiak (2016/10/31ko BOE) Ministerio Publikoaren argudioa jasotzen da: horren arabera, “bat etortzea dago” salaketaren, auzitegi-medikuaren azterketaren eta adierazpenak egin ziren dataren artean; horrenbestez, “erakutsi egiten du gertakariak ez direla bateraezinak salatutako tratu txarrekin”. Auzitegi Konstituzionalak, Fiskaltzaren irizpideari jarraituta eta ezarritako jurisprudentzia dagoela gogoratuta, aitortu egiten du, orobat, Irati Mujika Larretaren eskubideak urratu zirela 2009ko atxilotetan; zehazki, osotasun fisikoari eta moralari dagozkionak. Bestalde, zaintza judizial efektiboa urratu da, eta prozesuak ez ditu izan zegozkion bermeak, salatutako gertakizunak ez direlako behar bezainbeste ikertu judizialki.

Auzitegi Nazionalak Irati Mujika absolbitu zuen erakunde terroristako kide izatetik 2014ko ekainean, eta 2016an Epaitegi Konstituzionalak babestu zuen.

- Ez da erraza tratu txarrak eta torturak frogatzeko edo egiaztatzeko elementuen euskarriak aurkitzea; izan ere, sofistikatu eta perfektionatu diren neurrian, aztarnarik ez uzteko edo delituaren ikerketa zailtzeko diseinatu dira. Hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan jipoiak eta indar basatia ziren nagusi; ondoren, aztarna fisikorik uzten ez duten tratu txarrak erabili izan dira, higitze fisikoarekin, beldurtzearekin eta tortura psikologikoarekin nahastean.

- Gure ikerketan, udalerriko bizilagunek eskritura bat helarazi digute (dokumentu bat-zuen protokolizazio gisa); zehazki, Arrasateko notario Juan-Aurelio Lazaro Perezen notaritzak 19 kasu erregistratu zituen 1968ko uztailaren 13an. Iruñeko Elkargoko notario Jose Maria Marco Garmendiak Liga de Asistencia y Educación zentroko osasun-zerbitzuak emandako 19 ziurtagirien fede eman zuen (tresna publikoen protokoloan jaso

zen fede-ematea). Halaber, istripuen partearen fede eman zion aipatutako zentroak bidalitako epaitegiari. Horietan zehazten ziren 19 pertsonak pairatutako zenbait lesio:

Fernando Saenz Sevillano doktoreak emandako sei ziurtagiri eta Alfonso Arzamendi Emparanza doktoreak emandako hamahiru ziurtagiri. Notarioak errekerimendua onartu eta ziurtagiri horien kargu hartu zuen: sinatu eta zigilatu egin zituen.

Aipatutako 19 pertsona horiek Arrasateko guardia zibilaren kuartelean atxilotu zituzten 1968ko uztailaren 7an, 8an eta 9an. Hauek dira euren izenak: Jose Maria Gorosabel Ezcurra (16 urte), Juan Jose Aranzabal Ceciaga (16 urte), Fernando Barreno Moreno (16 urte), Eusebio Unamuno Loidi (24 urte), Leandro Barreno Moreno (17), Alberto Zaitegui Garay (24), Juan Jose Ansoategui Echevarria (23), Agustin Bergareche Unamuno (24), Santiago Berecibar Jauregui (23 urte), Jose Manuel Laspiur Viteri (20), Jose Antonio Jauregui-Zaitegui (25), Juan Antonio Aramburu Zabala-Oyanguren (22), Jose Luis Ezcurra Arregui (25), Luis-Javier Arrieta Berecibar (23 urte), Juan Jose Mascariano Zubizarreta (18), Miguel Angel Aguirre Alzola (16), Jose Macazaga Arriola (16), Jose-Vicente Errasti Zumalde (17) eta Juan Jose Orueta Trojaola (17 urte). Ikusten denez, ia hamar adingabeak dira, eta batek ere ez zuen 25 urte baino gehiago.



Medikuek pertsona horiek pairatutako kalteez emandako pronostiko arin zein larriak (7) egin zituzten, eta sendatzeko aurreikusitako denbora, egoerek txarrera egin ezean, gutxienez hamar, hamabost eta hogeitaz eguneko epetik hilabetetik gorako epera bitartekoa izan zen. Azken horien artean, jipoietan aurreko goiko aurreko hagin zati bat apurtu zioten Agustin Bergareche Unamunori, hematoma preorbitarioa eragin zioten eskuinaldean. Halaber, hematoma eragin zizkioten bizkarrean, hematoma handi bat eskuineko ipurmasailean eta gerrialdearen eskuin aldean. Ez dago ekintza horiek utzitako ondorio psikologikoen berririk.

• Testuinguru batzuetan, egoerak eragin zuen Arrasateko Udalbatzak 1980/06/16koa bezalako adierazpenak onestea. Jose Antonio Ardanza Garro (1979-1983) zen orduko alkate: **“Akordioa, bando bat emateko, herritarrei gomendatze aldera ez dezatela etxeko aterik ireki, egunez zein gauez, atearen bestaldekoek agintari judizialak edo polizialak direla esaten badute”**. Horrek ekarri zuen udal-karguei dei egitea, akordio horren inguruan azalpenak eman zitzaten, Guardia Zibilaren Aretxabaletako kuartelean. Udalbatzako talde politikoez (ordukoan, EE, EMK, HB, EAJ eta PSOE) ez joatea erabaki

zuten, errekerimendua egina izan arren, eta akordioa berretsi zuten. Antzeko udal-bandoak eman ziren Debagoieneko beste udal batzuetan.

- Atxilotutako pertsonak aurkintza baztertuetera eraman ziren kasuak, galdeketak han egiteko.

DATA	BIKTIMAK	ONDORIOAK	EGILETZA
1965/10/29	Gregorio Etxabe Orobengoa	Pinudi batera eramanda, lurrian kolpatzen, mehatxatzen eta galdekatzen dute. Goizean aske uzten dute.	Guardia Zibila
1985/05/22	Aitor Orobengoa Otadui	Etxetik ateratzen dute goizaldeko hiruretan eta landa batera eramaten dute. Galdekatu egiten dute eta, ondoren, erratu egin direla esaten diote	Polizia
2008/01/06	Igor Portu Juanena eta Mattin Sarasola Iartzabal	Basabide batera eramaten dituzte eta han kolpatu eta mehatxatu egiten dituzte, sententziaren arabera	Guardia Zibila

Hiru kasu horietatik bitan legez kanpoko atxiloteta edo atxiloteta arbitrarioa dago. Atxilotuak ez ziren polizia-etxera edo kuartelera eraman, ezta epailearenera ere: aurkintza baztertu batera eraman zituzten, eta han galdekatu, mehatxatu eta kolpatu egin zituzten.

Hori gertatu zen Gregorio Etxaberekin 1965ean: atxilotu zuten lekutik (Etxabe-Enea jatetxea, Kanpazar) hurbil zegoen pinudi batean galdekatzen eta mehatxatzen zuten artean, tratu txarrak eman zizkioten eta lurrian botata egon zen gau osoan; ondoren, aske utzi zuten. 1962an atxilotu zuten eta Ipar Euskal Herrian poliziarengandik iheslari bizi ziren bi anaia zituen. Galdera asko haiei buruzkoak izan ziren.

Bigarren kasua Aitor Orobengoa Otarduirena da, 1985ekoa. Poliziak konturatu zirenean ez zebiltzala haren bila, "Erratu egin gara" esan zioten, eta etxera eraman.³⁹ Halere, lehenbizi, identifikatu gabeko eta kalez jantzitako pertsonak etxetik atera zuten goizaldeko hiruretan, ez zioten azaldu zergatik zegoen "atxilotuta", ez zizkioten eskubideak irakurri, matrikularik gabeko ibilgailu batean sartu zuten, leku bakartu batera eraman zuten eta erakunde polizial eta judizialetatik kanpo galdekatu zuten, beldurtuta. Hain zuzen, bahitu egin zutela pentsatu zuen, eta egoerak gogorarazi egin zizkion heriotza edo "kontrolatu gabeko" tiroen zauriak eragindako pasarte parapolizialak... Harik eta poliziaren beste ibilgailu batzuk iritsi ziren arte, identifikatuta. Ematen du poliziak baze-kiela ETako kide batek, eremu hartan aritzen zen komando batekoak, Aitor zuela izena. Hori dela eta, 1985eko maiatzaren 22an izen hori zuten hiru pertsona atxilotu zituzten: Aitor Ansoategi, Aitor Errazti eta Aitor Orobengoa.

³⁹ Hori bera, "Pertsonaz erratu gara" esan zieten CC00eko sindikalista Angel Paunero Bejerano bahitu zuten hiru pertsonak, 1993/12/06an. Hura ere galdekatu egin zuten.

Hala Etxabe nola Orobengoa aske utzi zituzten inolako kargurik gabe, kuarteletik zein epailearenetik igaro gabe. Biek egin zuten bat gerora, Udaleko zinegotzi izan zirenean, nahiz eta alderdi politiko ezberdinekin aurkeztu. Ez dakigu zer gertatu zen beste bi Aitor haiekin.

Hirugarren kasua, arestiko biak ez bezalakoa, Igor Portu eta Mattin Sarasolarena da. ETako kideak ziren, eta Gipuzkoako Auzitegi Probintzialak 2010eko epaian adierazi bezala, 2008an atxilotu zituzten, basabide batera eraman zituzten eta Guardia Zibileko agenteek kolpatu eta mehatxatu egin zituzten kuartelera abiatu aurretik. Igor Portuk epaile aurrean salatu zuen burua errekan sartu ziotela harik eta arnasa eteten zitzaion arte. Hiru aldiz egin zuten. Gerora Donostia ospitaleko ZIUn ingresatu zuten azal azpiko enfisema batekin, birika bat zulatuta, saiheats bat apurtuta, begian hemorragia bat zuela eta gorputzean hematoma zituela. Hamar urteren buruan, 2018an, Giza Eskubideen Europako Epaitegiak Espainia kondenatu zuen Igor Porturi eta Mattin Sarasolari emaniko tratu bidegabea eta umiliagarria dela eta.

3.3 GIZA ESKUBIDEEN BESTE URRAKETA BATZUK

3.3.1 PERTSONEN AURKAKO MEHATXU LARRIAK ETA JAZARPEN-INDARKERIA

Epigrafe honetan sartu ditugun pertsonak beren bizia edo osotasun fisikoa edo/eta psikikoa arriskuan ikusi dute gertaera, egoera edo mehatxu larri batzuen ondorioz, eta pertsegituak, larderiatuak eta jazarriak izan dira beren ideietatik, erantzukizunengatik edo jarrera politikoengatik, lanbideengatik edo gizarte-jardueragatik, edo aipatutako ezaugarriak dituen pertsona baten familiakoa izateagatik.

*Los resistentes*⁴⁰ lanean, Sara Hidalgo Garcia de Orellanek sei multzotan sailkatzen ditu mota bateko eta besteko indarkeriak, bildu dituen lekukotzak abiapuntutzat hartuta: erailketa, gizarte-presioa, mugimendu-askatasunaren murrizketa eta eskolta edukitzeko beharra, gizarte-bazterkeria, adierazpen-askatasunik eza eta bazterkeria politikoa. Horietako eta beste batzuk ekarriko ditugu hemen hizpidera.

40 HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara (2017). *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)*. Ramon Rubial Fundazioa / La Catarata, elkarriketatu dituen militante sozialisten lekukotzak abiapuntutzat hartuta.

- Babes-zerbitzua izan duten pertsonak, eta kargu politikoen, egoitzen eta abarren aurkako erasoak

ARRASATEN ESKOLTA BEHAR IZAN DUTEN PERTSONAK

	KARGU POLITIKOAK	EPAILEAK	ENPRESARIAK	BESTE BATZUK
Ertzaintzako eta Eusko Jaurlaritzaren konturako segurtasun-enpresetako agenteen eskolta	10	3	4	1
Estatuko Segurtasun Indarren eta Kidegoen eta estatuaren konturako segurtasun-enpresen eskolta	2	-	7	-
GUZTIRA	12	3	11	1
		27		

- 27 pertsonak behar izan dute eskolta beren burua babesteko eta beren segurtasunerako, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Idazkaritza Nagusiaren Buruzagitzak, Espainiako Gobernuako Barne Ministerioako Segurtasun arloko Estatu Idazkaritzaren Buruzagitzak eta haien konturako enpresa pribatuek emandako datuen arabera.
- Zehazki, iturri horien arabera, Arrasaten eskolta eraman dute, bizitzako uneren batean, 12 kargu politikok, 11 enpresarik, 3 epailek eta pertsona batek (ez da azken horri buruzko xehetasunik ematen), beren intimitatea babesteko.
- Halaber, Barne Ministerioaren Herritarren Segurtasunerako eta Operazioetarako arloak argi eta garbi adierazi du enpresa-munduan bere eskolta-zerbitzuak behar izan dituzten zazpi pertsonak "lanaren bidez herriarekin lotuta zeudela eraikuntza-enpresetan lan egiten zutelako".
- Herrian ez dago eroldarik aditzera ematen duena zenbat pertsona joan diren Arrasatetik presioek, xantaiak edo beldurrak bultzatuta. Izan ere, askotan, joandakoek ez zuten argi eta garbi adierazi zergatik joan ziren, edo inor konturatu gabe joan ziren. Pertsona batzuk aldi batez joan ziren herritik, itogarri zitzairen errealitatearekin deskonektatzeko beharra zutelako, eta beste batzuk euskal lurraldetik kanpora joan ziren bizitzera (Santanderrera, Errioxara...), lantokitik oso urrun ez zeuden herrietara. Azken horien artean ertzain batzuk daude (gutxienez ertzain baten aurkako eraso bat eta beste ertzaina baten ibilgailuaren aurkako eraso bat kontabilizatu dira Arrasaten).

KARGU POLITIKO ETA SINDIKALEN AURKAKO JAZARPENA ETA PERTSEKUZIOA:

ERAKUNDE POLITIKO ETA SINDIKALEN EGOITZEN, KARGU PUBLIKOEN ETA KIDEEN AURKAKO ERASOAK ARRASATEN

BIZITZEKO ESKUBIDEAREN AURKAKO ERASOAK

Isaias Carrasco, PSEko zinegotzia eta UGTko kidea izandakoa

OSOTASUN FISIKO ETA PSIKIKOAREN AURKAKO ERASOAK

PSE-Eeko kideak	3
EAJko kideak	1
UGTko kideak	2
CCOOeko kideak	2
Euskadiko Ezkerrako kidea	1
Liga Komunista Iraultzaileko kidea	1

HERIOTZA-MEHATXUAK

Jose Antonio Altuna Gallastegi, alkatea

Paco Garcia Raya, PSE-EEko tokiko idazkari nagusia eta zinegotzia

Xabier Zubizarreta Lasagabaster, HBko eta EHko alkatea

Oscar Garcia Harrillo, Juventudes Socialistaseko kidea

Ino Galparsoro Markaide, EAE-ANVko alkatea

Aritz Arrieta Kabiketa, PSE-EEko zinegotzia

ETXE BIZITZEN AURKAKO ERASOAK

PPko zinegotzia	1
PSE-EEko alkate-hautagaia	1

EGOITZEN AURKAKO ERASOAK

CCOOen egoitza	1
UGTren egoitza	2
PSEren Herriko Etxea / egoitza	8-20*
EAJren Batzokia	6**
EArengo egoitza	2
Irati Herriko Taberna-Elkartea	2

IBILGAILUEN ETA ONDASUN HIGIEZINEN AURKAKO ERASOAK

Santiago Bastida alkate ohia	1
EAJko kideak	3
PSE-EEko kidea	1

* PSE-EEko militanteek kalkulatzeko dute mota guztietako hogeita bat eraso egin dituztela Herriko Etxearen aurka.

** Halaber, hainbat motatako pintaketak egin dituzte bertan.

1977an, Arrasateko alkate Jose Antonio Altuna Gallastegik, Bergarako Alkateen Taldeko kidea zenak, "bost aldiz behintzat" jakinarazi zion Gipuzkoako gobernadore zibilarri Guerrilleros de Cristo Reykoak "mehatxu egiten ari zitzazkiola". Urte hartako abuztuaren 3an, Guerrilleros de Cristo Reykoek ekintzara jo, eta Jose Antonio Altunaren JMA enpresaren kontra eraso egin zuten, eta sute bat eragin zuten. 1979ko udal hauteskundeetan ondoren, kargua utzi zuten.

1984an, Komando Autonomo Antikapitalistek Enrique Casas Vil hil zuten Donostian, eta Arrasateko militante sozialista batek honela bizi izan zuen erailketa hura: *"Casas hil zuten egunean, erabakia hartu nuen. Lehen, noizbehinka kolaboratzen nuen PSErekin, hurbilekoa nintzelako, baina egun hartan, nire baitan esan nuen 'hau da unea, pausoa eman beharra dago' eta kide bihurtu nintzen"*⁴¹. 1984ko irailaren 20an, GALek Santi Brouard Perez hil zuen Bilbon, eta, bost urte geroago, orobat irailaren 20an, HBko Josu Muguruza Guarrotxena diputatua eraili zuen. 1995eko urtarrilaren 23an, ETAK 37 urteko Gregorio Ordoñez Fenollar Donostiako PPko zinegotzia erail zuen, eta, horrekin batera, atentatu sail bat egin zuen PSE-EE/PSOeko, UPNko eta PPko karguen kontra —eta, beste maila batean, EAJren kontra ere bai—, eta egoitzei, ibilgailuei, etxebizitzetara eta militanteei eraso egin zien.

Bestelako pertsekuzio-indarkeria bat 80ko urteetan Angel Padin Rico CCOOeko sindikalista eta Liga Komunista Iraultzaileko (LKI) kide Jose Ramon Iriartek, "Txerrak", pairatu zutena izan zen. Biek pairatu zituzten jazarpenak, deiak... eta, bitan, 1985etik 1987ra artean, biek jaso zituzten ezezagunen larderiak, mehatxuak eta erasoak. Biei markatu zituzten GAL siglak, eta haien inguruko pertsonetara buruz galdekatu zituzten. CCOOeko sindikalista bitan bahitu zuten, eta LKIk militantearen etxera sartu ziren.

Kale borrokaren sabotajeek eta ekintzek gora egin zuten 90eko urteetan; gorakada horri "sufrimenduaren gizarteratzea" esan zitzaion. Edonola ere, jada 1988an, PSE-EEren egoitzan zeuden bezero eta bazkide sozialistei eraso egin zieten Herriko Etxean (egoitzaren kontrako aurreko eraso batean, 1985ean, ez zen pertsonen aurkako erasorik egon). Gero etorri ziren Juventudes Socialistaseko kide Oscar Garcia Horrilloren aurkako erasoak (1996an) eta Iciar Lamarain PPko zinegotziaren semearen aurka institutuan (Gasteizen) egindako erasoak, Jose Ramos Prieto PPko zinegotziaren etxebizitzaren aurkako erasoak (2000an), Jose Maria Loiti EAJko zinegotziaren aurkako erasoak (2001ean) eta PSE-EEko beste militante baten aurkako erasoak (2006an). Kale borrokaren eraso gehienak 90eko urteetan eta 2000tik 2014ra bitartean egin ziren.

41 HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara. *Galde* 21. zk. 2018ko udaberria, 16. or. Paco Garcia Rayaz ari da.

Eraso horiek ez ziren kargu politikoen aurkakoak soilik, eta berekin ekarri zuten askok gizarte-bazterkeria bizi behar izatea (gizarte-bazterkeria horren ondorioz, ezin zuten edo ez zuten nahi pertsona jakin batzuekin ikus zitzaten, egoera ez korapilatzeko), familia-bizitza normala ez izatea, badaezpada ere ekitaldietan ez parte hartzea, leku, establezimendu, kale, ekitaldi eta jai-ingurune jakin batzuetara ez joatea eta horietatik ez pasatzea, beren aurkako eraso zuzenak saihesten saiatzearren. Honela gogoratzen du hori Rafaela Romero Pozok, Arrasateko Udalean PSE-EEko zinegotzia izan zenak (1995etik 1998ra artean): *“Urte horietaz gogoratzen dudana bazterkeria da, gizarte-eragileen eskutik, kaleko terroristen eskutik (...) Zokoratzen zintuen, baztertzen zintuen, tu egiten zizun (...). Gizarte-bazterkeria bat, gizarte-apartheid bat kolektibo jakin baten aurka (...). Egunerok gogorarazten ziguten kaka zaharra ginela”*⁴². Rafaela Romerok komunikabide berean esan zuenez: *“sozialismotik politika egitea eginkizun ia heroiko bat bilakatu zen, sufrimendu handia ekarri ziena kideei”*.

2000. urtean, PPko eta PSOEko karguak eskolta eramatera behartu zituzten, beren segurtasunerako. Bizkartzainak eraman behar izan dituzten pertsonen egindako elkarrizketa gehienetan, askatasunik ezaren sentsazioa azpimarratu dute. Honela bizi izan zuen Paco Garciak hori: *“Niretzat, eskolta eramatea sekulako zigorra izan da, askatasuna galtzen baituzu”*⁴³.

Urte hartan bertan, apirilaren 25ean, Arrasateko Udaleko PSE-EEko lau zinegotziek eta PPko bi zinegotziek gutunak jaso zituzten. Gutunetan, mehatxu egiten zieten esanez *“berehala”* utzi behar zituztela beren karguak eta Euskal Herria; izan ere, *“jakizu Euskal Herrian hedatutako okupazio-indar espainiarren, zuek ordezkatzeko duzuen estatuaren eskutik gure herriak pairatzen duen demokrazia gabekia absolutuaren erantzule zuzenak diren okupazio-indar espainiar horien, kidetzat hartzen zaitugula”*. Eta ohartarazten zieten: *“Hori egin ezean, herri honek bere burua defendatzeko eskubide ukaezina du, eta egoki iruditzen zaizkion ekintzak egingo ditu zuen aurka eta zuen ondasunen aurka”*.

Goiz horretan bertan, halaber, molotov koktelak jaurti zituzten Jose Ramos Prieto PPko zinegotziaren etxebizitzaren kontra, eta sute bat eragin zuten. Osasunez ahul zegoenez, Debagoieneko Ospitalean ingresatu zuten Jose Ramos Prieto, eta behaketan egon zen. 2001eko martxoaren 8an, Jose Maria Loiti EAJko zinegotziari eraso egin zioten bere alderdiaren egoitzara zihoanean. Hiru jostura-puntu eman behar izan zizkieten atzamar batean. 2002. urtean, PP eta PSE-EE alderdien egoitzak helburu militartzat hartzera iritsi zen ETA.

Xabier Zubizarreta Lasagabasterrek (alkatea 1987tik 1997ra HBrekin, eta 1999tik 2003ra EHrekin) heriotza-mehatxuak jaso zituen bi legealdietan, bai eta mota guztietako mehatxuak ere. Ino Galparsoro Markaidek ere, 2007tik 2011ra artean alkatea izan zenak EAE-ANVrekin, zenbait aldiz jaso zituen mehatxuak, bai eta heriotza-mehatxua

42 HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara (2018). Los resistentes. *Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)*. Catarata / Ramon Rubial Fundazioa, 83. or. Eta hurrengo esaldia 59. or.

43 *Ibidem* 80. or.

ere. Era berean, Aritz Arrieta Kabiketa PSE-EEko zinegotziak lau gutun jaso zituen, eta horietako batean itu bat zegoen.

2005. urtean, ETak iragarri zuen bertan behera utziko zituela kargu politikoen aurkako atentatuak. Dena den, hiru urte geroago, 2008an, Isaias Carrasco Miguel, aurreko legegaldian zinegotzia izandakoa, hil zuen Navas de Tolosa kalean.

2011ko urriaren 20an, ETak jakinarazi zuen "bere jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki" zuela. Hainbat urtez eskoltarekin bizi izan ziren pertsonak egoera berri baten aurrean aurkitu ziren. Aritz Arrietak, Arrasateko Udaleko PSE-EEko zinegotziak, honelaxe adierazi zuen hori, egun horretan bertan:

'Arratsaldea jai eman diet [eskolteij]. Oraindik ez dakigu zer egin, ezta zein izango den protokoloa ere, baina gauza batzuk bakarrik egiten hasi nahi dut, dena normala izango balitz bezala. Poliki-poliki. Lehen, ez nintzen kafea bakarrik hartzera ere jaisten. Oso zaila zen lagunekin gelditzea. Ezin nuen frutari baten edo arrainketari baten adiskidea ere egin, egunero joan behar nuelako leku desberdin batera, segurtasun-arrazoiengatik. Baina orain nire espetxea jada ez da existituko', dio irribarrez. 'Nire gurasoak ezin sinetsirik daude. Esaten dute ezin dela hain erraza izan, baina nik uste dut indarkeria azkenera iritsi dela'⁴⁴.

BESTELAKO MEHATXU BATZUK

Azterlanean zehar pilatutako dokumentuak eta elkarrizketatutako pertsonen lekukotzak irakurri ondoren, mehatxuekin lotutako bizipen hauek azpimarratuko ditugu:

- Mehatxuzko pintaketak, batzuk ituekin, kasu dezentetan pertsonalizatuak. Gehienak anonimoak. Asko larderiazkoak izan dira. Alderdien eta sindikatuen egoitzen hormetan, beirateetan eta ateetan, pintaketa ugari egon dira; besteak beste, "PSOE-GAL berdin da" eta halako salatetak, Espainiako bandera ezker abertzalearen egoitzako atean pintatuta, eta "etarras", "españoles", "hiltzaileak" eta halako kalifikatzaileak. "Egindakoa ordainduko duzue" mehatxua zenbaitetan errepikatzen da.

- Telefono bidezko mehatxuak. Ez dira argitara ateratzen kasu gehienetan. Beldurtzeko deiak dira. Asko jazarpen bilakatzen dira, deiak eguneko hainbat unetan, gauez... Irainak, larderiak... Erantzutean eten egiten diren deiak, behin eta birritan gertatzen direnak. Batzuk judizialki salatzen dira, baina beste kasu batzuetan, kontua etxean gelditzen da, ingurune hurbilenean. Lekukotzaren batean, jakinarazi digute bizi zuten gatazkaren partetzat hartzen zutela. Askotan, beldurrez eta ezintasunez, bakardadean.

44 *El País*, 2011/11/21.

- Postontzian utzitako gutunen edo eskuizkribuen bidezko mehatxuak. Hori da Crescencia Vidaurreta biktimaren kasua. Guardia Zibilak tiro batez zauritu zuen, Emilia Larrearen alboan eserita zegoela. Azken hori beste tiro batek jota hil zen. Crescenciak eta haren hiru seme-alabek, zauriez eta ondorioez arduratzeaz gain, mehatxu anonimoak jaso zituzten etxeko postontzian denbora batez. Eskuz idatzitako gutunetan, amari esaten zioten hori gertatu zitzaiola “ETAkoa izateagatik”. Beste adibide batzuk, pertsekuzio-indarkeriaren atalean deskribatuak, alkate eta zinegotzi hauek jasotako mehatxuzko gutunak dira: Jose Antonio Altuna, Xabier Zubizarreta (HB eta EH) eta Ino Gaparsoro (EAE-ANV) alkateek, eta Paco Garcia, Oscar Garcia eta Aritz Arrieta PSE-EEko zinegotziek. Horiei PPko eta PSE-EEko sei zinegotziren aurkako gutun anonimoak gehitzen zaizkie: 2000. urteko apirilaren 25ean herria “brehala” uzteko eskatu zieten, mehatxupean.

- Kasu batzuetan, mehatxuak bete egin ziren: ETAREN xantaia ekonomikoari amore ematen ez zioten enpresen kontrako atentatuak (Mecanizados Alberdi, JOMA), era-soak egoitzen aurka, ibilgailuen aurka, etxebizitzaren aurka eta talde parapolizialeatik Iñaki Etxaberen familiaren aurka (haren hilarria jarri bezain laster leherrarazi egin zuten lehergailu batekin)...

- Jazarpen etengabeak, zergatik jakin gabe, identifikatu gabe, okerrera aurreikusiz... hala nola Angel Paunero Bejeranoren bahiketa eta galdeketa 1993an (oraindik argitu gabe dago, eta oraindik ez da zigorrik ezarri)...

- Mehatxuak errepideko kontroletan, batik bat gazteei, aurrekariak zituzten pertsonari, preso izandakoei... mehatxu psikologikoak: “laster ikusiko zutela elkar berriro”...

3.3.2 ESTORTSIO EKONOMIKOA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Idazkaritza Nagusiaren Buruzagitzak eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioko Segurtasun arloko Estatu Idazkaritzaren Buruzagitzak emandako informazioaren arabera, Arrasateko enpresa-arloko hamabi pertsonak behar izan dute eskolta urte hauetan beren segurtasunerako.

Ez dakigu Arrasaten zenbat pertsonari egin dieten edo egiten saiatu diren estortsio ekonomikoa. Elkarrizketatutako zenbait pertsonak aipatu dute eskubideen urraketa hori beren lekukotzetan. Xabier Etxeberria Mauleonen eta Galo Bilbao Alberdiren ustez, gertatutakoaren nondik norakoa, “egia jakiteko eskubidea, ahalik eta ziurtasun eta zehaztasun handienaz zer gertatu den jakiteko eskubidea”, “ez da behar bezala betetzen, batere-batere betetzen ez dela ez esatearren”⁴⁵.

45 SAEZ DE LA FUENTE, Izaskun (2017). *Misivas del Terror. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*, Josu Ugarte Gastaminzak koordinatua. Deustuko Unibertsitatea: Etika Aplikatuko Zentroa, 275. or.

Zenbat joan ziren? Elkarrizketatuak, Euskadiko eta Nafarroako patronaletako goi-arduradunak, bat datoz, eta esaten dute asko ez zirela izan. 'Askok kanpoan bizitzea erabaki zuten, baina beren enpresak mantenduz', dio Jose Manuel Ayesak, 1989tik 2010era Nafarroako Enpresarien Konfederazioko presidente izandakoak⁴⁶.

1977. eta 1978. urteetan, zenbait lapurreta egin zituzten eskualdeko banku jakin batzuetan, baina "zerga iraultzailea" deritzona jada hasia zen enpresa batzuk ziprztintzen hamarkada horretako lehen urteetan.

1976an, ETApm-k Angel Berazadi Uribe hil zuen, 20 egunez bahitua izan ondoren, eta gertaera hori erabakigarria izan zen. Estortsio ekonomikoa gero eta estamentu, enpresa eta erakunde gehiagotara hasi zen zabaltzen. Hamazazpi urte geroago, 1993ko uztailan, ETAk Julio Iglesias Zamora bahitu zuen. Azken hori 116 egunez egon zen Arrasateko industria-nabe bateko zulo batean. ETaren arabera, haren osabak, Angel Iglesiasek, Ikusi enpresaren jabeak, uko egin zion estortsio ekonomikoa ordaintzeari.

Antza denez, "ETAk 500 eta 800 milioi pezeta artean kobratu zituen Iglesias Zamoraren erreskateagatik"⁴⁷. Argitalpen horren arabera, 2006an, une horretan "zerga iraultzailearen" kobrantza kontrolatzen zuten ETako kideak atxilotzean jakin zen Iglesiasen familiak ETari ordaintzen jarraitzen zuela. Dena den, 1998an bahitzaileen aurka egindako epaiketaren ondoren jakinarazitako epaian, ez zen erreskatearen ordainketagatik kalte-ordainak ordaintzeko agindurik eman; izan ere, bahituak eta haren osaba Angel Iglesiasek ez zuten aitortu erreskatea ordaindu izana. Epaian esaten zenez, "ez dagokio erreskatearen ordainketaren zenbatekoa zigorrean sartzea, akusazio publikoak eskatu bezala, erreskatearen zenbatekoa ez baitago egiaztatua. Ez dagokio, halaber, biktimak lan egiten zuen enpresak pairatutako kalte ekonomikoengatik kalte-ordainik aitortzea; izan ere, kalte horiek kalkulatzeko oinarriak ez daude inola ere egiaztatuak"⁴⁸.

2,5 metro zabal, 3 metro luze eta 1,80 metro garai zen zulo horretantxe egon zen Jose Antonio Ortega Lara espetxe-funtzionarioa 532 egun bahituta, Guardia Zibilak 1997ko uztailaren 1ean askatu zuen arte.

Beste estortsio-kasu batzuk argitara atera dira Iparraldean ETako arduradunak atxilotuak izan direnean, bai eta ETako atentatu batzuetako errebindikazioen bidez estortsioen berri eman denean ere. Horixe gertatu zen atentatu hauetan:

- "Mecanizados Alberdi" enpresan 2000ko irailaren 29an jarritako bonba. Enpresa hori Legution dago, eta Arrasateko EAJko kide Mikel Alberdi Mondragonena da. ETAk, atentatua bere gain hartu zuenean, aditzera eman

⁴⁶ *El País Semanal* astekaria 2017/07/30. "El final del 'impuesto' del terror de ETA".

⁴⁷ *Teinteresa.es* 2015/01/16.

⁴⁸ *El País*, 1998/11/05.

zuen Mikel Alberdi Mondragonek uko egin ziola “zerga iraultzailean” eskatutakoa ordaintzeari⁴⁹.

- ETako komando batek Arrasateko “Jose Maria Gallastegui y Cía, S.A., JOMA” enpresan 2000ko urriaren 21ean jarritako bonba. Bonbak kalte material handiak eragin zituen. ETAk, atentatua bere gain hartu zuenean, aditzera eman zuen Jose maria Gallastegui Azcoaga enpresariak ez zuela ordaintzen zegokiona.

Erredaktore-talde honek badaki ertz askoko gaia dela, eta zenbait enpresari ezagutu ditu, estortsioa bizi izan dutenak eta estortsioa egin dieten beste familia batzuk ezagutzen dituztenak. Diskrezioa da arau orokorra, eta berau errespetagarria da. Denbora pasatuko da estortsio ekonomikoaren benetako errealitatea zein den jakin aurretik. Badakigu, halaber, Arrasateko pertsona bat estatuaren indarkeriaren biktima izan zela eta gerora ETarena ere bai. ETak eskatzen zion “zerga iraultzaileari” bere “ekarpena” egiteko, arrantzaren arloko enpresa txiki baten kide bihurtu ostean. Pertsona horrek ez zuen horren berri eman bere garaian; bai, ordea, haren kideak (haren kidea ez da Arrasatekoa).

Duela gutxi, bi liburu argitaratu dira ETaren estortsio ekonomikoaren problematikari buruzkoak. 2017an argitaratu zen “Misivas del terror. Analisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial”, Izaskun Saez de la Fuente Aldamak koordinatua. Bigarren liburua aurten, 2018an, argitaratu da: “La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial”, Josu Ugarte Gastaminzak koordinatua.

Bigarren liburu horretan, Florencio Dominguezek jakinarazten du 2002ko irailaren 25ean, handik bi egunera ospatzekoa zen Gudari Egunaren harira argitaratutako idazki batean, ETak Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) kritikatzeko aprobetxatu zuela. Iturri horien arabera, Mondragon Taldeak handik egun gutxira (urrian) jaso zuen lehen estortsio-gutuna. ETak 12 milioi euro eskatu zizkion MCCri, hamar urtean (2002tik 2011ra) ordaindu beharrekoak.

“La bolsa y la vida” liburuaren arabera, Taldeko arduradunek “erabaki zuten ez zutela inola ere onartuko erakundearen eskaera”⁵⁰. Horren aurrean, ETaren “Zutabe” argitalpenaren 10. zenbakian (2003ko ekainekoa), erakunde horrek kritika gogorrak egin zizkion Mondragon Taldeari. Halaber, ETak zenbait gutun bidali zizkien hurrengo hilabeteetan talde kooperatiboko langile-talde jakin batzuei, eta beren planteamenduen eta MCCri egindako ultimatumaren berri eman zien.

49 VascoPress. “Crónica de documentación y actualidad” txosten monografikoa, 2004/08/30ekoa, barruan dituen 2004ko otsailera arteko “ETaren atentatu guztiak”, ETaren Zutabe 79n argitaratuak, 49. or.

50 DOMINGUEZ IRIBARREN, Florencio (2018). In La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial. Madrid: La Esfera de los Libros, 145 or.

2002. eta 2003. urteetan, bitxia bada ere, bestelako kanpaina bat ere bazegoen, zenbait urte lehenago hasia, Mondragon Taldeari izen ona galaraztea eta ekonomikoki boikotatzea helburu zuena, deskribatu berri dugunaren guztiz aurkakoak diren akusazio zinez larriak eginez. Horren erakusgarri dira adierazpen hauek:

- “Beti susmatu izan da lotura duela ETAREN egiturarekin, diru-zuriketarekin eta talde terroristaren kontuen finantzaketarekin. (...) MCC zuzenean edo zeharka dago lotuta estrategia nazionalistaren bi alderdien sustapenarekin, sosten-guarekin eta ezkutaketarekin: EAJ eta ETA”⁵¹.
- “ETAekin lotutako erakunde gehienek (...) funtsean, Mondragoneko Kooperatibekin lotutako finantza-erakundeen sukurtsaletatik jarduten dute, eta zenbait etarrek delitu-jarduerari ekin aurretik Mondragoneko Kooperatiben bulegoetan lan egin izanak berekin ekarri du Caja Laboral Popular ia etengabe egotea Espainiako poliziaren eta Guardia Zibilaren jomugan”⁵².
- “Banku guztien artean, Caja Laboral Popularrengan du konfiantza handien ETAK”⁵³.
- “... harik eta euskaldunak ez diren Espainiako probintzietako ohiko bezero leialek ulertzen duten arte [Eroski] supermerkatuan antxoa-lata bat erosteko ordaintzen duten diruaren ehuneko handi bat ETAREN aldeko publizitaterako inbertitzen dela”⁵⁴.

Garai horretan, Mondragon Taldea bere errealitate ekonomikoa aldi berean zulatu nahi zuten bi presioren artean zegoen. 2003ko otsailean Euskaldunon Egunkariaren aurka egindako polizia-operazioak (euskarazko egunkari bakarra itxi, eta hamar zuzendari eta administrazio-batzordeko kideak atxilotu zituzten) eta urte horretako urrian egunkariarekin lotutako enpresa-talde baten aurka egindakoak (erregistroak egin zituzten, eta bederatzi pertsona atxilotu zituzten) orobat ziren ETAREN ustezko “finantza-sarearen” kontrako kanpainaren ondorio. Baina azkenean, bi prozeduretan, auzipetuak askatu zituzten (2010ean), eta kausa ekonomikoa artxibatu zuten (2014an). Lantalde honek ez du ikertu kanpaina horrek zer kalte eta ondorio izan dituen Mondragon Taldearen garapen normalean.

Halaber, huts egindako zenbait su-etenen ondoren, 2011ko apirilaren 28an ETAK enpresari-elkarteei jakinarazi zien bertan behera uzten zuela estortsio ekonomikoa edo “zerga iraultzailea”. ETAK 2010eko urrian bidali zuen bere azken estortsio-gutuna⁵⁵.

51 VIDORRETA, Julio. *Libertad Digital* 2003/03/01.

52 Jose Diaz Herrera eta Isabel Duran. *El Mundo* egunkaria 2002/11/10.

53 *Ibidem*.

54 USSÍA, Alfonso. *ABC* egunkaria 2002/10/22.

55 *El País Semanal* astekaria 2017/07/30. Op. Cit.

Adegi enpresari-elkarteak omenaldi bat egin zien, Donostian, 2017ko maiatzaren 31n, ETAk erail, estortsioa edo xantaia egin, edo bahitutako Gipuzkoako enpresariei.

ETAk enpresariei zerga iraultzailea eskatuz egindako estortsioari dagokionez, lau kasu ditut gogoan. Horietako hirutan, ordaintzea erabaki zuten, egin zieten mehatxuarengatik. Laugarrenak, ordea, ez ordaintzea erabaki zuen, eta horren ondorioak nozitu zituen. Lehen hirurek bitartekarien bidez egin zuten ordainketa (hots, erakundearen kontaktuak zituzten pertsonen bidez), beherapen bat negoziatu ostean, eskatzen zuten zenbatekoa handia baitzen. Baina okerrean estortsioa pairatzen zutenek sentitzen zuten estutasuna zen, errudun eta urduri sentitzen baitziren, bidaltzen zuten diruari emango zitzaion erabilera zela eta: heriotza eta suntsipen gehiago. Zera galdetzen zioten beren buruari, jasotako dirua kontrolik gabe erabiltzen zela adierazten zuten frogak ikusirik: Emango al diote inoiz herriari jasotako diruaren berri?

*Estortsioari aurre egin zion enpresariak etengabe jaso zituen ETaren mehatxuak, eta enpresa suntsitu zioten, bonba bat jarriz eta lehertuz. Urte asko igaro dira harrezkero, baina familiak oraindik sufritzen du, horretaz oroitzen denean. Duela gutxi, enpresariaren familiako batek etxean pasatutako garai txar horregatik sentitzen zuen minaren berri eman zidan. Paradoxikoa da gaur egun enpresa horietako bakar bat ere ez egotea martxan. **Juan Karlos Garitano***

3.3.3 ADIERAZPEN-ASKATASUNA

Adierazpen-askatasunean alderdi asko sartzen dira, eta, horregatik, beharrezkoa izango litzateke gaia arreta handiagoz aztertzea. Beldurra jokabide desberdinak eragin ditu:

*Herriko jendea ez zen manifestaziora irten ere egin. Jende-andana etorri zen kanpotik; ziur asko, beste leku askotatik etorritako afiliatu sozialistak eta jende zintzoa. Ez dut esan nahi herriko inor ez zegoenik, baina, une hartan, Arrasateko jendearen falta handia sumatzen zen. Eta hori ez nuen neuk bakarrik esan. Nire alderdikoa eta Alderdi Sozialistakoa ez zen jendeak esan zuen. Gogoan dut Alderdi Nazionalistari botoa ematen zion jende askorekin hitz egin nuela. Haiek ere zioten: "Pena da Arrasate osoa ez egotea plaza honetan". **Iciar Lamarain***

Lehenbiziko aldiz hemengo manifestazio batera joatera bultzatu ninduten. Manifestazioan, batera egon ginen ezker-muturrekoak ginen jendea eta PSOEko sektoreak, nahiz eta arrakala bat egon. Eta hura izan zen haiekin manifestazio batera joan nintzen lehen aldia. Eta nire kide batzuk ere joan ziren, eta beste batzuk ez, gogorra zirudielako zure familiakoek zu han ikustea.

Jakina, hori bizi izan ez duenak ez du ulertzen, baina existitu existitzen zen.

Javier Abalde

Gorpua Arrasatera ekarri zuten, eta daukadan oroitzapena da ez manifestazioan ez plazan inork ez zuela garrasi egiten; nik uste ez zenuela lagunarekin ere hitz egiten, beldurra nagusi zelako. Esan dezagun denek izan genuela edo zutela lehenbiziko aldiz kuartelaren aurretik pasatzeko adorea.

Marino Yuste

Egia da, halaber, harako hura: "Ez du hitz egin nahi izan; bestela, zerbait esango du, eta, gero, etorri eta hasiko zaizkit ...", baina ezker abertzalekoak dira. Nik uste baietz, nolabaiteko ikara egon dela. "Matonismo" bat egon da, hori bai egon dela. Dena den, pertsona batzuek ez zuten beren iritzia ematen; bestela, joera honetakoa den honek zerbait egingo dizu. Ez zaizu ezer gertatuko, ez zaituzte hilko, baina zu agurtzeari utziko diote. Nik uste presio hori Arrasaten existitu dela, eta iruditzen zait Arrasaten existitu den bezala beste leku batzuetan ere existitu dela, hala nola Hernanin eta Beasainen. Korrante politiko horren aldetik lehen existitzen zen presioa jada ez da existitzen.

Jose Ignacio Yarza

Nik oraindik ezin ditut nire memoriako pasarte batzuk kontatu. Akaso zirrara gehien eta niretzako izugarri gogorrak izan diren pasarteak dira. Baina beldur naiz.

Amaia Arrieta

Azterlan bat egin behar da horren inguruan. Lekukotzen atalean, iritzi gehiago daude beldurrari eta adierazpen-askatasunari buruz (ikusi 154. orrialdea). Oraingoz, kasu batzuk ekarriko ditugu hona:

• **Informazioa jasotzeko askatasunaren, iritzia emateko askatasunaren eta prentsa-askatasunaren aurkako erasoak.** Garai jakin batzuetan bizi izandakoa jakinarazteko zailtasunaren adibide bat Inmaculada Ezquiagak eta Josek Aranzabalek, *Garaia* aldizkariko kolaboratzaileek, bizi izandakoa da. Biak Martuteneko espetxean sartu zituzten 1997ko otsailaren 5ean, Donostiako epaile militarren aurretik pasatu ondoren, salaketa jarri baitzieten Indar Armatuen aurka egindako ustezko irainengatik. Salaketak oinarritzat zuen Guardia Zibilak 1976ko abenduaren 18an Gurea zinema hustu izanaren inguruan idatzi zutena —"Arrasate: Guardia Zibila, dena emanda" eta "Nor dira arduradunak?", hurrenez hurren—. Testuetan, Arrasateko Udalaren beraren protesta-ohar bat ere jaso zuten.

Harako hartan, Kidego armatuko kideak oldarka sartu ziren Gurea zineman egiten ari ziren euskal jaialdi batean. Ekitaldi baketsu bat zen, musika-emanaldiz osatua, eta zinema herriko jendez beteta zegoen. Hiru ikurrina egotea, antza, arrazoi nahikoa izan zen Guardia Zibileko agenteak kontzertura oldarka sartzeko, jendeari minutu batean handik ateratzeko eskatzeko, jendetzaren aurka eraso egiteko gomazko pilotak eta

ke-potoak jaurtiz eta irteeran jendea borrekin eta mosketoiekin jotzeko. Paradoxikoki, ikurrina handik hilabetera legezatu zuten, 1977ko urtarrilaren 19an. Urte horretako otsailaren 5ean, kazetariak espetxean sartu zituzten.

Gurea zineman kontzertu batean nengoela Guardia Zibilak egindako metrailaketak markatu egin ninduen. Tiroka sartu ziren. Ez dakit bi minutu edo bost minutu eman zizkiguten handik irteteko. Marino Yuste

• **Iritzia emateko askatasunaren eta udalbatzetan erabakiak askatasunez hartzeko eskubidearen aurkako erasoak.** Askotan gertatu dira istiluak udaletxe barruan, udaleko bilkurak zeudenean. Talde batzuk oldarka sartu izan dira pankartekin, karteekin, argazkiekin... eta objektuak jaurti izan dituzte (arrautzak, txanponak...), irainak esan, mehatxuak bota, zinegotzien hitza edo bozketak eten... hauteskundeetan hautatutako ordezkari publikoak larderiatu dituzte, udaletxe barruan eta kanpoan (harriak, aulkiak eta abar jaurti dizkiete)... pintaketak, ituak... Hori guztia adierazpen-askatasunaren eta pertsonen intimitatearen aurkako eraso bat da.

Lekukotza batzuen arabera, horrelako gertakariak hainbat data eta egoeratan gertatu dira. Elkarrengandik urrun dauden bi gertaera nabarmentzearren: 1979/09/07ko udalbatza (bilkura bertan behera gelditu zen) eta 2002/05/07ko udalbatza (istiluak egon ziren TATEk Unai Romanori buruz egindako mozioa zela eta). Luze joko luke udaleko bilera-agiriak abiapuntutzat hartuta kasu guztiak zehaztasunez zenbatzea, baina egin liteke.

Zinegotzi sozialista izandako Paco Garciak honela deskribatzen du "larderiazko gizarte-presio" hori: *"Etxetik irtetea eta jakitea agian ez zarela itzuliko, familiarekin irten nahi izatea eta ezin izatea (...), udalbatzara joatea eta ez jakitea ea joko zaituzten, nahiz eta gauza ziurra izan irainduko zintuztela"*⁵⁶. Alderdi Sozialistako eta Popularreko zinegotziek hainbatetan eskatu dute udaltzaingoaren laguntza udaletxetik irteteko.

• **Kartelak, pankartak, informazio-ekintzak, salaketak, ongietorriko ekintzak...** Adierazpen-multzo horren inguruan, bi jarrera kontrajarri aurkitu ditugu elkarriketatuen artean.

Batetik, batzuek pentsatzen dute propaganda eta publizitate jakin bat neurritz kanpo erabili dela eta horrek kalte egin diola bizikidetzari eta herritarren pluraltasunari, bai eta espazio publikoari eta hiri-altzariei ere. Jarrera hori dute zenbait biktimak. Eragin dieten minaren iraganeko eta gaur egungo sorburutzat edo horien iritzi berekotzat hartzen dituzten horien aldeko apologia edo gorespentzat hartzen dituzte pankartak, pintaketak eta kartelak, eta adierazpen eta mezu jakin batzuk (alderdi jakin batzuen aurka, amnistia eskatuz, harrerak...). Bizi diren lekuan edo maite duten pertsona bati eraso egin zioten lekutik gertu mezu jakin batzuk egunero ikusteak min ematen die. Pentsatzen dute kalea eta hormak herritar guztienak direla, eta ez gutxi batzuenak bakarrik. Iritzi bera dute festak eta ekitaldi jendetsuak "propaganda-inbasio masiboa" egiteko erabiltzeari buruz.

⁵⁶ *Ibidem* 78. or.

Bestetik, beste batzuek pentsatzen dute adierazpen-askatasunak gauza guztien gaine-
tik egon behar duela, ezin dela betorik jarri, horrek posizio politiko batzuk joko demokra-
tikotik kanpo utziko lituzkeelako. Pentsatzen dute, konparazioa eginez, hedabide han-
diek posizio disidenteen aurkako mezuak zabaltzen dituztela eta ez dagoela aukerarik
euskarri horietara iristeko, dirurik edo botererik izan ezean. Hedabideen arteko borroka
desorekatua denez, kontra-publizitatea eskura-eskura dauden baliabideekin erabili
behar dela planteatzen dute. Haien ustez, gaitz txikia baita hormak zikintzea eta leku
publikoak pankartaz betetzea, hedabideen eta mezuen desorekari aurre egiten saiat-
zeko. Gaitz horrek, gogoratzen dutenez, tratu txar, atxiloketa, epaiketa eta isun handiak
ekarri dizkie horrelako gauzak egin dituztenei.

Arazo hau neurritz eta arretaz landu eta hausnartu beharreko puntutzat hartzen da,
Arrasateko sektore zibil guztiek haien artean eta erakundeekin errespetuzko bizikidetzatza
izan dezaten.

*Kalera irtetea eta presoan argazkiak ikustea zintzilikaturik leku guztietan,
herrian ibiltzea eta torturei eta ez dakit zeri buruzko pankartak ikustea... Ni
torturen aurka nago, erabat, baina torturatzea gaizki dago eta hiltzea ez?
Zer gertatzen da? Horrek elikatu egiten zaituela, poliki-poliki. Kalera irteten
zara, pankarta bat ikusten duzu eta kendu egiten duzu, eta kalera irteten zara
eta argazkiak ikusten dituzu, eta Ertzaintzaren etxera joaten zara salaketa
jartzeko: ea argazki horiek zergatik dauden... Horren ondoren, nekez uzten
dizute zure bizitzarekin aurrera egiten. Esaterako, nire amak asko hitz egiten
du Legution hil zuten guardia zibilaren alargunarekin. Azken horrek bere mina
du, baina Andaluzian bizi da. Hil egin dute, hori ere zorigaitz bat, baina han
zaude. Faltan sumatuko duzu, zure sufrimenduari begiratzen diozu, baina
ez dira zu elikatzen ari gu elikatzen gaituzten bezala (...). Guk ez diogu ezer
txarririk egin inori. Aurkakoa: guk ez dugu ezer egin, haiek egin digute kaltea
guri. Nire aita hil dute... utz gaitzazue bakean. Utz gaitzazue bakean. **Sandra
Carrasco***

3.3.4 ONDASUN HIGIEZINEN ETA ABARREN AURKAKO ERASOAK

**ETAk eta Komando Autonomo Antikapitalistek ondasun higiezin, egoitzen,
bankuen, monumentu frankisten eta abarren aurka egindako atentatuak**

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1967/03/07	Erorien monumentua	Hilarrria hautsi zuten	ETA
1967/04/09	Erorien monumentua	Berriro hautsi zuten	ETA
1969/05/19	Telefono-zutoina moztu zuten	Telefono-linean zenbait kalte eragin zituzten	ETA
1976/12/16	Telebista-errepikagailua	Suntsitu egin zuten	ETA

1977/05/14	Santander bankua	Molotov koktel bat jaurti zuten	Komando Autonomoa
1977/06/05	Bi telebista-errepikagailu	Bi bonba. Kalte handiak	ETA
1978/11/16	CCOOen egoitza	Sua, molotov koktel batek eragina	CAA
1978/11/16	Santander bankua	Kalteak	CAA
1978/11/16	Caja Laboral	Kalteak	CAA
1979/10/10	Renault kontzesionarioa	Bonba batek eragindako triskantza	ETA
1981/07/24	Iberdueroren transformadorea	Kalteak	ETAm
1982/10/01	Santander bankua	Kalte handiak, bai eta bi autotan eta alboko etxebizitzetan ere	ETAm
1982/10/01	Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, CAP	Oso kalte handia, bai eta Roneo Unión Cerrajeran eta Amuebladora Mondragonesan ere; alboko etxebizitzetako dozenaka leiho hautsi zituzten	ETAm

1983-2016

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1983/04/19	Santander bankua	Kalte handiak, bai eta zenbait autotan eta etxebizitzetan ere	ETAm
1985/05/13	Etxebizitzak eta autoak	Deko Plazan jarritako bonba batek eragindako kalteak	ETA
1996/11/08	Laborman ABLE	Bulegoetan jarritako bonba batek eragindako kalteak	ETA
1997/04/11	Bake Epaitegia	Bi kilo kloritak kalte handiak eragin zituen barruan eta etxebizitzetan, beiretan eta bederatziz ibilgailutan	ETA
2000/10/21	JOMA S.A. enpresa	Bonba. Kalte material handiak	ETA

Atentatu parapolizialak establezimenduen, enpresen, ibilgailuen, hiri-altzarien eta abarren aurka

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1974/12/17	Makatzena kontsumo-kooparatiba	Kalte ugari barruan eta inguruko etxebizitzetan	Talde parapoliziala
1975/05/11	Etxabe Enea jatetxea	Bonba bidez eragindako kalteak	Talde parapoliziala
1975/06/28	Jokin Etxaberen Udalaiz taberna	Kalte materialak	Talde parapoliziala
1975/07/26	Etxabe Enea jatetxea	Bonba bidez eragindako kalte handiak; horretaz gainera, aparkatuta zeuden autoak metrailatu zituzten	Talde parapoliziala
1975/10/04	Juan Jose Etxaberen autoa	Bonba batek autoa suntsitu zuen, baina ez zuen Juan Jose Etxabe bera kaltetu, berandutu egin zelako	Talde parapoliziala
1975/10/04	Bengoia taberna	Atea eta beirak suntsitu zituzten	Talde parapoliziala

1975/10/14	Iñaki Etxaberen hilarria	Bonba batek suntsitu egin zuen	Ezezagun batzuk
1975/11/16	Iturbe-Ormaetxea familiaren autoa	Bonba-lapa bidez suntsitu zuten; autoan sartu aurretik egin zuen eztanda	Triple A
1976/03/02	Angel Iturberen autoa	Lehergailuak ez zuen eztanda egin	Ezezagun batzuk
1976/04/17	Bengoia taberna berriro ere	Bonba. Kalte ugari	Ezezagun batzuk
1977/08/03	Jose Antonio Altuna Gallastegi alkatearen lan- tegia	Su eman zioten enpresari, meha- txuak salatu eta handik 12 egunera	Guerrilleros de Cristo Rey
1979/09/08	Juan Jose Etxaberen taberna	Beste bonba bat jarri zuten jate- txean	"Inkontrolatuak"
1980/09/14	Jokin Etxaberen jatetxea	Beste bonba bat	GAE

1983-2016

DATA	ATENTAUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1984/01/31	J. J. Uriarte Muruaga (EAJ)	Bonba bat autoan	"Inkontrolatuak"
1984/08/23	Jokin Etxaberen taberna Baionan	Bonba. Lau pertsona zauritu zituen	GAL
1989/10/28	Zuk Nahi taberna	Lau balak atea jo zuten	"Inkontrolatuak"
1992ko abendua	Egin Irratiaren antena, Murugainen	Zenbait aldiz hilabetean zehar	Ezezagun batzuk
1993/12/01	Egin Irratiaren antena	Kalte materialak transmisorean	Ezezagun batzuk

Argitu gabeko atentatua

DATA	ATENTAUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1983ko abendua	EAJko senar-emazte batzuk. Ez zuen inork bere gain hartu.	Bonba bat familiaren Renault 12 autoan	Ezezagun batzuk

Kale borrokaren sabotajeak eta erasoak egoitzen, enpresen, bankuen, ibilgailuen, etxebizitzaren, hiri-altzarien eta abarren aurka

1960-1978

DATA	ATENTAUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1976/06/07	Cauchos Bastida	Sutea. Galera handiak.	Ez zuen inork bere gain hartu
1978/11/17	Ibilgailu bat	Suak kaltetu egin zuen. Barrikada	Manifestariak

* Urte horietan, grebarako eta borroka-egunetarako deialdi ugari jarri zituzten lineako autobusak errepidean zeharka barrikada gisa.

1983-2016

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1985/09/27	Herriko Etxea, PSE-PSOEren egoitza	Altzariak suntsitu zituzten, bai eta hiru txanpon-makina, edalontziak eta botilak ere, eta kalteak eragin zituzten sabaian, eta pintaketak egin zituzten hormetan	Manifestariak
1987/01/01	Talbot-Peugeot kontzesionarioa	Bi auto kiskali zituzten	Kaputxadunak
1988/03/03	Herriko Etxea	Edalontziak, botilak eta abar hautsi zituzten	Manifestariak
1988/03/04	Beste eraso bat Herriko Etxearen, PSE-PSOEren egoitzaren, aurka	Beirak hautsi zituzten oholekin, baina ez zuten lortu barrura sartzea	Manifestariak
1989/05/27	BBVren sukurtsala	Beirak hautsi zituzten harriekin	Kaputxadunak
1989/05/27	Banco del Norteren sukurtsala	Beirak hautsi zituzten harriekin	Kaputxadunak
1992/03/30	Herriko Etxea, PSE-PSOEren egoitza	Beirak hautsi zituzten harriekin	Ezezagun batzuk
1993/08/28	EAJren Batzokia	Pintura jaurti zuten	Ezezagun batzuk
1995/03/26	PSE-EEren egoitza Olarten	Taberna, txanpon-makinak, telebista, telefonoa eta beste gauza batzuk suntsitu zituzten. Pintaketak: PSOE=GAL...	Kaputxadunak
1996/03/07	Ertzaintzaren ibilgailua	Kiskalita gelditu zen	Kale borroka
1996/05/24	Renaulten kontzesionarioa	Zenbait kalte	Ezezagun batzuk
1996/06/30	Pastas Arruabarrenaren kamioia	Kalteak	Ezezagun batzuk
1996/07/14	EAJren Batzokia	Zazpi aulki eta zenbait mahai erre zituzten	Kaputxadunak
1996/09/21	Kutxaren sukurtsala	Kalte ugari	Kale borroka
1996/09/27	BCHren kutxazain automatikoak	Suntsitu egin zituzten	Kale borroka
1996/09/27	Argentaria bankuaren kutxazainak	Suntsitu egin zituzten	Kale borroka
1997/01/12	EAJren egoitza	Harriak, azkoinak, altzairuzko bolak	Kaputxadunak
1997/01/12	Eusko Alkartasunaren egoitza	Harriak, azkoinak, altzairuzko bolak	Kaputxadunak
1997/01/12	La Caixa bankua	Su eman zioten koktelekin	Kaputxadunak
1997/01/12	BBVko kutxazain automatikoa	Su eman zioten koktelekin	Kaputxadunak
1997/01/12	Epaitegien eraikina	Zenbait molotov koktel jaurti zituzten	Kaputxadunak
1997/01/12	Vitalicio bankuaren bulegoa	Su eman zioten koktelekin	Kaputxadunak
1997/01/12	Telefono-kabinak	Suntsitu egin zituzten	Kaputxadunak
1997/04/06	INEM bulegoak	Molotov koktelak	Kale borroka

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
1997/04/06	Aldi baterako laneko enpresa	Molotov koktelak	Kale borroka
1997/04/06	Aseguru-enpresa	Molotov koktelak	Kale borroka
1997/04/06	Bake Epaitegia	Sua. Kalte handiak	Kale borroka
1997/04/06	Sukurtsalen lau kutxazain	Su eman zieten molotov koktelekin	Kale borroka
1997/08/02	Seguros Mapfreren bulegoa	Sugarrek suntsitu egin zituzten egongela nagusia eta altzariak	Kale borroka
1997/10/03	Caja Laboralen bulegoak	Molotov koktelak	Kaputxadunak
1997/10/03	Grupo Vitalicioaren sukurtsala	Molotov koktelak	Kaputxadunak
1997/10/03	Argentaria S. A.	Molotov koktelak	Kaputxadunak
1997/10/03	Kutxaren sukurtsala	Molotov koktelak	Kaputxadunak
1997/10/03	Muebles Montte	Molotov koktelak	Kaputxadunak
1999/02/00	Paco Garcia Rayaren autoa	Molotov koktel batek kiskali zuen	Kale borroka
1999/03/27	Jose Ignacio Jimeno PSE-EEko alkate-hautagaiaren familia-etxebizitza. Senar-emazteak ez zeuden etxean	Bost molotov koktel: 3 fatxadaren kontra, 1 etxebizitzan sartu zen eta kalte materialak eragin zituen, eta 1 auzokoen (senar-emazte erretiratu batzuk) logelan sartu zen; kalte ugari eragin zituzten	Kale borroka
1999/10/14	Correosen bulegoa	Beiratea hautsi zuten, eta lehergailu su-eragile bat jaurti zuten. Gutun-zaku bat eta argindar-instalazioaren parte bat erre zen	Kale borroka
2000/04/25	Jose Ramos Prieto PPko zinegotziaren etxebizitza	Molotov koktelak, sute arina, familiak itzalia	Kale borroka
2001/05/09	UGTren egoitza	Molotov koktelak	Kale borroka
2001/09/08	Ertzaintzaren etxea	Molotov koktelak jaurti zituzten, sute txikiak eraginez. Lau autok kalteak izan zituzten	Kaputxadunak
2002/02/06	Herriko Etxea, PSE-EEren egoitza	18.000 euroren kalteak. Goiko solairuetako bi etxebizitzak eta leihoak kaltetuak izan ziren	Kale borroka
2002/05/03	Gipuzkoako Bankuaren sukurtsala	Kalte ugari	Kaputxadunak
2003/05/08	UGTren egoitza	Beirak hautsi zituzten harriekin. Koktelek kalteak eragin zituzten ekitaldi-aretoan, hormak belztu zituzten eta sabaia askatu zuten	Kale borroka
2005/07/24	Birziklapen-kontainerrak	Su eman zieten	Kale borroka
2005/10/07	EAJren Batzokia	Zenbait kalte	Kale borroka
2006/02/22	Bake Epaitegia	Pintura gorria jaurti zuten	Kale borroka
2006/02/22	PSE-EEren egoitza	Pintura gorria jaurti zuten eta pintaketak egin zituzten	Kale borroka
2006/07/28	PSE-EEren egoitza	Molotov koktelek sutea eragin zuten	Kale borroka

DATA	ATENTATUAREN JOMUGA	ONDORIOAK	EGILEA
2007/01/05	La Caixako kutxazaina	Sute handia. Hiru etxebizitzako auzokoek (24 familia) etxetik irten behar izan zuten. Bankuko bulegoa suntsituta gelditu zen, eta etxebizitza-komunitateko instalazioak kaltetuta.	Kale borroka
2007/01/05	Kutxako kutxazaina	Kalte txikiak	Kale borroka
2007/01/05	BBVko kutxazaina	Kalte txikiak	Kale borroka
2008/05/09	Jose Luis Apraiz EA-EAJko bozeramailearen autoa	Leihoa hautsi, eta autoari su eman zioten: eserlekuak erre ziren	Ezezagun batzuk
2009/11/29	Zenbait kontainer	Su eman zieten	Ezezagun batzuk
2012/09/09	Santander bankuaren kutxazaina	Kutxazainari su eman, eta pintaketak egin zituzten	Ezezagun batzuk
2013/05/00	Kutxazain automatikoa	Su eman, eta pintaketak egin zituzten	Ezezagun batzuk
2014/05/02	Hiru banku	Pintura jaurti zuten	Ezezagun batzuk
2016/11/06	EAJren Batzokia	Pintura gorria jaurti zuten fatxadara, bai eta bi langileri ere	Ezezagun batzuk
2018/03/29	Udaletxeko arkupeak	Pintaketak zutabeetan	Ezezagun batzuk

4. ARGITZEKO DAUDEN KASUAK

Familientzat eta hurbileko jendearentzat ez ezik herriko biztanleriaren zati handi batentzat ere behar bezala itxita ez dauden gertakariak dira. Bertsio ofiziala duten kasuak dira, baina, aldi berean, bertsio hori zalantzan jartzeko moduko elementuak dituzte: zuzeneko lekukoak, auzitegiko azterketa medikoak, beste informazio eta iturri batzuk... Horrek guztiak jarrera kritikoa hartzera bultzatu zituen hainbat alderdi politiko, erakunde eta giza eskubideen arloko erakunde zibil. Itxi gabeko kasu polemikoak dira, eta ez dira ezeztaezinak.

• HERIOTZAK ERAGIN ZITUZTEN KASUAK:

2012tik 2015era, Eusko Jaurlaritzan lehendakari Patxi Lopez zela, gobernu haren aginduz sortutako Balorazio Batzordera hainbat kasu iritsi ziren, ezarritako oinarriekin eta ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren esparru arau-emaelearekin bat ez zatozenak. Ildo horretatik, bai mandatuaren irizpideetan eta bai azken txostenean (*Ahantzuratik ateratzen*⁵⁷, 2017), Ebaluazio Batzordeko kideek behin eta berriz adierazi zituzten zenbait kasuri heltzeko arauen aldetik izan zituzten mugak, eta haietako batzuek ikerketa sakonagoa behar zutela ere azaldu zuten, Batzordeak halakorik ezin bazuen egin ere.

Atal honetan jaso diren lau kasuak egoera horren barruan leudeke, eta halaxe berretsi zuen Batzordeak azken txosteneko paragrafo honetan: "Kasuaren inguruabarrek ikerketa handiagoa eskatzen bazuten ere...". Honako lan hau idazteaz arduratu den taldeak ere uste du ondoren datozen kasuek argibide zorrotzagoak eskatzeko ezaugarriak dituztela eta, horregatik, zenbait elementu eskaintzen dira lan hori errazteko; gertatu zen horren egiara hurbildu ahal izateko aldagaiak, bertsioak edota artxiboak aztergai hartuko lituzkeen "egiaren mekanismo" baten esparruan, horiek guztiak desklasifikatu eta ireki egin behar balirateke, gertakari horiek guztiak argitzeko, kontrastatzeko eta familien eta gertukoaren sufrimendua ez luzatzeko. Argitu gabeko kasu guztiak hartuko lituzke zeregin, mekanismo edo batzorde horrek, modu zehatz eta ireki batean.

Ez dugu ahaztu behar kasu horietako batzuetan akusazio polizial larriak daudela indarkeriazko ekintzekin lotuta, eta sufrimendu handia pairatu dutela familiako eta gertuko askok. Baina polizia-akusazioak ez ziren iritsi auzitegietara lau kasu horietan, lau pertsona horiek epailearen aurretik igaro gabe bota baitzituzten tiroz, legeak esplizituki eskatzen badu ere. Ustezko izaera dute, berez, une oro. Lau gertaera horiek 1974tik 1978ra bitartean izan ziren; beraz, horietako bi diktadura garaian gertatu ziren, Franco hil aurretik eta 1977ko amnistiaren aurretik, eta Espainiako Konstituzioa onartu baino lehenago gertatu ziren laurak. Haiekin lot zitezkeen akusazioak ez ziren inoiz epaiketa batean argitu. Konstituzioaren aurrekoak dira.

57 http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9855/INFORME_saliendo_del_olvido.pdf

Antzekoak dira lau pertsona horien inguruabarrak. 20 urtetik 26ra bitartekoak ziren. Gertakari haietatik 40-44 urte pasatu arren, ez da aurrerapenik egin gertakarien ikerketan. Talde armatuetakoak ziren lau hildakoak (nahiz eta kasu batean libreki aritu zen haietako bat). Horietako batzuek armak zeramatzaten, baina ez zituzten erabili, eta lau kasuetako zuzeneko lekukoek arabera, ez zuten armak erabiltzeko imintziorik egin. Ez ziren borrokan ari tiroak jaso zituztenean; hau da, ordena publikoko indarrak ez zeuden beren bizitza defendatu beharrean, arriskuan ikusi zutelako beren burua. Ez zegoen armarik hildakoen eskuetan. Lau kasuetan, bertsio ofiziala ez dator bat zuzeneko lekukoek, herri-batzordeak edota hildakoen familiakoek eta abokatuek esandakoarekin. Areago, gertatua epaiz kanpoko exekuziotzat sailkatu zen argitalpen batzuetan.

Kasu horietatik hiru Eusko Jaurlaritzaren "Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri" txostenean (2015) jasota daude, "behar beste argitu gabeko kasuak" atalean. Laugarren kasua (bigarrena, ordena kronologikoari begiratuta) bildu ditugun hainbat lekukotasunen bidez jaso da, eta hauxe diote: zaurituta zegoen, eta besoak altxatuta zituen, errendizio-jarreran, tiroz josi zutenean (berrogei tiro baino gehiago, dirudienez). Lehenago, poliziaren kordoi batetik ihes egi- tea lortu zuen Gernikan, atxilotu ez zuten Arrasateko beste militante batekin batera. Guardia zibil bat hil zen gertakari haietan: Domingo Sanchez Muñoz. Bi udalerritan gertatu ziren bi heriotzak: Gernikan eta Ajangizen, 2,5 kilometrora, eta lehen gertakarieta- tik zenbait ordutara. Ez zen epaiketarik izan, eta ezin izan zen frogatu nondik zetozen Gernikan Guardia Zibileko agentea hil zuten tiroak, ez eta nork bota zituen ere. Ez zen ikerketarik egin, nahiz eta gertakari haietatik kanpoko lekukoak izan ziren: adinean aurrera zihoazen baserritarrak, beren zoritxarrerako, atxilotu eta torturatu egin zituz- tenak, ETAko militantearekin inolako loturarik ez bazuten ere, Bilbon abokatuen talde batek salatu zuenez.



Hauexek dira lau kasu horiek, ordena kronologikoan ordenatuta:

1974

José Luis Mondragón Elorza

Arrasatekoa zen Jose Luis Mondragon, eta 26 urte zituen 1974ko maiatzaren 20an hil zutenean. Tornulari doitzaille ikasketak egin zituen Eskola Politeknikoan, baina 18 urte zituenerako hasia zen ETaren propaganda banatzen. *Ahuntzak* taldean sartu zen gerora. 1969an, Iparraldean errefuxiatuta egon zen denboraldi batez; Frantziako poliziak atxilotu zuen han, eta Ré uhartera deportatu zuten. Gerora, berriz, Roke Mendez "Poeta" kidearekin, ETatik kanpo ekintza autonomo bat egitea erabaki zuen, eta, horretarako, Hondarribiko Asturiaga hondartzara (Playa de los Frailes) jo zuten, zodiakarekin, eta han lehorreratu ziren. Nafarroako enpresaburu bat bahitu nahi zuten, dirudienez, preso zeuden kide batzuekin trukatzeko, poliziako infiltratu batek, Jesus Arrondo Martin "Kokoliso" zeritzonak, akuilatuta; hark gidatu zituen toki hartara. Hondartzara iritsi zirenean, poliziek eta guardia zibilek inguratu zituzten –hippy jantzitakoak ere baziren haien artean (Amigo: 71)–, zain baitzituzten. Tirokatuta hil ziren lehen biak, eta hirugarren taldekideak, "Kokolisok", onik ihes egitea lortu zuen. *El País* egunkariko editorial-egileak, Pantxo Unzuetak, berretsi zuenez, "zain zeukaten polizia"; *El Mundoko* kazetari Melchor Miralles eta Ricardo Arquesek "hilketa" gisa sailkatu zuten beren "El Estado contra ETA" liburuan, eta Angel Rekaldek "segada mortal" batean "nahierara tiroz" josi zituztela idatzi zuen "Mugalaris" liburuan.

"Ahanzturatik ateratzen" txostenean, hauxe irakur daiteke:

Batzordearen ustean, ez dago argi gertaera hartan ontzian zeudenek tiroka erantzun zutenik. *Kasuaren inguruabarrek ikerketa handiagoa eskatzen bazuten ere, Batzordeak, bere eskumenen esparruan, kasu honetan aitortpenik egin ezin zuela adierazi zuen, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren araudi-esparrua dela eta (...).* **Kasua etorkizunean aztertua izan daiteke, gertakariei buruzko informazio berriak tarteko**⁵⁸.

1975

Jesus Maria Markiegi Aiausti

Arrasateko Arttubi baserrian jaio zen Jesus Maria Markiegi, "Motriko" goitizenez ezagutzen zena. 20 urte zituen, eta ETAm-ko kidea zen Guardia Zibileko agenteek Ajangizko baserri batean aurkitu zutenean. Gernikatik atzetik zihoazkion, eta, bala-tiro batez zaurituta zegoenez, txakurrek haren arrastoari jarraitu ahal izan zioten. 1975eko maiatzaren 15a zen. ETako militantea zauritu egin zuten Gernikan, poliziaren operazio batean; Markiegi eta ETako beste kide bat, arrasatearra hura ere, lo zeuden etxe batean,

58 "Ahanzturatik ateratzen. Balorazio Batzordearen Txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketek eta bestelako sufrimendu bidegabeei buruzkoa. Carlos Martin Beristain (koord.), Manuela Carmena Castrillo, Aintzane Ezenarro Egurbide, Alvaro Gil Robles eta Gil Delgado, Monika Hernando Porres, Ines Ibañez de Maeztu Izaguirre, Sabino Ormazabal Elola, Jose Antonio Perez Perez, Mirian Sanchez Amado eta Txema Urkijo Azkarate. Eusko Jaurlaritza, 2017. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak argitaratua. Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza. 240. or.

Guardia Zibilak etxea inguratu zuenean. Bi militanteak setio hartatik ihes egiteko lei-hotik alde egiten saiatu zirenean izandako tiroketan, Domingo Sanchez Muñoz agente hil zen. Babesa eman zieten senar-emazteak bertan hil ziren Guardia Zibilaren tiroen ondorioz, "ekintza neurrigabe" batean⁵⁹, eta biktimatzat aitortu zituzten 2016an, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretua oinarri hartuta⁶⁰, "pertsona armagabe eta babesgabeen aurkakoa"⁶¹ izan zela iritzita. Ajangizien gertatutakoei dagozkienez, baserrian zeuden zuzeneko lekukoak azaldu zuten, Jesus Markiegik, zaurituta baitzegoen, besoak altxatu zituen (Bizkaralegorra: 87) errendizio-seinale gisa; baina ez zuten atxilotu, eta berrogei tiro baino gehiago jaso zituen (Zabalza: 58). Argitalpen batzuetan, "epaiz kanpoko exekuziotzat" (Agirre: 604) jo zen gertakaria. Haren gorpua, biluzik, plastikoz bildu zuten, eta sastraka batzuen gainean utzi zuten agerian, Gernikako kuartelaren ondoan.

Hipolito Bustinza Artabe jaunak, 69 urtekoak, emandako lekukotza:

Gizatasunagatik, belaunetik behera odola zerion mutiko bati zauria sendatzen lagundun baserrira hurbildu zenean. Gero, 200 guardia zibil baino gehiago iritsi ziren, eta, mutilak tiro egin ez bazuen ere, ez baitzeraman armarik, hantxe bertan hil zuten tiroz. Nik ez nekien mutil hura ETAKoa zenik ere, eta ez nekien ezer Gernikan gertatuaz. Auzoko andrea -51 urteko alarguna-, koinata, 47 urtekoa, haren senarra, Valentin Inchausti, eta ni Gernikako Guardia Zibilaren kuarteltxora eraman gintuzten. Azalpen gehiagorik eman gabe, tratatu txarrak ematen hasi zitzaizkigun, lehenengo, baserrian geunden guztiok hantxe bertan hil ez gintuztelako damua agertuz; gero, ostikoka eta muturrekoka hasi zitzaizkigun. Fusilen eta pistolen kanoia urdailera eta saiheits-hezurretara apuntatu zizkidaten (bi saiheits-hezur apurtuta), zulatuz eta tiro egin eta hil egingo nindutela mehatxu eginez⁶².

1978

Roberto Aranburu Iribarren

Roberto Aranburu arrasatearrak 21 urte zituen 1978ko azaroaren 15ean guardia zibilaren tiroak jaso zituenean. Komando Autonomo Antikapitalistetakoa kidea zen Roberto Aranburu. Oñatiko Enpresagintza Eskola Teknikoan ikasi zuen, eta Feliciano Aranzabal enpresan ibili zen lanean. Ezaguna zen, Arrasateko futbol taldean jokatu izan zuelako. Egun hartan, hamar bat minutu lehenago, Aranburuk eta Jose Maria Iturrioz Garmendiak Aretxabaletako Guardia Zibilaren kuartelaren fatxada metrailatu

59 Balorazio Batzordearen Txostena. *Ahantzuratik ateratzen*. Op. Cit., 237. or. Iñaki Garai eta Blanca Saralegui dira Batzorde horrek biktimatzat aitortutako senar-emazteak.

60 Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko. EHA 119. zk, 2012ko ekainaren 19koa.

61 *Ahantzuratik ateratzen*, Op. Cit., 237. or.

62 Hipolito Bustinza Artabe jaunaren lekukotza; Labe Garaietan lan egindako erretiratua, 69 urtekoa, baserriko gainerako adineko pertsonekin atxilotua. Bi egunez egon zen Guardia Zibilaren kuartelean. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* bildua; modu klandestinoan argitaratu zen 1975eko salbuespen-egoeran. Bilbon argitaratua. Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Dokumentazio Gunea. Hemen ere bai: Euskadiko Artxibo Historiakoa - Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Saileko Funtza (P-133/2-4). Eta BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete (2017). *Ser Basque Izan. La resistencia vasca no violenta en el franquismo (1957-1977)*. 1. liburukia. Donostia: Utriusque Vasconiae, 82 eta 87. or.

zuten, zauriturik izan ez bazen ere. Berrero Arrasatera itzulita, hainbat agentek atzetik harrapatu eta tiro egin zieten; hantxe hil zituzten, eta zaurituta utzi zuten Kike Zurutuza Odriozola. Emilia Larrea herritarra handik minutu gutxira hil zen, Arrasateko guardia zibilen tiroek jota; guardia zibil haien kideek ez zuten aitortu nor izan ziren tiro egin zituztenak. Eusko Kontseilu Nagusiko Barne Kontseilaritzak zera adieraz zuen hildako haietaz: “publikoki azaldu behar dira, erabilitako bitartekoak proportzionalak izan diren eta atxilotzerakoan bide arrazoizkoago eta egokiagoak erabili ezin ahal ziren ikusteko”⁶³. Ez zitzairen gelditzeko agindu⁶⁴, eta bala-zulo gehienak bizkarrean zituzten⁶⁵. Gainera, Eusko Kontseilu Nagusiak eta Ikerketarako Herri Batzordeak ez ezik, *El Diario Vasco*, *La Voz de España*, *Unidad* eta *Egin* argitalpenetako enpresa-batzordeek (greban zeuden, gertakari hauengatik), elkarrekin, “ohar ofizialen objektibotasun falta” salatu zuten, eta behin eta berriz adierazi zuten hildakoek ez zutela armarik (ikus 1978/11/18ko egunkari horiek). *El País* egunkariak ere haxe adierazi zuen: “Ez dago inon jasota aurrez tiroketa bat izan zenik”⁶⁶.

Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordeak hauxe utzi zuen idatzita bere azken txostenean: *Gertaerak larriak izanik, Eusko Kontseilu Nagusiaren Barne Kontseilaritzako Giza Eskubideen Saileko zuzendaria, Jose Ramon Rekalde, Arrasatera joan zen eta lekukotasunak jaso zituen, zer gertatu zen berreraikitze eta txosten bat egiteko. Batzordeko kide batek jasotako lekukotasun baten arabera, bizirik atera zenak adierazi zuen ez zietela agindu gelditzeko eta ez zutela egin inolako erresistentziarik. Txosten hori eta lekukoak gorabehera, **kasua zigortu gabe gelditu zen**. Batzordeak dio ezin duela balioetsi giza eskubiderik urratu zen ala ez (indarra gehiegikeriaz erabili zen ala ez, esaterako), **gertaerak ez baitziren behar bezala ikertu**.⁶⁷*

1978

José María Iturrioz Garmendia

Jose Maria Iturrioz, 24 urtekoa, izan zen Arrasaten Guardia Zibilak hil zuen Komando Autonomo Antikapitalistetako bigarren kidea, hamar minutu lehenago eta kalte pertsonalik eragin gabe Aretxabaletako kuartela metrailatu ondoren. Auto partikularretan jarrailu zieten zenbait agentek, eta, Arrasateko sarreran, atzetik tiro egin zieten, gertakari haien lekukoen arabera geldiarazteko agindurik eman gabe. Legorretakoa zen Jose Maria Iturrioz, alaba bat zuen, eta zapataria zuen aita. Hortik zetorkion “Zapa” ezizena. Maisutza ikasi zuen Arrasateko Eskola Politeknikoan. Haren familiak Eusko Jaurlaritzaren Ebaluazio Batzordeari aurkeztu zion kasua, ekainaren 12ko 107/2012

63 Eusko Kontseilu Nagusiaren Barne Kontseilaritzaren oharra, 1978ko azaroaren 16ko gauean emana. *El Diario Vasco* eta *Egin* egunkarietan argitaratu zen hurrengo egunean. Herri Ikerketako Batzordeak bildutako lekoek hauxe adierazi zuten: “Inoiz ez zitzairen armarik ikusi hirurretako inori, eta, noski, ez zitzairen alto egiteko edo horrelako ezer eskatu”. *El Diario Vasco*, 1978/11/16: “Begizko lekukoek diote autotik irten zirenean ez zerametela armarik, eta tiroka hasi zela Guardia Zibila”. *El País*, egun horretan bertan: “Ez dago inon jasota aurrez tiroketa bat izan zenik”. 1978/11/17an: “...la mayoría de los impactos por la espalda”.

64 Kike Zurutuzak Eusko Jaurlaritzako Ebaluazio Batzordeari egindako adierazpenak (2012-2015).

65 *El País* 1978/11/17.

66 *El País* 1978/11/16

67 *Ahantzuratik ateratzen*. Op. Cit., 253. or.

Dekretua onartu zenean. Batzordeak aztertu zuen kasua, baina ezin izan zuen balioetsi “giza eskubiderik urratu zen ala ez (indarra gehiegikeriaz erabili zen ala ez, esaterako), gertaerak ez baitziren behar bezala ikertu”. Eta ikerketa hori egin beharra zegoela adierazi zuen; “kasu honen inguruabarrek gehiago ikertzea eskatzen bazuten ere”, dio zehazki. Baina dekretuaren araudi-esparruak mugatu egiten zituen ustez indarkeriarekin lotuta zeuden kasuak, 2.5 artikuluan. Eusko Kontseilu Nagusiak horrela utzi zuen idatzita: “lehen ibilgailuan zihoazenetatik bi irten egin ziren ibilgailutik ihes egin nahian, eskuetan armarik gabe; une horretan, tiroz jo eta hil zituzten”; “gerokoa” da “Guardia Zibilak ibilgailutik hainbat arma atera zituenekoa”⁶⁸.

Eusko Kontseilu Nagusiko Barne Kontseilaritzak ohar bat igorri zuen 1978/11/16an. Giza Eskubideen Saileko zuzendariak, Jose Ramon Rekaldek, idatzi zuen, eta hauxe zioen, besteak beste: *Bakezko gizarte bat nahi dugu, eta uste dugu horixe nahi duela herriak; Ordena Publikoko indarrei eskatu behar diegu **beren funtzioak bikaintasunez bete ditzaten**, ordenaren bermatzaile diren aldetik, urduritasun- edo jazarpen-sentipen subjektibo ororen gainetik. Izan ere, lasaitasun hori galtzeak itzala kentzen die indar horiei beren funtzioa betetzeko. Jose Maria Iturriozen eta Roberto Arambururen heriotzak publikoki argitu behar dira, erabilitako bitartekoak proportzionalak izan diren eta atxilotzerakoan bide **arrazoizkoago eta egokiagoak erabili ezin ahal ziren ikusteko***⁶⁹. Jarrera horrek ika-mika sorrarazi zuen Barne Arazoetako ministro zen Rodolfo Martin Villaren eta Eusko Kontseilu Nagusiko barne-kontseilari zen Jose Maria Benegas “Txikiren” artean; Espainiako Gobernuaren alderdiak, UCDk, babesten zuen lehena, eta gainerako alderdi politikoek, berriz, bigarrena; Arrasaten idatzitako txostena berretsi zuten horiek.

Bai kasu honetan, bai aurrekoan eta bai ondorengoan, Ikerketarako Herri Batzordeak gertakari haien begizko lekukoak bildu zituen txostena osatzeko⁷⁰. Horien artean zeuden hauek: J.A.J. eta M.N.O., Aretxabaletako metrailaketaren inguruan, eta J.A.B., E.E.A. eta J.M.O., Arrasaten gertatutakoaren inguruan.

68 Eusko Kontseilu Nagusiaren Barne Kontseilaritzaren oharra, 1978/11/16koa, Op. Cit.

69 *Ibidem*.

70 Arrasateko herriak Euskadi osoari. *El pueblo de Mondragón informa a toda Euskadi*. Ikerketarako Herri Batzordea. 1978ko azaroa, 2, 3 eta 6. or.

• ZAURI LARRIAK ERAGIN ZITUZTEN KASUAK:

1978

Kike Zurutuza Odriozola

Kike Zurutuza Odriozolak 20 urte zituen, 1978ko azaroaren 15ean Arrasaten larriki zauritu zutenean. Aretxabaletako Guardia Zibileko kideek Arrasaten autoan zihoazen hiru kideen kontra tiro egin zutenean, Kike Zurutuza zen hirugarrena. Auto hartatik eta zauriturik eragin gabe herri hartako kuartelaren aurrealdea tirokatu eta gero, atzetik jarraitu zieten, beraiek ohartu gabe. Jose Ramon Recalde, Eusko Kontseilu Nagusiko Barne Kontseilaritzako Giza Eskubideetako zuzendariak, hauxe jaso zuen txostenean: "lehen ibilgailuan zihoazenetatik bi irten egin ziren ibilgailutik ihes egin nahian, eskuetan armarik gabe; une horretan, tiroz jo eta hil zituzten. Barruan zegoen hirugarrenari tiro egin zioten, eta zaurituta atera zuten autotik". Huraxe zen Kike Zurutuza.

Lau balak jo zuten, eta haietako bi haren gorputzean tinko sartuta jarraitzen dute: bizkarrezurrean bata, eta lepauztaian bestea. Medikuen esanetan, hobe zen ez ateratzea. Beste bi balei dagokienez, bata biriketan jo zuen (birika-gingil bat kendu behar izan zioten), eta bizkarra urratu zion laugarrenak. Hasieran, tiro egin zuten guardia zibilek pentsatu zuten hilda zegoela, eta hantxe geratu zen lurrian. Hala ere, auzotar batzuek lagunduta, LagunAroren osasun-etxera iritsi zen ahal zuen bezala, eta Arrasateko anbulatoriora eraman zuten handik; anbulatoriotik Gasteizko Santiago Ospitalera eraman zuten, eta ebakuntza egin zioten han. Erori zen tokian ez zegoela ikustean, haren arrastoari jarraitu zion Guardia Zibilak, eta Javier Bravo gaztearekin egin zuten topo. Zaurituta ihes egin zuen pertsonarekin nahastu zuten, eta gogor jo zuten, beren hutsegiteaz ohartu ziren arte.

Epaiaren aurrean, Arrasate sarreran sartu zela tirokatutako autora adierazi zuen Kike Zurutuzak, eta, beraz, Aretxabaletako kuartelaren kontrako atentatuan ez zuela parte hartu esan zuen. Horrez gain, esan zuen jada Arrasatera iritsita guardia zibilek ez zietela gelditzeko agindu, hildako bi lagunek ez zutela inolako armarik erabili, eta, hortaz, ez zela "tiroketarik" izan; armak autoaren atzealdean zeudela, poltsa batean. **Kasua ez zuten auzitara eraman.** Salaketa aurkeztu zen Bergarako Epaitegian; haren arrebak aurkeztu zuen, zehazki; Guardia Zibileko kideak akusatu zituzten, Kike Zurutuza ZIUn larri zegoela presiopean jarri eta galdeketak egin izanaz. Ildo horretatik, torturari buruz IVAC-KREI institutuak egindako azterlanean (2017ko abendua) Istanbulgo Protokoloaren pean jarri diren 200 pertsonetako bat da Kike Zurutuza.

5. LABURPEN-ARGAZKIA

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK MOTIBAZIO POLITIKOAREN TESTUINGURUAN, ARRASATEN

	1956 1975	1976 1982	1983 2018	Guztira
ETA, ETAM ETA CAA				
Hildakoak	5	3	3	11
Zaurituak	2	2	5	9
Bahitutakoak	-	-	2	2
Autoa ebazteko bahituak	1	4	1	6
Eskolta behar zuten pertsonak			27	27
Estortsio ekonomikoa				Zehaztu gabe
Heriotza-mehatxuak eta bestelakoak				Zehaztu gabe
Zauriturik gabeko atentatuak	3	10	5	18

TALDE PARAPOLIZIALAK, "INKONTROLATUAK", BVE, GAL

Hildakoak	2	2	1	5
Zaurituak	1	4	4	9
Atentatuetatik bizirik atera zirenak	1	2	-	3
Bahiketa galdeketarekin	-	-	1	1
Bahitzeko ahalegina	-	1	-	1
Zauriturik gabeko atentatuak	8	5	5	18
Heriotza-mehatxuak eta beste batzuk				Zehaztu gabe

ESTATUKO SEGURTASUN INDARRAK

Hildakoak	-	1	-	1
Larriki zaurituak	1	21	1	23
Torturen edo tratu txarren salaketak	45	32	34	111
Legez kanpoko atxiloketak (mendira eraman-dakoak galdeketa egiteko)	-	1	2	3

KALE BORROKA, SABOTAJEAK ETA INDARKERIAZKO PROTESTAK

Hildakoak	-	-	1	1
Zaurituak	-	-	7	7
Erakundeen, egoitzen, sukurtsalen eta abarren aurkako erasoak, zauriturik gabe	-	2	55	57
Etxebizitzen kontrako erasoak	-	-	4	4
Horrelako erasoen ondorioz ospitalera eraman-dakoak	-	-	2	2
Heriotza-mehatxuak eta beste batzuk				Zehaztu gabe

ARGITZEKO DAUDEN KASUAK

Hildakoak	2	2	-	4
Zaurituak	-	1	-	1

6. BESTE INDARKERIA ETA SUFRIMENDU GERTAERA BATZUK

Atal honetan, honako txosten honen izenburuaren bigarren zatiari dagozkion udalerriko beste gertaera batzuk jaso dira: “Arrasaten 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketeki eta **indarkeria-ekintzei** buruzko txostena”. Kronologian ere bildu dira ekintza horiek eta horien testuingurua, garai bakoitzeko motibazio politikoarekin lotuta.

Giza eskubideekin lotutako nazioarteko estandarren arabera, gertaera hauek ezin dira konparatu txosten honetan orain arte esplizitu egin diren giza eskubideen urraketekin, errekonozimenduaren eta ordainaren ikuspegitik. Baina ez dira ezkutatu behar horregatik; gertatuaren zati dira, gertatutakoaren memoriaren zati, eta, beraz, ez da horietaz hitz egitea saihestu behar. Horietako gertaera bakoitza nola gogoratu nahi den adostu beharko da, horiek guztiak ez baitira berdinak elkarrekiko; baina ezin dira bazter utzi.

Toki-mailan, hobeto ezagutzen dira gertaera horiek, eta “errealitate hori aztertu eta aintzat hartu” ahal izatea⁷¹ errazten du horrek, nahiz eta, berriro diogu, lehenetasuna gertatutako giza eskubideen zampaketa guztiei eta horietako bakoitzari erantzuteak duen.

Helburu nagusia bizikidetzeta eta adiskidetzeta dira, elkarren aitortza egitea eta elkar errespetatzea, gertatuaz autokritika egitea, eta ez indarkeriazko liskarretarako zio berriak sortzea. Ez da ahaztu behar sozialki sendatu beharra dagoela, eta sortutako zaurien jariora gelditu beharra dagoela. Gauza guztiak ez dira berdinak, baina guztiak jaso behar dira. Euskadiko Bakearen Aldeko Koordinakundeak, zantzu politikoko indarkeriazko heriotza bat gertatu eta ondorengo egunean, hamabost minutuko kontzentrazio isila egin ohi zuen, hildako pertsona nor zen alde batera utzita. Eta une mingarri eta gordinenetan egiten zuen. “Gizaki ororen bizitzeko eskubidearen aldarria zen nagusi, baita bestearen bizitza akabatu nahi zuenarena ere”⁷².

Beste bereizgarri batzuen artean, “BAK-Gestok gauzaturiko mobilizazioa definitzen duten bi bereizgarri daude: isiltasuna eta hilketa guztien aurkakoa”⁷³. Argi eta garbi esaten zuten: “Ekintza biolentoei erantzen zaien gaitzespena ETAREN atentatuetatik haratago doa, izan ere, datorrenetik datorrela indarkeria gaitzetsi egiten dute”⁷⁴.

71 CARMENA, Manuela, LANDA, Jon Mirena, MUGICA, Ramon, URIARTE, Juan Maria (2013). Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketeki buruzko oinarritzko txostena (1960-2013). Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza, 16. or.

72 Gesto por la Paz. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea. ‘Gestoak’, “Gizarte Mobilizazioa” atalean. www.gesto.org Erakundea desagertu arren, webguneari eusten dio, gertatuaren historiari bere ekarpena egiteko.

73 “Gestoak’ bera da mezua”, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen webgunean, “Zer izan ote zen BAK?” puntuan. www.gesto.org

74 *Ibidem*. ‘Gestoak’.

*Bake Hitzak*⁷⁵ aldizkariaren zuzendariak, Ana Rosa Gomez Moralek, BAK-Gestoren ibilbi-dearen amaieran eta koordinakundea desegin zen garaian idatzi zuen liburuan⁷⁶, “dato-rrenetik datorrela” jarrera hartzeak zekartzan zailtasunak planteatu zituen, eta kasurik polemikoenak azaldu zituen: “segurtasun-indarrekin tiroketa batean nahasi zirelako, edo manipulatzeko ari ziren lehergailua lehertu egin zelako ustekabearen, edota xede zuen tokira eramaten ari zirenean”. Arrazoi hauek eman zituen:

“Pertsona horiek desagertzean mina eta gaitzespena erakustea izan zen gizartearen onespeneraren ikuspegitik printzipiorik konplikatuenetako bat, konplikatuen izan ez bazen. (...) Eta, hala ere, BAKeko taldeek ez zioten inoiz utzi halakoak egiteari; izan ere, beste ezereen ginetik, ezereen truke galduak ziren bizitzak zirelako, eta guk geuk ere gure burua immunizatu egin behar genuelako beste baten heriotzagatik pozteko tentazioaren aurka, gure patua ikusita, gizakiak senti dezakeen pozbide zentzugabe eta irrigarrietakoa baita. Gauza bat da terrorista batek bere xedea betetzea lortu ez duelako poza hartzea, eta bestea, lehergailua berari lehertu zitzaiolako gogoberotasun hori areagotzea”.

Esan dugu “Beste sufrimendu batzuk” kontzeptu horren barnean biltzen den guztia ez dela gauza bera. Zergatik? Badaudelako indarkeria aproposaren erabilerarekin lotuta ez dauden gertaerak (zirkulazio-istripuak...), edo indarkeria inoren kontra erabili ez den kasuak (suizidioak...), edota, aldi berean, badaudelako indarkeria erabiltzeko erabakia-rekin lotutako beste kasu batzuk ere (liskarretan hildakoak edo zaurituak, edo lekuren batean ezartzeko lehergailua eskutan zerabiltzenean bat-batean lehertutako kasuak ...).

Arrasaten, honako kasu hauek bildu ditugu “Beste sufrimendu batzuk” atalaren barnean. Hirurak oso desberdinak elkarrekiko:

- ETAk hildako guardia zibil baten alargunaren suizidioa. Txosten honetan lantzen den problematikarekin lotuta ez dakigu Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzetako kideen artean Arrasaten suizidiorik izan den. Dakigunez, espetxean zeuden arrasatearren artean ere ez da izan suizidiorik.
- Espetxeekin eta espetheen urrutasunarekin lotutako sufrimenduak, istripuak baitakartza horrek askotan, hemen deskribatu dena, besteak beste; eta horrek guztiak familiengan eta batez ere umeengan izan duen eragina.
- Armen eta lehergailuen erabilerarekin lotutako indarkeria. Aurkeztu den lehen kasuan, ez zegoen haiek hil nahi zituen inor; aitzitik, beraien lehergailuek hil zituzten edo utzi zituzten zaurituta, eta, gainera, lehergailu horiek beste batzuen bizitza jarri behar zuten arriskuan, zuzenean edo zeharka. Bigarren

75 Gesto por la Paz, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen argitalpena. 87 zenbaki kaleratu ziren 1992tik 2013ra.

76 GOMEZ MORAL, Ana Rosa (2013). *Un gesto que hizo sonar el silencio*. Bilbo: Euskal Herria Bakearen Aldeko Koordinakundea. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren lankidetzarekin argitaratua, 74-76. or.

kasua Estatuko Segurtasun Indarreko liskar bati dagokio; atxiloketak izan aurretik, tiroak eta zaurituak izan ziren bi aldeetan.

Kasu hauek bildu dira:

• SUIZIDIOA

2007ko otsailaren 11n, Carmen Rodriguez Murielek, ETAk 1986an Arrasaten hildako Antonio Ramos Ramirez guardia zibilaren alargunak, bere buruaz beste egin zuen. Aurrez ere saiatua zen, pastillak hartuz, eta urdaila garbitu behar izan zioten. Bigarren ahalginean, pastillak ez ezik intsulina-indizioa erabili zuen, diabetikoa izanda.

Carmen Rodriguezek 4 urteko semea zuen senarra hil ziotenean, eta haurdun zegoen. Urte asko pasatu zituen depresioak jota. Semea, Alejandro, aitarik eta amarik gabe gelditu zen, ezin baitzuen zaindu behar bezala. Anaia berriak ere ezin zuen jolas egin berekin. Buruko eritasun batekin jaio zen; autista sakona zen, eta % 200eko desgaitasuna diagnostikatu zioten; 3 urte zituela, zentro berezi batean sartu behar izan zuten.

Giro horretan hazi zen Alejandro, eta drogetan nahastu zen azkenerako. Zorrak ordaintzeko dirua lortu nahi zuelako liskar asko izaten zituzten etxean. Azkenean, espetxean ere egon zen. "Egun batean, borroka egiteaz nekatu egin zen Mari Carmen; etsi egin zuen, eta itzulerarik gabeko bidaiari ekin zion betiko"⁷⁷.

DATA	HILDAKOA	INGURUABARRAK
2007/02/11	Carmen Rodriguez Muriel	Depresioak jota urte asko pasatu ostean eta beste inguruabar batzuk tarteko, bere buruaz beste egin zuen.

• ESPETXERA BIDEAN IZANDAKO ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK ETA ESPETXE-POLITIKA

2001eko irailaren 8an, Iñaki Saez Arreitunandia eta Asier Heriz Aizpuru hil egin ziren zirkulazio-istripu batean, eta Irazu Benito [Iñaki Saezen alarguna] larriki zauritu zen; Lurdes Txurruka bisitatzeraz zihoazen Brievara (Avila), han baitzegoen preso. Soraluekoa zen Iñaki Saez, eta HBko zinegotzia zen herri hartan; Arrasaten lan egiten zuen, Emun Kooperatiban eta Txatxilipurdi Elkartearen, zehazki. Mila pertsona bildu ziren Soraluzean egin zitzaion omenaldian eta irailaren 15ean sakabanaketa baztertzeko Bilbon izan zen manifestazioan.

⁷⁷ RODRIGUEZ MURIEL, Juani, Carmenen ahizpa eta ETAk 1986/06/08an hildako kabo lehenaren koinata. Lekukotasun osoa, hemen: teinteresa.es 16/01/2015.

DATA	HILDAKOA	INGURUABARRAK
2001/09/08	Iñaki Saez Arreitunandia	Auto-istripua Brievako espetxerako bidean. Haren emaztea, Iranzu Benito, zauritua. Beste pertsona bat ere hil zen, Asier Heriz.

Norbaitek bisitaren batera doazela esaten digunean... zain egoten gara espetxera iristen diren arte, kezkatuta, eta Euskal Herrira itzultzen diren arte. Edozer gauza gerta daiteke errepidean; oso luzeak dira bidean egin beharreko orduak, eta garaiz iritsi behar duzu, bestela, bisita galtzen baituzu. (...) Astero, Karakatera igotzen gara, haren oroimenez jarri genuen monolitoan loreak jartzera eta landatu genuen zuhaitza zaintzera. Askotan saboteatu dute, zuhaitza moztuz edo monolitoa ateraz⁷⁸.

Presoak urrutiratzeak eta sakabanatzeak dituen eraginen artean, familiako txikiengandengan horrek duen eragina dugu. Arrasatear batek, Iñaki Barrutia Arregi psikologo klinikoak, hainbat datu planteatu zituen duela zenbait hilabete, 2017/11/22an, hainbat argitalpenetan argitaratutako idatzi batean -"Azaroaren 20a, Haurraren Nazioarteko Eguna" izenburua zeraman-, senitartekoak urrutiko espetxetan izatearen ondorioak jasaten ari ziren 113 adingabeen inguruan.

113 adingabe horietatik 9k guraso biak espetxean dituztela zioen; 6k ama dute espetxean, 95ek aita, eta 3 espetxean daude amarekin. Ondorio honekin amaitzen zuen idatzia: "Gure gizartearen parterik zaurgarriena dira adingabeak, eta espetxe-politika arbitrarioak haien eskubideak urratzen ditu, senitartekoak bisitatzen doazen bakoitzean ehunka kilometro egitera behartzen baitituzte". Espetxe barruko egoera ez da ona umeentzat:

*Duintasunez bizitzeko, ez, giza eskubideen aldetik, ez. Zentzu guztietan esango nuke. Ni Palentziako espetxera eraman ninduten eta hango ziegak behintzat beste espetxetako ziega berdinak ziren. Espazio aldetik oso txikiak, literekin, ez zeuden umeentzako egokituak inondik inora. Ez zegoen egokitzapenik; pakete gisa atera eta sartzen ziren haurrak. Ez zegoen pediatrarik, haurra ingesatua gelditzen bada amak espetxera bueltatu beharra zeukan eta han gelditzen zen umea bakarrik Guardia zibilak kuztodiata edo kaleko familiar batekin. [Krudelkeria dago?] Bai, emakumeenean ere, eta haurrenean, gehiago. Euren argudioa da "Haurra askea da, haurrak ez dauka hemen egon beharrik. Haurra ez dago preso, atera daiteke nahi duenean." Damu? Ez. Momentu horretan nire alabarentzako onena zena erabaki genuen bikoteak eta nik. Sentitu, bai, noski. Beldurra izugarria zen. Espetxeak eta bertan bizitakoak nire alabarengan izan zitzakeen ondorioen beldur. Eta erruduntasun sentsazioa ere bai. **Amaia Arrieta***

78 Marifran Aizpuru eta Luis Maria Heriz, Asier Herizen ama eta aita. Gara 2011/09/16.

Gai honen inguruan jaso diren lekukotasunaren arabera, espetxe-politikak albo batera utzi beharko luke gaur egungo egoerarekiko desberdina zen egoera hartan ezarritako salbuespen-egoera, 2017ko apirilaren 8ko ETaren armagabetzearen eta 2018ko maiatzaren 3an behin betiko desegin ondoren. Indarreko legediak preso dauden pertsona guztientzat balio behar luke, batik bat zigorrak gertuko espetxeetan betetzeak xedatutakoari, gaixo dauden presoek tratamenduari, bakartzeari eta gradu-politikari dagokienez.

Maiatzaren 11n, Iñigo Urkullu lehendakariak hala adierazi zuen Eusko Legebiltzarren osoko bilkuran: "ikuspegi etikotik eta biktimen memoriarekiko errespetu osoz, ulergaitza egiten zait presoek urrutzea baldintza politiko bihurtzea". Hauxe gaineratu zuen: "Familiei, inolako deliturik egin ez duten pertsoneri, sufrimendua baino ez die eragiten neurri horrek". Eta erantsi zuen inolako beharrik gabe sufriaraztea ez dela politika egitea: "Ez da jokabide etikoa, ez eta legezkoa ere, espetxe-politika oinarri hartuta".

Frantziako espetxeetan bete diren eta Europar Batasunak 2008an emandako 2008/675/JAI Ebazpenaren arabera meta daitezkeen zigorren kalkuluari dagokionez, hor kokatzen da Josu Arkauz Arana preso arrasatearraren kasua. Hauxe dio esparru-erabaki horrek: "Pertsona baten kontrako prozesu penal batean pertsona horren beraren kontra baina gertaera desberdinengatik beste estatu kide batzuetan aurrez eman diren kondenak kontuan hartzen direla bermatuko du estatu kide bakoitzak, aplikagarriak diren laguntza judizialeko tresnen bidez edo aurrekari penalen erregistroetatik ateratako informazio-trukearen bidez horiei buruzko informazioa lortuta, aurreko kondena nazionalak aintzat hartzen diren heinean eta kondena horiei aurreko kondena nazionalari dagozkien eragin juridiko berak esleitzen zaizkienean, zuzenbide nazionalarekin bat etorrira.". Lege berri bat landu zuen Espainiak 2014an, baina lege horrek oztopatu egiten du kondena horiek metatzea.

• INDARKERIAREN ERABILERA

ETAko bi militanten heriotza eta beste bik jasandako zauriak biltzen ditu kasu honek. Arrasateko Garibai aparkalekuan gertatu zen, auto baten barruan zerabilten lehegailu bat eskuetan lehertu zitzaizkionean, 1983ko apirilaren 19an, zehazki. Dirudenez, egoera txarrean zegoen. Lehentxeago, beste lehegailu bat ezarri zuten banku batean; ez zen kalte pertsonalik izan, baina kalte materialak utzi zituen.

DATA	HILDAKOAK	EMAITZA	EGILEA
1983/04/19	Jose Antonio Garate Askasibar	Ospitalera bidean hil zen	Bere lehegailua (ETA)
1983/04/19	Felix Badiola Etxaburu	Txikituta gelditu zen	Bere lehegailua (ETA)

Hildakoetako batek, Jose Antonio Garate Askasibarrek, 25 urte zituen, eta Elgoibarreko baserri batekoa zen, nahiz eta zazpi urte zituenean Eibarrera joan zen bizitzera familiarekin. Jata enpresan ibili zen lanean. Eskuarlean zerabilten lehegailua lehertzean larriki zauritu ondoren, ospitalera zeramatenean hil zen. ETAko komandoa 26 urtetik beherako lau militantek osatzen zuten.

Felix Badiola Etxaburuk, beste hildakoak, 25 urte zituen, eta Eibarrekoa zen. 15 urte zituenetik, aitarekin ari zen lanean, GAC bizikleta-fabrikari. Haren gorputza erabat txikituta gelditu zen leherketan. Hedabideek oso modu lazgarrian deskribatu zuten nola geratu zen haren gorpua. Beste eibartar batzuk zaurituta gelditu ziren, oso larri haie-tako bat: Jose Luis Herrera Perez (23 urte) eta Agustin Sarasketa Escribano (26 urte.).

DATA	HILDAKOAK	EMAITZA	EGILEA
1983/04/19	Agustin Sarasketa Escribano	Oso larri	Bere lehegailua (ETA)
1983/04/19	Jose Luis Herrera Perez	Larri	Bere lehegailuak (ETA)

[Hilabete lehenago hil zen Angel Fernandez Ruiz, Iraultzako kidea, otsailaren 3an. Oñatiarra zen jaiotzez, eta 26 urte zituen beste militante batekin eskuetan zerabilten lehegailua lehertu zituztenean, Gasteizen. Larriki zauritu zen, eta Madrilgo ospitale batera eraman zuten. Hantxe hil zen handik hiru egunera].

• ENFRENTAMENDU ARMATUA

Enfrentamendu armatu bat izan zen, Bilbon, 1973/09/26an, ETAko kideen aurkako operazio militar batean, eta zaurituak izan ziren bi aldeetan. Jose Maria Vecino Garcia polizia zauritu zuten liskar hartan –haustura irekia bi hezur metakarpianotan-, eta Basurtuko ospitale zibilean artatu behar izan zuten. ETAko militantea zen Jesus M^a Zabarte Arregi “Garratz” arrasatearra atxilotu zuten operazio hartan, bi zangoetan eta esku batean balaz zauritu ondoren. Beste militante batek, Imanol Mitxelena Loiarte “Oxobik”, bost bala-inpaktu jaso zituen, horietako bat birikan. Ebakuntza egin zieten bie-i Basurtuko ospitalean.

DATA	ZAURITUAK	EMAITZA	EGILEA
1973/09/27	Jesus M ^a Zabarte Arregi	Balak zango eta eskuetan	Guardia Zibila

7. UDALERRIAN BEREZIKI ERAGIN DUTEN GERTAKARI AZPIMARRAGARRIAK

Elkarrizketak egin zaizkien pertsona askoren oroimenean gelditutako eta udalerrian egindako landa-lanaren lagin-hautaketan jasotako gertakari azpimarragarriak jaso dira hemen. Gertakari horiek komunikabideetan eta iritzi publikoan izan duten eragina ere izan dugu kontuan beroriek hautatzeko garaian.

Hauek dira, unea eta testuingurua kontuan hartuta, udalerrian inpaktu handia izan zuten lau kasu azpimarragarriak, kronologikoki jasoak:

1. 1975eko urria: *ETa hiru guardia zibil erail zituen, eta talde parapolizialek bi pertsona hil zituzten, lehenengo aldiz.*
2. *Emilia Larrea eta Komando Autonomoetako bi kideen heriotza, eta ondorengo liskarra Martin Villa eta Txiki Benegasen artean.*
3. *"Hemen, etxe ondoan", San Andresen, Jose Antonio Ortega Lara 532 egunez egon zen bahituta, zulo batean.*
4. *Itxi gabeko beste zauri bat: Isaias Carrasco Bidelango langile eta PSE-EEko zinegotzi ohiaren erailketa.*

Mugarri horiez gain, beste gertakari nabarmen batzuek ez dute aurreko lau horien adostasun maila bera lortu. Hauek dira:

- Agurtzane Arregi Letamendiren erailketa 1978an, lehenengo gertaera nagusian txertatu duguna,
- udalerrian eraildako bederatzi guardia zibilen familien bakartzeak eta bakardadeak eragindako egoerak (bazterrean gelditutako mugarriak),
- Juan Luis Aguirreurreta Arzamendiren erailketa 1979an, garai hartan zabaldu ohi ziren salaketak, gero senideek gezurtatu zituztenak, barne,
- Txomin Iturbe Abasolo hiltzean, Arrasaten, 1987ko martxoan, egindako omenaldia, milaka pertsonaren parte-hartzearekin,
- 2007an, La Caixaren kutzazain baten kontrako eraso baten ondorioz, Jokin Zaitegi kaleko hiru ataritako etxebizitzak hustu behar izan zituzten, eta bizilagunek hiru hoteletan hartu zuten ostatu; aurrerago, Ambrosio Fernandez Recio hil zen,
- Olatz Etxaberen eta Sandra Carrascoren lekukotasun samin eta pedagogikoak 2016ko abenduan, Memoriaren plazan, lekukotasunen artean toki nabarmena dutenak.

Atal honetan lau gertakari horiek jasotzeak ez du berorien kalifikazio juridikoa aldatzen giza eskubideen arloan; egindako azterketan eta konparaketetan oinarrituta eta elkarrizketei erantzun dieten pertsona askoren oroimenean izan duten eragina kontuan hartuta jaso dira hemen.

7.1 1975EKO URRIA: ETAK HIRU GUARDIA ZIBIL ERAIL ZITUEN. TALDE PARAPOLIZIALEK BI PERTSONA HIL ZITUZTEN, LEHENENGO ALDIZ.

1975

1975eko urriaren 5ean, Guardia Zibilaren patruila bat, Arantzazun ikurrina bat kendu ondoren, Arrasateko kuartelera bueltan zetorren; ETAk aktibatutako bonba batek eztanda egin zuen, Land Roverra Oñatitik hurbil igaro zenean. Esteban Maldonado Llorente (20 urte), Jesus Pascual Martin-Lozano (25 urte) eta Juan Moreno Chamorro (26 urte) agenteak hil ziren, eta Jose Gomez Castillo (29 urte) kaporalak eta Juan Garcia Lorentek (autoaren gidaria, 27 urtekoa) zauri larriak izan zituzten.

Atentatua gertatu zen tokian margo gorritz egindako marka bat zegoen bazterrean, lehergailua urrutiko kontrol bidez aktibatu ahal izateko. Bonba indartsuak, dinamitaz eta torlojuz osatutakoak, bete-bete harrapatu zuen ibilgailua, eta hogeitabi metro inguru higitu zuen, hainbat itzulipurdi ere eginez. Pascual, Moreno eta Maldonadoren gorputzak errepidean txikituta gelditu ziren. Bi zaurituak Barakaldoko Gurutzetako Ospitalera eramán zituzten, eta Arrasateko kuartelean jarri zituzten hiru hildakoen aldeko hil-kaperak, agenteek han baitzuten postua.



Jesus Pascual Martin-Lozanok hiru hilabete zeramatzan Guardia Zibilean, otsai-lean hasi baitzen lanean. **Esteban Maldonado Llorentek**, 20 urtekoak, denbora gutxi zeraman baita ere lanean; haren aita eta anaia bat ere guardia zibilak ziren. **Juan Moreno Chamorrok** hiru seme-alaba zituen, artean 26 urte besterik ez izan arren. Atentatua gertatu eta biharamunean egin zituzten hileta-elizkizunak, San Joan Bataiatzailearen parrokián.

ETAk hilaren 10ean aldarrikatu zuen atentatua. Ez ziren haiek izan, hala ere, Arrasateko kuartelean eraildako guardia zibil bakarrak: guztira, Guardia Zibilaren bederatzi agente hil zituzten ETA politiko-militarrak, ETA militarrak eta Komando Autonomo Antikapitalistek 1974tik 1986ra bitartean.

Dokumentu hau idatzi duen taldea familia horien egungo egoera ezagutzen saiatu da, baina ezinezkoa izan da, eta, beraz, egiteko gelditu da hori. 1977ko Amnistia Legeak amnistia eman zion kasu horri, eta, hala, atentatuaren egileak ez dira ezagutzen.

Hala ere, 1975eko urriaren 5ean heriotza gehiago izan ziren. Gauean, prestakuntza paramilitarra zuten hiru lagun Kanpazarko gainean kokatutako Etxabe Enea jatetxean sartu ziren; **Iñaki Etxabe Orobengoa** bizi zen han, M^a Angeles Okina emaztearekin eta Olatz, Ainhoa eta Aitor seme-alabekin batera. Erasotzaileek gasa isuri zuten jatetxearen barnera, eta bezeroak lurrean etzan ziren; bien bitartean, erasotzaileek “Zuen bila gatoz!” oihukatu zuten. Luis Etxabek entzun egin zituen, atzeko gela batean sartu, eta atea langatu zuen. Iñaki anaia, aldiz, sukaldean zegoen, eta 18 bala-tiro jaso zituen. Hilaren 11ko “Blanco y Negro” aldizkariak titular hau jaso zuen: “Identifikatu gabeko komando batek Ignacio Echave jauna erail du”. Hilaren 7ko “Informaciones” egunkariak erasotzaileek metrailetak eta pistola erabili zituztela azpimarratu zuen, eta esprai bat isuri zutela bezeroen aurka. Batallón Vasco Español (BVE) aldarrikatu zuen gerora atentatua eta heriotzak eragin zituen lehenengo atentatu parapoliziala izan zen.

Olatzen esanetan, egun hartan bertan Guardia Zibileko agenteak jatetxean izan ziren atentatuaren aurretik, eta atentatua gertatu eta hamabost minutura Elorrioko kuarteleko patruila bat hurbildu zen jatetxera, eta hauxe esan zuten: “Berandu iritsi gara”. Eta honela jarraitzen du Olatzek: “Uste dut bazutela planaren berri, eta nire aita hil ez zezaten saiatu zirela. Ez ziren lagunak, baina aitak jende asko ezagutzen zuen, ideologia guztietakoak; oso pertsona irekia zen, eta harekin hitz egin zezaketen. Beharbada, Elorrioko guardia zibilek pentsatu zuten astakeria zela Iñaki hiltzea”⁷⁹.

Oñatiko atentatua gertatu eta ordu gutxira hiru kaputxadun Etxabe-Enea jatetxera zergatik sartu ziren hobeto ulertzeko, Etxabetarren familiari buruzko datu gehiago behar ditugu. Atentatua “mendekutzat” hartu zuten dokumentu hau idatzi duen talde honek jasotako hainbat lekukok. Etxabetarrak oso ezagunak ziren Arrasaten, eta Frankoren aurkako borrokan izan zuten inplikazioak atxilotetak, atentatuak eta sufrimendu korda eragin zituen.

1968. urteko salbuespen-egoeran, Meliton Manzanos inspektorea Irunen erail ondoren, ehunka pertsona atxilotu zituzten, haien artean Etxabetarren lau anaia: Gregorio, Luis, Jokin eta Iñaki. Ordurako, Juan Jose etxetik ihes eginda zegoen, ETAko kide zelako, eta 1960an, 1962an eta 1970ean atxilotu zuten (1971n utzi zuen ETA, eta bost urte geroago Euskal Sozialista Biltzarrera hurbildu zen). Gregorio ere atxilotu zuten 1962an

79 ZABALZA, Joseba (2017). *Gogoan hartzeko izenak*. Euskal Memoria Fundazioa, 45. or.

(torturak salatu zituen), 1965ean eta 1966an, STVko kide izateagatik. 1968an, agintari frankistek Tebara (Malaga) erbesteratu zuten, eta Luis anaia Alatozera (Albacete). Azken hori lehenago ere atxilotu zuten, 1962an eta 1965ean, STV-ELAko propaganda zabaltzeagatik. 1975ean ere atxilotu zuten.

Iñaki Etxabe erail zuten urte horretan bertan, udaberrian ezarritako salbuespen-egoera batean, Etxabetarrek "abisu" batzuk jaso zituzten. Maiatzaren 11n, "kontrol gabeen" bonba batek eztanda egin zuen familiak Kanpazarren zuen jatetxean. Indarkeria maila handiko hilabeteak izan ziren, eta Arrasatek ondorioak jasan zituen. Maiatzaren 15ean, Guardia Zibilak Jesus M^a Markiegi Aiastrui ETAko kidea, arrasatearra, hil zuen Ajangizen. Beste lehegailu parapolizial bat jarri zuten ekainaren 28an, Jokin anaiak Baionan zuen Udalaiz jatetxean. Eta uztailaren 26an, Kanpazarko Etxabe Enea jatetxea eta jatetxe ondoan aparkatutako ibilgailuak metrailatu zituzten. Artean, inork ez zituen atentatu horiek aldarrikatu, ez eta Donibane Lohizunen Juan Jose Etxaberen autoaren azpian lehertu zen bonba edo Arrasateko Bengoa tabernako lehegailua ere, biak ala biak Iñaki Etxabe erail zuten egunaren bezperan lehertutakoak.

Eusko Jaurlaritzako Ebaluazio Batzordeak, 107/2012 Dekretuari jarraikiz sortutakoak, Etxabe-Oquina sendiari emandako irizpenean, honako hau jaso zen: "Argi dago tirokatu zutenak eskuin muturreko taldeetako kideak edo *inkontrolatu* zeritzenak izan zirela, garai hartan Frankori aurre egiteko sortu ziren mugimenduen kontra aritu baitziren; Estatuko agenteen tolerantzia, onespena eta, zenbait kasutan, parte-hartzea izan zuten susmoa izan da beti".

Iñaki Etxabe hil zenean, egunkarietan eskelak jartzea debekatu zieten senideei, gobernuaren aginduz. Hilerrian hilkutxa bizkarrean zeramatela sartu zirenean, tentsio handiko uneak bizi izan ziren; izan ere, Guardia Zibila segizioaren zain zegoen, eta bertaratuei armekin apuntatu zieten. Baina Iñaki Etxaberen senitartekoek lasaitasunez erantzun zuten. Handik zenbait egunera, norbaitek hilarria apurtu zuen.

Erailketak ez ziren amaitu, ordea. Astebete geroago, hilaren 12an, **German Agirre Irasuegi** taxilaria hilik aurkitu zuten Legution, buruan hiru bala-tiro zituela. Taxilariaren erailketa Agirrek Iñaki Etxaberen atentatuaren egileei buruz nahiz bezperan Sebero Altube plazako Bengoa tabernan jarritako lehegailuari buruz izan zezakeen informazioarekin lotu zen (Bizkarralegorra: 94). Legutioko "kuarteletik bostehun metro inguru-ra"⁸⁰ aurkitu zuten haren gorputza.

German Agirre bergarra herriko taxilaria zen, eta zerbait ikusiko zuen egun haietan. 2000. urtean, biktimaren seme bat, Jokin, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordera zuzendu zen; txostenak haren iritzia jaso zuen: "familiak erailketa Guardia Zibilak egin zuen susmoa du"⁸¹. Biktimak 38 urte zituen, eta bi seme-alabaren aita zen.

80 ALONSO, Rogelio, DOMINGUEZ, Florencio, GARCIA REY, Marcos (2010). *Vidas Rotas*, Madril: Espasa, 62. or.

81 *Ponencia Víctimas de la violencia*. Eusko Legebiltzarra. Giza Eskubideen eta Berdintasun Batzordea. I. liburukia. Vitoria-Gasteiz, 2000. 197. or.

Baina eraso parapolizialak ez ziren 1975ean eten. 1978ko uztailaren 2an, Triple A taldeak **Agurtzane Arregi Letamendi** (17 tiro jaso zituen) eta Juan Jose Etxabe (18 tiro jaso zituen) senar-emazteak metrailatu zituen; emaztea hil egin zen, eta senarrak bizirik irtetea lortu zuen. Agurtzane Arregik Donibane Lohizunen lan egiten zuen, eta lanetik irten eta senarra zain zuen autoan sartu zenean egin zieten tiro. Bi alaba eta seme bat zituzten, 13, 11 eta 9 urtekoak. 1980ko irailaren 15ean, beste lehergailu bat jarri zuten Jokin Etxabek Baionan zuen jatetxean. Orduko hartan, Grupos Armados Españoles (GAE) taldeak aldarrikatu zuen atentatua.

Hauxe esan zuen Jose Antonio Altuna Gallastegi Arrasateko alkate ohiak Iñaki Etxaberen eta German Agirrereren erailketei buruz: "Ez zen inoiz ikertu eta argitu, eta kolpe handia izan zen herriarentzat"⁸². Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordearen arabera: "Denbora asko igaro den arren, ikerketa sakona egin beharko litzateke gertatutakoak argitzeko, inpunitatea saihesteko eta biktimei egindako kalteak osatzeko"⁸³.

82 ALONSO, Rogelio, DOMINGUEZ, Florencio, GARCIA REY, Marcos (2010). *Vidas Rotas*, Madril: Espasa, 62. or.

83 ALONSO, Rogelio, DOMINGUEZ, Florencio, GARCIA REY, Marcos (2010). *Vidas Rotas*, Madril: Espasa, 62. or.

7.2 EMILIA LARREA ETA KOMANDO AUTONOMOETAKO BI KIDEEN HERIOTZA, ETA ONDORENGO LISKARRA MARTIN VILLA ETA TXIKI BENEGASEN ARTEAN

1975

1975eko azaroaren 15ean, Emilia Larrea Saez de Adanari, 52 urte zituenari eta hiru seme-alaben amari, baserriaren atarian eserita zegoela, tiro batek lepoko zaina zulatu zion. Hantxe bertan hil zen. Jesus Mari 22 urteko semea zegoen haren ondoan, eta Crescencia Vidaurreta Garcia adiskidea, 51 urtekoa eta seme baten eta bi alaben ama; haietako bat, Esperanza, amaren ondoan zegoen beste tiro batek Crescencia ezker izterrean jo zuenean. Hirugarren tiro batek Eduardo Etxeberriaren etxeko pertsianaren kontra jo zuen, Larrearen baserritik hurbil.

Arrasateko kuarteleko guardia zibilek egin zituzten tiroak, Aretxabaletako kuarteleko beste agente batzuk, kaleko jantziak eta armak eskuan zituztenez, ETako kideekin nahastu baitzituzten. Apur bat lehentxeago, kaleko jantziak zituzten guardia zibil horiek Komando Autonomo Antikapitalistetako hiru kideren aurka tiro egin zuten: Roberto Aranburu Uribarren eta Jose M^a Iturrioz Garmendia hil zituzten, eta Kike Zurutuza Odriozola larri zauritu zuten (birika, lepauztaia...). Aretxabaletatik haien atzetik joan ziren, lehenengo biek kuarteleko fatxada metrailatu baitzuten.

UBI Oñatin egin nauen eta Institututik askotan Zapakin gentozen kotxien, lagun baten bikotea zen eta... Hil zutenien neretako izan zan, ostia, Zapa!

Julia Monge

Bestalde, Aretxabaletako kuarteleko guardia zibilek egindako tiroen ondoriozko zauriak izan zituzten baita ere Juana Martin Lorenzok, 16 urtekoak eta besoetan haurtxo bat zeramanak, eta Roberto Beltran de Heredia Perezek, 18 urtekoak eta auto baten barnean zegoenak; azken hori biktimatzat aitortu zuen Eusko Jaurlaritzak 107/2012 Dekretuan.

Hainbat egun igaro ondoren, Arrasateko kuarteleko bi agente Emilia Larrearen baserrira joan ziren, tiroengatik barkamena eskatzera, baina alargunak, negar zotinka, handik alde egiteko eskatu zien. Halaber, guardia zibil gazte bat ospitalera joan zen Crescencia Vidaurretari barkamena eskatzera, eta oso urduri zeudela esan zion. Crescenciari 1979ko otsailaren 26an eman zioten behin betiko alta. Denbora batez, familiak mehatxu anonimoak jaso zituen postontzian, gertatutakoa "ETakoak izateagatik" gertatu zitzaieela esanez.

Tiroei dagokienez, *El País* egunkariak hauxe jaso zuen hurrengo egunean: "Ez dago garbi aurrez tiroketarik egon zen ala ez"; "hiru gazteek autoa utzi zuten unean, Guardia Zibila

tiroka hasi zitzaian”; “tiro gehienak bizkarretik jaso zituzten.” *El Diario Vasco* egunkariaren lehen orria: “Lekukoen arabera, ibilgailutik jaitsi zirenean ez zuten inolako armarik, eta Guardia Zibila tiroka hasi zitzaian.” *Euskadi Pressek* honako hau jaso zuen: “jende asko zebilen inguruan”; “dirudienez, Guardia Zibileko agenteek elkarri tirokatu zioten.”

PSE-PSOEren probintzia-batzordeak kondenatu egin zituen ekintzak: “bai edozein pertsonaren kontrako atentatuak bai Guardia Zibilak Arrasaten egindako ekintza zehatza, neurrien proportzionaltasunaren eta herritarren bizia eta osotasun fisikoa errespetatzeko gutxieneko mugak gainditu baitziren.” PCE alderdiak hauxe esan zuen: “Poliziak ezin ditu bere armak erabili biztanleriaren multzoa arrisku larrian jartzen badu (...) Horrelako ekintzek, terrorismoaren kontra lagundu ordez, hark jarritako tranpan erortzea eragiten dute, besterik ez.” CCOO sindikatuak protesta egin zuen, “Arrasateko herrigunean bereizi gabe tiro egin zuten Guardia Zibileko agenteen jokaera arduragabeagatik”, eta Aretxabaletako kuartela metrailatzeko ekintza ere arbuiatu zuen.

Gertaerak erregistratzeko, Ikerketarako Herri Batzorde bat eratu zen herrian, eta azaroaren 27an aurkeztu zuen txostena udaleko udalbatza-aretoan. Batzorde horrek lekuko zuzenen testigantzak jaso zituen: “Ez genion hirutako inori armarik ikusi, eta ez zieten gelditzeko edo antzeko ezer esan”; atxilotzen saiatu gabe tirokatu zituzten. Familiek ez zuten autopsiak eskuratzeko aukerarik izan.

Bertsio ofizialaren arabera, aldiz, “tiro-trukea” gertatu zen, eta guardia zibilek “beren egitekoa zorrotz betez” jokatu zuten. Halaber, Euskal Kontseilu Nagusiak Jose Ramon Recalde, Giza Eskubideen ataleko zuzendaria, bidali zuen txostena egitera. Hona hemen emandako oharraren zati batzuk:

EUSKAL KONTSEILU NAGUSIAREN BARNE KONTSEILARITZAREN OHARRARI BURUZ

(1978. urteko azaroaren 16an, ostegun gauean, emandakoa)

[Gertaerak kontatu ondoren] Barne Kontseilaritzak honako gogoeta hauek egin behar ditu gertaera hauen aurrean:

Lehena.- Indarkeriaren logikak azaltzen du eraso, bai Guardia Zibilaren kuartelaren kontrakoa bai erasotzaileen heriotza ekarri duen erantzuna. Gertaera horiek epaitzeko nahiz ia egunero jasaten ditugun heriotzak eta erasoak epaitzeko, indarkeriaren logikatik kanpo kokatu behar dugu gure burua, beharrezko ordena baketsu baten ardurapean. Gure gizartea gerran dagoen gizartetzat onartzen dutenek ezin dituzte berorren ondorio arruntak gaitzetsi, koherentziaz. Aitzitik, gizarte baketsua nahi dugunok eta herriak ere gauza bera nahi duela uste dugunok, ordena publikoko indarrei eskatu behar diegu beren zeregina zorrotz bete dezatela, hots, ordena berma dezatela,

urduritasun edo jazarpen sentipen subjektiboaren gainera. Indar horiek baretasuna galtzen badute, beren funtzioa betetzeko deskalifikatuta gelditzen baitira. Jose Maria Iturrioz eta Roberto Aranbururen heriotzen azalpena publikoki eman behar da, erabilitako bitartekoetan proportzionaltasunik izan den eta haiek atxilotzeko bitarteko arrazionalagorik eta egokiagorik ez ote zegoen ikusteko.

Bigarrena.- Dena den, ezin azalduzkoa da, zalantzarik gabe, indar publiko batek ondoren izandako jokaera, itsumustuan egin baitzuen tiro, biztanle zibilen artean heriotza bat eta hainbat zauritu eraginez. Ekintza hori zorroztasun handiz epaitu behar da, bi arrazoi egon baitaitezke soilik horren atzean: gogoeta faltaren ondoriozko arduragabekeria, edo are jokabide arriskutsuago bat, biztanleriaren kontra jarduten duen indar bat, etsai duen gizarte baten aurka ariko balitz bezala. Behar-beharrezkoa da, gainera, gertaera horren inguruan egin beharreko ikerketa publikoa ikerketa judizial ere izatea.

Protesta-greba orokorra izan zen 16an Lenizen, eta 17an "ia Gipuzkoa osoa gelditu zen"⁸⁴. Barne Arazoetako ministroak, Rodolfo Martín Villak, Espainiako Gobernuaren izenean, Euskal Kontseilu Nagusia akusatu zuen "gertakari deitoragarriak eta lan-uzteak bultzatzeaz." Horrez gain, hauxe ere adierazi zuen: "Edo terrorismoa babesten da, edo hari aurre egiteko misio gogorra eta sakrifikatua." UCD Espainiako Gobernuko alderdiak Euskal Kontseilu Nagusiko Herrizaingo sailburu Txiki Benegasen dimisioa eskatu zuen, "gertaerabiolentoguztiakparekatzeagatik", eta ikerketa judizial bateskatuzuen, "horrelako gertakarietan automatikoki egiten baita, Zuzenbide Estatu orotan legeak zehazten duen bidetik." UCDrentzat, "Euskal Kontseilu Nagusiak terrorismoa bultzatzen du Euskadin, ustezko indarkeria instituzional baten aurrean ekintza armatua justifikatzen baitu"⁸⁵.

Hurrengo egunetan ere polemikak jarraitu zuen. Txiki Benegasek hauxe adierazi zuen azaroaren 18an: "Ordena publiko demokratikoa ez da dudazko ohar ofizialen bidez erakitzen, horrek biztanleak haserretzea eta asaldatzea besterik ez du lortzen". Halaber, Benegasek esan zuen ordena publikoko indarrak defendatzen zituela eta beti haien alde egongo zela, baina, aldi berean, giza eskubideak errespetatzeko eta biztanleria zibilaren bizia arriskuan jarriko ez zuten ekintzak egiteko eskatzen ziela, "are gehiago, delituaren jazarpena delitugilearen edo indarkeriaren trauma jasaten ari den herriaren aurkako gorroto ez bihurtzeko".


Bere aldetik, PSE-PSOEren Batzorde Betearazleak hauxe adierazi zuen: "Martín Villa jaunak ez du ulertu eta ez du ulertzen, edo agian ezin du ulertu zer den ordena publiko demokratikoa, eta, are larriagoa, ez du ulertzen erregimen demokratikoak zer izan behar duen eta herritar guztiek eragiten dieten gertakariei buruzko informazio zehatza

84 *El Diario Vasco*, 1978-11-17 eta 19. 18an, langileek greban parte hartu zuten.

85 Kakotx arteko esaldi hau, aurrekoak eta ondorengoak hemen: *El País*, 1978-11-19

eta fidagarria izateko eskubidea izan behar dutela". UCDren erantzunari dagokionez, berriz, hauxe esan zuen: "kezko hesi baten moduan uler daiteke soilik, bere ordezkariak Arrasaten gertatutakoen inguruan emandako bertsioan duen ardura ezkutatzeko".

Arrasateko korporazioak dimititzea erabaki zuen hilaren 25ean, Martin Villak esaldi gogoangarri hau botu zuen egun berean: "Esan dudana egia da, eta eutsi egingo nioke, arrazoirik izan gabe ere"⁸⁶. Bere aldetik, Euskal Kontseilu Nagusiak telegrama bat igorri zion Barne Arazoetako ministroari, Kontseiluko Giza Eskubideen sailak egindako lana berresten eta onartzen zuela jakinarazteko.



Ikerketarako Herri Batzardeak txostenerako egindako krokisa.

Ez zuten inor zigortu gertaera haien ondorioz. Ez zen inolako epaiketak izan.

86 Kakotx arteko esaldi hau, aurrekoak eta ondorengoak hemen: *El País*, 1978-11-19

7.3 “HEMEN, ETXE ONDOAN”, SAN ANDRESEN, JOSE ANTONIO ORTEGA LARA 532 EGUNEZ EGON ZEN BAHITUTA, ZULO BATEAN

1996-1997

Hurrengo kasuak ezaugarri bereziak ditu. ETAk egindako bahiketen artean, luzeena izan zen honako hau, 532 egunekoa: Jose Antonio Ortega Lararen bahiketa, Logroñoko espetxe-funtzionarioarena. Ezusteko handia hartu zuten udalerrian bahiketaren amaieraren berri izan zutenean: “hemen, etxe ondoan”, esan zion Marian Romerok Sandra Carrasco alabari, albistearen berri izatean. Zirrara handiagoa izan zen jendeak kasuaren eta zuloaren berezitasunen berri izan zuenean. Aurrerago jakin zen San Andresko industria-lantegi horretan bertan egon zela bahituta Julio Iglesias Zamora 1993. urtean, 116 egunez.

*Ortega Lara gogoan dut, denbora asko egon zelako desagertuta, urtebete pasa, eta nire etxean askotan esaten genuen: “Non egongo da gizon hori”, eta halakoak. Gogoan dut nire baitarako pentsatu nuela ea ez ote zen hemen, Arrasaten, egongo. Bai, bai. Egun batean, jaiki eta uste dut amak esan zidala: “Badakizu Ortega Lara agertu dela?” Eta nik: “Bai, non?” Eta hark: “**Hemen, etxe ondoan**”. “Nola etxe ondoan?”. Ba bai, hemen-txe zegoen, ondoko auzoan. (...) Oso gaztea nintzen artean, eta garai horretan ez zara gauzez ongi jabetzen, ez orain bezala. Asko sufritu behar izan du gizon horrek, familiak, eta sartuta izan zuten zuloa... Orain beste modu batera ikusten duzu. Gaztetan zirrara eragiten dizu, baina ez zara benetan jabetzen... Garrantzia ematen diozu, baduelako, pertsona bat urtebetez baino gehiagoz horrela izatea, bizitzatik apartatuta, eta hor gure etxe ondoan egotea; asko pairatu zuen... oso gogorra da. Oso gogorra. **Sandra Carrasco***

*Izugarria iruditu zitzaidan, jende askori bezala, Ortega Lararen irudi hura, txakur baten moduan giltzapetuta izan ondorengoa. Irudi horiek ikustea eta pentsatzea, nola izan dezakete pertsona bat txakur bat baino egoera okerragoan. Gizon hari irteten ikusteak egonezin handia sortu zidan; krudeltasun handikoa iruditu zitzaidan. Hara zer-nolako salbatzaileak, pertsona bat horrelako baldintzetan edukitzeko gai direnak. Zirrara handia eragin zidan. **Jabier Abalde Galparsoro***

1996ko urtarrilaren 17tik, ETAk Burgosko bere etxeko garajea atxiki zuenetik, 1997ko uztailaren 1era arte egon zen bahituta Jose Antonio Ortega Lara. Euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara eramateko eskatu zuen ETAk askatzeko baldintza gisa.

Gertaerak elkarren atzetik jazo ziren uztailaren 1ean. Goizaldeko 1:10ean, ETAk Cosme Delclaux industrialaria Elorrion aske utzi zuela iragarri zuen. Goizeko 3:30ean, Guardia Zibilak Jose Miguel Gaztelu Otxandorena atxilotu zuen Bergaran, Jose Luis Erostege Bidaguren Antzuolan, Javier Ugarte Villar Oñatin, eta Josu Uribetxeberria Bolinaga

Arrasaten. Hiru ordu geroago, San Andresen, Jalgi kooperatibaren lantegi bateko makina baten azpian, zuloa aurkitu zuen Guardia Zibilak, eta Jose Antonio Ortega Lara askatu zuen.

Dirudenez, lantegia zaintzapean zuen poliziak hilabete lehenagotik. Zuloa gela heze bat zen, 3 metroko luzera, 2,5 metroko zabalera eta 1,8 metroko altuera zituena, eta bonbilla bakarra zuen. Zenbait egunera, uztailaren 7an, epaileak baimena eman zien komunikabideei zuloaren argazkiak ateratzeko. Hiru egun geroago, ETAk Miguel Angel Blanco Garrido bahitu zuen, Ermuko PPko zinegotzia, eta hilaren 13ko goizaldean hil zen, bezperan Lasarte-Orian buruan bi tiro jaso ondoren.



Zulo berean (apur bat aldatu bazuten ere) egon zen bahituta 116 egunetz Julio Iglesias Zamora, Ikusi enpresako ingeniaria, 1993ko uztailaren 5etik urriaren 30era arte.

Ingeniaria askatzeko mobilizazioan begizta urdina erabili zen sinbolo aldarrikatzaile gisa, eta papar-hegalean eraman ohi zen, kateorratzarekin lotuta. "A" bat irudikatzen zuen: Askatu. Euskal Herriko Gesto por la Paz Bakearen aldeko Koordinakundeak bultzatu zuen sinbolo hori eta begizta hori bera erabili zen baita ere Jose Maria Aldaiaren (1995-1996), Jose Antonio Ortega Lararen (1996-1997), Cosme Delclauxen (1996-1997) eta Miguel Angel Blancoren (1997) bahiketetan.

ETAk azkeneko hori, Miguel Angel Blanco, erail zuenean, 1997ko abuztuan zentsura-mozioa aurkeztu zuten HBko alkatearen kontra, Xabier Zubizarreta Lasagabasterren kontra. Jose Maria Loiti Agirrek ordezkatu zuen, EAren eta EAJren arteko koalizioaren ordezkariek. Aurrerago, 1999ko hauteskundeetan, Zubizarreta alkate hautatu zuten berriro.

1998ko ekainaren 29an, Javier Ugarte Villar, Jose Miguel Gaztelu Otxandorena, Jose Luis Erostege Bidaguren eta Josu Uribetxeberria Bolinaga epaitu egin zituzten Jose Antonio Ortega Lararen bahiketagatik, eta 32 urteko espetxe-zigorra ezarri zieten. Epaimahaiak, gainera, konspirazio-mailako azpikeriazko erailketa delitua ikusi zuen, eta bahitzaileek funtzionarioa gosez hiltzen utzi behar zutela argudiatu zuen.

Halaber, Entzutegi Nazionaleko fiskalak, Ignacio Gordillok, 1998ko urriaren 2an esan zuen Julio Iglesias Zamoraren bahitzaileak ere izan zirela, eta jokatzeko modua ere parekoa izan zela; bahitutakoaren hitzetan, hala ere, "Ortega Lararen zuloa dezente handiagoa zen"⁸⁷. "Desberdintasun bakarra bahiketaren eragingarria izango litzateke, Iglesiasen kasuan ekonomikoa izan baitzen, eta Ortegaren kasuan, berriz, politikoa"⁸⁸. Josu Uribetxeberria Bolinaga, Jose Miguel Gaztelu Otxandorena, Javier Ugarte Villar eta Jose Luis Erostege Bidaguren 14 urte, zortzi hilabete eta egun batera kondenatu zituzten bahiketaren parte hartzeagatik.

⁸⁷ *El Mundo*, 1998-10-02.

⁸⁸ *El País*, 1998-10-03.

7.4 ITXI GABEKO BESTE ZAURI BAT: ISAIAS CARRASCO BIDELANGO LANGILE ETA PSE-EEKO ZINEGOTZI OHIAREN ERAILKETA

2008

2008ko martxoaren 7an, Isaias Carrasco Miguel hil zuen ETAk, lanera joateko autoa hartzera zihoanean; AP-1 autobideko ordainlekuan lan egiten zuen, Arrasateko irteeran eta sarreran. Bidelango langilea zen, eta UGT sindikatuko kide. 2003tik 2007ra artean, PSE-EE alderdiko zinegotzi izan zen, baina hurrengo legealdian seigarren zegoen zerrendan, eta alderdiko lau kide soilik irten ziren hautatuak. Kargurik ez zuenez, zinegotzi zen garaian zituen bi eskoltei uko egin zien.

Udalerrian jasotako lekukotasunen arabera, ezinezkoa da pertsona horren kontrako atentatua ulertzea, lehen adierazitako arrazoiagatik ez bada: eskoltarik ez izateagatik hura hiltzea errazagoa izatea. Ezagutzen zutenen arabera, ez zen pertsona gatazkatsua edo oldarkorra, eta haren jarrera ez zen beligerantea izateagatik nabarmendu. Haren “bekatua” –diosku alderdikide batek– PSEko kide izatea zen. Nahiko arrazoi izan zen hori atariko postontzian mehatxu bat jasotzeko, adierazpen honekin: “Badakigu non zauden”.

Udalan parte hartu zuen lau urteetan, bi arlotan lan egin zuen nagusiki: Garapen Estrategikoko Informazio Batzordean, eta Ingurumenari buruzko Sektore Kontseiluan; organo aholku-emaila horretan, PSE-EEko ordezkari gisa aritu zen. Deba Goieneko Gobernu Batzordean ere parte hartu zuen.

Arrasaten jaioa zen Isaias Carrasco, eta haren gurasoak Morales del Torotik (Zamora) iritsi ziren Arrasatera. Bi alaba eta seme bat zituen Maria Angeles Romero bikotekidea-ekin: Sandra (20 urtekoa), Ainara (14 urtekoa) eta Adei (4 urtekoa). AP-1 autobideko ordainlekuan lan egiteaz gain, aparteko lan batzuk ere egiten zituen; Marian Romerok ere, enpresa batean behin-behinekoz lan egiteaz gain, etxeren bat garbitzen zuen, bereaz gain, familiaren ekonomiari laguntzeko.

Isaias hil zuten egunean, Maria Angeles Romerok gaueko txandan lan egin zuen, baina, hala ere, semea eskolara eraman zuen lehenengo orduan, etxe bat garbitzera joan zen gero, etxeko arropa lisatu zuen, eta senarra azken aldiz agurtu zuen. Isaias Carrasco lanera joateko autoa hartzera jaitsi zenean, zarata arraroak entzun zituzten etxetik, eta Marian eta Sandra kalera jaitsi ziren. Adei semeak, lau urtekoak, aita lurrean odolusten ikusi zuen, autoaren ondoan.

... zauriak estaltzen saiatu nintzen. Sandra iritsi zen, besarkatu egin zuen, eta arren eusteko eskatu zion, anbulantzia laster iritsiko zelako. Oihuka hasi zen laguntza eske jaka kendu zuen eta gainean jarri zion, inork ez baitzigun

tapakirik eman. Bizilagunen batek zerbait esaten zidan, lasai egoteko anbulantzia bazetorrela eta. Jendea oroitzen dut, eta ni oihuka. Anbulantzia ez zen iristen. Isaiasen aurpegia dut gogoan, haren begiak, eta odolez betetako nire eskuak. Hilabeteak eta urteak igaro ondoren, hainbat irudi datozkit burura, eta oraindik ezin naiz zenbait tokitan sartu, atentatuarekin lotutako oroitzapenak datozkidalako⁸⁹.

Isaias Carrascoren erailketak eragindako minaz eta sufrimenduaz gain, hil eta ordu gutxira tentsio handiko uneak bizi izan ziren zenbait ordezkari politikoren desadostasunen ondorioz, ospitalean lehendabizi, eta udaletxean bertan gero, han ezarri baitzen hil-kapera. Isaiasen ahaideen artean PPko izen handiko politikariren baten edo udalerriko alkatesaren –EAE-ANV alderdiko– presentziak sortzen zuen arbuioak eragin zuen tentsioa. Gainera, hauteskunde orokorrak hurbil egoteak are gehiago nahastu zuen egoera.

ETAk hilketa aldarrikatu zuen, eta Isaias Carrasco izan zen erakunde horrek eraildako azken politikaria.

Politikarien eta politikari ohien aurkako atentatu hilgarriak*

DATA	IZENA	KARGUA	EGILEA
1968-1975			
1973-12-20	Luis Carrero Blanco	Espainiako Gobernuako presidentea	ETA
1975-11-24	Antonio Echeverria Albisu	Oiartzungo alkatea	ETAm
1976-1982			
1976-02-09	Victor Legorburu Ibarreche	Galdakaoko alkatea	ETAm
1976-06-09	Luis Carlos Albo Llamasa	Mugimenduko tokiko buruzagia Basaurin	ETAm
1976-10-04	Juan M ^a Araluce Villar (eta horren eskoltak eta gidaria)	Gipuzkoako Foru Aldundiko lehendakaria	ETAm
1977-11-08	Augusto G. Unceta Barrenechea	Bizkaiko Foru Aldundiko lehendakaria	ETAm
1977-12-16	Julio Martinez Ezquerro	Irungo Udaleko zinegotzia eta Francoren Zaintzako kide ohia	ETAm
1978-03-16	Esteban Beldarrain Madariaga	Arteako alkateorde ohia	ETAm
1978-12-27	Jose M ^a Arrizabalaga Arcocha	Comuni3n Tradicionalistako probintziako burua	ETAm
1979-01-27	Jesus Ulayar Liceaga	Etxarri Aranatzeko alkate ohia	ETAm
1979-02-06	Jose Antonio Vivo Indabarrena	Olabarriako alkatea eta probintzia-diputatua	ETAm

⁸⁹ Maria Angeles Romeroren lekukotasuna, hemen: zoomrights.com, indarkeria terroristak eragindako giza eskubideen urraketen behatokia. Fernando Buesa Blanco Fundazioa.

1979-09-28	Tomas Alba Irazusta	HBko zinegotzia Donostiako Udalean	GAE
1979-09-29	Luis Maria Uriarte Alza	Bediako alkate ohia eta probintzia-diputatu ohia	ETAm
1980-02-16	Ignacio Arocena Arbelaiz	Oiartzungo Udaleko zinegotzi ohia	ETAm
1980-05-12	Ramon Baglietto Martinez	Azkoitiko zinegotzi ohia eta UCDko kidea	ETAm
1980-10-23	Jaime Arrese Arizmendiarrera	Elgoibarreko alkate ohia eta UCDren Gipuzkoako zuzendaritzako kidea	Komando Autonomoak
1980-10-31	Juan de Dios Doval Mateos	UCDren Gipuzkoako zuzendaritzako kidea. Irailaren 29an, ETApM-k Jose Ignacio Ustaran Ramirez hil zuen Gasteizen; alderdiko kide zen hori ere.	ETApM
1980-11-14	Vicente Zorita Alonso	Bizkaiko APren zuzendaritzako kidea	ETAm

1982-2011

1984-02-23	Enrique Casas Vila	PSE-PSOeko senataria eta Gipuzkoako zerrendaburua hauteskunde autonomikoetan	Komando Autonomoak
1984-10-17	Vicente Gajate Martin	Errenteriako Udal Batzordeko kide ohia, PSE-PSOE alderditik	ETA
1984-11-20	Santiago Brouard Perez	HASiko lehendakaria, HBko zinegotzia Bilbon eta HBren Mahai Nazionaleko kidea	GAL
1984-12-31	Jose Tomas Larrañaga Arenas	Azkoitiko zinegotzi ohia eta Mugimendu Nazionaleko burua Gipuzkoan; gero, UCDko kidea	ETA
1989-11-20	Josu Muguruza Guarrotxena	HBko diputatua Espainiako Parlamentuan	Eskuin Muturra
1992-01-15	Manuel Broseta Pont	Senatari ohia eta Autonomietarako Estatu idazkaria UCDn Estatu Kontseiluko kidea	ETA
1995-01-23	Gregorio Ordoñez Fenollar	PPko lehendakaria Gipuzkoan. PPko alkateordea Donostian	ETA
1996-02-06	Fernando Migica Herzog	Gipuzkoako PSE-PSOeko presidente ohia	ETA
1997-07-12	Miguel Angel Blanco Garrido	PPko zinegotzia Ermuko Udalean	ETA
1997-12-11	Jose Luis Caso Cortines	PPko zinegotzia Errenterian. EAeko APren fundatzaileetako bat	ETA
1998-01-09	J. Ignacio Iruetagoiena Larrañaga	PPko zinegotzia Zarautzen	ETA
1998-01-29	Alberto Jimenez Becerril (eta horren emaztea)	PPko zinegotzia Sevillako Udalean	ETA
1998-05-06	Tomas Caballero Pastor	UPNko zinegotzia Iruñean	ETA
1998-05-25	Manuel Fco. Zamarreño Villoria	PPko zinegotzia Errenteriako Udalean	ETA
2000-02-22	Fernando Buesa Blanco (eta horren eskolta)	PSE-EEko ordezkaria Eusko Legebiltzarrean. Lehendakariorde ohia (1990-1994)	ETA

2000-06-04	Jesus Maria Pedrosa Urquiza	PPko zinegotzia Durangon	ETA
2000-07-15	Jose Maria Martin Carpena	PPko zinegotzia Malagan	ETA
2000-07-29	Juan Maria Jauregi Apalategi	Gipuzkoako gobernadore zibil ohia. PSE-PSOeko zinegotzi ohia Tolosan	ETA
2000-08-29	Manuel Indiano Azaustre	Zinegotzi independentea Zumarragako PPren zerrendetan	ETA
2000-09-21	Jose Luis Ruiz Casado	PPko zinegotzia Sant Adria de Besosen	ETA
2000-11-21	Ernest Lluch Martin	Osasun ministro ohia, PSOEn Gobernua	ETA
2000-12-14	Francisco Cano Consuegra	PPko zinegotzia Viladecavallsen	ETA
2001-03-20	Froilan Elespe Inciarte	PSEko alkateordea Lasarte-Orian	ETA
2001-06-05	Manuel Gimenez Abad	Aragoiko PPko lehendakaria	ETA
2001-07-14	Jose Javier Mugica Astibia	UPNko zinegotzia Leitzako Udalean	ETA
2003-03-21	Juan Priede Perez	PSE-EEko zinegotzia Orioko Udalean	ETA
2008-03-07	Isaias Carrasco Miguel	PSE-EEko zinegotzi ohia Arrasaten	ETA

* Iturria: Sabino Ormazabal. Ez dira jaso Falangen, UCDn, PSE-PSOEn, PPn, UPN-n, HBn eta abarretan kargu jakinak bete ez zituzten beste afiliatu politiko batzuen aurkako atentatu hilgarriak, ez eta Poliziak hainbat inguruabarretan eraildako kargu politikoak ere.

Hilketa hartatik hamar urte igaro direnean, 2018ko martxoaren 3an, EH Bilduko ordezkari batzuk, lehen aldiz, urtero PSE-EEK antolatzen duen omenaldian izan ziren.

Lau egun geroago, martxoaren 7an, Arrasateko Udalak adierazpen bat onartu zuen, udaleko talde guztien adostasuna lortu ez bazuen ere (EH Bildu abstenitu egin zen). Izenburu hau zuen: "Isaias Carrascoren hilketa bidegabearen 10. urteurrenari buruz". Zauriak irekita jarraitzen du.

Isaias Carrascoren alaba zaharrenak, Sandrak, autobidean lan egiten du, eta bere aitak zuen lanpostu bera du ordainlekuan.



El Diario Vasco

8. ZENBAIT TESTIGANTZA: INDARKERIAZ, GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEZ, BIZIKIDETZAZ ETA MEMORIAZ

Txostenean zehar indarkeria politikoak eragindako giza eskubideen urraketa ugariren datu zehatzak aurki daitezke, sarritan bere testuingurua eta xehetasunak barne; betiere ahalik eta ikuspegi objektiboena erabiliz. Testigantzen atal honetan, berriz, datu zehatzik ez da aipatzen; herritar batzuen bizipen eta iritziak baizik, ikuspegi subjektibotik kontatutakoak, jakina. Baina aldi berean, barru-barrutik irtendako hitzek ematen duten benetakotasuna agerian utziz.

Solaskideen hitzak jasotzean, helburua ez da izan Arrasateko iritzi politiko, sozial edo ideologiko guztien bilduma osatu bat burutzea, mugatuagoa da xedea: indarkeria politikoak herritarren arteko bizikidetzan izan duen eraginaren hurbilketa bat egitea da helburua, baita memoria partekatu bat eraikitzeo oinarritzko osagaiei buruzko gogoetak biltzea ere. Jasotako lagin hauek, arrasatear ugariren kontakizun, iritzi eta pentsamoldearen erakusgarritzat hartu ditugu, zuzenki inor ordezkatzan ez badute ere; eta jakina, gaiaren konplexutasuna zein ñabardurak agortutzat eman gabe.

Ahalegin honetan, Arrasaten bizi edo herriarekin nolabaiteko lotura duten zenbait pertsonen kontakizunak eta iritziak jaso dira, bakarka eginiko elkarrizketa luzeetan. Iraganeko indarkeria egoera desberdinak oroitzea, eman diren giza eskubideen urraketan ondorioez gogoeta egitea eta, etorkizuneko bizikidetzari begira, proposamenak edota desioak biltzea izan da saiakera. Esan gabe doa, iritzi aniztasuna bermatzea izan dela erronkarik nagusienetakoa. Izan ere, txostenaren egileon ustez, testigantza horietan jasotako adierazpenek nahiko ondo islatzen dute beste arrasatear askok partekatu dezaketen iraganeko hainbat bizipen eta sentipen, baita geroari begira dituzten nahi edo itzaropenak ere.

Ezaguna da zenbait bizipenek, traumatikoak bereziki, arrasto berezia uzten dutela norberarengan, bere eragina luzaroan irauten duelarik. Hain zuzen, iltzatuta geratzen dira norbanakoaren memorian eta ondoren, transmisioaren bidez, etorkizuneko memoria kolektiboa osatzen joan ohi dira.

Pasarte gehienetan ez da azaltzen nor den adierazpenen jabe, azpimarra jarri nahi baitzaio ZER esaten denari, NORK esaten duenari baino; alegia, edukiari esatariari baino. Hala ere, zirrara pertsonalen atalean elkarrizketatuen hitzak euren izen abizenekin batera agertzen dira, hor inpaktu gehien eragin dien bizipenak adierazten baitira, solaskideak alfabetikoki taxutuz. Hortik aurrera nahasita daude, ordea.

Egiturari dagokionez, lau multzo nagusitan antolatu dira testigantzak: Lehenik, "Zirrarak" maila orokorrekoak zein Arrasate edo norberaren bizitzan gertutik ezagutu-takoak. Ondoren, "Biktimak eta eurekiko aitortza". Hirugarrenez, "Bizikidetza". Jarraian, "Memoria eta etorkizuna". Eta azkenik, "Formula berriak etorkizunerako".

8.1. INDARKERIA-GERTAEREK SOLASKIDEENGAN ERAGINDAKO ZIRRARAK

Elkarrizketatuak izan diren lagunengan arrasto sakona utzi duten indarkeriazko gertaeren oroitzapenak jasotzen dira jarraian. Kontakizun batzuetan frankismoaren garaiko aztarnak azaltzen dira; beste batzuetan, ordea, azken hamarkadetara mugatzen dira soilik. Jakina, batzuk zein besteak guztiz baliagarriak suertatzen dira txosten honen helbururako.

Oroimenezko zirrara hauek bi azpiataletan jaso ditugu kronologiazko irizpiderik jarraitu gabe, solaskide bakoitzaren adierazpenen arabera. Lehenengo kasuan, denbora zein tes-tuinguru irekia hartu da irizpidetzat, norberaren bizipen orokorrak bildu asmoz; bigarre-nean, Arrasateko esparrura mugatu da gehienbat, gertutasunari lehentasuna emanaz.

8.1.1 ESPARRU OROKORREKO GERTAEREZ

Javier Abalde Galparsoro

Biziki hunkitu ninduen Pérez de Arenazaren hilketak; GALen lehenbiziko ekintze-tako bat izan zen. Biziki hunkitu ninduen, halaber, Ermuko zinegotziarenak. Izan ere, denok izan dugu halako bilakaera bat, ezta? Gogoan dut emaztearekin nen-goela egun hartan, Zarauzko hondartzan, eta nola esan nion: "Hil egingo dute". Hau da, apustua oso gogorra zela ohartu nintzen, ETAk ohikoa zuen harrokeriaz ziharduela ("agintzen dutena egin egiten dute...") eta, jode..., presoak askatzea baldintzatatzat jartzea, bada... "Hil egingo dute", pentsatu nuen.

1981eko otsail izugarri hartaz gogoratu naiz: lehenbiziko astean, Ryan hil zuten, Lemoizko ingeniaria; bigarrengoan, Arregi erail zuten, Madrilgo komisaldegi batean, eta hurrengoan, berriz, Tejeroren estatu-kolpea etorri zen.

Iban Arantzabal Arrieta

Ni Elgetakoa naiz sortzez eta han bizi izan dugu familia baten desgrazia gerra zibiletik, Sesto Gain baserrian gertatutakoa. Guk hori bizi izan dugu oso-oso

barruan. (...) Horrek nik uste dut kolpatu duela herria modu diferentetara eta horrekin bizitzen jakin izan dugula. Etxean, familian kontatua delako... oso kontatua izan delako herri guztian. Baina berezitasuna da Anttoni Telleriak berak ez zuela 13 urterekin sufritu zuenaren berri eman ia hiltzera zihoanera arte (2003an kontatu zuen; 2007an hil zen); isiltasun luzearen ondoren, laurogeitaka urterekin kontatu zuen lehenengo aldiz. Beldurgarria izan zen: euren baserrira joan, aita hil, ama babesten zegoen aita kulatazoka larriki zaurituta laga bera ume zela, eskua ipini babesteko, atzamarrak moztu, onean lortu ez zuen guztia txarrean egin, biolatua izan... Hau da: drama bat, dramoi bat; ez dakit ezer txarrago egin litekeen familia batean. Familia horren mina nik uste dut herriko mina izan dela eta horrekin bizi izan dugula herritarrok. (...)

Gaian sakondu eta ikasi dugunean denok memoria zer den, edo erreparazioak zer esan nahi duen, edo errekonozimenduak... Ba halakoetan ere indartua irten den episodio bat izan da Antoni Telleriana. Azkeneko urtetan, uste dut gai hori atera dela askotan, bai gerra zibileko hainbat ekintza egin direlako herrian, Intxorta 1937 kultura elkarteak eta udalak egin dituztelako hainbat ekitaldi, erakusketa, errekreazio... Musika edo literatura ere arma ahaltsuak dira memoriarako. Esate baterako, Saizarbitoriaren "Lili eta biok" liburuan badago pasarte gogor bat gai hau lantzen duena. Irakurri nuenean liburua pausatzen utzi behar izan nuen hiruzpalau egun.

Familian ere modu askotako gertaerak dauzkat entzunak. Gogorrak batzuk. Esaterako, fusilatua izateko asmoarekin espetxetik atera zuten Martin aittittarenak.

Amaia Arrieta Gonzalez

Gauza askok eragin didate zirrara. Zaila da aukeraketa bat egitea. Garai gogorrrak ziren eta egunero zegoen indarkeriazko gertakariaren bat. Atxiloketaren bat, torturaturen bat, ekintzaren bat, espetxeetan borrokaren bat,... Lan politikoa kriminalizatzen hasi zen modu oso bortitzean eta Ezker Abertzalekoa izateko espetxean bukatzea suposatzen zuen. Horrek suposatzen duen guztiarekin. Horrela bizitzea ez zen batere erraza. Orduan Ezker Abertzaleko taldeak ez zeuden ilegalizatuta, baina bagenekien bertan parte hartzeak atxiloketa, tortura eta espetxea ekarri zezaketela. Hogeihogei bost urte bitarteko gazteak ginen, eta lan politikoa egiten genuen. "Guztia ETA da" lelopean sortu zuten gure kontrako sumarioa eta sei urte eman genituen espetxean Jarrai, Haika edo Segikoak izateagatik. Guztia ETA zela leporatuta. Ez gintuzten epaitu inolako ekintza armatu egiteagatik, ezta kale borroka egiteagatik, ezta mehatxu egiteagatik. Inork ez zuen halakorik zegoenik ere aipatu. Baina horrek ez zuen inporta.

Iratxe Sorzabalena. Berak gose greba luze bat egin zuen entregatua izan ez zedin. Orduan, ez zuten entregatu. Oso ahul zegoen eta aske utzi zuten, bizitza

normala egiten, indarra hartzen, loditzen, gero atxilotu eta torturatzeko. Soton nengoen bera iritsi zenean. Pasa zituenak ezagutzen nituen eta ezin besarkatu. Leihotik oihu egitearekin konformatu behar.

Martxoak 11koa ere izugarria izan zen guretzako. Alcalá Mecoko espetxean nengoen orduan. Goizean goizetik moduloetako telebistek trenen kontrako erasoaren berri ematen zuten. Erasoak ETak egin zuela zioten. Espetxeko agintariek modulu guztietako ateak ireki zituzten Euskal preso politikoen kontra eraso egin nahi zuen edonork aukera izan zezan. Manifestazioan etorri ziren presoak, funtzionarioak eta espetxeko beste arduradunak ere. Batzuk makilekin, guztiak gu mehatxatzen eta iraintzen. Kide asko jipoitu zituzten eta mutilen espetxean, ziega batzuei sua eman nahi izan zien. Gurean, kide batzuk jipoituak izan ostean, isolamendura eraman gintuzten. Handik irten ginenean ere erasoek jarraitu zuten. Ilea orrazteko erabiltzen nuen eskuilarekin egin behar izan nuen lo denbora luzean. Hori zen nire burua defendatzeko neukan arma onena.

Amaia Azpiazu Aranburu

Meliton Manzanasenak, badakizu zer? Gogorra da esatea, baina esan nauen: ba igual mereziduta eukiko dau. Banekien torturatzailerak zala, banekien preso eramaten zituztenak, orduan euskaldunak niretzat, nola tratatzen zituzten. Eskusa bezela edo, neri tokau jaten entzutea, "Lo tenía merecido". Ba neuk be esan nauen barruan: "pues a lo mejor lo tenía merecido". Lehen badakizu zelan ziran gauzak. Lagunekin be konfiantza askorik ez genuen hortaz hitz egiten. Nik iritziak politika mailan oso gutxi eman ditut. Beldurragaz, hain barruan daukazuna... Heziketan be bai, monjakin ezin da esan, hau ezin leike esan... Kontuz esatea nazionalista zarala.

Neuri badakizu zeinek eman ostan hola kolpea eta bukatu nauela guztiz ETaren kontra? Badaukazu seme bat maite dozula baina trastakeriak hasten dirala egiten eta zuk: "ipiniko da ondo, konfiantza badaukat honekin". Gauza bera gertatu zitzaidan ETakoekin. Zelan izan leike? José María Ryan Lemoizko ingenieroa. Inpaktoa. Lehenengo andrea, eskatzen mesedez bere senarra ez hiltzeko. Haren mina, haren ahotsa be, ezin atara. Ikusten zan andra bat oso minduta eta oso urduri baina haren irudia ezin dot kendu burutik. Ikusi nuenian Ryanen gorputza han, ez dakit horrela izan zan. Hor zuhaitz baten, erdi jausita, bere burua ikusten zala... Orduantxe esan nuen... ez, begira, dira terrorista kriminalak eta honek dira bihotz gabekoak eta "crueles".

Beste gauza bat ointxe etorri jatena da Goikoetxea. Ertzaina zan, uste dut tiroz hil zutela edozein kolean eta bere andrea manifestazinora joaten. Handik egun batzutara organizatu zan Bilbon, bera autobusean, enfokatu egiten zuten. "Medios de comunicación", badakizu... Haren aurpegiak adierazten zauen mina,

geratu jaten benetan, egon nintzen etxean negarrez. Sufrimentua, honek ekarri dauen sufrimentua inork ez daki.

Sandra Carrasco Romero

Telebistan, atentatuak dira gehien ikusi izan dudana, norbait hiltzen zutenean. Gehien hunkitu ninduen zera izan zen, moto batean jarri zuten bonba hura, partetik igarotzean gizon bat hil zuena. Irudia ikusten zen: gizona, lurrean etzanda; bonbak arropa guztia desegin zion, eta galtzoin hutsetan zegoen, eskuan ogia zuela. Izugarrizko zirrara eragin zidan irudi horrek. Eta, gero, Fernando Buesarenak eta haren zaindariarenak. Gogoan dut etzanda zeudela, bietako bat baranda batean ageri zela... Eta gogoratzen dut aitak nola esan zidan: "Begira; animaliatxo batzuk dirudite, bonbaren leherketak harrapatu eta hor geratu direnak". Horiek hunkitu ninduten gehien... Miguel Angel Blancorenak ere bai, eta hemen, Arrasaten, Ortega Lararekin gertatu zenak.

Olatz Etxabe Okina

Gogoratzen dut, aita hil eta berehala, Franco hil zela. Bata urrian eta bestea azaroan. Pena eman zian aita ez bizi izatea hori ikusteko.

Atentatu bat gertatzen zanean beti, barruan, tripetan, beti sentitzen nun eta, hasieran esango nuke bakarrik, alde batekoak zirenean. Baina bukaerara uste dut, bai alde batekoak eta bestekoak sentitzen nituela. Oso ondo gogoratzen dut Hipercor-ekoa eta Yoyesena ere, oporretan nengoen.

Francisco Garcia Raya

Politikan hasia nintzen ordurako, eta alderdiari laguntzen nion, hemen, Arrasaten, baina ez nengoen afiliatuta. Enrique Casas hil zuten zoritxarreko egun hartara arte. 83an, 84an... orduan, bai, Euskadin bakea eta demokrazia izan genitzan borrokatzea erabaki nuen, bai eta Espainian izan genitzan ere, Espainiari ere eragiten ziolako. Eta helburu bat jarri nion neure buruari –nonbait irakurria izango duzue, aurrez ere esana baitut– indarkeriarekikoak egin eta bakea lortutakoan, politika uztea... Tira, bada, horretan nabil, parlamentaria nintzela esan zuen ETAK "Borroka armatua utziko dugu" behin betiko, eta legegintzaldia amaitu zen, Patxi Lopezena eta Zapaterorena.

Froilanena ere kolpe oso gogorra izan zen... Eta Orioko alderdikidearena, Juan Priedesena. Froilanen hiletaren urteurrena zen –lehenbizikoa, oker ez banaiz, edo bigarrena– Priedes hil zutenean. Froilanen omenaldira joan ginen, Lasarteko

hilerrira. Omenaldia amaitzean, Prim kaleko egoitzara joan ginen Juan eta biok, hura hil aurreko egunean. Bada, Oriora joan behar izan nuen biharamunean, hil zuten herrira alegia.

Juan Karlos Garitano Ezkurra

Biktima ugari eragin ditu ETaren terrorismoak. Nire agintaldian bertan, ehun biktimatik gora egon ziren lau urte haietan, laurogeita hamaikatik laurogeita hamabostera. (...) Frankismo garaian egon zen Arrasaten biktimarik, atentaturik, bai eta "beste aldekoen" erantzunik ere, Batallón Vasco Española, zehazki, Iñaki Etxaberen aurka. (...) Izugarria izan zen, ikaragarria. Kaotikoa izan zen egun hura: zirrara izugarria eragin zuen Arantzazurako bidean hil zituzten hiru guardia zibilen aurkako ekintzak (bonba-auto baten eztandak, uste dut)... Gero, gau hartan bertan, mendeku gisara edo, Iñaki Etxabe akabatu zuten, bere familiaren aurrean. Itzela izan zen. Bi alde, jakina. Kontraste ikaragarria, sentimendu ikaragarriak, eta balantzaren alde batera edo bestera eginarazten ziguten. Zer aldetara makurtu nintzen? Berez, bien aurka. Baina, herri honetan, beti justifikatu dugu, nolabait, aldeetako bat. Biktima batzuei lehentasun handiagoa eman zaie beste batzuei baino.

Burgoseko Prozesua deritzona hasi zenean Bilbon nengoen, ikasle. Gogoan dut garaiz aurretik eman zizkigutela Gabonetako oporrak, Burgoseko Prozesua zela eta. Greba orokorrak egin ziren. Haietako batean, Eibarren kantatzea egokitu zitzaidan, irratiz eman behar zuten artista berrien jaialdi batean. Joan ginen, baina bertan behera utzi genuen jaialdia, egoera ikusirik... Txiki eta Otaegiren heriotzak ere sentimendu izugarriak eragin zizkidan. Gogoan dut goizalde hura, berria jakin nuenean, heriotza haiek eragozteko presio handiak egin ziren arren. Frankismoaren azken fusilamenduak izan ziren. Oro har, lantokian bertan ere, hori zen iruzkin nagusia, hori zen sentimendua.

Maria Dolores Jauregui Iza

Hipercor-eko atentatuak eragin zidan zirrarak handiena, baina beste askok ere hunkitu ninduten.

Gogoan dut, adibidez, Etxabe hil zutenekoa. Nire senarrak umetatik ezagutzen zuen, eta biziki hunkitu zuen Jose Luis haren heriotzak. Senarrak esaten zuen heriotza guztiak zirela txarrak, baina Iñakirena are gehiago, inoiz ez baitzen ezertan "sartu", bere anaiek bai, aldiz. Bestalde, Enrique Casasen hilketak ere zirrara handia eragin zion Jose Luisi.

Iciar Lamarain Cenitagoya

ETA sortu zenean hasi nintzen benetako indarkeria ikusten Euskal Herrian. Arrasaten, ikurrinak jartzen hasi ziren, Kurtzetxikin lehenbizikoz. Debeakututa zegoen ikurrina garai hartan. Gogoratzen dudan ETAREN lehen "matxada" izango zen hura. Sonatua izan zen Arrasaten: "Aizu, ikurrina jarri dute Kurtzetxikin!". Neskato bat nintzen ni orduan; 1960ko hamarkadaren hasieran izan zen. (...) Alemaniako Beihl kontsularen bahiketak (1970) eragin zidan zirrarak handiena; gizaki baten aurkako indarkeriak, alegia. Izan ere, zer lotura zuen pertsona hark Euskal Herrian batzuek bizi zuten egoerarekin. Batere loturarik ez. Orduan, zergatik bahitu zuten? Bada, egoera are gehiago tenkatzeko. Indarkeriazko ekintza izan zen hura. Eta zer pentsatua ematen hasi zitzaidan herriko jende askok indarkeria hura txalotu izanak, ETAKO "morroskoen" beste "matxada" bat!

Zirrara handia eragin zidan Gregorio Ordoñezen hilketak ere. Ez nintzen PPko militantea, baina mutil hura entzuten nuenean zera pentsatu ohi nuen: "Bat dator nire ideiekin, eta denontzat askatasuna nahi duela besterik ez du esaten". Ez da inoren aurka ari, askatasunaz mintzo da, eta bakoitzari bere izenaz deitzen dio: hiltzaileari hiltzaile, adibidez. Eta hiltzailea ez denari, bada ez dio hiltzaile deitzen. (...) Etxean nengoen bere hilketaren berri eman zutenean. Ez naiz negarrari erraz ekiten dioten horietakoa, baina malko bizian jardun nuen, atsekabeak hunkiturik. "Ni ordezkutzen nauen norbait hil dute, nire ahotsaz mintzo den norbait". (...) Bere semearen adierazpen batzuk irakurri nituen atzo, eta ez zen gorrotoak bultzatuta mintzatzen; bai, ordea, aita ezagutzeko aukerarik izan ez duenaren penaz, eta aita gogoratu nahi duen semearen sentipenaz. Oso-oso tristea iruditzen zait hori: hainbeste familia txikituta, inongo zentzurik ez duen jokabide bategatik. Izan ere, non eta nola gauden ikusita, gertatu den guztia gertatuta, ez dute ezer lortu. Berez, lortu duten gauza bakarra hau izan da: euskal herritarrok elkarren aurka jardun izana urte luzez, oso gogor gainera. Izugarria iruditzen zait.

Julia Monge Sarabia

Familian errepresioa bizi izan genuen iraganean. Hogeita hamalauan, aitona UGTko idazkarie zan, ez zeukan estudioik baina oso ondo idazten zauen, badauzkagu aktak berak firmautakuak. Atxilotu egin zuten, espetxean egon zan, baina libre gelditu zan, hori Atxabaletan pasau izan zan. Gero gerra garaian "desagertu" egin zan. Bitartien, nire amonak, bi ahiztekin eta bakoitzak bere umiekin alde egiten dute Arrasatetik eta Bilbo ta Santander pasaz gero lehenengo Frantziara doiez, gero Kataluniara... Ondoren Arrasatera etortzen diez, nire amona alargun hiru umekin, alarguna zala ezin demostrau, Zerrajeratik bota ein zuten... Nire aitona desagertzen danien nire aitak zazpi urte zitun eta bere ama hil zanien berak hamalau urte zitun...

Hemezortzi urtekin Gasteizera fan nintzen Magisteritza eiten, urrien hasi eta azaroan Franco hiltzen da..., berehala martxoak hiruko gertaerak, bertan geunden, grebak, manifik, asanbladak...

Jon Sarasua Maritxalar

Ikusten dut nire burua umetatik, gai honekiko, nolabait, bi grabitate indarren erdian orekak egiten edo hautu pertsonala egin beharrean, txiki-txikitatik. Ni goatzen naiz, gu galtza motxetan, ikastolan. (...) ia-ia esan dezakegu, ETA bai, ETA ez, biolentzia ondo dago, hil bai hil ez... ia-ia hamar urtekin hasten da gure baitan debate hori. Eta, orduan, alde batetik, ja hasten gara bustitzen borroka armatuaren epika horrekin, torturatuak izan dira, torturatuen... ipurdi ubelakin nola atea zan Argian, Amparo Arangoa, neri egin zian izugarritzko inpaktua; zoaz, gutxi gora behera sentitzen, hauek gutarrak dia ta gutarrak torturatuak dia. Eta gero halako borroka armatuaren epika bat. Bueno ETAk norbait hil du, baina ... zapalduta gaude, herria... Epika hori jasotzen batetik eta gero, bestetik, etxean ere influentzia abertzale indartsu bat eta influentzia kristau indartsu bat. (...) Ni goatzen naiz influentzia kristaua ere, oso inportantea, iturri hori oso inportantea izan da, garai hartan.

Gakoetako bat, gogoratzen dut, ni nenbilen dantza taldean, epika abertzale horren barruan, non dana zen "Borrokalaria kalera...", hau, bestea... Eta 73tik aurrea, kantatzen da zera, Carreroren heriotzaren... Iupla! Ta botatzen ditugu jertseak gora, sinbolizatuz Carreroren kotxea, goitik behera bota genuen. Eta ehunka pertsona, milaka pertsona, helduak, umeak, gure monitoreak, danok hori egiten, jertseak botatzen, nola Carrero hankaz gora, txalotzen. Ta hori zen totala. Hori egiten zuen gure inguruko mundu osoak. Eta gure aitak, goatzen naiz nola esan zigun, "Hori ez dut ondo ikusten". Jertsea botatzea, ospatzea pertsona baten heriotza, pertsona hori izanda ere Francoren lehen ministroa, hori ez. Ta hor dago ja lehenengo, ume batentzat, holako dilema etiko moduko bat. Hau da, gu zapalduak gara... borroka epiko bat, baina heriotz bat ospatu, ez. Baina hori ez da oso erraza jaten; ja ume bat jartzen du, "Ostras, hemen badago zerbait". (...) Ni giro abertzalean hezten naiz eta nolabait epika horretan, baina beti ere, zalantza etiko horrekin.

Gero, ni joaten naiz unibertsitatera, Leioara, 85-86an. Eta hor poliki-poliki, uste dut gehiago konbentzitzen nautela Ezker Abertzalearen proposamen politikoek; hau da, hemen ez da haustura bat egon eta behar dugu haustura bat pausu politiko nabarmenak emateko. Ni batez ere, euskararen eta kulturaren zentralitatetik nator, eta euskara eta kultura aurrera atera behar baldin badugu, behar ditugu tresna gehiago eta ezin dugu egon autonomismoan mugatuta. (...) Ta goatzen naiz ere bertso munduan nenbilen ja, Santutxuko bertso-eskolan, Tasio Erkizia etortzen zen ta kontatzen zuen bere relatoa. Ni, beti, asko, txikitatik inpaktatu

izan nau torturak; eta orain arte, bukatu dan arte torturarekin. Torturarena izan da gai bat, barrua mugitzen didana eta Tasiok kontaktzen du baita ere bera nola torturatua izan zen.

Ramon Urrizalki Azpiroz

1946. urtean jaio nintzen. Gerra ondoren bete-betean, nafar herrixka batetan (Betelu). Ingurumari historikoa, bukatu berri zen 1936-39ko estatu espainoleko gerra eta bigarren mundu gerraren ondoko giroan gertatzen zen. (...) Estatu espainola, ekonomiaren ikuspegitik, abagune autarkiko batetan murgilduta aurkitzen zen eta bai nire jaioterrian, nahiz Arrasaten, bizitza sozial eta politikoa, kapitalismo klasiko baten eraginpean garatzen ari zen. (...) 1950 eta 1960 artean, pixkanaka, aldaketa bat gertatzen hasten da, azalekoa bada ere; hainbatean, errepresioari genion beldurra apur bat gaintuz doa; faxistarik "gogorrenak" amore emanaz eta euskal berpizkunde kultural nahiz ekonomiko baten lehen urratsak ematen dira.

Ni 1960ko hamarkadan heldu nintzen Arrasatera; Don Jose Maria Arizmendiarrietaren gidaritzapean sortutako Eskola Profesionalera; ofizialia eta maestria ikasketak burutu ondoren, Gasteizko lantegi batetan jardun nuen lau urtez. Garai hartan, beste gazte askok zituzten ardura eta egonezina nituen nik ere eta frankismoari eta ezarria genuen sistemari aurre egiten saiatu ginen. Sortu berria zen ETA erakundeak, debekatuta zeuden ikurrinak agerian ipini, euskararen edo langileriaren aldeko pintadak, greba saiakerak edota 36ko gerrako garaipen faxistaren aurkakoak egiten genituen. 1968ko maiatzean izan nintzen detentua eta espetxeratua lehen aldiz, baina susmagarri nintzenez, hainbat aldiz atxilo hartu eta interrogatu ninduten; torturatua izan nintzen arren, beldurrraren eraginez inoiz ez ditut salatu torturok.

Urte bereko abenduan, behin behineko askatasunean atera nintzen 15.000 pezetako fidantza ordaindu eta gero. Ordena Publikoaren Auzitegiaren akusazioa "asociación ilícita y propaganda ilegal" izan zen. Hurrengo otsailaren 14an alde egin behar izan nuen, poliziaren segizio eta jazarpenari ezin bait genion eutsi. Garai horretan epaitua izan nintzen "en rebeldía" eta 5 urtetako kondena jaso nuen.

60ko hamarkadan aurreratu ahala ETAK Arrasaten garatzen duen aktibitatea hedatuz doa eta Euskal Herriko hainbat herritan hasten dira agertzen ikurrinak, sarri tentsio haundiko argindar kableetatik zintzilaturik. Lehenetariko bat, Bergaran kokatu zuten Arrasateko militante batzuek. Goardia zibilak 2 egun behar izan zituen handik kentzeko. (...) Hainbat lekutan, goardia zibilak militanteak atxilotzea lortu zuen arren eta haietariko asko bortizki jipoituak izanik ere, ekintza subersiboak gehituz zihoazen eta ETAKo militantzia ugaritzen, bere hiru

frenteetan, hots, militarra, langilea eta kulturala. Borroka azkartuz joan zen eta errepresioa ere bai.

Ni gehien markatu ninduten gertakizunak, nire belaunaldiari eragin zioten berberak izan daitezke. Tolosako Benta-Haundin gertatu zen Txabi Etxebarrietaren hilketak bereziki astindu gintuen. Ezarrita genuen boterearen aurka saiatzen ginenontzat, erantzun bortitza izan zen. Gerora, erailketa bortitz ugari gauzatu ziren Euskal Herrian, hala nola Algortan gertaturiko Eustakio Mendizabal, Txikiarena edota Joxe Migel Beñaran, Argalaren erailketa Miarritzen.

Gogoan ditut ere beste hainbat gertakizun, batzuek izan zuten garrantziagatik; beste batzuk benetan zirrargarriak izan zirelako; Txiki eta Otaegi eta Grapoko beste 3 kideen exekuzioak 1975ean; Segoviako espetxeko ihesaldia 1976an; Txibertako elkarrizketak 1977an; Herri Batasunaren sorrera 1978an; Joxe Arregiren torturen eraginez gertaturiko erailketa 1981ean; Polizia espainiarrak gauzatu zuen Lasa eta Zabalaren bahiketa, tortura basatiak eta kare bizitan lurperatzea 1983an...; 12 urte beranduago ezagutu ahal izan dena...

Altsasukoak sakonki inpaktatu nau. Jende gazte hori, 500 egunetik gora espetxeraturik ikustea, Goardia Zibilaren muntai baten ondorioz eta gainera izan diren bezala tratatuak izatea... Orain, ETaren jarduerarik ez dagoenean, askoz ere garbiago ikus daiteke, Estatuak ez duela erreparorik, herritarren eskubideak urratzeko, susmopean ipiniz herri mugimenduak edo abertzale edo independentista izatea bera bakarrik ere.

Jose Ignacio Yarza Mendizabal

Zinegotzi nintzen ni orduan, hemen, Arrasaten. Ekainaren 25a izango zen. Enrique Gomez hil zuten Iparraldean. Artean GAL sortzeke zegoen, PSOE ez zegoen agintean, eta Batallon Vasco Españolek hilko zuen. 1979a izango zen. Arrasateko emakume batekin, Cristina Larrañagarekin, zegoen ezkondua. Orduan, zerbait egin beharra zegoen, ezta? Batzar batean geundela (Ardanza ere han zen), manifestazio bat antolatu zen. Herriko festak izateak ere eragina izango zuen, seguruenik. Jaietan, izan ere, dantza egiten da, eta edan ere bai. Eta manifestazio guztiak kuartelaren aurretik igarotzen zirenez... Ez dakit nondik aterako zuten hainbeste harri kuartelari jaurtitzeko. Han nengoen ni, beste zinegotzi batzuekin, eta handik gutxira irten ziren guardia zibilak kuarteletik. Esan beharrik ere ez nolako jarrera zekarten...

Gertakari guztiak uzten dute beren marka, guztiak. Nik, adibidez, ez Euskadirekin ez Euskal Herriarekin zerikusirik ez zeukan zerbait azpimarratuko nuke: Nikaraguan egon nintzen. (...) Managuara iristean, Gobernuaren ibilgailu bat nire zain zegoen, Matagalpara ni eramateko. Heldu nintzenean VI. Lurraldeko

(Matagalpa, Jinotega) zenbait txosten geografiko, politiko, ekonomiko eta sozial aurkeztu zidaten. Handik astebetera VI. Lurraldeko Gobernu Batzordearen aholkulari izatea proposatu zidaten, eremu guzti horretan oinarritzko elikagaien banaketa arlorako. Horrek herriz herri bidaiatzea zekarren eta herritarren proposamen zein kezkak ezagutzea, konponbideak proposatu ahal izateko. Ondorioz, "La contra"k sarritan segadak burutzen zituen errepide eta bideetatik bidaiatzea suposatzen zuen. Dagoeneko, ibilbide horietan dozenaka "compa" eta kooperante batzuk ere hilak izan ziren. Hainbat alditan gudarostearen babesaz bidaiatzen genuen, beste batzuetan ordea babesik gabe. Ohikoa zen, adibidez, Ministerio desberdinetako ordezkariekin nindoala haiek euren fusila eramatea, erasoren bat suertatuz gero. Horietako bidai batean San Rafael del Norte-ra iritsi ginen. Bilera batean geunden eta bapatean bertan behera geratu zen, gudaroste sandinistaren 14 kideren hilkutxa aurkitu baitziren elizako atarian. Segada bat jasan zuten une batzuk lehentxeago horietako bide batean. Hauxe zen Nikaraguan bizitzea suertatu zitzaidan muturreko indarkeria.

Marino Yuste Hernandez

Gogoan dut Meliton Manzanos hil zutenekoa. Ez dakit nola adierazi...; ez naiz indarkeriaren aldekoa izan, baina zenbait gauza "bizitzea" gustatuko zitzaidakeen. Diktaduraren aurka zegoen norbaiten oroitzapenak dira nireak.

Horixe bera sentitu nuen Carrero Blanco hil zutenean ere. Diktaduraren amaiera zen jada, eta beste norbait egon zitekeen haren karguan, baina, bueno, Carrero Blanco hil zuten, eta gisa honetako gogoeta egin nuen: "Agian, Francok ezarritako diktaduraren azkenekoetako bat joan zaigu...". Ez ninduen poztu heriotza hark, inoren heriotzak ez bainau pozten, baina, nolabait, gogoeta hau egin nuen: "Diktaduraren, boterearen ordezkariak ziren, sasoi hartako errepresioaren arduradunak".

1975eko irailaren 27a ere oroimenean irmo txertatuta geratu zitzaidan. Txiki, Otaegi eta beste hiru lagunak fusilamenduaz ari naiz. Manifestazio handia egin zen herrian. Plazara iritsi eta kale-kantoi guztietatik guardia zibilak irteten hasi ziren. Jenderik helduenak "Lasai, ez da ezer gertatzen" oihukatzen zuen. Guardia zibilek, ordea, gogor eta itsu-itsuan ekin zioten jendearen aurka. Jendez beteta zegoen plaza, eta hantxe geunden gu, erdi-erdian. Erabat inguratu gintuzten guardia zibilek, eta plazarako sarrera guztietatik ekin ziguten. Jendea lasterka, kolpeak..., baina uste dut ez zutela tiro egin; beharbada, gomazko pilotak jaurtiko zituzten. Baina nire kezka nagusia, une hartan, ez zen han zer gertatzen ari zen ikustea. Hemeretzi urte nituen. Gogoan dut oso-oso kontrolatuta eduki gintuztela Lanbide Eskolan zenbait egunez. Ez dakit zergatik; haientzat kontrol-gune bat zen. Jende askok alde egin behar izan zuen, ihesi.

Javier Zugasti Azkarraga

Nik buruan badekot, adibidez, "Proceso de Burgos". Mondrauen, ni akordetan naz gauean egunero, lan ostien beti manifestaziñuek, papela bota baztarren baten, pintada batzuk ein edo asanbleak kale eskina baten. Hori izan zan mobimentu konstantea. Egunero juntaten gintzan danok, gorrixak eta bestaldekuak. Baitxa, "Proceso 1001" eta "Primero de Mayo", ordurako gure aldetik hasitxa gazen ahaleginak itxen, al zan neurrixen. Geruau "14 de Abril" be hasi gitzen ospatzen. Sasoi horretan fabriketan huelgak sarri egoten zien.

Bestaldetik, Jauregi gobernadorie hil hauenien, "gobernador del PSOE", PCEn egondakue bizi guztien, ba Tolosan hil hebien, eta lagunak gitzen; eta Lopez de la Calle, neiko ezauna. Ze hauek danok PCEkuak zien, PCetik jua zien gero PSOEra ta bueno, ba hor-konpon, baina ordurarte amistade handixe ta horrek inpaktu edo pena handixe. Lopez de la Callekin, Donostiako bulebarrien anekdota bat daukat. Mundo Obrero periodikua saltzia gura gauen eta bixok gazen eta nik galdetu notzen berai "Esto cómo se vende?". Berak esan nuzten, "ahora verás". Eta uluka hasi zan, "¡Prensa obrera! ¡Prensa Obrera!". Harrazkero nik be ikesi noten berai ikesita.

8.1.2 ARRASATEKO EDO TA NORBERAREN ESPARRUKO GERTAEREZ

Javier Abalde Galparsoro

Apaiz izateko ari zen ikasten gure aita gerra hasi zenean. Apaiztegia utzi eta frontera jo zuen. EAJko militantea zen, eta Santoñako errendizioan egon zen. Espetxean ere egon zen. Amari, berriz, Donostian bizi zela, ilea erabat moztu zioten. Nahikoa arduratzen ninduen orduko egoerak, eta gazterik egin nintzen ETA Berriko kide (1966-1972), gero Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) izango zen erakundean, alegia.

Ni baino askoz ere zaharragoa zen lankide bat nuen, Alderdi Komunistakoa. Sasian jarduten zen. Manzanasek torturatu zuen lehenbiziko bat zen. Atxilotu zutenean Manzanasek nola "agurtu" zuen azaldu zidan: kopetan itzali zion zigarroa. Uranga zuen abizena lankideak, eta halaxe agurtu zuen Manzanasek.

Burgoseko Prozesuko epaituetako baten arrebarekin ezkondata egon nintzen ni, Belen Carrerarekin. Epaketan egon nintzen, eta oso gertutik bizi nituen Prozesua eta haren aurkako protestak.

Izugarri hunkitu ninduen Isaias Carrascoren hilketak; gaiztakeria handiko ekintza iruditu zitzaidan. Ez zen pertsona ezaguna, eta oso erraza zen hari ekitea.

Iban Arantzabal Arrieta

Esango nuke, ni hirurogeita hamabostean jaiotakoa naiz, indarkeria bizi-bizi izan dela urte guztiotan. Bai alde batera eta bai bestera. Ez zait erraza hautatzen indarkeriak eragin zuzena eduki duen momentu zehatz bat. Indarkeriarekiko marra gaindiezin bat badagoela jakitekoa bai. Niretzat hori Carrascoren izan zen. Egon dira episodio gogorak trintxera guztietan, eta zein baino zein mailakatzeak ez dakit ekarpenik dakarren. Hala ere, Carrascoren eragin handia izan zuen nigan. Hilketak eragin handia izan zuen herrian ere. Nik neuk ezin ditut burutik kendu Olatz Etxabek eta Sandra Carrascok urteetara kontatu dituztenak publikoki zein pribatuan.

Amaia Arrieta Gonzalez

Alde guztietako indarkeria gertaerek eragiten zidaten zirrara. Askotan entzun dut bihozgabeak gabela, terroristak, hotzak, ez dugula sentimendurik, ... Gertakari guztiek zuten eragina, guztiek sortzen zuten zirrara, kezka eta mina. Baina garai oso gogorak ziren eta horrela bizitzea ez zen erreza. Torturatuak izan diren lagunak, bere buruaz beste egin duten kideak, espetxean egunero sentitzen dena, ekintza armatuek eragiten zutena, ... momentu batzuetan zirrara sentitzeari utzi behar diozu egoera jasateko. Defentsa mekanismoa martxan jarri behar dugu aurrera egin ahal izateko. Uste dut, momentu batzuetan nik hala egin nuela.

Alcalako espetxean nengoela Pariseko espetxe batean zegoen Oihane Errazkinek, bere buruaz beste egin zuen. Nik ez nuen ezagutzen, gure adinekoa zen, hiru urte zeramazkien espetxean eta epaiketaren zain zegoen oraindik. Guk ere ez genekien zenbat denbora egongo ginen preso, lau urtez epaitu gabe egon ginelako, eta konturatu ginen, gu bezala zegoen neska gazte batek, ezin izan zuela aurrera egin eta bere buruaz beste egin zuela. Kolpe gogorra izan zen guretzako.

Espetxean nengoela, hainbat kide etorri ziren atxilotu berri, eta euren komisal-degi osteko lehenengo momentuak gurekin bizi izan zituzten. Momentu horiek oso gogorak egin zitzaizkidan.

Gogorak dira borrokak espetxean. Etengabeko borroka. Oinarrizko eskubideak defendatzeko eta duintasuna mantentzeko borrokan. Kide batek errebisioa egin beharra zuen (mamografia) maiztasun batekin. Klean zegoela medikuak hala aginduta. Hilabeteak pasatzen ziren baina ez zuten errebisiora ateratzen. Halakoak askotan ematen ziren espetxean. Planteak egin genituen bera ginekologoarengana atera zezaten. Eta lortu genuen bai, baina ebakuntza egin behar izan zioten.

Amaia Azpiazu Aranburu

*Lehenengo gauza ETAr buruz gogoratzen dudana, gaztea nintzela, agian heme-
retzi urtekin, hirurogeita seian edo, nere tia eta tio bizi ziren goiko pisoan eta
horrek ziren oso nazionalistak. Euki zuten mutil bat gordeta, ihesean zegoen
mutil bat. Dana isilean eta dana beldurrez. Dana tapatu beharra eta ez esan eta
kontuz ibili... Oso giro tensoa. Baina pasatu zan mutil horrek jasotzen zebala
ingeles ez idatzitako karta batzuk, eta berak ez zekien ingelesez. Nik egin nauen
batxiler laborala eta ingelesa oso asignatura potentea zan garai hartan eta
zelabaiteko itzulpenak egiten nizkion. Berengana joaten nintzen, isil-isilik ego-
ten nintzen, baina banekien han zegoela eta horrela. Egun baten azaldu zan,
ez dakit zelan zan esaldia, armak hartu behar zituztela, berak esan zidan: "Hori
ezinezkoa da". Nik esan nion: "ez dakit ze esango duen edo zer esan nahi dauen
baina hemen jartzen du armak hartu behar dituztela". Bera ipini zan oso urduri.
Eta harrezkero ez zegoan gehiago kartarik, ez zegoan ezer eta handik gutxira,
aste bat, hamabost egun, nire tio eta tian etxetik irten egin zan. (...) Hau ez diot
kontau inori. Hain eduki dogu isilean, hain kontuz ibili...*

*Gertatu zen gure kotxe azpian ipini zutela bonba lapa bat. Kotxia izten gendun
gure ate ondoan eta ordubiak ingurura entzun gendun kriston explosioa. Irten
ginan, salto bat egin gendun ohetik: "Umeak?", "Ez, umeak ondo". Behekoak
esan zion, "Bermi" deitzen zioten danak nire senarrari. "¡Tu coche!". Joan zan
eta aldamenekoa pasatu zan gure etxera eta esan zuen: "Juanjo baja, baja por
favor! ¿Estáis bien?". Ikusi nebanian Mari Angeles zetorrela eta umeak ondo
zeudela, konortea galdu nuen, "de la impresión". (...) Genuen R12 familiar luze
bat, marroia, ointxe ikusten ari naz gainera... Hau terapia bezala da... ikusi nuen
kotxea, gero nola zetorren grua, nola eraman zuten eta hirugarren pisuko kristal
guztiak apurtu egin ziren. Jente guztia etorri zan, "¿Aquí qué ha pasado?". Raru
pentsetan jakuen ba guri hori ipintzea. Geroztik ere ez genun ezer jakin, inork ez
zuen errebindikatu.*

*Ortega Lara hemen egon zan. Ni paseoan joaten nintzen eta ikusten nauen nor-
malki andra bat edo gizonezko bat han zeudela, baina idearik bez... Gero agertu
zan zuloan, ate ondoan, zegoen kotxe bat eta batzuetan emakume bat. (...) Urte
hartan, uztailan joan nintzen Suediara. Nere gizonakin hitzegiten nuen gauero
eta esaten zoztan Miguel Angel Blancogatik nola zegoen jendea manifestazi-
noetan eta ikusten zan Europa mailan jentea, manifestazioak hemen, hango
kandela, hango gauza... Hainbeste jente esaten Miguel Angel Blanco salbatzeko
eta ez diez izengo kapaz. Jarraitzen dute berdina izaten, los mismos sanguina-
rios, ezta? Baina orduan pasa zan gauza kurioso bat, bai Ortega Larakin eta bai
honekin. Han nengoela eta nengoela hurrin eta ez nauen bizi, partizipau ere ez.
(...) Harek imaginak ikusi telebisinoan eta sentidu nuen momentu baten amo-
rrua, ez dakit gorrotoa; "Esto no se puede consentir". Ondoren jentearekin hitz
egiten, danok esaten astakeri bat izen zala eta ez zagoela eskubiderik eta danak*

esaten: “Es que si hubieras estado. Es que si les vieras”. Baina barruan falta egiten zitzaidan bizipen hori.

Sandra Carrasco Romero

Etxean geunden, eta aitak lanera joan behar zuen. Bere gauzak jaso zituen, eta gogoan dut elkarrizketa labur bat izan genuela. Azkenekoa izan zen. Gogoan dut barrez zihoala, barrez atera zela etxetik, eta, azkenean, irudi hori gorde nahi dut, nahiz eta minik handiena horrek egiten didan, barrez zihoala gogoratzeak eta aitak ez jakiteak bere bizitzako azken eguna zuela hura. Etxetik irten eta handik gutxira entzun ziren tiro-hotsak. Suziriak ziruditela esaten dut nik beti, suziriak baitziruditen. Hiru “suziri” entzun ziren, eta —ez dakit zergatik, amarekin ere ez dut hitz egiten horretaz— ama eta anaia kalera irten ziren; nik, berriz, leihora jo nuen. Lasaitu egin nintzen ikusi nuenean aita autotik irteten ari zela. “Tira, ez da ezer izan; nire irudimenaren kontuak. Ez da ezer gertatu” esan nuen. Barre egin nuen, autotik irtetea kostatu egiten baitzitzaion aitari... Pentsatu nuen tarte txikia zeukala irteteko, eta bera zera samar zegoenez, bada ezin zela ondo irten. Urrats batzuk egin zituen, eta begiratu egin zidan; nik ere bai berari. Orduan ikusi nuen aitaren oinaze-aurpegiera. Lurrera erori zen.

Ama ez zen une batez ere urrundu aitarengandik; ni, aldiz, bai. Jaiki eta autora joan nintzen, zer gertatu zen ikusi nahi nuen eta. Han zeuden bala-zuloak. Bost bala-zulo zituen autoak. Ukabilkada bat eman nion autoari, eta biraoka hasi nintzen: “Kauen! Begira zer egin duten hauek!”. Etengabe nenbilen aitarengana joanez... Luzea, amaiezina izan zen anbulantzia iritsi bitarteko tarte. “Ez da garaiz helduko! Ez da garaiz helduko!” oihukatzen nuen, aita hiltzen ari zela ikusten nuen eta. Odol asko ari zen galtzen. Ez genekien zer egin. Emakume batek hau esan zidan: “Tapatu iezazkiozu zuloak, tapatu...”. Eztarrikoa tapatu niola gogoratzen dut, hura ikusteak eragiten baitzidan zirrararik handiena. Gero, zerbaiten pusketatxoak kendu nizkion... Ez dakit zer ziren; bala-pusketak, agian... Halako batean aita hilik zegoela pentsatu nuen, eta agurtu egin nuen, jada joana zelakoan... Gogoan dut gero osaba etorri zela, eta lasaiago sentitu nintzela bakarrik ez geundela ikusita. Izan ere, jendeak ez zigun laguntzen; inork ez zuen izara bat edo antzekorik ekarri. Ezer ez. Txabusina neraman soinean; erantzi, eta harekin estali nuen aita, inork ere ez baitzigun lagundu, inortxok ere ez. Gero, anbulantzia iritsi zen, baina une hori ez dut gogoan: nire oroimenean ez dut ikusten anbulantzia, ez dut gogoratzen nola eraman zuten aita. Ez naiz ezertaz oroitzen. Ospitalera joan ginen gero. Tortura izan zen ospitaleko itxaronaldia, tortura...

Olatz Etxabe Okina

Aita hil baino hilabete lehenago, bonba bat jarri ziguten etxean, Kanpazarren, gaba zen eta kriston zarata entzun eta itzartu nintzen. Ambiente horretan bizi arren ez nintzen kontziente ze arriskutan geunden, 10 urte nituen. Baina azken bonba hau jarri zutenean gurasoak esan zidaten beldur zeundela eta Arrasatera bizitzera joango ginela laister, bertan jatetxe bat zabalduko zutela. Ez zen posible izan, lehenago hil zuten aita. Handik aurrera hartu nuen arriskuaren kontzientzia.

Gogoratzen dut aita eta ama agurtu eta ohera joan nintzela. Ohean nengoela, ezin nuen lorik egin, neukan presentimentu txarra bat, zerbait, ez dakit zer eta ez nuen lorik hartzen. Egun horretan, hiru guardia zibil hil zituzten Arantzazun, Arantzazutik Oñati bidean, baina nik horretaz ez nekien ezer. Ezin nuen lorik egin, ia ordu bete edo neraman ohean eta entzun nuen zarata haundi bat. Gero ama eskailera jeisten eta aman uluak entzun nituen, orduan ni be jeitsi nintzen atzetik eta ikusi nuen aita lurrean, eta ama, bere onetik aterata... oso gogorra. (...) Garai hartan elizatik kanpo-santura oinez joaten zan. Gogoratzen dut portaloitik behera gindoazela, guardia zibilak zeudela han eta guri apuntatzen bezala, eta nere aititak esan ziela, "Ya está bien. Ez duzue nahikoa egin?". Kalea jendez beteta zegon, elizan be ez zegon lekurik.

78an, izeba hil zuten. Hori be oso gogorra izan zen, berriz pasatu behar dezu momentu txar horiek ez? Atentatua Donibane-Lohitzunen izan zen, nere osaba oso larriki zauritu zuten eta izeba hil zen. Osaba zan nere aitaren anaia, Juan Jose Etxabe. Eta Agurtzane Arregi, bere emaztea. Orduan, berriz bizi izan genuen infernu hori. Ia hiru urtera, ematen zuen bazoazela pixkat bizitzara ohitzen Ba, oso gogorra. Gainera nere lehengusuengan pentsatzen nuen, "jo, ama falta zaiela". Hori be ulertezina egiten zitzidan, aita zan politikoa, ez ama. Ze injustua den, ez? Ama gabe gelditzea. Eta nik momentu hartan esaten nuen, "ni, behintzat, amarekin gelditu naiz"; ba, ez dakit, ematen du egoera horretan norbaitekin gelditzerakoan, babes gehio sentitzen dezula amarekin.

Beti gelditu zait korapil bat hor barruan, ez dakit nola esan, zer dan, momentu hortan, shocka izan zen. Hasieran, akordatzen naiz, beti triste nengoela negar asko egiten nuela; edozer gauza esaten zidatenean, lagunekin... negar asko egiten nuen. Eta gabetan amesgaizto asko nituela. Eta gero, iritsi zan momentu bat, ba negar egiteari utzi niola eta orain ezin dut negarrik egin, urte pila bat daramat negarrik egin gabe. Baina lorik ez dut egiten ere, nik uste dut defentsa moduko bat dala. Oso lo gutxi egiten det, lau bost ordu, asko jota.

Francisco Garcia Raya

Isaias Carrascoren hilketak, hori izan da gehien hunkitu nauena. Miguel Angel Blancoren hilketak mugarrak moduko bat izan zen, eta Isaiasena ere bai. Batez ere odolusten ikusteak hunkitu ninduen, hiltzen ikusteak. Ez dut sekula ahantziko irudi hori. Nire laguna lurrean etzanda, odolustuz, hiltzen ari zela jakinik. Eta ezer egitearik ez laguntzeko... (...) "Isaiasi tiro egin diote" esan zidaten. Korrika abiatu ginen, tiro egin zioten lekutik 250 bat metrora geunden eta. Han zegoen Isaias, lurrean, odolustuz... Odola zerion lepotik, eskuetatik, bazter guztietatik, begiak zuloetatik irteteko zorian zeuzkan, guri begira. Gu, berriz, "eutsi, Isaias, eutsi...!" oihukatzen.

Mutikoak entrenatzen aritzen zen Isaias San Andres auzoan, eta gaur egun "auzoetako alkatetzak" deritzen horietan laguntzen zigun. Nik konbentzitu nuen alderdiko militante egin eta udal-hauteskundeetarako zerrendan aurkez zedin, eta zinegotzi aukeratu zuten. Gustura jarduten zen. Nik, berriz, badut halako errudun-sentimendu bat, neuk konbentzitu bainuen politikan jarduteko, bizitza kendu zion erabaki hura hartzeko. (...) Isaiasen emaztea (Marian), Jesus Eguiguren eta hirurok elkarrekin geunden, ospitaleko areto batean, Isaiasen heriotzaren berri eman zigutenean. Han geunden hirurok. Gero, Urkullu lehen-dakaria etorri zen, baita Arrasateko alkatea ere, Ino Galparsoro⁹⁰. Ospitaletik bota egin nuen alkatea. Hau esan nion: "Alde hemendik, edo, bestela, oraintxe bertan esan ETARI inor gehiago ez hiltzeko. Ez baduzu hori egiten, alde hemendik!".

Juan Karlos Garitano Ezkurra

Iñaki Etxaberen hilketaz gain, beste batek ere izugarritzko zirrara eragin zidan. Agirreurretaren hilketaz ari naiz. Harreman oso estua zuten haren familiak eta gureak, batez ere haren arreba batek. Komando Autonomo Antikapitalistek hil zuten. Telebistaren bidez izan zuen arreba hilketaren berri. Latza izan zen hura... Gizon apala eta jatorra zen, baina akabatu egin zuten... Sasoi hartatik, hilketak hori azpimarratuko nuke.

Horrez gain, enpresariei egiten zitzaizkien estortsioak ere aipatzekoak dira. (...) Bi multzo bereiz zitezkeen. Batzuek onartu egiten zuten estortsioa, eta ordaintzeko bideak bilatzen zituzten... Beste batzuek, aldiz, ez zuten onartzen, eta beren konbikzioei jarraikiz, xantaiari amore ez ematea erabakitzen zuten. Nire alderdian ere baziren horrelako batzuk. Hain zuzen ere, amore eman ez zutenek eta haien sendiek pairatu zituzten ondorioak larrienak. Une latzak, oso latzak, jasan zituzten. Hori horrela izan zen. Gero, gainera, estortsio bidez jasotzen zuten dirua zertarako erabiltzen zen jakiten zen: biktima gehiago, heriotza gehiago, indarkeria gehiago eragiteko.

90 Giza Eskubideen Aldarrikapen Ubibertsala <http://www.un.org/>

Gogoan ditut garai hartako lau estortsio-kasu. Gerora, isilago bideratzen ziren kontu horiek, eta zailagoa izaten zen informazioa biltzea. Esango nuke gerora areagotu egin zela estortsioa, errepresaliak ere gogortu egin baitziren. Jose Mari Kortaren hilketa izan zen gure familia gehien hunkitu zutenetako bat. Pertsona ezaguna zen; sustrai sendoak zituen herrian, eta euskal kulturari laguntzen zion. Izugarria izan zen Kortaren hilketa; errepresalia bat, mendekua. Gogoan dut egun batzuk lehenago manipulatzeko ari ziren bonba lehertu egin zitzaizela ETako militante batzuei, Boluetan, eta hil egin ziren. Lau zirela uste dut. Handik bizpahiru egunera, Kortari ipini zioten bonba. Beste izugarrikeria bat izan zen hura. Gero, Isaias Carrasco ere hil zuten, hemen, zinegotzi sozialista izana zelako. Gero, berriz, Inaxio Uria... Noraezean zebilen ETA ordurako, galduak zituen zera guztiak..., baina, hala eta guztiz ere, zenbait herritarren babesak zeukan. Ez dakit, ez dut ulertzen. Batez ere hilketak. Ahal genuen guztietan joaten ginen Gesto Por la Pazek antolatzen zituen elkarretaratzetara. Oso jende gutxi biltzen ginen, baina ziur nintzen askoz gehiago ginela horrela pentsatzen genuenok. Beraz, kontzentrazio haietara askoz jende gehiagok joan behar zukeela iruditzen zitzaidan.

Maria Dolores Jauregi Iza

Errepresio latza jasan genuen gerraostean. Aita, espetxean; ama, Frantziara... Izan ere, Kataluniatik Frantziara joan ziren ihesi, eta han geratu ziren. Arrasatera itzuli zirenean, 24 orduz preso eduki zituzten ama eta nire ahizpa txikia. Hemen ikusten duzun areto hau, izan ere, Arrasateko espetxea zen. Udaletxeko gela hau espetxea zen. Emakume asko zeuden, eta haietako askok umeak eurekin zituzten. Bi gau eman zituzten han, lurrean lo eginez. Gure amak ez, osaba karlista batek koltxoi bat eramanean zion eta. Han egin zuten lo ama-alabek. Handik bi egunera, etxera joan ziren; aitak, baina, espetxean jarraitzen zuen. Askatu zutenean, ordea, ez zuten hartu gerra aurretik lan egiten zuen enpresan, Union Cerrajeran, "gorrixak" zela eta. ANVkoa zen aita. "Gorrixak" eta abertzaleak (maila apalagoan) ez zituzten hartzen.

Gerra amaitu eta handik bederatzi urtera, herrira etorri zen Franco, zaldizko "guardia moroz" inguratuta. Ez zait ahazten, ez. Guardia Zibilak, berriz, herri osoa hartuta zeukan. Gurekin bizi zen aitona Patxi, eta, semea espetxera eramanean zutela jakitean eta Zarugalde kalean guardia zibilak eta guardia moroak ikustean, etxetik irten eta "txerrixok!" oihukatzen hasi zitzaien. Guardia zibilak etxera sartu eta dokumentazio guztia eskatu zioten gure aitona zaharrari. Handik urte batzuetara, pasaporteak atera nahi izan zuenean, ez zioten eman, ez eta aitari ere, aurrekari penalak zituela eta.

Frantziako Tolosa hiritik Hendaiara etortzen ziren gure osaba-izebak. Emakumeok (nire ahizpa eta izebak) joaten ginen mugaz bestaldera, baina

aitak ezin zuen. Osaba Marcos ere etortzen zen (Marcos Vitoria), baina ezin zen Hegoaldera igaro. Hala, bada, osaba Hendaian geratzen zen, eta aita Irunen. Eskasia-garaiak ziren haiek. Frantzian bizi zirenek janaria ekartzen zuten, eta emakumeok hondartzara joaten ginen eguraldi ona egiten bazuen; gizonak, aldiz... "Hasperenen zubia" deitu izan diogu beti mugakoari, "negar eta negar" jarduten baikin elkar agurtzean. (...) 1953-54 ingurua zen, eta hemen urria zen "ogixe"... Frantzian, aldiz, bazegoen, eta osaba-izebek erosi egiten ziguten.

Iciar Lamarain Cenitagoya

Miguel Angel Blancoren bahiketak eta hilketak ere gogor astindu gintuen, jakina. Zirrara izugarria eragin zigun, denok ikusi baikenuen zer gertatu zen. Zer esan dezaket nik...? (...) Gizarteak egoera iraultzeari ekin zion Miguel Angel Blancorena gertatu zenean, eta eskertzekoa da aldaketa hori. Baina, nire ondorioa hau da: "Nor arraio izutu zen jendearen erreakzioa ikusita?". ETA ez, ezta ETAREN jarraitzaileak ere. Politikaren alorreko beste norbait izutu zen herriaren erreakzio tinko hori ikusita, zenbaiten planak hankaz gora jar baitzitezakeen eta, agian, zuhaitzetik horrenbeste intxaur erortzen ez baitzuen utziko.

Arrasaten, Isaias Carrascoren hilketa izen zen gogorrena. Hauteskunde batzuen bezperan izan zen. Isaias zinegotzi izana zen aurreko bi legegaldietan, baina jada ez zen. Nolanahi dela ere, pertsona jatorra zen, atsegina, apala, herritar xume bat. Gu, PPKook, Getxon geunden, hauteskunde orokorretarako kanpainan murgildurik, Arrasaten hilketa bat izan zela jakinarazi zigutenean. Isaias Carrasco zen hildakoa. Latza izan zen kolpea.

Julia Monge Sarabia

Akordatzen naz adibidez, hor elizan bazagoen "Caídos por Dios y por España" lapida bat, eta gaba baten ETAK apurtu ein zeban. (...) Hamar urte eukiko nitun ta uste dut momentu horretan izan zela behintzat, neuk buruan daukadana, lehenengo aldiz neuk entzun nebala ETA izena. Akordetan naz gero etxien eta lagun baten etxien zer esaten zuten... Amak eta..., kontuz! Akordetan naz, isiltasun bat zeguala, jendie pasetan zala eta jendie isil isilik zeguala. Pintada bat egin zuten, ETA jartzen zauen. Nire lagun baten amakin nihoala kaletikan, neuk esan nauenian, "Ala! ETA" eta akordatzen naz, "Shhhh! Isildu, ez esan ETA", ez neukan kapazitaterik momentu horretan ulertzeko.

Etxe parian, fruta almazen bat zeguan. Eta behin grisak zeudela kaletikan, neu nengoen amakin balkoian, nire aita ez zaguen etxien eta nire ama apurtxo bat arduratute. Eta momentu baten etorri ziela grisak, atie apurtu zutela; han bazeu-

katela platano fardo haundi horrek, mordue, eta hasi ziela disparetan. Eta nire amak gero esaten zauen, agian pentsauko zutela jendie zala; baina ez zaguen inobez barruen. Orduen, iskanbila hori, grisak, ama urduritasunarekin... 1968 edo 69a zen.

Burgoseko prozesuan, neskatile nintzen, mojekin nenbilen eta eskolako parete-tan pintada mordo bat agertu ziren goiz baten, gure artien politikaz berba eiten hasi ginen, lagun batzuen anaiek esplikatu zizkiguten gauza batzuk.

Akordetan naz gero biolentzia bestekaldetikan, beti euki dotela puntu bat "de discusión con mi gente". Txibato batzuk hil zituztenien Arrasaten, "Siempre me producía como una especie de sentimiento extraño, un poco injusto". Koadrillan berriz, justifikatu egiten zan.

Jon Sarasua Maritxalar

Neri gertatu zait, ba 19 urterekin pasa nintzala finalera, nik ez nuen espero, inkluso, uste dut, ez nuela nahi, bueno..., baino ni, ustekabean, iristen naiz, esan dezagun, bertsolaritzaren elitera edo "Olimpora". Hor sartu bezain laister, etortzen zaizkit Herri Batasunakoak, badakite nire sensibilitadea hortik doala, ta esaten didate Madrilerako diputatu zerrendan joateko. Orduan, ikusten da, batetik, ni banago mugimendu horretatik sentimentalki eta intelektualki gertu edo; eta bestetik, ba baita ere ikusten dute gazte bat bertsotan, elitean sartzen da ta interesatzen zaigu honen tiroia edo. Nik, momentu horretan intuitiboki esan nuen, "Uf, ez!". Eta geroztik, erabaki dut inoiz ez politika aktiboan alde batera ez lerratzea publikoki. Nahiz eta nire iritzi pertsonalak eduki... Esan nien, "Ni Ezker Abertzaleko sentitzen naiz, baina ez dut nahi publikoki agertu".

Uko hori egin eta handik bizpahiru hilabetera, Yoyes hiltzen dute. Ta Yoyesen heriotza nere ingurune guztian esplikatzen da, "Joe, bera jenerala zen ta ezin duzu jenerala izan ta gero atera", "Txibato, ez dakit zer", "Jakingo ditu erakundeak bere arrazoiak". Baina nire barruan badago, aitaren eta amaren kristautasun iturritik dagoen hori, "Ez, hau ezin da izan". Orduan, deitzen diate ez dakit nundik, Euskadiko Ezkerratik edo nunbaitetik, esanez ea joan nahi dudak kantatzera Yoyesen omenaldira, Ordizira. Eta esaten dut, beitu ba, (a lo bonzo), "Bai, banoa".

Ramon Urrizalki Azpiroz

Arrasaten, "Muñecas tenientea" bezala ezagutua izan zena agertu zen eta hainbat herritarrek gogoratuko dute, berarengandik jaso zuten txar eta ankerragatik. (Ni bere hatzapparretatik libratu egin nintzen, Gasteizen lana egiten nuelako edo). 1969ko Otsailetik aurrera etapa berri bati ekin behar izan nion. Iparraldean lehenik; urte batzu lehenago Arrasatetik ihes eginiko herrikide batzuen etxean babesa jaso genuen, nik eta beste bi arrasatearrek. Baina bizitzari aurre egin beharrez, Pauera joan eta han lana aurkitzeko aukera izan genuen. Han 8 urte igaro genituen, 1969tik 1977ra arte.

36ko gerratearen ondoren, Estatu espainoletik ihes egindako herbesteratu ugari ezagutu genituen eta beraiengandik jaso genuen laguntzari esker lortu genuen "recepissé" deitzen zen nortasun agiri antzeko bat eta lana ere. Aitortu behar dut, Arrasateko Eskola Profesionalean ikasitakoak ere dexente lagundu zigula, lan kontuetan ospe ona izaten. (...) Egoera berrira egokitzen joan ginen neurrian, indarberrituz ere bai; jende oso interesgarria ezagutu genuen. Pauen Ikastola bat antolatzea ere lortu genuen, bertaratuak ziren Iparraldeko zenbait euskaltzalerekin elkarlanean. Proiektu harek, asko lagundu zigun gainera, errefuxiatu eta Biarnon bizi ziren iparraldeko euskaltzaleen arteko ezagutza eta kohesioa lortzen, gure harremanetan.

1969an atera ginen Euskal Herritik eta 1977an itzuli ginen. Ibilaldi luze, gogor baina oparoa, herbestean izandako esperientziak eta ikasitakoak denok aberastu gintuelako eta bestalde Arrasatera itzultzeak eman zigun pozarengatik. (...) Itzuli, itzuli ginen, baina hainbeste agindu ziguten Amnistia ez zen benetan gauzatu; frankismoaren ondotik burutu behar zen transizioa ere hitzetan geratu zen eta berriro ere espetxeratua izan nintzen, 1982ko Uztailaren 14an hain zuzen ere. Berriro ere torturatua, beste hainbat arrasatearrek batera; lehenik Gasteizen eta gero Madrilan. 7 egun komisaldegian egon eta gero uztailaren 21ean Carabanchel espetxera eraman ninduten.

Urte bereko Abuztuaren bukaeran behin behineko askatasunean atera nintzen oraingoan 100.000 pezetako fidantza ordainduta. Kasu honetan "presunto delito de colaboración con banda armada" akusazioa ezarri zidan Audientzia Nazionalak. 1983ko urtarrilaren 24an abokatuak epaiketa bertan behera gelditu zela, "sobreseído" jakinarazi zidan. Beraz epaiketarik gabe libre geratzen nintzen.

Arrasateri lotuta, ezin aipatu gabe utzi, Txomin Iturbe herrikidea. Bere nortasunak eta eraginkortasunak, gidari eta aintzindari izatera eraman zuten, zori-txarreko istripu batetan bizitza galdu zuen arte.

Jose Ignacio Yarza Mendizabal

Niri zirrarak handiena eragin zidana Isaiasena izan zen, nik uste. Hura izugarrikeria bat izan zen eta ez nago batere ados Udalak izan zuen erreakzioarekin. Ez alkatearen aldetik ez zinegotzi batzuen aldetik ez zen egoerak eskatzen zuen maila eman. Han inork ez zuen esan: "Hori onartezina da, baina guztiz onartezina, e!". Nik, irmotasun hori, ez nuen inon ikusi.

Uste dut Isaiasena gertatu zenean atera nintzela lehenengo aldiz manifestazio batean. Arrasateko manifestazioa sekulakoa izan zen, "era horretako atentuen kontra gaude" esatekoa. Aurpegia ematea zela, bai, baina ni garai hartan oso pozik nengoen neure buruarekin, ni ez naiz ezertan sartzen, eta inork ez ninduen jorratu.

Iñaki [Etxabe] hil zuten. Hura basakeria bat izan zen; guardia zibilak joatea, zerbitzari batekin, gero bestearen atzetik abiatzea eta hori dena... Erabat mespretxagarria!

Marino Yuste Hernandez

Guarda Zibilak egindako metrailaketa hark markatu ninduen, nik uste, Gurea Zineman geundela, kontzertu batean. Tiroka sartu ziren, ez dakit bi minutu edo bost izan ziren, jendea handik aterarazteko sartu ziren.

Triple A-k edo GAL-ek errefuxiatu bat hil zuen Arrasaten: Agurtzane Arregi, Juan Jose Etxaberen emaztea. Etxabe larri zaurituta geratu zen eta andrea hilda.

Gogoan dut "Txinue" hil zutenekoa, horrela deitzen zioten Arrasaten, eta haren lagun bat (guardia zibilak). Kuarteletik pasatakoen artetik, beldurgarieneko bat zen hura.

Javier Zugasti Azkarraga

Baina gertakari haundixenak izan leikez, ba Mondragonen hil ittuen "Txinue" guarda zibila, bere txoferra...gero handik denbora batera be Salgeiro hil uben, hau sarri paisano jantzita ibiltzen zan. Ba bueno, ezaunak zien, asko ikusitakuek. Gero be daukat Iñaki Etxabe hil hauenien, Kanpazarren. Gabe horretan, nire lagun bat Kanparzarko tabernan zauen trago bat eraten. Iñaki tiroka hil haien eta nere laguna eta Iñakin anaiak atzeko atetik urten hauein ariñiketan igesik. Nire lagunai kotxia kanpuen ametrallau in zotzien eta holan ibili zan kotxiaz, egun batzuetan, tiroz beteta. Gau baten, bere etxe ondolik kotxia desagertu in jakon, 2 caballos citroen bat, eta gehixau ez jakon agertu. Nire lagunak kotxian denunzia bez etzauen in, jakinda zer pasau zan eta zeintzuk izen zien sospetxauta. Hilketak horrekin lotuta, Mondraueko taxista bat, hilda agertu zan Ermua inguru horretan.

8.2 GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA BIKTIMAK

Arestian jasotako zirrarak irakurrita, oso nabari geratzen da noraino iritsi diren indarkeria mota ezberdinen ondorio kaltegarriak, bereziki pertsona zehatzengan sortutako sufrimendua, baita beste maila batean gizartearengan oro har. Indarkeria horiek eragindako kalteen zerrenda zirrargarria da: hildakoak, zaurituak, torturatuak, mehatxuak, baita ere samina, sufrimendua, beldurra, gorrotoa eta abar. Baina ondorio horiek guztiek bere jatorrian ezaugarri bera izan dute, giza eskubideen urraketa izan baitira. Ideia hau argi azpimarratzea funtsezkoa dela deritzogu, beste begirada batez aurrera egin nahi bada.

Halaber, urraketa horiek biktima multzo handi bat sorrarazi dute, zuzeneko ondorioen artean. Lehen kaltetuak atentatu mota ezberdinetan erori diren biktimak izan dira nagusi eta haien senide zein gertukoak, jakina. Baina gizartearen hainbat arlotan, ahantzi ezineko arrastoa utzi dute baita ere. Hurrengo orrialdeetan gai horiek garatzen dira, arestian aipaturiko herritarrengandik bildutako kontakizun eta iritziak jasoz.

8.2.1 GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

Aurten 70 urte beteko dira, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik, sortu berria zen Nazio Batuen Erakundearen eskutik, Parisen, 1948an. Izan ere, gizaki orok duen oinarrizko eskubideen taula gisa dago onartua nazioarte mailan. Illo horretan, giza eskubideen urraketa bat pairatzen denean, egia ezagutzeko, justizia bilatzeko eta erreparazioa eskatzeko eskubidea du sufritu duen edonork, zilegitasun osoz, jasotako kaltea bidegabea izan dela aitortua izateaz gain.

Horrez gain, ordea, sarritan eragindako minak ez du uzten urrunago dagoen beste oinaze bat antzematen, norberaren saminak dena betetzen baitu. Honelako usteak oso hedatuta daude mundu zabalean, euskal gizartea barne, edo hobe esanda, Arrasate ez da salbuespena. Izan ere, norberaren sufrimendutik haratago beste oinaze egoerak ikus ahal izateko, bide luzeko hausnarketa behar izan ohi da aurrez, gogoeta sakona; gorrotorik eza eta begirada irekia behar dira.

Joera hori nabarmen ikusten da ondoko testigantzetan, aurreiritzi hori gainditzen saiatzen direnak ugariak diren arren. Dena dela, biktimak eta biktimarioak berdintzeko arriskuak kezka handiak sortzen ditu eta hainbatentzat funtsezkoa da bi izaera horiek ondo bereiztea.

Nire ustez alde askotatik urratu dira giza eskubideak, eta jende askok, ideologia mota guztietakoak, jasan ditu urraketak. Beraz, orain, konpontzeko dagoena konpondu eta kito, hori da egin behar dena. Baina hiltzailea eta biktima maila berean jartzea... Ez nago prest torturatua torturatzaillearekin parekatzeko,

hiltzailea biktimarekin, borreroa biktimarekin... Ez, ezin dira parekatu: borreroa borrero da, eta biktima, biktima. Baina bidegabekeria bat jasan duen pertsona batek, gertatutakoa ikusi eta aztertu ondoren noski, zergatik ez du, bada, horren aitortza jasoko? Bai, jakina. Frankismoaren biktimak, adibidez, orain ari dira jasotzen aitortza hori.

Nere ustez danak izan dira biktimak. Alde batekoak, beste aldekoak, euren familiak, euren semeak, danak. Biktimak orokorrean danak. Gizartea. Lehenengo familiak eta seme alabak eta euren ingurua, eta soziedade guztia izan da biktima neurri batean. Neri edo beste bateri ETAk ez digu egin ezer, baina horren ondorioak pasatu ditugula. Zelabait zoziaz zure seme alabak horrela hezitzen, beraz hau bola haundi bat da. Lehenengo eurak desde luego, bai batak eta bai besteak. Baina hori ez bazan pasauko gu biziko ginen beste era batera. Pentsaten dot gizarte guztia dala biktima.

BIZITZA ESKUBIDEAREN AURKA

Giza eskubideen artean ez dago inolako hierarkiarik, ezin da ipini eskubide bat besteentzen aurretik, alegia, era integral batean eta bere osotasunean hartu behar dira. Hala ere, honelako azterketa bati ekiterakoan, zilegi da bizitza eskubidea lehenestea, bizitza ukatuz gero, ez baitago beste eskubideez hitz egiterik. Hori dela eta, eraildakoak eragin dituzten urraketen testigantzak biltzen dira lehenik.

Inork ere ezin dezake esan "Poliziok horrela jokatu behar izan dugu ETaren indarkeriarengatik". Ez. Baina ETak ere ezin du esan, "Besteek indarkeria zerabil-tela ikusita, nik ere berdin jokatu dut". Ez. Ez alde batek ez besteak ez du izateko arrazoirik erabili duen indarkeria horretan. (...) Hainbat ahots altxatu izan dira esanez, "Hau gertatu bada, ETaren indarkeria hor zegoelako izan da, ez baitzegoen beste era batera jokatzetik". PSOE barruko sektoreen batek onartzen zuen GALen ondorioz hasi zela Frantzia ETaren kontra jokatzeko. Hori da, hain zuzen, GAL martxan jarri izanaren beharra justifikatzeko batzuek erabili duten arrazoietako bat.

Garai batean, nik uste horrela justifikatu izan zirela, batzuetan, ETaren kontrako polizia-ekintzak: "Bai, baina ETak behartu gaitu bide hori hartzea". Ez. Zuk ezin duzu esan, zure jokabidea zurrizteko, ETak behartuta hartu duzula bide hori. Ez, ez zaitu ETak behartu horretara. Gertatzen dena da zuk dituzun ideiak ez direla erabat demokratikoak; gizarteak zure esku utzi ditu arma horiek, bai, baina ez modu horretan erabiltzeko.

• ETAK ERAGINDAKO HERIOTZAK

Azken hamarkadetan, Arrasaten zein Euskal Herrian, heriotza gehien sortu duen indarkeria politikoa ETAK (edo bere gertukoek) eragindakoa izan da, jendartean erreakzio mota ezberdinak sortu dituelarik. Baina beste mota batzuetako indarkeriak ere eman izan dira, aurrerago azalduko ditugunak, esate baterako, GAL, BVE, ... Biktima batzuen gan zein besteengan burututako urraketa berbera bada ere, eraildako horiek zenbait herritarrengan sortu duten zirrara ezberdina izan da duela gutxi arte, ikerketa ugari erakusten duten bezala. Hori dela eta, solaskideon adierazpenak bi multzo berezietan jaso dira, txostenaren egileontzat oso argi dagoen arren, biktima guztiek tratamendu bera merezi dutela, urratzailea edonor izanda ere.

Carrasco, zinegotzia. Hor ere, hil egin zutela, ez neban ezagutzen. Inpaktatu bai, baina gero, ikusi nitun, hemendik, goizetik goiz, fan etorri ta bueltan, politikari asko. Geuretarikoak, espainolak eta neri sartu jaten: "Badabiltz arrimando el ascua a su lado", ez dakizu? Aprobetxaten. (...) Harrezkero ikusi neban bere alaba guztiz minduta, ikaragarritzko gorrotoaz. Honek behar du laguntza, psikologiko, psikiatrikoa, ez dakit zer, baina honek barruan amorrua dauka.

Nik gogoan daukat, Hipercor-ekoa gertatu zenean, (...), HBko hemengo arduradunei esaten zietela, "Ez duzue ezer esateko?". "Bonba bat jartzen dute eta poliziak du errua, ez abisatzeagatik?" Eta nik neure artean: "Ea konturatzen zareten hori ezin dela egin". Pentsa zein zorte ona izan zuten ETAKoek orduan yihadismorik ez egotearekin! Nola ulertuko zen jendeak yihadistak egiten ari diren gauzen aurrean erreakzionatzea eta, bestalde, ETAK bere ekintzekin bere horretan jarraitzea? Izugarria izango litzateke. (...) Zuk ez jarri bonbarik eta duzu polizia abistu beharrik izango.

Gero, Miguel Angel Blancoren hilketa gertatu zen, zentsura-mozioa aurkeztu zuten eta HB-k alkatetza galdu zuen. Bahiketaren ondoko 48 orduko ultimatum hura... Eta Bilboko manifestazioa; ez ziren era horretako manifestazio asko egiten Bilbon, eta gu han egon ginen. Hura izugarria izan zen. Arratsalde hartan jakin genuen hil egin zutela, eta hura zera izan zen... Hori izan zen, nire ustez, inflexio-puntua. Hala dio behintzat jendeak. Biharamunean, fabrikan, kanpora atera eta bertan elkarretaratu ginen, hilketa gaitzesteko. Ez da sinestekoa. 1948an, pertsonen bizitza politiko eta sozialerako eskubideak onartu ziren, Nazio Batuek Giza Eskubideen Adierazpena egin zuten, eta pertsona erdigunean jarri, pertsonak errespetua merezi duela, ezin dela manipulatu eta abar esanez. Pertsonak pertsona izateagatik dituen eskubideak direla esanez. Eta eskoletan, eta, oro har, alde guztietan, gai horren inguruan pedagogiarik apenas egin dela pentsatzea ere!

Zirrara oso handia eragin zidan hurrena Fernando Buesaren hilketa izan zen. Nik neuk oso harreman gutxi izan nuen berarekin, baina nire senarrak handia. Elkarrekin ibili ziren Gasteizko Udaletxean, zinegotzi gisa, zein bere alderdian, baina, nire ustez, oso pertsona zuzena zen Buesa, eta niri izugarri eragin zidan haren heriotzak, haren hilketak, harenak eta haren eskolta Jorge Diazenak. "Ikaragarria berriz ere, 2000. urtean horrela egotea oraindik, baina nola liteke, gauden mendean egonda, mundura erabat zabalik, hain globalizatuta dagoen gizarte batean...?". (...) Ni Fernando Buesaren hil-kaperan egon nintzen, eta han nengoela, politikari bat sartzen ikustea suertatu zitzaidan, alderdi batean asko agintzen zuen politikari bat, ez baitakit esan edo ez: Arzalluz zen. Aretoan sartu zenean, han bilduta zeuden askoren jarrera ikusi nuen; eta nik, une hari, ekitaldi politiko baten antza hartu nion. Eta lur jota atera nintzen handik; kanpoan euria ari zuen goian behean, eta blai eginda iritsi nintzen etxera. Baina berehala atera nintzen, kalera atera beharra neukan, ez nekien nora nindoan, baina atera beharra neukan, etxean ito egiten nintzen. (...) Fernadon Buesaren hiletan, jende asko bildua zen eliz atarian, Ibarretxeren kontra oihuka. Ibarretxe atzeko atetik sartu zen, inoiz egin behar ez den gauza; herriaren ordezkari batek ate nagusitik sartu behar du beti, horretarako dago eta, ez atzeko atetik. Aurpegia eman behar da beti.

Eta biharamunean, manifestazioa deitu zutenean, (...), horra non ikusten dudan jendea pasa eta pasa, autobusak utzitako tokitik zetorrela, ikurrina lepoan. Lehengusu batekin egin nuen topo, eta hara non esaten didan, "Ari, Ari, Ari, Ibarretxe lehendakari". "Iñaki, ondotxo dakizu ez naizela zure iritzikoa" esan nion, "baina hau ez da Ibarretxeren aldeko manifestazio bat, ezta Ibarretxeren kontrako manifestazio bat ere. Hau ETaren kontrako manifestazio bat da, Fernando Buesaren hilketa salatzeko". Ez, ez zen asmo horrekin etorria, eta, halaxe, manifestazioa bitan zatitu zen; talde bat egon zen manifestazioak iraun zuen bitartean "Ari, Ari, Ari, Ibarretxe lehendakari" oihuka ibili zena. Euskadi erdia etorri zen manifestazio horretara, deitu zuenak deituta, ez preseski Batasunak deituta, e! Gauza horiek arrasto handia uzten dute beti, "Noiz arte?" oihu egiteko halako gogoia ematen. (...) Eta neuk ere zerbait egin behar nuela pentsatu nuen orduan. Alderdi Popularretik hurbilago ikusten nuen neure burua. Eta honela esan nien: "ni ez naiz alderdikide egingo, baina egun batean nire beharra baduzue, edozertarako dela ere, edo Gipuzkoako herri batera joan behar badut, gehiago ezagutzen dudalako, edo beste ezertarako behar banauzue, ni laguntzeko prest nago". Ez da posible nik ditudan ideia berberak defendatzeagatik hainbeste jende eraila izatea. Ni ez nintzen Alderdi Sozialistako kide, baina Fernando Buesa, etika aldetik, bere lekuan egoten oso ondo zekien pertsona zen. Untxiak bezala hiltzen zituzten. Baina zer da hau?

Sarritan, iraganeko eraiketa batzuk kontraesanak sorrarazi dituzte zenbaitengan, norberaren printzipio etikoek jokabide tinko bati eusten bazioten ere. Iritzi kontrajarri horiek jarrera ezberdinak izateraino eraman dute herritar bat baino gehiago heriotza baten

aurrean, urratzailearen edo biktimaren ezaugarrien arabera. Azken batean, esan daiteke biktima guztiek ez dutela sentiberatasun bera jaso herritar askorengandik.

Kontraesan horretan, gaur egunetik begiratuta, iruditzen zait ez nuela behar beste landu bigarren iturri hori, hau da, Yoyes-enean aktibatu nuen moduan edo Fernando Buesa hil zutenean. Buesarenaren garaian Gasteizen geneukan bertso saio bat eta nik, nahiz eta gaia etzectorren aurrean, kantatu nuen sentitzen nuena. Eta atera izan nintzen bukatu baino lehen, hilketen kontrako protestatan. Beraz, euki izan dut, etzen bakarrik Yoyes izan. Baina, puntualki, hau da, 30 urte hoietan, ehunka-ehunka hildako egon ziren, ni ez nintzen hildako bakoitzaren ondoren protestan atera. Nik banuen, baita ere, justifikazio koltxoi bat hor.

Carrasco hil hauen egunian egon nintzen bazkaitxen, Bedoñako auzoko tabernan eta komedoria tope beteta. Eta nik ez dot uste han pena handirik eongo zienik. Orduen Ezker Batua udaletxien hauen, ta badakigu zelan ibili ginen. Gainera, akordaten naz, IU barruen be, gure gora beherak euki gauela. Gauzie oso tenso egon zan zeatik udaletxien IU eta HB batera euzen gobernetan, eta presiño handixak egon zien. Gure hiru zinegotziak nehiko estu ibili zien ze gobernuia isteko eskaerak haundixak izen zien. Baina gobernuia ez gauen itxi. Nahiz eta hilketa guztiz kondenabilia izen.

Guardia Zibileko kaporal bat Ezkiña tabernaren ondoan hil zuten, Guardia Zibileko informazio-kaporalak zen: Salgueiro edo holako zerbait zuen izena. Istoria horiek iltzatuta geratu zaizkigu betiko. Ni ez naiz indarkeria zalea, baina, gauza batzuen aurrean, poztu-edo egiten zara esan ahal izateaz, "Begira, paretik kendu diat jende hori. Tira, beste horiek kendu ditek, baina niri ondo heldu zaidanez". Nik garbi neukan zergatik egiten ziren ekintza horiek.

Kasu honetan, Isaias Carrasco oso pertsona maitatua zen herriko alde batean, hainbat urtez bertako auzo-alkate izan zelako. Oso sartuta zegoen futbolaren munduan eta txapelketak antolatzen zituen haurrentzat. Oso pertsona maitatua zen, San Andres auzoaren alde lan asko egindakoa. (...) Garaiz kanpo samar gertatu zen hura, nolabait esateko: 2008an, duela 9 urte, pentsa! Nik uste nuen hura jada gaindituta zegoela, atentatu mota horiek, esan nahi dut, jendea garondan tiro emanda hiltzea eta horrelakoak. Nik uste jendeak amorru handiz bizi izan zuela hura. Boto bidez hautatutako pertsona bat zen, ez norbaitek nahita jarritakoa, ez. Nik uste jende asko ez zela sekula manifestazio batean izana, baina egun hartan, bai, jendeak oso ondo erantzun zuen. Gero, hedabideek-eta, asko erabili zuten gaia, batez ere estatu mailan. Nik uste Arrasateri kalte egiten saiatu zirela, baina lehenagotik zectorren kontu bat da hori.

• BVE , GAL ETA TALDE PARAPOLIZIALEK ERAGINDAKO HERIOTZAK

ETAren indarkeriak sortutako iritziak jaso ondoren, bestelako motibazio politikoaz burututako indarkeria biltzen da jarraian eta berehalakoan ezaugarri bereizi bat nabarmentzen da. Ulertezina egiten da nola gerta zitekeen hainbeste hilketak eta atentatu garai batean, Estatuaren babespean, indar polizialen eskutik edota Estatuak berak sus-tatuta. Baina are eta ulertezinago bihurtzen da, indarkeria ekintza horiek gaur egun arte ezagutu duten zigorgabetasunaz jabetzea, horrek dakarren min gehigarriaz.

Lasa eta Zabalarena, tortura haiek, haien gorpuzkinak kare artean agertzea. Torturei buruz berriki argitaratu duten txostena. Hori dena errealitate bat zen. GALen inguruko guztia, berriz, sinesgaitza. Indarkeriaren kiribila elikatu duten elementuak dira, zalantzarik gabe. Konparazioak gorrotagarriak dira, ez da konparatu behar. Besteak hilketak dira, hauek ez; baina ez. Horrek ez baitu balio, dena da indarkeria. Alde guztietatik gainezka egiten zuen gai bat zen hori.

Eta ETari eskatzen zaion bezala, arrazoi osoz eskatu ere, ez barkamena eskatzeko, baizik eta egin duena azaltzeko, bada, Alderdi Sozialistari ere gauza bera egiteko eskatu beharko litzaioke, GALen kontuarekin, zeren Barrionuevo, Vera... kondenatuak izan baitziren. Eta agerian geratu zen haiek programatu zutela GAL delakoa. Alderdi Sozialistak ez digu esan ordea zer gertatu zen. Ni ez naiz harrutuko esaten badidate Felipe Gonzalezek bazekiela zertan zebiltzan Vera, Barrionuevo eta horiek. Ni ziur nago X jaunak izen-abizenak dituela, horrela behar duela izan ondorioztatu dut. Beno, Gonzalezek duela gutxi adierazpen batzuk egin zituen esanez bere esku egon zela egun batean zerbait egitea baina azkenean ez zuela egin. Aurpegia behar da gero!

Estatuaren aparatua, trantsizio garaian, apenas ukitu zuten, bere horretan utzi zuten. Amnistia, batez ere, Francoren garaian erantzukizunak zituztenengana zuzenduta egin zen. Inork ez zuen laguntzarik eman, adibidez, Gasteizko gertaerak argitzeko [1976ko martxoak 3]. Hura bai izugarrikeria! Elizan egindako biltzar batetik ateratzen ari den jendea metrailadorez tirokatzea. Eta ez da ezer egin hura argitzeko.

GALek jende askoren babesa izan zuen, jende askoren txaloak jaso zituen. Nik ez, egoera berean aurkitzen garelako. Eta niri min ematen zidan, zeren alde batekoek egindako ekintzak gaitzesten baditugu, nola arraio babestuko ditugu haiek bezain odoltsuak diren beste ekintza horiek?

TORTURA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, zehazki bere 5. artikuluan aipatzen da gizaki orok torturarik ez jasateko duen eskubidea: "Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere"⁹¹. Tamalez, maizegi errepikatu den eskubide urraketa mota bat da; gainera, frogak aurkitzeko zailtasunarekin batera, torturaren praktika zigorgabetasun giro batean eman da. Arrasaten zein Euskal Herrian inor gutxik ipintzen zuen zalantzan indar polizialek torturatzen zutenik, ustea baino haratago zihoan susmo txarra baitzen, han-hemenka entzun eta ikusitako zantzuengatik.

Duela hilabete gutxi, ordea, torturaren susmoa herritar askoren uste bat izatetik erakustaldi publiko izatera pasa da. Izan ere, ageriko froga mardula aurkeztu berri da torturari buruz, Euskal Herriko Unibertsitateko IVAC-KREI institutuak burutu duen ikerketa sakonean. Bertan, 4.000tik gora tortura kasu egiazkotzat ematen dira EAEn, 1960tik 2010era bitartean, nazioarteko zientzia irizpideak erabilita. Hala ere, justizia sistemak hogeiren bat kasu besterik ez ditu zigortu hamarkada luze hauetan.

Nik banekien torturatzen zela, esaten zuten eta sinisten nauen. Esaten dute: "Le han llevado detenido, veinticuatro horas ha estado y cómo ha salido, qué cara tenía..." eta hori sinesten nien. Ez dakit izango zan egia, Madrilgo Plaza Mayorren, hantxe azpian zeudela atxilotuak eta txilixoak entzuten zirela esaten zuen jendeak. (...) Eta Ertzaintza? Bai. ETaren hasieran bezela pasau jaten, diskulpau zelabait egiten. Hori nik esan nuen, ez da posible. Ertzainek ezin dute hori egin, nere alabak esan zidan behin: "Ama, hori egiten dute, esaten daue egin dietela". Nik lehen zalantza naukan, oin, ez dakit tortura edo tratu txarrak behintzat bai.

Nire senarra torturaren kontra zegoen. Ondo gogoan dut hori. Jose Luisek anaia bat zeukan Burundin misiolari ibilitakoa, eta orain Madrilen zegoena, apaiz. Madrila joan ginen behin, hura ikustera, eta Puerta del Soleko eraikin ofizial batean lan egiten zuen bat etorri zen. Eta egun batean, Jose Luisek galdera bota zion hari, torturen ganean esaten zen guztia ezin baitzitekeen egia esan. Jose Luisek galdetu zion: "Eta egia al da, hor, zuek lan egiten duzuen toki horretan...?". Harrituta geratu ginen, esan zigunean, "Bai. Oihu batzuk eta gauza batzuk entzuten dira". Neuk entzuna. Bakarrik ginen biok. 1980. urtea-edo izango zen. Inpresio handia egin zidan. Bai, handia.

Ez dot torturaren txostena irakurri zehatz-mehatz baina aurreko egunien hitz egin nauen torturatua izan zan pertsona batekin, oso gazterik. Galdetu nion, ze pentsetan dozu? Esan zoztan oso beharrezkoa zala. Bera torturatua izan zan

91 Giza Eskubideen Aldarrikapen Ubibertsala <http://www.un.org/>

hirurogeta hamabostien. Urtietan sentitu zala oso bakarrik, familia etzagoen prestauta, lagunek be etzeuden prestauta. Berak garbi esaten zauen, "Las administraciones y todos miraron para otro lado". Esan zoztan pentsetan zauela aurrera pauso bat zala.

Hemen gertatu den gauzarik larri eta lazgarrienetako bat torturarena izan da. Denok genekien hemen torturatu egiten zela. Eta, hala ere, oso kasu gutxitan epaitu dute Poliziako norbait torturengatik. Izan ere, atxilotuta zeudenentzat, espetxera joatea opari bat zen ia. Jendeak ez genion beldurrik espetxeari, torturari genion guk beldurra. Denek zekiten. Eta estatuek ez dute ezer egin hori geldiarazteko; alderantziz, denok dakigu tortura zela poliziak ikerketa bat abiatzerakoan bere esku zeukan tresna nagusia, ia bakarra. Nik uste tortura oso balio eskaseko demokrazia baten emaitza dela. (...) Gogora datozkit gertaera beldurgarriak: Zabala kasua, adibidez, torturatuta hil eta ibaira bota zutenekoa; edota Arregirena, Madrilen torturatua.

Duda barik, mina min da torturen kasuan ere. Bai, eta mila kilometro kotxean egin behar dituenak ere bizi du mina. Bai, biktimak dira. Min hori hor dago. Min ezberdinak daude eta torturena duda barik da euretako bat. Ez da onargarria eta ez dago inola ere justifikatzerik.

Nik uste Estatuaren aparatuek azaldu beharko luketela zergatik ez den ezer egin, ezertxo ere ez, torturen gai horrekin. Are gehiago gauza jakina denean hemen torturatu egiten dela, eta sistematikoa zela orduan tortura. Esan dudan bezala, hori da poliziak erabili izan duen ikerketa-bide bakarra. (...) Gehiago oraindik, nik pentsatzen dut Poliziaren edo Guardia Zibilaren sindikatuek berek ere —progresistatzat jotzen diren batzuk ba omen daude-eta sindikatu horietan— zerbait egin beharko luketela, neurri batzuk hartzeko eskatu-edo, beren prestigioa gordetzeagatik besterik ez bada ere, gertatu den hori berriro gerta ez dadin, zeren, egia esan, hemen ia ez dute inor epaitu torturak egiteagatik.

Bestalde, nik uste beste batzuek ere gogoeta egin beharko luketela, torturen gainean batez ere. Madrilgo nire lagun guztiek uste dute Poliziak torturatu egiten duela, baina ofizialki ez du torturatzen. Arrasateko nire ezagun guztiei, honela esaten zieten espetxetik atera berritan: "Torturatu egin zaituzte?". Eta erantzuna, "Bai". Eta hori ere hala aitortu beharra dago. Horrek ez du esan nahi ETA egiten ari zena ondo zegoenik, baina beste hori ere hala aitortu behar da. Beste askori ere aitortu behar zaie biktima-izaera. Horien artean, hor dago Iñaki; Arrasateko taxilari ospetsua, German, tiroz josita hil zutena; edo GALekoek Iparraldean hil zutena, Arenaza... Nik uste bide horretatik asko aurreratuko dugula, baina diko-

tomia moduko bat ere badago hor, zeren jende asko dago, ideologia desberdinekoa, badakiena, tira, agian ez daki, ez duelako inoiz ezer ikusi, baina bere barruan ziur dagoena hemen torturatu egiten zela, ziur dagoena hil zuten guardia zibil hura bezain biktima dela Iñaki.

JAZARPENA. BIZKARTZAINAK.

Hainbat pertsona, politikariak, enpresariak eta bestelako herritarrak ere, bere egunerokoa bizkartzainen babesaz eramatera behartuta izan da, heriotza mehatxuak jaso izanaren ondorioz edo atentaturen bat jasateko arriskua hurbilekoa izan denean. Jazarpeneko indarkeria hau ia isilpean eramana izan da eta beste ezaugarrietako bat zera da, norberaren ohiturak baldintzatu eta harreman eremua mugatzen dituela, jazarrita dagoen pertsonaren bakardade sentsazioa areagotuz. Jarraian bildutako testigantzak jazarpena jasan duten pertsonen lekukotza zuzenak dira.

Niri, behin, Ertzaintzaren basetik deitu zidaten, esanez nire izena komando baten paperetan agertzen zela eta eskolta jartzea proposatzen zidatela. Nik uko egin nion eskaintzari, eta esan nien, ni mehatxatuta banengoen, alderdiko beste kide batzuk ere, segur aski, egoera berean egon zitezkeela, ezta? Ez zitzaidan bidezkoa iruditzen. Orduan, oso oker ez banago, bost zinegotzi ginen Udaletxean. Kotxea kiskali zidatenean, 1999an, ez neraman eskoltarik. (...) Eskolta eramatea proposatu zidaten, eta ezetz esan nien nik. Ikastaro azkar bat eman zidaten, neure burua nola babestu, kotxe azpian nola begiratu, eta holakoak ikasteko. Gero, erabaki hori hartu zuten, bai, ez nire kasuan bakarrik, baizik eta eskolta eramateko obligazioa kargu publiko guztietara zabaldu zenean. (...) Hamahiru urtez eramanean nuen eskolta. Kotxea kiskali zidatenean, bizkartzain batek eramaten ninduen lanera, nire kotxean. Ni lantokian utzi ondoren, kotxea berak eramanean eta bila etortzen zitzaidan gero. Eguerdian, bizkartzaina bazkaltzen ari zela aprobetxatuz, kiskali egin zidaten kotxea San Andresen.

Aldaketa erradikala, inondik ere. Bizkartzain batek lagunduta ibili behar duzu beti, eta, gainera, hil egin nahi zaituztela esaten dizute. Eta horrek zer dakarren? Bada, horrek dakar, adibidez, seme-alabekiko harremana galtzea, familia-bizitzarik ez izatea, ezin baituzu arriskuan jarri emaztearen edo seme-alaben bizitza. Horrek dakar beti norbaitekin eta aldi berean bakarrik egotea. Horrek dakar intimitatea galtzea, baina, batez ere eta oroz gain, nik beti gogoan dudana eta ahal dudanean seme-alabei gogorarazten dieran gauza bat: aitaren eta seme-alaben arteko kontaktu hori galtzea. Ezin nik haiei inora lagundu, ezin haiek nirekin inori etorri, eta holakoak. Horrek faktura pasatzen dizu bizitza pertsonalean, oraindik ordaintzen ari naizen faktura bat.

Denetarik izan dugu. Fisikoki, gehiago jipoitu dute nire semea ni baino, txikitatik. Duela 15-16 bat urte eskoltarekin ibiltzen nintzen jada. (...) Egia esan, gogorra

izan da horrela bizitzea. Gainera, mehatxatuta egoteaz aparte —alderdiko beste kide asko bezala, bidenabar esanda—, kotxea erre zidaten, nire semeari, 16 urterekin, heriotza-mehatxuak egin zizkioten institutuan, eta eskolta eman behar izan zioten... Eta hori dena gutxi balitz bezala, prozesu horren erdian, istripu batean emaztea galtzeko zoritxarra izan nuen. (...) Mutil gazte bat izan, politikan sartu, andregaia hartu, eta zer eta bizkartzainarekin ibili behar. Imajinatzen duzu zer den hori, andregaia egin berritan, bizkartzainarekin ibiltzera behartuta egotea? Nola egingo duzu maitasuna horrela? Nola hasiko zara musuka? Nola...? Zera esan nahi dut, pertsona bat beti ondoan eduki behar izatea, 19 urterekin intimitaterik ez izatea...

Herrian, batekin baino gehiagorekin nago zorretan —askorekin, egia esan—, eman didaten laguntza dela eta. Kaletik nindoala, gutxi ziren nirekin hitz egi-tera hurbiltzen zirenak. Gainera, bi pertsonaz lagunduta ibiltzen nintzen beti. Norbaitekin hizketan gelditzen nintzenean, beste bat pasatzen zen igual ond-otik, eta entzuten zenion esaten: “Nola hitz egin dezakek horrekin?”.

Ez, berak ez zuen eskoltarik. Orduan, ez zitzaien egokia iruditu. Bestalde, asko sufritu genuen, baita ere, nire alabarengatik, zaharrenarengatik. Orduko une haiek... Alaba Udaletxean sartu zen zinegotzi. Eta bere aitak esan zion ea nolatan bururatu zitzaion hori egitea, gu hainbeste sufritzen ikusi ondoren, eta gauzak hobeto pentsatzeko eskatu zion. Ez zuen begi onez ikusi alaba Udaletxean sartzea, sufritzen ikusi gintuelako, hain zuzen, (...) Alabak Udaletxean segitu zuen, Aretxabaletan, Alderdi Sozialistako kide gisa. Baina, tira, ez dakit nori esker, Jainkoari esker segur aski, gauzak askoz hobeto daude orain (...) Oso gogorra da, zeren amak, beste ama gehienek bezala, hor egon behar izaten du beti, erdian sartuta. Nik beldurra sentitzen nuen, bai, handia. Beldurrak duela bederatzita arte iraun zuen, gauzak aldatzen hasi ziren arte... Gure alaba eskolta eramaten hasi zenean, oso hurbilekoak zituen pertsona batzuek bizkarra eman zioten, bai, alabari. Ez dakit jendeak ulertuko duen, baina pertsona horiek esaten zuten, aitzakia moduan, deseroso sentitzen zirela eskoltak hor aurrean ikusita...

Herri txikienetan bai, askoz baldintzatuagoak egongo ziren, segur aski. Agian horregatik ez dut ikusi neure burua biktima gisa; askatasun faltaren biktima izan naiz, izatekotan. Ez dut esango hori indarkeria denik, baina baldintzatzaille bat da noski, desberdina. Eta lehengusu-bazkaritara joaten nintzenean, Elgetara, edo Elorriora, eskolta eraman behar izaten nuen, jakina, eta bera atean geratzen zen. (...) (Familian) geroago onartu zuten, beldur handiarekin. Senarra lehen-dabizi: “kontuz ibili, kontuz ibili” esanez beti. Seme-alabak izan ziren, hasieran, okerren pasatu zutenak. “Iritsi zara? Etxean zaude? Itzuli zara? Non zabilta?” Horiek ziren haien ohiko galderak. Baina, azkenean, pixkana-pixkana, eta hain-bati esker, eta puntu horretan bai, eskerrak eman nahi dizkiet bai nire eskoltei, bai Segurtasun Indarrei, Estatukoei zein Ertzaintzari, nire urratsak zaintzeagatik.

Nire eskoltei esaten nien, "norbaitek irain egiten badit, zuek ez ezer esan, baina epelak entzun beharko dizkit! Norbait ni jotzeko asmoz hurbiltzen dela ikusten baduzue, zuek lasai egon, agudo bidaliko baitut bueltan, ipurdian ostiko on bat emanda. Baina, hori bai, norbait burnia ateratzen ikusten baduzue —hitz hori erabiltzen zuten haiek arma esateko—, orduan bai, haiek baino bizkorrago atera zuek zeuena". Halaxe esaten nien. Baina nik ez inoiz ezer izan. Arrasaten, udalbatza istilutsuak izan genituen, batzuk arrautzak botatzera etortzen zitzaizkigun. Niri gaineratik pasatzen zitzaizkidan beti. (...) Azken aldian, baina, gauzak desberdin joan ziren, zorionez. Baina hori beste kontu bat da. Ez zara berehala ohitzen etxetik ateratzera, lasai jaitsi zaitezkeela esateko deia aurretik jaso gabe; baina tira, ondo. 2017an kendu zidaten eskolta. Kontuak atera ditut eta nire bizitzako 15 urte pasa ditut horrela. Ezin postontzia ireki, ezin kalera atera abisua jaso gabe. Garajera kotxe bila joateari utzi behar izan nion.

MEHATXUAK. ERASOAK. PRESIOAK.

Beste batzuekin alderatuz gero, giza eskubideen urraketa hauen indarkeria maila edo eragindako sufrimendua txikiagoa dela ematen du, arrasto fisikorik ez baitute uzten kasurik gehienetan, eraso fisikoetan ezik. Baina ez du zertan horrela izan, kasu askotan ezkutuan eta bakardadean sufritzen baitira. Biktimizazio prozesua, kasu hauetan ere ematen da kalte psikologikoak eraginez, sufrimendua hain agerikoa ez den arren. Horren lekuko dira ondoko testigantza hauek, zuzenean azaleratzen baitute urteetan pairatutako samina.

Jose Luisek 16 urte eman zituen hemen, Udaletxean. Urte gogor eta nahasi haietan, era askotako erasoak pairatu genituen, eraso fisikoak batzuk, moralak gehienak. Herri Batasunak manifestazioa deitzen zuen bakoitzean, Arrasateko zinegotzi sozialistek Herriko Etxea ixten zuten, beraiek barruan zeudela, manifestariak egoitzari eraso ziezaioten eragozteko. Askotan, alferrikako ahalegina izan zen; dena txikitzen zuten.

Behin eta bitan baino gehiagotan [eskatu nion politika uzteko]. Oso une bereziak baitziren, koadrilan ere bai. Betiko lagun-taldean, itsuskeriaren bat edo beste egin izan zioten, eta jende gaiztoa izan gabe ere, alderantziz, baina apolitikoak, mespretxuren bat egin izan zioten, noiz edo noiz. Ikusten bazuten Jose Luis kalean, alderdiko beste norbaitekin hizketan, adibidez, esaten zioten: "Gauza horietaz hitz egiteko, Herriko Etxera joan" eta horrelakoak. Eta nire aurrean ez, baina berari, mespretxuak-eta egin, bai. Behin, Olarte kaletik pasioan gindoazela —bera, egun batzuk lehenago, liskar horietako batean nahastuta ibilia zen eta bendaz lotuta zeraman burua—, gure lagun bat ikusi genuen hurbiltzen, andereño bat, beste bi gazterekin batera. Gure —nire, batez ere— lagun maistra horrek, gelditu, bi musu eman, eta esan zion nire senarrari: "Jose Luis, zer moduz zaude". Eta bere lagun haiek, bitartean, "Lourdes, goazen", esaka denbora guz-

tian. Hark gero kontatu zidanez, honela esan omen zioten lagunek: "Baina zergatik hitz egiten diezu horiei?". Eta berak erantzun: "Lagunak ditudalako" (...). Nik asko maite dut herri hau, abertzalea naiz. Zer egin behar dut? Bo, gurekin hitz egitea gauza lotsagarria balitz bezala.

Etxean deiak jasotzen hasi ginen, mehatxuak, "zuek izango zarete hurrengoak". Hurrengoak hori, jakina, generikoa zen, familia zen. Eta nik, behin, 1977. urte aldera izango zen, jasotako azken deiaren berri eman nion Jose Luisi. Eta egun hartan bai, honela esan nion: Jose Luis, mehatxuak... Eskuin muturrekoak izan zitezkeen, bai, ETaren mundutik ez nuen pentsatu nahi halakorik. Ez nuen pentsatzen halako gorrotoa zigun jendea egon zitekeenik hemen. Gaztelaniaz ziren beti. Baina ez dakit inori jakinarazi genion inoiz horren berri, ezetz egingo nuke. Dena etxean gelditu zen, eta denbora askoan, nire golkoan gordeta. Bai, bai, lehenago ere gertatua zen, beste bitan, gauza bera, eta biharamunean, Maitaneren jaunartzean, hori gertatzen zen hirugarren aldia izango zen. Eta ea zergatik ez nion ezer esaten? Bada, Jose Luisek eta biok elkar asko maite genuelako. Nik banekien horrek min handia emango ziola Jose Luisi. Sufritu egingo zuela.

Hori bai gogorra, zeure burua bakardade gorrian ikustea beti, batzarrean egon eta denak zuri oihuka entzutea: "Hil egingo zaitugu", "Put a seme hori", "Ez zara hemendik aterako". Eta ateratzen zarenean, harrika hartzen zaituzte, eta ikusten duzu besteek ez dutela ezer egiten, begira gelditzen direla ezer egin gabe. Bidegabekeria itzela. Nola hartu hori? Oso gaizki, noski. Eta biharamunean, mahai baten inguruan eseri eta jende horrekin hitz egin behar berriro. Gogoan dut batzar batean aulkiak bota zizkigutela, eta handik ateratzean harrika hartu gintuztela. Eta txistua botatzen zizuten eta iraindu, aurretik pasatzerakoan. Zentzu horretan, herri hau, garai haietan, erradikalenetako bat izan zen, Erreteria eta Hernanirekin batera. Horiek ziren hiru gunerik okerrenak.

Tomas y Valiente hil zutenean, nire semea bere gelako ordezkaria zen eta ikasle-batzarra deitu zuen. Arrasaten, ETaren atentatu bat salatzeke edo gaitzes-teko ikasle-batzar bat deitzen zen lehen aldia izan zen hura. Bo, kristorenak eta bi esan zizkieten batzarrean, Arrasateko institutuan. Baina ikasleek greba egitearen alde bozkatu zuten, gehiengo handiz; eta ez hori bakarrik, greba-deialdia luzatzea erabaki zuten. Bera Arrasateko Gazteriaren idazkaria zen orduan, eta beste ikastetxe batzuetara zabaldu zuen deialdia, eta beste ikastetxeetan ere, bozketa egin ondoren, jendea kalera atera zen.

Grebak aurrera egin zuen, eta ostiral horretan, etxeko atarira iristean, hor non ikusten duen semeak atariko aurrealde osoa mehatxuz beterik, bere izena diana baten erdian sartuta. "Garcia...". Ni etxean nengoen, eta esan zidan, "Aita, jaitsi, begira zer...". Jaisten naiz eta ikusten dudana lehen gauza: "Garcia...". "Kabroi

horiek berriz kakaztu nahi naute... ". Ez ba. Oraingo honetan semearengatik egin dute (...). Ertzaintzaren komisarian semea eta biok deklarazioa egiten ari ginela, sartzen da ama, atea jo gabe, eta belarrondoko bat ematen dio semeari. Eta gero, niri: "Kabroi halakoa, begira zer lortu duzun, zure semea zu bezalakoa izatea". Gero nire semea institutura joan astelehenean, eta pintada mehatxatzailez beteta aurkitu zuen institutu osoa.

Orduan etortzen zaizkit nire inguruneko lagunak eta unibertsitateko ni baino zaharxeagoak, Ezker Abertzalean murgilduta zeudenak esaten diatenak: "Ostras, oraintxe sartu zara bertsolarien elitean", pauso hau ematen baduzu, zure karrera baldintzatzen duzu, zure karrera bukatu liteke hemen bertan, "Zer galdu zaizu hor?". Baino nigan, parte abertzale epiko guzti horrekin batera, beste parte horrek ere espiritualagoa denak, eta garai hartan oso ondo formulatzen ez nuen horrek, baina garrantzia zuen esatea: "Ez, o sea, ez". Erabaki nun joatea.

[Yoyesen omenaldira] Joan nintzan Ordizira ta ja ari zian plazan biltzen, Imanol..., handik aurrera hasi zian Imanoli boikota egiten. Ordun, kalean nindoala bakarrik hurbiltzen plazara, atera zitzaizkidan kalera Ezker Abertzaleko bi, ez dakit nola deitu, emisario... Nik ezagutzen nituen nolabait, ez oso gertutik, baina ezagutzen nituen ta esan zidaten: "Jon, zuregana gatoz gauza bat esatera; gaur hemen kantatzen baduzu, etzara gehiago Goierri sartuko bertsotan". Adieraziz bezala, Goierriko bertso mugimendua, deiak, kontratazioak eta... Ezker Abertzaleak kontrolatzen ditu, beraz... Holako mehatxu bat, momentuan bertan, kantatu baina ordubete lehenago. Ez dut dramatizatzen, nik esan nuen, jakina, nik kantatu egingo dut, ez naiz horregatik kikilduko. Nire egoera pixkat berezia; ze hor kantatu genuen Eguskitzek, Egañak eta nik. Euskitzek, igual gehiago PNV sensibildade bat zuen garai hartan; Egaña militantea zen Euskadiko Ezkerran, beraz, Egañari tokatzen zitzaion. Ni nator, gehiago, Ezker Abertzaleko sensibildade bat suposatzen zitzaion pertsona bat moduan, orduan, ba hirurok kantatu genuen. Norbaitek esan zuen hirurok boikota izango genuela, baina nik uste, Ezker Abertzaleko jende batek ikusi zuela Imanoli boikota antolatu zitekeela, baina niri edo guri ez. Zergatik ez? Ba bertsolaritza gauza kolektiboagoa delako eta konplexuagoa, segur asko, gurekiko boikot bat antolatzea.

Presio horiek ez dira logikoak politikaren alorrean, eta politika soila baino askoz haratago doaz, ez baita oso normala mota jakin bateko mehatxuak entzutea. Denetarik esaten ziguten: "PNV espāñolistak, diruzale"... Gure argazkiak agertu ziren kaleko hormetan, jomugan ere izan nuen alderdikide bat. (...) Alderdiak neure burua zinegotzi aurkezteko eskatu zidanean, esan nien: "Aurkezten banaiz, hautatua ateratzeko izango da; bestela, nahiago dut ez aurkeztu". Eta oso esperientzia ona izan zen, egia esan; gure artean, oro har, adiskidetasun-harreman ona egon zen. Behar beste argudio ematen genituen, baina hala eta guztiz ere,

gure kontrako presioak handiak ziren, txanponak botatzen zizkiguten, denetarik. Batzokia, pintadaz josita... A zer giroa... Baina zinegotziok, gure artean, oso harreman ona genuen. Zinegotzien arteko giroak ez zeukan zerikusirik kalekoarekin. Alkatearekin, Xabier Zubizarretarekin, gogoan dut nola behin, gure argazkiak kalean jarri eta pintadak egin zizkiguten garai horretan, alderdikide bat eta biok, berarengana joan eta zerbait egiteko eskatu genion, bere jendea baitzen horretan zebilena. Hor, nolabait, iskin egin zigun berak. Zentzu horretan, faltan sumatu genuen gu denona izango zen alkate bat.

Familiaren inguruko errepresalia-ekintzetara itzuliz, gogoan dut nire semeari, ni EAJko zinegotzi nintzela, eskola-lagun batzuek ikasgelako leihotik behera bota zizkiotela liburuak. Seigarren solairua zen. Hori ikusita, a zer amorrua hartu zuen gure mutikoak! Gogoan dut ere emaztea tutorearekin hitz egitera joan zela... baina, itxura denez, irakasleek gogor egin zieten liburuak bota zituzten horiei. Eta kito. Hor bukatu zen dena. Bai, era horretako erantzunak eskatzen zituzten gauzak ziren haiek.

Dirudienez, PSOEk eta EAJk hitzarmena egina zuten botoak bateratzeko. 1991ko udal-hauteskunde haietan aulki-kopuru bera lortu zituzten Herri Batasunak eta PSOEk, seina aulki, hain zuzen. Herri Batasunak, baina, boto gehiago atera zituen guztira; beraz, berari zegokion, nolabait, alkatetza eskuratzea. Guk bost genituen, eta, beraz, gure esku zegoen balantza alde batera edo bestera makurraraztea. Aldez aurretik, Aldundiaren gaia ziurtatzeko, akordio bat egin zen alderdi bien artean, eta guri, Arrasaten, alkate sozialista ateratzeko laguntza ematea egokitu zitzaigun. Abstentzio minimo batekin, Zubizarreta aterako zen alkate. Ni, orduan, independente gisa nengoen. Presio asko egon ziren..., izugarria izan zen. Hedabide guztiak etorri ziren Arrasatera, ea zer gertatzen zen ikustera. Udalbatza jendez gainezka, nire alderdian bertan ere ez ziren denak iritzi berekoak. Azkenean, erabaki bat hartu behar izan nuen, eta nik bakearen alde egingo dut beti. Neure artean esan nuen, hobe legealdi bat bakean, gerran baino, eta alkate sozialista jartzen badugu ikusi egin behar gero nola amaitzen den hau. Nik, aukeran, nahiago... Eta bakearen alde egin nuen, Zubizarretaren alkatetzaren alde. Nire botoa erabakigarria izan zen une hartan. Arrasateren alde aritua naiz beti, herriaren alde, eta modu eraikitzaile batean beti. Gobernu-batzordean egon ginen, eta, gainera, udalbatzetan, giltzarria izaten jarraitzen genuen. Horrenbestez, gure erabakiak aurrera ateratzen ziren, besteak beste sozialistekiko harremanek ere, legealdi horretan, hobera egin zutelako. Hori dela eta, udalbatzan, gatazkarekin zerikusia zuten mozioak aurkeztu zirenean, iraindu egiten gintuzten... ezker abertzaleko jendeek..., eta inoiz ere atzeko atetik atera behar izan genuen.

Indarkeriak baldintzatuta bizi izan gara urte asko eta askotan. Nire senarrak Gasteizko udalean zinegotzi izateko aurkeztu zuenean bere burua, 1983.

urtean, kartelak zintzilikatzen ziren oraindik garai hartan. Egun batean, irakasle batek honela esan zion nire semeari: "Zure aita zintzilikatua dago, ea benetan zintzilikatu beharko dugun egunen batean". Nire semeak 13 urte zituen orduan. Etxera etorri eta hori kontatu zigun. Nire senarra ikastetxera joan zen; berak ere eskolak ematen zituen han. Eta esan zion zuzendariari: "Hau eta hau gertatzen da". -"Tira, gauzak, badakizu...". -"A, eta ez diozu ezer esan behar?". -"Gauzak, badakizu..., eta hauek, gero, bonba bat jartzen dizute igual". Hitzez hitz. Hori da hemen bizi izan dugun izugarrikeria.

Bazen halako ohitura bat, "Hi espainolista haiz" eta antzekoak esateko, ni normalean mugitzen nintzen jendearen artean. Niri horrek belarriko min handia ematen zidan, haserre bizian jartzen ninduen. Zeren, batzuetan, horrek kontra egitera eramaten zintuen. Esaten zizuten: "Españolista!". Eta zuk erantzuten zenuen: "Eta zer haiz ba hi, halako burges... ez dakit nolako bat ez bada?". Kontua da 18 urte nituenetik hogeita pikora arte Bilbon egon nintzela, Ekonomia Fakultatean, eta ez nintzela gehiegi etortzen hona, orduan. Baina koadrilako lagunekin, hemen, harremana normala zen.

KONFRONTAZIO POLITIKO GATAZKATSUA

Halaber, aipaturiko mehatxu, eraso eta presio testuinguru berean erants daiteke, urteetan bizi izan den konfrontazio politiko gatazkatsua. Kasu honetan ezin da esan argi eta garbi giza eskubideen urraketak izan direnik, baina begi bistakoa da indarkeria inplizitu baten erakusle izan daitezkeela eta urraketa mugaren kokatzen direla. Udaletxean, herriko plazan, kaleetan, tabernetan, ikastetxeetan... gertatu diren hamaika liskarretan adibide ugari aurki daitezke: indarkeriaz beteriko hizkuntza, politikaz haratagoko adierazpenak, errespeturik gabeko portaerak, irudi iraingarri edo mehatxagarriak... Azken batean, aipaturiko egoerek deskribatzen duten testuingurua ez da eztabaida politiko zorrotz bati dagokion eskenatokia, non alde guztiek ezberdintasun ideologiko zein programatikoei tinko eusten dieten, indarkeriaz blaituta egon den konfrontazio politiko baten testuinguru gatazkatsua baizik.

Isaias hil zutenien, neu Ezker Batukoekin nenguen koalizio baten, momentu horretan Zutik-en nenguen, militatzen. Orduen pentsau genun batera fatie eta Zutik-etik erabaki zuten nire burua aurkeztie. Urte horretan, ANV zauen udal txien eta hasieran gobernuan hasi ginen eurekin. Isaiasena gertatzen danien akordioa apurtu egin zan. Egun gogorak izan ziren. Ospitalera joateko momentuan... danetatik entzun genun, ANVkuek lehenago ailegau ziren eta "imáinate cómo les recibieron".

Bozeramailien bilera bat egon zan eta ANV-kuek esan zuten: "Gugatik, geuk udal txetik alde eities errezten badau egoera momentu hontan, geu prest gaz alde

eiteko" eta orduan PSOE-koek esan zuten baietz, eurek nahiago zutela alde eitie. (...) Geu gelditu ginen "un poco al mando", gorputza ekarri behar zuten, PSOE eta PP-ko haundi guztiak etorri zien. Hurrengo egunien hauteskundeak zien. (...) Hasieratik pentsau genuen publikoki zeozer esan beharko genula, irekiak geunden baina halakorik ezin genuela onartu garbi gelditu behar zala. Pertsona bat etxetikan irtetzen danien tirokatu? ¿Dónde estamos? Bileran bat egiteko gelditu ginen, ixa klandestinoki ein genula. Eszenatokixe mediatikoa zan, leku guztietako hedabideak, furgonetak, antenak ... increíble.

Geu, hirurok egon ginen, euren (ANV) aldetikan beste hiru, eta aparte, bakoitzan sedean zeuden gure kidiek. Gure helburua zan komunikatu adostua ateratzea bestela gobernuan jarraitzerik arriskuan zegoen. Eurek eskatu ziguten denboratxo bat euren jendearekin adosteko. (...) Neuk posible ikusten nauen eta, baietz esango zutela espero nauen. Deitu telefonoz eta ezetz esan zuten. Ezin zutela. Badakit euren artien eztabaida izan zutela, batzuk alde zeudela, hori ziurtatu dezaket. Geuk alde egin genuen gobernutik. Gure artien gobernu izteko adostasun ixa orokorra geneukan, pare bat pertsona kenduta.

Hauxe oin holan kontetan dot baina bidien... Udaletxean adibidez PP eta PSOE artien euki zuten "una de las gordas". Gorputza [Isaiasena] hamen zaguena, kriston tentsiñue sortu zan. Tremendo izan zan. (...) Neuk orain, denborarekin, esango nauke, alde batetik, ANVko jarrera orokorrien oso honesta izan zala, oso diskreta eta ondo kudeauta. Hori alde ona eta, alde txarra, momentu horretan ez zutela aurrerapauso bat eman. Irabazi zeban ezetzaren jarrerak eta nik uste hori oso negatiboa izan zala. (...) Horregatik esaten dot, berdin dala politikan aritzea edo ez, giza eskubideak oso garbi izan behar ditugula, beti eta denontzako.

Euskaldunak euskaldunen kontra, gerrate karlistetan bezalaxe. Hemen, orain, familiak familien kontra. Nire bi aitona bezala: bata nazionalista, bestea ez. Baina gerra amaitzen, besarkada handia eman zioten elkarri: "Biok, biok lortu dugu bizirik irautea". Hura bai, hura gerra bat izan zen, baina hau ez zen gerra bat, enfrentamendu politiko bat baizik, batzuek armekin defendatzen zutena eta besteek... Eta planteamendu politiko bat ezin da, inoiz ere ez, indarkeria erabiliz defendatu; ezta ahozko indarkeria erabiliz ere ez. Kontu handiz ibili beharra dago. Beraz, horrek guztiak barrua mugitu zidan, halako sentipen latz bat, laztura bat eragin zidan barruan, etengabeko inurridura bat, hitzez adierazten zaila dena: "Nola da posible, baina nola da posible hau?" (...) Isaias hil zutenean, guztiz hunkituta gelditu ginen denak; baina egon ziren ere erreakzio politiko batzuk, egoera politiko batzuk, niri batere gustatu ez zitzaizkidanak. Hauteskunde garaian, kanpainaren erdian, Rajoy azaldu zen Euskadira. Bergaran hartu zuen ostatu; Arrasaten era bazen hotel bat, baina une hartan sozialistek zeukaten hartuta. Rajoyk hil-kapera bisitatu nahi izan zuen eta sozialistek ezetz eta ezetz. Sozialista pare batekin hitz egin nuen nik hantxe bertan, eta haiek ere ezetz.

Nik uste nuen —oker uste ere, nonbait— norbait hiltzen zutenean alde batera uzten zirela batzuen eta besteen arteko desadostasunak. Orduan ez dakit aparteko ika-mikarik ote zegoen haien artean, baina dakidana da sozialistek ezezko biribila eman ziotela behin eta berriro Rajoyri. Eta iluntzean, Alderdi Sozialistatik deitu zuten esanez joan zitekeela, nahi bazuen. (...) Gogoan dut ni Bergaran nengoela, eta Arrasatera hurbildu nintzen; Rajoy Maria San Gilekin batera azaldu zen. Ni zain geratu nintzen, batzar-aretora igo ginen eta Rajoy barrura sartu zen. Oihuak eta txistuak, batzuen aldetik, izugarriak izan ziren. Zerraldoaren aurrean egon zen han, Isaias Carrascoren hil-kaperan; aitaren egiten ikusi nuen, une batez egon zen. Familiakoek ez zioten eskua eman nahi izan. Eta ez hori bakarrik. Halako batean, hantxe hasi zen Patxi Lopez agiraka egiten Maria San Gili eta Rajoyri, modu harrigarrian, hantxe bertan, aizu! Ni testigu, e! (...) Maria San Gilek behin eta berriz esaten zion: “Faborez, Patxi, faborez”. Hil-kaperatik atera ginen, eta Rajoy eta Maria San Gil joan egin ziren. Ni gora igo nintzen, eta gorako bidean, Alderdi Sozialistaren prentsa-bulegokoak ikusi nituen prentsa-ohar bat banatzen. Nik ezin nien oharra eskatu, noski, ez naizelako kazetaria, baina ezaguna nuen kazetari bat neukan ondoan, eta esan nion: “Aizu, mesedez, eskuratuko didazu bat?”. Gero argitara eman zuten prentsa-ohar horretan jartzen zuen Rajoyri ez ziotela utzi batzar-aretoan sartzen. Gezur galanta. Alegia, lehenagotik idatzita zeukaten; deskuidatzen bazara, Rajoyri sarrera debekatzeko asmoa izan zuten benetan.

Elkarrizketa bat egin zidaten Telemadridekoek hantxe bertan, eta Antena3-koei ere kontatu nien gertatutakoa. Eta kontatu banuen, ikusi nuelako izan zen. Nola liteke, alderdikide baten hilotzaren aurrean egonda, zirkunstantzia politiko zehatz batez baliatu nahi izatea etekin politiko bat ateratzen saiatzeko? Ezin nuen ulertu. Nik gauza batzuk garbi ikusten hasi nintzen une horretan, eta errespetua galdu nuen pertsona jakin batzuekiko. Eta geroztik, ez dut berreskuratu (...) Nola da posible, baina? Eskandalizatu egin ninduen ikusitako gezur-rrak, hauteskunde-garaian egoera horretatik probetxu atera nahi izateak. Nik kezka bakarra nerabilen: “Isaias gaixoa, hil egin dute, familia gaixoa”. (...) Ezin da holako “konplot txikiak” prestatzen jardun. Eta halako mina egin zidan egoerak, ez bainintzen erreakzionatzeko gauza ere izan. Eta zer etorri zen ondoren? Bada, udalbatzar ospetsu hura etorri zen, zeinera sozialistak ez baitziren agertu; argazki eta lore batzuk jarri zituzten. Eta epelkeriaz jokatu zuen EAJ bati aurka egin eta boterean zegoen ANV bati aurre egin beharra etorri zen. Azken horiek eztabaida latzak izan zituzten beren artean, baina ekintza hura ez gaitzestea erabaki zuten.

Badakit beren bilerak izan zituztela [ANVkoek], eta batzuek hilketa gaitzetsi nahi izan zutela eta beste batzuek ez, baina, azkenean, ezezkoaren aldekoak atera ziren garaile. Tirabira handiak izan omen zituzten. Nik ez nuen halakorik ikusi, baina hori iritsi zitzaidan niri. Baina batzar hartan hilketa hura ez gaitzestek ez du izenik, eta nik halaxe esan nion udalburuari: “zure herrikide bat hil dute,

zuk zuzentzen duzun herriko herritar bat, eta hilketa hori gaitzesten ez baduzu, zu, niretzat, nazkagarri bat zara, beste izenik ez duzu merezi, hori ez da posible". Gizon hori hil egin dute. Zer egin zuen Isaias Carrascok? Ezer txarrik egin zuen inoiz inoren kontra? Ezer ez. Oraintxe esango dizut nik zer egin zuen: zortzi urtez, bere aulkitik eta parte hartu zuen batzordeetatik herri onen alde gogor lan egin. Horixe egin zuen.

Hemen, Arrasaten, guk oso gertutik bizi izan genuen Miguel Angel Blancoren hilketa. Izan ere, gu HBrekin batera ari ginen gobernuan; bi legegintzalditan aritu ginen. Eta Miguel Angel Blancorena gertatu zenean, alkatearen dimisioa eskatzen hasi ziren alderdi guztiak. Eta haiek gure babesa zuten. Guk, gobernatzen hasi baino lehen, akordio batzuk genituen hartuta. Horietako batek zioen ezen atentatu bat gertatuz gero, eta gaitzestea erabakiz gero, hura ez gaitzestea aski arrazoi izaten zitekeela gobernu-koalizioa bertan behera uzteko. Eta gu, orduan, egoeraren turko-buru izan ginen, nolabait esateko, Arrasaten. Izan ere, Ezker Batukook abstentziora jotzera erabaki genuen, alkatetza gure programarekin zerikusirik ez zuen alderdi baten esku ez uzteagatik.

Isaias Carrascoren atentatua gertatu zenean, hura hurbilagotik bizi izan genuen, eta gogorragoa izan zen. Izan ere, orduko hartan, kritikak edo presioa ez ziren soilik kanpotik etorri, baita Gipuzkoako gure kideengandik ere. Ino Galparsoro zen alkate, eta Ezker Batuko Ander Rodriguez alkateorde. (...) Guk, Arrasateko Ezker Batuaren aldetik, komunikatu bat atera genuen atentatua gaitzetsiz, beste atentatu batzuk gertatzen zirenean egiten genuen bezalaxe... Kasu honetan, gainera, arrazoi gehiagorekin, Carrasco herriak hautatuko pertsona bat baikenuen, PSOEkoa zen, baina HBkoa izan zitekeen, edo Ezker Batukoa. Orduan, atentatua gaitzestera atera ginen, baina ez bazterrak nahasteko asmoz, eta dirudienez hori zen batzuen asmoa herrian.

BELDURRA ETA ASKATASUNIK EZA

Azken hamarkadatan zehar, liskar egoera ugari bizi izan da gure inguruan eta arrazoi zein jatorri ezberdinekoak izan arren, liskar giro horiek ezaugarri bereko emaitza ekarri izan dute, beldurra, alegia. Atentatu batean eraila edo zauritua izateko beldurra; atxilotua eta torturatua izateko beldurra; norberaren iritzia jendaurrean azaltzeko beldurra; zenbait lagunen aldetik baztertua izateko beldurra eta abar. Beste batzuek beldurra baino gehiago askatasunik eza azpimarratzen dute bizikidetzarako arazo larritzat.

Berba itteko bilurra dao, bilurra handixa eon da ta oindion be badao. Eta bilur hori nolabait tapetan da esanda, "Yo no me entero, yo ya paso de todo, no leo, no quiero saber nada". Azken baten, danok dakigu zer dauen, baina aurpegixa emon bier bada, ba... Ordun, iten dozuna da "un poco el avestruz", burua makurtu

ta bestaldera beitu, hemen asko bestaldera beitu da. Carrasco hilketak sasoiak eta 70 urtetako hilketak sentimiento antzerakoak ziren. Poza haundirik ez baina penarik bez.

Gure garaian, 1970eko urteetan, gauren batean bila etorriko zitzaizkigun beldur izaten ginen, beldur hori beti egon da hor, orain asko baitira faxismoaren aurka daudenak, baina orduan ez ginen hainbeste, ez pentsa! Eta bizimodu hori generamanak ezagunak ginen oso. Zenbat aldiz ez ote gara ezkutuan ibili, atxilotutako norbaitek zure izena aipatuko zuen beldurrez. (...) Suarezek erreformaren aldeko erreferenduma planteatu zuelarik, gu ginen, urte haietan, propaganda gehien egiten zutenak; alde handiz, gainera, ezker abertzalekoekin konparatuz gero. Orduan, Arrasateko Guardia Zibila gure egoitzara etorri eta atxilotu egin gintuen. Hemezortzi lagun ginen bileran; kuartelera eraman gintuzten, eta bizkarra ondo berotu ondoren, aske utzi gintuzten.

Nik uste bat baino gehiago zirela Isaiasen aldeko manifestazio horietako batera joan nahi zutenak, baina beldurratetik ez ziren joaten, kontrako bandokoen partetik -halakorik esaterik badago behintzat- seinalatua izateko beldurratetik edo. (...) Ba, Isaiasen kasuan, nik uste bazirela, eta ez gutxi, hiletara joan nahi zutenak, benetan diotsut.

Beldurrak eragin handia edukitzen du halako gaietan eta orduko [frankismoren garaia] jendeengan are gehiago. Baina beldurra Gerra zibileko gauzak kontatzerako orduan izan den bezalaxe, ba izan da ETaren indarkeriari buruz berba egiterakoan egon den beldurra ere, edo indarkeria polizialaren gainean egon den beldurra.

Herri honetan ezker abertzalearen eta EAJren arteko harremanak oso gogorrak izan dira. EAJkoa izatea oso gaizki ikusita zegoen. Beste iritzi politiko ezberdinak edukitzea ez zuten onartzen, ez eta errespetatzen. Momentu latzak bizi izan ditugu: Batzokiaren kontrako etengabeko erasoak, oso giro gogorreko plenoak eta San Juanetako salbean erasoak. Gauzak aldatzen dabiltzala uste dut, baina urtetan herri honetan zapalduak izan gara.

Arrasaten, gune gorria moduan ezaguna den alde horretan genuen guk gure egoitza -Olarke kalean, hain zuzen-, eta baita Herri Batasunakoek ere. Ni, gune horretan, ezin nintzen sartu, ezinezkoa zen; ez ni, ez nire alderdikideak, gure segurtasun fisikoa arriskuan jarri gabe behintzat. Eta inguruko taberna batzuetan ere ez. Taberna pare bat egon dira herri honetan -jende euskalduna, gainera- laguntza eta maitasuna eskaini didatenean, lasaitasunez bertaratzeko aukera eman dida-

tenak. Arazoak ere izan dituzte, hori dela eta, bezero zenbatekin, eta, hala ere, nire alde atera izan dira beti. Denetarik dago, gutxien uste duzun tokian, gainera.

Jendea ez zen gehiago joaten "Gesto por la paz"-ekoen kontzentrazioetara; beldurratik, nik uste, fitxatua izateko beldurratik edo. Jende askok paso egiten zuen: "Nik ez dut horretan sartu nahi" esaten zuten. Horretatik asko zegoen, bai. Askok gertatzen da hori gizartean, jende askok paso egiten duela. Pasotismoa, batetik, eta prestakuntza-falta, kultura-falta, bestetik... bihotzondora iristeko ezintasuna-edo. Hasieran, beldurratik izango zela pentsatzen nuen. Ezker abertzalekoak gure aurkako errepresaliak hartzen hasi ziren, elkarretaratzeak egiten genituelako, eta beste toki batera mugitu behar izan ginen. Gu beldurtzera etortzen ziren, oihuak, garrasiak, etab. Ordu laurden bat besterik ez ginen egoten, baina... Gero, lekuz aldatu ginen, eta etortzeari utzi zioten. Hasieran, beldurratik izan daiteke, seinalatua izateko beldurratik. Hemen bertan, Arrasaten, elkarretaratzeak filmatzera etortzen ziren, eta batzuk kamerei bizkarra emanez jartzen ziren, ez zuten nahi inork ikus zitzan, nolabait seinalatuta gelditzea bezala zelako.

Eta ni nengoen tokian egonda, urte nahasi horietan, bada, guk orduan ez genuen garajerik, eta kotxea etxea aurrean uzten genuen. Eta kotxea hartu behar izaten genuenean Nafarroara joateko, nire senarra Lizarra ondokoa baitzen, eta honela esaten zidan berak, "María Dolores, tú bajas a Arbolapeta y por lo menos, que ponga yo el coche en marcha...". Lehenengo, gure Simca 1200-aren azpian begiratzen zuen, ezer "arrarorik" ote zegoen egiaztatzeko. Eta, beno, larridura handiz, oso handiz bizi genuen egoera. Nik uste sei-zazpi urte iraun zuela horrek.

2003an, dei bat, "Aizu, Itziar, zerrenda-buru bat behar dugu Arrasaterako". Harrituta geratu nintzen, ez bainuen halakorik espero, non eta nire herrian. Ondo baloratu nuen egoera, zeren, noski, etxea-eta hor nituen, eta nire seme-alabek, haiek batez ere, "ezetz eta ezetz" esaten zidaten. Baloratu nuen, "Ea, zerbait defendatzen ari banaiz, eta garbi badaukat hori, zergatik egin behar diot uko?", eta honela esan nion familiari: "Ba, hori izango da agian nire patua". (...) Seme-alabek ezetz eta ezetz, zegoen giro bortitzaren beldurrez. Aizu, zinegotziak bata bestearen ondotik ari ziren erortzen orduan... Arrasaten bagenituen bi zinegotzi jada, eta hautatua ateratzea izango zen logikoena. (...) Nire senarrak esan zidan ondo ulertzen zidala, bera ere zinegotzi izana zen Gasteizen, jada ez zegoen politikan sartuta, baina oso pertsona kontsekuentea zen. Gainera, eskolta eramanez behar duzu zerrendak ateratzen diren unetik bertatik.

Ni defendatzen ari nintzena defendatzeatik hainbeste hildako ikusteak eta, batez ere, askatasuna hitzak berak bultzatu ninduten pauso hori ematera.

Nahi duguna esango dugu, baina hemen askatasunik gabe bizi ginen. Jendeak isil-misilka hitz egiten baitzuen tabernetan, gai hori ez zen ukitzen. "Zerbait egingo zuen", zenbat aldiz ez ote dugu entzun esaldi hori ETAk hildakoez, "Zerbait egingo zuen". Baina nola zerbait egingo zutela? Zer egin zuten, bada? Hasieratik hasiko naiz: zer egin zuen Beihl kontsulak bahitua izateko? Zer egin zuten ETAk hildako lehen guardia zibilek? Askotan, errazena zelako, zaintzarako baliabide gutxien zuten herrietara edo lekuetara joaten ziren. Zer egin zuten, bada, haiek guztiek? (...) Gertatzen ari zen guztiarekin, inor, inor ere ez zen libre. Gipuzkoakoa izugarria izan zen, zeren Gasteiza etorri nintzenean bizitzera, hau oasi bat zen Gipuzkoaren aldean. (...) Nik badakit, Arrasatera joatea onartu nuelarik, berriz itxikeria horretan sartzea onartzen ari nintzela. Baina nik garbi neukan pentsatzen nuena esango nuela.

Aurrena, beldurra. Kontuan izan Herri Batasuna urte asko eta askotan egon dela gobernatzeko Arrasaten, jarraipen-politika bat eginez, gainera. Dioguna diogula. Denok dakigu herrian zer gertatu den. (...) Handik eta hemendik arituz maneiatu dute egoera. Eta, askoren aldetik, haiei aurre egiteko beldurra zegoela, hori ere bai. Denok ikusi genuen zer gertatu zen Arrasaten Miguel Angel Blanco hil zutenean. Une hartan Herri Batasuna zegoen udaletxean, eta batzuek zentsuramozio bat aurkeztu zuten kontra; ni ez nengoen politikan sartuta, baina EAJren aldetik alkatezterako aurkeztu zena nire koinata zen. Egun hartan, familiako hainbat joan ginen udaletxera. Gure artean hitz egin eta esan genuen: "Gu udaletxera goaz kausa justu baten alde egitera: hau da, indarkeria gaitzesten ez dutenak handik kentzera eta gaitzesten dutenei gure babes eskaintzera". Berriz diot gauza bera. Nik ez nuen ikustekorik politikarekin, baina bai askatasunekin eta hilketak gaitzesteko behararekin. Eta han egon nintzen, familiako zenbait kiderekin batera.

Nik ez dut inoiz izan beldurrik. Eta norbaitek esaten zidanean: "Ni beldur naiz", zeren kasu asko izan ditugu, alde batekoak zein bestekoak, eskoltarekin zebilen jende artean, egoerari aurre egin ezinik, alde egitera erabaki dutenak. Horiek nire errespetu guztia daukate. Baina orobat esaten dut beldurrarekin ezin dela etxetik atera, ezin dela lan egin, ezin dela ezer egin. Ezinezkoa da. Baina ikuspegi horretatik begiratuta, ni biktima sentitu naiz? Ez. Askatasun gabe sentitu naiz. (...) Biktimak, izatekotan, beste egoera horiek bizi izan dituztenak dira. Nire egoera askatasun falta osoa sentitzen duen batena da. Nire mugimenduak baldintzatuta zeuden, bete daitekeen mehatxu batek baldintzatuta. Adibidez, lagun artean geundela, baten batek esango zuen igual... "Joango gara kafe bat hartzera?" "Ondo". "Horiek ere etorriko dira?". "Horiek atean geratuko dira, lasai, zu ez kezkatu horiengatik".

8.2.2 BIKTIMAK ETA HAIEKIKO ERREKONozIMENDUA

Eztabaidagarria izan daiteke indarkeriazko urte hauek norainoko tentsioa, beldurra, konfrontazioa edota elkarri ezin ikusiarena ekarri duten Arrasateko zein Euskal Herriko herritarren artean; baina, horrez gain, ukaezina da indarkeriak biktima ugari eta anitzak utzi dituela non-nahi. Biktima horiek, ordea, ez dira subjektu abstraktuak, izen abizenak dituzte, baita senide eta lagunak ere. Testigantza askoren arabera, biktima batzuei ez zaie jaramonik egin urte luzeetan. Instituzioen aldetik kasu batzuetan eta gizartearen aldetik bestetan. Horregatik, solaskide batzuek diote badela garaia biktima guztiak aintzat hartuak izan daitezten eta jendartearen zein erakunde publikoen aldetik zor zaien tratamendu duina jaso dezaten, biktima batzuek zein bestee.

Bakoitzak jakingo du zer jokabide izan zuen garai horretan. Baina arazoa konpondu nahi badugu, konpondu ez, elkarrekin normaltasunez bizi nahi badugu, (...) Nik uste aurrera egiten ari garela, alde batetik, ETaren edo Komando Autonomoen biktimei aitortza eta elkartasuna adierazten ari zaielako, eta beste aldetik ere, nolabait, aurrerapausoak emateko saioak egiten ari direlako. Baina biktimak denak direla eta hemen torturatu egin dela onartzen ez den bitartean, nik uste dut oso zaila izango dela konponbidea.

Nik uste dut hor garbi dagoela, Olatz eta Sandran artien... oso gertu bizi izan naz biena, alde batetik Isaiasena gertatu zanean zinegotzi nengoelako, eta Etxabe hil zutenian, Etxabe nire aman laguna zan, oso ezaguna gure etxien. Neuk garbi daukatena da biak biktimak diezela.

Zer da biktima izatea? Nik ez dakit zer den biktima izatea edo nola sailkatu daitekeen. Zalantzarik ez dago batzuek pairatu dituzten giza eskubideen urraketek eta horrek eragindako sufrimenduak, biktima egiten dituztela. Nik uste dut Herri zapaldua berez dela biktima eta bertako herritarrak direla biktima. Egoera eta gatazka baten biktima, eta bakoitza, intentsitate ezberdin baten, baina, nork ez du sufritu zerbait hemen? Zein ez da Arrasaten biktima? Edo Euskal Herrian?

Iñaki Etxabe hil zutenean, negar egin nuen. Askok ezagutzen nuen nik Iñaki, maiz mendira jotzen ginen elkarrekin. Samin handiz egin nuen negar, neure artean nioela: "zer lotsa, zer beldurra, zer hilketa!". Nik hitz bera erabiltzen dut baterako zein besterako, ez naiz esateko lotsa. Izugarrikeria bat iruditu zitzaidan. Zer egin zuen Iñakik? Anai bat zuela ETaren sarean harrapatuta? Nik ez dakit, eta ez zait axola. Iñaki hil zuten. Eta ez dago eskubiderik. Nik hori garbi daukat. Eta biktima izaeraren aitortza? Ba, herrian, askok bai, nik uste. Bai, hor bai esango nukeela, hanka sartzeko beldur handirik gabe, arrasatear gehienak, alde batekoak zein bestekoak horren alde egongo lirakeela; eta familiaren, lagunaren edo anaien

hurbilekoak, are gehiago oraindik. (...) Baina ni bezala beste asko, herriko jende gehiena, nik uste herri osoa azaldu zela Iñakiren hilketaren kontra.

BIKTIMEKIKO BEGIRADA

Badirudi, arrasatearren artean oro har, aldaketa bat eman dela biktimekiko begiradan, Isaias Carrascoren atentatuaren ondorioz, bereziki; iritzi sorta bat bildu baita solaski-deen artean baieztapen hori bera adieraziz. Indarkeriarekiko edo biktimekiko jarrera aldaketak gutxitan izaten dira bat batekoak, ohikoan hausnarketa prozesu luze samar baten emaitza gisa etortzen dira eta kasu partikular batetik gogoeta orokorrago batera doan hausnarketa prozesu bati ematen dio hasera. Ildo horretan, Arrasaten, nola edo hala, esan daiteke makurgune bat finkatu zuela Isaias Carrascoren erailketak, zenbait bere desadostasuna publikoki plazaratzeko unea piztu omen zitzaion, gainera.

Gogoan dut bi kazetarik atzetik jarraitu zidatela. Ni atarian sartu nintzen, bizilagunaren txirrina jo nuen, eta kazetariak ere bizilagunaren txirrina jo zuten. Eta atea irekitzean, kazetariak elkarrizketa bat egin nahi zidatela esan zidaten, orduan bertan, hantxe bertan, eta nik, baina mesedez... Eta zera esan nien, ez. Orain ez dut gogoan zer esan nien. Hori, hasteko. Gero, etxera itzuli nintzen, eta han nire eskola-lagunetako bat ikustean, negarrez besarkatu nuen, esanez, "Hil egin dute!". "Hil egin dute, Gorka, hil egin digute!". "Trankil, Trankil". Amonaren etxera igo nintzen, Zapatero etorri zen doluminak ematera, eta ondo gogoan dut zer esan nion, esan nion lehenengo gauza, "Ni elkarrizketaren alde nago. Has zaitzete hizketan behingoz, elkarrizketa dugu elkar ulertzeko bide bakarra, ezin da inoiz gehiago horrelakorik berriro gertatu". (...) Handik ordu batzuetara, ordurako aita hila baitzen... Ez dakit zer ordutan etorri zen, gaueko hamabiak-edo izango ziren, ez dakit. Atetik sartu zen [Zapatero], eta eseri ginenean, honela esan nion: "Ni elkarrizketaren alde nago". Ez dakit esaten zergatik esan ote nion hori une hartan. Gertatutakoa gertatu ondoren, garbi ikusi nuen horrek lehenbailehen bukatu behar zuela. Honek ez du zentzurik. Honek bukatu egin behar du. Lehenago ere ikusia genuen hori, urrutitik, baina kontuak zuzenean ukitzen zaituenean, ostras! Hau ez da posible, akordio batera iritsi beharra dago, ados jarri behar gara.

Biktimak, nire ustez, gure artetik joandakoak dira. Nire aita, adibidez, biktima bat da; Olatz Exaberen aita biktima bat da; gure artean ez dauden horiek denak dira biktimak. Edota, adibidez, torturak pairatu dituztenak... torturak jasan dituzten guztiak biktimak dira. Gu, izatekotan, biktima baten familiakoak baino ez gara.

Prozesu honetan biktima asko daude, ehunka biktima, milaka biktima. Ehunka eta milaka badiot, batzuek beti "hildakoak edo haien familiakoak dira biktimak" esaten dutelako da. Oraingoz, inork ez digu esan: "Eskerrik asko, e!". Inork ez diz-

kigu eskerrak eman mehatxupear, baldintzapeko askatasunean, bizi izan garen guztioi; alderdi batek ere ez digu esan "Eskerrik asko egin duzuen guztiarengatik, bakea gizarte honetara ekartzeko egin duzun ahaleginarengatik". Nik uste hori ere kontuan hartu beharko litzatekeela memorian, eta norbaitek, ez dakit, omenaldi edo dena delako bat eskaini beharko liekeela horiei denei. Agian, aski izango litzateke norbaiten gutun bat, esanez: "Eskerrik asko".

Etxaberena bizi izan dut Carrascorekin batera. Niretzako saritxo baten modukoa izan da, hedabide baten lan egin eta bi kontu hauekin memoria lantzea. Carrasco hil osteko manifestazioa pasatu zen gure erredakzio aurretik eta nik ez dut sentidu izan derrigorrik egoteko horrelako manifestazio baten, momentu horretara arte. Ez nintzan egon pankarta horren ostian hor egunean ere, baina behartuta sentitu neban nire burua gutxienez atara irteteko. Atera irtete horrek eragin zidan, gainera, ikustea zelan zegoen ni izan zitekeen beste hamaika pertsona manifestazio horretan. Oso manifestazio mediatikoa izan zen, hauteskunde garai batekoa, eta alde hori seguruenik zatarrena izan da, baina ni atara irten eta nire begirada ez zegoan hango politikariengan, nahiz eta profesiotik normala izango litzaken fokua hor jartzea. Gehiago zegoan seme-alabengan. Gertuko hedabide batek, seguruenik, fokua gertukoenetan dauka eta ez horrenbeste gobernu bateko presidentea datorren edo ez.

Uste dut hori izan zela oso-oso momentu delikatu guretzako, Carrasco hil eta lehenengoak heltzen lekura, gure hedabideak izan zian. Hor jasota daukaguna ez dugu eman inoiz, erabaki dugu hainbat irudi ez ematea, irudi oso gogorak direlako eta gure fokua ez dagoelako min horretan gatzat botatzean. Gure fokuek egon behar du jende horrekin, daukan abizena zein den begiratu barik eta daukan ideologia inporta barik. Besteak beste, gure komunitateko parte direlako eta guk sentitzen dugu gure hedabidetik gure komunitatearentzako egin behar dugula lan eta ez horrenbeste kanpotik manifestazio horretan bestelako helburu batzuekin datozenendako.

Gutxien uste zen momentu batean, halako zer edo zer pasatu ahal zenik pentsatu ere ez nuenean egiten... eta hiltzeko erabakia hartu zuen ETAK. Zelan da posible halako atentatu bat? Sentidu neban egon behar dutela familia horrekin, uste dut min hori konpartitu egin behar dela eta orduan ez zen oso ohikoa. Alde batekoak zirenean, alde batekoak egiten zituan adierazpenak eta dolua; eta bestekoak zirenean, bestekoak egiten zituan. Etiketan oso eroso sentitzen ez garenontzako, ez zen erraza, ez batean ez bestean egotea. Baina kasu hau hortik gaindi zegoan. Batzuk irten ziren pankarta ostera, beste batzuk balkoira, beste batzuk kalia eta beste batzuk isilik eroan zuen gaia, baina ez zen izan "ospatua" den atentatu bat. Arrasateko giroan nabari-nabaria zen. Kolore askotako jendea zebilelako gai honekin nahiko aztoratuta, "Baina hau zer da?" galdera eginez.

Ja nahikoa min da, hau kontatzeak zer on eragiten du? Ni kontrako ustekoa naiz, uste dut kontatzeak eragiten duela mina sendatzen saiatzea, baina errespetu osoz eroatekoa da pertsona batek nahi ez izatea kontatzea. Halako gai potoloen aurrean erabaki diferenteak hartzen ditu bakoitzak.(...) Nik biktima minarekin lotzen dut. Biktima zuzena torturatua edo tirokatua dela ere defenditu liteke, baina nire pentsaerara minaren eraginpean dagoen hori biktimatzat hartu behar genukeela uste dut. Esatea biktima gizarte bat dela, oso azalekoa litzateke, ezer ez esatea moduan. Baina ez ote da biktima eragin zeharkakoa eduki arren ere, bizitza beste modu batera bizitzeko aukera kendu diozun hori? Baiezkoan nago, esango nuke baietz. Biktimez berba egiten dugunean, eta gainera, lotzen duzunean erreparazioarekin edo errekonozimenduari, ba gertuko biktimez ari gara berba egiten. Ez bakarrik atentatua egin dioten horretaz edo alaba torturatuaz. Ingurua ere bada biktima.

MINA ETA BAKARDAEA

Biktima edota haien senide askoren testigantzetan hitz hauexek entzun ohi dira oso maiz euren bizipenak deskribatzen dituztenean, alegia, senide baten heriotza bortitza dakarren minari gaineratzen zaion bakardade sentimendua. Lehenengo une traumatikoak sufritu ondoren, doluminak eta besarkadak jasotzeko unea amaitzen denean, hutsune mingarri bat geratzen da, eta horrekin batera, inguruko jende askorengandik sumatzen den urrunketa eta hoztasuna. Beste hitzetan esanda, indarkeriak ekarritako minari bakardade sakon bat gehitzen zaio biktima askori, desagertutako senidearen zuloari lagunen eta herritarren urrunketak sortutako hutsunea, hain zuzen.

Hor dago ere Arrasateko alkatearen inguruan piztu zen polemika, atentatua gaitzetsi ez eta alde egin zuelako. Niri galdetzen didatenean ea zer egin ote zen gaizki, nik benetan uste dut pertsona horrek atentatua gaitzetsi egin nahi izan zuela, eta gaitzetsi ez bazuen, inguruko jendearen eraginez izan zela. Nik banekien, azkenean, gaitzesten bazuen... Hemen, hilketa bat gertatzen zenean, inork ez zuen atentatua gaitzesten, zeren gaitzestea haien kontra egotea bezala ulertzen zen. Zinez uste dut alkatea hilketa gaitzesteko prest zegoela, baina ezin izan zuela, beldurragatik. (...) Pentsatzen dut, agian, jendaurrean, nekez egin zezakeela halakorik, zeren bestela..., baina uste dut ere, elkarrekin gurutzatu garen horietako batean, bazeukala etortzea, eta, inork ikusi gabe, esatea ere: "Aizu, sentitzen dut, ni beste aldean nago, eta desberdin pentsatzen dut, edo nahi duzuna, baina egin duten hau ez dago ondo".

Nik gaizki pasatzen ari den norbait ikusten badut agian ez naiz berarengana hurbilduko, baina bai igual haren senide batengana, eta zer edo zer esango diot, kontsolamendu-hitz batzuk edo, besterik ez bada ere: "Aizu, lasai egon, pasatuko da-eta". Ez genuen holakorik ezer jaso. Gogoan dut txakurtxo bat genuela, eta txakurra oso gaizki konpontzen zen nire aitarekin, nirekin bezain gaizki,

eta txakurtxo ere behera jaitsi zen, eta ez zion hurbiltzen uzten inori. Gizon bat bakarrik saiatu zen hurbiltzen, eta txakurrak ez nahi, aizu!, aitaren ondotik aldendu! Azkenean, amak, uste dut, esan zuen: "Hartu eta eraman txakur hau hemendik", eta bizilagun bati eraman genion. Baina hori da izan genuen guztia, inor ez, ezta izara bat ere, inor ez. Ezer ez. Bai, gogoan dut jendea leihoan zegoela, leihotik begira, baina ez zitzaigun inor hurbildu.

Hodei batean bezala zaude, babestua sentitzen zara, une horretan ez zara kontziente ez aita galdu duzula ez nola galdu duzun. Hasieran gertutik sentitzen duzu inguruan duzun jende guztiaren babesa; gogoan dut kanpora atera nintzela, zerbait egitera, ez dakit zertara, eta norbait ikusi nuen hurbiltzen: "Aizu, sentitzen dut... ez dakit zer..."; hori hasieran. Azkenean, gauza handi bat gertatu da, eta bai, jendea etortzen zaizu eta hitz goxo batzuk esaten dizkizu; politikariak ere bai. Hasieran, hor daude denak, baina gero, denborak aurrera jo ahala, bakoitza bere bizimodua egiten hasten da. (...) Nik bereziki gogoan dut Josu Elexpe. Doluminak ematera etorri eta esan zidan, "Lasai, duela urte batzuk zu orain zauden moduan nengoen ni ere", oso ondo gogoratzen dut non esan zizkidan hitzok, hemen goian, udaletxean. Bai, asko etorri zitzaizkidan, askoren aldetik jaso nituen doluminak, animo-hitzak, kontsolamendu-hitzak, baina Josuren haiek...

Arrasateko udalean eskaera bat egin nuen —eta ni ez naiz eskean ibili zalea, baina—, diru-aurrerapen bat beste kotxe bat erosi ahal izateko, esanez kargu publiko gisa itzuliko nuela kobratzeko neukana jaso bezain laster. EAko bozeramailearen erantzuna: "Holako gauzetarako kontsorzioa dago, udalak ez du zertan holakoetan ibili". Handik gutxira, beste udalbatza batean, presoentzako laguntza eskatzen dute ez dakit nongo espetxera joateko, herritar guztion diruarekin, zer eta hiltzaile batzuk bisitatzerako! Zer eskatu behar diozu horrela jokatzeko duen bati? Ezertxo ere ez. (...) Erreakzio berbera izan zuten Isaias hil zutenean, alkatea joan egin zen, kotxe bat jarri eta denak joan ziren. Denak. Isaias orduan ez zen zinegotzi, baina duela oso gutxi arte haien ondoan egona zen udaletxean. Zer espero daiteke horrelako pertsona batengandik? Ezertxo ere ez. Horregatik, nork egin behar du lan hori? Estatuak egin behar du aitortza hori.

Betiko bizilagunek, betiko lagunek, bat-batean ez dizute gehiago hitz egiten. Anekdotak gisa, koadrilakook, ideologia mota guztietako jendea zegoen lagun talde bat, urtero elkartzen ginen afari bat egiteko. (...) Nik nire lagun onentzat neuzkanek bat-batean esaten didate ezin dela afaririk egin eskoltarekin joaten banaiz. Joateko nahi badut, baina eskoltarik gabe. Sentitzen dut. Hasteko, ezin dut; eta bigarren, onartezina iruditzen zait hori entzun beharra lagun batzuegandik: "Ezin zara etorri afarira eskolta daramazulako, mehatxatuta zaudelako". Eta horrela hautsi zen koadrilarekiko harremana, lagun pare batekikoa izan ezik; horiek beti lagundu didate eta beti saiatu dira inoiz berriro egin ez den afari hori egiten. Eskolta kendu zidatenean, afarira joateko gonbita

luzatu zidaten berriro. Orain ez, orain neu naiz joan nahi ez duena. Zuen laguntasunaren beharra neukanean, arbuiatu egin ninduzuen. Bada, orain ez. Zergatik orain bai eta lehen ez? Familia eta lagunak laguntza ematen dizutenak dira, ustez behintzat, ez arbuiatzen zaituztenak.

BEGIRADA ETIKOA

Zailtasunak zailtasun, badira biktimenganako ikuspegi etiko baten bilaketan saiatu direnak. Ahalegin hori kontraesanez josia dagoela diote testigantza batzuek, norberaren ideologiak edo pentsaera politikoak baldintzatu egiten baititu edonoren iritziak. Bestalde, biktimak kolore politikoaren arabera begiratzea oso hedatua dago. Hala ere, aurre iritziak gaindituz eman beharreko urratsa dirudi, biktimen arteko bereizkeriarik gabeko bizikidetzaren aurreikusi nahi duen ororentzat.

Paradoxikoki, nik jarraitzen dut Ezker Abertzaleko sensibilitate bat izaten eta baita ere Ezker Abertzalearekiko, inkluso ETArekiko, holako gertutasun sentimental bat izaten. (...) Nik sentitzen dudana eta urte guzti hauetan sentitu dudana, alde batetik, irakurketa politikoan arrazoi zati handi bat ematen nien; baina hori baino inportanteagoa, uste dut nigan izan dala beti, sensibilitate haundi bat injustiziekiko eta injustizia horiek sufritzeko gertu zegoen jendearekiko. Eta hirugarren elementua, eskuzabaltasunez, beretik asko emateko prest dagoen jendearekiko. (...) Orduan, horrek sortzen zidan atxikimendu bat ETArekiko edo ETakoekiko. Nik ETako bat atxilotzen zuten bakoitzean, "Jo, ke desastre!", ari nintzen pentsatzen nola torturatuko zuten. Paradoxikoa da, ze nik ez nuen nahi ETA ahultzea, banuen sinpatia bat ETArekiko eta bizi nuen kontraesana. Nik nire ahotsa altxako nuela Yoyes-en aurrean eta ezin nuela bat egin heriotzen aurrean. Oso kontraesan kabroia da, kontraesan horrekin bizi izan naiz ni 30 urtean. Bueno, jende pila bat, ez? Ta kontraesan horrek desgastatzen zaitu, erretzen zaitu.

Beste aldeko mugarrria. Yoyes hil eta handik ez dakit zenbat denborara, hiltzen da Txomin Iturbe. Ta hori bada beste aldeko momentu adierazgarri bat. Hor agertzen dalako nik zer sentitzen dudan beste aldera, Yoyes-enean agertzen nuen zer sentitzen dudan iturri etikotik (...) eta Txomin Iturberen heriotzean agertzen da nik zer sentitzen dudan iturri, esan dezagun, borrokalarienetik. Ze nik sentitzen nuen, nitar bat hilda, gutar bat hil da. Ta miresmena, esatea bezela, "Hau gurea da, ez?", txapela kentzea Txominen aurrean. Ta nola jaten da hori? Oso gauza konplexua da.

Nik geroztik egin dut irakurketa politikoan, danon moduan egin dut ibilbide bat; eta nik uste dut, bazituztela arrazoi batzuk Ezker Abertzalekoak ez zirenek, hau da, garai hartan PNVk, Euskadiko Ezkerrak, (...) nik ikusten ez nituenak, baina gaur egun gehiago baloratzen ditudanak, orduan baino gehiago... Ba ikusten

dut nire irakurketa intelektualala mugatua zela, batetik; baina bestetik, baita ere uste dut, nik badudala engantxe emozional bat injustizien kontra, bereziki, asko-asko mintzen naute injustiziek, asko ikutzen nau torturak ta asko emozionatzen nau eskuzabaltasunak. Orduan, egon zela nigan gauza horiei gehiegizko pisu bat ematea; (...) beste aldeko sufrimendua ikusten nuela, baina ez niola zeukan pisua eman.

Nire kasuan ezta izan mugarri garbirik, baizik eta hainbat momentu; Carrerorenean, ni goatzen naiz txikitan, ez nuela botatzen jertsea gora egun batetik aurrera, ja hor hasten da bat. Bi, Yoyes. Baina nik usteut 96-97an, nik ja esaten dudala, inoiz ez dut esplizituki apoiatu borroka armatua, baina ja esplizituki esatea "Hau ezin da izan". (...) Beti, uste dut, ikusi nautela "Gutarra da, baina kontuz honekin", hau da, "Gutarra da, baina Yoyesenean kantatu zuen". Nik uste, ni saiatu naizela mezu hori ematen, "Beitu, nik zuekin gauza askotan bat egiten dut, baina ni saiatzen naiz nire kabuz pentsatzen eta nire kabuz ekiten".

Nik uste dut nabarmena dala, ezetz. Herriaren aldetik, bueno, herria oso gauza difusoa da, ezta? Baina nik bizi izan dudana herriaren zatiak, aitortu behar dut izan duela, ba izugarritzko defizit etikoa. Nik bizi izan dudana herriaren zati, esan dezagun, euskaldunenak, aktiboenak, ameslariak, nik gehien estimatzen dudana herri zati hori, gizarte zibil aktiboa delako, euskaltzale, abertzale, beste-lako mundu bat desio duena, internazionalista, ekologista... guzti hori, ez? Ze ekologista, ze internazionalista ginen gu, alboko herrian pertsona bat hiltzen dutenean, ez dakigunean reaktionatzen eta biktimizekiko gertutasuna izaten? Zer gertatu zaigu? Nik uste, hor defizit etikoa izugarria, ikaragarria izan dela, paradoxikoki, humanismoaren elementu asko eta asko bereganatuta zeuzkan herriaren zati baten aldetik. Horregatik, historiaren berrirakurketa bat egitean, ikusten dituzu elkarren alboan, gizarte sektore aurrerakoi, humanista, mundu aldatzaile, ekologista bat, eta aldamenean, igandetan mezetara zihoazen heldu zahar batzuk. Ta esaten duzu: "Ostras! Igual arrazoi gehiago zutenak, intuizio hobeak zituztenak, gertatzen ari zen guztiaren aurrean, bigarren hauek ziren; nahiz eta kolorea, diskurtsoa eta rollo ona lehenengo aldean zegoen, ez?".

Nik uste, zorionez, izan duela hemen multzo batek begirada etiko potente bat, baina nik behintzat ez dudana gehiegi aintzat hartu. (...) Ta gerra zibilean, gerra batean inor ez da guztiz etikoa, baina egon zan multzo bat saiatu zana etika bati eusten. Hori bai izan zen, Jose Antonio Agirre, esan dezagun, mundu jeltzale, "kristau aurrerakoi" hori. Hor egon ziren episodio oso interesgarriak, faxistak itsasontzi batean atxilotuta, eta ezkerrekoak, anarkistak, komunistak: "Fusilatu ditzagun". Eta jeltzaleak babesten, fusilatuak izan ez daitezten. Hor badago etika bat mundu horretatik datorrena eta behar bada, nik gutxiegi baloratu dudana. Orain gero eta gehiago baloratzen dut, egon dala jende bat esanez: "Ez, ez eta ez".

BIKTIMEKIKO ERREKONozIMENDUA

Biktimei eskainitako aitortza oso ezberdina izan da frankismoaren azken urteetatik hona. Hildakoaren eta urratzailearen ildo politikoari begiratu zaio, biktimaren atzean gordetzen zen pertsonari baino. Horretan bat datoz gaia aztertu duten hainbat ikerlari, baita txosten honetan bildu diren ia testigantza guztiak ere. Egia esan, deigarria bezain kezkarria da honelako errealitatearekin topatzea.

Maixabel Lasa baino lehenago, behin deitu ziguten, 2000 inguruan. Ze 25 urteetan ez genuen inongo aitortzarik ez babesik izan instituzioengandik. Gainera izan zan kasualidadea, ze nik orduan udaletxean lan egiten nuen, orduan deitu zidaten baina biktimak lokalizatzeko eta haien artean, bat ni nintzen. Deitu zuten udaletxera, Gizarte Zerbitzutara, nik bertan egiten lana eta zera esan zidaten: "Begira, hau atera da, Eusko Jaurlaritzatik deitzen dugu eta nahi degu familia hauek lokalizatzea; mesedez, lagunduko diguzu?". Udaleko funtzionari bezala deitu zidaten bitartekari lana egiteko, familia batzuk lokalizatzen laguntzeko eta horietako bat ni nintzen. Ordurarte gu ere egia esan, inoiz ez ginen arduratu. Eta pentsatu ere ez genuen egin, baina gero rekonozimendua eta egia behar genuela sentitu genuen.

Azkenean errelatoa egin behar da, alde batetik zein bestetik gauza gogorrak gertatu dira, baina esan egin behar da berriz ez gertatzeko bermea nahi badugu, eta dena kontatu behar da alde batetik eta bestetik. (...) Egiteko dago, baina Estatuaren aldetik, esatea "Gu izan ginen, gaizki egon zan. Garaia hori zan". (...) Lasaitasun bat (suposatuko luke familian), etapa bat bukatzea, ixtea. Zauriak ondo ixtea. Ze orain ematen du faltsuan ixten dala, ez? "Aurrera goaz, beste garai bat...". Baina hau dago gure tripetan oraindik.

Pentsatzen duenak Olatzen [Etxabe] kasua denborak sendatu duela, gezurra da, ez dut sinesten horretan. Olatzen kasua sendatzen lagun dezake gaia jorratzeak, beti ere errespetutik, biktimei zor zaien errespetu osotik. Agian behar izan ditu urteak isilik egoten eta hori errespetatu beharra dago. Uste dut lasaiago lo egin dezakeela batek gauzak ageriko eginda, baina erabakia mina duten horiena da. Gainontzekooi pauso bat atzera ematea tokatzen zaigu eta errespetatzea. (...) Esango nuke, behar dutela ulermena gainontzekoengandik, seguruenik ere behar dutela entzutea, ez esatea ezer, bakarrik entzutea eta konprenitzea. Uste dut askotan alferrikako eta okerreko gauza asko esan zaiela biktimei, eta hori ere ez da. Biktimen ondoan egoteak ez du esan nahi biktimei esatea zer eta nola egin behar den, bakoitzak bere erritmoan eta bere pausotan. Egoteak berak laguntzen duela eta ez kontra egiteak.

Erabilera bat egon da, nik uste dut, alderdi batzuen aldetik, erabilera oso gordina egin dela. Kasu batzuetan munstro bihurtu dituzte. Beraiek izan dira mina

erreparatu beharrean eta zentzu horretan urratsak eman beharrean, biktimak instrumentalizatu dituztenak. Erabili egin dituzte eta orain, porlanezko pareta bihurtu dituzte. Nik uste dut, biktimei sendatzen lagundu egin behar zaiela, aitortu, entzun, enpatizatu eta ez erabili.

Errekonozimendua? Parekoa desde luego ez, nik pentsatzen dot ezetz. Nere iritziz, GAL eta Estatuaren indarkeria jasandakoak horrek biktimak dira, baina Estaduak ez ditu errekonozidu. Han esan zauen Olatzek [Etxabe], ez zala egon udaletxetik, instituzioetatik, errekonozimendurik, kartatxo bat, ezer bez. Oin ikusten ari naz Espania aldetik ere, euronak dira biktimak bakarrik. Ez dute ikusten hor egon zela gerra bat, demagun, euron artean.

Tratamentue ez da berdina izan, noski, behintzat Arrasaten, babestu ein dau estatuaren biolentziak eragindako biktimak bestiek baino.

BEREIZKERIA ETA AHANZTURA

Biktimen ahotan sarri entzun ohi da jasan duten bereizkeria egoera urte luzeetan, tra- taera mingarri hau norabide ezberdinetatik zetorrelarik. Biktima batzuk hutsune handia sumatu dute euren saminaren aurrean, gizartearen gehiengoak ez ikusiarena egin eta babesik eman ez dielako.

Uste dut babes guztia pertsona batzuentzat izan dela, eta beste batzuentzat ez. Nik horrela ikusten dut. Ez dago ikusi besterik, adibidez, nire aitari omenaldiak egiten zaizkionean zein joaten den. Alderdi Sozialista joaten da eta lagun gertukoena ere bai, baina hemen ia hogeita bost mila pertsona bizi dira. Non sartzen dira? (...) Jaitsi zitezkeen, azken finean zure auzoan bizitako pertsona bat da, bizi osoan ezagututakoa. Zer kostatzen zaizu joatea? Nire bizilaguna bera ere ez badoa, beste inor ez da joango. Iaz alkatea etorri zen, Podemoseko kideak ere bai, hori inoiz gertatu gabekoa zen. Gogoraren Memoria Plazak zerikusi handia izan zuela uste dut.

Nire ustez, guztiak dira biktimak. Hau da, ETArekin lotutakoak, GALen edo eskuineko beste talde batzuen eraginezkoak eta polizia-gehiegikeriak eragindakoak. Nire iritziz, badago desberdintasuna horien artean. Izan ere, poliziaren indarkeriak edo GALek eragindakoez babes soziala izan zuten eta gainerakoek ez. Pertsona haien bihotz-buruetan sartuta, uste dut hori haien kontra eginiko ekintza bezain txarra izango zela; bakarrik sentitzea, alegia. Besteek babes soziala zuten. ETaren biktima zirenen kasuan, "Zerbait egingo zuten" esaldia ezaguna izan da, eta oraindik ere bai; hori oso gogorra izango zela pentsatzen

dut, eta denbora asko iraun du. Edonola ere, guztiak biktimak dira, e. Esan nahi dut batzuek babes soziala izan dutela, eta nahi ala ez, hori ukendu bat da; besteak, bitartean, jasan beharreko minaz gainera, gaizki ikusiak egon dira.

Hala ta be gauzak aldatu dira, El Chino hil zutenean, Gurea zinema parien, ez nun ikusten kalien "demostraciones de dolor, ni de nada". Aldiz, Txominena akordetan naz, omenaldian izugarrizko demostrazioa egin zuten, apur bat bélico, jendie oholtzera igo zan eta pare bat deskarga ein zuten. Gaur egunien halakoak arraroak zirela pentsa daiteke, baina garai hartan oso normala zan edo normala ikusten genun.

Beste alde batetik, Jose Antonio Ortega Lara 500 eta piku egunen ondoren aske uztearen kontua zegoen. Eta Arrasaten ez zen ezer egin, herrian gertatu izan ez balitz bezala, orokorrean entzungor egitea nahi izan zen. Eta Ortega Lara askatzea lortu zenean izandako zortearen lidergorik ere ez zen egon. Hortaz, non dago Arrasateko jendearen zentzu kritikoa? Ni asko kezkatu nintzen, asko kezkatu izan nau (...). Eta seguru nago argi adierazteko beldurragatik (zela). Bai, bai, jendeak ez ikusiarena egin du egoera askotan.

Errekonozimendurik egon al den gizartean? Ez, bakoitzak bere helburuari begiratu diolako, eta nik ezetz diotsut. Maila politikoan, nire ustez batez ere ETaren biktimekin egon da. Baina GALen guztiz aurka ere banago, indarkeria indarkeria dela badakit, eta Batallón Vasco-Españolen aurka ere bai, hori izan zen Iñaki Etxaberen eta haren koinata Agurtzaneren kasua; nik Iñaki ondo ezagutzen nuen.

Izan ere, biktima bat, bizi bat, ezin duzu berreskuratu. Bizi bat joandakoan, joan da. Errekonozimendurik izan duten? Nire ustez ez. Biktima batzuek beste batzuek baino gehiago? Bada, bai, Arrasaten zehazki. Politikaren funtzionatzeko moduagatik; ETAKoa den biktima batek, izateko moduagatik, militantziagatik edo izan zezakeen babesagatik, deia egiteko gaitasun oso handia du. Beti esan izan dugunez, txirula jo eta guztiak autobusera igotzen dira.

Beste biktima batzuek, berriz, antzeko sentsazioa izan dute erakunde publikoek urteetako ahanzturaz adierazi dieten bereizkeria dela eta. Beraz, sentimendu horrekin bizi izan dira biktima mota ezberdinak, duela gutxi arte.

Asimetria bat nabari dut ETA bezalako erakundeen eta Estatuaren biktimen artean. Estatuaren biktimek ez dute inolako aitortza instituzionalik, salbuespenak salbuespen. Jakinekoa dut, badela jende bat ez duena nahi edo ahal izan beraiei egindako torturak edota poliziaren eskutik jasandako esperientzia

txarrak kontatu: hala nola kontroletan eta detenituak izan direlarik, gaur egun ere oraindik, goardia zibilaren aldetiko errepresalien bildur.

Preso ohi bati ongietorria egiten zaionean, ez dakit Udalaren kontua den, ez dut uste, senideak babesten dituen jendearenak izango dira. Nire kasuan, uste dut Udala ez dela inoiz etorri. Urteak dira zera esan zidatela: "Ez dugu-eta gonbidapenik jaso". Barkatu, hau ez da ezkontza bat. Egunkarian Isaiasi omenaldia egingo zaiola jakinarazten da. Ez dut esango, zu ez zaitez etorri. Honek ez du horrela funtzionatzen. Ez dago gonbidapenik banatu beharrik, nahi duena etortzen da, benetan sentitzen duena. (...) Inoiz ez da berandu, eta azken finean gauzak aldatzen hastea nahi badugu, pausotxo bat izango litzateke. Hamar urte geroago izanda ere. Orain ematen du alkateak nire aitari zerbait egin nahi diola, hamar urte beteko direlako. Urrats bat da. Baina orain arte ez da inoiz egin.

Orain dala urte batzuk Maixabel Lasa zegoenean Jaurlaritzan, hainbat bider egon nintzen berarekin, berak deitu zigun diru laguntzak eskatzeko animatu e.a. Eta baten, akordatzen naz komentatu zidala: "Zelan ikusten duzu ETako biktima batekin elkartzea?". Momentu hortan, ez nintzen gai ikusi. Eta ez da hainbeste urte, igual izango dira 5-6 urte. Eta gero, ez dakit ze izan dan, igual gauzak aldatu direlako. (...) Ze guk instituzioen babesa ez dugu sentitu azkenengo urteak arte, ba Eusko Jaurlaritza hasi danetik; baina bai lagunena, herriarena, ez dakit zer, eta hori beti sentitu dudala beti oso oso babestuta sentitu naiz gizarte mailan.

Nik uste dut biktimek hartu duten pisua gehiegizkoa izan dala, politikan eragin haundia dute eta nik uste dut hori ezin dala izan biktimen papera. (...) Azkenean, boterean daudenak, ba euren alde egiten dute eta biktimak erabiltzen dituzte eurek ere, biek erabiltzen dutela elkarri. Gure kasuan, rekonozitu behar da gobernuia izan dala hiltzaile eta izan dala Batallón Vasco-Español, atzean gobernuia zegoela. Gainera, guk beti pentsatu izan dugu guardia zibilak izan zirela, ze handik aste batera, taxista bat hil zuten, German Agirre, izan zan lekuko (...) horregatik hil zuten. Orduan, guzti hori Estatuak rekonozitu behar luke.

Estatuaren errekonozimendurik? Keba, ezer ez. Gainera, guk ez genuen inoiz ezer eskatu. Eta Eusko Jaurlaritzatik deitu ziguten laguntza eskaera egiteko. Orduan euki genuen guk harremana Maixabel Lasarekin eta bueno, egin genuen. Estrasburgora ere joan gara eta han ere ezetz esan digute. Gauza da, guri ezeztatzen digutela biktima rekonozimendu hori, esaten dutelako ez dagoela demostratua gurea atentatu bat izan zela. Eta guk daukagun agiri bakarra da "Certificado de defunción" eta hor jartzen du "shock" a izan zela hilketaren arrazoia. Ez du tiroketa aipatzen. Guk daukagun paper bakarra hori da, nahiz eta aita hil eta handik bi hilabetera edo amari autopsiaren faktura bidali zioten eta ordaindu zuen, baina autopsia bera ez. Ez daukagu guk agiririk demostratzeko

hori atentatu bat izan zela. (...) Kanpazar, berez, Bizkaia da, Elorrio. Durangoko epaitegian zegoen espediente baina hamar urtetara edo, esan zuten espediente hori Ferroleko artxibora eraman zutela. Han gordetzen dute espedienteak, pelikuletan ikusten dana, "clasificados", erreserbatuak. Gu hasi ginenean, han eskatu genuen espediente lortzeko, demostratu ahal izateko. Eta esan digute, ez dakit zenbat bider, ezetz. 50 urte pasatzen dianean, orduan, bai. Bueno, eskatu degu hainbatetan, ze egiten dezu errekurtsua ta beti hasierara.

ETAko biktima batzuek esaten dute erakundiek apur bat beste leku batera begiratu zutela. Hainbat momentutan, agian zeuk ez duzu hainbeste sentitzen, ez jatzu toketan zuzenien eta orduan askoz errezagua da, zoritxarrez. Oin pentsetan dot batzutan arrazoa dutela, igual "aquí no nos hace caso ni Chus" sentitu direla.

Biktima batzuei aitortza ere ez zaie onartu, biktima direnik ere. Tortura jasan duten askok, beldurrak eraginda salaketa ere ez dute egin. Mehatxuak jaso dituztenek ere salatu ere ezin izan dute egin. Erailak izan direnak ere aitortu gabe daude oraindik! Hemen ere lehen mailako eta bigarren mailako biktimak daude. Eta biktima modura errekonozituak izan ez diren azken mailako biktimak ere badaude. Biktima parapolizialak, sakabanaketak eragindakoak...

Biktima batzuei indarra eman zaie, ahotsa eta protagonismoa. Beste biktima asko isildu egin dituzte. Interes politikoak mugitu du nor bai eta nor ez. (...) Beste gauza bat da, herri mailan eta herri batzuetan, kontrakoa izan dela; Instituzioek eta komunikabideek indarra eman eta herriak ez diela eman.

Oro har, alde bateko errekonozimendua bakarrik egon da. Estatuako erakundeek ez diete aitortza handirik egin ez alde bateko ez besteko biktimei. 11Mri dagokionez, gertatu zena gertatu zen; ETari egotzi nahi izan zioten baina ez zen ETA izan, eta izan zituen ondorio guztiekin, han bertan, biktimekin ez zen sentikortasun berezirik izan. Nire ustez, kontua da ez dela ezinbesteko urrats hori eman. Giza eskubideen aitortzaren kontua teoriarik soilik landu da. Hemen, Eusko Jaurlaritza, 2005-2009 legegintzaldian nolabait pixka bat antolatzen hasi zen. (...) Arrasaten, biktima batzuei omenaldiak egin zaizkie, gertukoak esango dugu, harrerak eta mota horretako gauzak. Beste biktimen kasuan, erakundeek aldetik errekonozimendua, gertutasuna eta ardura izan dute. Baina gizartean, herriak, ez ditu behar bezala babestu alde horretako biktimak, ETaren biktimak, hain zuzen.

GALen edo Batallón Vasco Españolen biktimei dagokienez, Estatuak are gehiago diskriminatu izan ditu. Gizartean errekonozimendua izan dute, baina nire ustez ez nahikoa. Zerbait handiagoa egin behar da, ez da erraza izango ekitaldi bat

edo zerbait antolatzea, eta ez ekitaldi bat soilik, egunerokotasunerako zerbait ere bai. Nik gehiago balioesten dut hori, eguneroko elkarbizitza; baina horretarako jendea hezi beharra dago.

Gogorak "Memoria plaza" ekarri zauenien testigantzak entzuterakoan pentsetan nauen oraindikan ere ez dala argi gelditzen biktima guztiak berdinak direnik eta erreparazioa hainbat kasutan batzuek bakarrik izan dala. ETA beti ETA izan dala, eta ein ditula kristonak, baina beti esan dute ze ein duten, gainera erreibindikatu ein dute, hori eiten zutela esanez. Askotan ez dakit zeinen ize-nien eta ez dakit zetako baina ... Bestekaldetik, Estatutik, biolentzia ein dutenien, gero ez dutela izan kapaz publikoki argumentatzeko zergaitik eiten zuten hori, baina nik uste dut kriston eragina euki dauela denongan.

Udalak Isaias Carrascoren atentatua gaitzetsi zuen, bai, gaitzestera joan zen, baina ez zioten utzi sartzan. Nire ustez sartzan utzi beharko zioten, Jose Luisentzat ere kolpe handia izan zen, Isaiasena oso gogorra izan zen. Orain iruditzen zait pertsona bat aitzakiak jartzera etortzen bazaizu, ez dagoela barkamena eskatzeko beharrik ... Udalak ez zuen atentatua gaitzetsi. Ez, ez dut uste. Gaizki iruditzen zait, noski. Alkatea bazara guztien alkatea zara, Isaiasena ere bai.

Isaias Carrascoren hilketaren aurrean izandako zuzeneko erreakzioen klima hartan, Korporazioko kideren batek, gertaeraren balorazioa egiteko eskatu ziotenean, honako hau erantzun zuen ihes egiten saiatzen zelarik: "Nire alderdiak egingo ditu adierazpenak". Hori errotuta dagoen koldarkeria da, ez banantzeko...

Biktimen ahanzturaz eta bazterkeriaz gain, elkarrizketatu batzuek diote, gai honetan nolabait aurrera pausuak eman direla, baina ezinbestekotzat jotzen duten erakunde publikoen nahiz gizartearen esfortzu berezia, biktima mota guztiak maila berean errekonozitzeko.

Iraganean bakoitzak bereak errekonozitzen zituen? Esango nuke baietz, lehen hala zela. Herri eta erakunde mailan duda barik. Gaur esango nuke bestela dela eta are "bestelakoa" izan behar dela ere bai. Zein da biktimago? Etxabe edo Carrasco? Biei entzuten egon nintzenean, momentu batean galdu egin liteke nor dabilen berba egiten. Mina iguala zen bietan. Ez zegoan hor min motarik, ez zegoen biktima motarik, pertsona baten mina zen, min humanoa. Uste dut horrela bizi beharko genukeela gainera, torturatu baten mina eta haren familia-rena edo bizkartzain batekin egunero bizi izan denarena edo familiarteko bat hil diotena, izan kolore bateko edo besteko, ze denetik egon da hemen... Nik uste min horiek denak landu beharko genituzkeela. Bakoitza bere ñabardurekin, baina denak izan direla zaurituak onartuta. Egin den? Ba, lehen ez, gero eta

gehiago egiten dela ere esango nuke; eta nahi nioke alde positibo horri eutsi, eta etorkizunean gehiago egongo dela pentsatu.

Uste dut aurreratzen ari dena lehen alboratuta zeuden biktimen errekonozimendua dela. Hemen, norbait hiltzen zenean, omenaldia egiten zitzaien hildako ETako militanteari, ez da hala? Baina ni zinegotzia nintzela, Arrasateko mutil bat, Aguirreurreta, hil zuten Komando Autonomoek. Bilera automatikoki gelditu zen. Baina egia da giroan edo batzuen ideologietan nabari zela hilketa hark bilera bertan behera uztea justifikatzen ote zuen. Uste dut alde horretatik aurreratzen ari garela. Testigantza eta gauza batzuk oso deigarriak egiten zaizkit, ETak hildako pertsonen senide zuzenak "hori ikusi egin behar da" eta "guztiok sartu behar dugu" esanez. Bestalde, badaude errekonozimendu horretara iristearen aurka lanean ari diren indarrak ere.

Oro har, nik esango nuke epel; biktimen garrantzien gaia eta biktimei merezi-behar dutenaren gaia berandu etorri dela. Bi aldeetakoei, e! Ezker Abertzaleak egiten zien bere biktimei gorazarre izugarri bat; eta bestetik, instituzioek ez dute asmatu biktimei behar duten garrantzia ematen, familiakoei eta abar. Nik ez dakit posible den biktimei horrelako rekonozimendua egitea gatazka bizi-bizi dagoen momentuan.

Lehenengo dikotomia horretatik gatozela esango nuke. Bakoitzak eduki ditu norberaren biktimak, bakoitzak zeuzkan bere hildakoak, bere heroiak. Gaur hori da hain justu apaltzen ari dena eta seguruenik apaldu behar duguna, zeren biktimak biktima dira, ez dira nireak edo zureak. Denak modu igualean errekonozitu diren? Ba, seguru aski ez, ez alde batekoak ezta bestekoak. Denetik egon dela esango nuke errekonozitze honetan. (...) Arrasaten, orain esango nuke gogoratuak direla biktimak, modu ezberdinetakoak. Iraganean dena zen aldrebesez. Iraganean zen zu edo ni. Iraganean zen aberria edo patria. Belaunaldi berriagoek lekua hartu ahala begirada gardenagoa izango dute eta "zu edo ni"-tik irakurketa konpartuago batzuetara heltzeko aukera errazagoa izango da, "egia" berba pluralean deklinatu beharko badugu ere urtetan.

• OMENALDIEN INGURUAN

Nola gauzatu behar dira biktimek eta haien senideek merezi duten aitortza edo errekonozimendua herri mailan? Jasotako iritzien arabera ez dirudi galdera honen erantzuna erraza denik, oso anitzak baitira omenaldien inguruan bildutako jarrerak. Instituzioek bertaratzea ezinbestezkotzat jotzen du hainbatek eta eskertzekoa dela, aldiz, agintari politikoaren manipulazioaren kezka adierazten du beste zenbaitek. Halaber, batzuek

diote plakak edo antzekoak ipintzeak ez duela ahanztura saihesten, beste batzuei, berriz, beharrezkoa iruditzen zaie. Nolanahi ere iritzi gehienok zerbait egin behar dela deritzote, biktimak behar bezala oroituak izan daitezen.

Ni ez nago pozik Arrasaten egin diren gauzekin. Tira, ezin dugu pentsatu orain lehen bezala gaudela. Baina azken atentatua Isaiasena izan zen eta ez dut uste hura babestu zutenek askorik egin dutenik. Gizarte osoak gauden egoerara eraman gaituzten mota horretako ideiak baztertzeak soilik osatu dezake. Eta horrek denbora, hezkuntza eta pertsuasioa behar ditu. Erreparazio-ekintzak ondo daude, ekintza sinbolikoak. Gizarteak, orokorrean, eliteei begiratzen die; eliteek mota horretako keinuak egiten badituzte, zerbaitek iraungo du; baina uste dut behar dena askoz sakonagoa dela. (...) Heziketa, gu besteak baino hobeak izateko ideia horiei aurre egitea.

Errekonozimendu instituzionala esango nuke behar dela hori be, gainera isiltasun handia egon da urtetan, gobernuek, erakundeek, udalek eta instituzioek oro har ez dute gai hau landu, oraingo moduan behintzat, hori errore bat izan da, gainera entzun ditugu politikariak barkamena eskatzen horregatik. (...) Kalte egingen da horren erabilerarik balego alderdikieratik. Errekonozimenduarena parte bat izan behar da, baina langai nagusia biktimak dira, erakundeen gainetik. Erakundeek ere errekonozimendu horretan parte hartzea ontzat ematen dut, ze bestela seguruenik kexatu egingo ginateke ez daudelako.

Ez dakit, ez da samurra, ni biktima nola enazen izen, ba igual eziñot esan nora-ino bete dien biktimen problemak edo ez dien bete. Nik uste dot alde bietako biktimak ezin diela pakete berdin baten sartu. Rekonozimientua askotan nik ez dakit zer dan. Niri etorten bajat jerifalte danak eskua emoten da: "Ai, kottau hoi", besarkada bat, plaka bat jarri; neretako faltsukerixa handixa da. Zeatik esate baterako, nei Urkullu etorten bajat oin besarkada batzuk emoten ta resulta que herenegun PPkin presupuestuak onartu dittu, digo: "Muchacho estamos haciendo un pan con ostias". Azken baten, beste gauza askotan bezela, denporia pasauta konpontzen die gauzak. Hor daz ondion Gerra Zibileko bire baztarrakeko biktimak onartu barik.

Udaletxean bai. EAJk eta PSOEK presio handia egin zutelako, eta Udaletxean Isaias omendu zuten, besteak beste, gorpua bertan edukiz. Baina uste dut guztia horretan geratu zela, ez dela hedatu. Horrez gain, badakit plaka bat dagoela. Baina, bere garaian, Isaias Carrascori errekonozimendua egin nahi izan zitzaion, hemen Udaletxean, plakaren bat edo zerbait. Eta ni ez nago horrelakoak egitearen alde, tentsio gehiago sortuko lukeelako. Hala ere, berriz diot, herriak hautatutako Udaleko zinegotzia izan da, baina nik ez nuke egingo. (...) Udalaren alde-

tik Isaiasi errekonozimendua egitea beharrezkoa litzatekeela uste dut. Niretzat bizitza sakratua da, berdin zait bata edo bestea den. Baina plakarik gabe, errekonozimenduak ez du zertan mitin bat izan; pertsonari berari errekonozimendua, izan idatziz, izan jendaurrean.

Plakak eta omenaldiak? Nik uste dut onak direla gaia ateratzeko berriro kalera, esnarazteko kontzientziak, ikusteko zer den historia, ahanzturan ez jausteko. Aurreko astean egon ziren Elgoibarren berriro kolunbarioan, niretzako ekintza horiek egin beharrekoak dira, politikoak egon dira, egon dira erakundeak eta oso ondo. Egiten den guztiak balio duelako berriro gaia haizatzeko. Bestela jende hori bigarren aldiz hiltzen da eta horrek ez dauka zentzurik. Ahanzturak hiltzen du. Gauza hauek azeleratu egin behar direla uste dut, badago korrante bat esaten duena, denbora behar dugu, hori egingo dugu, baina bost sei urte barru, belaunaldi aldaketekin. Eta ni ez nago hor, uste dut gauzak azeleratu egin behar direla, ez azeleratuta joateko, poliki egin behar dira, baina eskuko frenoak kenduta. Denborak, berez ez ditu sendatzen gauzak, denbora behar da, baina ez berez osatzeko. Atera egin behar dira gaiak, Sandra Carrascok eduki behar du agerikotasun bat eta Olatz Etxabek ere bai.

• ESKER ONAK

Sufritu duten pertsonen samina hain da sentibera, elkartasun keinuren bat edo hurbilketarako jarreraren bat antzematen dutenean, sakonean daramaten min hori neurri batean arintzea lortzen dute, baita esker onez jaso ere; are gehiago, keinu horiek ustekabean iristen direnean. Ondoko pasarte hauek horren adibide argiak dira.

Ni egunero joaten naiz Arrasateko Centro Andaluzera, bazkidea naiz eta. Behin norbaitek besterik gabe agurtu ninduen "Hola, Paco". Tira, ba gizon hori bere familiarekin zegoen han, eta une jakin batean ni partida bat jokatzeko ari nintzen eta ezpainzapi bat utzi zidan. Argazki bat atera nion. Egindako lanagatik eskerrak eman zizkidan, "Eskerrik asko, hau eta beste". Etxean gordeta daukat. Niretzat ezagutzen ez dudana pertsona batek eskerrak eman dizkidan aldi bakarra izan da.

Jose Luisen gorpuaren aurrean agertu zirenean lasaitu egin nintzen, egin ez zuten beste guztiagatik. Ez dakit batek bestearekin zerikusirik duen, baina... Horrez gain, nire gizona hil zenean ere zerbait ona gertatu zen. Kontua da Zubizarreta alkatea eta aurretik alkate izandako Ino Galparsoro Jose Luisen aurrean izan zirela, beilatokira etorri ziren eta zera esan zidaten: "Gizon haundi bat izan da, Maria Dolores".

ERREPLIKA ESKUBIDEA

INO GALPARSORO MARKAIDE

Legealdia garai ilun eta bortitzean bizi izan genuen, salbuespen egoera nabarmena zen: elkarrizketa prozesu saiakera baten haustura, Ezker Abertzalearen kontrako errepresioa (ilegalizatuta, zuzendaritza atxilotuta, legealdi oso bat instituzioetatik kanpo egon ondoren udal gutxi batzuetan baldintza zailetan parte hartuz), ETA ekintza gogorak burutzen,... Eta testuinguru honetan izan zen Isaias Carrascoren hilketa.

Gertatutakoaren berri izan bezain laster, ospitalera joan ginen bere egoeraren berri izateko. Handik hitz egiteko aukerarik izan gabe eta irain artean bidaliak izan ginen. Arratsalderako bozeramaileen batzordea deitu genuen eta bertan alderdi sozialistak Isaiasen gorpua udaletxean zegoen bitartean ANVko zinegotzirik bertan ez izatea eskatu zuen. Beraien nahia jarraituz, horrela egin genuen, eta une oro udaletxeko bitarteko guztiak haien esku utzi genituen omenaldia egin ziezaioten, beraien mina eta dolua erabat errespetatuz.

Egun horretatik aurrera hiltzaile moduan tratatu eta kriminalizatu gintuzten eta sekulako jazarpen mediatikoa sufritu genuen. Honen ondorioetako bat nire espetxeratzea izan zen.

Herrian noski eztabaidatu genuela ETAk burututako ekintzaz eta izan behar genuen jarreraz. Iritzi desberdinak egon arren, denok ados geunden alde bateko bortizkeria bakarrik gaitzesteak ez zuela egoera konpontzeko inolako biderik zabaltzen. Honek ez du esan nahi, gertaeraren larritasunaren jabe ez ginenik. Halaxe adierazi genuen prentsaurreko, elkarrizketa, pleno eta abarretan. Gatazkaren ondorioen sufrimendua gainera, ez zitzaigun arrotza egiten, gobernu taldean GALek eraildako herritar baten arreba eta ehunka kilometrotara dispertsatutako preso baten aita genituen eta. Gauzak honela, sentitzen dut orduan edo geroago gure jokabidea mingarri moduan ulertu izana: gure intentzioa modu publikoan familiak adierazi zuen nahia errespetatzea izan zen eta da.

Bukatzeko, beti saiatu gara beste alderdietako zinegotziak errespetuz tratatzen, bai udaletxean eta baita kanpoan ere, zinegotzi izan diren bitartean eta utzi dutenean ere.

8.3 BIZIKIDETZA

Iritzi ugariren arabera, euskal gizarteak gaur egun duen erronkarik nagusiena iraganean urratutako bizikidetza berrosatzea da, pentsaera ezberdineko jendearen artean adostasun zabala baitago bizikidetza baketsua lortzea helburutzat hartzerakoan. Aurreko ataletan, agerian geratu da saminez betetako iragana bizi izan dela Arrasaten, euskal gizartean baitan bezalaxe, bidegabekeria askoren lekuko izan da; baina oraindik, zauri asko daude behar bezala itxi gabe. Hori dela eta, sakonki aztertu beharra dago egungo egoera, bere indargune zein ahuleziak arakatzuz, iraganeko giro samingarri hori gainditze bidean jarriko bada.

Erronka honen aurrean bi errealitate ezberdin aurki daitezke, horietako bakoitzak berariazko dinamikak eragiten dituelarik. Alde batetik, oztopoak daude urrats berriak emateko, iraganetik irauten duten eragozpenak eta begirada etengabe atzeraka gidatzen dutenak, eta bestetik, itxaropenezko zantzuak antzeman daitezke etorkizuna begiratzeko, han-hemenka agertzen diren aukerak, aro berri baten keinu gisa.

8.3.1 BIZIKIDETZARAKO ERAGOZPENAK

Errealitatera eginiko hurbilketa horretan, lehenik eragozpentzat jotzen diren arrazoiak zein iritziak biltzen dira jarraian. Horien artean, iraganaren zama, hausnarketaren beharra eta presoen egoera nabarmentzen dira solaskideen ahotan.

IRAGANAREN ZAMA

Bizikidetzarako eragozpenik nagusienetako bat norberak bizi izandako sufrimendua da, alegia, zuzenean sufritutakoaren oroimena, soinean eramandako zama eta oraindik arindu gabea. Horrekin batera, bizitzan zehar, indarkeriak norberarengan izan duen eragin mota ezberdina azaltzen da baita ere.

Uste dut bost bat urte edo behar izan nituela. Aitarena asumitzea egunez egunez kontua zen; horrekin bizitzen ikasten duzu, baina gertatzen dena da ni bizi naizen lekuan bizita hori guztia atzean uztea oso zaila dela. Oso zaila da esatea: nire aita hil dute... eta kito. Nire bizitzarekin jarraitzen dut, ahal dudan hobekien daramat eta kito. Baina inguruak ez dizu uzten. Oso-oso zaila da, oso zaila; aita hil dizutelako, duzun amorrugatik, ikusten dituzun bidegabekeriengatik, inguratzeko zaituenagatik, galdu duzunagatik... Azken finean, oso zaila da, baina puntu batera iritsitakoan esaten duzu: edo txipa aldatzen duzu edo hondoratu egingo zara. Nik beheraka nindoala ikusten nuen. Hogeitaz urte nituen eta orain hogeitaz hamar ditut, eta gaztea naiz oraindik, baina nire gaztaroa galtzen ari nintzela

sentitzen nuen. Lagunik gabe geratzea, nire aitarena, gauza bat eta bestea... Orduan txipa aldatu behar duzula konturatzen zara. Denetik izan zen apur bat...

Telebistan ikusten duzunean: "Zinegotzi bat erail dute...", horrekin geratzen zara. Pertsona bat hil dute, baina ez duzu ikusten horren ondoren gertatu den guztia. Guretzat ez da berdina, adibidez. Nire aita hil dute, ados, kito. Hil dute, pasatu da, kito, bakean utzi gaituzte. Baina aita hil eta hilabetera atarian karteltxo bat jartzen badizute, presoentzako diru-eske etorriko direla esanez, diozu: "Ostia, zer da hau?" Handik gutxira alkatea espetxera sartu zuten eta guztiek espetxeratzearen kontra manifestaldiak egin zituzten, gainera nik ez dakit zergatik atxilotu zuten eta zergatik ez, ni hor ez naiz sartzen... Alkateagatik greba egiten dutela ikusten duzu, parkingeko sarreran bere argazkia dagoela eta hurrek mezutxoak idazten dizkiotela...

Garai hartan behintzat, nik ezagutu nuen giroa zen askoz giro borrokalariagoa, askoz enfrentamendu zaleagoa, askoz adolezenteagoa intelektualki edo politikoki. (...) Ba, iraultza sozialista egin behar zen, hau da, ametsaren eta errealtatearen arteko etena oso handia, ze bi printzipio behar dituzu konbinatu, ezta? Utopia printzipioa eta realitate printzipioa. Bi horiek konbinatzeko zailtasun handiak egon ziren orain dela 40-30 urteko giroan eta horrek ekarri ditu hainbat ondorio, nik uste, ba kaltegarri. (...) Gaur egun, nik uste, ba bi horiek gehiago gerturatu direla, utopia printzipioa asko higatu dela, realitate printzipioak askoz pisu gehiago duela, horrek badu alde on bat. Eta alde txarra du, ba behar bada, ametsaren koloreak asko difuminatu direla, ez?

Enpatia falta? Bebai klaro. Zeatik bakotxa bizi gizen apur bat geure munduen sartuta. Gero, emigraziñue be kristona egon zan, "en los años 60" eta hareik euren kulturie ekarri hauen. "Habla cristiano" sarri entzundako hitzak, detalle horeik bere miña egiten dabe. Horrekin gainera frankismoaren urte ilunak, erlijinuan portaeria beti gobienuaren alde eta aberatsen alde, gerra zibilan ondorixuak... horreik danok kalte haundixa in hauen bizitza sozialien. Niri atenziñua deketan duzt "en los años 50" inguru horreitan, domeketan futbol partiduetara guardia zibila faten zala herritarrekin batera Iturripera, eta egoera nehiko normala izeten zan. Gero gauzak aldatu zien... eta adibidez Carrero hil hauenien, gogoratzen naz nolako juergak egon zien.

Uste dut, orokorrean, nire ustez, e, garai hartan guardia zibil bat hiltzen zutenean indiferentzia moduko bat izaten zela; ni ez naiz inoiz horrelakorik egitearen alde egon, baina indiferentzia zegoen... Baina, bestalde... adimenaren ezkortasuna borondatearen baikortasunaren aurka da, ezta?

Francoren urteetan eta justu ondoren, gizartean nahiko justifikatzen ziren ETAREN ekintzak; ez ziren gerora izan ziren bezain odoltsuak. Francoren heriotzatik zenbat eta urrunago egon, jarrera kritikoa zutenak jarrera kritiko hori indartzen hasi ziren. Baina lehen urte haietan, nire ustez gizartean nahiko kontsentsu zabala zegoen ETAREN indarkeriazko ekintza ulertzeko, jardueraren lehen urteetan ez zelako hain odoltsua. Pertzepzio soziala askoz aldekoagoa zen. (...) Eta Estatuko indarkeriaren aurkakotasuna oso zabala zen.

Orain oso desberdina den kontu bat da poliziak Euskadin izan duen deslegitimazioa, ikaragarria izan da. Nire ustez frankismoaren garaitik zetorren, agian Euskadi, Estatuko beste eremu batzuk baino politizatuago zegoelako. Eta baita ondoren egin dituzten gauzengatik ere. Noski, bideo batean ikusten duzu polizia Errenteriako dendetan lapurretan, edo Lasa eta Zabalari egindakoa ikusten duzu. Ez genekien GAL izan zen ala ez, baina bai Galindo eta bere tropela zirela. Hortaz, nire ustez Euskadin poliziak izan duen deslegitimazioa, ETAK burutu-tako indarkeriaren aurrean jarrera epelak izatea eragin duen elementuetako bat izan daiteke.

Baina enpatia falta baino gehiago esango nuke dela beldurra. Hor momentuan ez zen erraza, gerra giro bat zegoen, hala ulertu behar da. Eta bi bando gutxienez, baina ez bi bando bakarrik, zelan esan. Egon da "Todo por la patria"-ko bando bat eta egon da "Aberria ala hil"-eko bando bat, esango nuke nolabait aipatzearren. Hori bakarrik zegoen? Ez, askoz gehiago zegoen, baina horiek ziren gailentzen zirenak gainontzekoetatik. Alde bikoa zen bakarrik herrian zegoen giroa? Ba ez dut uste. Esango nuke jende asko zegoela hortik aparte, nahiz eta aparte egonagatik ere, ez zegoen ausente. Bi gauza dira. (...) Gero eta gutxiago geratzen dela esango nuke zuri edo beltzezko gizarte eredu horretatik, horregatik da posible, besteak beste, halako liburuak atera ahal izatea, ez? Edo memoriaren gainean jardutea, libreago, beldur gutxiagorekin.

Haustura soziala esango nuke bazegoela, koadriletan bertan ere. Seguruenik isiltasunak ziren hori adierazten zuten adierazpiderik nagusienak. Hemen batzuk tragoak hartu ditu leku batian eta beste batzuk beste batian, tabernak identifikatuta egon dira. Beste batzuek tragoak hartu izan ditugu taberna askotan, baina ez zen ohikoa. (...) Horrelako gauzetan bai egon dela aldaketa Arrasaten, foku txikitik begira bai ikusten da aldaketa hori. (...) Eduki ditugu [Goiena komunikabidean] PSEko jende ezaguna azalean ateratzearren, bajak; eta eduki dugu bajaren bat artikulua bat ezker abertzaleko begiradarekin idatzi genuela uste zuelako bezero horrek. Hori da daukagun motxila eta eraman behar dugun motxila. Hori kudeatzea da gurea. Hedabide hau soziopolitikoki beregaina da. Hedabide hau Olatz Etxabereña da eta Sandra Carrascoreña da.

Etengabeko konfrontazioa zen. Klean zegoen, manifestaldietan zegoen. Oso garai gogorra zen, gogorra zentzu guztietan. Orduan, etengabe zegoen ekintza bat, edo atxiloketa bat, edo tortura kasu bat, edo hilik agertzen zen ETAko militante bat ...

Bizikidetza erreala eta oinarri sendoetan sustraitua beharko luke. Nola baina? Kataluniak erakutsi digu, "sin violencia todo es posible" hori gezurra dela. Gure kontra erabili duten argudioa gezurra dela. Helburu politikoa lortzearren edozer egiteagatik makinaria errepresiboa martxan jartzen da. Jarrai-Haika-Segi epaiketan egon gineno! akusazio partikularrak (biktimen elkarteak) Genozidioa eskatu ziguten! Orain katalanei sedizioa, matxinada... Euskal Herri askea helburutzat dugunok, ze etorkizun daukagu? Zapalduaren bizikidetza? Bizikidetza zintzoa beharko luke. Gertatutakoaren errekonozimendua eta erreparazioa ekarriko lukeena, baina, berdintasunean oinarritutakoa.

Ni Isaiasen erailketaren bi epaiketetan egon nintzen, eta medikuari begiratu nion, pentsa, biziak salbatzeko ikasi duen mediku bat, eta pertsonak hiltzen ditu, ikusi nolakoa den bizitza. Nik, jakina, hiltzaile horri erru handia leporatzen diot, baina Isaiasen bizilagunari leporatzen diot errua, hura aritu baitzen datuak ematen, eta egun hartan esan baitzuen: "jada hemen dago, sartu da eta irten da". Hura da benetako hiltzailea, tirokatu zuenaz gain. Eta ziurrenez Arrasaten ibiliko da egunero, eta auzoan ere bai, lasai asko. Edo zerbait ikusi zuen jendea, ziur nago, eta ezer esan ez duena. Hori koldarkeria da, eta horregatik gertatu da herrialde honetan gertatu den guztia; izan ere, Isaiasen kasua ez da Isaiasena, erailak izan diren pertsona askorena da, bizilagunak seinalatu duelako edo beste batek ikusi eta isildu duelako.

Hainbeste alditan joan behar izan dugu plazara, ordu-laurdeneko isiltasuna gordetzera, eta guardia zibilak hil direnean ere joan gara. Aldiz, komatxo artean "abertzalea" zen jendea hil denean askoz jende gehiago joan izan da, eta horrelakoetan gu ere joan gara. Beti, eta Jose Luis ere bai. Eta Emili ere hil zen, GALEk jendea hil zuen, eta horretaz asko hitz egiten zen, baina besteez...

HAUSNARKETAREN BEHARRA

Jasotako iritzi eta errealtate gordinek bat baino gehiago gogoeta egitera eraman du. Indarkeriazko gertakari zehatzen aurrean, norberak edota gizarteak izan duen jarrerari buruz, erakunde publikoek egindakoez, urteetako isiltasunez, autokritikarik ezaz ... mintzatu dira elkarrizketetan. Zenbaitentzat iraganari buruzko hausnarketa lantzea ezinbesteko ariketa dela esan daiteke, aurrerantz egin nahi bada.

Ez dakit posible den pertsona horiek bizitzan zehar sentitu duten hutsunea konpontzea. Ni ados nago gaur egun biktimen alde egiten diren ekitaldi guztiekin, baina gehien inporta zaidana da mota horretako ideien aurkako borroka ideologikoa egotea. Izugarri gaizki iruditzen zait helburua ona delako eta zuk erabaki duzulako, nahi duzuna egin dezakezula pentsatzea. Iritzi-eskubidea eta parte hartzeko eskubidea defendatzen dute, heriotza-zigorraren aurka daude, eta gero beraiek bihurtzen dira epaile eta borrero aldi berean; ba niri ikaragarria iruditzen zait. Zuten tratua, nagusitasun moralekoa zirudiena, bidegabea iruditzen zitzaidan. Guk, sarritan ezkerrean, moralki besteak baino hobek garen puntutxo hori izan dugu. Uste dut gauza horiek guztiak alboratu egin behar ditugula.

Nik ulertzen dut min hori hasiera batean isilean eroatea, baina Sandra Carrascok erreportajeetan esan ez dituen gauzak, argitaratu ez ditugun gauzetan ere, ikusten da zenbateraino den eragin hori. Sandra Carrascori momentu horretan aita besotan zeukala, ez zen joan bizilagun bat ere laguntzera. Horrek ez dauka izenik. Lagunak galtzeraino heldu da Sandra Carrasco. Ez da onargarria hori gizarte sano batean eta erakusten du ba ez dagoela sano, ez dagoela ageriko min hori eta min horrek eduki behar dutela kanalizatzeko modua. Eta publiko egitea da bat.

Iraganeko minaz hausnartzen jarrai dezakegu, baina egun mina eragiten jarraitzen da. Altsasuko kontakizunak edota etor daitezkeenak nola jasoko lirake osatzen ari garen liburuetan? Esan dezakegu hau amaituta dagoela? ETaren marko tenporala da erabiliko duguna soilik? Non kokatzen da Estatuaren indarkeria?

Ez daukagu ohiturarik hortaz hitz egiteko. Gainera bildur gara elkarrizketa zintzoa eta lasaia edukitzeko, politikoki desberdin pentsatzen dauen beste batekin.

Azken finean, jendeak bere bizitza dauka. Nire lagunek ere bai, nituen lagunek... Lagunik gabe eta beste ezer gabe geratu nintzen hau guztia pasatu zenean. Eta horrek min handia eragin zidan, izan ere, momentu horietan kaka eginda zaude. Ezin diozu zeure buruari tira egin; bueno, nik adore handia dut edozein tokitatik ateratzeko. Baina une horietan, adore handia izanda ere nik norbait nahi nuen... nire lagunak, beti esan dudan moduan; zinemara joateko, erosketak egitera joateko, edo besterik gabe, kafe bat hartzeko. Entzun ziezadaten edo haiekin negar egin nahi banuen edo... eta ez nuen horrelakorik izan. Hasieran agian bazeuden, baina gero desagertu egin ziren. Ni ere garai hartan mutil batekin nenbilen eta agian urrundu egin nintzen. Elgoibarren bizi zen, eta nik hemendik atera nahi

nuen, ez nuen horrenbeste denbora hemen pasatu nahi, begiratu sentitzen nintzelako, ez nintzelako inorekin fidatzen. Beharbada ni ere apur bat urrundu nintzen, baina bakarrik gelditu nintzen. Bera hil eta ni bakarrik gelditu nintzen.

Zer egiten du manifestazio batek nire etxe albotik pasatzen, handik inoiz manifestaziorik pasatzen ez bada, eta nola iraintzen dute nire ama nire anaiaren aurrean, geltokian zeudela? Gauza horiek, ez. Nire aitaren kaleari, gure kaleari, aitaren izena jarri nahi izatea ... eta hori legez kanpokoa dela erantzutea, ezin dela... Errautsak botatzeko tokia erabaki gabe genuenean, Zamorara eramango ote genituen, hara, hona... esan genien eman ziezagutela dirua beraiei presoak ikustera joateko ematen dieten moduan. Esan ziguten hori ere ezin dela, legez kanpokoa dela. Gauza horiek ikusten dituzu, duten babes guztia ... Ulertzen dut manifestatu nahi izatea, hori guztia egitea, baina nire aita ere biktima bat da, PSOEkoa izan daiteke edo berak nahi duen modukoa, baina hildako bat da. Herriak ere zergatik ez du dena eman? Zergatik ez dute esan erailketa baten kontra daudela?

ETAk burutu du bere ibilbidea. Faltan botatzen dut Estatu bien eta Euskal Herriko gobernuen aldetik, Euskal Herriak bizi duen militarizazio egoerari buruzko azterketa bat. Europar dagoen biztanleko polizia ratorik altuenarekin jarraitu behar dugu? Ez da hausnarketarik egin behar daukagun eta eduki beharko genukeen eredu polizialari buruz? Goardia Zibilaren berri badugu aspalditik; noizbait amaitu beharko da bere basakeria eta inpunitatearekin! (...) ETAk, bere jarduerak eragindako mina aitortu egin du. Enpatia erakutsi du eta onartu egin du bere ekimenek sufrimendu asko sorrarazi dutela. Keinu bikaina iruditzen zait; erakunde iraultzaile batek ezinbestean eduki behar duen sineskotasuna eta ausardia erakusten du horrek. Aldiz, ezin gauza bera esan, bere burua demokratikotzat jo baina frankismoa bera ere zigortzen ez duen edo polizia eta goardia zibil torturatzaileen inpunitatea areagotzen duen Estatuari buruz.

Espainiako prentsak, errukirik gabe matxakatu du Arrasateko herria, sioux erre-serba (sic) gisa izendatuz, abertzale eta ezkertiar izateagatik. Arrasaten gatazka eta tentsioa egon da, sufrimendua ere bai, baina baita ikuspegi desberdinetatik oso aberatsak izan diren gizarte mugimendu oso interesgarriak edota kooperatibetako esperientzia. Ez da iragana gatazka hutsa izan, baina ez da etorkizuna ere gatazkarik gabea izango. Suposatuta behar da garai bakoitzari dagozkion gatazka sozial anitzak sortuko direla gerora ere.

Gu [lehen EMK] beti izan gara kritikoak ETAren ekintzekin; gertatzen zena da garai batean ETArekiko kritika publikoa egiteak etsaiari mesede egiten ziola iruditzen zitzaigula. Baina, pixkanaka, kritikoago bilakatzen joan ginen, askoz

gehiago. (...) Nire ustez, sentimentalki babestu zutenek, beti fidatu zirenek, gurea bezain zapaldua zegoen herri batentzat irtenbidea zela pentsatu zutenek, ba, orain ez dutela hain argi esaten.

Gizartea koldarra izan dela ez esatea geure burua engainatzea da. Gizarteak aurrerapauso bat eman balu, hau ez litzateke inoiz gertatuko, tragedia hau. Eta nik ulertzen dut gizakiak beldurra izateko eskubidea duela, eta bakoitzak sentitzen duen moduan sentitzen duela, baina gertatu dena ... herrialde honetan mila pertsona erail dira, asko dira, bakarrik desberdin pentsatzeagatik.

Ni itota sentitzen nintzen, ezin nuen jasan euskal gizartean ETaren kontuarekin gertatzen zena, edo nazionalismo horrekin; batzuetan oso gogorra izan da, beste aldera begiratu duelako, ez dio bakea ezartzeko prozesuari ezertxotan ere lagundu. EAJK beste aldera begiratu du, eta beste alderdi politiko batzuek, modu batean edo bestean, kolaboratuz ez bada, ez dute bakearen aldeko borrokari buruz ezer jakin nahi izan.

Erakundeei, udalei, Eusko Jaurlaritzari, etab. Kostatu zitzaien! Kostatu zitzaigun, nolabait esateko, biktimak aitortzen hastea, babestea, defendatzea, erreko-nozimendua, memoria ... Ardantzarekin, gatazkari, Ajuriaeneako Itunaren bidez aurre egin bazitzaion ere, gogoratzen dudanez, Ibarretxerekin hasi zen guztia; nire ustez, berandu izan zen. Uste dut nolabait justifikazio gisa genuen sentimenduagatik izan zela pixka bat. Horrek asko lotu du. Beldurra ere izan daiteke, baina Atutxa auziaren moduko kasuak ere egon ziren, mehatxatuta egon eta gaiari aurre egin ziotenak. Ertzaintzak berak ere jardun du eta ondorioak ere pairatu ditu. Baina maila politikoan berandu ibili gara. Hasieratik hasi izan bagina... Herrialdeko ekonomia kudeatzen jarri genuen arreta gehiago, hori ere egin behar zen, herrialdea zegoen moduan egonda. Eusko Jaurlaritzan oso jende ona egon zen eta bideratu zuten. Baina indarkeriaren kontua jarraian zihoan gai bat zen.

Bilbon milioi erdi parte-hartzaileko manifestazio haren atzean. Eta herritarren gaitzespen-mugimendu bat sortu zenean ... Nik oso argi daukat EAJ beldurtu egin zela; izan ere, jendearen iritzian eragiteko indarra duenak hasieratik jarri izan balu praktikan, eta ez orain egin duen moduan, 2011. urtean gauza horiek guztiak esaten, zorionez onuragarriak izan direnak. Non egon dira hainbeste urtean, izan duten indarrarekin? Ez zuten ezer esan, ez zuten jarrera bat ere hartu, ez zuten ezer egin. Eta indarra duenak esaten badu, jarraitzaileak dituenak esaten badu, eta arrazoi gehiagorekin ideologia nazionalista duenak esaten badu; nik beti diot posible izango litzatekeela ETak hainbeste ez irautea.

Nik uste, behar duela Ezker Abertzaleak gogoeta etiko oso sakon bat. Ez dut esaten ez dela ari, daukat susmoa horietako batzuek egin dutela, bai, Ezker Abertzale gidaritzan mailan, batzuek; baita Ezker Abertzalearen, esan dezagun, gorputz sozialean ere, batzuek. Nik nahiko nukeena da gehiagok egitea. Bereziki, gazteei transmititzen zaiena gogoeta etiko horretatik joatea, ez gogoeta pragmatikotik; horrek arduratzen nau. Ze lehengoan, indigenekin nengoelako, ez neure kabuz, tokatu zitzaidan preso baten harreran egotea. (...) Ni preso baten harreran gustora egongo nintzake, baina, beti ere, konpentsatzen badut bestearekin. Ni Isaias Carrascoren omenaldira banoa, presoen omenaldira ere joango naiz. Baina ez naiz presoen omenaldira joango, ez banoa hurrengo astean Isaias Carrascoren omenaldira. Joan nintzen presoen omenaldira eta ikusi nuena han, egia esanda, patetikoa iruditu zitzaidan. 20 urteko gazte batek eraman zuen zeremonia, eta harrera egiten, diskurtsoa izan zan "Jo ta ke irabazi arte. Borroka da bide bakarra. Burkideok...". Orain dela 30 urteko parafernalia ...

Ni errebisatzen ari naiz nire ideologia ildo guztiak. Baina, generoarekin bezela, gauza guztiarekin, politika, ekologia ... berpentsatu behar dugu eta uste dut, Ezker Abertzalekoen ere hori eskatu behar zaiela, "Beitu zer gertatu den!", Isaiasena ez da detaile bat, "Pentsatu berriro, ez? Nun dago akatsa?" Eta ez pasa orria, besterik gabe, ez?

Ni ETAk bere iraganaz egingo duen balorazioaren zain nago, egingo duela esan du, jendea zer gantxorekin elkartzeko den ikusteko, ez? Baina hemen, mundu "abertzale" honetan, ez zait gustatzen horrela esatea, baina tira, jende gutxi egongo da guardia zibil hura hiltzean gaizki egin zela esango dizuna, agian ez dizute esango ondo egin zela ere; eta lehen agian hori esango zizuten. Hor aldaketa txiki bat egon da, baina eusteko pertxa falta zaiela esango nuke, gaia aldatzeko falta izan zen pertxaren kasuan bezala.

Autokritika edo hausnarketa hori egunero ein biozu, bestela agur. Gaur egunian benetan pentsetan dot autokritika ein dutela biolentziarekin, gaztiek ez dute geuk izan ditugun prejuiziorik.

ETORKIZUNERAKO OZTOPOAK

Halabarrez, era askotako oztopoak antzematen dira eta horiek zehazterakoan, gainera, oso ikuspegi ezberdinak adierazten dira. Horien artean agertzen dira abiadura edo erritmo ezberdinen gakoa, urte luzeetako inertziak alboratzea, egoera ezezagunari beldurra, desagertu gabeko mesfidantzak, norbanako gogoetaren zailtasuna, ... Dena den, gehienek oztopo horiek gainditzearen beharra azpimarratzen dute, nahiz eta horretarako formula zehatzik ez duten.

Memoria Plaza? Ez dut ezagutzen beste herri batzuetan gertatu dena, baina hemen Arrasaten, oraindik desio bat da; polarizazioak, nik uste, oraindik jarraitzen duela. Nahiz eta gehiago hurbildu, nik euki neban ezagun batzuk eta nahiko gertukoak direnak, bere ideologia abertzalea daukatena, ez ziranak Memoria plazara etorri, ez zuten begi onez ikusten. Ba ni orduan, pixkat minduta sentitzen nintzen, ze bueno, "ni naiz, Olatz", ez?". Ba nere lagun batek zerbait egiten badu joango naiz nere lagunarengana, nahiz eta ez ados egon berak esango duenarekin. Batzuekin sentitu nuen ... gero, beste askokin justu kontrakua, ez nuen espero izandako babesia.

Oso pesimista naz, pentsatzen dot oso zaila dela eta ez daukala konponbiderik. Ze bai alde batekoak eta bai besteak egin garana ... neu be bai sartzen naz. Gogortu egin gara gure iritzietan, hor daukogu "asignatura pendiente". Benetan, bestela ez daukagu konponbiderik.

Etorkizuna, erabakitzeke eskubidearekin etorriko da eta Estatu benetan demokratiko batez; inolaz ez gaur egun, adibidez, herrialde katalandarrak errepresionatzen eta espetxeratzen ari dena bezalakoarekin. Biolentziarik gabe dena zela posible errepikatzen ziguten behin eta berriz, baina gezurretan ari ziren. Biolentziarik gabe, Espainiako konstituzioaren barruan bada, baina hori independentista batentzat ezinezko zerbait da. Etorkizunean autodeterminazio eskubidea aitortua izan beharko da eta proiektu independentista bat ere, efektiboki, defendatu ahal izateko aukerarekin.

Uste dut elkarbizitza hobetu egin dela azken urteotan. Gizarte bezala erronka haundiak ditugu gure aurrean: erronka sozialak, ekonomikoak, ekologikoak, herri gisa bizirautearena... eta globalizazio basati honi aurre egin ahal izateko, elkartu beharra daukagu. Somatzen dut, Estatu espainola (hobeto esan, bi Estatuak) benetan demokratizatzen ez diren arte, elkarbizitza sano bat ezingo dela sendo oinarritu. Alde bata urratsak ematen, hausnartzen ari denean baina bestea berean temati badihardu, presoan, torturaren eta abarren gaietan ... elkarbizitzak hauskorra eta sustraitu gabea izaten jarraituko du.

Udalak guztiok prest gaudela adierazteko lekukotasuna eman behar luke, hogeita bat zinegotziak, desberdinak; arrasatearren sentsibilitate eta ikuspegi desberdinak ordezkatzeko ari garen pertsona guztiak. Guztion testigantza da alderdi baliotsuena. Udalak eman behar du lehenik lekukotasuna, eredu gisa. Uste dut nahiko gertu gaudela, baina oraindik ez dira baldintzak betetzen. Ez nagoenez bozeramaileen mahaietan ez dakit zehazki zein izan daitezkeen oztopoak, baina iraganeko motxila pixka bat baztertu eta eskuen artean duguna modu pertsonalago eta sozialagoan ikusi behar dugu.

Jendeak dauzkan frenoetatik hasi behar genuke aldatzen kontua. Nahi dugu errelato bakarra, goitik proposatutako hori? Zail egiten zait sinestea hori. Nik argi daukat herritik egin behar dela, uste dut ezin dela bestela egin. Hau oso behetik gorako gai bat da eta ez alderantziz. Ez dago bueltarik. Herriz herri gainera, ez derrigor Institutuzioak ere inplikaturik, nahiz Institutuzioa inplikatzea ona den. Uste dut egin beharrekoak direla bertatik bertarako harremanak. Zer arrazoiagatik dagoen freno emanda jendea? Aldaketa hutsa bera, aldatzearen kultura, ez da erraza. Batzuentzako bizitza eredu bat izan da, egotea defenditzen gauza bat modu estremoan, ez? Batzuentzako esaten dudanean batzuentzako eta beste-entzako da. Beldurrak egongo dira, deserosotasunak... Auskalo zenbat gauza!

Azaltzeko oso zaila da, aurrera egitea delako. Baina nik esaten badizut Urrusolo Sistiagarekin, egon den krudelenarekin, hitz egiten dudala, zuk esango didazu: "Sandra, nola hitz egin dezakezu pertsona horrekin? Zure aitari egindakoa defenditu badu eta zure aitari egindako berdina egin badu?". Nik esango nizuke: pertsonak diren moduak ikusten saiatzen naiz. Egin dutena alde batera uzten dut. Tira, damutzen ez dela dioen txerri bat bada, orduan argi dago ez diodala hitzik egingo, edo nire iritzia osoa adierazteko hitz egingo diot.

Udal honi momentu honetan ez nioke ezer eskatuko, gainera, badakidalako ez duela ezer egingo. Izan ere, eskatu dizkiogu, aktibo zein pasiboki, beste gauza batzuk; adibidez, Isaias hil zuten kaleari haren izena jartzeko. Eta ezezkoa eman dute. "Tira, hori jartzen badugu, beste honi ere jarri beharko diogu ...". Aizu, ez, kale bati Isaias Carrasco jartzea eta beste bati Arrasateko harakinaren izena jartzea, mesedez, bi gauzak ez alderatu. (...) Horrek ez du esan nahi ezinikusia diedanik, baina ez dut barkatzen. Nik ezin ditut barkatu nire kide Isaias, Froilan, nire kide Enrique edo "Poto" hil zituztenak ... Barkatu, ezin dut barkatu. Guztiok aurpegira begiratu, hitz egiten eta honetaz guztiaz eztabaidatu... beharrezkoa den guztia prozesu horretara iristeko. Baina ezin da barkatu. Eta hemen, Arrasaten, orduko ETako kide batzuk ditugu eta ez dute esaten "barkatu", guztiz kontrakoa baizik. Badakigu nor diren eta zer dioten, beraiek hil zutela, ... Horrek ez du ezertan laguntzen.

Arlo politikoan maskulinitate horrek inperatzen dauela. "Las formas de contestación, las formas de hacer". Kalien jo ta fuego ibili direnek, kriston arazue dute oin halako mahai baten egoteko eta besteari entzuteko. Gauza bat adosteko neu fango naz mahai batera nire ideiarekin, baina zeuk agian daukazu beste bat... Neu gai izan behar naz zeurie entzuteko eta nire argumentuek emoteko. Hori ez da ikasten egun batetik bestera, denok ikasten dugu denbora eta praktikarekin. Horregaitik esan dot lehen "Ahotsak" esperientziarekin agian ez zoazela

inora, ez duzula lortzen helburu konkretu bat, baina ikasten duzula... Bestela zelan ikasten da? Eiten.

Imajinatzen dut egongo dela, prozesu luzea izango dela, aurrerapausoekin, atzerapausoekin, orain egiten ari garen moduan, baina jende askok toki berean eta batera bultza egiten ez badu, inoiz ez da gertatuko. Eta diozu: "nola lortu jende asko?"... minimo komunak, izendatzaileak, bilatu behar ditugu, guztiak gauza batzuk egitearekin ados egoteko; ezkor samarra naiz alde horretatik. Uste dut, orokorrean, jendea ez dagoela kontu horietarako, eguneroko ardurak dituela, gaur egun ekonomiak asko estutzen du.

Nire ustez, benetan, dugun eragozpen handiena Estatuaren papera da. Edozein gairi dagokionez, el Hortaz, Estatuak erantzukizun handia du honetan guztian, oso handia, ETAREN sorreran ere bai.

Nik gertuko harremana dut ezker abertzalean herri mailako ardurak izan dituzten batzuekin, ba ez dela mamitzen benetan autokritika bat. Oraindik pisu gehiegi duela: "Jo, ba beitu besteek! Guk autokritika eta besteek, zergatik ez!". Oraindik ezin benetan egin, ba Octavio Pazek egin zuena Gulageko liburuak irakurri zituenean eta esan, "¿Y cómo he podido ser yo comunista hasta ahora? Y no ver lo que estaba pasando en la Unión Soviética". O sea, aldatu, ikuspegia aldatu eta eboluzionatu? Nola? Ez dakit. Nik gertuko ditut Ezker Abertzaleko pertsona ezagunak, jende ona da, oso jende ona da. Beste kontu bat da asko eskatzea den: "Beitu, bizitza osoan honengatik borrokatu duzu, baina igual berrirakurketa sakon bat egin behar duzu guztiaren inguruan, ez?". Uste dut, oraindik ere, inertzia ikaragarria dala.

Arrasaten bertan, lehengo urtean, egon da hileta bat, ni joan nintzen, maite nuelako hil zena. Izan zan Ezker Abertzaleak protagonizatutako, esan dezagun, hileta zibil bat. Ni egon nintzan hiletan, pixkat hola ertz batean, esaten: "Ostras, ze para-erlijiosoan izan dan dena", 2016an, oraindik Arrasateko Ezker Abertzaleak bizi du ezker-abertzaletasuna oso modu erlijiosoan. Ia-ia ari ziren esaten: "Bueno, hau hil da baina bizirik jarraituko du ja Ezker Abertzalean". Pixkat elizak erabiltzen dituen gauza guztiak, eternitatea, bestea... Dena, santua, gudaria, kantuak, hitzaldiak, erritua zan ia-ia elizako erritua, kendu jainkoa eta sartu Ezker Abertzalearen... Eta esaten duzu: "Ez, politika beste gauza bat izan behar da". Politika da, besteak beste, "el arte de lo posible". Eta gero, horretarako jarriko duzu ba helburu batzuk urrun, ezin dituzunak lortu. Baina politika hori da. Politika ez da pseudo erlijio bat. (...) Orduan, hor eskatzea autokritika etiko bat zailagoa da. Kontua da, kontziente izan behar dugula prozesu hauek geldoak izango direla. Nik usteut, Ezker Abertzalearen para-erlijiotasuna joango dala

pixkanaka ahultzen eta, esan dezagun, mugimendu politiko zibilagoa (zentzurik onenean) bihurtzen, badoala ja.

Makro-indarkeriak mikro-indarkeria poltsa bat justifikatu duela eta sektore bati eman diola, batetik, mikro-indarkeria hori erabiltzeko autoridadea, baina baita ere ingurunean zabaldu duela mikro-indarkeria hori onartzeko jarrera. Bertsotan gertatzen dena, txistuak igual jotzen dituzte ehunka batzuek, baina han daude 11.000, "Bueno ...", "Nola bueno?". Hau da, igotzen da oholtzara zure alderdikoa ez den bat eta ja txistu egiten diozu? Zure alderdikoa ez dalako eta agintari bat dalako? Hori zer da baina?

Nik ezin dut ahaztu, oso gertutik bizitzea tokatu zaidalako. Nik ezin dut ahaztu, urte askoan izan dugun errepresioagatik; enfrentamenduak, lan-greba soil batean atera eta guardia zibila agertzea, eta ez diot beti, baina sarritan ez zizuten kaleratutako langile baten alde manifestatzen ere uzten. Niretzat hori ... oso zaila da, ezin dituzu gauza horiek hain erraz ahaztu. (...) Lehen talde edo kuadrilla osoak sigla batzuetakoak ziren, alderdien nukleoen arabera mugitzen ziren; eta uste dut gaur egun hori ez dela gertatzen, edo behintzat gutxiago. Uste dut nahiko arduragabe jokatzeko dugula zentzu honetan: "ni orain horrela oso ondo bizi naiz", eta oso urrun geratzen zaigu gertatutakoa. Nire sententzia da batzuek pentsatzen dutela: "hura izan zen, pasatu zen, gauza horiek jada ez dira existitzen" Gaindituta ez dut uste, esango nuke ahaztutzat dutela.

Nik uste dut hori [presoen gaia] oztopoa dela. Herritar askok dituzte preso seni-deak etxetik ehunka kilometrotara. Giza eskubideak urraturik, egoera krudel eta gordinetan. Min hori eta errekonozimendu hori gabe akaso ez dago urratsa emateko gertu edo prest.

PRESOAK

Hainbatek arazo larritzat jotzen du presoek pairatzen duten egoera (urrunketa, espetxe barruko baldintza gogorak ...) eta premiazkoa dela konponbidean jartzea. Beste batzuek, ordea, ez dute inolako beharrik ikusten gobernuak ezarritako espetxe politika aldatzeko. Edonola ere, bizikidetzaren osasuntsu baterako presoek eta euren senideek tra-taera duin bat merezi dutela diote beste zenbait solaskidek.

[Gutxienezko baldintzarik espetxean?] Duintasunez bizitzeko, ez, giza eskubi-deen aldetik, ez. Zentzu guztietan esango nuke. Ni Palentziako espetxera eraman ninduten eta hango ziegak behintzat beste espetxeetakoekin berdinak ziren. Espazio aldetik oso txikiak, literekin, ez zeuden umeentzako egokituak inondik inora. Ez zegoen egokitzen; pakete gisa atera eta sartzen ziren haurrak.

Ez zegoen pediarririk, haurra ingresatua gelditzen bada amak espetxera bueltatu beharra zeukan eta han gelditzen zen umea bakarrik Guardia zibilak kustodiatuta edo kaleko familiar batekin. [Krudelkeria dago?] Bai, emakumeenean ere, eta haurrenean, gehiago. Euren argudioa da "Haurra askea da, haurrak ez dauka hemen egon beharrik. Haurra ez dago preso, atera daiteke nahi duenean." Damu? Ez. Momentu horretan nire alabarentzako onena zena erabaki genuen bikoteak eta nik. Sentitu, bai, noski. Beldurra izugarria zen. Espetxeak eta bertan bizitakoak nire alabarengan izan zitzakeen ondorioen beldur. Eta erruduntasun sententzia ere bai.

Nik uste dut, momentu horretan, hiru hilabeteko haur batek, tarte horretan behar zuena amaren babesa zela eta inguru bat eta goxotasun bat, eta saiatu nintzen ematen. Ez zituelako ez ama ez aita bere ondoan izango bestela. Biak geundelako espetxean. (...) Egoeraz aprobeztatzen dira, eta psikologikoki apurtu nahi gaituzte. Arduragabeak garela esaten dute haurrak gurekin izateagatik. Gu garela errudunak eta arduradun bakarrik. Gertatzen zaien edozeren arduradun. Gure ahuldadearekin edo "punto debilarekin" jokatzeko eta oso indartsu egon beharra daukazu haurraren ongizatea bermatzeko eta krudelkeria horretaz isolatzeko. (...) Niretzako espetxeak... gauza txarrak bai, noski, oso txarrak! Baina egoera guzti hau bizitzeak gauza oso onak ere eskaini dizkit. Kidetasuna, elkartasuna. Familia eta Herriaren babesa...

Presoekin gauza bera, ikusten dot gogortasun bat eurontzako, euren familientzako. Horrela ezin da soluziño batera iritsi. Oindioan ere gorrotoa sortzen ari dira. Baldin badabiz: "¡que cumplan todo hasta el último día!". "Que está enfermo, no le dejan salir...". Eurak indarra daukate. (...) Eta dispersioaz zer? Hori dala zigor gehitua, soberan dago. Lehenengo pentsatzen dut zigor hori emotea larregikoa zala. Gorrotoa... "Vas a cumplir hasta el último día". "Allá. Más lejos, no, porque está el mar". Hori da, "una pena añadida para las familias".

Oraindik, presoak be hor daude eta gai inportantea da. Sektore batendako, ba hurbiltzeko eta prozesu honetan sartu ahal izateko. Politikan be presoan gaia oztopo bat da aurrera egiteko.

Presoen gaiak ere etorkizuna marraztuko du. Oso beharrezkoa da espetxe politika gizatiar bat, lehen graduko sailkapenekin amaitzeko eta senideak zigortuak ez daitezen izan. Ezingo nuke irudikatu presoan gaiari konponbidea emango ez liokeen egoera bat; ardatz garrantzitsu bat izan beharko litzateke hori.

Alabaina, arestian esan bezala, bestelako iritziak ere badaude. Hauen artean, badira presoekiko inolako aldaketaren beharrik ikusten ez dutenak, baita ere presoiei damua eskatzen dietenak, eurek eragindako saminari buruz.

Isaias hil zeneko esaldi ospetsu hura esaten didate: "Aizu, ustezko hiltzailea atxilotu dute, zer egin nahi duzu?", "Espetxean ustel dadila", eta hori pentsatzen jarraitzen dut. Baina ez ezinikusiatatik, uste dudalako zuzenbideko estatuak horixe egin behar duela hiltzaileekin. (...) Birgizarteratzean sinesten dudan? Bai, baina ez hiltzaileen kasuan. Preso arruntentzat bai, baina mota horretako hiltzaileekin, terrorismoaz ari gara. Ez, ez. Eta badakit batzuk aldatu direla. Eta oso ondo dago. Baina, zer puntutaraino egin dute benetan damutu direlako? Beraiek jakingo dute, nik ez dakit, X aukeragatik, momentu jakin batean, ez dakit, ez naiz hori epaitzeko gai.

Frantziari dagokionez, Espainiak egin ez duen zer ari da egiten Frantzia? Zer egin duen Frantziak? Gauza bera, hemen Langraitz plana deritzoguna aplikatu. (...) Banan-banan gauzak eskatu, banan-banan aztertu. Langraitz bidea, ez da besterik. Zer gertatu da hemen? Berdina. Langraitz bidera egokitu direnak aztertu egin dituzte, eta zu etxera, zuk hau, zuk bestea ... eta hurbildu egingo zaitugu. Eta han berdin. Eta pozik jakinarazten dute. Okerrena da oraindik talde batzuk dituztela, ez dakit zein diren, baina dirua darabilte eta noizean behin, bum! Ezustekoa. (...) Esan ezazue: "Huts egin dugu; guztiz bidegabeak izan gara, ezin da inor hil, ezin da inor presionatu eta ezin da inor bahitu ideia politikoengatik, ezin da. Politika hautetsontzietan defendatzen da herrialde demokratikoetan".

Dispertsioaren erabakia hartu zenean, ez ahaztu Alderdi Sozialista zegoela agintean, eta noski, Alderdi Popularra ados zegoen; baina isilean gauza batzuk eta jendaurrean beste batzuk esaten dituzten indarrak ere bai. Zergatik? Guztiok dakigulako abokatuen sareak, guztiaren sareak... espetxeetan indar handia izaten jarraitzen zutela. Nire ustez oso ondo hartutako erabakia izan zen. Zer gertatzen da? Zer aldatu da? Orain ezin dutela hil? Zergatik ezin dute? Damutu egin direlako? Ez. Presioari esker, kasu honetan presio demokratikoa; ordena-indarren presioari esker; eta Frantzia gingondotik erori eta egin beharrekoa egiten hastearen presioari esker. Horri esker, ETaren ekintza gutxitu da, demokraziatik, botereetatik eta segurtasun-indarretatik menperatu dugu. Mendean hartu ahal izan da.

8.3.2. BIZIKIDETZARAKO AUKERAK

Arestian bizikidetzarako eragozpenak erakutsi ditugun bezalaxe, gaur egun sumatzen diren aukera berriei buruzko aipamenak azaleratzen dira ondoren; xalotasunean erori gabe, jakina. Bat datoz ia denok, giro aldaketa bat sumatzen dela oraingo eta duela

urte gutxiko giroa alderatuz gero, kaleetan, tabernetan, lantokietan eta abarretan, alegia, orokorrean. Beraz, ukaezina ematen du herritarren arteko eguneroko bizitzan izugarrizko hobekuntza eman dela oso denbora laburrean.

ALDAKETA BAIKORRAK HERRIKO GIROAN

Giro aldaketaren zantzuak edota horren arrazoiak aztertzean, berriro ere argudio ezberdinak azaltzen dira, norberak bere ñabardurak agerian utziz. Egoera deskribatzeko modu asko topatzen dira, zenbaitentzat ETAk emandako behin betiko suetena⁹² izan da gakoa, beste batzuentzat gizartean eman den prozesu luze baten ondorioa izan da, baita ere kalkulu taktikoak egin izana, edo norberaren jarrera itxietatik ateratzea, hurbilketarako jarrerak antzematea ... Bestalde, aldaketaren zantzuak zertan nabaritzen diren azpimarratzean, denetarik dago: lehen izandako beldurra uxatzea, edozein tabernetan sartu ahal izatea, diskurtso eta hizkera ezberdinez mintzatzea, ezagun edo senide batzuen artean berriz elkar agurtzea eta abar.

Nik uste dut tentsio gutxiago dagoela gizartean. Eta are txikiagoa da tentsio hori gazteen artean. Beno, tentsioa izan daiteke oraindik ere nire adinekoen artean edo zertxobait gazteagoak direnen artean, zu alderdi horretakoa zarelako eta ni beste honetakoa naizelako, hau da, zu alde horretakoa zarelako eta ni beste honetakoa naizelako, baina ez da duela 10-15 urtekoa, ezetz uste dut nik. Nik, behintzat, ez dut hala bizi.

Gure urrezko ezteiak gure lagunekin batera ospatu genituenean, politikoki gure kontrakoak diren pertsonak izan ziren han, jakina. Beste garai batean izan balitz, ez ginatekeen guztiak han elkartuko. "Lana", nire senarra, han zegoen, eta abesti bat kantatzeko eskatu zien oso ondo kantatzen duten bi pertsonari ... "Ea, Lana, zer kantatuko dizugu, 'navarrada' bat?". Eta hark esan zien: "Txoria txori" (hunkitu eta hitz egiteari uzten dio une batez), "txoria txori"...

Nire amak, behin eta bitan baino gehiagotan, txipiroi-kazola bat jarri die espetxera eraman zezaten. Izan ere, nire aita eta haien aita lehengusu propioak ziren. Lehen, agian, ez zintuzteten agurtzen, eta orain, berriz, "ala, prima, agur".

Noski egon dela aldaketa handia, gai honi buruz berba egin daiteke orain, ez lehen moduan. Nik eduki ditut tabernetara sartu eta nire lagunak diana baten barruan. Gaur hori ez da pasatzen, baina ez da izan erraza; hori oso gogorra da. Zelan bizitzen den hori? Ba ez dakit, gure koadrilan zorionez egon da pentsaera diferenteetako jende asko. Ezin da inola ere bizi ondo kartolak itxita. Inozentzian

92 Giza Eskubideen Aldarrikapen Ubibertsala <http://www.un.org/>

eroso egon daiteke, baina mundua mundu denetik alde askotara begiratzeak laguntzen du diskurtoa osatzen. Zure time-line-an pentsaera bakarrek perflak jarraitzeak esan nahi du gauza bakarra: trintxeretako batean zaudela bakarrik. Trintxeretako batean egon barik, esan daiteke askoz aberatsagoa dela edozein trintxeretatik kanpora egotea, nahiz eta ez den derrigor erosoagoa.

Seme-alabak ez ditugu gorrotoan hezi nahi. Enrike Letonak espetxean idatzitako olerki batean dioen bezala, "gorrotatzen ez nuela esan nien (kartzeleroei) eta ez zidaten sinetsi". Nik ez diet motxila handitzerik nahi nire seme-alabei, eurek har ditzatela euren erabakiak. Pertsona askeetan sinisten dut. Nire seme-alabak ere bere ekintzen eta pentsamenduaren jabe izatea nahiko nuke.

ETAren jarduera gelditzeak asko lagundu du, baina pentsatzen dot aurretik jendea zegoela desietan hori izateko, uste dut konturatu zirela: "jentea guztiz lehen bezala ez dago gurekin". Euren artian ere bagenekien eskatu egiten zietela aldaketa. (...) Elkarbizitzarako lehenengo errespetua da eta gero ezagutza, pentsetan dot nik. Ez badozu ezagutzen zure aldamenian bizi izan duten egoera eta zergaitik diran holakoak, ezin duzu ulertu euren jarrera asko.

ETAk su-etena egin zuenetik gauzak asko aldatu dira, uste dut, hitz egiteko. Denok jarri dugu gehiago gure aldetik, etapa bat ixteko.

Batzuetan, gertaera jakin batzuek gizartearen ikuspegiak eta jokamoldeak aldatzen dituztela guri sinestarazten saiatzen dira modu sinplista batean. Komunikabide jakin batzuek Miguel Angel Blancoren erailketak itzuli ezinezko bide bati hasiera eman ziola ustearazi nahi izan zigutela esaten ari naiz. Gauzak ikusteko modu hori, interesatua izateaz gainera, sinplista ere iruditzen zait. Gizartearen pentsamoldea modu progresiboagoan aldatzen da, eta beste mota bateko aldaketen mende dago, besteak beste, aldaketa sozialen eta aldaketa ekonomikoen mende.

Noizbait beldurra izan dudana ala ez galdetzen didatenei, honela erantzuten diet: ba bai, eta handia gainera, noski baietz. Baina badago zerbait borrokan jarraitzea eta bizitzan zure buruari jarri zenion helburu hori lortzera bultzatzen zaituena. Nik ez dut inoiz izan batzarkide, zinegotzi edo parlamentari izateko helbururik, baina bakea lortu arte borrokatzeko helburua jarri nion nire buruari nire seme-alabak omentzeko modu gisa, bizitzaz goza dezaten eta kaletik ez diezaieten esan halakorik: "hau sozialistaren semea da, edo batasunoaren semea da". Egon daitezela bizikidetzara, bakea eta normaltasuna. Hori izan da

nire bizitzako helburua, eta gaur egun pozik sentitzen naiz helburu hori lortu izanagatik, eta erretiroa hartu ahal izateagatik. Izan ere, inoiz erretirorik hartu ezin izango nuela pentsatzen nuen garai batean.

Orain onera aldatzen ari da, modu positiboan eta oso azkar. Gustatuko litzaidake hemendik 8-9 urtera historia-liburuek esatea gutxi gorabehera 50 urtez pairatu dugun egoera hau zoritxar bat izan zela gu guztiontzat, eta gainditzeko gai izan ginela. Gizakiak ahalmen handia du gauza asko gainditzeko. Zergatik ez dugu egingo? Zorionez, egoera bizi bai, baina beste modura batera bizi izan duen gazte-belaunaldi berri bat sartu da Arrasateko Udalera. Prest daude, gainera, eta, nire ustez, burua gu baino irekiago dute. Eta beste leku batzuetan ere. Gainera, arazoa konpontzen saiatzeko borondatea ikusten diet.

Aurreko legegintzaldiak ez du zerikusirik duela hogeiturokoarekin, hau da, 1991-1995ekoarekin. Pertsonarekiko errespetuaren alorrean, aurreko legegintzalditik, bai eta honetan ere, hala izaten ari da, eredugarria izaten ari da. Aldiz, 1991-1995ekoan behin eta berriro urratzen zen hori, bortxak gertatzen ziren... Ez zuen zerikusirik. Aurreko legegintzaldian haiek gehiago absolutua zuten, eta Bildurekin harreman konstruktibo bat izan genuen, eta egin genizkien eskaera asko artatu zituzten, (...) errespetuzko jarrera bat zegoen, eta partekatu egiten zen. (...) Zergatik hori? Ba, alde batetik, pertsonak, baina, beste alde batetik, unea. Duela hogeituro urte, giltzadura-alderdi ginenez gero, gure erabakiak izan ohi ziren aurrera irteten zirenak. Hortaz, presio ikaragarria jasan behar izaten genuen gure gobernu-bazkideen aldetik, Herri Batasunakoen aldetik, alegia.

Zaborren auziak adibide gisa balio dezake. Bilduk atez atekoa ezartzea erabaki zuen, eta beste udalerririk batzuetan ez ziren akordio batera iritsi. Hemen, berriz, mahaibat sortzeko eta iritziguztiak jasotzeko aukera eman ziguten, eta adostasun batera iritsi ginen. Proba bat egiteko akordioa sinatu genuen, guk defendatzen genuen aukera bederatzi hilabetez gauzatu ahalizateko. Hor argietan garbi ikusiz hori, eta biktimen ere antzeko zerbait gertatzea gustatuko litzaidake. Jendea hondakinak nola bereizi behar zituen irakasteko, prestakuntza-jardunaldi batzuk egin genituen auzoetan, eta interes handia piztu zen. Zenbait hitzaldi errepikatu ere egin behar izan genituen. Gatazka hura konpontzeko batasun bat zegoela ikusi zuten herritarrek, eta herriak babes osoa eman zigun gero. Hasieratik helburuak lortzen joan ginen gainera. Bederatzi hilabetez? Ez zer beharrezkoa izan. Bigarren hilabeterako jada helburua lortua genuen. (...) Herritarrek adostasuna bilatu nahi dute, batzuen eta besteen arteko tirabiren gainetik.

Mugimendu feministan hasi nintzenean, ezker abertzaleak hemen behintzat, ez zeukan indarrik, feminismoa ez zen borrokatzeko prioritate bat. Gaur egunien ezker abertzalierik barruen duten emakume mugimendua super potentie da, oso

zentrauta dago niretako. Jende gaztie, halako gauzak beste era batera egiteko, botere horrek alde batean izteko, transbersalidate horrekin eiteko, apurtzeko hainbat patroiek.

Oro har, ikusten dut giroan urratsak ematen ari direla eta jende bat ari dala Ezker Abertzalean, gertatu denaren berrirakurketa bat egiten. Ez dakit zenbate-raino biolentzia polizialaren arduradun izan direnak edo hoiak apoiatu dituzte-nak ari diren reflexio bera egiten, hor zalantza gehiago ditut. Ikusten dut Ezker Abertzalean halako errebisio bat egiten ari den jendea. Nik neuk nahiko nuke, hori are sakonagoa izatea. Baina uste dut, Ezker Abertzalean badagoela batetik gogoeta pragmatiko bat, bai, eta gero, gogoeta etiko bat. Zer da handiagoa? Ba, uste dut, denetik egongo dela. Nik nahiko nukeena da gogoeta etiko bat egotea. Susmoa dut gogoeta pragmatikoa nagusia izan dela, borroka armatuaren bukae-ran; hau da, ez du funtzionatzen, gure kalterako da, ta goazen taktika aldatzera.

BIKTIMEN ARTEKO HURBILKETA

Azken boladan, biktima ezberdinak elkarrekin agertzen diren irudiak ikusten hasia da euskal gizartea, baita Arrasateko herria ere. Hain zuzen, iragan hurbilean ezinezkoak ziruditen eskenatoki berriak sortzen ari dira. Ildo honetan, indarkeria mota ezberdinen eraginez, urrunduta bizi ziren biktimen arteko hurbilketa errazteko zubiak eraiki dira; batzuen zein besteen samina eta hutsunea berdina baitira.

Hemen jasotakoaz gain, Sandra Carrasco eta Olatz Etxaberen artean, duela urte eta erdi burutu zen mahai inguruari atal propio bat eskaini zaio, solaskide gehiengoan sortu duen arrastoa dela eta. Izan ere, testigantza guztien amaieran kokatuta dago, nolabait nabarmendu asmoz; bi emakumeon arteko topaketa hori eredugarri bihur daiteke eta, Arrasateko bizikidetzaren berrosatzeko prozesuan.

Memoria Plaza izan zala eta, bai ezagunak eta bai ezagutzen ez nautenak: "Oso ondo, eta eskerrik asko" esan zidaten. Baina, fuertea Sandrari entzutea izan zen, beste alde hori entzutea eta eurentzako ze gogorra izan zen entzutea. "Gure aldekoak" Sandraren testigantza gordina entzunda, "Ostras, ze gogorra" esan zuten. Ze berak kontatzen zuen ba: "Lagunik ez nuen" eta horrelako gauzak entzutea jende asko hunkitu zuen.

Hitz eginez, ikusi nahi ez nituen gauzak ikusarazten laguntzen didan pertsona bat ezagutzen dut. Beste aldeko gauzak ulertzen hasia naiz. Ez dakit ondo azaltzen ari naizen, nik normalean bando hitza erabili ohi dut... Bai, esan dezagun ezker abertzalearen inguruko pertsona bat dela. Pertsona horrekin hitz egiten hastearrekin batera, gauzak beste modu batera ikusten hasi naiz, eta, beste pertsona baten lekuan jarrita, gauzak hobeto daramatzat, nire burua sendatzen

hasi naiz nolabait, amorru hori desagertzen ari da. Pertsona horrek bizi izan duenak ez du zerikusirik nik bizi izan dudanarekin. Niri gertatu zaidana erailketa bat izan da, ETA izan da nire aita hil duena, eta niri nireak ematen dit min, baina hark, adibidez, beste gauza batzuk bizi izan ditu agian.

Nik ezin diot esan ezetz, nirea nirea dela, eta zureak ez duela ezer balio. Ez, bereak ere bere balioa duelako. Esaten zidan bere aitak ere agian sufritu duela, torturatu egin dutela ... Ostia, zure samina nik daukadan samina ere bada. Lehen ETAREN biktimak ikusten nituen. Niri GALen biktimak eta bestearenak ez, zeren eta ez. Nik nirea. Orain bai. Iristen da une bat zure buruari hau esaten diozuna: ez, heriotza bat da, berdin-berdina. Heriotza horren atzetik, erailketa horren atzetik, sufritzen duen familia bat dago. Txipa aldatzen saiatzen naiz orduan, amorrua desagertuz doa, eta lehen entzun nahi ez zenuena entzuten duzu. Min handiagoa ala txikiagoa eman diezazuke, baina ulertzen saiatzen zara. Horri guztiari esker... horrek lagundu dit niri (...) Eta ni ere harritzen nau. Olatz ni bezalakoa da, aita hil zioten pertsona bat. Ez da hiltzailea. Desberdina da. Abertzalea den horrekin nola hitz egin dezakedan ere esaten didate eta... Ba, hitz egiten dudalako. Hau egingo ez banu, hitz egingo ez banu, amorruez beteta egongo nintzateke, ezingo nuke aurrera egin nire eguneroko bizitzan, zeren eta hor egongo nintzateke, geldirik, duela urte batzuk bezala, pankartak kentzen, haiek probokatzen eta ... ez. Hori da nahi ez dudana.

Badago jendea pentsatzen duena ETAK eraildako pertsona baten alaba izateagatik, nik ez diodala entzungo "nire aita torturatu egin dute" pentsatzen duen beste norbaiti. Nik entzungo ez diodala pentsatuko dute agian, niri zure aitak bost axola pentsatzen dudala, baina ez, ez. Guztiz kontrakoa da. Nik horrela ikasi dut, ez diozula soilik zureari entzun behar. Ni biktimen omenaldietara noa, eta han ETAREN biktimei entzuten diezu batez ere, baina nik ez daukat arazorik norbait etorri eta hau esaten badit: "Ba, GALek nire aita erail zuen". Gogorarenera joan naiz, Donostian izan naiz, GALen biktima zen neska batekin eseri naiz, uste ez nuen jendearekin... baina badakit entzuten, badakit entzuten eta badakit hitz egiten. Elkar uler gaitezke. Pentsaera desberdinak ditugu, baina nik badakit entzuten. (...) Niretzat, oso esperientzia ona izan zen, orain arteko esperientzietatik onenetarikoa. Kaleko jendearekin haien bizipenak, esperientziak partekatu ahal izatea, eta zuk zure gauzetaz hitz egin ahal izatea... Niretzat oso atsegingarria izan zen mahai horretan hitz egitea. Eta alkatesarekin egotea ere tokatu zitzaidan eta nire buruari galdetzen nion: zertaz ezagutzen dut nik emakume hau? Gero esan zidaten alkatesa zela. Eta ez dut nire herriko alkatesa ezagutzen!

Uste genuena baino abiadura askoz ere azkarragoan ari gara hau egiten. Nik egunero partida bat jokatzeko dut, "igo eta jeitsi" du izena, nire lurreko gauza bat da, oso karta-joko polita, oso kabroia delako. Joko horretan bestea txikitu behar duzu, eta gure hika-mikak eduki ohi ditugu. "Ez dut zurekin gehiago jokatu" eta

horrelakoak esaten dizkiogu elkarri, baina hurrengo egunean berriro han gaude. Beno, ba elkartu egiten gara, eta, begira, ni Bilduko jendearekin jokutzen dut orain. Eta lehen hori ezinezkoa zen. Eta lagunak gara, nik laguntzat daukat.

Nire senarrak jadanik barkatu egin zien, nahiz eta inork barkamenik eskatu ez. Baina barkatu egin zuen. Eta nik ere bai. Ahaztu ez, baina barkatu bai.

Oso ongi iruditzen zait. Zentzu horretan egiten diren gauza guztiek, nahiz eta oso izaera sinbolikoa izan, arrastoren bat uzten dute. Oso positiboa iruditzen zait, batzuek eta besteak kontura daitezen hori beharrezkoa dela. Esate baterako, oso positiboa iruditzen zait Gipuzkoako gobernadore izandakoaren emazteak, Maixabel Lasak, egindakoa. Azkenaldian gertatu den guztia ikusita, nola biziko gara gizarte honetan elkarri zuzenean begiratu gabe? Nik uste "Patria" liburuak oso ongi islatzen dituela batez ere biktimen familietan egon litezkeen sentimenduak.

AUKERAK

Txosten honetan luze jorratu dira iraganeko elementu ezkorrak, hildakoak, samina, urraketak, biktimak, bereizkeria... Jakina, horiek guztiek etsipena sustatzen dute. Oraingoan, berriz, geroa eraikitzen lagundu dezaketen elementuak biltzen dira, aukera berriak, alegia.

Oro har, elkarrizketatuek indargune eta aspektu ugari azpimarratu dute, beti ere baikortasunerako jarrera erakutsiz nola edo hala. Besteak beste, emakumeon parte hartzea aipatu da, baita ere elkarrizketa, barkamena, gertuko begirada, norbanakoaren prestutasuna, belaunaldi berriak, printzipio etikoen oinarria eta abar.

Adiskidetasun batera iritsi nahi bada, gure ustez, funtsezkoa da hartara hitz eginenez eta elkarren artean barkatuz iristea, kostatu arren. Bakoitzak bere ideiak defenda ditzala arrazoiak erabilia eta bake-gogoz. Baina gorrotorik eta ezinikusirik gabe bi aldeetatik. Ez dute soilik alde batekoek egin behar, izan ere, bada-kigu hildakoen guraso eta anai-arreba izan direla beste batzuk ere, eta haiek ere sufritu dutela. Baina egia azaltzeko orduan, azaldu dadila egia.

Alde onarekin jarraituz, nik uste det hor badagola, nik nire aitaren detaile horretan aipatu nuen humanismo kristau horren hazia. (...) Eta momentu honetan gizarteak asumitzen duela, badirela printzipio etiko batzuk ezin direnak ikutu, eta hori, nolabait, gero eta gehiago barneratzen ari garela. (...) Behar bada alde-rik onena, (...) memoriaren eta sufrimenduaren ikuspuntu horretatik.

Denborarena, uste dut memoriatik lantzeko, tesi baterako ematen duela, seguruenik. Uste dut pausu berriak eman direla; Carrascoz jardutea orain dela hamar urte eta orain dela urtebete, bi Carrasco dira eta bi berba egiteko modu dira. Eta jendea ez da ahaztu. Gainera uste dut eragin behar dela ez ahaztea, Etxaberen kasuan bezala, nahiz denboran luzeago joan eta horrek zaildu egiten duen memoria freskoa edukitzea. Gure lana da horri eustea. (...) Kanpoko fokua-rekin Arrasate ez dakit zer izenekoa den, baina Arrasate beldurgarria izango da askorentzako, baina ez da gertuko fokua-rekin hori ikusten. Bestelako Arrasate bat bada eta hori (...) ikusten du distortsionatuta beste esfera batzuetan egon daiteken jendeak. Gertuko hedabideetatik diferente ikusten da. Ikusten dugu beste maitasun batekin eta seguruenik interesgarriena hori da niretzako, foku txiki eta zentratuago horren begiradapean lantzea gauzak. Esango nuke hori dela lantzeko modu beroena edo humanoena edo afektiboena.

Sufrimendua gizarteratu nahi zuela zioen jende horrek lortu egin zuen bere helburua, jende askoren laguntzarekin gainera. Hori da nik faltan bota dudan gazetako bat. Noski, nik ahal dudan guztia lagunduko dut prozesu honetan, normaltasuna erabatekoa izan dadin, baina ez dut mundu horren keinurik ikusten, ez dute esaten "ba, bai, oso gaizki jokatu dugu, familia askoren bizitza suntsitu dugu, hil egin dugu, estortsio egin dugu...". Eta une batean hau esatea eskatuko nieke: "Ba bai, aizu, oker geunden, gaizki jokatu genuen. Min asko eman dugu. Barkamena eskatzen dugu". Zer egingo dugu gizarte hau berriro ere bakean bizi dadin eta oraindik ere arazoak dituzten gure seme-alabek ez dezaten arazorik izan, "harekin ez zaitetz joan, haren seme da-eta" esaten dietelako. Horrelako gauzak zuzendu egin behar dira. Ni pozten naiz halako ekimenak martxan jartzeaz, nahiz eta, agian, nire baitan, gorputzak ezetz esateko eskatuko lidakeen, baina... ez.

Ezinezkoa da nik maskara bat jarri eta gertatu den guztia ahaztea. Ez diot inori nire etsaia dela esango, egon diren arren, eta ezinezkoa izango da hura eta ni elkarren artean enpatizatzerara iristea. Gure seme-alabak, gure bilobak, haiek izango dira hori egingo dutenak, baina gu... Gure seme-alabak hezten lagundu behar dugu, ez ditzaten gure akats berak egin.

Partido guztitako emakumiek zeuden Ahotsak-en, PP kenduta, besteai entzuteko, bestiena ulertzeko, enpatia hori sortzeko. Leloa zan "Batzen gaituenetik..." Ariketa ona zan. Emakumeok bakearen aldeko eragile eta subjeto aktiboak izan behar genuela aldarrikatzen genuen. (...) Batzuek esango dute, bai, baina hori bertan behera gelditu zan eta ezetarako ez zun balio... Uste dut gure artien oso baliagarria izan zala. Hamen egon zan Zabaleta pare bat aldiz eta ahalegin hori eiten dozun einien ikasten dozu, ez baduzu eiten ez dakizu... Lortu genuen jende anonimoa, ez zagoela momento hortan ez partidu politiko baten, ez mugimendu sozial baten. Uste dut eredu bat dala.

8.4 MEMORIA ETA ETORKIZUNA

Giza eskubideen urraketak eman diren edozein testuingurutan, biktima ugari eta gizartearen baitan zauri sakonak eragin dituen iragana nola kudeatu izan ohi da erronka nagusietako bat. Geroari begira, adituek diote atzean utzitako sufrimendua behar bezala gainditu ahal izateko, halabeharrezkoa dela iragana ez ahaztea, baina ez oroi-men samingarrietan kateatuta geratzeko, horietatik irakaspenak ateratzeko baizik.

*Iragana berreskuratzea ezinbestekoa da; horrek ez du esan nahi iraganak gidatu behar duenik oraina, baizik eta alderantziz, honek nahiago duen erabilpena egingo du iraganaz*⁹³.

Alabaina, indarkeriazko iragana kudeaketari eusterakoan, hainbat galderari erantzun beharra azaltzen da berehala: zer eta nola gogoratu, zergatik eta zertarako partekatu alde anitzez osatutako memoria(k), nork eratuko memoria partekatua, zertan oinarritu memoria, nola bideratu belaunaldi berriei transmisioa, zer irakatsi eskoletan, noiztik hasi kontakizunaren abiapuntua, nolako abiadan joan,... Galdera sorta horri erantzuna bilatu nahian jaso dira ondoko pasarteak.

8.4.1 OINARRIZKO OSAGAIAK

Sarritan, galdera soilenak, baina aldi berean muinera doazenak, bilakatzen dira konplexuenak erantzuteko garaian. Hala dirudi, jasotako iritzien arabera, memoriaren funtsezko osagaiez mintzatzean, alegia, zein zutaberen gainean eraiki behar den memoria galdetzean.

Nik nahi dudana zera da: ehundaka eta milaka pertsonak asko sufritu dugula aitortzea, ez Udalak, Estatu osoak baizik (...) Politikaren munduko pertsonak, eta mundu horretakoak ez direnek. Dena da posible, nahi izanez gero eta borondatea baldin badago. Ez dadila soilik izan sektore batentzat, baizik eta izan dadila irekia eta plurala. Nire posiziora edo arerioaren posiziora desbideratzen bagara, oker gabilta. Eta nik uste dut oraindik ere horretan gaudela, alde bakoitzak bere eremura eraman nahi duela auzia. Hori da gainditu behar duguna. Gauza asko onartzeko gai izan behar dugu. Kosta egingo da, baina ez da ezinezkoa. Botere publikoek lor dezakete, guztiak. Tokikoak, erkidegokoak, forukoak. Egin dezakete. Eztabaida asko, elkarrizketa asko behar da ... eta guzti-guztia aitortzea. Indarkeriazko mundu batean egon gara, eta orain gizartea bakerako hezi behar dugu, ez indarkeriarako. Ahaztu ez dezaten.

93 TODOROV, Tzvetan, (2008), *Los abusos de la memoria*. Bartzelona: Paidós.

Egi guztiek bere lekua eduki behar dutela uste dut. Eta bakoitzaren egi hori, kontatu nahi duenari entzun egin behar zaiola. Gertaera objektiboen ondoan tripak hainbeste nahastu dizkigun egoera bat dagoelako, ezin da txosten objektibo bat bakarrik sortu. (...) Nik oraindik ezin ditut nire memoriako pasarte batzuk kontatu. Akaso zirrara gehien eta niretzako izugarri gogorrak izan diren pasarteak dira. Baina beldur naiz.

Nik uste dut zerbait egin behar dela, bai, baina ez dakit non egin behar den. Agian Udalak egin behar du? Ba agian bai. Errenteriako Udalak, esate baterako, egin du eta niri oso ongi iruditzen zait hori. Alkatea inplikatzeko lehena izan da. Gustatuko litzaidake Errenterian egin denaren antzeko zerbait Arrasaten ere egin ahal izatea. Errenteria eta Arrasate elkarren artean antz handia duten bi herri dira. Nolabaiteko antzekotasunak dituzte. Niri Mendozarena iruditzen zait... Eta batez ere, zer duintasunarekin ordezkatzeko dituen guztiak. Hori da niri iruditzen zaidana ... Oxala horren antzeko zerbait izatea, ezta?

Pasatutakoari lurra bota baino, behar zaiola atera esango nuke eta hori dela, besteak beste, memoria erakundeen lana edo hedabideon lana ere bai. Esatea, zeudela lau guardia zibil hilda hemengoak zirenak, zeudela Salamancako beste bi hil zituztenak, edo Etxabe hil zutela modurik barbaroenean eta gogorrean.

Herrigintzan landu beharko zen gaia baina zaila da, bi alde oso polarizatuak daudelako. Baina bueno goitik izan beharrean askotan, behetik gora. Azkenean horrek dauka indarra, ze zorionez askotan gizartea politikarien aurretik doa.

Anaien arteko gudek zertarako balio ez duten ere kontatu beharko litzateke, eta hori ere, gorrotoak hain zuzen ere, kontatu beharko lirateke.

Zeren eta askok eta askok ez dute aitortzen. Non daude Bilduren Errenteriako alkatea bezalako kideak? Niri txalogarria iruditzen zait hark egin duena. Eta Arrasaten zer, ez dago zer esaterik? Suposatzen dut Arrasateko udalbatzan (txosten) hau egitea bultzatu duten unetik, zerbait izango dutela esateko, batez ere, egoera hori babesa eman diotenek. (...) Zerbait egin dezake Udalak? Mundu guztiak egia esaten baldin badu, bai. Eta mundu guztiak bere erruak ere aitortu eta autokritika bat egiten badu. (...) Alderdi bakoitzak hausnarketa oso bat egin beharko luke, eta aitortu beharko luke hau ez genuela ongi egin, beste hau isildu egin genuela, beste hau gaizki egin genuela ...

Momentu baten agian nire sensibilitadie gauza batzundako haundiago izango da eta zurea beste gauza batzundako, baina giza eskubideak beti argi euki behar ditugula, edozein momentutan, edozein pertsonendako eta marra bat non jarri ikasi ein behar dugula, gaztiendako oso interesgarria dala. (...) Neuk pentsetan dot pedagogia egin behar dugula, denon artien, kontzientzia hori sortu ein behar dugula. (...) Biolentzia inguruan hamen Arrasaten egon zan Ahotsak eta uste dot oso interesgarrixe izan zala. Ez genun lortu Arrasaten PPko emakumiek sartzie, ez genun lortu. PPko zinegotzi batekin, Itziar Lamarain, kriston harremana euki dugu, gaur egunien hartuko neuke pote bat berarekin inungo problemarik gabe.

Gure politikariek egin behar duten reflexio etikoa askoz sakonagoa izatea gustatuko litzaidake neri, bai. Danak. Ezker Abertzalekoak, uste dut gai honetan, gehiago. Beste gauza batzutan, igual Ezker Abertzaleak eukiko du afinazio hobea, ezta? Baina nik uste dut, Ezker Abertzaleari, ta hau ez da oso politikoki zuzena, gehiago eskatu behar zaiola, bai, nik uste baietz. Isaias Carrascoren gertatu bada eta orain dela 6 urte, zu ari bazinen ekintza hori apoiatzen, zuri eskatu behar zaizuna eta garai hartako PNVko bati eskatu behar zaiona ez da berdina. Ezin diegu danei gauza bera eskatu, ze Ezker Abertzaleak bide luzeagoa egin behar du. Hori nik uste dut batzuek egin dutela, benetan uste dut batzuek egiten ari direla. Baina arriskua dago Ezker Abertzaleko, esan dezagun, gehiengoaren masa joatea pragmatismotik; aldatu du taktika, ba aldatu behar zelako, baina arrazoia geneukan. Ez dakit zenbateraino asko eskatzea den edo prozesu indibiduala den, baina ze interesgarria den rebisatzea zertan ez neukan arrazoia, begiratzea zure atzera eta ikustea zertan nengoen oker. Oso gauza sanoa dena. Nik, behintzat ez det esango asko disfrutatzen ari naizenik horrekin, sufritzen ere bai, baina ni ari naiz hori egiten, zertan sartu nuen hanka, zer egin dut gaizki.

Nik uste dut Udaleko elkarbizitzarako mahaiak erraztu egin dezakeela, bai. Gertatzen dena da hor gero faltako litzatekeela mahai hori kaleari transmititzeko gai izatea. Zeren eta zortzi alderdi desberdin elkartu gaitezke hemen eta gure ezak eta baiak izan ditzakegu gure artean, oso zaila delako. Baina kaleari transmititzeko gai izango gara? Oxala honek balio izatea ... Nik uste baietz. Nik Errenteriako txosten hau irakurri dut eta asko gustatu zait. Hala ere, liburuxkan islatuta geratuko da soilik ala kaleko jendeari transmititzeko gai izango gara? Niretzat hori izango litzateke kezkarik handiena.

Oso inportantea da jakitea gerra pasatu zutenaren historia eta beitu, hiltzen ari dira, pena bat da, ez dago jasota, oin hasi direlako jasotzen. Zenbait esperientzia, audiobisualak, elkarrizketak, pelikulak, ez dakit, hori da... primordial. (...)

Pentsetan dot egin behar dala azaldu momentu haretan nola bizi izan gendun hori: "gorrotoa izan nuen, baina konturatu nintzen horrela ez nintzela inora be joango, edo oztopoa ez izan nere bizirako, ez nauan barruan bakea sentitzen...". "En plan positivo".

Memoria, batik bat, hausnarketarako gai bat da. Izan ere, bozeramaileen mahaia dago, eta handik, nolabait, irten behar du, han forma eman behar zaio... Uste dut ezin dela puntu gehiegirik egon, nire ustez, bi edo hiru gehienez, etorkizuna nolabait ziurtatu eta bermatu ahal izateko jadanik, eta ez gaitzezen berriro ere egon den indarkeria horretara itzuli, ez dadin ahaztu eta, gainera, ikasteko balio dezan. Bi ekintza, bi jarduketa-ildo horiek dira, nolabait, herritarrekin praktikan jarri behar direnak. Nola? Nik zatika egiten jarraituko nuke, auzoka, zonaldeka, haiei ondorioak jakinaraziz, lan dibulгатzaile bat eginez. Nik uste liburu honek dibulгатzailea izan behar duela, inork ez dezala esan: Ala! Liburu bat da, eta apalean jarriko dut. Ez. Horrelako liburu bat egin izana nahikoa da guztiak bata bestearen atzetik joan gaitzezen gure ikuspegiak eta ekarpenak egitera. Aurpegia jarri behar zaio eta, nolabait, gizarteari nola aurkeztu pentsatu behar da. Hemen, ziur asko, egoera orokorra zein den ikustera iritsiko gara, eta hori garrantzitsua da, baina beste testigantza batzuk ere izango dira eta ona litzateke horiek jasotzea aurkezpen horiek egiten direnean. Baina horiek egitera iritsi behar dugu.

8.4.2 NOLA GOGORATU. ERRELATO(A)K.

Iraganeko gertakari traumatikoak gaur egunera ekartzean, oroimen eta bizipen anitzak nahaspilatzen zaizkio edonori, norberaren bizitzatik eta bere testuinguru zehatzetik jasotakoak, hain zuzen. Horrexegatik ez da hain erraza adostea, zer eta nola gogoratu, herri mailan edo jendarte zabalean. Beste horrenbeste esan daiteke, horren ondorioz eratzeke dagoen kontakizuna edo kontakizunak osatzea. Hala ere, solaskide guztiak, nola edo hala, bat datoz egia guztiak azaleratzearen beharraz eta horrek duen garrantziaz. Batzuen zein besteen egiak bere gordinen biltzea, hots, giza eskubideen urraketa guztiak mahai gainean jartzea ezinbestekotzat jotzen dute, iraganeko orrialdea taxuz pasa ahal izateko, denon aldetik.

Isaias Carrascorena izan zan ikaragarria. Orduan ere bai, baina orain, 2017an, dauka eta izan behar du lekua. Nik semea daukat 17 urtekoa, bi seme, adin hortakoak. Niretzako Isaias Carrasco datu inportantea da bailara honetan, bailara honetako gazteentzat. Zergatik? Nik ikusten dut, nire semeak, (...), ba normala den moduan, "Antolatu dugula autobusa joateko urtarrileko errege inguruan egiten den presoen aldeko manifara" eta semeak badoaz Bilbora. Baina nik semearekin euki dut elkarrizketa hau, esanez: "Ixak, bale, ondo dago, presoen

eskubideak, joan Bilbora. Orain, Ixak, jakin, hemen duela oso urte gutxi, zu hemen korrika zenbiltzala 10 urterekin, Arrasaten hil zutela pertsona bat tiroa buruan emanda, bere alaba jeitsi zela kotxera eta gertatu zala hor. Gu, orain dala sei urte bizi izan ginen auzo horretan". Nolabait esanda, "Ari zara, nolabait, presoak babesten. Ondo dago. Baina hori egin duen mugimenduak, tiro bat eman zion Arrasaten, autopistako kobratzaile bati. Jakin, bi horiek hor dau dela". Pentsatzen dut zer pentsatua emango niola. Pixkat nire aitak egin zuena Carrerorekin, esatea, "E, txist!, ez utzi giroak eramaten, begiratu sakonago, eta gero zuk ikusi". Horretan da, niretzako, Isaias Carrasco, oraindik ere egon behar duela presente hemen.

ETAk bere jarduera amaitu du. Bere ekintzek sortu duten kaltea onartu du. Errespetua adierazi du biktimentzat. Batzuentzat ez da nahikoa izan. Baina hori adierazi dutenei ez diet entzun tortura praktikatu duten polizia, guardia zibil eta ertzainak epaitegi aurrean ikusi nahi dituenik. Edo hori praktikatu eta agindu duten agintari eta gobernuek barkamena eskatu beharko luketenik. (...) Altsasukoak eta Manada auziak argi erakusten du nork daukan boterea. Lau mila tortura kasu frogatutzat eman dira. Zenbat auzipetu eta kondenatu eza gutzen ditugu?

Esango nuke ezkutatu ez dela egin behar, hori da basikoa. Galdera guztiei erantzuna topatzen saiatu behar dugula eta ezin badugu erantzun, esan ezin dugula erantzun, baina hor zer edo zer badagoela. Ez dakit osatuko dugun sekula errelato famatu hori. Bakoitzak bere egiak eta egi asko egongo dira seguruenik. Nik uste dut ahal den gehienak erakutsi behar direla, ahal den eta modu zabalenean. Egia da garaiak aldatu direla, baina norbera ez badago jantzita, zer transmitituko du, trintxeraren alde bateko atal hori edo bestekoa? Oinarrizkoa transmisioaren aurretik jantzita egotea da. (...) Egitekorik zailenetarikoa heziketan dagoela uste dut, kulturean.

Nik ez dut uste gertatutakoaren errelato bat edukitzeko Eusko Jaurlaritzaren lana oso erabilgarria izango denik. Izan ere, niri iruditzen zait jende independenteak egin behar duela lan hori, hau da, arlo bakoitzean adituak direnek egin behar dutela. Mota guztietako zer ondorio ekarri ditu indarkeriak hainbeste urtetan zehar? Ikuspegi ekonomiko batetik, gizarte-alorrean, pentsamenduaren alorrean ... Hori da modu bakarra ondorengo belaunaldiek zer gertatu den jakin dezaten eta halako gaiak alde batera utz ditzaten.

Uste dot kontatu behar dala gertatu den dana. Ahal danik eta gehien, ikuspuntu desberdinetik. Egongo dira pertsona batzuk gauza berdina era baten begiratu

zutela eta besteak bestean eta sentimentu desberdinak (dituztela). Danak egin behar dugu esfortzu txiki bat azaltzeko. Ulertu be ez daue egingo, ze askotan esaten daue: “¿Franco? ¿Un militar pequeñito?”, “Pequeñito pero matón”. Gura dot esan gazteak pasau egiten dutela. Pentsetan dot memoria hori ezin dala galdu, gure historia dela, gure historia inportantea gainera. Min asko sortu dauena. Uste dut izan beharko litzakeela derrigorrezko gauza bat, azaltzea gazteei. Hortik ikasiko zutela gauza mordo bat, ikusita zer pasatu zan.

Nik usteut, gure papera, biktimen pedagogia egitearena izan behar dela. Guri gertatutakoa kontatzea, gure errelatoa kontatzea. Nik uste dut, Gogorak eman duen pauso hori, inportantea... Historia kontatzea, nundik datorren gatazka... Eta hori badakigu, bakoitzat bere bertsioa, errelatoa kontatzen du baina nik uste dut inportantea dala testigantza personalak ematia... Pertsonak, herriko jende normala, ze pasatu duten, ze sentitu duten; alde pertsonal eta emozionaletik. Historiak esango du nork idazten duen errelatoa baina errelato asko daude eta denak kontatu behar ziren. Alde baten ta bestien akatsak, pixkat autokritika egin, bai alde bateruntz bai bestera ... Nik uste dut dena azaleratu behar dela, gertatu da, egon dira bi errealidade, bakoitzak bere ardura du, baina biak izan dira gogorak eta bakoitzak bere egia dauka. Egia ez badago, beste guztiak egitea zaila da, berriz ez gertatzeko bermatzeko eta gizarteak eskubidea daukalako hemen gertatutako dena jakiteko.

Nik hau guztia amesgaizto bat balitz bezala bizi dut. Zorionez, esnatu eta konaturatzen zara amesgaizto bat izan dela, ezta? Herri honen bizitzako etapa honetan ez dugu atzera begiratu behar, aurrera baizik; txarra izan den guztia ahazten saiatu behar dugu, egondako biktima guztiak ahaztu gabe. Eta guztiak diot, aizu! Baina geratu dadila anekdota bat izan balitz bezala. Historiak onartu beharreko zerbait bezala, ikas dezagun zer den egin behar ez dena. Zer egin den gaizki ikusi, eta horrelako gertaerarik ez dadin gehiago gertatu (...) Nik hondoko oihala jaitsi ahal banezake iraganean zer gertatu den gehiago ez ikusteko, ziur asko oso ongi sentituko nintzateke, oso zoriontsu eta oso pozik. Baina ezinezkoa da. Belaunaldiak pasako dira pairatu dugun sufrimendu hau guztia ahaztu arte. Belaunaldiak. Eta begira zeinen azkar goazen, aizu! Abiadura ikaragarrian goaz. Hainbeste sufritu ondoren, ikusi nola gauden... Abiadura ikaragarrian goaz. Beno, ba hala ere, oraindik ere belaunaldiak beharko ditugu.

Adibidez, testigantza honek, liburu honekin egiten ari garen ekarpen honek horretarako balio beharko luke, hau da, arrasatearrei informazioa eta ezagutza emateko. Hor alde bateko zein besteko biktima guztiak agertuko dira, etab. Eta hori aprobetxatu behar dugu guztion artean familia horiei, pertsona horiei, biktima horiei, gure aitortza, sentimendua helarazteko, eta gure babesa adierazteko.

Gertatutakoa nola gogoratu behar den? Akats bat izan zen ... ETArene. Akats bat izan zen, horregatik, erakundea zatitu zenean ez nintzen haiekin sartu eta orain ere esaten jarraitzen dut. Akats bat izan zen, hasiera-hasieratik. Ulertzen dut akats horiek ez direla berehala aitortzen, baina aurretik izan zen beste erakunde armatu bat 1980. urteraino baino zertxobait gehiago iraun zuena, baina ETA politiko-militarra orduantxe desegin zen.

Nik uste dut hasi beharko ginatekeela, ez Euskadin gertatu denarekin, baizik eta zergatik bizi izan den Euskadin bizi izan den egoera, erroetatik hasi beharko litzateke. Nik uste dut erroetara joatea litzatekeela memoria pixka bat egiteko modua. Zergatik sortu zen ETA, oker ez banago, 1950. urtea baino geroxeago? Nola sortu zen ideia hori? Nire ustez, estatu-mailan nahiz Euskadin zegoen errepresioagatik sortu zen, diktadura batengatik. Inposatu diguten diktadura batengatik hasi zen, ezin baitugu ahaztu estatu-kolpe bat izan zela, hau da, Francok estatu-kolpe bat eman zuela. Diktadura bat inposatu ziguten, gureak ez diren bandera batzuk inposatu zizkiguten. Hori horrela, nik uste ondorengo belaunaldiei Euskadin zer gertatu izan den kontatzenetik hasi beharko litzatekeela, ez bakarrik kontatu ETA zegoela eta jendea hiltzen zuela ... Nik diktaduratik hasi behar dela uste dut, bai horixe. Zeren eta ETari buruz hitz egin diezaiekezu, baina bai eta Tiple Ari edo GALi buruz ere, bi alde zeudelako.

Eta esan dezakegu ETA kontrolatu gabeko talde bat izan zela, baina oso fuertea, oso gogorra iruditzen zaidana da Gobernutik beste ETA bat sortu izana, hots, GAL. Hori oso fuertea iruditzen zait. ETArene kontrako talde bat zen, baina nola-bait herriaren ordezkari ziren batzuek sortu zuten GAL, hau da, herriak aukeratutako batzuek. Etorkizuneko belaunaldiei, nire ustez, horretaz hitz egiten hasi behar diegu, errepresio bati buruz, perspektiba handiagoarekin.

8.4.3 MEMORIA PARTEKATUA

Zenbaitentzat utopikoa da, beste askorentzat beharrezkoa. Nolanahi ere, memoria partekatu baterantz abiatzea edota bide horretan ahalegintzea, merezi duen helburu bat da elkarriketatuetako gehienontzat, zalantzak zalantza. Sufrimendu motak, ibilbide pertsonalak eta ikuspegi politikoak desberdinak izan arren, memoriaren bilaketa hori partekatzeko bidea bera jorratzea ere bada helburu, azken batean.

Memoria partekatu bat osatzea? Niretzat saiakerak merezi du. Nik uste dut prozesua dela interesgarria kasu honetan, egin behar dena da ibili. Kendu esku freno eta ibili. Hainbat jende ikusten dut oraindik traban, autoarekin geldi, batzuk bazterrerago eta besteak erdirago baina traban. Uste dut momentua dela eskuko freno kentzeko.

Biktima zuzenak izan direnen memoria soilik egin behar den? Ez, ez, memoriak kolektiboa izan behar du.

Nik uste lan horrek partekatua izan behar duela, guztion artekoa. Horretara iristeko, agian batzuek besteek baino gehiago egin beharko dute, baina eza-gutza hori, heziketa hori eta kultura hori barneratu behar ditugu. Eta bakoitzaren egiak, guztion egiak ezagutzuz egin behar dugu. Entzuten jakin behar dugu. (...) Batez ere, alderdi bakoitzak alde bakarretik ateratzen dituen mozio jakin batzuetan. Indarkeriaren gaiari buruzko mozio horiek guztiak modu partekatuan egin beharko genituzke.

Nik zalantzak ditut memoria bakar bat dagoenik. Oso zaila izango da guztion arteko memoria partekatu bat egitea. Nik uste gehiengoak, eta berriz diot, gehiengoak, partekatutako memoria baterantz joan beharko genukeela, eta horren aurretik jarri beharko litzateke nahi duguna dela guztiok leku berean bizitzea. Gehiengo sozialik ez badago, ez dago ezer. Gustatuko litzaidake mundu guztia joatea, baina nire ustez beti egongo dira joan nahiko ez dutenak. Irakurketak egin behar dira, eta gertatu denaren inguruko irakurketa bat izango du bakoitzak. Izendatzaile komunetako txikienak ateratzen nola joango garen ez dakit, zeren eta lan horrek, orain, gainditu egiten nau. Denbora gehiago beharko nuke.

Zertarako nahi dugu kontakizun bat? Kontatzeko besteei zeinek irabazi dien? Horretarako ez. Zein da helburua? Benetan hemen gertatu denaren jakintza orokor bat izatea. Herriaren bizikidetzarako tresna. Bakoitzak du bere egia, gertatutakoaren errelato propioa. Ezin izango da liburu bakar batean guztia nahastu, baina liburutegietan liburu askontzako lekua dago. Historiografiak erabiltzen dituen irizpideak errespetatu beharko ziren, gezurrak alde batera utziz.

Nola idatzi memoria oraindik itxi gabe dagoen zerbaitena? Zertzelada batzuk partekatu daitezke eta bidea egiten hasi, baina oraindik atxiloketak, epaiaketak, espetxeetan giza eskubideen urraketa etengabeak pairatzen dira. Familiak astebururo milaka kilometro egin behar dituzte beraien senideak eta lagunak 45 minutuz bisitatu ahal izateko. Preso larriki gaixoak espetxeetan hiltzera kondenatzen dituzte. Urratsak eskatzen dira eta urrats asko eman dira gatazkaren konponbidean. Baina zoritxarrez aldebakartasunak dirau.

8.4.4 TRANSMISIOA

Dagoeneko, memoriaren inguruko zenbait aspektu nagusi jorratu dira, baina nola nahi ere, iraganari emandako begirada hori, hau da, eraikitzeaz dagoen memoria hori nola bideratu da hurrengo gakoa. Lehenik eta behin, transmisioa bermatzeko eskolaren esparrua agertzen da egokienetakoa, hain zuzen, hurrengo atalean landuko dena; baina hezkuntzaz gain, beste bitarteko batzuk ere proposatzen dira solaskideen ahotan, transmisio bide hori garatzeko.

Herriko esparruari dagokionez, iradokizunen artean honako aukerak bildu dira: Gaztetxean zein Adin nagusikoen elkarteetan gaia plazaratzea, testigantza zuzenen kontakizunak gazteengana zuzentzea, Memoria plaza moduko ekitaldiak burutzea, Udaletxearen funtzioa agertzen da bertako eragile ezberdinekin elkarlanean, indarkeria sinbolikoaren arriskuaz jabetzea, "Patria" liburuaren irakaspenak zabaltzea, konpromiso soziala sustatzea, begirada partzialaz eginiko desitxuraketak ekiditea ...

Nere alaba txikina egon zan gure "plaza" ikusten [Memoria Plaza], ikastolatik eraman zuten. Orduan 17 urte zituen. Bueno, berez nere aita nola hil zen ikastolan enteratu zen, guk etxean ez genuen hortaz hitz egiten. Ez dakizu noiz zan momentua esateko eta nik ez dut izan nahi euren pentsamoldean eragitea. Ba azkenian, ez da onena baina ... kanpotik enteratu ziren. Nere testigantza ikusi zuten, berak eta bere gelakoak lagunek, gehienek bazekiten gertatutakoa, beste batzuek ez. Baina berarentzako era oso garrantzitsua izan zen. Garrantzitsua izan zan 17-18 urtetako gazteak ikustea eta entzutea hemen zer gertatu zen, ez gure kasuaz bakarrik, jakitea hemen ze bizi izan degun.

Bai, bilobek jakin behar dute.

Gertatutakoa, egondako sufrimendua, gertatu den guztia. Uste dut ez dela ahaztu behar, baina azkenean ahaztu egingo da. Hori ongi dago, azkenean ez delako guztiz ahaztuko. Azkenean uste dut garrantzitsua dela hau guztia jakitea. (...) Niretzako oso garrantzitsua da. Nire anaiak, esate baterako, lau urte zituen hori gertatu zenean eta orain hamalau ditu. Nire anaiak ez du biziko eta ez du jakingo duela urte batzuk, duela urte asko, ni jaio nintzenean gertatutakoa, baina garrantzitsua da egon den beldur handiaz jabetzea. Hemen beldurra izan da. Begira, nire aitarena gertatu ondoren, jendeak nirekin hitz egiteko beldurra zuen, eta duela hamar urte gertatutakoaz ari natzaizu hizketan. Bizilagun batekin hitz egitera gelditu eta hurrengo egunean edo handik gutxira berriro ikusi eta esan zidan: "Ba al dakizu zer esan zidaten? Ea nola hitz egin dezakedan zurekin, ea ez ote didan beldurrik ematen". Tontoak gara ala? Zer egingo dizute zuri? Zuregana joan aurretik niregana joango dira eta! Diot nik... eta azkenean, zer? Nik ez dut kosk egiten.

Instituzioek urrats berriak bultzatu beharko lituzke, baina instituzioetatik at, talde memorialistak bultzatuko nituzke. Gerra zibilarekin egin den bezalatsu.

Dena den, badaukat inpresio bat. Gatazkaren alde batean egon garenon ibilbidea ezaguna da. Komunikabideek argitara eman dituzte gertatutako guztiak. Guk ez daukagu ezkutuan ezer gordeta. Zer gertatzen da ordea beste aldeekin? Zenbait eraiketa, zenbat tortura, zenbat giza eskubideen urraketa daude isilpean? Onartuko ahal dituzte noizbait egindakoak? Hori beharrezkoa litzateke benetako memoria idazteko. (...) Elkarrizketak. Topaketak. Erabileraren kode etiko bat.

Olatzen eta Sandraren ekitaldien antzekoek bestearen saminarekin enpatizatzen laguntzen dute. Nik hala uste dut, baina aurrez pedagogia bat egin behar da. Zer gertatzen ari da bizitza honetan? Ba, egunero-egunero albiste berriak daudela, eta albisteak ahazten goazela. Ez dira ahaztu behar. Bizikidetzaren benetakoago, errealago bat lortzera iritsi behar dugu. Orain arte egon den guztia ondo itxi behar dugu. Eta oraindik ez da hori ikusten.

Gazteei mezu argi bat transmititzeko gai izan behar dugu, ez dezaten sekula indarkeria erabili helburu bat lortzeko bitarteko gisa. Uste dut hori dela gakoa, gazteak ildo horretan hezteak, eta hor jarri behar dugu hau guztia agerian, haiek ezagutu dezaten, hauteman dezaten eta indarkeria sorrarazi dezakeen edozer alde batera utz dezaten, ahal den heinean.

Inongo gorrotorik gabe eta ezinikusirik gabe, baina ahaztu gabe. Hamahiru urterekin, zergatik bizi behar du nire semeak egoera hau? Begira, lehengoan "Patria" liburuari buruz hizketan egon ginen (...), eta esan nion: "Liburu honek derrigorrezkoa izan beharko luke batxilergoan, bai eta aurreko ikasturteren batean ere (...) Gipuzkoako herri askotan bizi izan dugunaren isla da, bagenekien hau honetaz, beste hori beste hartaz...". Euskal herritar batzuei ez zaie gustatu, baina egoera horiek bizi izan ditugun euskal herritarroei gustatu zaigu, eta hura irakurtzea derrigorrezkoa dela uste dugu. Zer kontatu digun? Zer bizi izan dugun.

Memoriaren kasuan uste dut errepikapenak, modu desberdinetara egindakoak gainera, lagungarri direla. (...) Gutako bakoitza kulturalki jantzita esango nuke lagungarriago garelako biktimentako ere, jakinda zer gertatu den, zelan, noiz; diskurtso diferentek entzunda eta norbere diskurtsoa garatuta, hori baita kulturaz janztea. Bestela lelo hutsean geratzen gara, hark halako lelo esan duelako lori-toen moduan errepikatzen ditugun gauzekin.

Txiki-txikitatik irakatsi behar diegu umeei hemen zer gertatu den eta esan behar diegu: "Horrela ez da ezer lortzen, sufrimendu gehiago, besterik ez". Parlamentu bat dago, eta bere ideiak defendatu nahi dituenak erakundeetara jo dezake; horretarako bozkutzen da eta modu demokratiko batean aukeratzen dira alderdi politikoetako ordezkariak. Baina hori txikitatik irakatsi behar zaie, eta ez familian soilik, baizik eta irakaskuntza-zentroetan ere.

Talde baten oso garrantzitsue da adin desberdinetakoak izatie, ez transmititzie en plan mitin. Berdin jat zerekin, zaborraren asuntuan edo autopista bat egiteko. Belaunaldi ezberdinak talde berien. Benetako transmisioa holan izan dala. Zelan? Familien... Baina eskolan ere bai, adibidez eta herri mailan. (...) Leku batzutan, errezago ikusten dot plan bat eitie, adibidez, gaztetxien jende ezberdina dao, ariketa bat izan leike galdera batzuk eitea ea ze dakiten, eta gero hasi josten eta osatzen. Abaroan, jende nausie doie, daozenak beti prest edozein gauza eiteko, berbaiteko ta kontetako.

Hor inportantea dala belaunaldi berriei transmititzea Isaias Carrascori tiro bat eman ziotela buruan, argazki hori barneratu behar dugula oso-oso barneraino eta hori ezin dala egin. Nik lotzen dut hori beste kontu batekin. Ezker Abertzaleko kultura instalatu den pedagogia, nere ustez, oker bat edo perberso bat inkluso esango nuke. Pixkat kaskadan doa, zuk tiro bat eman badiezaiokezu buruan tipo bati helburu politikoak direla eta, baita ere egin diezaiokezu pintada bat, jakina, pintada bat gutxiago da; edo baita ere esan diezaiokezu hitz txar bat edo baita ere txistukatu dezakezu oholtza batean zure gustokoa ez bada, ordun, esan dezagun, etika arriskutsu bat. Nik erabili dezaket biolentzia sinbolikoa, hau da, nire arrazoia nahikoa fuertea da bestea mespretxatzeko edo bestea matxakatzeko. Hori, ikusten dana bertso txapelketako agintarien txistuan adibidez, edo pintadetan. Nik uste, hori ere bere konjuntoan ikusi behar dugula.

Nik uste, zuzeneko testigantzena inportantea dala ta behar bada, zuzeneko testigantzak ez dira derrigor izan behar bakarrik muturreko egoera bizi izan dituztenenak. (...) Behar bada, beste hainbat pertsonen relatoa ere interesgarria izan liteke, jende normalarena, baina reflexio bat egin duen jendearena. Eta bestetik, benetan gauza oso gogorak bizi izan dituztenena; ze pentsatzen dut bereziki gaurko gazteak diskurtsoekin ez direla eraldatzen, baina testigantzekin bai. Uste dut gazteek testigantzak behar dituztela. (...) Behar bada egin behar dira unidade didaktikoak, baina gazte batentzako unidade didaktiko bat da berrogeigarrena, "Hala, beste bat!" Ez da iristen eta testigantza, bai, iristen da. (...) Orduan, nik nire semeekin daukadana da nire testigantza pertsonala. Nik nire semeei nahi diet kontatu Yoyesena nola bizi izan nuen eta Carrerrorena eta beste... Eta nahi diet Isaias Carrascoren kontatu, zeren nik kontatu behar diet, pixkat horrek badu inpaktu bat.

Dauen egoera sozialaz, langabezia, gaztiak estudixuak eta lanik ez, eta lana lortzen badaue, askotan lan makalak izeten die, korrupziñua... Situaziño horretan, zaila da gizarte bat ilusionauta eukitzie. Gure nagusiak bizi hauien guerra zibila, gerrako historixa hoiek guk etxien entzuten gauen. Gu diktadura baten bizi giñen eta klaro, esperientzia horreik, ba nolabait marka bat izten daue eta hortik sensibilidade eta konpromiso politiko bat sortzia samurraue da. Horrekin batera Radio Pirenaica egunero entzuten gauen, Julian Grimauen fusilamientua 63en etab. Gaurko egoera desberdiña da, gaztiak ez dute entzun gu bezala gerrako historiak, ez dute diktadura frankista bizi eta orduen momentuak desberdiñak dira. Baña gaur be dauen egoera sozialaz badira motiboak konpromiso sozial bat izeteko. Azken baten "conciencia de clase" beharrezkoa da gizarte konturatu dain sistema ekonomiko kapitalismo honekin, inor ez dala izango ez libre, ezta zoriontsu be.

Gazteriak izan dezakeen errealitatea da hemen batzuek gaiztoak izan direla eta besteak, berriz, txintxoak. Bai, kezkatzen nau aldebakarreko begirada horiek egoteak. Nik uste dut, zorionez, jadanik ez dagoela hainbesteko alderik. Nik uste dut gazteria, gaur egun, axolagabeagoa dela, politikatik kanporago bizi dela, edo ez dela inplikutzen. Nire pentsaera da, kanpotik ikusten dudana pixka bat.

Edozein hitzaldi ipinia ere oso jende gutxi joaten da eta gazteak gutxiago, eurak daukate igual beste ikuspuntu batzuk, edo beste balore batzuk, "en otra honda" esaten dana. Agian hori kutsatu egin behar da, batzuk hasi ezker agian gehiago be apuntatuko zirela. Kultura aldetik holako bat prestatu ezker izango du arrakasta seguru. (...) Uste dot gizarte esparrutik, udaletxeko nire komisiotik hori landu egin behar dala. Lantzekotan komisio bat sortu eta apurtxo bat harrera protokoloa egin dugunak. Harrera protokoloa horrela izan zan, lan batzuk eragile desberdinekin, dana aztertu eta praktikan ipini zan igaz. Gai hau ere, eragile ezberdinekin mahai bat osatu eta bertan landu beharko zan.

8.4.5 HEZKUNTZA

Belaunaldi berriei iragana azaldu beharraz bat egiten dute jasotako iritzi guztiek. Begi bistakoa baita etorkizuneko bizikidetzara era egoki batez eraikitzeke, heziketa oinarritzko zutabe bat dela. Eta xede horretarako, gazteak eta ez hain gazteak gertatutakoaren jakitun izan behar dira, berriro ere akats berdinak errepika ez daitezen.

Helburu hori, ordea, modu askotara landu daiteke. Horren inguruko hainbat gogoeta eta iradokizun agertu da elkarriketetan. Besteak beste, honakoak azpimarratzen dira: balioen heziketa areagotzea, biktimen lekukotza ikastetxeetara eramatea, kul-

tura gehiago zabaltzea, familietan heziketa garatzea, betiere aniztasuna zaintzea, giza eskubideak unibertsitatean lantzea, gazteentzako euskarri erakargarriak erabiltzea.

Arrasatetik hasita. Eskolan badazela gauzak eiteko, baina horrek arrisku bat dauke, eta da eskolara dana doiela, "el saco para todo". Egin behar dugula Agenda 21, hezkidetza egin behar dugula... dan dana. Ez dugu eiten integrala, eskolan planak eta beharrezkoak direla.

Oso erraza izango litzateke esatea beti esaten dugun moduan, heziketak egin dezala, eskolak egin dezala, ezta? Familiari tokatzen zaio? Noski tokatzen zaiola familiari. Eta udalari dagokio? Noski. (...) Joan antzerki obra batera, zer pentsatua emango dizun obra bat ikustera. Honetan inbertitu egin behar da. Gizarte hobeago bat behar badugu, beharrezkoa da kultura jantziago bat. (...) Kontua da badaudela unibertsitateak Debagoienera, gaur, ETA siglek zer esan nahi duten asmatzen zailtasunak dauzkaten ikasleekin. Uste dut ezer egiten hasi aurretik jakin behar dugula benetan zelan dagoen antolatuta gizarte berri hau. (...) Joera izan behar da berba egitekoa. Orain arte izan da tabu bat. Erraza litzateke esatea transmisioak egon behar duela, baina guk ez dugu eduki transmisio handiegirik, nire kasua behintzat hala da.

Alde batetik Espainiak dauka suspendiduta aspalditik "asignatura de reconciliación, asignatura de perdón, asignatura de educación, otros valores...". Ointxe adibidez, ni maistra naz, "Educación para convivencia, educación para el respeto...". Oso ondo, ez dut esaten ezetz, orain hasi dira hori lantzen. (...) Espainiako probintzietan ez da hori lantzen, gero beldurtu egiten gara Kataluniakoa pasatzen darian. (...) Franco hil zan, baina honek, Gobernua, dira "sus herederos", argi eta garbi ikusten da. Hor ez da egin inondoko lanik eta Euskal Herrian gutxi, orain gehixeago. (...) Pentsatzen dot norberak egin behar dauela bere lan pertsonala. Eskolak hor zerikusi handia daukala. Ezin da ahaztu hemen gertatu zana. Hau asignatura ezin da izan. Orain esaten duten bezala, eurak gura izatea gai hori lantzen, eurak aukeratzen dute lantzeko gaia. Interesatzen bazaie, oso inportantea da hori lantzea. Zelan? Ez dakit ze programa edo ze pedagogia egin beharko lukeen eskolak gaur egun. Agian dauka ikuspegi bat historia bezela erakustea, "hechos", baina ez "vivencias", hori faltako zitzaion, beste aldea, bizi izan duguna.

Uste dut Memoriaren Plazarena oso ondo dagoela. Ikastetxeetan ere egingo nuke, gaztetxoek jakin dezatela pixka bat... Badirudi ezetz, baina gaztetxoek interes handia jartzen dute gai honetan. Bilboko Gogoran ere izan nintzen, izan ere, azkenean denetara noa ... Ikasleek hitz egin zuten, eta harritura geratu ginen zeinen inplikatuak zeuden eta nola hitz egiten zuten ikusteaz. Neska-

mutil gazte-gazteak ziren, eta gogo biziz entzuten egon ziren. Nire aldamenen zegoen pertsona batek, ikastetxe batera joandakoak, zera zioen: "Ikastetxera joan nintzenean, harrigarria izan zen neska-mutilek nola galdetzen eta hitz egiten zuten ikustea ...". Eta niri ere gauza bera gertatu zitzaidan. Nire aitarena gertatu eta handik gutxira, urte bat edo bi geroago, hitzaldi bat ematera joan nintzen Zamudioko ikastetxe batera, eta maistrak esan zidan: "Harrituta geratu naiz, zeren eta inoiz ez dute hainbeste galdetzen ikasleek eta gaur galdetu eta galdetu ari ziren". Nik uste garrantzitsua dela. Izan ere, ezetz uste dugun arren, gazteei, ikasleei, oraindik ere interesatu egiten zaie. (...) Ez da gauza bera ikastetxe batera politikari bat joatea eta han politikarien asperkizuna botatzea, edo ni bezalako pertsona bat, edo Olatz bezalako bat, hara joatea... Kalekoa dena, kaleari buruz hitz egiten dizuna, eta hurbilagoa izaten laguntzen dizuna. Politikari batekin... Nik uste dut ez dutela hainbesteko interesik jartzen.

Nik pentsatzen dut ikastetxeetan iristen zarela denari, han ez daude sailkatuta ideologiatik. Aniztasun batetan iritsi behar da eta mensajea denori berdin iritsi; orduan, ikastetxeak, ludotekak, elkarteak...

Nik uste egin behar direla zuek egiten ari zareten bezalako gauzak. Nik nahiko nuke gero soportea idatzi honek izatea baita ere isla bat, audio-bisuala, ikastetxeetan... Besteak beste, soportea izan behar du sendoa; ze audio-bisualak orain badauka arina izateko, axalkerian gelditzeko arriskua. Neri okurrizten zaizkit, batetik ikus-entzunezkoa; eta bestetik, eskolak. Eskolak ez bakarrik irakaskuntza formalean, baita ere irakaskuntza informalean. Eskolak, udalekuak, gazteak mugitzen diren bestelako hezkuntza informaleko guneak ere uste dut behar ditugula gai hau transmititzeko behar bezala.

Nik proposatuko nuke hartzea bi elementu, bailarako ikastetxe sarea, eskola publikoa eta Arizmendi ikastola, bailara hartuta, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza; eta ikastetxeei begira egitea bertako testigantzetan oinarritutako interbentzio bat. Eta bestetik, hartzea gizarte zibila, gure bailaran euskalgintza bizirik dago, euskara mugimendua dago, badaude beste batzuk, eta horiekin ere egitea prozesu bat. Goiena dago, oso tresna interesgarria; audientzia handia dauka. Komunikazio aldetik, nahiko ondo egituratuta daukagu bailara. Plan integral bat egin eta hori nik ingo nuke testigantzetan oinarritutako gogoetak ikastetxeetara eraman, gizarte zibilera eraman eta Goienatik bozgorailua. (...) Arrasaten bakarrik egingo balitzake, earra litzateke. Hiruretan eginez gero, hobeto. Baina Arrasaten bakarrik egiteak ere zentzua dauka. Zeren egia da, Eskoriatza eta Aretxabaleta nahiko perfil baxukoak izan direla alde horretan: hildakoen aldetik, preso gutxi... Baina, adibidez, Arizmendi ikastola bailarako ikastola da ta ditu gune batzuk Arrasaten ta Eskoriatzan.

Behar bada, unibertsitatean giza-eskubideei buruzko formazio gehiago eman beharko genukeela. Hala ere, oro har, (...) giza-eskubideen oinarria asumituta dago gutxi edo gehiago. Uste dut askoz gehiago egin beharko genukeela, ze arriskua dauka oso azalekoa izatea. (...) Baina, bestetik, nolabait esanda, gaur hemen zuk egiten badezu ikasle baten kontrako pintada bat, gehiengoak reazio-natuko du esanez, "Hori ezin da egin, utzi tipoa pakean". Uste dut askatasun indibidualak errespetatzearen gaia nahiko sakon, lehen baino askoz sakonago dagoela gazteengan. Eta hori ona da, uste dut ez ditugula ikusi behar gazteengan bakarrik gauza negatiboak. Gazteak badatoz, zentzu horretan, errespetuaren etika lehen baino interesgarriago batekin.

Pedagogia eta giza eskubideak. Hezkuntzan eguneroko ereduarekin predikatzen eta esaten erraza den hori, horrek beti hor egon behar du, adibide desberdinetan, ekintzetan... izan ere, eguneroko bizitzan baitago, dela immigranteekin, dela bullying-egoerekin, etab. Giza eskubideen kulturak dagoena baino presentean egon behar du, askoz ere gehiago, maisuetatik eta andereñoetatik hasita, haiek pertzeptzio bat izan behar dute, erantzukizun handia dutelako. (...) Ikasleei dagokienean, etxean jasotzen dutena daukagu, eta etxeetan, nolabait esateko, oso pertzeptzio aldebakarrekoa izan dezakete, bakoitzak berea. Baina ikusmolde horiek guztiak aglutinatu beharko lirateke eskolan, eta gazte horiek has daitezela oraintxe beste modu batean begiratzen. Nolabait, has daitezela beste modu batean pentsatzen, izan ere, hori egiten ez bada, fronte berak mantenduko ditugu.

Gizarteak, oro har, eliteei begiratzen die; eliteek mota horretako keinuak egiten badituzte, zer edo zer geratuko da, ondo egina dago. Baina nik uste dut sakonagoa dela beharrezkoa dena, eta gu besteak baino hobeak garela bezalako ideia-moten kontra borrokatu behar dela hezkuntzan. (...) Horrekin guztiarekin batera baloreak planteatu behar dira. Eta ez da soilik begiratzea; baizik eta baloreak zein izan behar duten ere planteatzea. Elkartasuna oso garrantzitsua da, enpatia...

8.5 FORMULA BERRIAK ETORKIZUNERAKO

OLATZ ETXABE ETA SANDRA CARRASCO MEMORIA ELKARREKIN ERAIKIZ

Arestian aipatu bezala, solaskide gehienontzat oso une berezia izan zen Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe elkarrekin agertu zireneko ekitaldi hura, Arrasateko Herriko plazan, 2016ko abenduan, *Memoriaren Plaza* egitarau barruan. Solasaldi hura laburbiltzeko baliagarria izan daiteke *Goiena* komunikazio taldeak kaleratu zuen izenburua: *Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco herritarren aurrean barruak astintzen*⁹⁴. Norberaren saminak aitortuz eta bata bestearekiko begirunez, topaketa hartan, bion artean hasi ziren ehuntzen memoriaren sare partekatu bat, guztion geroa elkarrekin eraikitzeko funtsezkoa izango dena.



Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco. Argazkia: *Goiena* komunikabidea

Horregatik, ekitaldi hark elkarriketatuen artean utzi zuen arrastoagatik, egokia dirudi testigantzei dagokien atalari amaiara emateko, ekitaldi haren inguruko iritziak hemen biltzea. Bi emakumeen arteko lotura urrunekoa dela ematen du lehen begirada batean, biak tragikoak badira ere; bi kasuetan euren aitak erailak izan baitziren Arrasaten, harreman zuzenik gabeko atentatu banatan. Izan ere, bata 1975ean gertatu zen eta 2008an bestea, berrogei urteren gainteko tarte luzeaz. Horrez gain, bortxakeria horien eragileak guztiz ezberdinak izan ziren, BVE lehena, ETA bigarrena. Hala ere, lotura bat antzematen zaie gaur egun bi gertaera horiei, sufrimendu injustuaren ezaugarria baitute biek. Hain zuzen, hainbat lagunaren esanetan, indarkeriaren biktima izaera bera aitortzen zaie bi alabei, baita eskubide berdinak ere, atentatuen egilea edozein izan delarik; oso zaila baita hori ukatzeko arrazoiak bilatzea.

94 <http://www.goiena.com/> 2016-12-01

Azken batean, bi emakumeon arteko topaketa hura eredugarri bihur daiteke, indarkeriazko aroa gainditu eta Arrasateko bizikidetzaren berrosatzeko prozesuan.

Olatzen eta Sandraren arteko topaketa, bai, oso ongi iruditzen zait. Zeren eta, berriro esango dut, biak dira indarkeriaren biktima. (...) ETArena GALena bezain gaizki iruditzen zitzaidan, ikaragarria iruditzen zait. Eta GAL nondik sortu zen ikusita, ez dizut esan nahi zer pentsatzen dudan erakunde jakin batzuen indarkeriaz hitz egiten didazunean. Guztiok dakigu nondik sortu zen GAL. Hori bai, ikaragarria iruditzen zait hori ere. Eta esaten jakin behar da, aizu.

Memoria plazan asko pentsatu nuen zer esan eta lasai nengoen, ze banekien ze esan nahi nuen, entsaiatu ere egin nuen. Batzutan ez dakizu zer esan eta zer ez. Pentsatzen dezu norbait mindu dezakezula, ama egongo dela, ... asko pentsatu nuen baña gustora geratu nintzan ateratakoarekin. (Prozesu horretan aberastu egiten zara,) tolerantetagoa izaten edo enpatia gehiago sentitzen besteengan. Azkenean pentsatzen dezu, "zuk bai, sufritu duzu, baina etzara bakarra, beste batzuk ere asko sufritu dute". Eta Sandrak esaten zuen aurretik elkartu nintzenean, bera oso bakarrik sentitu dala; eta orduan pentsatzen dezu "ze suerte euki doten, ez?". Gainera, han esan nuen eta pentsatzen dut nahiz eta hori gertatu bizitza ona izan dudala: nere familia, gustatzen zaidan lana, betiko lagunak... eta orduan, esatezu, "jo, nahiz eta gogorra izan momentua oso, ba ezin naiz kejaratu", gainera euki dot babes handixa alde guztietatik.

Gogora eta gero, eta orain Amaia antzokian egin dena eta gero, animozko hitz asko eta asko jaso ditut. Etxetik goizeko seiretan irten, emakume batekin topo egin eta ... "Amariakoa ikustera joan nintzen, eta oso ondo, oso ondo ... Jakin ezazu zuekin gaudela". Edo peajea: "Eskerrik asko zuen esperientzia kontatzeagatik Olatzi eta zuri, asko gustatu zaigu". Eta Gogorakoaren ondoren, facebook-etik eta, ezker abertzalearen inguruko jendeak idatzi zidan, esanez: "Beno, agian pikutara bidaliko nauzu idazteagatik ...". Ez, ez. Niri bost axola zu abertzale izatea, beste pentsakera bat izatea edo nahi duzuna. Niretzat oso urrats handia da ni ez bezala pentsatu duzun horrek hartu eta idaztea, eta hori esatea. Horrek asko bete ninduen, espero ez zenituen batzuk izan zirelako, abertzaleak direlako... Eta niri idaztea... Arraioa, niretzat hori da ... Zerbait ari gara ongi egiten.

Ez zuen esanahi bera izango ni bakarrik hitz egiten azaltzeak, edo Olatz bakarrik azaltzeak. Bi aldeak ikusarazi behar ziren, jendeak ikus zezan bando desberdinetakoak izan arren, ni batekoa eta bera bestekoa, azkenean bion mezua bera zela. Alegia, elkarren artean uler gaitezkeela, Olatzekin hitz egin dezakedala, berarekin solas egin dezakedala, pentsatzen duguna elkarri esan diezaiotegula, baina azkenean helburua bera dela: sufrimendua. Baina erailketa bat bizi izan

duzunean, eta beste bat, eta torturak... gure artean hitz egin ahal izatea, niretzat hori pentsaezina zen duela urte batzuk. Nik lehen ezin nuen ikusi, ezin nuen entzun. Esan izan balidate Olatzekin hitz egin behar nuela edo ... Uste dut kostatzen egingo zitzaidala. Baina gaur egun... Denboraren joanarekin ikasten zoaz, min egiten dizkizuten gauzak ikusten zoaz, aurrera egiten zoaz.

Ni biktima banintzake eztoz uzte ailegauko nintzakeenik berdintasun batera edo denok alkarrekin. Nere aldeko biktimakin bai, baina bestaldekoakin ez.

Esango nuke kanpoko komunikabideak ezin dituela ikusi esaldi berean Carrasco eta Etxabe, baina gertuko komunikabideok bai. Guretzako oso inportantea da portada bat ateratzea Etxabe eta Carrascoren alabekin, batera. Gainera halako kontuak lokaletik konpontzea uste dut tokatzen dela. Kasu honetan gertuko begirada horrek, hedabideetatik berba egin daiteke, baina berba egin daiteke harremanetatik, berba egin daiteke udal batetik eta ez gobernu handi batetik.

Seguruenik ez da kasualitatea bi alaba izatea eta Gogora institutuko ardura-duna neska izatea eta udalean alkatetzan emakume bat egotea. Hori ez dut irakurri inon aztertuta, baina seguruenik ez da kasualitatea. Hor lortu den konplizitatea, hor lortu den gauzak ulertzeko modua eta minean bat egiteko modua. Ez dakit, baina seguruenik eragin bat eduki duela bai, alde emozionaletik. Eta horrek herrian eragin duela, duda barik. Eragin du, batzuek nahi zuten polikiago joatea, beste batzuek azkarrago, beste batzuek hala eta beste batzuek bestela, baina eroan zen moduak eragin du erreflexiorako moduak edukitzea. (...) Guk geuk, hedabide moduan, gaia tratatutako moduarekin zorion asko jaso ditugu. Eragin handia eduki dutela esango nuke, ekarri du ere bai Etxabetarren mina eta seguruenik lehenengo aldiz publikoki hala berba egiteak lagundu du sendatze fasean. Esango nuke ezkutuan zegoen zer edo zer zela, baina ez konpondutako ezer eta ez aitortutako ezer. Eta Carrascorenak ere, badauka halako zer edo zer. Izan da Arrasaten egon den biktimetako bat, ageriko izan dena. Horrek seguruenik lagundu egin dio, familiari.

Ekimen interesgarria eta ausarta izan zen. Beharrezkoa ere nire iritziz. Bide hori jorrazteko prest dagoen jendea dago eta hori garrantzitsua da. Nik uste dut herri mailan halako ekimenak bultzatu eta babestu egin behar direla.

Ba, oso gauza polita izan zen hemen, Arrasaten, Isaias Carrascoren eta Iñakiren alabak elkartzeko. Niri oso ongi iruditu zitzaidan. Horrelako gauza gehiago behar ditugu. Lehenik eta behin, mota guztietako jendea han egotea gustatu zitzaidan, ez geunden alde batean batzuk eta bestean besteak. Eta beste gauza bat

ere gustatu zitzaidan. Isaias Carrascoren alaba hitz egiten hasi zenean, Iñaki Etxaberen alabak, Olatzek, eskutik heldu zion pixka bat alde batetik bestera zihoala. Eta hori ere gustatu zitzaidan.

Hori da bidea. Nagusiki, Isaias Carrascoren alabaren gaiak inpaktatzen nau gehiago; beharbada, Etxabereana, nigan sensibilitate hori ja egon delako, esan nahi dut, nik arlo polizialaren biktimak nik estimatu ditut eta besteak ere bai. Baina nik uste dut, nire inguruan falta dena bestea dela, berritasuna bestean dago. Ta nik uste dut, hemen denok, baina, bereziki, Ezker Abertzaleak egin behar duela gogoeta etiko bat. Uste dut egiten ari dela, zentzu horretan ez naiz kritikoa eta ez dut hiperkritikoa izan nahi, ze hiperkritikoa izateak askotan onerako beharreen txarrerako laguntzen du. (...) Gogorak antolatutako horretan gertatu zena da, gizarte osora biderkatu behar dugun prozesua. Beste gauza oso inportantea izan zen Isaias Carrascoren alabak emandako elkarrizketa "Puntuan". Oso ederra da elkarrizketa hori. Uste dut sakondu behar dugula.

Niri benetan gogoia ematen dit neska hau, elkarrizketa hori eman zuenetik, autopistako sarreratik pasatzen naizen bakoitzean, nahi izaten dut bera tokatzea, esateko zerbait. Ta ez zait inoiz tokatu, baina benetan dut gogoia neska hori agurtzeko, ze asko gustatu zitzaidan nola hitz egin zuen. Nik uste dut gauza horiek egin behar direla ta gainera jendea gehiegi hoztu baino lehen, "Bueno ba, ahaztu dezagun". Ez, orain egin behar dugu, gaurko gazteekin.

Hemen ipini zutenian Memoria Plaza, egon ziren bai Olatz Etxabe eta bai Sandra, hitzegiten eta esan nun: "neska hau berera etorri da. Izan leike gorroto hori behintzat superatu duela". Bertan egon nintzen hitzaldia entzuten. Gogoratu nintzan Kanpazarrekoaz. Olatz txikia zan baina kontatu zuen ondo eta Sandrak ere oso ondo kontatu zuen. Ikusi nauen osatuta eta neretzako emozioantea izen zan biak elkarrekin ikustea, biak bere esperientzia kontatzen, ze alde batetik edo bestetik baina aitzak hilak... (...) Geratu ginan apurtxo bat, jentia joan zan eta esan nuen: "Hau da momentua. Joan nintzan andrearengana, alargunarengana eta esan nion: "Tú no me conoces, pero ¿te puedo dar un abrazo?" eta eman ostan eta geratu nintzen lasai. Orduan, "es como una reconciliación". Barruko zera adieraztea: "ze gaizki portau nazen zurekin"... dana politikagatik, ezta? "A fin de cuentas" alargundu egin zara. Sandra aldatuta ikusi nauen, lasaiago, baketsuago.

Lehenik, egokia iruditu zitzaidan, eta, hortik aurrera, gauza horietan sakontzeko balio izan zuen, izan ere, aita galdu izanak berarekin dakarren ezbeharretik hitz egiten zuten, eta, jakina, biktima izatea elkarri aitortuta hitz egiten zuten biak. (...) Nik uste dut jende gutxi egongo dela horrelako ekimenak martxan jartzearen aurka.

Zeren eta gu modu aktiboagoan edo pasiboagoan ikusi dugu hau, baina zuzenean pairatu dutenak eredu izan daitezke, adibidez, Buesaren alaba, Lluchena... Jende asko dago eredugarri izaten ari dena. Eta beste jende bat ere badago Coviten, guztiz kontrako eredu ematen ari dena. Ez dute nahi, edo, nahi dutena lortzeko prezio bat ordain dadila nahi dute, eta, nire ustetan, gizarte hau une honetan ez dago prezio hori ordaintzeko prest.

Entzundako komentarioengatik edo prentsan irakurritakoagatik, badakit eztabaidaren bat, bileraren bat izan dela herri-mailan. Esate baterako, Etxaberen eta Isaiasen alaben artean ... Eta nik, pertsonalki, ez dut hori ulertzen. Hori egin behar da? Baietz uste dudala esan dezaket nik. Baina zuk galdetuko bazenida: "zuk hori egingo zenuke?". Nik ezetz esango nizuke. Eta nik ez dut nire burua imajinatzen nire aitona afusilatu zuenarekin mahai batean eserita, ez nintzateke gai izango. Une jakin batean, pentsa dezaket akordio horretara iritsi behar dutela. Bidezko gizarte batean, indarkeriarik gabeko gizarte batean. (...) Une batez, akordio batera iristen direla, elkartu egiten direla joko dut. Eta orain, nire galdera da: baina ahaztu egingo dute? Une jakin batean, elkarbizi daitezke? Bai, elkarbizi daitezke, baina ahaztu egin dute? Nik ez dakit, uste dut ahazten ez badut, ez dudala barkatzen. (...) Nik uste dut baietz, gauza hauetaz hitz egin behar dela. Horregatik diot ziur nagoela edo uste dudala ona litzatekeela. Gertatzen dena da uste dudala ni ez nintzatekeela gai izango.

Gogoraren ekitaldia ongi egon zen. Baina ez zituen itxaropen guztiak asetu. Sandra eta Olatz zoragarri egon ziren eta haien lekuan jarri ginen. Ariketa hori egin behar genuen, eta nik uste hori lortu egin zela. (...) Duela urte batzuk ezinezkoa izango zen irudi hori, sekula ezingo zen hori egin ... Agian horrek posible izan behar zuen, baina ez. Ez dakit beldurra den ala ez, baina aurpegia ematea, zure burua definitzea, urrats hori ematea... Masakoak gara. "Vicente doan tokira, hara doa jendea".

9. TESTUINGURUAREN KRONOLOGIA: MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA-GERTAKARI BATZUK, ARRRASATEN

Bilduma honen xedea Arrasaten izandako gertakarien ikuspegi orokor bat izaten laguntzea da. Esan gabe doa ezinezkoa dela herrian gertatutako guztia hemen biltzea, baina balio beza hemen kontatzen eta ezagutarazten denak osoko ikuspegi batekin begiratzeko arrasatearren bilakaera baldintzatu duten garaiei, testuinguruei eta jazoerei.

Kronologia hau osatze aldera argitalpenak, hemerotekea eta datu-baseak erabili dira informazio-iturritzat, baina ez horiek bakarrik, herrian jasotako testigantzak ere erabili dira, gertaerak eta datak kontrastatzeko. Lan honetan bildutako pasarteetako herritar protagonistengana jo dugu: zenbait biktimarengana, zenbait kargu politikorengana, jasotako gertakariak beren azalean bizi izan zituztenengana... Pertsona horien laguntzari esker zenbait gertakari egiaztatu dira, eta, besteak beste, datuetan, datetan eta gertakarietan zeuden akatsak zuzendu. Hala eta guztiz ere, badira hutsuneak oraindik ere, eta badakigu pertsona horien laguntzaz ere zuzendu ezin diren akatsak edo argi gogoratzen ez dituztenak ere badirela, urte askoan ez baita izan argitalpenak gordetzeko askatasunik, eta, horrenbestez, gauza asko galdu baitira. Hori gutxi balitz bezala, gainera, oraindik ez dira desklasifikatu fitxategi ofizial guztiak, eta, beraz, badira bete beharreko hutsuneak, ahal den heinean, gerora egingo diren txostenetan argitu beharrekoak.

9.1 FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK

1955eko abenduan Nazio Batuek Espainia onartu zuten, baina hori ez zen oztopo bat izan hiru hilabete geroago, 1956ko otsailean, Francoren Ministro Kontseiluak lehen salbuespen-egoera bat ezar zezan, langileen eta ikasleen protesten ernaberritzea geldiarazteko. Garai hartan, gerra ezagutue zuzen belaunaldi berri bat sartuzen borroka haietan. 1956an, Espainiako Alderdi Komunistak “adiskidetze nazionalaren” aldeko adierazpen historikoa egin zuen. Urte hartan bertan, irailean, erbestealdiko Eusko Jaurlaritzak lehen Euskal Mundu Batzarra egiteko deialdia egin zuen, Parisen. Hurrengo hilean, ULGOR sortuzen Arrasaten, 1959an Fagormarka erregistratuko zuzen kooperatiba –Arrasaten sortutako kooperatibak dira, halaber, Caja Laboral, 1959an sortutakoa, eta Eskola Politeknikoa eta MCC, 1964an sortutakoak–. 1960ko martxoaren 22an

Jose Antonio Agirre Lekube lehendakaria hil zen, eta debekatu egin zen haren omeneko hiletak egitea eta, are, eskelak jartzea.

Testuinguru hartan, 1968ko ekainaren 7an, ETAk eragindako lehen heriotza gertatu zen, Jose Antonio Pardines Arcay guardia zibilarena, bai eta Guardia Zibilak hildako lehen etakidearena ere, Txabi Etxebarrieta Ortizena, alegia. Azken horren aldeko elizkizunak eta omenaldiak debekatu eta jazarri egin ziren, eta diktaduraren aurkako protestek indarra hartu zuten. 1968ko abuztuaren 2an, ETAk planifikatutako lehen atentatu hilgarria egin zuen Irunen, Meliton Manzanos inspektorearena. 1970ean, Burgoseko Gerra Kontseilua egin zen, eta handik bost urtera, 1975ean, Franko hil zen, ETako eta FRAPeko bost militante fusila zitzaten agindu eta bi hilabetera.

1956

Otsailaren 10a. Francoren Ministro Kontseiluak lehen salbuespen-egoera agindu zuen, hiru hilabete iraungo zuena. Espainiarren Foruko 14. eta 18. artikulua ezabatu ziren, bizilekua aukeratzeko eskubidea eta komisaldegian atxilotutakoak 72 orduan askatzeko betebeharra aitortzen dituztenak, hurrenez hurren. Dena den, grebak ugaritu egin ziren apiriletik aurrera.

Apirilaren 13a eta 14a. Protestak eta grebak egin ziren Debagoiengan. Agintari frankistek autobus bat Polizia Armatu bidali zuen Arrasatera⁹⁵ protesta haiek itozteko. Hilaren 15ean Esteban Gorroño aretxabaletarra eta Jabier Olalde eta Jose Maria Zubia "Liorra" arrasatearrak atxilotu zituzten, ELA-STVko kideak hirurak. Horiekin batera ziren Felipe Barrutiabengoa "Txirri" eta Antonio Zubizarreta solidarioak ere⁹⁶.

1957

Grebak egin ziren Arrasaten, Hernanin, Zumarragan, Andoainen, Erreterian eta beste zenbait herritan, eta hamarka langile atxilotu zituzten. Gertakari haietan, "basakeriaz tratatu zituzten atxilotuak"⁹⁷. Iturri berberetik diotenez, 183 pertsona atxilotu zituzten greba haietan "Lan Delegazioaren aginduz", eta hamaika apaizek protesta-gutun "begirunetsu baina irmo" bat bidali zioten Gobernadore Zibilari.

95 GARAI, Juan Ramon. *1947ko maiatzaren huelga Gipuzkoako Debagoiengan*, 15. or.

96 Elias Oteroren adierazpenak, Juan Ramon Garaik jasoak. Op. Cit.

97 Elias Oteroren adierazpenak, Juan Ramon Garaik jasoak. Op. Cit.

1958

Abenduaren 1a. Deban egindako bilera batean, izena jarri zitzaion Ekin-eko kideek eta EGI-ko kide ohiek osatutako erakunde berri bati: Euskadi ta Askatasuna (ETA).

1959

Uztailaren 30a. Ordena publikoa arautzen zuen 45/1959 legea onartu zen, bai eta salbuespen-egoeren erregulazioa ere, frankismoaren oinarritzko legeetan aurreikusitako bezala. Lege horren 2. artikuluan, besteak beste, ordena publikoaren aurkako balizko ekintzak jasotzen ziren: Espainiaren batasun espiritualaren, nazionalaren, politikoaren eta sozialaren aurka egiten dutenak; geldialdi kolektiboak, bide publikoetako jende-pilaketak, manifestaldiak eta elkarretaratze publikoak; subertsioa eragin dezaketen propaganda eta gomendioak; agintarien edo haien agenteen erabakiei men ez egitea... Horrez gain, hedabideen eta ekitaldi publikoen zentsura xedatu zen (29. artikulua), bai eta etheen erregistroak ere, eta enpleguaren eta soldataren "behin behineko" etenak funtzionarioentzat, "errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe" (30. artikulua)⁹⁸. Hori gutxi balitz bezala, gainera, ez zegoen salbuespen-egoera haiek kontrolatuko edo ikuskatuko zituen erakunde judizial independenterik (ezarritako hamabi haietatik 11k eragina izan zuten euskal probintziaren batean)⁹⁹.

1960

Maiatzaren 30a. Gipuzkoako, Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako elizbarrutietako gotzainek gutun bat jaso zuten, bi egun lehenagoko data zuena, maiatzaren 28koa. Gutun hura 339 erlijiosok sinatu zuten, Debagoieneko zenbaitek, besteak beste, eta, horregatik, "339 euskal apaizen gutuna" esaten zaio. Gutun haren bidez, frankismoaren askatasun falta eta giza eskubideen urraketak salatu zituzten.

Irailaren 20a. Bi arrasatear atxilotu zituzten Donostian, Juan Jose Etxabe Orobengoa (EGIko kide ohia) eta Jon Ozaeta "Gautxo", ETArekin alderantzizko pintadak egitekotan zirenean, Antiguon, Zumalakarregi etorbideko Guardia Zibilaren kuarteletik hurbil, Kontxako estropadaren bezperan eta Franco bera Donostian oporretan zela. Urriaren 12an espetxeratu zituzten, atxilotu eta kuartelera eramanez eta hogeita bi egunera. "Ikaragarritzko jipoiak" eman zizkietela salatu zuten.

Irailaren 21a. Altxamendu militarren, bidelapurreriaren eta terrorismoaren aurkako dekretua onartu zen. Dekretu horren 2. artikuluan ordena publikoaren aurkako delitutzat jotzen ziren grebak eta manifestaldiak, bai eta erregimenak lerratutzat edo faltsutzat

⁹⁸ Elias Oteroren adierazpenak, Juan Ramon Garaik jasoak. Op. Cit.

⁹⁹ Elias Oteroren adierazpenak, Juan Ramon Garaik jasoak. Op. Cit.

jotako berriak hedatzea ere. Artikulu hori indarrrik gabe utzi zen 1963an, Ordena Publikoaren Auzitegia sortu zenean, baina berriro indarrean jarri zen 1968an, ETAK Gipuzkoako Brigada Politiko Sozialeko inspektoreburua, Meliton Manzananas Gonzalez (59 urtekoa) hil zuenean.

1961

Maiatza, eta, oro har, urte osoa. Arrasateko Unión Cerrajera eta Elma enpresetan langile-grebak egin ziren, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste zenbait enpresetan bezala, hala nola Beasaingo CAFen bezala. Guardia Zibilak atxilotetak egin zituen eta manifestaldiak debekatu zituen, eta, horrez gain, zigor ekonomiko eta laneko zigor handiak jarri ziren.

Uztailaren 19tik abuztuaren 15era. Ehun pertsona inguru atxilotu zituzten hainbat herritan egindako sarekada polizial batean, Donostian Espainiako hiru bandera erre zirelako eta gudari ohi nazionalen tren bat errailetatik ateratzen saiatu zirelako, hilaren 18an, Errepublikaren aurkako altxamendu militarren urteurrena ospatzera zihoazela Gipuzkoako hiriburura. Badira atxilotuek tratatu txarrak eta tortura jasan zituztela erakusten duten frogak, hala nola arrasatear gazte bati saihets bat hautsi izana eta Juan Jose Etxabe Elmako langilea makilka jo izana (bigarrenkoz atxilotu zuten, 26 urte zituela). Juan Jose Etxabe espetxean sartu zuten, sei hilabeteko espetxe-zigorra jarrita. Javier Arizabaleta (26 urtekoa), Joxe Luis Uribesalgo (29 urtekoa), Jon Ozaeta eta Edur Arregi arrasatearrek, bestalde, sarekada haietatik ihes egitea lortu zuten, eta, muga ezkutuan igaro ostean, Frantziako agintarien babesa eskatu zuten.

1962

Otsailaren 19a. Protesta handiak egin ziren Gipuzkoako zenbait enpresatan, eta, horien ondorioz, Poliziak eta Guardia Zibilak hogeita hamar pertsona inguru atxilotu zituzten Arrasaten, Elgoibarren, Hernanin eta Errenterian, legez kanpo biltzea eta propaganda egitea leporatuta. Tratatu txarrak jasan zituzten polizia-zaintzapean zeudela, eta gehienek isunak jaso eta lanpostuak galdu zituzten. Hala ere, greba gehiago egin ziren apirilean.

Maiatzaren 4a. Hiru asteko salbuespen-egoera ezarri zen Gipuzkoan, Bizkaian eta Asturiasen, meatzaritza zela-eta azken horretan sortu zen gatazka euskal probintzietara zabaldu baitzen. Espainiarren Foruko 12., 16. eta 18. artikuluek indarrrik gabe utzi ziren aldi baterako, besteak beste, adierazpen-askatasunari, korrespondentziaren konfidentziasunari, ordena publikoari, egoitza aukeratzeko askatasunari, erregistroei, bilerei eta atxiloaldiei eragiten dietenak. Francoren Gobernuak "asmo gaiztoko kanpoko propagandari" egotzi zion "ezohiko lan-egoera" haren gaineko errua, eta Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, berriz, "propaganda komunistak artifiziaiki sortutako ezohiko egoera" aipatu zuen.

Maiatzaren 17tik ekainaren 1era. Salbuespen-egoeran egon arren, egongrebari berriro heldu zioten Unión Cerrajeran (Arrasaten eta Bergaran). Langile guztiek egin zuten bat lanuzte harekin, eta agintari frankistek enpresa itxi zuten, dekretuz. Haiekiko solidaritatea erakuste aldera, lanuztea hasi zuten Roneoko langileek. Peio Urrutiaren hitzetan, “Maiatzaren 31n, salbuespen-egoera ezarri zela 27 egun igaro baziren ere, Gobernu Zibilak probintziako lan-egoera ‘normala’ zela esaten zuen, ‘nahiz eta Arrasaten eta Aretxabaletan kaleratutako langileak astiro ari diren lanera itzultzen”¹⁰⁰. Lanuzte hartan parte hartu zutenek beren eskubideak galdu zituzten, eta enpresako epaimahaiko kideak kargutik kendu zituzten. Hilaren 19an, Jose Maria Lasagabaster Arriola “Bentzez”, Unión Cerrajerako kualifikatuen taldeko kidea, atxilotu zuten, ELA-STVko beste kide batzuekin batera (Gregorio Etxabe Orobengoa, Nicanor Mugica Madinabeitia eta Javier Errasti). Lasagabasterrek eta Etxabek, beste batzuen artean, Meliton Manzanasek torturatu zituela salatu zuten [Argentinako Kereilan pertsonatuta daude]. Javier Arana Azkoaga ere atxilotu zuten, Unión Cerrajerakoa, eta greba-espeditentea egin zioten, panfletoak banatzen zebilelako. Espetxean sartu zituzten.

Ekainaren 8a. Salbuespen-egoera hura Espainia osora zabaldu zuten, “Euskal Herriko industriaguneetako langile-gatazka orokortuak, oposizioa Municheko Biltzar Politikoa berrantolatzen ari zela eta ikasle-gatazka”¹⁰¹ argudiotzat jarrita. 14. artikulua eten zuten, egoitza-askatasunari eragiten diona, biltzar horretara joan zirenetako batzuk konfinatzeko helburuarekin.

Abuztuaren 20a. Berriro atxilotu zuten Jose Etxabe Orobengoa, baina, orduko hartan, Arrasaten.

1963

Martxoaren 30a. Sei hilabete eta egun bateko espetxealdi txikiko zigorra, zortzi urteko desgaituntza eta 2.500 pezetako isuna jarri zizkieten ELA-STVko zazpi kideri, besteak beste, Arrasateko Unión Cerrajerako Jose Maria Lasagabaster Arriolari eta Cooperativa Arrasateko Nicanor Mugica Madinabeitiari.

Maiatzaren 30a. Francoren Ministro Kontseiluak Ordena Publikoaren Auzitegia sortzea onartu zuen, eta Gorteetara igorri zuen lege-proiektua. Abenduaren 2an argitaratu zen.

Abuztuaren 15a. Hainbat ikurrin eta askotariko propaganda jarri zituzten Santa Barbaran eta herriko beste zenbait lekutan, Euskal Jaiak zirela-eta. Hura ikusirik, zenbait guardia zibilek tiro egin zieten haiei kabletan eusten zieten euskarriei. Agintaritzaren

100 URRUTIA OCHOA, Peio. *XXV años de paz y cinco mil días de paciencia (Andoain 1952-1965)*, Leyçaur 10, 336. or. Egileak honako hau eransten du: “Gobernadore zibilak ez zuen adierazi hainbestek entzun nahi zutena, hots, ‘Gipuzkoan, lan-egoera normala’ zela, ekainaren 4ra arte, hau da, Madrilan, Francoren aurrean Garaipenaren XXIII. Desfilea egin zen egunaren bezperara arte. Guztia lehenera zedin, egunkkariak letra handiz idatzi zuten ‘Gaur egun, Espainia da komunismoaren aurkako gotorleku sendoena Mendebaldean. Elizak eta Estatuak ondotxo ezagutzen dituzte arerio komunak”.

101 GURRUCHAGA ABAD, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos. Conciencia y libertad bilduma, 294. or.

zenbait atxiloketa-agindu bete ziren hurrengo egunetan, baina zenbait herritarrek iskin egin zieten, herritik ihes eginda.

1963an, Maria Luisa Ateka gernikarra ezkutuko euskara-eskolak ematen hasi zen, pisu partikularretan.

1964

Maiatzaren 1a. Angel Larrañaga Bolinaga arrasatearra (18 urtekoa) atxilotu zuten maiatzaren 1eko manifestaldian, Bilboko Kale Nagusian. 35.000 pezetako isuna jarri zioten legearen kontra manifestatzeagatik, eta, hura ordaintzeari uko egin zionez, Basauriko espetxean sartu zuten bi hilabetez.

Maiatzaren 16a. Lanbide Eskola zeneko zenbait gaztek “Gora Euzkadi Askatuta” idatzi zuten Guardia Zibilaren herriko kuartelaren aurreko horma batean, ibaiaren beste aldean.

1965

Apirilaren 18a. Erbestealdiko Eusko Jaurlaritzak, EAJ-PNVk, EAE-ANVk eta ETak deituta, Aberri Eguna egin zuten Bergaran, nahiz eta Poliziak eta Guardia Zibilak herria hartu zuten. Jende asko mendiz mendi iritsi zen. Atxiloketak egin zituzten, eta hainbat nortasun agiri konfiskatu ere bai. Sartzea lortu zuten haietako bat Kepa Akizu aretxabaletarra izan zen. Gaztea Etxe Nagusia tabernan zegoen Meliton Manzanas inspektorea hara sartu zenean, eta, Euskal Jairen batean ikusia zuenez, inspektoreak muturreko bat eman zion Akizuri.

Maiatzaren 8a eta 11. Guardia Zibilak ELA Berriko lau kide atxilotu zituzten Arrasateko Muxibar tabernan, ELA-STVren propaganda (Lan Deya) zutelako. Aske utzi zituztenean, kuartelean igaro zuten astebetean tratu txarrak eta tortura jasan zituztela salatu zuten. Lau pertsona haietatik bi arrasatearrak ziren, Luis Etxabe Orobengoa eta Josu Otaduy Belastegi; beste biak Sabino Urrutia sodupearra eta Iñaki Ibarguen balmasedarra ziren. Iruñeko espetxean sartu zituzten, eta lau hilabetez izan zituzten preso, legearen kontrako propaganda leporatuta.

Urriaren 12a. Ikurrina jarri zuten Guardia Zibilaren kuartelaren atzeko aldean, goitentsioko kableetatik zintzilik.

Juan Jose Ansoategi Etxebarria, Jose Antonio Mendizabal Etxabe “Tonino” eta Jose Joaquin Abetxuko Zulueta atxilotu zituzten, ETako *Ahuntzak* taldearekin harremana zutelakoan.

Urriaren 29a. Guardia Zibilak Gregorio Etxabe Orobengoa atxilotu zuen, metraileta-
ren aurrean hartuta, familiak Kanpazarreko gainean zuen tabernan. Jatetxetik hurbil
zegoen pinudi batera eraman zuten, eta, han, lurrean kolpeka eta mehatxupean izan
zuten gau osoan, anaia Juan Joseri buruzko galdeketa egiten zioten bitartean. Gero,
aske utzi zuten.

Azaroaren 27a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Luis Etxabe Orobengoa eta Jesus
Otraduy Belastegi auzipetu zituen, ELA-STVko kide izatea leporatuta.

Abenduaren 14a. Guardia Zibilak hainbat pertsona atxilotu zituen Arrasaten, ETaren
aldeko pintadak egiten ari zirela. Gertakari hura zela-eta, Sandro Arregi Axpe, Jose
Antonio Jauregi Zaitegi eta Agustin Bergaretxe Unamuno espetxeratu zituzten.

Abendua. Kode Penalak aldatu zen, greba ekonomikoak eta greba politikoak bereizteko.
Auzitegi Gorenak Espainiako Alderdi Komunistaren aurkako sententzia eman zuen,
zilegi ez den elkarte izatea leporatuta.

1966

Apirilaren 10a. Xabier Arregi "Kataide" atxilotu zuten, Irungo Aberri Egunean.
Martuteneko espetxean preso izan zuten, 14 egunez. Jose Luis Mondragon Elorza eta
haren lagun batzuk Guardia Zibilaren Arrasateko kuartelera deitu zituzten, deklaratzera
joan zitezten.

Maiatzaren 20a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Sandro Arregi Axperen, Jose Antonio
Jauregi Zaitegiren eta Agustin Bergaretxe Unamunoren aurkako sententzia eman zuen,
zilegi ez den elkarte bateko kide izatea eta legearen kontrako propaganda egitea lepo-
ratuta, lau hilabeteko atzipenaldi handiko zigorra eta hamar mila pezetako isuna jarri
zizkieten, eta urtebeteko espetxealdi txikiko zigorra eta beste hainbeste diruko isuna.

Ekainaren 25a. Ikurrina jarri zuten Udalaren ohar-taulan.

Ekainaren 26a. Agintariek hesiak jarri zituzten, herriko euskal jaietara sartu nahi zute-
nei eragozpenak jartzeko, baita Txinpartak taldeari ere, programan iragarrita zegoen
arren. Hori gutxi balitz bezala, taldekideetako bat atxilotu zuten, Josu Bravo Azkuenaga
txistularia, "txistua jotzeagatik". Horren ondorioz, behin desfilea amaitu ostean, 'mani-
festaldi' tankerako segizio bat egin zen herrigunetik tren-geltokira joan eta etorri, "Gu
gira Euskadiko" abestuz eta "Askatasuna" oihukatuz.

Garellanoko militarren banda espainiarren musika jotzen ari zen plazan, eta jendetzak isilarazi zuen, 'Txistua, txistua' oihuka. Isileko poliziakideak eta guardia zibilak zeuden nonahi¹⁰².

Hala, jendearen jarrera irmoari esker, "Askatasuna. Askatasuna. Askatasuna!" oihuka jarraitzen zutela ikusirik, azkenean, aske utzi zuten Josu Bravo Azkuenaga txistularia.

Abuztuaren 7a. Zenbait arrasatear Zumarragara joan ziren, Gipuzkoako behin behineko Langile Komizioaren eraketa-ekitaldira. Espainiako Alderdi Komunistako, JOCeke eta ETako zenbait kide eta atxiki gabekoak izan ziren ekitaldi hartan. Brigada Politiko Sozialak eta Guardia Zibilak herria inguratu zuten, eta hainbat atxiloteta egin zituzten.

Urriaren 18a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Jose Antonio Ugarte Altuna desordena publikoagatik akusatu zuen, herriko tabernetako batean "oihu separatistak" egin izana leporatuta. Fiskalak hiru hilabeteko espetxe-zigorra eskatu zuen.

Urriaren 21a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Jose Antonio Mendizabal Etxabe, Jose Maria Zubiaga Ortiz de Anda, Juan Jose Ansoategi Etxeberria eta Jose Joaquin Abetxuko Zulueta auzipetu zituen, ETako *Ahutzak* taldearekin harremana zutela leporatuta.

Abenduaren 29a. Imanol Ormaetxea eta aramaioar bat atxilotu zituzten, Arrasaten eta Aramaion ELA-STVko talde batekin propaganda banatzen ari zirela, Estatuaren Lege Organikoaren erreferendumean abstentzioa sustatzeko ("Baiezko botoa, boto zuria zein ezezko botoa, Francoren aldeko botoa", "Euskalduna bazara, ez botorik eman"). Gero, Gregorio Etxabe Orobengoa, Nicanor Mugica Madinabeitia eta Jose Maria Lasagabaster atxilotu zituzten, Arrasaten.

1967

Martxoaren 7a. 'Hildakoen monumentuko' hilarriaren aurkako sabotaje-ekintza bat egin zen. ETA siglak agertu ziren inguruan.

Urte hartan bertan, Jose Luis Iñarra, San Joan Bataiatzailea parrokiako artzapeza, gobernuaren aginduz salatu zuten eta 25.000 pezetako isuna jarri zioten, lore-koroa batzuk kendu izana leporatuta, ez zituelako jo "neutraltzat"¹⁰³. Koroa haiek Mugimendu Nazionalaren Buruzagitzako eta Junta Karlistako agintariek jarri zituzten, "Gurutzadaren alde hildakoen" hilarriaren oinetan, eliz-atariko hormetako batean.

Apirilaren 9a. Berrito hautsi zuten hilarri hura, martxoaren 7an suntsitu ostean berre-raiki bazuten ere. ETAK bere gain hartu zuen ekintza hura.

102 Josu Bravo Azkuenagaren testigantza (garai hartan, EGIko kidea). *Ser Basque Izan*. Op. Cit., 267. or.


103 Jose Antonio Altuna Gallastegiren testigantza (1970etik 1976ra bitartean zinegotzi, eta 1976tik 1979ra bitartean herriko alkatea). BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete. Op. Cit., 152. or.

Apirilaren 21a. Ministro Kontseiluak salbuespen-egoera ezarri zuen berriro, Bizkaian, egoitza-askatasuna eta egoitzaren bortxaezintasuna murrizten zituena, eta atxiloaldien iraupena luzatzeko aukera zuena. Laminaciones de Bandas enpresako langileen greba eta langileekiko solidaritatea izan ziren aitzakiak: *“azken hilabeteetan behin eta berriz legearen kontra jardutea eta ordena publikoa aztoratzea, eta nabarmena izatea badirela legez kanpoko taldeen ekina eta kanpoko laguntza”*¹⁰⁴. Erbesteraketak egin ziren, eta Auzitegi Nagusiak legearen kontrako deklaratu zituen Langile Komizioak.

Guardia Zibilak Jose Ignacio Mendikute Urizar eta Jose Maria Odriozola Saramendi atxilotu zituen, ETaren aldeko propaganda banatu izana leporatuta. Biek salatu zituzten tratu txarrak eta tortura.

Apirilaren 30a.

“Mundrauetarrak” errefuxiatu taldeak gutun bat bidali zion, Baionatik, Jose Luis Iñarra artzapezari. Gutun hartan, frankistek jarritako lore-koroak kentzeko hartu zuen erabakia eta emandako eredia goraiatzeko zitzuzten, eta isuna ez ordaintzera animatzen zuten.



Maiatzaren 1a. Maiatzaren 1a dela-eta Ordizian egin zen manifestaldian, Felix Dorronsoro Zeberio atxilotu zuten, beste batzuekin batera.

Uztailaren 5a. Ordena Publikoaren Auzitegiak berriro auzipetu zuen Juan Jose Etxabe Orobengoa, auzi-ihesean zegoela.

Urriaren 1a. ETak sabotaje-ekintza bat egin zuen telebista-errepikagailuaren kontra.

Urriaren 20a. Jakin egin zen Ordena Publikoaren Auzitegiak, hilaren 18an, Jose Maria Lasagabasterren, Nicanor Mugicaren eta ELA-STVko beste kide batzuen aurka lau eta bost urteko espetxealdia eta hamarka mila pezetako isuna eskatu zituela.

1967an atxilotu zuten Mikel Zubia Murua “Txona” ere.

1968

Otsailaren 6a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Felix Dorronsoro Zeberio auzipetu zuen, 1967ko maiatzaren 1eko Ordiziako manifestaldian parte hartzeagatik.

¹⁰⁴ ABC 1967/04/22. Egunkari horren arabera, multikopistak eta propaganda aurkitu zituzten ezkutuko etxebizitzetako batean, eta Poliziak sei lagun atxilotu zituen, Barakaldon, Euskadiko Langileen Oposizio Sindikalarekin eta “Aurrera” eta “Vanguardia Obrera” argitalpenekin lotuta.

Apirila. Arrasateko Ikastolak lehen eskolak eman zituen, Arantza Barrutia buru zela, Iturriotz kaleko Zentro Katolikoan nolabait prestatutako ikasgela batean. Irailean, harekin bat egin zuten Adela Ibabe Ortuetak eta Ana Mari Aranak, Udalak Musakolako Maisu Aranbarri kalean zituen instalazioetan.

Erdi ezkutuko hezkuntza-proiektu euskaldun haren sorreran izan zuten bitarteko- eta baliabide-eskasia aipatzen zuen Ana Mari Aranak, erretiroa hartu eta gero, gogora ekartzen zuenean Guardia Zibilak '15 egunean behin kuartelera joanarazten gintuen, eta etengabe mehatxu egiten zigun, titulua kenduko zigutela esanez. Eta, gainera, 'zapatilleros' esaten ziguten, Burgoseko Prozesuaren aurkako manifestaldietan korrika ibiltzen ginelako¹⁰⁵.



Adela Ibabe herriko ikastolako umeekin, 70eko Euskal Jaian (Goiena).

Apirilaren 14a. Ikusirik Poliziak Donostia itxi zuela Aberri Egunaren deialdia zela-eta (hala eta guztiz ere, "jauziak" izan ziren, eta berrehun atxiloketa inguru egin zituzten), manifestaldiak deitu ziren Erreterian eta Arrasaten. Gurean, plazari zenbait bira eman ostean, manifestariak Portaloiko atean behera abiatu ziren, eta Ferrerias kalean sartu ziren. Han, Guardia Zibilak bi aldeetatik eraso zien, eta indarkeriaz kolpatu zituzten armekin. Izualdi handia eragin zuten, eta zenbait pertsona larriki zauritu ziren. Gobernu Zibilak isunak jarri zituen, baina haiek ez ordaintzea erabaki zenez, pertsona andana igaro zen Martuteneko espetxetik, administrazioari ez ordaintzeagatik.

Maiatzaren 1a. Maiatzaren 1a zela-eta Arrasaten egindako manifestaldia gelditu, eta atxiloketak eta kargak egin zituzten.

Maiatza. Ramon Urrizalki zenbait aldiz atxilotu zuten. Galdeketetan torturatu zutela dio, baina une hartan ez zituela salatu, errepresalien beldur zelako. Espetxean sartu zuten, eta, 15.000 pezetako fidantza ordaindu ostean, abenduan, aske utzi zuten.

105 OLIDEN, Kepa. "Cuatro décadas de Ikastola", *El Diario Vasco* 2009/12/20.

[Ordena Publikoaren Auzitegiak “zilegi ez den elkarte bateko kide izatea eta legearen kontrako propaganda egitea” leporatu zion, auzi-ihesean zela, 1969an Iparraldera ihes egin baitzuen beste bi arrasatearrek batera. Paun zazpi urtez bizi eta gero, 1977an itzuli zen, amnistia zela-eta].

Ekainaren 13tik 28ra. Txabi Etxebarrietaren aldeko hiletak egiteko saiakera guztiak jazarri ziren. Txabi Etxebarrieta (23 urtekoa) etakidea zen, eta Jose Antonio Pardines Arcay (25 urtekoa) hil zuen egun berean, ekainaren 7an, hil zuen Guardia Zibilak. Arrasaten manifestaldiak egin ziren eta errepideak moztu ziren, eta zenbait guardia zibilek balaz tiro egin zuten. Honela deskribatu zituzten gertakari haiek hiru sindikatuk, urte batzuk geroago: *Guardia Zibilaren basakeria izugarria zen; hamarka lagun atxilotu eta bortizki jipoitu zituzten Guardia Zibilaren kuartelean*¹⁰⁶.

Uztaila eta abuztua. Hainbat pertsona atxilotu zituzten Guardia Zibilaren eta Poliziaren elkarren segidako zenbait operaziotan, eta, are gehiago, abuztuaren 3an salbuespen-egoera ezarri eta gero. Ugariak izan ziren kuartelera joateko zitazioak. Alberto Zaitegi Garaik ere jaso zuen haietako bat, baina haiek nahi bezain azkar joan ez zenez, haren bila irten eta taberna batean aurkitu zutenean, Guardia Zibileko agente batek armaz jo zuen. Uztailaren 9an atxilotu eta kuartelera eraman zuten.

Muñecas tenientea Zarautzetik Arrasatera etorri zen, atxilotuek “bortizat” jo zituzten galdeketetan egoteko. Uztailaren 7an manifestaldi bat egin zen, eta, egun hartan bertan, Guardia Zibilaren kuarteletik igaro ziren Jose Maria Gorosabel Ezkurra (15 egun behar izan zituen osatzeko), Juan Jose Aranzabal Ceciaga (20 egun), Santiago Berezibar Irasuegi (15 egun), Manuel Laspiur Viteri “Sara” (20 egun) eta Juan Jose Mascariano Zubizarreta. Hilaren 8an, berriz, hauek atxilotu zituzten: Juan Jose Ansoategi Etxebarria (bi aste behar izan zituen osatzeko), Agustin Bergaretxe Unamuno (30 egun), Jose Antonio Jauregi Zaitegi (20 egun behar izan zituen osatzeko, eta Argentinako Kereilan pertsonatuta dago), Juan Antonio Aramburu Zabala-Oianguren (30 egun), Jose Luis Ezkurra Arregi (30 egun, eta Argentinako Kereilan pertsonatuta), Luis Javier Arrieta Berezibar (30 egun, eta Argentinako Kereilan pertsonatuta), Miguel Angel Agirre Alzola (Arrasaten sortu eta Aretxabaletan bizi zen), Jose Makazaga Arriola, Jose Vicente Errazti Zumalde eta Juan Jose Orueta Trojaola (Aretxabaletakoak azken hirurak). Hilaren 9an Fernando eta Leandro Barreno Moreno anaiak eta Eusebio Unamuno Loidi atxilotu zituzten. Guztiei tratu txarrak eman zizkieten kuartelean, eta hala dago jasota laguntza-zentroko mediku-txostenetan.

Hurrengo egunetan, beste hainbat atxilotu zituzten: Juan Maria Lazkano, Kepa Ormaetxea Milikua (tortura salatu zuen), Jose Luis Uli, Mikel Etxagibel, Joaquin Arregi, Mikel Zubia Murua “Txona” (tortura salatu zuen, besteak beste bainuontzikoa), Enrique

106 CCOO, LAB eta ESK. “Cómo se desmantela la Unión Cerrajera”. Monterronen 1993ko urtarrilaren 3tik 13ra bitartean egindako erakusketa zela-eta egindako argitalpena. 17. or.

Arana Mendikute, Txomin Iturbe Abasolo... Haietako asko Martuteneko espetxean sartu zituzten, Loiolako kuartelean Lasanta epaile militarren aurrean deklaratu ostean.

Abuztuaren 3a. Gobernuak, dekretuz, salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan, hiru hilabetez, bezperan Meliton Manzanas Gonzalez inspektorea (59 urtekoa) hil baitzuten, Irunen egindako atentatu batean. Atxiloketa gehiago egin ziren herrian: Jose Maria Zubiaga, Josu Otaduy, Etxabe anaiak (Gregorio, Luis, Jokin eta Iñaki)... Eta atxilotuetako batzuk urruneko herrietara erbesteratu zituzten; besteak beste, Gregorio Etxabe (Teba, Malaga), Luis Etxabe (Alatoz, Albacete) eta Vicente Garmendia frantziskotarra.

Azaroaren 4a. Salbuespen-egoera hiru hilabetez luzatu zen Gipuzkoan. Jose Manuel Pagoaga Gallastegi "Peixotok" Iparraldera ihes egin zuen, baita Jose Maria Lasagabasterrek ere.

Azaroaren 24a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Antonio Cobos Delgado, Jose Luis Urrutia Erguin eta Juan Luis Berecibar Uriarte auzipetu zituen, legearen kontrako manifestaldi batean parte hartu izana leporatuta.

Abenduaren 7a. Mitxel Lopez Losada eta Jose Manuel Moral Arana arrasatearrak Oñatin atxilotu eta Gasteizeko komisaldegira eraman zituzten, Benito Zumalde Romero eta Javier Ibañez Ortuzar oñatiarrekin batera. Gero, Donostiara eraman zituzten. Ikurrinak banatu eta ETaren aldeko pintadak egin izana leporatu zieten, eta espetxera bidali zituzten guztiak, Lopez Losada izan ezik. Azken hori aske utzi zuten, eta torturak salatu zituen.

Abenduaren 7a. Jose Maria Dorronsoro Zeberio "Unai", irakaslea eta ETako liberatua, indarrez atxilotu zuten Arrasateko Garmendia tabernan. Puerto de Santa Mariako espetxean sartu, eta Burgoseko Prozesuan epaitu zuten 1970ean. Heriotza-zigorra jarri zioten, gerora zigorra kommutatu bazioten ere. Juan Jose Ansoategik, Agustin Bergaretxe Unamunok, Jesus Maria Zabartek eta Txomin Iturbe Abasolok ihes egitea eta Iparraldera igarotzea lortu zuten.

Urte horretan, Auzitegi Gorenak legez kanpoko deklaratu zituen CCOO (urriaren 15ean, eta abenduaren 18an eta 27an), UGT (abenduaren 2an), FIJL (gazte libertarioen iberiar federazioa) eta ETA (apirilaren 3an eta 9an, ekainaren 24an eta azaroaren 18an)¹⁰⁷.

1969

Urtarrilaren 24a. Gipuzkoakoa amaitu gabe, salbuespen-egoera ezarri zen Espainia osoan. Espainiarren Foruko 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua indarrak gabe utzi ziren, adierazpen-askatasunari, biltzeko askatasunari eta elkartzeko askatasunari eragiten diotenak, batez ere. Martxoaren 25era arte iraun zuen.

107 SARTORIUS Nicolas eta ALFAYA Javier (1999). *La memoria insumisa sobre la dictadura de Franco*. Madril: Espasa, 254. or.

Apirilaren 11. Ordena Zibilaren Auzitegiak Luis Javier Arrieta Berecibar eta Juan Antonio Aramburu Zabala-Oyanguren epaitu zituen, manifestaldi ez-baketsu batean parte hartzeagatik, eta sei hilabeteko atzipenaldi handiko zigorra eta isun bat jarri zizkien. Juan Jose Ansoategi Etxebarria, Agustin Bergaretxe Unamuno, Jose Ramon Auzmendi, Esteban Arana, Jose Luis Mondragon (Guardia Zibilak eta Poliziak tiroz hil zuten 1974/05/20an, Hondarribian) eta Jesus Maria Zabarte auzi-ihesean zeudela epaitu zituzten.

Maiatzaren 19a. Arrasateko telefono-lineak sabotatu zituzten, telefono-zutoin bat aizkoraz botata. Gertakizun horiek leporatuta, Mitxel Lopez Losada eta Jose Manuel Moral Arana atxilotu zituzten, epaituak izateko zain zeudela.

Maiatzaren 24a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Roberto Lopetegi Arrezibar epaitu zuen, herrian ikurrina jarri izana leporatuta. [Urte haietan ikurrin asko jarri ziren herriko hainbat lekutan, besteak beste Banco de Vizcaya eraikinaren goiko aldean].



Ekainaren 24a. Herriko San Joan jaiei boikot aktiboa egiteko deialdia egin zen, "Euskal Herriak bizi duen zapalkuntza dela-eta".

Abuztuaren 18a. Mikel Etxaburu Biain oñatiarra eta Juan Ramon Garai Bengoa arrasatearra atxilotu zituzten, Beran. Berako kuarteletik Guardia Zibilaren Iruñeko kuartelera eraman zituzten, eta, han, kolpeka hartu zituzten. Martuteneko espetxean, 20 egun eduki zituzten ziegatik atera gabe. Epaille militarrek, Lasanta Martinez teniente koronela, bi urte eta erdiko espetxe-zigorra jarri zien, etakide izateagatik, zilegi ez den elkarte bateko kide izateagatik, alegia.

Abuztuaren 20a. Jose Antonio Auzmendi Ayerbe arrasatearra eta Maria Aranzazu Jauregi Arteché oñatiarra atxilotu zituzten. Jose Luis Mondragon Elorzak iskin egin zion atxiloketa hari, eta Iparraldera joan zen.

Abuztuaren 23a. Pedro Maria Arizabaleta Aranburu, Jose Ignacio Mendikute eta Jose Antonio Ansoategi Iribecampos atxilotu zituzten. Urtearen amaieran, Enrique Arana Mendikute Iparraldera igaro zen, "gaizkileen elkarteko" kide izateagatik atxiloketa-eskaera ekiditeko.

Urriaren 4a. Jose Maria Dorronsoro Zeberio "Unairen" eta beste zenbait pertsonaren aurkako gerra-kontseilua egin zen Loiolako kuartelean, *El Correo Español*en Eibarreko egoitzaren aurka lehergailu bat jartzeagatik. 25 urteko espetxe-zigorra jarri zieten.

Azaroa. Frantziako Poliziak Txomin Iturbe atxilotu zuen. Bost aldiz atxilotu zuten Franco hil aurretik.

1970

Urtarrilaren 5a. Ordena Publikoaren Auzitegiak, 1969/12/17an egindako audientzian, zigor-epaia eman zuen Jose Antonio Esteban Jauregiren eta herriko beste zenbait pertsonaren aurka, sententzian jaso zenez, Arrasaten egin zen protestaldi "separatista ez-baketsu" batean parte hartu izanagatik epaitu ostean. Protesta hura Txabi Etxebarrieta Benta Haundin (Tolosa) hil zutela-eta deitu zen.

Martxoaren 14a. Frantziako Poliziak Juan Jose Etxabe atxilotu zuen, eta hiru hilabeteko espetxe-zigorra jarri zioten. Horren aurrean protesta egite aldera, Etxabek gosegreba egin zuen Daxeko espetxean, eta, hilaren 20an, harekiko elkartasunez, errefuxiatu talde batek gosegreba hasi zuen Baionako udaletxean, eta, gero, katedralean.

Apirilaren 21a. Jose Manuel Moral Arana eta Miguel Angel Lopez Losada epaitu zituzten, 1969ko maiatzaren 19an Arrasateko telefono-lineak moztu izana leporatuta. Maiatzaren 8an Martuteneko espetxean sartu zituzten, zortzi hilabeteko espetxe-zigorra betetzeko.

Abenduaren 3a. Greba orokorra egin zen Arrasaten¹⁰⁸, Burgoseko Gerra Kontseiluan 16 etakideren aurka abiatu zen epaiketa zela-eta (bederatzi heriotza-zigor jarri zizkieten auzipetutakoetatik seiri). Manifestaldiak eta atxiloketak egin ziren. Liskar gogorrak izan ziren Guardia Zibilarekin. Hainbat pertsona zauritu zituzten balaz. Greba zabaldu egin zen hurrengo egunetan (Unión Cerrajera...).

*Arrasaten, manifestariak harrira eraso zioten Guardia Zibilaria, batera eta bestera zebilela, etsita, alde guztietatik setiatuta zutela ikusita*¹⁰⁹.

108 "Lehenengoz ezagutu zen grebak eta manifestaldiak eginez aktiboki mobilizatzen den langile mugimendu herritar bat. Zenbait egunetako lanuztea egin zen (...) Lantokiko Langile Komisoiak gidatutako lehen lanuztea izan zen (Unión Cerrajera)". CCOO, LAB eta ESK. Op. Cit., 17. or.

109 "Lehenengoz ezagutu zen grebak eta manifestaldiak eginez aktiboki mobilizatzen den langile mugimendu herritar bat. Zenbait egunetako lanuztea egin zen (...) Lantokiko Langile Komisoiak gidatutako lehen lanuztea izan zen (Unión Cerrajera)". CCOO, LAB eta ESK. Op. Cit., 17. or.

Abenduaren 4a. Hiru hilabeteko salbuespen-egoera ezarri zuten Gipuzkoan, batetik, hilaren 1ean Alemaniako kontsula, Eugen Beihl Schaeffer, bahitu zutelako eta, bestetik, gerra-kontseiluaren aurkako protestak orokortu zirelako. Poliziak Juan Jose Etxabe inplikatu zuen bahiketa hartan. Eta grebak aurrera egin zuen. Arrasaten manifestazioak egin ziren eguna joan eta eguna etorri, eta Guardia Zibilak kargak egiten zituen, benetako munizioa erabiliz, baita atxiloketak ere. Hilaren 8an, Eibarren, Nazioarteko Alderdi Komunistako kide bat hil zen, Roberto Perez jauregi (21 urtekoa), kaleko jantzia zeraman polizia baten tiro baten ondorioz. Protesta gehiago izan ziren. Hilaren 14an, Espainia osora zabaldu zen salbuespen-egoera.



Burgoseko Prozesua zela-eta egindako protesten sakabanaketa, 1970ean. (Kepa Ormaetxeak utzitako argazkiak)

1971

Otsailaren 7a. Salbuespen-egoera kendu zuten. Alabaina, Gipuzkoan indarrik gabe iraun zuen Espainiarren Foruko 18. artikulua, eta beraz 72 orduz baino gehiagoz atxiki zitezkeen atxilotuak.

Uztailaren 5a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Mikel Deogracias Etxaburu Biain, Juan Ramon Garai Bengoa eta Juana Anduaga Igartua zigortu zituen, zilegi ez den elkarte bateko kide izateagatik (ETAkoak izateagatik), eta, auzi-ihesean, baita Jose Antonio eta Jose Ramon Auzmendi Aierbe anaiak, Manuel Garmendia Zubiarrain, Txomin Iturbe Abasolo, Esteban Maria Arana Mendikute, Maria del Rosario Iglesias Aloitz, Juan Jose Ansoategi Etxeberria, Jesus Maria Zabarte Arregi, Jose Luis Mondragon Elorza eta Agustin Bergaretxe Unamuno ere. Zigorak bi urte eta erditik hiru urtera bitartekoak

izan ziren, azken auzipetuari jarritakoa izan ezik, 7 urteko zigorra jarri baitzioten, berre-
rorlea izateagatik. Ahozko epaiketa hartan, Auzitegiak libre utzi zituen Maria Aranzazu
Jauregi Arteche, Pedro Maria Arizabaleta Aramburu, Maria Begoña Lizarralde Cendoya
eta Guillerma Llano Echaguibel.

1972

1972ko lehen egunetan "Aintzina" kanpaina gorpuztu zen, eta EGI Batasunak ETArekin
bat egin zuen hainbat bilera egin ostean (haietako batzuk Kanpazarreko gaineko Etxabe
Enea benta-jatetxean egin ziren). Bi erakunde horiek behin betiko akordioa sinatu zuten
apirilaren 1ean, Aberri Egunean, Erandioko etxebizitza batean.

Iraila. 72-73 ikasturtean, Ikastolako Guraso Elkarteak, parrokiako apaiz lagunkidea
lehendakari zuela, zuzendari berri bat izendatu zuen "eta behin-behineko kargutik kendu
zuten andereñoetako bat. Irakasleek komisario politiko baten inposaketatzat jo zuen
hura. (...) Gatazka haren ondorioz, hamabost irakasle kaleratu zituzten. (...) Pedagogia-
ereduari ez jarraitzea eta Guraso Elkartearen aginteari men ez egitea leporatu zieten.
(...) Kanpaina bat atera zuten kalera (...) errealitatea bihurrituta. Ikasleei erlijioaren aur-
kako ideiak, ideia espainolistak, ideia komunistak eta, are, amodio askearen aldekoak
erakusten zizkietela leporatuta". Halaxe esan zigun Josemaria del Palacio Alonso herri-
tarrak, eta, gaineratu, "batzu-batzuk, ez gehienak, gero ETA Berri izango zenaren alde-
koak ziren, gerora EMK izango zenaren aldekoak"¹¹⁰.

*Protagonistek bizi izandako buruhaustea baino harago, Arrasateko
ikastolakoak sekulako zatiketa eragin zuen herrian. Adelarekin batera
kanporatutako irakasle baten hitzetan, "tentsio une eta liskar handiak egon
ziren Arrasaten. Kaleratzeak gertatu eta berehala, herrian egin ziren gure
aldeko manifestazio handi samarrak. Agerraldi haietan, jatorri ideologiko
desberdinetako herritarrak elkartu ziren, baina, handik gutxira, komunistak
eta espainolistak ginela zabaldua, asko gutxitu ziren gure aldeko elkartasun
erakustaldiak. Azkenera, geratu ginen bakartuta eta gaizki ikusiak"¹¹¹.*

Urriaren 6a. Frantziako Poliziak Jose Manuel Pagoaga Gallastegi "Peixoto" atxilotu eta
espetxeratu zuen, denbora gutxirako izan bazen ere.

110 DEL PALACIO ALONSO, Josemaria. *Secuelas de nuestras guerras y derrotas, de la República a la 'modélica' Democracia*. Letras de
Autor. Ateneo Republicano Araba, 2017, 261. eta 345. or.

111 AZKARATE LASPIUR, Eneko. *Goiena* 2012/12/12. "Adela Ibabe, andereño 'gorri' aramaioarraren gaineko kontakizun hunkigarria".

1973

Apirilaren 19a. Poliziak ETaren adar militarreko burua, Eustaquio Mendizabal Benito “Txikia” (28 urtekoa), tiroz hil zuen, Algortan. Harekin zihoan Jose Manuel Pagoaga Gallastegi “Peixoto”, baina ihes egitea lortu zuen.

Apirilaren 22a. Urte horretan, zenbait herritan deitu zen Aberri Eguna. Arrasaten, “berebiziko garrantzia hartu zuen ETaren deialdiak, herria Guardia Zibilek hartuta baitzegoen azken hilabetean. Egun hura Eustaquio Mendizabal “Txikia”ri egindako omenaldi bihurtu zen”¹¹².

Irailaren 26a. Jesus Maria Zabarte Arregi “Garratz” etakidea balaz zauritu zuten Bilboko Areilza eta Urkijo kaleen artean, Simca 1200 batera sartzen ari zela. Bi zangoak eta eskuineko eskua zauritu zizkioten, eta handik gutxira atxilotu zuen Guardia Zibilak, Jesuiten ikastetxetik hurbil izan zen tiroketa batean (balaz egindako hainbat zulo ikus zitezkeen haren horman). Harekin zihoan Imanol Mitxelena Loiarde “Oxobi”, eta bost tiro jaso zituen. Batek birika jo zion, eta beste batek, berriz, femurra hautsi. Jose Maria Vecino Garcia polizia ere zauritu zen. Bi metakarpoko hezurra haustura irekia eragin zioten, eta Basurtoko ospitale zibilean artatu beharra izan zuten. Ospitale hartan egin zizkieten ebakuntzak bi etakideei ere. Jesus Maria Zabartek tortura gogorak jasan izana salatu zuen.

Zabarte eta Mitxelena harrapatu ondoren, Poliziak Jon Goikoetxearen ama atxilotu zuen besteak beste, Jesus Maria Zabarte Iruritako etxean hartu izana leporatuta —Jon Goikoetxea (22 urtekoa) Guardia Zibilak hil zuen 1972ko martxoaren 15ean—.

Urriaren 29a. Enrique Gorriño Oar-Arteta abokatuak salatu zuen Poliziak kontrol batean atxilotu zuela, Arrasatetik Bergarara arteko errepidean, eta galdeketa egiteaz gain, tratu txarrak eman zizkiotela eta hertsatu egin zutela¹¹³. Ordena Zibilaren Auzitegiak epaitu zuen, 1975/09/19an.

Azaroaren 30a. Jose Ignacio Mendikute Urizar eta Jose Antonio Ansuategi Iribecampos arrasatearrei urtebete eta sei hilabeteko espetxe-zigorra jarri zien Ordena Zibilaren Auzitegiak, ETako kide izatea leporatuta, azaroaren 14an egindako ahozko epaiketa batean.

Abenduaren 20a. Unión Cerrajerakoek lanuztea egiteko deialdia egin zuten, 1001 prozesua abian jartzekoa zela-eta, CCOOeko buruzagien aurka. Guardia Zibilak lan-tegiko langile-komisioko kide bat atxilotu zuen, Juan Ramon Garai Bengoa, lanuztea bultzatu zutenetako bat zela leporatuta. Horren ondorioz, ekoizpena gelditu egin zela ikusirik, langileen burua kuartelera joan zen, aske utz zezaten eskatzera. Egun hartan bertan, ETak Espainiako Gobernuko presidentea, Luis Carrero Blanco almirantea, hil

112 BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete. Op. Cit. 2. liburukia, 707. or.

113 Aurretiatzko eginbideak: 208/73. Agindu-zenbakia: 1502. Ferroleko Tarteko Artxibo Militarra (Kutxa: 105. Jatorria: Donostia). Hau irakur daiteke: “Galdeketak, tratu txarrak eta hertsapena”.

zuen Madrilan egindako atentatu batean. Atentatu hartan, haren eskolta, Juan Antonio Bueno Fernandez polizia-inspektorea, eta gidaria, Jose Luis Perez Mogena, ere hil ziren.

Urte hartan, Errasti anaiak, Jose Agirre Bizkai eta Angel Paunero "Marru" ere atxilotu zituzten.

1974

Urtarrilaren 1a. Frantziako agintariek herrialde horretako hainbat herritan konfinatu zituzten, besteak beste, Kepa Akizu, Juan Jose Etxabe eta Javier Zumalde. Hilaren 5ean, Frantziako Poliziak Txomin Iturbe, Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" eta Iñaki Abaitua atxilotu zituen, baina gutxira askatu zituzten. Iturbe eta "Peixoto" otsailaren 18an atxilotu zituzten berriro, eta, epaitu ostean, hiru hilabeteko espetxe-zigorra jarri zieten.

Apirilaren 14a. Aberri Eguna. Andoni Marcuello aretxabaletarra eta Juantxo Enekotegi eskoriatzarra atxilotu zituzten; Mikel Etxagibel Murua arrasatearrak ihes egitea lortu zuen. Arrasateko beste bi herritar atxilotu zituzten hilaren 26an, ETApn-eko kide izatea eta Aberri Egunean Donostiako Epaitegiari eta beste instantzia batzuei molotov koktelak jaurti izana leporatuta: Bittor Aranzabal Balzategi eta Jose Luis Iñurritegi Galdos.

Maiatzaren 20a. Guardia Zibilak eta Poliziak Jose Luis Mondragon Elorza arrasatearra (26 urtekoa) eta Xabier Mendez Villada (21 urtekoa) tiroz hil zituzten, Hondarribiko Asturiaga hondartzan, *zodiac* batetik lehorreratzen ari zirela. Biak Iparraldean errefuxiatuta zeuden –Jose Luis Mondragon, 1969az geroztik–, eta, hurrenez hurren, 1970ean eta 1973an utzia zuten ETA. Itxura denez, bahiketa bat egin asmo zuten, Santurtzin atxilotutako zenbait presorengatik trukatzeko helburuarekin, baina infiltratu batek salatu zituen, haiekin zihoan eta zauririk gabe ihes egitea lortu zuen kideak, Jesus Arrondo Martin "Kokolisok". Oso adierazgarriak dira kazetari baten hitz hauek:

Lehen begiratuan, deigarria da haiek ustez izan zuten ausardia, egun argiz lehorreratu baitziren, lerro zuzenean Guardia Zibilaren Higer lurmuturreko kuarteletik ehunka metro batzuetara eta arrantza-portutik hurbil, leku horiek biak etengabeko zaintzapean egonik¹¹⁴.

Guardia Zibilak zuzenean hilerrira eraman zuen Jose Luis Mondragonen gorpua, eta ez zion hura ikusteko aukerarik eman familiari. Protesta-manifestaldi bat egin zen.

Jose Luisen [Mondragon Elorza] heriotza kolpe latza izan zen Arrasaten. Egun batzuk geroago Pedro O. herritarren sinadurak biltzen hasi zen, gure kaleari izena alda ziezaioten. Extremadura kalea izatetik Hondarribia kalea izatera

114 *El Diario Vasco*ren lehen orrialdea, 1974/05/21.

*igaro zen, eta aldaketa hutsala zen itxuraz, baina guztiok genekien Jose Luisi egindako omenaldia zela*¹¹⁵.

Ekainaren 11a. Jesus Maria Zabarte Arregiri 30 urteko espetxe-zigorra jarri zioten 1973/07/04an Santanderren egindako gerra-kontseilu batean. Beste bi gerra-kontseilutan epaitu zuten irailaren 19an eta azaroaren 27an, Burgosen, bi-bietan.

Azaroaren 6a. Guardia Zibilak Enrike Pagoaga Gallastegi, Kepa Ormaetxea Milikua, Pili Inza eta Juli Pagaldai atxilotu zituen Beasainen egindako kontrol batean. Lehenik Ordiziako kuartelera eraman zituzten, eta, gero, Antiguoko komandantziara. Enrike Pagoaga espetxera sartu zuten, eta tortura salatu zuen. Beste hirurak aske utzi zituzten, baina Kepa Ormaetxeak tratu txarrak jasan zituela esan zuen.

Azaroaren 18a. Frantziako Poliziak Jose Manuel Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen, gero aske utziko bazuten ere.

Abenduaren 2a eta 3a. Greba orokorra deitu zen, amnistiaren alde eta errepresioaren aurka. Lanuzte esanguratsuak egin ziren Debagoienean. Greba hark bat egin zuen Jesus Maria Zabarteri jarritako zigorratik protesta egite aldera espetxeetan egiten ari ziren gose-grebarekin.

Abenduaren 11. Beste greba orokor bat egin zen, aurrekoak baino ondorio handiagoekin, bizimodua hain garestia izatearen aurka, eta askatasun demokratikoen eta amnistiaren alde. Poliziak kargak eta atxiloketak egin zituen.

Abenduaren 17a, 20:45ak aldera. ETApm-eko zenbait kidek Luis Santos Hernandez Guardia Zibileko tenienteordea (52 urtekoa) eta Argimiro Garcia Estevez guardia lehena (52 urtekoa) hil zituzten martxan zihoan auto batetik tiro eginda, bietako bat kaleko jantziarekin eta bestea uniformearekin zeudela, Ferixalekuaren kalean, Gurea zinematik gertu. Azokaren ondoko Txoko tabernatik irten berriak ziren (egun Otalora kalea denean). Kale horretan aparkatutako moto bat eta Seat 850 bat ere jo zituzten dozena bat balarekin, baina ez zen beste zauriturik izan. [Oraindik ere ikus daiteke bala batek egindako zuloa Txoko tabernaren ondoan]. Bi agenteak Arrasateko laguntza-zentrorra eraman zituzten, baina Argimiro Garcia hilik iritsi zen. Hango mediku-taldeak Luis Santos Hernandez Barakaldoko Gurutzetako erietxera eramatea erabaki zuen, baina gauerdia baino lehen hil zen. Guardia Zibilak Kepa Ormaetxearen etxea miatu zuen gauaren lehen orduetan, baina ezer aurkitu gabe irten ziren. Atentatuan erabili zuten autoa Extremadura kalean aparkatuta aurkitu zuten, gerora Hondarribia kalea izango zenean, Ormaetxea bizi zen kalean, hain zuzen.

Abenduaren 17a, 23:55ak aldera. "Inkontrolatu"en lehergailu batek eztanda egin zuen Arrasateko Makatzena kontsumo-kooperatiban. Hedatze-uhinak botilak leherrazi

115 DEL PALACIO ALONSO, Josemaria. Op. Cit., 267. or.

eta eraikinaren inguruko etxebizitzetako leihoetan kalteak eragin zituen, baina ez zen hildakorik izan. Halaber, lehergailuak jarri zituzten Tolosako Comercial Guernican eta Donostiako Efectos Navales Mariano Larrandian.

Abenduaren 17tik 18rako gaua, 00:45ak aldera. Guardia Zibilak hainbat dispositibo jarri zituen egun osoan, Arrasaten bi agenteak hil zituen ETApm-eko komandoa atxilotzeko. Kontrol bat jarri zuten Donostiako Errekalde auzoan, eta kontrol hartan zeuden agenteek auto baten aurka tiro egin zuten, gelditzen ez zelako. Autoan zihozenezako bat hil zuen, Mikel Salegi Urbieta (21 urtekoa), Zubietan lankide batzuekin afaldu ondoren zihoala. Gidariak ez zituen kontroleko seinaleak ikusi, aurrez gerarazi zituzten autoek estaltzen zituztelako, lankideen bi autok besteak beste. Ez zuten gidaria zauritu.

Abenduaren 19a. Argimiro Garcia Estevez eta Luis Santos Hernandez guardia zibilen aldeko hileta-elizkizunak egin ziren Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokan. VI. Barruti Militarreko kapitain jenerala bertaratu zen, bai eta Gipuzkoako gobernadore zibila eta gobernadore militarra ere. Hileta-segizioak parrokiatik Guardia Zibilaren kuartelera arteko ehun metro inguruko ibilbidea egin zuen, han jarria baitzuten hil-kapera. Bertaratutakoek "Cara al Sol" eta Guardia Zibilaren ereserkia abestu zituzten hiletak amaitutakoan.

Hurrengo egunean, abenduaren 20an, Maria Luisa Urbieta Elosegik, Mikel Salegi gaztea zenaren amak, testu hau irakurri zuen bere semearen hiletan, amen arteko enpatia-keinu bat egite aldera: *Gaurko prentsan irakurri ditut Arrasaten egindako hiletei buruzkoak, eta, besteak beste, emazteen, amen eta seme-alaben sufrimenduari buruzkoak. Nire semeagatik sentitzen dudan min latz honek haienagatik hunkiarazten nau, eta zinez errespetatzen ditut. Elizkizunean justizia agindu zaie, eta justizia hori bera eskatzen dut nik nire semearengatik, tamalez, alabek eta nik orain arte atek ixten dizkigutela besterik ikusi ez dugun arren.* Polizia-buruei ere hitz egin zien, errespetuz, eta bi guardia zibilen alde Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokan irakurri zuten *Gaudium et Spes* pastorala irakurri zuen, etorkizunean heriotza gehiago gerta ez zitezen: *Armadan Aberriaren alde lanean dihardutenek jo bezate beren burua herrien segurtasunaren eta askatasunaren tresnatzat, lanbide bat egokiro betez itzelezko ekarpena egiten baitiote bakeari eusteko ahaleginari.* Donostiako hiletetara joandako jendetzak Santa Maria eliza bete zuen. Ordena publikoaren indarrek kargak egin zituzten hara joandakoen aurka, eta atxilotetak ere izan ziren. Maria Luisa Urbieta bera ere kolpatu zuten.

Abenduaren 20a. Luis Santos tenienteordearen gorpua Serradilla del LLanon hilobiratu zuten (Salamanca), Enrique Falco Oliver generala aurrean zela. Ciudad Rodrigoko gotzaina eta gobernadore zibila hara joan ez izanagatik desenkusatu ziren, Madrilen baitziren, Luis Carrero Blanco almirante eta gobernuko presidentearen aldeko elizkizunean. Argimiro Garcia Estevez Donostian lurperatu zuten.

Abenduaren 14a. Josu Urruxola Atxa atxilotu zuten. Garai hartan kooperatiba bateko gerentea zen, eta Arrasaten egindako azken grebetako baten bultzatzailea izatea leporatu zioten. Mila pezetako isuna jarri zioten, baina ez zuenez ordaindu, espetxean izan zuten 1975eko otsailera arte.

1975

Otsailaren 12a. Poliziak Unión Cerrajerako lau sindikalista atxilotu zituen: Joaquin Arrieta, Andoni Garai, Juan Ramon Garai eta Jone Txintxurreta (haurdun zegoela). Jone Txintxurreta aske utzi zuten odola galtzen hasi zenean, baina beste hirurak ez zituzten aske utzi Gobernu Zibileko ziegetan 72 ordu igaro zituzten arte. Hirurek salatu zituzten tratu txarrak. Mariano Arrietak sarekada hari iskin egin, eta Bizkaira ihes egitea lortu zuen.

Apirilaren 1a. Poliziak Ivan Arana Altuna atxilotu zuen.

Apirilaren 16a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Bittor Aranzabal Balzategi eta Jose Luis Iñurritegi Galdos epaitu zituen. 4 urteko zigorra jarri zein ETApM-eko kide izateagatik, eta beste 12 urteko zigor bat, terrorismoagatik.

Apirilaren 25a. Francoren Ministro Kontseiluak hamaikagarren salbuespen-egoera ezarri zuen dekretuz Gipuzkoan eta Bizkaian, hiru hilabetekoa. Indarrak gabe utzi zituzten Espainiarren Foruko 12., 14., 15., 16. eta 18. artikulua, "izaera oldarkorreko eta terroristako aztoratze-ahaleginen aurrean hiritar bakea babesteko premia" aitzakia hartuta¹¹⁶.

Apirilaren 25a. Egun hartan bertan hasi ziren atxiloketak egiten. Guardia Zibilak Kepa Ormaetxea Milikua atxilotu zuen (azaroan atxilotu bazuen ere, aske utzi zuena), eta zazpi egun izan zuen Bilboko Maria Muñoz kaleko komisaldegian, eta beste bi Gordonizekoan (Indautxu). Jabier Ansoategi Etxebarria ere atxilotu zuten. Bi-biak libre eta kargurik gabe irten ziren, eta tortura salatu zuten.

Brigada Politiko Sozialak Piedad Egidazu Landaluze arrasatearra atxilotu zuen, 19 urtekoa, Gizarte Zientzietako ikaslea. Egun hartan bertan atxilotu zuten haren mutil-laguna, Javier Ansoategi. Salbuespen-egoera hartan abokatu-talde batek argitaratutako berri-paper batean jaso zenez (*Boletín de Noticias del País Vasco*¹¹⁷), "ehunka flexio eginarazi zizkieten, eta etengabe buruan kolpeka eta ileetatik tiraka aritu zitzaizkion, eta, lurrera erortzen zen bakoitzean, ostikoak ematen zizkieten sabelean eta hanketan" Piedad Egidazuri. Hamar egun izan zuten komisaldegian, maiatzaren 5era arte.

¹¹⁶ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1975/04/26. Estatuko agintaritzaren lege-dekretuaren lehen aipamena.

¹¹⁷ *Boletín de Noticias del País Vasco*, 1975eko salbuespen-egoerako ezkutuko argitalpene. Bilbon argitaratutakoa. Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Dokumentazio Gunea.

*Ehunka flexio eginarazi zizkidaten... Ziegara itzulitakoan, ile-matazak geratzen zitzaizkidan eskuan, burua ukitze hutsarekin*¹¹⁸.

Apirilaren 26a. Brigada Politiko Sozialak berriro atxilotu zuen Jabier Ansoategi Etxebarria, aske geratu eta ordu gutxira. Jabier Bengoa eta Jose Ramon Zabalo Lequericaonaindia ere atxilotu zituen. Azken hori maiatzaren 5era arte izan zuten komisaldegian, Basauriko espetxean sartu aurretik. Tortura salatu zuen:

*Inkomunikatuta izan ninduten bederatzi egun, Bilboko komisaldegian, eta, egun haietan, 10 galdeketa egin zizkidaten, hiru ordukoa bakoitza. Kolpeka aritu zitzaizkidan, borrekin, aulkiekin, ustekin eta ukabilekin. 'Kirofanoa' eta 'gurpila' egin zizkidaten. Eskuak belauten atzean lotuta nituela, oinez ibiltzera behartzen ninduten, polizia batzuek ostikoak ematen zizkidaten bitartean, azkarrago ibil nedin. Nire itxurak atentzioa deitu zuen epaitegian, eta, horrenbestez, tratu txarrak idatziz jaso ziren*¹¹⁹.

Apirilaren 27a. Brigada Politiko Sozialak atxilotetak egiten jarraitu zuen, eta Pakito Arriaran Arregi (20 urtekoa) eta Luis Maria Etxabe Orobengoa (34 urtekoa) atzitu zituen. Lehena bederatzi egun izan zuten Bilboko Maria Muñoz kaleko komisaldegian, eta 4na orduko 7 galdeketa egin zizkioten. Tortura salatu zuen, eta espetxera sartu zuten (zortzi hilabetez espetxean izan ondoren, libre utzi zuten). Luis Etxabe 12 egun izan zuten komisaldegian, eta familiari ez zioten esan non zuten ere, zortzi egun igaro ziren arte: *Bina orduko bi jipoi eman zizkidaten, eta lau orduko bat. Familiak tratamendu baterako behar nituen pilula batzuk eta dirua utzi zituen komisaldegian, baina ez zizkidaten helarazi*¹²⁰. Behin-behineko askatasuna eman zioten. Antton Elorzak polizia-dispositibotik ihes egitea lortu zuen.

Apirilaren 29a. Brigada Politiko Sozialak Jesus Aranzabal Gamarra (21 urtekoa) atxilotu zuen, eta hamaika egun izan zuen Bilboko komisaldegian. Galdeketetan lau jipoi eman zizkiotela salatu zuen, ordubeteko bakoitza. Basauriko espetxean sartu zuten.

Salbuespen-egoera hartan atxilotu zituzten honako hauek ere: Juan Maria Ansoategi, Kinito Arrieta, Jose Luis eta Iñaki Barrutia Arregi, Roberto Bolinaga, Imanol Moreno eta Xabier Perez de Arenaza.

Maiatzaren 11. "Inkontrolatu"ek lehegailu bat jarri zuten Elorrion, Kanpazar gaineko Etxabe Enea jatetxean. Etxabe familiarena zen; bi anaia Iparraldean errefuxiatuta zeuden.

Maiatzaren 15a. Guardia Zibilak Jesus Mari Markiegi Aiastui arrasatearra (Artubi baserrikoa) tiroz hil zuen, 20 urte zituela, Ajangizen, Gernikan egin zuten polizia-operazio baten osteko pertsekuzio baten ondoren. Operazio horretan Domingo Sanchez

118 BIZKARRALEGORRA, Elisabete. Op. Cit., 82. or.

119 *Boletín de Noticias del País Vasco*. Eta *Ser Basque Izan*, 82. or.

120 *Ibidem*. Eta *Ser Basque Izan*, 82. or. Eta *Euskal Artxibo Historikoan* (Eusko Jaurlaritzaren Lehedakaritzaren Sailaren Funtsa. P-133/2-4).

Muñoz guardia zibila ere hil zen, bai eta Markiegi eta beste etakide bat, Txomin Iturbe Abasolo, etxean hartu zituzten senar-emazteak ere, Blanca Salegi Allende eta Iñaki Garai Legarreta. Txomin Iturbek ihes egitea lortu zuen. Hau da gertaera haien kontaktuzuna, Elisabete Bizkarralegorra Otazua legelariaren hitzetan:

Hanka batean zaurituta zegoela, Markiegi ekialderantz irten zen, eta, ibaia igaro ostean, bi bizitzako baserrira iritsi zen (...). Mutilak ez zeraman armarik, eta besoak jasota zeramatzan guardia zibilek hil arte tirokatu zutenean, nahiz eta baserritarrek atzemaileei jakinarazi zieten zauritutako mutil hark ez zeramala armarik¹²¹.

Protesta ugari egin ziren.

Maiatzaren 16a. Jesus Mari Markiegi Aiastuiren hiletak egin ziren Arabako hiriburuan.

Ekainaren 7a. Guardia Zibilak Manuel Gonzalez Fernandez balaz zauritu zuen hanka batean, Arrasate eta Bergara artean jarritako kontrol batean.

Ekainaren 28a. Talde parapolizial batek lehegailu bat jarri zuen Jokin Etxabek Baionan zuen jatetxean, Udalaizten. Garaiz aurkitu zutenez eta lokala hustea lortu zutenez, kalte materialak baino ez zituen eragin.

Uztailaren 26a. Beste atentatu bat egin zuten Kanpazar gaineko Etxabe Enea jate-txean. Lehegailu bat jarri zuten, eta jatetxearen ondoan aparkatuta zeuden autoak metrailetaz tirokatu zituzten. Kalte nahiko handiak eragin zituzten, baina ez zen kalte pertsonalik izan.

Abuztuaren 26a. Espainiako Gobernuak terrorismoaren aurkako lege bat onartu zuen.

Irailaren 24a. Ordena Publikoaren Auzitegiak Maria Lourdes Rincon Garcia epaitu zuen.

Irailaren 1a, 2a, 3a, 11, 12a, 19a, 29a eta 30a. Abuztuaren 28ko eta 29ko protesten ondoren, greba, lanuzte, itxialdi (establezimenduenak) eta mobilizazio gehiago egin ziren, eta liskarrak izan ziren ordena publikoaren indarrekin, ez zitzaten fusilatu ETAko bi kideak (Txiki eta Otaegi) eta FRAPeko hirurak (Baena, Sanchez eta Garcia). Alabaina, heriotza-zigorra bete zuten hilaren 27an. Atxilotu eta zauritu ugari izan ziren. Hilaren 29ko lanuztea erabatekoa izan zen herrian.

Urriaren 4a, 23:00etan. Ordu horretan irteten zen lanetik gauero Juan Jose Etxabe, baina gau hartan berandutu egin zen, eta hura iritsi baino lehen eztanda egin zuen talde parapolizial batek haren autoaren azpian jarritako lehegailu batek. Juan Jose Etxabe

¹²¹ *Ibidem*, 87. or. Izenburuan, "Hiru babesgaberren hilketa, Gernikan, Guardia Zibilaren eskutik" irakur daiteke, eta Boletín de Noticias del País Vascoen txostenean oinarrituta dago.

ETAko kide izan zen 1971ra arte, eta jatetxe bat gobernatzen zuen Donibane Lohizunen. Autoa txikituta geratu zen, jatetxearen ondoan.

Urriaren 4a, goizeko 04:50ak aldera. "Inkontrolatu" en talde batek lehergailu bat ez-tandarazi zuen Sebero Altube plazako Bengoa tabernaren atarian. Hedatze-uhinak kalteak eragin zituen atean eta inguruko beirate eta leihoetan, baina ez zen inor zauritu.

Urriaren 5a, 13:45etan. Arantzazutik ikurrina kendu ostean, Guardia Zibilaren patruila bat Arrasateko kuartelera itzultzen ari zen Land Rover batean, eta, Arantzazutik Oñatirako bidean kilometro bat egin zuenean, bide bazterreko ezpondan jarritako dinamitaz eta torlojuz osatutako karga batek eztanda egin zuen haiek ondotik igaro zirenean. ETAren atentatu hartan Esteban Maldonado Llorente (20 urtekoa), Jesus Pascual Martin Lozano (25 urtekoa) eta Juan Moreno Chamorro (26 urtekoa) guardia zibilak hil ziren, eta larriki zauritu ziren Jose Gomez Castillo kaboa eta autoa zeraman agentea, Juan Garcia Lorente. Zauritutako biak Gurutzetako erietxean ingresatu zituzten. Hildako hiru agenteen aldeko hileta-kapera Guardia Zibilaren Arrasateko kuartelean jarri zuten, hari atxikita baitzeuden.

Urriaren 5a, 23:00etan. Iñaki Etxabe Orobengoa (39 urtekoa) hil zuten, familiak Kanpazarreko gainean zuen jatetxean, Etxabe Enean. Haren anaia Luisek sukaldean ezkutatzea lortu zuen, eta bizirik irten zen. Hiru erasotzaileek, tiro egin aurretik, ke-eta gas-potoak jaurti zituzten bezeroen artera. Garai hartan esan zenez, eraso haren helburua hirugarren anaia izan zitekeen, Gregorio, Arrasateko Udaleko zinegotzia baitzen. Hala zioen Juan Jose Etxabek. Juan Atares Peña¹²² Guardia Zibileko generalak ustez ETAren Arantzazuko atentatuaren ondoren esandako esaldi hau aipatzen du: *Gaurkoan gogoratuko da Arrasate gutaz*¹²³. Elisabete Bizkarralegorra legelariak kontatzen duenez, erasotzaileek "Zuen bila gatoz"¹²⁴ esan zuten Etxabe Enean tiroka hasi aurretik. Atentatu hura gerora hartu zuen bere gain Batallón Vasco Españolak.

Urriaren 6a, 13:00etan. Esteban Maldonado Llorente, Jesus Pascual Martin Lozano eta Juan Moreno Chamorro guardia zibilak hiletak egin ziren San Joan Bataiatzailea parrokia-elizan. Elizkizunaren ondoren, hilkutxak eliz-atarian jarri ziren, eta, bertaratu-takoek "Cara al Sol" abestu ostean, Guardia Zibilaren buruak eta Gipuzkoako gobernadore zibilak hildakoei ohore-dominak jarri zizkieten, merezimendu militarregatikoko domina eta merezimendu polizialagatikoko marka gorridun gurutzeari, hain zuzen. Gero, Espainiaren, Guardia Zibilaren eta Polizia Armatuaren aldeko gora-oihuak egin zituzten.

122 Juan Atares Peña generala, zortzi umeren aita, ETAk hil zuen, Nafarroako hiriburuan, 1985/12/23an. Haren hiletara joandako agintariak oihuka, txistuka eta irainka hartu zituzten Guardia Zibilaren Iruñeko komandantziaren inguruan elkartu ziren ehunka pertsona batzuek. "Gobernua errudun", "Dimisioa" eta "Gora Espainia" oihukatu zuten. Manuel Gutierrez Mellado Defentsa Ministroa eta Gobernuoko presidenteordea zela, Juan Ataresek argi erakutsi zuen ez zettorrela bat UCDDko gobernuak terrorismoaren aurka borroka egiteko zuen moduarekin. Zenbaitetan, "gezurti" eta "traidore" esan zion Gutierrez Melladori (ABC, 2011/02/18).

123 Juan Jose Etxabe Orobengoa, Amurizak elkarrizketatuta. Euskadi eta askatasuna. Euskal Herria y la libertad. 2. liburukia. Luis Nuñez (koord.), 1993. Tafalla: Txalaparta, 204. eta 205. or.

124 BIZKARRALEGORRA, Elisabete. Op. Cit., 94. or. *Eta Gogoan hartzeko izena*. ZABALZA, Joseba, Euskal Memoria Fundazioa, 2017, 45. or.

Urriaren 6a, arratsaldez. San Joan Bataiatzailea parrokia bete zen, Iñaki Etxabe Orobengoaren hileta zela-eta, hura Kanpazarren hil ondorengo egunean. Probintziako zenbait agintari ere bertaratu ziren, besteak beste, diputazioko presidentea eta erresumako kontseilaria zena, Juan Maria Araluce Villar (urtebete geroago ETAk hilko zuena). Protestek jarraitu egin zuten.

Iñaki Etxaberen omenezko oroitarri bat jarri zen hilerrian, baina jarri eta gutxira leherrazi zuten, erreibindikatu gabeko ekintza batean. Urte hartako azaroaren 1ean, oroitarri berri bat jarri zuten haren lekuan.

Urriaren 12a. German Agirre Irasuegi taxilaria hilik aurkitu zuten Santa Engraziko urtegiaren ertzean, Legution, Guardia Zibilaren herriko kuarteletik ehun metro ingurura¹²⁵. 38 urte zituen, eta bi seme-alaba. Hiru bala-zauri zituen buruan. Iñaki Etxaberen aurka Kanpazarren egindako atentatua nork egin zuen eta Bengoa tabernako lehegailua nork jarri zuen jakin zezakeelako hil zutela uste da¹²⁶. German Agirrek Arrasaten zuen taxi-geralekua, eta sei urte zeramatzan herrian bizitzen.

Urriaren 13a. German Agirre Irasuegiren hiletak egin ziren Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokia-elizan, herrian bizi baitzen biktima, Bergaran jaioa bazen ere.

Urriaren 29a. Guardia Zibilak Ramon Loiti Garitaonaindia atxilotu zuen. Atzituta zuten bitartean tratu txarrak eman zizkiotela salatu zuen, eta zauriak eragin zizkiotela¹²⁷.

Azaroaren 16a. Iturbe-Ormaetxea familia izatez arrasatearraren autoaren azpian jarritako lehegailu batek eztanda egin zuen, Baionan, Txomin Iturbe autoa hartu eta seme-alabak ikastolara eramatera zihoan unean. Ez ziren hil, autora sartu baino lehen eztanda egin zuelako lehegailu hark, baina autoaren metal zatietako batzuek 2 urteko semearen sabela jo zuten, Arkaitzena, eta ondorioak utzi zizkioten. Gainerakoek kolpeak eta ebakiren bat jasan zituzten. Triple A taldeak (Alianza Apostólica Anticomunista) hartu zuen bera gain ekintza hura.

Abenduaren 11a. Guardia Zibilak Gamey enpresako langileak handik atera zituen greban zeudela. Langile haietatik lau kaleratu zituzten. Unión Cerrajerakoek, elkartasuna adierazte aldera, lanuztea egin zuten hilaren 20an. Lanpostua eta soldata kendu zizkioten urtarrilaren 2ra arte.

125 *El Diario Vasco*, 1975/10/14. Legutioko "kuarteletik 500 metro baino gutxiagora", hala diote *Libertad Digitalek* (In Memoriam) eta *Vidas Rotasek*.

126 BIZKARRALEGORRA, Elisabete. Op. Cit., 94. or. Hau da hitzez-hitz esandakoaren itzulpena: "Antza denez, Agirre jaunak ikusi egin zuen nork jarri zuten lehegailua Arrasateko Bengoa tabernan (eta, esaten zenez, beraiek hil zuten Etxabe jauna, Kanpazarreko jatetxean)".

127 Aurretiazko eginbideak: 274/7. Agindu-zenbakia: 2013. Ferroleko Tarteko Artxibo Militarra (Kutxa: 105. Jatorria: Donostia).

9.2 FRANCOREN HERIOTZATIK KONSTITUZIORA ARTE

1976ko uztailak 3. Juan Carlos I.a erregeak presidente izendatzen du Adolfo Suárez.

1976ko abenduak 15. Erreferenduma Erreforma Politikorako Legeaz.

1977ko ekainak 15. Hauteskunde orokorrak Espainian. UCDk irabazten du, Adolfo Suárez buru delarik. Araba eta Nafarroan, UCD garaile. Bizkaia eta Gipuzkoan, EAJ-PNV.

1978ko abenduak 6. Espainiako Konstituzioa berresteko erreferenduma.

1976

Otsailaren 3a. 400 pertsona inguru bildu ziren Arrasateko Udaletxeko areto nagusian, Gameyko langileen borrokarekiko elkartasuna adierazteko. Bost egun geroago, hilaren 8an, Guardia Zibilak Juan Ramon Garai Bengoa atxilotu zuen, asanblada hartan "Polizia hiltzailea" eta "Disolbatu errepresio-indarrak" oihukatu izana leporatuta. Atxiloaldi hartan, Garaik lurrean eman zuen gaua, eskuak bizkarrean lotuta zituela, eta buruan kolpeak eman zizkiotela salatu zuen. Belarrietatik odola zeriola ziurtatu zuen Martuteneko espetxeko medikuak. Xabier Perez de Arenaza ere atxilotu zuen Guardia Zibilak, enpresa hartako protestetan parte hartzeagatik. Hamabost urte zituenetik ari zen lanean Gameyn. Urte hartan berriro atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta, azkenean, Gameytik kaleratu zuten. [Perez de Arenaza GALEk hil zuen, Biarritzen, 1984/05/23an].

Otsailaren 8a. Guardia Zibilak Antxon Lopez Losada atxilotu zuen, Gameyko langileekiko elkartasunez egindako manifestaldi baten amaieran. Plazan atxilotu zuten. Ate bati lotuta, zutik, jarri zutela salatu zuen, zaplaztekoak eman zizkiotela belarrian esku-ahurrarekin hutsunea eginez, eta eskuburdinekin lotuta igaro zuela gaua. Militar batek hartu zion deklarazioa Martuteneko espetxean, eta aske utzi zuten, falta-epaiketa baten esperoan.

Otsailaren 21a. Guardia Zibilak Gipuzkoako Langile Komisionen Koordinakundeko ehunka sindikalista atera zituen Donostiako Aiete auzoko parrokian egiten ari ziren asanblada nazionaletik, eta haien buruetako hiru atxilotu zituen: Juan Carlos Lopez Echeverria, Jose Luis Egia eta Juan Ramon Garai. Hamar egun izan zituzten Martuteneko espetxean, aske utzi zituzten arte.

Martxoaren 2a. Angel Iturbe Abasolok eta Isidro Garaialdek eztanda egin ez zuen lehergailu bat aurkitu zuten beren autoaren azpian, Iparraldeko herri batean. Poliziarengandik ihesi zeuden han.

Martxoaren 8a. Grebak (Unión Cerrajera...) eta manifestaldiak egin ziren, martxoaren 3an Poliziak Gasteizen bost langile hil zituela salatzeke eta biktimenganako elkartasuna adierazteke. Poliziak kargak egin zituen.

Apirilaren 3a. Guardia Zibileko agenteek Arantzazu Markaide Nafarrete (18 urtekoa) atxilotu zuten, familiaren etxean. Donostiako komandantzia zazpi egun igaro ostean, lehenik, Martutuneko espetxean sartu zuten, eta, gero, Yereríasekoan (Madril). Sei hilabete igaro zituen han. Azkenean, haren kasua artxibatu zuten. Agenteetako batek ukitu eta biluztera behartu zuela salatu zuen, bai eta mehatxuak eta kolpeak jaso zituela ere, eta "bainuontziarena" egin ziotela Gipuzkoako hiriburuko komandantzia atxilotuta zutela. Arantzazu Markaide biktimatza aintzatetsi du ekainaren 12ko 107/2012 dekretuaren bidez sortutako balorazio-komisioak.

Apirilaren 17a. Lehergailu bat jarri zuten Bengoa tabernaren aurka, bigarren aldiz [1975/10/05ean izan zen lehen atentatua]. Beirateak hautsi eta beste kalte batzuk eragin zituen.

Apirilaren 23a. Txomin Iturbe Abasolo zauririk gabe irten zen bi erasotzailek Baionan metrailetaz egindako eraso batean, helburuz erratu baitziren.

Apirilaren 27a. Guardia Zibilak Mikel Etxabe Urteaga atxilotu zuen, eta atxilotuak tortura salatu zuen. Espetxera bidali zuten.

Apirilaren 30a. Guardia Zibilak Enrike Pagoaga Gallastegi eta Jose Mentxakatorre Agirre arrasatearrak atxilotu zituen Hernanin, ETako kide izatea leporatuta. Lehenak bederen tortura salatu zuen. Gerora, zenbait arma aurkitu zituzten Donostiako etxebizitza batean egindako miaketa batean, eta beste bi pertsona atxilotu zituzten: Maria Teresa eta Maria Soledad Intxausti Arruti ahizpak.

Maiatzaren 11. Guardia Zibilak Piedad Egidazu Landaluze atxilotu zuen Gasteizen, Brigada Politiko Sozialak hura atxilotu eta urtebetera. Guardia Zibilaren Antiguoko komandantziara eraman zuten, Donostiara. Sei egun izan zuten han, eta torturak salatu zituen, "bainuontziarena" besteak beste¹²⁸. Maiatzaren 19an, epaile militar batek auzi-petze-autoa jakinarazi zion, eta aske utzi zuen.

ETari buruz nekin guztia botatzeko esan zidaten. (...) Mahai baten gainean ahuspez etzan ninduten, tapakien gainean, eskuak eta oinak lotuta nituela. Tapakietan bildu ninduten, eta burua bainuontziko ur zikinetan sartu zidaten. Ur hartan aurretik han izandakoen okadak zeudela esan zidaten. Uretan sartzen ninduten, arnasarik gabe geratzen nintzen arte. Orduan, une batez uretatik atera, eta galderak egiten zizkidaten. Guzti hark 20 minutu inguru

¹²⁸ Haren testigantza Elisabete Bizkarralegorrek jaso zuen *Ser Basque Izanen* (104. eta 105. or.). Bai eta *Boletín del Estado de Excepción* ere. Azken hori, Lazkaoko Beneditarren Fundazioan eta Euskadiko Artxibo Historikoan dago (Lehendakaritza Sailaren Funtza. P-133/2-4).

iraun zuen. Izugarria izan zen. Oka egin nuen. Dozena bat guardia zibil zeuden han, begira eta barrez. Gero, gimnasia egitera behartu ninduten (...) Bigarren egunean, bainuontzira eramango nindutela mehatxu egin zidaten¹²⁹.

Maiatzaren 15a. Goizaldean, Guardia Zibilak Pedro Maria Sasiain Larrucea balaz zauritu zuen, Musakola auzoan, ez zielako utzi nahi izan atxilotzen¹³⁰.

Ekainaren 7a. Ezezagun batzuek sute bat piztu zuten Cauchos Bastida enpresan, eta 13 milioi pezetako kalteak eragin zituzten. Enpresa Santiago Bastida alkate ohiarena zen, eta aurrez mehatxuak jasoak zen. [Kepa Olidenek gogoratu zuen, 1949an, hura alkate zela, Udaltzakoak "buruzagi garaitugabearekiko atxikimendu hautsezina" adierazi zuela, eta herriko "ohorezko alkate" izendatu zuela Franco, eta, horrez gain, "Jainkoa, Erregeen Errege, eredu hartuta Estatua irmoki eta seguru gidatzen duenarekiko erabateko aintzatespena" adierazi zuela¹³¹].

Uztailaren 21a. Jose Antonio Altuna Arrasateko alkate eta Alkateen Mugimenduko kidea Bergaran izan zen, udalerrri hartan foruak erabat berrezar zitezten eskatzeko egin zen ekitaldian parte hartzen, foruak indargabetzearen ehungarren urteurrenean. Udalerriek euskal bizitza politikoaren historian izan duten rola aldarrikatu zuten. Guardia Zibilak kontrolak jarri zituen Bergarako sarreretan, baina hala ere jendetza bildu zen plazan, Bergarako alkate Jose Luis Elkorok irakurri zuen dokumentua entzuteko [Jose Luis Elkorok HBko mahai nazionalako kide izan zen gero. Prozesu horretan parte hartu zuen Andoni Monforte Arreguik ere, EAJ-PNVren Arrasateko lehen idazkari eta, 73tik 77ra bitartean, Fagorreko kanpoko langileen buru izandakoak, gerora, 1990ean, Eusko Jaurlaritzaren sailburuorde izango zenak. Udalerriren aldeko mugimendu horrek beste deialdi bat egin zuen, 1977/01/16an, Etxarri Aranatzen ekitaldi bat egiteko].

Irailaren 8a. Lanuzteak egin ziren (Unión Cerrajera...) Josu Zabalaren heriotzagatik protesta egiteko. CCOOeko militantea (24 urtekoa) Guardia Zibilak hil zuen, bizkarretik tiro eginda, amnistiaren aldeko manifestaldi batean, Hondarribian, herriko jaietan.

Urriaren 18a. Frantziako Poliziak Txomin Iturbe atxilotu zuen, Baionan.

Azaroaren 20a. Poliziak eta Guardia Zibilak 154 pertsona atxilotu zituzten Arantzazun, ETA VI-LKlren Euskadiko Batzar Nazionalan, besteak beste, Jose Daniel Garai Bengoa, 22 urteko administratzailea.

Abenduaren 16a. Goizaldean, ETAm-ak jarritako lehergailu batek Olandixoko telebisita-errepikagailua suntsitu zuen.

129 *Ibidem.*, 104. eta 105. or.

130 umarioa: 114/76. Agindu-zenbakia: 25. Ferroleko Tarteko Artxibo Militarra. Kutxa: 153. Jatorria: Donostia.

131 OLIDEN, Kepa. *El Diario Vasco* 2008/11/02.

Abenduaren 18a. Guardia Zibila Gurea zine-aretora sartu zen, euskal musika jaialdi baten erdian (Errobik eta Patxi Billamorrek jo zuten). Jaialdia Udalak eta Danok elkar-teak antolatu zuten. Ekitaldi hark behar ziren gobernuaren baimen guztiak lortuak zituen. Herriko jaiak ziren, eta aretoa erabat beteta zegoen. Hiru ikurrin ikus zitezkeen. Guardia zibil haien burua, Alfonso Escuervo “Agapito” aretoko lehen ilaran jarri zen, eta minutu bateko epea eman zien bertaratutakoei handik irten zitetzen. Jendea haserretu zen, oihuak eta irainen bat entzun ziren... Eta guardia zibilek ke-poto bat jaurti zuten. Agenteez gasaren aurkako mozorroak zituzten, eta gomazko pilotak eta gas negar-eragilea jaurti zituzten jendea lokala uztera behartzeko. Izua nagusitu zen. Kanpoan, beste guardia zibil batzuek kolpeka hartu zuten jendea, borrekin eta mosketoiekin. Honako hau gogoratzen du Jose Antonio Altuna Gallastegi alkateak:

Gureara iritsi nintzenean, besaulkiak erreta ikusi nituen, eta zapata galduak nonahi, baina, zorionez, ez zuen inork aparteko zauririk¹³².

Abenduaren 19a. Arrasateko Udalak, Jose Antonio Altuna alkatea buru zuela, osoko bilkura berezi bat egin zuen, Guardia Zibilaren agintean zegoen tenientea, Alfonso Escuervo, kargutik ken zezaten eskatzeko, bai eta “gainerako arduradunak ere, kalte konponezinak eragin baizitzaketen ekintza harekin”. Era berean “agintari eskudunei” eskatu zieten “ordena publikoaren indarrek tokiko agintarien esanetara egon beharko luketela, behin eta berriz egiten zituztelako halako ekintzak”.

Abenduaren 20a. Hogeita bi alkate elkartu ziren Bergaran, Arrasateko Udalbatzak bezperako osoko bilkuran lortutako akordioekin bat egiteko.

1977

Urtarrilaren 13a. Polizia Legearen proiektua onartu zen.

Urtarrilaren 26a. Zenbait enpresatan lanuzteak egin ziren (Unión Cerrajera...), eskuin muturrekoek Atochan (Madril) hil zituzten Espainiako Alderdi Komunistako bost abokatu laboralistenganako elkartasunagatik.

Urtarrilaren 28a. Salbuespen-egoera ezarri zen Espainia osoan, bi hilabeterako. Indarrik gabe utzi ziren Espainiarren Foruko 15. eta 18. artikulak.

Otsailaren 5a. “Garaia” aldizkariko bi kolaboratzaile, Inmaculada Ezquiaga eta Jose Aranzabal, Martuteneko espetxean sartu zituzten Donostiako epaile militarren aurretik igaro ostean, ustez Indar Armatuak iraindu zituztelako. Eugenio Ibarzabalek zuzentzen zuen argitalpen haren 17. alean, Aranzabalek erreportaje bat idatzi zuen “Arrasate:

¹³² Jose Antonio Altuna Gallastegi alkatearen testigantza. BIZKARRALEGORRRA; Elisabete. Op. Cit., 155. or. 1979ko uda-hauteskundeetan, EAJ-PNVko Jose Antonio Ardanza Garro aukeratu zuten alkate.

Guardia Zibila, dena emanda " izenburupean, eta han, besteak beste, Arrasateko Udalak abenduaren 17an Guria zinema-aretoa husteagatik idatzitako protesta-oharra jaso zuen. Ezquiagak, bestalde, "Nor dira arduradunak?" iruzkina argitaratu zuen.

Martxoaren 9, 10 eta 11. Herrian hainbat protesta egin ziren, eta dolu-xingola beltzak jarri ziren balkoietan, protesta egiteko hilaren 8an Itsason gertatutakoengatik; izan ere, Guardia Zibilak ETApM-eko bi kide hil zituen tiroz, Nicolas Mendizabal Barandiaran (29 urtekoa) eta Sebastian Goikoetxea Mariezkurrena (28 urtekoa), eta beste bat zauritu, Francisco Aldanondo Badiola. Hilaren 10ean, greba egin zen (ez ziren argitaratu Gipuzkoako hiru egunkariak), eta, *El Diario Vasco*k jaso zuenez, 5.000 pertsona inguruk parte hartu zuten manifestaldi batean. Guardia Zibilak bertaratutakoan aurka jo zuen, eta honako hauek zauritu zituen: Andoni Bereziartua, Fermin Diez Pinillos (Bergaran zauritu bazuten ere, Arrasaten artatu zuten, beheko masailezurraren haustura eta kolpeak zirela-eta), Vicente Elorza Gorosabel, Esperanza Iñarra, Adela Lopez, Jose Medrano, Concepcion Uriona, Vicente Zeziaga eta Jon Goikolea Diaz (pronostiko erreserbatuarekin). Arrasateko Lanbide Eskola Politeknikoak protesta egin zuen polizia-jarduketara hura zela-eta. Gaueko 23:30ak arte, "ez zen bakea berrezarri" ¹³³.

Martxoaren 13a, 21:00ak aldera. Pablo Uranga kalean, ETako zenbait kidek autotik indarrez atera zuten Francisco Murgoitio Azkoaga (25 urtekoa eta Arrasateko Amat S.C.L. enpresako langilea, hau da, egungo Ederlanekoa). Autoa Seat 1430 bat zen, eta Burgoseko matrikula zuen. Autoaren jabea maletategian sartu zuten, eta herrian atentatu bat egitera joan ziren.

Martxoaren 13a, goizaldeko 03:00ak baino apur bat lehenago. ETAm-ak Alexander dantzalekutik irteten ari ziren zenbait guardia zibilen aurkako atentatu bat egiteko erabili zuen autoa. Ekintza hartan, Constantino Gomez Barcia guardia zibila (21 urtekoa) tiroz hil zuten, Magdalena plazatxoan, eta bi agente zauritu zituzten, Jose Castaño Vazquez (26 urtekoa) eta Miguel Santaella Carretero (25 urtekoa). Zenbait larritasun-mailatako zauriak egin zizkieten lehenari, eta oso larriak, berriz, bigarrenari. Laugarren guardia zibil bat, Arrasateko kuartelekoa, eta haren neska-laguna zauririk gabe irten ziren. Guztiak Oñatira bidean ziren, onik irten zen agentearen Renault 12an. Lapurtutako autoa eta haren jabea Bizkaia etorbidean utzi zituzten komandoko kideek, Elorriorako errepidean.

Martxoaren 14a. Constantino Gomez Barciaren aldeko hileta egin zen San Joan Bataiatzailea parrokia-elizan. Buruek eta agintariek zenbait mezu irakurri ostean, guardia zibilek bizkarrean eraman zuten hilkutxa, segizioan. Bai bidean eta bai kuartelera sartzean, Espainiaren, Erregearen eta Guardia Zibilaren aldeko gora-oihuak bota ziren, bai eta "ETA hil", "Amnistia, hildakoarentzat" eta "Justizia" ere. Era berean, bi aldiz abestu zuten Guardia Zibilaren ereserkia, eta han zeudenetako batzuek "Franco. Franco.

¹³³ *El Diario Vasco* 1977/03/12. Hau izan zen lehen orrialdeko titularrak: "Tentsio handiko egunak Gipuzkoan. Langileen lanuzte erabatekoari kale-istilu larriak gehitu zitzaizkion".

Franco" oihu egin zuten. Constantino Gomez Lugokoa zen, eta Oviedon ehortzi zuten. Haren aita eta anaiak ere Guardia Zibileko kideak ziren.

Martxoaren 18a. Martin Villa barne-arazoetako ministroak berretsi egin zuen Terrorismoaren Aurkako Brigada Nazionalaren sorrera.

Apirilaren 24a. Jose Antonio Altuna Arrasateko alkateak Xibertako elkarrizketetan parte hartu zuen, Alkateen Mugimenduko kide modura, Francoren heriotzaren ondoren deialdi hari erantzundako guztien artean jarrera komun bat adosteko, baina ez zen halakorik lortu.

Maiatzaren 12tik 16ra. Manifestaldiak eta greba orokorra egiteko zenbait deialdi egin ziren bata bestearen ondoren, Amnistiaren Aldeko Astearekin, hilaren 12an Erreterian izandako heriotzekin eta ondorengo egunetakoekin bat etorritz. Kepa Akizu jipoitu zuten Aretxabaletan. *El Diario Vascoren* hitzetan, hilaren 13ko iluntzean "ikaragarritzko" manifestaldi baketsu bat egin zen Arrasaten, "ia herri osoaren parte-hartzearekin". Gero, "pertsone-talde ugari batek" itxialdia egin zuen Udaletxean, gose grebari ekiteko. Hurrengo egunean irten ziren. Hilaren 13an eta 16an ez zen egunkaririk argitaratu Gipuzkoan, haietan lan egiten zutenek hala erabaki zutelako (haietako bat hil baitzen, Jose Luis Cano Perez, *La Voz de Españako* tipografoa, eta beste zenbait zauritu).

Ekainaren 5a. ETAm-ak bi lehergailu jarri zituen Olandixoko eta Oxiñako telebista-errepikagailuetan, goizeko 03:15etatik 04:00etara bitartean. Olandixokoa Caja Laboral Popularren egoitza nagusitik hurbil zegoen. Zazpi metroko dorrea baino ez zen geratu zutik, hark ere kalte larriak bazituen ere. Txapazko etxolaren egitura 50 metrora jausi zen. Oxiñako errepikagailuan ere ez zen geratu berriro erabiltzeko moduko piezarik (ez zen udal-errepikagailua).

Ekainaren 15a. UCDk hauteskunde nagusiak irabazi zituen, estatu mailan, Nafarroan eta Araban. EAJ-PNV nagusitu zen Bizkaian eta Gipuzkoan.

Uztailaren 21a. Foruak indarrrik gabe uztearen ehungarren urteurrena zenez, 65 udalek bat egin zuten Bergarako Udalak egindako deialdiarekin. Egun hori baino lehen eta ondorengo egunetan, 1976tik 1979ra bitartean Arrasateko alkatea izan zenak, Jose Antonio Altuna Gallastegik Gipuzkoako gobernadore zibilar jakinarazi zion "bost bider mehatxu egin ziotela". Baita mehatxu-egileak nor ziren ere: "Kristo Erregearen Gerrillariak, beti"¹³⁴.

Abuztuaren 3a. Mehatxuak bete egin ziren: Jose Antonio Altuna Gallastegi alkatearen lantegia erre zuten, eskuin muturrekoen mehatxuak jaso zituela salatu eta gero.

¹³⁴ Jose Antonio Altuna Gallastegi. Zinegotzi izan zen 1971tik 1976re, eta alkate 1976tik 1979da. Alkateen Mugimenduko kide izan zen. BIZKARRALEGORRA, Elisabete. Op. Cit., 153. or.

Urriaren 15a. Udalak dimisioa aurkezteko asmoa iragarri zuen. Testuingurua: autonomia aurreko blokeoa.

1978

Otsailaren 15a. Hogeita hamar guardia zibil baino gehiago eta kaleko jantzia zeramaten zenbait polizia Unión Cerrajeran sartu ziren, gaueko 12etan, txandengatiko plusa zela-eta itxialdia egiten ari ziren hogei bat langileak handik ateratzeko. Egun horretan bertan, enpresak jakinarazi zuen 10 egunez lanpostua eta soldata kenduko zizkiela itxialdian parte hartu zutenei, eta 2 egunetik 4 egunera bitartean, enpresako 700 langileri. Hilaren 17an, elkartasun-greba egin zen herri mailan. Enpresak eta lantegiak itxi ziren, eta aldeko adierazpenak egin ziren Lanbide Eskolan eta Kooperatiben Kontseilu Sozialetan. 2.000 pertsona inguruko elkartasun-manifestaldia egin zen.

Maiatzaren 14a. Komando autonomo batek koktel molotov bat jaurti zuen Banco de Santanderrek herrian zituen bulegoen aurka.

Uztailaren 1a. Indarrean sartu zen Ministro Kontseiluak ekainaren 29an onartutako terrorismoaren aurkako legea, urtebeterako.

Uztailaren 2a. Triple A taldeak atentatua egin zuen Donibane Lohizunen. Atentatu hartan, Agurtzane Arregi Letamendi (38 urtekoa) hil zen. 17 bala sartu zizkioten, eta larri zaurituta utzi zuten haren senarra, Juan Jose Etxabe etakide ohia. Azken horri 18 bala sartu zizkioten urdailean, sabelean, gibelean, besoetan eta hanketan. Erasotzaileak zain egon ziren Agurtzane lantokia itxi ondoren autora sartu zen arte; izan ere, Etxabek esan zuenez, 10 minutu inguru zeramatzan zain autoan (Peugeot 604 bat), Juri-Berri kalean, irratia entzunez. Une hartan hustu zuten metrailetaren kargagailua senar-emazteen aurka. Hiru ume zituzten, 11, 13 eta 19 urtekoak.

Uztailaren 3a. Dolu eta greba eguna egin zen Debagoiengan, eta Arregi/Etxabe senar-emazteen aurkako atentatuagatik protesta egiteko manifestaldiak egin ziren. Euskal Sozialisten Biltzarrak gertakizun haiek salatu zituen (talde horrekin identifikatzen zen Juan Jose Etxabe).

Uztailaren 7a. Milaka pertsonak parte hartu zuten Agurtzane Arregi Letamendiren hiletan eta ehorzketan. Dolu-segizio jendetsu batek Gipuzkoa etorbidea, Magdalena kalea eta Erdiko kalea igaro zituen, Musakolatik San Joan Bataiatzailea parrokiara arte egin zuen ibilbidean. Parrokia jendez bete zen hileta hartan. Parrokiatik irten ostean, beste segizio bat egin zen hilerrira arte. Hilkutxa nitxo batean sartu zuten "Ikurrinaz estalita, Ipar Euskal Herritik etorri bezala"¹³⁵. Hilerritik irten ondoren, milaka pertsonak manifestaldi bat egin zuten herrian zehar.

135 El Diario Vasco 1978/07/08.

Uztailaren 7a. Armadun hiru euskal hiztunek (batek txanoa zeraman), Caja Laboralen San Andres kaleko sukurtsala atrakatu, eta 14 milioi pezeta eraman zituzten.

Uztailaren 10a, 11 eta 12a. Protestak, lanuzteak, asanbladak eta mobilizazioak egin ziren, bi heriotza zirela-eta: German Rodriguezena (22 urtekoa), hilaren 8an Iruñeko sanferminetan gertatutakoa, eta Joseba Barandiaranena (19 urtekoa), hilaren 11n, Donostian gertatutakoa.

Abuztuaren 28a, 09:30ak aldera. Zenbait pertsonak Renault 5 TL bat lapurtu zuten, Eibarren, pistolaz mehatxu eginda. Jabea Arratera bidean utzi zuten, zuhaitz bati lotuta. Inguruan jolasean zebiltzan haur batzuek eskatu zuten, eta Eibarrera lagundu.

Abuztuaren 28a, 11:15ak aldera. Komando Autonomo Independentista eta Antikapitalistek (Komando Autonomoek) Aurelio Salgueiro Lopez (46 urtekoa) hiltzeko erabili zuen Eibarren lapurtutako autoa, Arrasaten. Biktima Guardia Zibilaren informazio-zerbitzuetako kabo lehena zen, eta zazpi seme-alaba zituen. Agenteak kaleko jantzia zeraman soinean eta zenbait gutun jaso berri zituen Zarugalde kaleko posta-bulegotik komandokideek tirokatu zutenean, Arbolapetan, Izkiña tabernaren aurrean. Dozena erdi tiro egin zizkioten, eta haietatik lauk buruan, aurpegian eta toraxean jo zuten. Aurelio Salgueirok zortzi urte zeramatzan Arrasateko lanpostuan. Lankideek bizkarrean eraman zuten kuartel-etxean jarri zuten hil-kaperara.

Gauean, 22:00ak inguruan, ETApM-ak Alfonso Estevas-Gullmau (46 urtekoa) hil zuen, Irungo komisaldegiko informazio-zerbitzuko inspektore burua, Hondarribian. ETApM-ak bere gain hartu zuen ekintza hura, eta Agurtzane Arregiren heriotza eta Juan Jose Etxaberen zauriak eragin zituen uztailaren 2ko Donibane Lohizuneko atentatuarekin lotu zuen biktima, Triple A-k bere gain hartu bazuen ere. Poliziaren familiak gezurtatu egin zuen lotura hura.

Abuztuaren 29a. Aurelio Salgueiro Lopezen hiletak egin ziren Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokian. Hileta hartan izan ziren, besteak beste, gobernadore zibila, Jose Maria Benegas Eusko Kontseilu Nagusiko barne-arazoetarako kontseilaria eta Jose Antonio Altuna alkatea. Hilkutxa Espainiako banderaz estalita bizkarrean eraman zuten zenbait agentek, kuartel-etxetik tenplura, eta berdin handik irten ondoren. Guardia Zibilaren aldeko atxikimendu-oihuak entzun ziren, bai eta gobernukideen aurkako batzuk ere. Hilotza Monforte de Lemosen ehortzi zuten (Lugo), han jaioa baitzen biktima.

Irailaren 27a. Zenbait atxiloketa egin ziren herrian.

Azaroaren 6a. Komando Autonomo Antikapitalistek lapurreta egin zuten Caja Laboralen Eskoriatzako sukurtsalean.

Azaroaren 9a. ETAm-ak Luis Candendo Perez (43 urtekoa) hil zuen Antzuolan. Hildakoa UCDko kidea zen, eta Labe Garaietako langilea. ETak Debagoienera utzi zuen lehen bik-tima zibila izan zen.

Azaroaren 15a, arratsaldearen erdian. Arabako lurretan, Aretxabaletatik 12 kilometrorra, bi gaztek Renault 12 bat lapurtu zuten, eta haren jabeari eskatu zioten ez lapurreta hura salatzeko 19:30ak pasatu arte. Autoaren jabeak Gatzagaineko tabernan itxaron zuen, aipatutako ordua iritsi arte.

Azaroaren 15a, 17:50ak aldean. Lapurtutako Renault 12 hura Guardia Zibilaren Aretxabaletako kuartelaren aurrean geratu zen, eta, handik, autoan zihoazenean fatxada metrailetaz tirokatu zuten. Ez zuten kalte pertsonalik eragin. Atentatugileak Komando Autonomo Antikapitalistetako kideak ziren, eta, atentatua egin ostean, Arrasatera abiatu ziren. Burrumba hura entzutean, auzokideak leihotara hurbildu ziren, eta handik ikusi zuten, J.R. guardia zibilak gertatutakoa ikusi zuen kuarteletik 40 metro ingurura zegoen La Herradura tabernaren ondok, eta, hura ikusirik, kuartelaren garajera joan zen korrika. Han, beste hiru agente armadun jaso zituen, eta Renault 12ari segika irten ziren Seat 1430 edo 1600 batean.

Azaroaren 15a, 18:00ak inguruan. Komando Autonomoetako kideak ez ziren jabetu guardia zibilak segika zituztela, eta, bidean, hirugarren lagun bat jaso zuten, Kike Zurutuza Odriozola. Arrasatera iritsi zirenean, Lanbide Eskolaren, Izarra dorrearen eta Udala plazaren inguruan barneratu ziren, kalea jendez beteta zegoela. Haietako bat, Roberto Aranburu Uribarren arrasatearra (21 urtekoa) autotik jaitsi zen, baina berehala itzuli zen, dokumentazioa autoan ahaztu zitzaiolako¹³⁶. Haiengandik sei metrora geratu ziren segika zihoazkien Aretxabaletako kuarteleko lau guardia zibilak, bi kaleko jantziekin eta beste biak kamuflajekoarekin, eta autotik jaitsi orduko tiroka hasi zitzaizkien hiru lagunei, ezer esan gabe¹³⁷. J.H.O., J.A.B. eta E.E.A. lekukoek ikerketa-batzordearen aurrean azaldu zuten, atzetik tirokatu zituzten, hiru metro inguruko distantziatik, eta, hala, Jose Mari Iturrioz Garmendia legorretarra (24 urtekoa) eta Roberto Aranburu Uribarren hil zituzten. Kike Zurutuza Odriozola larri zauritu zuten, lau bala sartuta. Kanean zebiltzan zenbait pertsona ere zauritu zituzten balaz, hala nola Juana Martin Lorenzo (16 urtekoa), besoetan haurtxo bat zeramala, eta Beltran de Heredia Perez (18 urtekoa). Azken horri bi bala sartu zitzaizkion, eta ondorioak geratu zitzaizkion harrezkero. Ez zen tiroketarik izan. Komando Autonomoetako hiru kideetako batek ere ez zuen armarik erabili, eta, are, ez zeramaten armarik eskuetan. Horixe diote lekukoek, hedabideek eta Eusko Kontseilu Nagusiaren txostenak, Jose Ramon Recalde giza eskubideen buruak idatzitakoak.

Zorionez –hala dio Batzordearen txostenak– bala haietako asko airean galdu ziren edo gertuko eraikinen hormetan geratu ziren, eta tragedia ez zen larriagoa izan, gertakariekin inolako zerikusirik izan gabe han inguruan

136 Kike Zurutuza Odriozola, gertaera haietatik zaurituta irten zena, izan zen txostengileetako bat.

137 "Arrasateko herriak Euskadi osoari" txostena

zebiltzan pertsonak zauritu baziren ere. Agenteek egindako tiroetako batek Juana Martin Lorenzo jo zuen, 16 urteko neska, haur bat besoetan zuela Ume-Zaintzaren autobusaren zain zegoela, Izarra dorrearen parean. Balak buru-azala urratu zion. Zauria osasun-zentroan josi zioten. Alberto Beltran de Heredia Perez, 18 urteko Lanbide Eskolako ikaslea, 850 baten barruan zegoen, eta bi bala-zauri egin zizkioten ezkerreko sorbaldan. Laguntza-zentrorra eraman zuten, baina, han, Guardia Zibila hura atxilotzen saiatu zen, Kike Zurutuza zelakoan. Hura, ordea, osasun-zentrorra eraman zuten kalean lagundu ziotenek. Azkenean, kirofanoan zegoela jakin zuten, eta hara sartzen saiatu ziren, galdeketa egiteko, baina medikuek ez zieten utzi. Beste ikasle bat ere atxilotu eta jipoitu zuten, Javier Bravo hain zuzen, ABCren atarian, Kike Zurutuza zelakoan.

Azaroaren 15a, bizpahiru minutu geroago. Gertatutakoak eragindako zirrari buelta eman baino lehen, Arrasateko kuarteleko sei guardia zibil bertaratu ziren San Andres aldetik, Aretxabaletatik telefonoz abisatu zitelako. Kaleko jantziak zeramatzen armadun pertsonak ikusi zituzten, eta ez zituztenez beren kidekoak ezagutu eta Aretxabaletako kuartela tirokatu zutenak zirela pentsatu zuten, tiroka hasi zitzaizkien agente haietako bi. Batak ez zuten haietako inor zauritu, baina Larrea baserriraino iritsi ziren ehun metro baino gehiago eginda, eta, han, Emilia Larrea Saez de Adana lepoan jo eta hil zuten. Crescencia Vidaurreta Garcia ere jo zuten, aurrekoaren ondoan eserita zegoena, baserriaren atarian. Balak ezkerreko izterra zeharkatu zion, eta zirkulazio-arazoak izan zituen harrezkero, ultzerak eta barizeak. Beste bala batek Eduardo Etxeberriaren etxeko pertsonetako bat jo zuen, Larrea baserritik hurbil baitzegoen.

Azaroaren 16a. “Lenitz bailara ia erabat geldirik” idatzi zuen *El Diario Vasco* lehen orrialdean. Lanuzteak, asanbladak (Sebero Altube plazan) eta manifestaldiak egin ziren herrian, goiz eta arratsalde. Emilia Larrearen aldeko hiletak Itxaropeneko Andre Maria parrokiaren egin ziren, Roberto Aranbururena eta Jose Mari Iturriozena, berriz, San Joan Bataiatzailea parrokiaren. Bandera gorri batez estali zuten Iturriozen hilkutxa. Hiletak amaitu ostean, Larrearen eta Aranbururen hilotzak Arrasateko hilerrira eraman zituzten, eta Iturriozena, berriz, Legorretan ehortzi zuten. “Zazpi mila pertsona inguruk” (*El Diario Vascoren* azken orrialdean jaso zenez) Guardia Zibilaren kuartelerainoko manifestaldia egin zuten, eta istiluen aurkako agenteek haien aurka egin zuten. Kargak “ez ziren amaitu gauera arte”. Ikerketa-batzorde herritar bat eratu zen gertaera haiek argitzeko.

Azaroaren 16a. Komando Autonomo Antikapitalistetako kideek, Zapa-Roberto komando autonomokoek hain zuen, molotov koktelak jaurti zituzten CCOOen Arrasateko egoitzaren aurka, bai eta Banco Santanderren eta Caja Laboralen sukurtsalen aurka ere.

Azaroaren 16a. Eusko Kontseilu Nagusiaren barne-arazoetarako kontseilaritzak, Txiki Benegas (PSE-PSOEkoa) buru zuela, ohar bat idatzi zuen lehen ikerketen ondoren. Idatzi hartan jasotzen zenez, Komando Autonomoetako kideen heriotzei buruzko “azalpenak eman beharko lirarteke, publikoki, ikusteko ea bazen proportzionaltasunik balia-

tutako bideetan eta ea bazen bide arrazoizkoagorik eta egokiagorik haiek atxilotzeko". Ildo beretik, berretsi egiten zuen "bistakoa zela ezin zitekeela azaldu indar publikoen erantzuna, pentsatu gabe tiro egin eta hildako bat eta zenbait zauritu eragin baitzituzten zibilen artean".

Azaroaren 17a. Barne-arazoetarako ministroak, Rodolfo Martín Villak, Espainiako Gobernuaren izenean, "gertaera deitoragarri eta lanuzte haiek bultzatu izana" leporatu zion Eusko Kontseilu Nagusiari, eta ondorioz "Gobernuaren gaitzespen erabatekoa" merezi zuela. Horrez gain, "Terrorismoaren alde edo hari aurre egiteko zeregin gogor eta sakrifkatua beren gain hartu dutenen alde, ez da beste aukerarik" erantsi zuen.

Azaroaren 17a. Lanuzteak eta greba Gipuzkoa osora zabaldu ziren. Hilaren 19an, izenburu honekin argitaratu zen *El Diario Vasco*: "Gipuzkoa ia erabat geldirik ostiralean". Egunkari horrek berak dioenez, 5.000 pertsona izan ziren Jose Mari Iturrioz Komando Autonomoetako kidearen hiletan, Legorretan. Hiletaren ondoren, manifestaldi bat egin zen, baina ez zen istilurik izan, Guardia Zibilaren helikoptero bat inguru haien gainean bazebilen ere. *La Voz de Guipúzcoa* eta *Radio Popular* irratiek ez zuten emanaldirik egin, eta *Radio San Sebastián*ek, berriz, parteak eman zituen ordu eta erdiro. Gipuzkoako prentsako langileek lanuztea egitea erabaki zuten, eta, beraz, hurrengo egunean ez zen egunkaririk argitaratu. Bi manifestaldi egin ziren Arrasaten. Arratsaldekoan, Guardia Zibilak kargak egin zituen manifestarien aurka, eta, gero, haietako batzuek ibilgailu bati su eman eta lineako autobus bat errepidean zeharka jarri zuen. Donostian, 20.000 lagun inguru manifestatu ziren, Gobernu Zibilaren ohar baten arabera.

Azaroaren 18a. Bezperako greba zela-eta, ez zen egunkaririk argitaratu. Eusko Kontseilu Nagusiak berretsi egin zituen Jose Ramon Recalde "gertaera haiei buruz idatzitakoak", eta, aldi berean, Martín Villak esandakoei erantzun zien "ohar ofizial okerre ez dakarte ordena publiko demokratikoa, herritarrak haserretzea eta asaldatzea baizik"¹³⁸ esanez. Euskal Herriko UCD Martín Villarekin lerratu zen, eta Eusko Kontseilu Nagusiko kideen dimisioa eskatu zuen. Eusko Kontseilu Nagusiak hartutako jarrerak ekintza armatuak justifikatzen dituela adierazi zuen, eta "erakundeen ustezko indarkeriari ezinbestean eman beharreko erantzun modura jartzen duenez, terrorismoa sustatzen duela"¹³⁹.

Azaroaren 18a. Eneko eta Gurutz Bergara anaiak atxilotu zituzten.

Azaroaren 20a. Eusko Kontseilu Nagusiak barne-arazoetarako ministroari, Martín Villari, telegrama bat bidaltzea erabaki zuen, jakinarazteko adierazitakoei eusten diela eta giza eskubideen sailak egindako lana onesten duela.

Azaroaren 21a. Guardia Zibilak Maria Esperanza Mercader, Jesus Maria Zabarte Arregi eta Santiago Gallastegi Larrañaga atxilotu zituen, ETArekin lotura zutelakoan. Lehen

¹³⁸ *El Diario Vasco* 1978/11/19.

¹³⁹ *El País* 1978/11/19.

biak espetxera sartu zituzten, eta tortura salatu zuten. Hirugarrena aske geratu zen, karguekin.

Azaroaren 25a. Eusko Kontseilu Nagusiak Martin Villa gobernazio-ministroarekin zuen hika-mika hartan, azken horren esaldi honek are gehiago korapilatu zuen egoera: "Esan dudana egia da, eta eutsi egingo nioke arrazoirik izango ez banu ere".

Azaroaren 25a. Korporazioak dimitituko duela erabaki zuen.

Azaroaren 27a. Gertakari haiek ikertu zituen batzorde herritarrak publikoki aurkeztu zuen egindako txostena, Arrasateko Udaletxean. Bertaratutakoen artean, gertakari haien lekukoak eta biktimen familiartekoak zeuden.

Abenduaren 2a. Poliziak Jose Maria Ugartemendia Agirrezabalaga atxilotu zuen Gasteizen. Polizaren Arabako hiriburuko egoitzan torturatu zutela salatu zuen. Espetxera sartu zuten.

Abenduaren 5a. Koldo Errasti Urbietak Gasteizen atxilotu zutenean Poliziak torturatu zuela salatu zuen. Espetxean sartu zuten.

Abenduaren 6a. Espainiako Konstituzioa onartzeko erreferenduma egin zen. Arrasaten, zentsatutakoen % 38,77k bozkatu zuten. Bozkatzeko aukera zuten 18.908 pertsonetatik 11.636 abstenitu ziren. Baiezkoaren aldeko 4.970 boto eta ezezkoaren aldeko 1.930 boto eman ziren¹⁴⁰.

140 *El Diario Vasco*, 1978/12/07.

9.3 KONSTITUZIOAREN ONDOREN

1979ko apirilak 3. UCD garaile Nafarroako Parlamentuan, Jaime Ignacio del Burgo.

1979ko martxoak 1. UCD berriro garaile hauteskunde orokorretan.

1979ko urriak 25. Euskadiko Autonomia Estatutua.

1980ko martxoak 9. Eusko Legebiltzarra. EAJ-PNV garaile, Carlos Garaikoetxearekin.

1981eko martxoak 19. Jacques Chirac, RPR, Frantzian irabazle, bigarren txandan.

1982ko abuztuak 16. Nafarroako Amejorramendu Legea indarrean sartzen da.

1982ko urriak 28. Hauteskunde orokorrak. Felipe González garaile, PSOE.

1983ko maiatzak 8. Nafarroako hauteskundeak. Gabriel Urralburu garaile, PSN-PSOE.

1984ko otsailak 26. Garaikoetxea irabazle, EAJ-PNV. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak.

1986ko martxoak 12. Espainia NATO kide izaten jarraitzeko Erreferenduma. Ezezkoa irabazle Euskal Herrian, baita Katalunia eta Kanarietan ere. Estatu mailan, aldiz, Baiezkoa.

1986ko martxoak 16. Hauteskunde orokorrak Frantzian. RPR-UDF irabazle, Jacques Chirac.

1986ko ekainak 22. Felipe González, PSOE, berriro irabazle hauteskunde orokorretan.

1986ko azaroak 30. Jose Antonio Ardanza lehendakari. EAJ-PNV eta PSE-PSOE Jaurlaritzan.

1987ko ekainak 10. Nafarroako Parlamentua. Gabriel Urralburu berriro garaile, PSN-PSOE.

1988ko ekainak 5 eta 12. Frantzian PS irabazle. Michel Rocard, presidente.

1989ko urriak 29. Felipe González, PSOE, berriro Espainiako presidente.

1990eko urriak 28. José Antonio Ardanza, EAJ-PNV. Eusko Legebiltzarra. Lehenik PNV, EA eta EEn gobernua, Eak alde egin eta PSE-PSOE sartzen da 1991n, aurrerago PSE-EE.

1991ko maiatzak 26. Juan Cruz Alli, UPN, garaile. Nafarroako Parlamentua.

1993ko martxoak 21 eta 28. Jacques Chirac, RPR, Frantziako presidentetzara itzultzen da.

1993ko ekainak 6. Felipe González, PSOE, presidente laugarren aldiz jarraian.

1994ko urriak 23. Jose Antonio Ardanza. PNV Jaurlaritzan PSE-EErekin, honen hiru kontseilarik Jaurlaritza utziko dute legealdia amaitu baino lehentxoago, 1998an.

1995eko maiatzak 28. Nafarroako Parlamentua. UPNk irabazi arren, hiruko gobernu bat osatzen da PSN-PSOE, CDS eta EArekin; Javier Otano, PSN-PSOE, presidente delarik.

1996ko martxoak 3. Alde eskasaz, José María Aznar, PP, Espainiako presidente.

1997ko maiatzak 25 eta ekainak 1. Lionel Jospin, PS, Frantziako presidente.

1998ko urriak 25. PNV-EA Jaurlaritzan, Juan Jose Ibarretxe lehendakari.

1999ko ekainak 13. UPN garaile Nafarroan, Miguel Sanz presidente.

2000ko martxoak 12. José María Aznar, PP, berriro ere presidente.

2001eko maiatzak 13. Eusko Legebiltzarra. Juan José Ibarretxe, PNV-EA. Bi alderdiek iraila arte gobernatzen dute eta ondoren, PNV, EA eta EB-IU, 2005 arte.

2002ko ekainak 9-16. Hauteskunde orokorrak Frantzian. UMP garaile, Jean-Pierre Raffarin.

2003ko maiatzak 25. Miguel Sanz berriro garaile Nafarroan, UPN.

2004ko martxoak 14. 11-Mko atentatuak eta handik hiru egunetara. José Luis Rodríguez Zapatero, PSOE, irabazle hauteskunde orokorretan.

2005eko otsailak 20. Erreferenduma Europear Konstituzioaz.

2005eko apirilak 17. PNV-EA irabazle. Juan José Ibarretxe. PNV, EA eta EB-IU Jaurlaritzan.

2007ko maiatzak 27. UPN-CDN garaile, Nafarroako Parlamentua. Miguel Sanz, presidente.
 2007ko ekainak 10 eta 17. François Fillon, UMP, irabazle frantziar hauteskondeetan.
 2008ko martxoak 9. Hauteskunde orokorrak. José Luis Rodríguez Zapatero, PSOE, garaile.
 2009ko martxoak 2. Eusko Legebiltzarra. Patxi López lehendakari, PSE-EE.
 2011ko maiatzak 22. Yolanda Barcina, UPN, garaile (Nafarroako PPTik bananduta).
 2011ko azaroak 20. Hauteskunde orokorrak. PP irabazle. Mariano Rajoy presidente.
 2012ko ekainak 10 eta 17. Frantziar PS irabazle, Jean-Marc Ayrault.
 2012ko uriak 21. Eusko legebiltzarra, EAJ-PNV garaile. Iñigo Urkullu lehendakari.
 2015eko maiatzak 24. Nafarroako Parlamentua. UPN irabazle, baina gobernuan Geroa Bai, EH Bildu, Podemos Ahal Dugu eta Ezquierda Ezkerra. Uxue Barkos lehendakari.
 2015eko abenduak 20. Mariano Rajoy, PP, berriro presidentzian.
 2016ko ekainak 26. Hauteskunde orokorrak berriz ere eta Mariano Rajoy garaile berriro.
 2016ko irailak 25. EAJ-PNV irabazle Iñigo Urkullurekin. Jaurlaritza osatzen du PSE-EErekin.
 2017ko ekainak 11-18. Hauteskunde orokorrak Frantziar. LREM garaile, Édouard Philippe.
 2018ko ekainak 1. Espainiar Parlamentuko gehiengo batek Pedro Sánchez, PSOE, presidente izendatzen du, Mariano Rajoyren aurkako zentsura mozio baten ondoren.

1978

Urtarrilaren 13a. Triple A eta ATE taldeek beren gain hartu zuten Donibane Lohizunen Jose Manuel Pagoaga Gallastegi "Peixoto" arrasatear errefuxiatuaren aurka egindako atentatua. Place des Basquesen zuen etxetik irteten ari zela eraso zioten furgoneta batetik, eta zauri larriak eragin zizkieten postekin tirokatuta, eta, zauritu eta gero, tiroz hiltzen saiatu ziren. Ez zuten lortu hura hiltzea, baina bizi guztirako ondorioak utzi zizkieten: eskua txikituta eta ikusmena ia erabat galdua.

Urtarrilaren 14a. Bezperan "Peixoto" zaurituta utzi zuen atentatua gaitzesteko manifestaldi bat deitu zen. Guardia Zibilak manifestarien aukako kargak egin zituen, eta Luis Arana, Jon Agirre Agiriano, Jokin Arregi eta Mikel Etxagibel atxilotu zituen, beste batzuen artean. Aske utzi zituzten biharamunean, baina kuartelean jipoi latzak eman zizkietela salatu zuten.

Urtarrilaren 15a. Lanuzteak egin ziren Debagoienean. Arrasaten, manifestaldi bat egin zen "Peixoto"ren aurka Iparraldean egindako atentatuagatik, eta Guardia Zibilak kargak egin zituen. Karga haietan, Hector Landaluce (15 urtekoa) zauritu zuten. Traumatismo larria eragin zioten gomazko pilota batekin jota. Gaztea etxean zegoen, amonarekin afaltzen, pilotak lepoan jo zuenean. Gasteizko ospitalera eraman zuten. Hilaria Agredilla ere zauritu zuten. Guardia Zibila hark gobernatzen zuen tabernan sartu zen, babes bila sartu ziren manifestari batzuen atzetik, eta konorterik gabe utzi zuten kolpe batekin.

Urtarrilaren 30a. Frantziako Poliziak Angel Iturbe Abasolo eta Isidro Etxabe atxilotu, eta Valensolen konfinatu zituzten.

Otsailaren 1a. Indarrean sartu zen Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea, eta, egun berean, Pedro Mari Ruiz de Azua eta J. Ramon eta Joxe Miguel Agirre atxilotu zituzten, Arrasaten.

Otsailaren 21a. Arantxa Sasiain errefuxiatu arrasatearra (28 urtekoa) bahitzen saiatu ziren, Baionan. Ongi jantzitako pertsona bat hark Lapurdiko hiriburuan zuen etxera joan zen, arma bat eskuan zuela, polizia zela esanez. Dokumentazioa eskatu zion, baita haren pisukidearena ere, eta, gero, berarekin joan behar zuela esan zion. Kalera irten zirenean, jabetu zen inguruan ez zegoela beste poliziairik, eta pertsona-talde bat hurbiltzen ari zitzaiola. Hura ikusirik, "Euskal errefuxiatua naiz!" eta "Hau bahiketa bat da" oihu egin, askatu eta korrika ihes egin zuen. Ezagun batzuen etxean babestu zen. Lekukoak komisaldegira joan ziren, eta egiaztatu zuten ez zegoela atxiloketa-agindurik haren aurka.

Martxoaren 6a. Protestak, barrikadak eta bestelako zenbait ekintza egin ziren (Ordena Publikoaren Indarren erantzunarekin), espetxeetako egoera salatzeko eta Soriako espetxeeko preso askok zainak moztu izana jakitera emateko.

Martxoaren 31. Estradizioen aurkako itxialdia egin zen.

Maiatzaren 4a. Txomin Iturbe Abasoloren aurkako atentatu parapolizial bat egin zuten Biarritzen, lau urtean haren aurka egindako laugarrena. Arin zauritu zuten beso batean. 1975ean, hura baitzen saiatu ziren, eta 1976an, berriz, metrailetaz eraso zioten, baina zauririk gabe irten zen.

Maiatzaren 5a. Udalbatzak akordio bat lortu zuen, Ordena Publikoaren Indarren gaineko kontrola Udalak izan zezan eskatzeko [eta berriro eskatu zuen ekainaren 26ko osoko bilkuran].

Maiatzaren 18a. Frantziako Poliziak Eugenio Barrutia Bengoa atxilotu zuen Hendaian.

Ekainaren 25a. Batallón Vasco Españolak Enrique Gomez Alvarez etakidea (25 urtekoa, Arrasaten bizi izan zena) hil zuen Baionako Udalaitez tabernan, haren neska-lagunaren, hots, Kristina Larrañaga Arando arrasatearraren aurrean, hura haurdun zegoela. Peugeot 305 zuri batetik tirokatu zuten. Enrique Gomez errefuxiatua zen 1974az geroztik, eta bazuen han bizitzeko baimena. Gertaera haren berri jakin zenean, dolua adierazteko, bertan behera utzi ziren San Joanetako ospakizunak, eta ostalaritzako establezimenduak itxi ziren.

Gaueko ordu batean, asanblada egin zen Arrasaten, eta bi mila pertsonak baino gehiagok manifestaldi bat egin zuten Guardia Zibilaren kuartelerantz. Agenteek jaurtitako gas-potoak eta gomazko pilotak manifestariek jaurtitako harriekin eta koktelekin gurutzatu ziren, eta azken horietako asko makatuta geratu ziren. Barrikadak egin ziren, eta Guardia Zibila kuarteletik tiroka hasi zen benetako munizioarekin. Bi pertsona zauritu zituzten:

Felix Guridi Agirreurreta (19 urtekoa) eta Jesus Errasti Elorza (15 urtekoa). Lehena bala batek zeharkatu zuen sorbaldan (sarrera- eta irteera-zuloak utzi zizkion), eta bigarrenari bala bat gelditu zitzaion eskuineko izterrean. Bala-zulo gehiago ikus zitezkeen Garibai etorbideko zintarrietan.

Ekainaren 26a. Erabateko lanuztea egin zen herrian. Eguerdiko 12:00etan, ezohiko osoko bilkuran, Udalak Enrique Gomezen hilketa gaitzetsi zuen, bai eta Guardia Zibilak benetako munizioa erabili izana ere, manifestaldiei erantzuteko. Horrez gain, berriro eskatu zuen Udalak izan behar zuela ordena publikoaren indarren gaineko kontrola, eta gertaerak eta erantzukizunak argitzeko. Eguerdiko 13:00etan, asanblada egin zen Sebero Altuben, eta, gero, manifestaldi bat egin zen. Biteri etorbideko bidegurutzera iritsi zenean, kuarteletik 200 metro ingurura, ordena publikoaren indarren aurkako oihuak gogortu ziren, eta istiluen aurkako materialarekin erantzun zieten, "bezperako goizaldean baino intentsitate handiagoz" *El Diario Vasco*k adierazi zuenez. Hiruzpalau atxiloteta egin ziren.

Ekainaren 27a. Unión Cerrajerako ehun langile inguruk, goizean asanblada egin ostean, gaitzespen-komunikatu bat plazaratu zuten. Manifestazio gehiago egin ziren herrian, eta ordena publikoaren indarrek sakabanatu zituzten. Enrique Gomezen aldeko meza egin zen Musakolan.

Ekainaren 29a. Ordena publikoaren indarren sei autok kontrolpean hartu zuten Enrique Gomezen hilotza zeraman segizioa, eta ibilbidea aldarazi zion, Arrasatetik igaro ez zedin, hau da, hildakoaren neska-lagunaren, Kristina Larrañaga Arandoren, herritik igaro ez zedin. Gasteizeraino zuzenean eraman zuten. Han egin zen hileta, Txagorritxuko San Andres elizan. Arrasaten manifestaldi bat egin zen eragozpen haiengatik protesta egiteko, eta ordubeteko lanuztea egin zen zenbait enpresatan, dolua adierazte aldera.

Uztailaren 5a. Manifestaldiak eta polizia-kargak izan ziren Arrasaten.

Abuztuaren 2a. Batallón Vasco Españoleko zenbait kidek etakide errefuxiatuen auto bat jazarri zuten Angelu inguruan, eta zenbait aldiz tiro egin zieten. Errefuxiatuetako bi korrika irten ziren Biarritzeko hondartzarantz, eta Arantxa Sasiain, otsailaren 21ean bahitzen saiatu zirena, auto baten azpian ezkutatu zen. Juan Lopategi Carrasco (36 urtekoa) eta Angel Iturbe Abasolo, arrasatearra, balaz zauritu zituzten. Lopategi egun gutxi barru hil zen, zaurien larritasunagatik.

Abuztuaren 8a. Juan Jose Etxabek eta haren bi alabak gose-grebari ekin zioten Donibane Lohizuneko udaletxean, merkataritzan jarduteko eta han bizitzeko baimenak kendu zizkietelako.

Abuztuaren 17a. Frantziako agintariek Juan Jose Etxabe kanporatzea erabaki zuten dekretuz, eta hura gose-greban egon zen hilaren 23ra arte. Hiru egun lehenago, hilaren 20an, beste hogeit bat errefuxiatu ere gose-greban jarri ziren Hendaiaiko Santa Ana

elizan, bizi zuten egoeraz protesta egiteko. [Azkenean, bi hilabete luzatu zioten han bizitzeko baimena].

Irailaren 7a. Udaltzaren osoko bilkura bertan behera utzi zen, udaletxearen barruan errefuxiatuen egoera zela-eta izan ziren istiluengatik. Egun haietan, hainbat itxialdi egin ziren, eta mozioak aurkeztu ziren Euskal Herriko hainbat udaletxetan.

Irailaren 8a. "Inkontrolatu"ek lehergailu bat eztandarazi zuten Juan Jose Etxabek Donibane Lohizunen zuen jatetxean.

Irailaren 17a. Poliziak Juan Jose Etxabe atxilotu zuen Donibane Lohizunen, eta Iparraldetik kanporatu zuen.

Urriaren 10a. Frantziaren interes ekonomikoen aurkako kanpainaren baitan, ETAk lehergailu bat jarri zuen Renaulten kontzesionarioan.

Azaroaren 16a, goizez. Komando Autonomo Antikapitalistetako zenbait kidek Morris MG auto bat indarrez kendu zioten jabeari San Andres auzoan, pistolaz mehatxu eginda, eta Udala auzoko leku isolatu batean utzi zuten jabea, zuhaitz bati lotuta. Komandokideetako batek anorak bat utzi zion, hotz egiten zuelako, eta 20.000 pezeta. Ibilgailu hura atentatu hilgarri bat egiteko erabili zuten geroxeago.

Azaroaren 16a, 14:30ak inguruan. Komando Autonomoek Juan Luis Aguirreurreta Arzamendi (32 urtekoa) hil zuten, Ignacio Zuloaga kalean, haren etxetik hurbil, Chelsea tabernaren ondotik, San Frantzisko kaletik sartu ostean. Juan Luis Aguirreurreta Arzamendik bi ume zituen, eta Pinturas Velasco enpresako administratzailea zen. Bi komandokideek pistolaz tirokatu zuten, eta sei bala sartu zizkieten, bi bularrean eta hirugarren lepoan. Furgoneta batean sartu eta laguntza-zentroko larrialdi-zerbitzura eram zuten, baina hilik iritsi zen.

Udalbatza ohiko osoko bilkura egiten ari zen une hartan, eta saioa bertan behera utzi zuen, dolua adierazte aldera. Minutu bateko isilunea egin zuen atentatua gaitzesteko, eta "atsekabe handia" adierazi zien Juan Luis Aguirreurretaren familiartekoei. EAJ-PNV, PSE-PSOE eta EEren aldeko botoekin onartu ziren hiru puntuak; HB eta EMK-OIC abs-tenitu egin ziren.

Azaroaren 17a. Komando Autonomoek "ordena publikoaren indarren isil-mandataria izatea", "eskuin muturreko taldeen buru izatea" eta "Polizia Politiko Sozialeko kide izatea" leporatu zioten Juan Luis Aguirreurretari, baina haren familiak esan zuen ez zegoela mehatxupean, haren memoria aldarrikatu zuen eta salaketa haiek ukatu zituen. "Inoiz ez da izan alderdi politikoren bateko kide, eta ez du inoiz loturarik izan ez Poliziarekin eta ez eskuin muturreko taldeekin" esan, eta "Ulergaitza da soilik funtsik gabeko zurrumurretan oinarrituta eta haiek egiaztatze ahaleginik txikiena egin gabe hain kalte larria egin izana" erantsi zuten. San Frantzisko eliza jendez bete zen haren hiletan. Meza

euskaraz eta gaztelaniaz egin zen, eta Bilboko eta Donostiako gotzainen pastoralak irakurri ziren. Hilketxa bizkarrean atera zuten familiartekoak, eta, gero, hileta-furgoian eraman zuten hilerrira. Han ehortzi zuten, Jose Antonio Ardanza alkatea eta beste agintari batzuk aurrean zirela.

1980

Urtarrilaren 21a. ETAm-ak Manuel Fernandez Garcia (Periquin tabernakoa) zauritu zuen. Hiru bala-zauri egin zizkioten: bat eskuineko besoan, eta beste biak, berriz, eskuineko izterrean. Lehenik Arrasateko laguntza-zentrora eraman zuten, eta, gero, Gasteizeko Ortiz de Zarate erietxera. Hau jaso zen *El Diario Vascoren* biharamuneko alean: “Zenbaiten artean bazen susmoa ekintza hark lotura izan zezakeela Guardia Zibila taberna hartara joatearekin, zerbitzuan egonda ere”. ETak “isil-mandataria” izatea leporatu zion, atentatua bere gain hartu zuenean.

Otsailaren 7a. Frantziako Poliziak auto bat geldiarazi zuen, Biarritzeko geltokiaren ondoan, eta han zihoazenak atxilotu zituen. Txomin Iturbe Abasolo ETako kide nabarmena zen haietako bat. Bi bala-zauri egin zizkioten. Batek lepoa urratu zion, eta besteak, berriz, hankan jo zuen. Beste bi atxilotuak Eugenio Etxebeste eta Jokin Gorostidi ziren. Azken hori Jose Maria Areilzarekin hitz egindakoen berri ematen ari zen bi etakideei. Txomin Iturbe ekainean epaitu zuten. Hiru hilabeteko espetxe-zigorra jarri ziotenez, aske utzi zuten.

Maiatzaren 8a. Juan Jose Rosón barne-arazoetarako ministroak iragarri zuen aurreantzean “zorroztasun handiagoz” jardungo zela eskatu gabeko manifestaldien aurka. Hilaren 21ean, Euskal Herrirako neurri polizialen plan bat iragarri zuen.

Ekainaren 10a. Poliziak Danel Ansoategi Etxebarria atxilotu zuen. Gazteak konortea galdu zuen Poliziaren Amarako komisaldegian galdeketa egiten ari zitzaizkiola, eta Donostiako ospitalean berreskuratu zuen. Aske utzi zuten, kargurik gabe eta epailearen aurretik igaro gabe. Torturak salatu zituen.

Ekainaren 16a. Arrasateko udalbatzak ohar bat plazaratzea hitzartu zuen, herritarrei ohartarazteko ez ziezaiotela etxeko atea ireki, ez gaez eta ez egunez, aginte judiziala edo poliziala duela dioen inori.

Uztailaren 2a. Poliziak Alfredo Ircio Saez de la Fuente atxilotu zuen, Gasteizen.

Abuztuaren 1a. Udal korporazioko talde politikoek -EE, EMK, HB, EAJ-PNV eta PSE-PSOE- erabaki zuten ez zirela joango Guardia Zibilaren kuartelera ekainaren 16ko osoko bilkuran lortutako akordioari buruz deklaratzera, hala eskatu bazieten ere. Aitzitik, publikoki adierazi zuten akordioari eusten ziotela.

Abuztuaren 30a. Batallón Vasco Españolak Pakita Urresti eta Noelia Olabarria Gandiaga, Arrasateko institutuko langilea, zauritu zituen, eta Angel Etxaniz Olabarria (42 urtekoa) hil zuen, Ondarroako Sala 34 dantzalekuan. Unión Cerrajeran lanuzte bat egin zen atentatuagatik protesta egiteko.

Irailaren 14a. Beste lehegailu bat jarri zuten Etxabetarren aurka, orduko hartan, Jokin Etxabek Baionan zuen jatetxearen aurka. GAEk beren gain hartu zuten atentatu hura.

Urriaren 3a. Frantziako Poliziak Juan Jose Etxabe Orobengoa atxilotu zuen Tarasconen (Frantziako Provence-Alpes-Côte d'Azur eskualdean). Aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro ostean.

Urriaren 7a. Guardia Zibilak Enrique Arana Mendikute atxilotu zuen Arrasaten.

Urriaren 19a. Atxiloketak egin ziren Arrasaten.

Azaroaren 7a. ETAm-aren aurkako operazio batean, Poliziak Felix Bengoa Unzurrunzaga oñatiarra (langilea) eta Ramon Arzamendi Madinabeitia (Bergaran bizi zen industria-mekanikaria), Pedro Juan Guridi Arozena (23 urtekoa), Ramon Bidaburu Otadui (arotza) eta Francisco Ansoategi Iribecampos (administratzailea) arrasatearrak atxilotu zituen. Gutxienez haietako lauk tortura jasan izana salatu zuten, baita Ansoategik ere, epailearen aurretik igaro gabe aske utzi bazuten ere.

Azaroaren 15a. Frantziako Poliziak berriro atxilotu zuen Juan Jose Etxabe, eta, orduko hartan, espetxean sartu zuten.

Azaroaren 16a. Mikel Zubia Murua "Txona" arrasatearra atxilotu zuten Aretxabaletan, hilaren 7ko atxiloketei lotuta. Espetxean sartu zuten, eta Antiguoko komandantzia torturatu zutela salatu zuen.

Azaroaren 19a. Espainiako Senatuak terrorismoaren aurkako beste lege bat onartu zuen.

Abenduaren 17a. Atxiloketa gehiago.

1981

Urtarrilaren 17a. Mikel Urrutia Orobengoa atxilotu eta espetxeratu zuten.

Otsailaren 9a. EAJ-PNV, PSE-PSOE, PCE eta EE alderdiek eta CCOO, ELA-STV eta UGT sindikatuek greba orokorra egiteko deialdia egin zuten, ETAm-ak Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari nagusia, Jose Maria Ryan Estrada (39 urtekoa), bahitu eta hil zuelako. Grebak jarraipen handia izan zuen Arrasaten.

Otsailaren 16a. Beste greba orokor bat egin zen, orduko hartan, ETAm-eko kide baten heriotza zela-eta protesta egiteko; izan ere, Joxe Arregi Eizagirre etakidea (30 urtekoa) Madrileko Segurtasun Zuzendaritza Nagusian hil zen, torturen ondorioz. Hilaren 4an atxilotu zuten Espainiako hiriburuan.

Martxoaren 24a. 29 pertsona atxilotu zituzten ETArri lotutako zenbait polizia-operazioetan, besteak beste, bi arrasatear: Joseba Uribecampos eta Vicente Senar Huete. Azkenak bederen tortura salatu zuten. Espetxean sartu zituzten.

Maiatzaren 11. Guardia Zibilak hogeita bat pertsona atxilotu zituen Deba bailaran. ETAm-aren bi komando desartikulatu zituztela iragarri zuten, "Urko" komandoa Eibarren eta "Muru" komandoa Arrasaten. Atxiloketak egin zituzten Soraluzean eta Bergaran ere. Azken horretan, Osintxun zehatz esanda, Francisco Martin Robles arrasatearra (Leónen jaioa) atxilotu zuten (tortura salatu zuten). Arrasaten, Julia Pagaldai Leibar, Juan Agirre Agiriano eta Francisco Garcia Fernandez atxilotu zituzten (lehen biek tortura salatu zuten). Horrez gain, zulo bat aurkitu zutela jakinarazi zuten, eta, han, granadak, armak eta lehergailuak egiteko hainbat tresna. Operazio hartan, gainera, Guardia Zibila Gabriel Urizarren etxera joan zen, baina ez zuen hura han aurkitu. Amak, Maria Murgoitio, ez zien atea ireki, eta semea ez zegoela esan zien. Agenteek atea bota zuten, eta indarrez sartu ziren. Maria Murgoitio aurre egin zien guardia zibilei, eta, dioenez, haietako batek armaz kolpatu eta lurrera bota zuten.

Ekainaren 6a. Indarrean jarri zuten alerta-, salbuespen- eta setio-egoerak arautzen zituen legea.

Uztailaren 14a. Esperanza Iñarra eta Maria del Carmen Iturbe atxilotu zituzten Oaxacan, errefuxiatuen hurreko beste zenbait pertsonarekin batera, Mexikon oporretan zeudela, Leopoldo Calvo Sotelo Espainiako presidentek herrialde hartara egin zuten bidaiarekin bat etorritz.

Uztailaren 24a. Gaueko 02:00ak aldera, ETak lehergailu bat jarri zuen Iberduerok [egungo Iberdrolak] herrian zituen hiru transformadoreetako batean, Bergarako errepidearen ondoan, Lemoizeko zentral nuklearraren aurka egiten ari zen kanpainaren baitan. Transformadorea txikituta geratu zen, eta 19 tona oliok su hartu zuten. Arrasateko eta Eibarreko suhiltzaileek esku hartu beharra izan zuten, eta goizeko 04:00ak aldera lortu zuten sua itzaltzea. Hedatze-uhinak inguruko baserriei eragin zien; beirak apurtu zituen. Enpresak 25 milioi pezetatan zenbatetsi zituen kalteak, gutxi gorabehera. Egun horretan bertan, ETak Iberdueroren beste bi instalazio eraso zituen, Altzon eta Lemoan.

Irailaren 3a. Presoen eta errefuxiatuen aldeko manifestaldia egin zen Arrasaten.

Irailaren 16a. Greba egin zen Leniz bailaran, Madrilen Arrasateko eta Oñatiko zenbait herritar epaitzen zituzten egun berean, ETak 1978tik 1980ra bitartean egindako zenbait atentatu zirela-eta. Jose Ramon Bidaburu Otaduy "Txarra", Pedro Juan Guridi Arocena

“Pedrotxo” eta Felix Bengoa Unzurrunzaga epaitu zituzten, hain zuzen. Aurrez, beste epaiketa batean, Mikel Zubia Murua “Txona” eta Ramon Arzamendi Madinabeitia epaitu zituzten. Arrasate “ia erabat” gelditu zen, *El Diario Vascoren* hitzetan.

Irailaren 30a. Manifestaldiak egin ziren Arrasaten eta Euskal Herriko beste hainbat herritan, “errepresioaren aurka”.

Urriaren 10a. Garibai kalean, “ziztu bizian” zihoan auto batek bi gazte jo zituen. Istripu hartan, Jose Antonio Mateos Rodriguez hil zen (15 urtekoa), eta larriki zaurituta geratu zen Jose Luis Gomez Nieto (17 urtekoa). Biak Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleak ziren, eta auto-stopean ari ziren Eskoriatzara itzultzeko, han bizi baitziren. Autoa matrikulak aldatuta zituen Seat 127 bat zen, eta, barruan, Oñatiko kuarteleko bi guardia zibil zihoazen, Jose Lopez Marquez (gidaria) eta Francisco Machado Espinosa, 20 urtekoak bi-biak. Egunkarietan jasotakoaren arabera, “antza denez, ez zeuden gidatzeko moduko egoeran”. Autoa zabuka zebilen bi gazteak jo zituenean, eta “bost metro arrasatu zuen Seat 131 bat”. “Auto haren azpian geratu zen biktima”, Jose Antonio Mateos.



José Antonio Mateos

Jose Luis Gomezek 15 egun eman zituen zainketa intentsiboen unitatean. Aurretiko traumatismoa zuen, sudurra eta eskuineko besoa hautsita, eta lesioak zenbait ornotan. Horrez gain, kornea-transplantea egin zioten. Istripu osteko egunetan ez zen inor hurbildu, ez gazteen familiari egin zieten kalteagatik barkamena eskatzera, ez eta zaurituaren berri jakitera ere.

Urriaren 16a. Guardia Zibilak Felix Arriaran Arregi, Ivan Arana Altuna (tortura salatu zuen) eta Fernando Reyes Azurmendi Velez (epailearen aurretik igaro ostean aske utzi zuten, eta tortura salatu zuen) atxilotu zituzten Arrasaten, eta Rafael Nafarrete Eskoriatzan.

Urriaren 17a eta 19a. Manifestaldiak egin ziren atxilotutakoen alde.

Urriaren 18a eta 20a. Atxiloketa gehiago egin zituen Guardia Zibilak: Jose Maria Juaristi Querejeta (tortura salatu zuen) eta Xabier Uribesalgo.

Azaroaren 3a. Poliziak Jagoba Aranzabal Gamarra eta Jose Antonio Agiriano Ezkurra atxilotu zituen.

Azaroaren 13a. Cristina Azurmendi, Juan Bautista Agirre Mogurzur, Isabel Aranguren eta Javier Heriz Velasco atxilotu zituzten Arrasaten.

Azaroaren 14a. Poliziak Joseba Imanol Talledo Zubillaga atxilotu zuen Arrasaten. Aske irten zen, kargurik gabe, eta tortura salatu zuen.

Abenduaren 19a. Amnistiaren aldeko manifestaldi bat egin zen.

Urte hartan atxilotu zituzten Paco Robles, baterako hautagaitzaren enpresa-batzordearen kide ohia, eta Jon Agirre, Unión Cerrajerako langile ohia¹⁴¹.

1982

Otsailaren 12a. Manifestaldia egin zen, ordena publikoaren indarren "torturen eta errepresioaren" aurka.

Martxoaren 9a. Borroka Kontrterroristaren Buruzagitza Bakarrak ETAm-arekin lotutako atxilotetak egin zituen zenbait herritan. Arrasaten, Agustin Aranburu Garcia atxilotu zuen, eta Eskoriatzan, berriz, Iñaki eta Jose Ramon Gurrutxaga. Komando Autonomoei lotuta, Alex Belategi atxilotu zuen, Eskoriatzan. Agustin Aranburu aske utzi zuten kargurik gabe, eta tortura salatu zuen. Era berean, Jose Ramon Gurrutxaga "Harristik" adierazi zuen borrekin kolpatu zutela oinazpian eta iletik tiraka ibili zitzaizkiola Poliziak, Arabako hiriburuan egin zioten galdeketa; horrez gain, Madrilén zegoela "tortura psikologikoa" egin ziotela salatu zuen.

Martxoaren 16a. Atxiloteta gehiago egin ziren: Xabier Larreta, apaiza, eta Luis Pagoaga Gallastegi, Amnistiaren Aldeko Batzordeetakoak. Biak aske utzi zituzten epailearen aurretik igaro ostean.

Martxoaren 30a eta 31. Esteban Muruetagoiena Oiartzungo medikua torturatu zutenaren zantzuak azalarazi zituen haren autopsiak, Poliziaren egoitzetan bederatziz egun igaro ostean hil eta gero egin ziotenak. Horren berri izatean, manifestaldiak egin ziren, eta ordena publikoaren indarrek haien aurka egin zuten.

Apirilaren 7a. Gipuzkoako Gobernu Zibilak debekatu egin zituen Aberri Eguna ospatzeko HB zenbait herritan egindako deialdiak.

Apirilaren 11. Poliziak kargak egin zituen Aberri Eguna zela-eta zenbait herritan egin ziren manifestazio-saiakeren aurka (HBk deitu eta Gobernu Zibilak debekatutakoak).

Maiatzaren 7a. Poliziak sarekada bat egin zuen Juanjo Motrel, Paquita Gil, Alberto Altube, Joseba Uribecampos eta Mario Serratoren aurka, eta beste lau atxiloteta egin zituen Madrilén. Azken lauak aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro gabe.

141 Unión Cerrajerako CCOO, LAB eta ESK. Op. Cit., 19. or.

Maiatzaren 11. Poliziak Koldo Errasti Urrutia atxilotu zuen Gasteizen. Espetxean sartu zuten.

Maiatzaren 21a. Poliziak Bixente Uribetxeberria atxilotu zuen. Espetxean sartu zuten.

Ekainaren 12a. Frantziako Poliziak Txomin Iturbe Abasolo atxilotu zuen Biarritzetik hurbil, eta espetxean sartu zuten, legez kanpo armak eramatea leporatuta (errebolber bat). Marcelle Aguerretche, Xabier Arrinda Urizar eta beste 25 errefuxiatu ere atxilotu zituzten. Txomin Iturbe 1983ko martxoaren 3an irten zen espetxetik.

Uztailaren 6a. Xabier Pagaldai Uribe eta Antonio Elorza Gorosabel atxilotu zituzten, haiek agintari judizialen aurrean aurkeztu eta gero.

Uztailaren 9a. Poliziak Imanol Azkue Etxeberria arrasatearra atxilotu zuen Hernanin. Espetxean sartu zuten.

Uztailaren 14a eta 15a. Poliziak Kepa Ormaetxea Milikua, Inocencio eta Koldo Calleja, Eugenio Ochoa Ugalde eta Ramon Urrizalki atxilotu zituen Arrasaten. Espetxera sartu zituzten guztiak, Koldo eta Inocencio Calleja anaiak izan ezik. Azken bi horiek aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro gabe. Ormaetxea, Urrizalki eta Ochoak, gutxienez, Gasteizen eta Madrilen izan zituzten zazpi egunetan tortura jasan zutela salatu zuten. Hilaren 21ean, Carabancheleko espetxean sartu zituzten.

Irailaren 23a. Poliziak Xabier Perez de Arenaza Sogorb, Antonio Iturbe Abasolo eta Koldo Ibarguren atxilotu zituen, ETArekin lotura zutelakoan. Hiru egun izan zituzten Gasteizko komisaldegian, eta beste lau Madrilekoan. Aske utzi zituzten hirurak, epailearen aurretik igaro gabe.

Irailaren 30a. ETApn VII Asanbladak bere disoluzioa jakinarazi zuen publikoki. VII Asanblandako kideek prentsaurreko bat eman zuten, txanorik gabe, erakundearen anagrama eta "Pertur" zenaren argazki bat atzean zituztela.

Urriaren 1a. Gaueko 03:45ak aldera, bi lehergailuk eztanda egin zuten. Haietako bat Banco de Vizcayaren leihatearen aurrean jarri zuten, Garibai etorbidean, eta bestea, berriz, Banco Santaderrenaren aurrean, Ignacio Zuloaga kalean. Kalte ekonomiko handiak eragin zituzten bi entitateetan. Banco de Vizcayaren aurrean jarritakoaren hedatze-uhinak txiki-txiki eginda utzi zituen Roneo Unión Cerrajeraren fatxada nagusiko beirateak (kalearen beste aldean), eta kalteak eragin zituen Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoan ere (Banco de Vizcayaren bulegoen ondoan). Azken horren beirateak hautsi zituen, eta metalezko atea atera. Kalteak eragin zituen Amuebladora Mondragonesan ere, eta dozenaka etxetako leihoak hautsi ziren. Banco Santanderren aurrean jarritakoak bi ibilgailu kaltetu zituen, eta inguruko etxe askotako beirak apurtu ziren.

Urriaren 7a. Poliziak Manuel Unamuno atxilotu zuen. Aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro gabe.

Urriaren 25a. Itziar Aranburu eta Santiago Zeziaga atxilotu zituzten.

Urriaren 31. Zona Especial Norte plana, hots, ZEN plana, argitara eman zen. Barne-arazoetako ministerioak hala eskatuta zenbait adituk egindako dekalogo bat zen.

1983

Urtarrilaren 24a. Ramon Urrizalkiren aurkako epaiketa bertan behera utzi (1982an atxilotu eta espetxeratu zuten, ustez talde armatuari laguntzeagatik), eta kasua artxibatu zen.

Otsailaren 1a. Poliziak Jose Luis Encinas "Piter" arrasatearra atxilotu zuen, zerikusia zuelakoan Iraultza taldearekin eta, urtarrilaren 26an, Gasteizen, talde horretako hiru militanteri eztanda egin zien lehergailuarekin (hura aktibatu nahian ari ziren, R5 baten barruan). Bi militante hauek Alex Lakuntza antzuolarra eta Angel Mari Fernandez Ruiz oñatiarra leherketak zauritu zituen, Piter Encinasek ordea kotxetik irtetea lortu zuen. Angel Mari Fernandez (26 urtekoa) hilaren 3an hil zen, Gurutze Gorriaren Madrileko ospitalean, inkomunikatuta zegoela. "Piter" Encinas espetxean sartu zuten. Bi urte eta erdi eman zituen Carabanchelen, Alcalá-Mecon eta Herrera de la Manchan. Atxiloaldian tratatu txarrak eta tortura psikologikoa jasan zituela salatu zuen.

Martxoaren 8a. Poliziak Antxon Urra atxilotu zuen.

Apirilaren 10a. Manifestaldia egin zen, herrian Poliziaren komisaldegi bat jartzeko erabakiaren aurka.

Apirilaren 19a, 04:05ak aldera. ETAm-eko bi kide hil ziren Arrasateko Garibai kaleko aparkalekuan, Jose Antonio Garate Askasibar eta Felix Badiola Etxaburu (25 urtekoak bi-biak), lehergailu batek eztanda egin zielako hura jartzera zihoazela. Komandoko beste bi kideak, Agustin Sarasketa Escribano eta Jose Luis Herrera Perez, zaurituta geratu ziren, larri lehena eta arin bigarrena, eta Gasteizeko Ortiz de Zarate erietxean sartu zituzten. Leherketak askotariko kalteak eragin zituen aparkalekuan zeuden hamar bat ibilgailutan.

Apirilaren 19a, 04:30ak aldera. Lehergailu batek eztanda egin zuen Banco Santanderren aurrean. ETAm-eko komando hark jarria zen nonbait, eta beste bi prestatzeko asmoa zuen. Kalte handiak eragin zituen Zuloaga kalean aparkatuta zeuden zenbait autotan.

Apirilaren 19a, 19:30ak aldera. Manifestaldi bat egin zen hildakoekiko elkartasuna adierazteko. Hirurehun bat lagunek parte hartu zuten, eta, herriko kale nagusietan ibili ostean, Eusko Gudariak abestu zuten, Biteri plazan.

Apirilaren 20a. Poliziak kargak egin zituen, Eibarren, bezperan Arrasaten hildako ETAko bi militanten hiletan.

Apirilaren 27a. Guardia Zibilak Jose Luis Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen. Espetxean sartu zuten.

Uztailaren 5a. Guardia Zibilak Mikel Larunbe atxilotu zuen. Aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro gabe.

Uztailaren 13a. Lau pertsona atxilotu zituzten, goizeko 02:00ak aldera Santa Marina inguruan hasitako polizia-operazio handi batean. Atxiloketa horietako bi, Carlos Arizabaletarena eta Juan Jose Motrelena, handik bi ordura egin ziren, Musakolan, eta beste biak, Maite Sanzena eta Angel Uribetxeberrairena (EAJ-PNVko zinegotziaren anaia), berriz, Olarte kalean. Atxilotuak Eibarreko komisaldegira eraman zituzten, eta terrorismoaren aurkako legea aplikatu zieten. Alabaina, azken biak aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro gabe.

Abuztuaren 13a. Frantziako Poliziak Txomin Iturbe Abasolo atxilotu eta konfinatu zuen.

Urriaren 26a. Ministro Kontseiluak terrorismoaren aurkako beste zenbait neurri onartu zituen. Azaroaren 3an onetsi zituen Diputatuen Kongresuak.

Azaroaren 9a eta 10a. Poliziak Pello Ugarte, Jose Ramon Arkauz Arana (tortura salatu zuen), Jose Maria Sagasta eta Aitor Otaduy atxilotu zituen. Aske utzi zituzten laurak, epailearen aurretik igaro gabe.

1984

Urtarrilaren 16a. Txomin Iturbe atxilotu zuten, dokumentazioa berritzera Baionako suprefeturara joan zenean. Toursen konfinatu zuten, baina hamar egunera ihes egin zuen.

Urtarrilaren 31. "Inkontrolatu"ek lehegailu bat jarri zuten Juan Jose Uriarte Muruaga "Bermi" EAJ-PNVko kidearen autoan. Kalte materialak eragin zituzten.

Martxoaren 23a. Askapenerako terrorismoaren aurkako taldeak, hots, GALEk, Xabier Perez de Arenaza (35 urtekoa) hil zuen Biarritzeko San Martineko gasolindegian, hiru tiro emanda, autoaren barruan zegoela. Motoz zihoan pertsona batek bost tiro egin zituen haizetakoaren aurka, eta bala haietatik hiruk buruan jo zuten. Perez de Arenaza Aretxabaletan jaioa zen, baina Arrasateko San Josepe auzoan bizi izan zen zortzi urte zituenetik 1963an Lapurdin errefuxiatu zen arte. Anai Artea elkarteak manifestaldi bat egin zuen Biarritzen, eta liskarrak izan ziren Frantziako poliziarekin. Arrasaten, asanblada egin zen Sebero Altube plazan, eta, hura amaitutakoan, manifestaldi bat egin zen herriko kaleetan. Azkenean, errepede-mozketa batzuk egin ziren. Eskualdeko ospitalean lanuztea egin zen gertaera hura gaitzesteko; izan ere, han egiten zuen lan biktimaren emazteak, Marixabel Iturbe Abasolok.

Martxoaren 24a. Arrasaten, 13:00etan, Udaltzako ezohiko osoko bilkura egin zuen Xabier Perez de Arenazaren hilketaren gaitzesteko, eta, gero, manifestaldi bat egin zen. Arratsaldean, Biarritzen, ehunka pertsona komisaldegiaurrean elkartu ziren Xabier Perez de Arenazaren hilketaren salatzen. CRS polizia-taldeak gogor eraso zien, eta hiru pertsona atxilotu zituzten. Sakabanaketa batzuen ondoren, ehun bat pertsonak hamar bat auto irauli zituzten Verdún etorbidean, eta su eman zieten haietako biri. Horrez gain, koktel molotov bat jaurti zuten CRSen ibilgailu baten kontra, baina ez zuen su hartu.

Martxoaren 27a. Biarritzen omenaldia egin ostean, Xabier Perez de Arenazaren hilotzak muga igaro zuen, Frantziako eta Espainiako polizien operazio handi baten zaintzapean. Borroka batzuen ondoren, Guardia Zibilaren UAR unitatearen tanketa bat eta beste zenbait ibilgailu hileta-furgoiaren atzean jarri ziren, eta segizioa autopistatik joatera behartu zuten, herrietatik igaro ez zedin eta haietan omenaldirik egin ez zekion, helikoptero batek airetik zelatatzen zuen bitartean. Arrasatera iritsi zenean, hilketaren bizkarrean hartuta sartu zuten udaletxean; han jarri zen hil-kapera, kapitulu-gelan.

Martxoaren 28a. HBk, KASek, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta LABek greba orokorra deitu zuten Gipuzkoan, "gerra zikinaren" eta Xabier Perez de Arenazaren hilketaren aurka, bai eta Pasaiko segadaren aurka ere (Poliziak Komando Autonomoetako lau kide tiroz hil zituen). Arrasaten, grebak erabateko jarraipena izan zuen lantegietan eta ikastetxeetan; asanbladak, lanuzteak, minutuko isiluneak eta manifestaldiak egin ziren.

Ekainaren 15a. Guardia Zibilak Jesus Maria Zabarte Arregi arrasatear etakidea atxilotu zuen Hernaniko etxebizitza batean, hura etxean hartu zuten senar-emazteekin eta beste lau pertsonarekin batera, ETaren komando baten aurkako operazio bortitz baten baitan. Operazio hartan bi komandokide hil ziren, Agustin Arregi Perurena (31 urtekoa) eta Juan Luis Lekuona Elorriaga (29 urtekoa). Zabarte espetxean sartu zuten. Torturak salatu zituen.

Uztailaren 11. Guardia Zibilak Juan Jose eta Francisco Javier Arregi, Juan Iriarte eta Juan Jose Gorosabel atxilotu zituen. Aske utzi zituzten laurak, epailearen aurretik igaro gabe.

Uztaila. Txomin Iturbek eta Jose Maria Martin Patiño jesuitak elkarrizketa bat izan zuten, Parisen, Felipe Gonzalezek hala eskatuta. Espainiako presidentek urtebeteko su-etena eskatu zion ETari, baina proposamen hura ez zen onartu, eta Txomin Iturbe Toursen konfinatu zuten (Frantzia).

Abuztuaren 23a. Beste atentatu bat egin zuen GALEk. Orduko hartan, lehegailu bat jarri zuen Etxabe familiak Baionan zuen jabetxean. Lau pertsona zauritu ziren.

Irailaren 27a. Espainiako Kongresuak terrorismoaren aurkako beste lege bat onartu zuen.

Irailaren 30a. Pakito Arriaran Arregi arrasatearra (29 urtekoa) hil zen, El Salvadorreko armadaren aurkako borroka batean. Pakito Arriaranek El Salvadorreko gerrillarekin bat egin zuen, FMLNrekin, 1978an Espainiako poliziarengandik ihesi Iparraldera joan eta gero. ETAm-ak ez zuen heriotza haren berri eman urriaren 25era arte, Estatuaren eta gerrillaren arteko elkarriketak ez oztopatzeko. Hilaren 27an osoko bilkura egin zen Arriaran Arrasateko "seme kutun" izendatzeko, baina ez zen akordiorik lortu.

Azaroaren 22a. Herrian jarraipen handia izan zuen Santi Brouarden hilketa dela-eta deitutako greba orokorrak. Santi Brouard HB koalizioaren bozeramailea zen Eusko Legebiltzarrean, eta 65 urte zituen GALEk hil zuenean. Asanblada eta manifestaldia egin ziren.

Abenduaren 3a, 09:30ak aldera. Bi pertsonak aitaren autoa lapurtu zioten J. M. E. gazteari Lanbide Eskola Politeknikoaren inguruan, R 4 bat. Udalarako igoyeran utzi zuten gaztea, zuhaitz bati kateekin lotuta, baserritar batzuek aurkitu eta kateak moztu zizkion arte. Auto hori atentatu bat egiteko erabili zuten handik ordubetera.

Abenduaren 3a, 10:20ak aldera. ETAk hiru lehegailu ezandarazi zituen Garagartza auzoan, Guardia Zibilaren bi Land Rover igarotzen ari zirela (32 kg goma-2 eta 48 kg torloju jarri zituzten lau lapikotan). Lau guardia zibil zauritu ziren atentatu hartan; hiru ez oso larri –Jose Saez Eslava kaboa (24 urtekoa), Jose Lopez Berrio (22 urtekoa) eta Manuel Castillo Fernandez– eta bestea arin –Alejandro Garcia Joaquin (26 urtekoa)–. Eskualdeko ospitalean artatu ondoren, Donostiako Poliklinikara eraman zituzten. Laugarren lehegailuak ez zuen eztanda egin, eta, beraz, kalteak ez ziren izan handiagoak.

Abenduaren 26a. Terrorismoaren aurkako legea indarrean jarri zen.

1985

Urtarrilaren 3a. Talde Armatuen eta Elementu Terroristen Aurkako Legea indarrean sartu zen, Espainiako konstituzioaren 55.2 artikulua garatzen duena.

Urtarrilaren 30a. Frantziako poliziak Agustin Bergaretxe atxilotu zuen, Angelun. Espetxera sartu zuten.

Martxoaren 10a. Poliziak Edurne Iturbe Bengoa eta Felix Lopez Losada arrasatearrak atxilotu zituen, Madrilen, ETArekin harremana zutelakoan. Bi-biek tortura salatu zuten.

Martxoaren 13a. Poliziak Jose Luis Arregi eta Bixente Lazaga Otero atxilotu zituen, Arrasaten, baina biak aske utzi zituzten epailearen aurretik igaro gabe.

Maiatzaren 13a. ETAk Arias Cuadrado guardia zibila (23 urtekoa) zauritu zuen, eskuinteko ukondoan, besaurrean, izterrean eta eremu-parietalean, haren ibilgailuaren azpialdean lehergailu bat eztandarazita, Deko plazan. Eskualdeko ospitalean, ebakuntza egin zioten. Hedatze-uhinak kalteak eragin zituen inguruko etxeetan eta aparkatutako zenbait autotan.

Maiatzaren 22a. Poliziak Aitor Errazti, Aitor Ansoategi eta Aitor Orobengoa Otardui atxilotu zituen Arrasaten. Aske utzi zituzten hirurak, epailearen aurretik igaro gabe. Antza denez, Polizia eskualdean ziharduen ETako komando baten atzetik zebilen, eta komandokideetako batek Aitor zuen izena.

Aitor Orobengoa ez zuten komisaldegira eraman. Haren hitzetan, “bahitu” egin zuten. Kaleko jantziak zeramatzaten hiru pertsona etxera joan zitzaizkion, eta identifikatu gabe, handik atera zuten goizeko 03:00etan. Arrasateren kanpoaldeko paraje bakarti batera eraman zuten, plakarik ez zuen ibilgailu batean. Horrek haren ezinegona aragotu zuen, garai hartan aktibitate handia baitzuten GALEk eta beste talde parapolizial batzuek, eta horregatik apur bat lasaitu zen Poliziaren markak zituzten beste ibilgailu batzuk bertaratu zirenean. Galdeketa egin ostean, “nahastu egin gara” esan zioten, eta etxera eraman zuten. [Orobengoa EEko zinegotzi izan zen 1986an, eta, gero, indarkeriaren biktima izan zen, aurkako aldearen indarkeriarena, hain zuzen].

Maiatzaren 30a. Frantziako Poliziak Angel Iturbe Abasolo atxilotu zuen, Baionan. Aske utzi zuten berehala.

Irailaren 27a. Ia erabateko greba egin zen Arrasaten, hilaren 25eko gauean GALEk Baionako Monbar tabernan lau etakide errefuxiaturen aurka egindako atentatuaren aurka protesta egiteko. Protesta-ekintza haietako batean, manifestari batzuek Herriaren Etxeko sarraila hautsi, eta barrura sartu ziren. Tabernako hiru txanpon-makina, altzariak eta hainbat botila eta edalontzi txikitu zituzten, eta kalteak egin zituzten sabaian. Pintadak ere egin zituzten, lokalaren hormetan: “PSOE hiltzailea” eta “PSOE-GAL berdin da”. Biharamunean, Jose Antonio Maturana PSE-PSOeko idazkari nagusiak protesta egin zuen Ertzainen “geldotasuna” zela-eta, gertakarien lekutik 20 bat metrora baitzeuden. Bezperan, halako erasoren bat izan zitekeelakoan, “emandako hitza ez betetzea” leporatu zion Ertzaintzari, eta aurrekari batzuk gogor ekarri zituen:

Ezin zinen kaletik ibili zure burua arriskuan jarri gabe halako deialdiekin bat egiten ez bazenuen edo manifestariak ezagutzen bazintuzten. Manifestaldi haietako asko Herriaren Etxean amaitzen ziren. Behin eta berriz erasotzen gintuztela ikusirik, Ertzaintzari deitzen genion, baina askotan ez zuten erantzuten. Salaketak jartzen genituen, baina ez zuten aurrera egiten. Horixe zen deialdi haietako eguneroko ogia.

Urriaren 18a. Bost kaputxadunek eraso egin zioten Angel Padin Rico Limsa lantegiko CC00eko ordezkari sindikalari. Kaputxa jarri, ibilgailu batera sartu, eta lokal batera era-

man zuten. Han, kolpeka jardun zitzaizkion, heriotza-mehatxuak egin zizkieten, eta, labana batekin, "GAL" siglak markatu zizkieten bularrean, ebakiekin. "Inkontrolatu"en antzeko bost ekintza salatu ziren, Euskal Herrian, bi hilabeteren barruan.

Abenduaren 5a, gaueko 01:20etan. ETAk Mario Manuel Leal Baquero (29 urtekoa) hil zuen, Arrasateko geltoki zaharraren aparkalekuan egindako atentatu batean. Agenteak Aretxabaletako kuartelean egiten zuen lan. Bi kaputxadunek gertu-gertutik zazpi tiro sartu zizkieten, kaleko jantziak zeramatzala. Hirugarren bat autoan zain zuten, ihes egi-teko. Mario Leal Pontevedrako zen, eta 5 urteko alaba zuen.

Abenduaren 6a, goizeko 05:30ak aldera. Guardia Zibilak Maite Murua eta Jose Agustin Ibarluzea "Txispas" atxilotu zituen, haiek Arrasaten zuten etxean, eta Intxaurrendoko kuartelera eraman zituzten. Bi-biak aske utzi zituzten: lehena, epailearen aurretik igaro gabe, eta bigarrena, berriz, deklaratu ostean.

Abenduaren 6a, 17:00etan. Mario Manuel Lealen hileta Aretxabaletako Andre Mariaren Jasokundearen elizan egin zen, gorpua han bertan zela. Gorpua hileta-furgoian Avilés-era eraman zuten gero, lur emateko, hangoa baitzen alarguna.

Abenduaren 11. Guardia Zibilak Xabier Uribe Etxeberria, Aitor Alberdi eta Jose Ramon Bolinaga atxilotu zituen. Aske utzi zituzten hirurak, epailearen aurretik igaro gabe.

Abenduaren 18a. Protestak, manifestaldiak eta kargak izan ziren, hilaren 15an Bidasoa ibaian, Guardia Zibilak atxilotu eta hainbat egunetara, Mikel Zabalza Garate (32 urtekoa) hilik agertu zelako deitutako greba orokorraren baitan.

1986

Otsailaren 4a. Poliziak Santos Izagirre atxilotu zuen, Arrasaten. Kargurik gabe aske utzi zuten, epailearen aurrean deklaratu ostean.

Otsailaren 25a. Espainiako Kongresuak Segurtasun Indarren eta Kidegoen Lege Organikoaren proiektua onartu zuen.

Apirilaren 27a. Frantziako Poliziak Txomin eta Angel Iturbe Abasolo atxilotu zituen, Ahetzen, kontrol batean. Hiru hilabete geroago, Txomin Iturbe Librevillera deportatu zuten (Gabon, Afrika).

Maiatzaren 13a. Arrasateko Udaleko osoko bilkurak mozio bat onartu zuen, HBren eta EAJ-PNVren aldeko botoekin, Txomin Iturbe aske utz zezaten eskatzeko. PSE-PSOeko eta EEko hautetsiak ez ziren joan osoko bilkura hartara.

Ekainaren 8a. Bigarren aldiz bahitu zuten Angel Padin Rico, LIMSAko CCOOen ordezkarri sindikala, eta berriz markatu zizkioten "GAL" siglak, orduko hartan, izterrean. Mehatxuak ere egin zizkioten, eta zelai batean belauniko ibiltzera eta belarra jatera behartuz umiliatu zuten. Padinek salaketa jarri zuen Ertzaintzaren aurrean, behin eskualdeko ospitalean artatu eta gero. CCOOek protesta egin zuen bahiketa zela-eta.

Ekainaren 8a. ETAk Antonio Ramos Ramirez Guardia Zibilaren kabo lehena hil zuen (28 urtekoa), kaleko jantziekin ibilgailura sartzen ari zela, San Andres auzoko Doctor del Valle kalean, gaueko 23:00etan. Larriki zauritu zuten, eta Debagoieneko ospitalera zeramatela hil zen. Ramosek Guardia Zibilaren Oñatiko kuartelean lan egiten zuen, eta, antza denez, eraso eragozten saiatu zen¹⁴², bere armaz tiro eginez, ibilgailuko bala-zuloetako bi barrutik egindakoak baitziren. Antonio Ramos Esperan jaioa zen (Cádiz), bost urteko semea zuen, eta emaztea haurdun zegoen, sei hilabeteko.

Ekainaren 9a. Bezperan Arrasaten hildako guardia zibilaren hileta egin zen Oñatiko San Migel parrokia-elizan. Polizia-kidegoetako buru eta agintari politiko ugari izan ziren han. Guardia Zibileko agenteek bizkarrean eraman zuten hilkutxa.

Ekainaren 10a. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Elkarteak elkarretaratzea egin zuen Donostiako Gipuzkoa plazan, atentatu hura salatzeke.

Ekainaren 11tik 15era. Guardia Zibilak Jose Maria Odriozola, Jose Antonio eta Jesus Moraleja anaiak, Cayetano Carabias eta "Portu" Pereira (edo Ferreiras) atxilotu zituen. Atxilotutakoak Antiguoko komandantziara eraman zituzten, eta, han, terrorismoaren aurkako legea aplikatu zitzairen. Kepa Ormaetxea Milikua bere borondatez aurkeztu zen, bere bila zebiltzala jakindakoan. Alvaro Arregi alkatea eta bi zinegotzi komandantziara joan ziren, egoera zertan zen jakiteko. Atxilotutakoak kargurik gabe aske utzi zituzten biharamunean.

Ekainaren 20a. Guardia Zibilak Jesus Maria Garai Uribetxeberria, Segundo eta Xabier Uribetxeberria Bolinaga anaiak, Josu Askasibar Maska, Jon Barrena Gorostiza eta Aitor Ormaetxea Lasaga atxilotu zituen. Seiak aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro gabe.

Abuztuaren 26a. Frantziako Poliziak Pedro Jose Guridi Iriarte (28 urtekoa) atxilotu zuen Baionan, eta Polizia Nazionalaren esku utzi zuen, esku-hartze judizialik gabe.

Irailaren 5a. Txomin Iturbe Abasolo, uztailaren 12tik Librevillen zegoena (Gabon), Aljeriara eraman zuten. Herrialde haren hiriburuan, Aljerren, bilerak eta elkarrizketak egin ziren Espainiako Gobernuako kideekin, urriaren 22an, besteak beste, Jorge Argote abokatuarekin.

Urriaren 8a. Poliziak Marilu Uribetxeberria eta Javier Aranburu atxilotu zituen. Bi-biak aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro gabe.

¹⁴² *El País* 2015/05/05 eta *El Diario Vasco* 1986/06/09.

1987

Urtarrilaren 1a. Kaputxadun batzuek su eman zioten herriko Talbot-Peugeot kontzesionarioko erakusgelari [lurrin-denda bat jarri zuten gero], eta txikituta utzi zuten. Erakusgelako bi autoak kiskalita geratu ziren. Sua ez zen gaineko etxebizitzetara zabaldu, suhiltzaileen esku-hartzeari esker.

Urtarrilaren 11 eta 12a. Txomin Iturbe Espainiako Gobernuaren ordezkari batekin bildu zen Aljerren, Julian San Cristobal bilbotarrarekin [Estatuko Segurtasunaren buru zen 1984an. 1998an, funts publikoak bidegabe erabiltzeagatik eta Segundo Marey bahitzeagatik zigortu zutenen, eta, gero, diru berezien kasuagatik].

Urtarriletik aurrera. Dispertsio- eta urrutiratze-politikak orokortzen hasi ziren, ETArekin lotutako pertsonak Euskal Herritik urrun dauden espetxeetara eramatekoa.

Otsailaren 27a. Txomin Iturbe Abasolo (44 urtekoa) auto-istripuz hil zen Berruaghian, Aljerian, baina ez zen horren berririk izan Aljeriako agintariek martxoaren 1ean, prentsaurreko batean, plazaratu zuten arte. Txomin Iturbe Abasolo ETAko militante garrantzitsua zen, eta Iparraldean errefuxiatu zen 1968an, Espainiako Poliziarengandik ihesi. Frantziako Poliziak Aljeriara deportatu zuen.

Martxoaren 5a. Korporazioko talde guztiek osoko bilkura egin zuten, HBk Txomin Iturberen heriotza zela-eta proposatutako mozio bat jorrazteko [EAJ-PNVko 6 kide, Alvaro Arregui Otaduy alkatea barne, 4 independente, PSE-PSOeko 5, HBko 5 eta EEko 1 izan ziren]. Besteak beste ETAko buruzagi hila herriko seme kutun izendatzea eskatzen zuten, haren eraspena aintzatestea eta dolu-xingola belzdun ikurrinak balkoietan jartzeko eskatzea herritarrei. Mozioak ez zuen aurrera egin, EAJ-PNVk haren ordez proposatutako batek baizik. Hura ikusirik, "jendea oldarka sartu zen, protesta oihuak eginenez, eta Txominen oroimenaren eta ETAREN aldeko kontsignak bota zituzten, besteak beste, eta 15 bat minutuz". Horixe jaso zen ezohiko saioaren aktan. Bestalde, onetsi egin zen pleno-aretoa hil-kapera jartzeko erabiltzeko familiak egin zuen eskaera.

Martxoaren 8a. Txomin Iturberen aldeko omenaldia egin zen Arrasaten, eta "Poliziak kalkulaturakoaren arabera, 45.000 pertsona bertaratu ziren" ¹⁴³. Lau kaputxadunek ETAREN anagrama jarri zuten hilkutxaren gainean¹⁴⁴. Gobernu Zibilak ekintza horiei buruzko espedientea igorri zion fiskalari, terrorismoaren apologia izan zitezkeelakoan.

Martxoaren 30a. Jesus Mari Mentxaka eta Jose Ignacio Gaztañaga Vidaurreta atxilotu zituzten, ETArekin lotura zutelakoan.

¹⁴³ Jose Onetok El Diario Vascon zioenaren arabera "50.000 pertsona baino gehiago" eta "behatzaileen arabera, duela hogei urte pasa sortu zenetik, erakunde terroristak goraipatzeko egin izan den ekintza handiena" izan zen. 4. or.

¹⁴⁴ *El País*, 1987/11/19.

Maiatzaren 30a. Zenbait pertsona pistolak eskuan hartuta sartu ziren Jose Ramon Iriarte "Txerra" arrasatearraren Intxaurrendoko etxean (Donostia). "Txerra" LKlko kidea zen, bai eta Komite Antinuklear eta Ekologistako kidea ere. Lagunei, auzokideei eta Nikaraguan egin zuen egonaldiari buruzko galdeketa egin zioten, eta, bitartean, GAL siglak markatu zizkieten besoa. Ekainaren 2an, protesta-elkarretaratzen bat egin zen Boulevardean.

Ekainaren 20a. Frantziako Poliziak Angel Iturbe Abasolo atxilotu zuen Biarritzen. Aske utzi zuten, kargurik gabe.

Uztailaren 2a. Frantziako Polizia Judizialak eta Jendarmeriak Enrike Pagoaga Gallastegi atxilotu zuten Maule-Lextarren (Zuberoa), eta atzerriratu egin zuten.

Irailaren 21a. "Inkontrolatu"ek berriro eraso zuten Jose Ramon Iriarte "Txerra", orduko hartan, kalean. Txanoa jarri eta ebakiak egin zizkieten gorputzeko zenbait ataletan, eta GAL siglak markatu zizkieten bularrean. Hori zela-eta, protesta-manifestaldi bat egin zen irailaren 23an, eta prentsaurreko bat hilaren 25ean. Prentsaurreko horretan, "Txerrak" kontatu zuen gerora erasotzaileek egindako galdera berberak gin zizkietela UAREko kideek bi kontrolatan. "Utz nazazue bakean", erantsi zuen. Ingurukoek eta kidekoek Gipuzkoako Gobernadore Zibilarekin elkartzea lortu zuten, eta gertaera haiei buruzko galderak egin zizkieten. Ez zuten berriro eraso.

Urriaren 2a. Guardia Zibilak Jesus Angel Oskoz, Angel Mari Gallastegi Oskoz eta Kepa Zengotitabengoa atxilotu zituen.

Urriaren 3a. Frantziako Poliziak Lurdes Arana Altuna, Enrique Letona Biteri eta Jose Askasibar Apeirribai arrasatearrak atxilotu zituen, Biarritzen, Bildotze-Onizepean eta Baionan, hurrenez hurren, eta Polizia Nazionalaren esku utzi zuen, esku-hartze judizialik gabe. Askasibar eta Letona espetxean sartu zituzten. Biek salatu zuten tortura jasan zutela Espainiako Poliziaren egoitzetan.

Urriaren 8a. Guardia Zibilak Eugenio Ochoa Ugalde arrasatearra atxilotu zuen, Aramaion. Tortura salatu zuen. Kargurik gabe aske utzi zuten, epailearen aurrean deklaratu ostean.

Urriaren 13a. Poliziak Antonio Perez Ugarte eta Francisco Herrero atxilotu zituen.

Urriaren 17a. Legebiltzarrak zuzenketa bat onartu zuen, Ertzaintza hedatzeko eta Estatuko Segurtasun Indarrak apurka-apurka ordezkatzeko plana eguneratu zedin.

Urriaren 27a. Mikel Iburguren Alonso arrasatearra atxilotu zuten, Tarbesen, eta Polizia Nazionalaren esku utzi zuen, zuzenean. Aske utzi zuten bi egun igaro ostean.

Urriaren 28a. Frantziako Gobernuak Angel Iturbe Abasolo deportatu zuen, Biarritzen atxilotu eta gero.

Azaroaren 5a. Madrilen, terrorismoaren aurkako Estatu Itun berri bat sinatu zuten PSOE, AP, CDS, EAJ-PNV, EE, CiU, PL eta PDP alderdiek. Azaroaren 10ean berretsi zuten.

1988

Urtarrilaren 12a. Ajuria Eneako Ituna sinatu zuten [aurrez, 1987an, Madrilgo Ituna, eta, gero, urriaren 7an, Nafarroakoa] APk, CDSk, EAK, EAJ-PNVk, PSE-PSOEk eta Jose Antonio Ardanza lehendakariak.

Martxoaren 3a. Bezperan Herrera de la Manchako espetxean Mikel Lopetegi Larrarte ETako preso (33 urtekoa) hil zela-eta protestan ari ziren manifestari batzuek PSE-PSOeko zenbait kide eraso zituzten. Herriaren Etxean sartu ziren, eta han zeudenei arrautzak eta botilak jaurti zizkieten. Jose Luis Lana zinegotzia buruan jo zuten botila batez. UGTko militante bat aurpegian zauritu zuten, Dionisio Rodriguez. Unión Cerrajerako UGTko kide historiko eta PSE-EEko zinegotzi bat ere zauritu zuten, Jose Luis Mendaraz Elexpuru. Lehen biak Arrasateko laguntza-zentrora eraman zituzten, eta, han, zauriak josi zizkieten.

Martxoaren 4a. Mikel Lopetegi Larrarteren heriotza zela-eta, KASek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek deitutako protesten baitan, tabernak ixten joan ziren piketeen eraginez, eta banku-entitateen sarrailak silikonaz zigilatu zituzten. Bezperan bezala, zenbait pertsonak PSE-EEren Herriaren Etxea eraso zuten. Oholak erabiliz leihoak hautsi zituzten, baina ez zuten sartzea lortu. PSE-EEren herriko batzordeak HBri deitu zion, eraso hura eta bezperakoa gaitzetsi zitzaizkien.

Martxoaren 9a. Ertzaintzak Alberto Encinas atxilotu zuen, kalean, Herrera de la Mancharen Mikel Lopetegi Larrarte hil zela-eta aurreko egunetan egindako protestengatik. Segurtasun-agenteen aurka atentatu izana leporatu zioten, protesta-manifestaldi haietan kaleko jantzia zeramaten bi ertzainen aurka egin izana. Martutenean espetxeratu zuten. [Donostiako probintzia-auzitegiak zazpi hilabeteko espetxe-zigorra jarri zion Alberto Encinasi].

Martxoaren 10a. Ertzaintzak Marcial Insausti atxilotu zuen, hilaren 4an Mikel Lopetegiren heriotzaren harira deitutako greban gertatutako istiluengatik.

Martxoaren 29a. Guardia Zibilak Jose Ignacio Gaztañaga Bidaurreta eta Jesus Maria Mentxaka atxilotu zituen, terrorismoaren aurkako legea aplikatuta. Lehena espetxean sartu zuten, eta bigarrena, berriz, kargurik gabe aske utzi zuten apirilaren 3an. Gaztañagak tortura salatu zuen.

Maiatzaren 12a. Diputatuen Kongresuak terrorismoaren aurkako legedi berezia onartu zuen. Lege hori behin betiko sartuko zen Zigor Kodean eta Prozedura Kriminalaren Legean, eta, horrenbestez, Estatuko lege arrunten parte bihurtu zen.

1989

Urtarrilaren 8a. ETAk aldebakarreko su-etena deklaratu zuen, eta, gero, hilaren 23an, bai Barne Arazoetarako Ministerioak eta bai ETAk berretsi egin zuten elkarrizketa-mahai bat eratu zela Aljerren. Alde askotako bilerak eta akordioak egin ziren, eta agindutakoak ez betetzea aurpegiratu zioten elkarri, apirilaren 7an ETAk Irungo polizia bati pakete batean lehergailu bat zion arte. Pakete hark zauriak eragin zizkion haren bizilagun bati, Jose Maria Rubiori. Ekintza horrekin, su-etena amaitutzat jo zen.

Apirilaren 21a. Ertzaintzak kargak egin zituen, Aljerreko elkarrizketek porrot egin ostean, Frantzia errefuxiatuak beste herrialde batzuetara deportatzen hasi zela-eta egin ziren protesten aurka.

Maiatzaren 11. Manifestaldiak egin ziren deportazioen eta atxiloketen aurka. Ertzaintzak manifestaldi haietan esku hartu zuen.

Maiatzaren 27a. Kaputxadun batzuek harrika egin zuten BBVren eta Banco del Norteren sukurtsal banaren beirateen aurka.

Ekainaren 20a. Frantziako Poliziak Jose Manuel Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen, Baigorriin. Aske utzi zuten, kargurik gabe.

Irailaren 8a. Ertzaintzak Xabier Atxa, Joseba Korta, Igor Letona eta Asier Bergaretxe atxilotu zituen. Azkena atxilotu eta ordu gutxira utzi zuten aske, eta besteak, berriz, hiru egunera, karguekin.

Irailaren 17a. Bezperan, Irungo Ventas auzoko ordainlekuan, Guardia Zibilak ETAko bi kide hil zituen, Juan Oiarbide Aranburu (39 urtekoa) eta Manuel Urionabarrenetxea Betanzos (37 urtekoa). Heriotza hariiek zirela-eta egindako protesten aurkako kargak egin zituen Ertzaintzak. Operatibo harekin lotutako polizia-operazioan, Guardia Zibilak 26 pertsona atxilotu zituen, besteak beste, Maria Soledad Salaberria, Rafael Etxabe Urteaga (tortura salatu zuen), Milagros Bolinaga Zabala eta Juan Maria Narvaez Amazorrain, Arrasaten. Azken biak aske utzi zituzten ordu gutxira, epailearen aurretik igaro gabe; lehena, bestalde, hilaren 21ean askatu zuten. Gerora, Jose Ignacio Iturri Pildain atxilotu zuten (tortura salatu zuen), bai eta Rafael Etxabe ere.

Irailaren 19a. Maria Angeles Ruiz Garrido eta J. Enrique Anduaga oñatiarrak atxilotu zituzten Arrasaten. Bi egunen buruan utzi zituzten aske.

Irailaren 22a. Ertzaintzak manifestaldi bat geldiarazi zuen, atxilotutako eta espetxeratutako pertsonen egoeraren berri emateko egindako asanblada bat amaitutakoan abiatutakoa.

Irailaren 23a. Guardia Zibilak Kristina Zeziaga Mendizabal atxilotu zuen, terrorismoaren aurkako legea aplikatuta. Espetxean sartu zuten. Torturak salatu zituen.

Urriaren 11. Frantziako Poliziak Mikel Piedehierro Ormaetxea atxilotu zuen Paun (Frantzia). Epaileak aske utzi zuen.

Urriaren 28a. "Inkontrolatu"ek Zuk Nahi taberna tirokatu zuten. Kalte materialak eragin zituzten. Lau balak lokalaren atea jo zuten.

Azaroaren 21a eta 22a. Greba egin zen, Madrilgo Alcalá hotelean Josu Muguruza HBko diputatua hil zutelako (31 urtekoa) eta zauri larriak eragin zizkiotelako Iñaki Esnaola abokatuari.

1990

Urtarrilaren 18a. Guardia Zibilak Veronica Garai Urkia atxilotu zuen. Terrorismoaren aurkako legea aplikatuta espetxeratu zuten.

Otsailaren 26a. Guardia Zibilak Iñigo Irasuegi atxilotu zuen. Espetxean sartu zuten.

Apirilaren 24a. Borrokak izan ziren Jarraiko manifestarien eta Ertzaintzaren artean. Lehenek harriak eta molotov koktelak jaurti zituzten, eta bigarrenek, berriz, gomazko pilotak. Espriak ere erabili zituzten, manifestarien aurpegietara zuzenduta.

Ekainaren 26a. Protestak egin ziren Irunberriko arrolako gertaerak zirela-eta. Ertzaintzak protesta haietan esku hartu zuen, eta agenteetako batek pistola erakutsi zuen. [Gertaera haietan hildako ETako militanteetako bat, Susana Arregi Maiztegi, Oñatiko Kapiazelaia Etxekoa zen, Arrasatera bidekoa].

Irailaren 19a. Bezperan, Nafarroako hiriburuan, Espainiako Poliziak Mikel Castillo Furtado etakidea (23 urtekoa) hil zuen, ihesi zebilela, bizkarretik tiro eginda, eta KASek protesta-deialdia egin zuen. Ertzaintzak kargak egin zituen protesta haien aurka.

1991

Martxoaren 18a. Frantziako Poliziak Josu Arkauz Arana "Josu Arrasatekoa" atxilotu zuen, Biarritzen.

Maiatzaren 31. Bi etakideren heriotzagatiko protesta-manifestaldi baten aurkako kargak egin zituen Ertzaintzak. Guardia Zibila etakide horien atzetik zebilen, bonba-auto bat jarri baitzuten Guardia Zibilaren Viceko kuartelean. Lehergailu hark hiru agente eta zazpi familiarteko hil zituen –bost adin txikikoak–, eta berrogei pertsona baino gehiago zauritu zituen.

Abuztuaren 30a. Bezperan, Bilbon, ETAko kide bat hil zela-eta egin zen protesta-manifestaldi baten aurkako kargak egin zituen Ertzaintzak.

Irailaren 2a. Juan Mari Ormazabal Ibargurenen (27 urtekoa) heriotza zela-eta KASek egindako deialdiaren aurkako kargak egin zituen Ertzaintzak. Etakidea Bilboko Begoña auzoan hil zen, Ertzaintzarekin izandako enfrentamendu batean. Ekintza horretan, Alfonso Mentxaka Lejona ertzaina ere hil zen (29 urtekoa), etakideak egindako tiroen ondorioz.

Azaroaren 9a. Ertzaintzak hainbat pertsona sakabanatu zituen, Alberto Encinasi laguntzen ari zirela, hura bere burua Ertzaintzaren kuartelean entregatzera zihoala. Istiluek orduak iraun zuten. Encinasek prentsaurreko bat eman zuen 1988ko gertaerengatiko sententzia irmoa jakinarazi zenean –kaleko jantziekin zihoazen bi ertzainen aurkako erasoarengatikoa–. Egoera hura “iruzur hutsa” zela salatu zuen, eta aurrekaririk ez bazuen ere zazpi hilabete espetxean igaro beharko zituela.

1992

Urtarrilaren 28a. Ertzaintzak pertsona bat atxilotu zuen, herriko gazteen aurkako epaiketa batengatik egiten ari zen protesta-manifestaldi batean.

Otsailaren 13a. Diputatuen Kongresuak Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea onartu zuen.

Martxoaren 29a. ETAren buruzagiak atxilotu zituzten Bidarten, Joseba Arregi Erostarbe “Fiti” oñatiarra besteak beste. Guztira, hamabi pertsona atxilotu zituzten. Gau hartan bertan, zenbait pertsonak harrika hautsi zituzten Arrasateko Herriaren Etxeko beirateak.

Martxoaren 30a. Goizaldean, Ertzaintzak Aitziber U.E. (19 urtekoa) eta Aitor E.O. (24 urtekoa) atxilotu zituen Herriko Tabernatik irteten ari zirela. Gertaera haren bi bertsio daude. Ertzaintzak dio ordutegiaren gaineko kontrol bat egitera bertaratu zela establezimendura, eta, lekuko gisa deklaratu zezatela eskatu zietenean, gazteek “uko” egin zitelako eta “iraindu” zituztelako atxilotu zituztela. Aitziber U.E. gazteak, bestalde, dokumentazioa zergatik eskatu zioten galdetu zienean atxilotu zutela dio. Era berean, ez datoz bat ondorengo gertaerei buruzko bertsioak ere. Aitziber U.E. gaztearen lagun bat, Joseba K.E. (19 urtekoa), Polizia Autonomoaren basera joan zen bere lagunaren egoeraren berri jakitera, eta, hara iritsi zenean “agente batek leku hura uztera behartu

zuen, arma harengana apuntatuta zuela". Gazteak ezezkoa eman zuenean, "ertzainak bi tiro egin zituen lurrera, hura beldurtzeko asmoz". Gazte hura ere atxilotu zuten. Bertsio ofizialaren arabera, agenteak "kartutxo balagabe batekin airera tiro egin zuen, gaztea agenteei erasotzera zihoala, ETaren aldeko eta Ertzaintzaren aurkako kontsignak botatzen ari zela". Laugarren gazte bat ere atxilotu zuten, Jose Felix H.F. (23 urtekoa), "agenteei gazte haiek atxilo zituzaten eragozten eta erasotzen saiatu zelako", Herriko Tabernaren ondoan. Laurak aske utzi zituzten, Bergarako Epaitegian agertzeko zitazio judizialekin.

Martxoaren 30a. Ertzaintzak Iñaki Larrea eta Ignacio Igartua atxilotu zituen. Espetxera sartu zituzten.

Martxoaren 31. Ertzaintzak Asier Guridi atxilotu zuen. Biharamunean, aske utzi zuten.

Maiatzaren 16a. Presoenganako elkartasun-manifestaldi bat egin zen. Ertzaintzak kargak egin zituen, eta liskarrak izan ziren.

Abendua. Ezezagunek zenbait sabotaje-ekintza egin zituzten Egin Irratiak Murugainen zuen antenaren aurka.

1993

Otsailaren 16a. Frantziako Poliziak Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" atxilotu zuen, Baigorriin.

Otsailaren 19a. Ertzaintzak Aitor Etxabe Okina atxilotu zuen, azken atxiloketekin lotutako protestetako liskarretan parte hartu izana leporatuta.

Otsailaren 27a. HBk elkartasun-manifestaldi bat antolatu zuen, otsailaren 16an Jose Manuel Pagoaga "Peixoto" atxilotu zutelako Baigorriin. [Baldintzapeko askatasuna eman zioten martxoaren 5ean, "gaizkileen elkarteko" kide izateagatik epaiketa egin bitartean].

Martxoaren 25a. Gipuzkoako Gobernu Zibilak hala aginduta, HBko zazpi agintarien aurkako zigor-espedita bat abiarazi zen, otsailaren 27an Arrasaten egin zen manifestaldia antolatu zutelako. Erakundearen arabera, "ez zen behar bezala jakinarazi".

Maiatzaren 18a. Ertzaintzak Aitor Etxabe Okina (beste behin) eta Enrique Foronda atxilotu zituen, egun batzuk lehenago Parisen hil zen ETako preso, Pello Mariñelarena Imaz (29 urtekoa), gogoratzeko egindako manifestaldi batean.

Uztailaren 5a. ETak Julio Iglesias Zamora industrialaria bahitu zuen. Bahitua Ikusi enpresaren jabearen iloba zen. Komandoko kideek etxeke garajeen drogatuta, eta

Arrasateko industria-nabe batera eraman zuten, lehenik auto baten maletategian eta gero kamioi batean (pertsonek sartzeko moduko hutsune baten zuten makina baten barruan). [Julio Iglesias Zamora 116 egun izan zuten bahituta, gerora Ortega Lara izan zuten zulo berean¹⁴⁵. Zuloa lurpean zegoen, hiru tonako makina baten azpian ezkutatuta. Fiskaltzak beti esan izan du zulo berean bahituta izan zituztela Iglesias eta Ortega, nahiz eta lehenak "Ortegarena nirea baino dezente handiagoa zen" esan zuten, 1997an komisio judizial batekin ikusi zuenean¹⁴⁶].

Abuztuaren 16a. Ertzaintzak Amaia Garcia eta Garikoitz Uribeberria atxilotu zituen, Etxerat tabernako sukaldaria eta zerbitzaria, hurrenez hurren, kartel bat kentze aldera zenbait agente establezimenduan sartu zirenean, langileek agindu judiziala eskatu zieten. Kartela enfrentamendu batean hildako ETAko hiru kideri buruzkoa zen. Gutxira aske utzi zituzten biak, epailearen aurretik igaro gabe.

Abuztuaren 28a. Goizaldean, pintura jaurti zuten EAJ-PNVren egoitzaren aurka.

Abenduaren 1a. Sabotaje-ekintza gehiago egin zituzten Egin Irratiaren Murugaineko transmisorearen aurka. Kalte materialak eragin zituzten.

Abenduaren 6a. Angel Paunero Bejerano CC00eko kideak Arrasaten zapi batez ahoa eta sudurra estaliz drogatuta eta bahitu zutela salatu zuen. Gaztea ibilgailu baten barruan esnatu zen, beste hiru pertsonarekin. Pertsona haietako batek "badirudi pertsonaz nahastu garela" eta "orain, apur bat hobeto ezagutzen zaitugu" esan zuen. Autotik atera, eta Uribarri-Ganboako urtegiaren ondoan utzi zuten. Besoko zain batean ziztada bat zuela jabetu zen han. Auto-stop eginez itzuli zen Arrasatera, nahiko nahastuta, eta salaketa jarri zuen Bergarako Epaitegian. Egun batzuk geroago, lagun batek deitu zion, galdetzeko ea zertara joan zen amaren etxera bahitu zuten gau hartan. Biktimak ez du gogoan halakorik egin izana, ez gertatutako beste ezer ere, galdera asko egin zizkioten oroitzapen lausoa besterik. [Pertsona hori bihotzeko batek jota hil zen 2014/01/02an, Durangon, presoan alde Bilbon egitekoa zen manifestaldi batera trenez zihoala].

1994

Apirilaren 21a. Arantxa Sasiain Etxabe espetxean sartu zuten, Frantziako Poliziak Bordelen atxilotu ostean.

Ekainaren 14a. Frantziako Poliziak Kristina Larrañaga eta Jesus Maria Arin atxilotu zituen, Azkainen, beste batzuen artean.

145 Epaiketaren kronika. *El País* 1998/11/05.

146 *Teinteresa.es* 2015/01/16.

Irailaren 6a. Ertzaintzak Alberto Iturralde "Euskadi" atxilotu zuen, Gipuzkoako hiriburuan, abuztuaren 14an, "Salbea" zela-eta izan ziren istiluetan parte hartu izana leporatuta [33 atxilotu eta 77 zauritu izan ziren].

Irailaren 30a. Ertzaintzak pertsona bat atxilotu zuen, kale-borrokan jardun izana leporatuta.

Azaroaren 17a. Pilar Mondragon Zabala atxilotu zuten Toulonen (Frantzia). Espetxean sartu zuten.

Abenduaren 15a. Guardia Zibilak Justo Martin atxilotu zuen, ETari lagundu izana leporatuta. Biharamunean, aske utzi zuten, epailearen aurretik igaro gabe.

1995

Martxoaren 13a. Polizia Nazionalak Maria Angeles Uribe Altuna eta Juan Manuel Gorostidi Salinas atxilotu zituen, talde armatuarekin lankidetzan aritu izana leporatuta, baina aske utzi zituzten hilaren 16an. Atxiloaldian torturak jasan zituztela salatu zuten bi-biek.

Martxoaren 26a. Gaueko 22:00ak aldera, zenbait kaputxadun PSE-EEren Olarte kaleko egoitzan sartu ziren, eta taberna txikitu zuten. Zurezko listoiak erabiliz, txanpon-makinak, fruitu lehorren makina, telebista, telefonoa eta beste zenbait objektu apurtu zituzten. PSE-EE eta GAL lotzen zituzten pintadak ere egin zituzten. Beste leku batean, edukiontzi bati su eman zioten.

Apirilaren 10a. Gregorio Etxabe Azkuaga atxilotu zuten, Arrasateko Ekaitz tabernaren jabea. Ertzaintzaren arabera, 1994ko ekainean inguruko mendi batean zulo bat aurkitu ostean abiatutako ikerketekin lotuta zegoen atxiloketa hura.

Ekainaren 7a. Ertzaintzak Jon Gomez atxilotu zuen, intsumisioagatik zigorra bete zezan. Espetxean sartu zuten.

Ekainaren 17a. Jaurlaritza osatzen zuten alderdiek akordio bat egin zuten, udal-hauteskundeetan hiruretatik boto gehien lortu zuen alderdiaren alde bozkatzeko, baina akordio horrek ez zuen aurrera egin Arrasaten, hiru alderdi horietako bi zinegotzik boto zuriak eman zituztelako. Hala, HBko Xabier Zubizarretak jarraitu zuen alkatetzan. PSE-EEK eta EAK elkarri bota zioten errua. Hirukoaren hautagaia, Jose Maria Loidi jeltzalea, gehiengo absolutua lortzetik boto batera geratu zen, 21 botoetatik 11 lortu baitzituen, eta, horrenbestez, zerrenda bozkatuenaren hautagaia izendatu zuten alkate: Xabier Zubizarreta, HBkoa. PPK eta IUK nork bere bururen alde bozkatu zuten.

Ekainaren 28a. Ertzaintzak Lander Etxabe intsumisioa atxilotu zuen.

1996

Urtarrilaren 17a. ETak Jose Antonio Ortega Lara bahitu zuen Burgosen zuen etxeo garajea. Ortega Lara espetxe-funtzionarioa eta PPko militantea zen [2008an alderdi hori utzi eta gero, 2014an, Vox sortu zuen, Santiago Abascalekin batera]. Gerora jakin zenez, Arrasateko industria-nabe batean egindako zulo batean giltzapetuta izan zuten 532 egun [ETak egindako bahiketa luzeena izan zen]. Hura askatzeko, euskal presoak euskal lurraldeetan kokatutako espetxeetara ekartzea exijitu zuen ETAK.

Urtarrilaren 17a. Poliziak Antonio Elortza Gorosabel arrasatearra atxilotu zuen, Badajozen. Espetxean sartu zuten.

Otsailaren 6a eta 14a. ETak Fernando Mugica Herzog PSEko buruzagi historikoa (62 urtekoa) eta Francisco Tomas y Valiente (63 urtekoa) hil zituen, hilaren 6an lehena (Donostian) eta hilaren 14an bigarrena (Madrilgo Unibertsitate Autonomoan zuen bulegoan). Gertaera haiek zirela-eta, asanblada bat egin zen Arrasateko Institutuan, eta, han, greba egitea erabaki zen. Gerora, deialdi hartan parte-hartze aktiboa izan zuen gazte baten aurkako ituak eta pintadak egin zituzten Institutuan eta gaztearen etxe inguruan. Gazte hura Oscar Garcia Horrillo zen (16 urtekoa), Gazte Sozialisten eta Ikasle Progresisten taldeetako kidea. Hori gutxi balitz bezala, zenbaiten artean jipoitu zuten institutuko komunetan. [Gaur egun, Oscar Garcia PSE-EEko zinegotzia da Arrasateko Udalean, eta, aurrez, Eskoriatzan egin zituen hautetsi-lanak. Eskolta izan zuen 19-20 urte zituenetik].

Martxoaren 7a. Zenbait kaputxadunek su eman zioten Ertzaintzaren ibilgailu kamuflatu bati –ez zeraman kidegoaren markarik–, presoen aldeko sabotaje-ekintza batean. Autoa kiskalita geratu zen, baina ez zen inor zauritu, hutsik baitzegoen. Geroxeago, Ertzaintzak 16 eta 17 urteko bi gazte atxilotu zituen, A. O. eta I. G., gertaera harekin lotuta.

Maiatzaren 10a. Ertzaintzak Aitziber Uribetxeberria Etxabe, Luis Pagoaga, Alberto Iturralde “Euskadi” eta Xabier Torres atxilotu zituen, presoen aldeko kartelak jartzen ari zirela. Aske utzi zituzten, epailearen aurretik igaro ostean.

Maiatzaren 21a. Frantziako PAF mugako poliziak bost pertsona atxilotu zituen Iparraldeko zenbait herritan, ETarekin lankidetzan aritu izana leporatuta; besteak beste, Juan Jose Etxabe Orobengoa atxilotu zuten, Urruñan. Azken hori Biarritzeko aireportura eramane zuten hilaren 24an, eta handik Parisera, Laurence Levert epailearen aurrean deklaratu zezan. Espetxean sartu zituzten. Juan Jose Etxabe espetxetik irten eta 18 egunera hil zen bihotzekoak jota, **uztailaren 12an**, Urruñan. 70 urte zituen.

Maiatzaren 24a. Ezezagun batzuek Renaulten kontzesionarioari eraso zioten, Jarraik presoen alde deitutako borroka-egun batean.

Maiatzaren 26a. Belgikako Poliziak Enrike Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen, Bruselan. Aske utzi zuten.

Ekainaren 30a. Pastas Arruabarrena enpresako kamioi bati eraso zioten, Rosa Zarraren heriotzaren urtemugan.

Uztailaren 14a. Goizeko 05:00ak aldera, zenbait kaputxadunek botilak eta molotov koktelak jaurti zituzten herriko Batzokiaren aurka. Zazpi aulki eta zenbait mahai erre zituzten, suhiltzaileek berehala esku hartu bazuten ere.

Irailaren 21a. Zenbait ezezagunek Kutxaren sukurtsalari eraso zioten, eta kalte handiak eragin zituzten.

Irailaren 27a. Ertzaintzak Xabier Zubizarreta Lasagabaster alkatea atxilotu zuen Gudari Egunean deitutako mobilizazioetan, zenbait agenteri aurre egin zielako han elkartutakoen aurka istiluen aurkako materiala erabili zutela ikusi zuenean. Kidegoak emandako informazioaren arabera, agenteek zazpi suziri-pirotekniko konfiskatu zituzten.

Irailaren 27a. Central Hispano eta Argentaria banketxeetako kutxazain automatikoak erre zituzten, Gudari Eguna zela-eta.

Irailaren 27an. Ezezagunek kaleko jantzia zeraman ertzain bati eraso zioten.

Azaroaren 8a. ETAk lehegailu bat eztandarazi zuen Laborman aldi baterako laneko enpresaren aurrean. Kalte materialak eragin zituen.

Azaroaren 23a. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundeak lau manifestaldi deitu zituen –Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean– ETAk bahituta zituen bi pertsonak aska zitzan, Jose Antonio Ortega Lara eta Cosme Declaux.

1997

Urtarrilaren 12a. Frantziako Gobernuak Josu Arkauz Arana Fresnesen atxilotu eta estraditatzearabaki zuela-eta egindako protestetan, zenbait kaputxadunek EAJ-PNVren eta EAren egoitzak eraso zituzten, harriak, azkoinak eta altzairuzko bolak jaurtiz. Horrez gain, Garibai hiribideko La Caixaren sukurtsalari eta BBVko kutxazain automatikoari su eman zioten molotov koktelekin, bai eta epaitegiari, Banco Vitalicioaren sukurtsal bati eta zenbait telefono-kabinari ere.

Urtarrilaren 13a. Frantziak Josu Arkauz Arana ETako militantea Fresneseko espetxetik atera, eta Guardia Zibilaria entregatu zion, La Jonqueran, protesta ugariaren artean. Hilaren 17an, Guardia Zibilararen egoitzetan zegoela torturak jasan zituela salatu zuen epailearen aurrean. Nazio Batuek kargu hartu zioten Frantziari entrega hori zela-eta, 1999an.

Urtarrilaren 17a. Polizia Nazionalak Antxon Guinea Lasurtegi atxilotu zuen, ETako kide izatea leporatuta. Torturak salatu zituen.

Urtarrilaren 17a. ETak Jose Antonio Ortega Lara bahitu zuela urtebete igaro zenean, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea sinadurak biltzen hasi zen, Ortega eta Declaux aska ditzaten eskatzeko, eta zenbait autobus osatu zituen Ortega aska zezaten eskatzeko Burgosen egin zen manifestaldian parte hartzeko.

Martxoaren 7a. Hiru pertsona atxilotu zituten, Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko kideak atxilotu zituztela-eta protesta egiteko deitu zen greba orokorrean.

Martxoaren 23a. Euskal Herriko Bakearen Aldeko koordinakundeak manifestaldi bat deitu zuen Donostian, ETAK bahituta zituen bi pertsonak Jose Antonio Ortega Lara eta Cosme Declaux, aska zitzaten eskatzeko.

Apirilaren 6a. Kaputxadunek kale-borrokako hainbat eraso egin zituzten, Enpleguko Institutu Nazionalaren bulegoen, aldi baterako laneko enpresa baten, aseguru-etxe baten eta Otalora kaleko Bake Epaitegiaren aurka. Leihoak hautsi, eta gailu su-eragileak jaurti zituzten barrura. Kalte handiak eragin zituzten. Horrez gain zenbait entitateren kutzazain automatikoei su eman zieten, koktel molotovekin.

Apirilaren 11. ETak bi kilogramo kloratita zituen lehergailu bat ezandarazi zuen herriko Bake Epaitegiaren atarian. Leherketak kalte handiak eragin zituen barruan, eraikineko etxebizitzetan eta bederatzita ibilgailutan. Horrez gain, Pablo Uranga kaleko 4 eta 6 zenbakietako ia beira guztiak puskatu zituen. Urte hartan Bake Epaitegiaren aurka egin-dako hirugarren erasoak izan zen.

Uztailaren 1a, gaueko 01:10ean. ETak Cosme Delclaux aske utziko zuela jakinarazi zion *Egini*, hura 231 egunez bahituta izan eta gero, antza denez, mila milioi pezeta ordaindu zituztelako, bi zatitan¹⁴⁷. *Eginek* DYAr deitu zion, eta erakunde horrek, berriz, Ertzaintzari. Enpresaria hogeita minutu geroago aurkitu zuten, Elorrioko Gazeta auzoan, zinta isolatzaileaz zuhaitz bati lotuta, gerora izango ziren jazoeren gertalekueetatik kilometro gutxira.

Uztailaren 1a, 03:00etan. Guardia Zibilak Jose Miguel Gaztelu Otxandorena (Bergaran), Jose Luis Erostege Bidaguren (Antzuolan), Javier Ugarte Villar (Oñatin) eta Josu Uribeberria Bolinaga (Arrasaten) atxilotu zituen, ETarekin eta Jose Antonio Ortega Lararen 532 eguneko bahiketarekin lotuta. Epailearen aurretik igaro ostean, laurek torturak jasan izana salatu zuten, eta Javier Ugarte ospitalera sartu zuten. [Bahiketa horregatik 32 urteko espetxe zigorra jarri zieten, eta, Julio Iglesias Zamorarenarengatik, berriz, 14 urtekoa (116 egun izan zuten bahituta, Ortega Lara izan zuten zulo berean). Horrez gain, ehun urte baino gehiagoko zigorra jarri zieten, hiru guardia zibil hiltzeagatik].

147 *El País*, 1997/07/02.

Uztailaren 1a, 06:30etan. Guardia Zibilak Jose Antonio Ortega Lara espetxe-funtzionarioa askatu zuen, 532 egun bahituta egon ostean, Arrasateko Jalgi kooperatiban egingako zulo batean aurkitu eta gero. Zuloa gela heze bat zen, 3 metro luze eta 2,5 metro zabal. 1,8 metroko altuera zuen, eta bonbilla bakarra. Antza denez, hilabete lehenagotik zaintzapean zuten nabe hura.

Uztailaren 3a. Guardia Zibilak Emiliano Arrizabalaga Ruiz arrasatearra (tortura salatu zuen) eta Sabino Usandizaga atxilotu zituen, Oñatin.

Uztailaren 6a. Guardia Zibilak Iñaki Berecibar Uribarren arrasatearra atxilotu zuen, Gasteizen. Aske utzi zuten.


Uztailaren 7a. Jose Antonio Ortega Lara bahituta izan zuten zuloa bisitatu zuten hedabideek.

Uztailaren 13a. Ajuria Eneako Mahaiak ordubeteko lanuztea deitu zuen herri guztietan, ETak Miguel Angel Blanco Ermuako PPko zinegotzia (29 urtekoa) hil zuelako bezperan, eta manifestaldiak antolatu zituen Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Uztailaren 24a. Emiliano Arrizabalaga Ruiz ospitaleratu zuen, Alcalá Mecon preso zegoela, bihotzeko sindrome batek jota. Hilaren 3an atxilotu zuten.

Abuztuaren 2a. Kaputxadunen talde batek Mapfreren bulegoari eraso zion gaueko 02:20etan. Estolderiaren tapa batez beiratea hautsi, eta koktel molotovak jaurti zituzten barrura. Garrek gela nagusia eta altzariak hondatu zituzten.

Abuztuaren 7a. ETak Miguel Angel Blanco hil izana ez salatzea erabaki zuen HBk, eta, horregatik, PSE-EEko, EAJ-PNVko eta EAKo hamabi hautetsiek zentsura-mozio bat sinatu zuten, Xabier Zubizarreta Lasagabaster alkatetzatik kentzeko. PPk ere bat egin zuen mozio harekin. Osoko bilkura hark iraun zuen bitartean, kontsigna ugari bota zituzten bertaratutako herritarrek, hala nola "Euskal presoak Euskal Herrira" eta "Zuek, faxistak, zarete terroristak". Bozketa egin ostean —aldeko 13 boto, aurkako 6 eta 2 abstentzio, IU-EBrenak, izan ziren—, bertaratutako herritarren garrasiak eta irainak entzun ziren. Jose Maria Loiti Agirre jeltzaleak ordezkatu zuen Zubizarreta alkatetza-lanetan, urte eta erdiz. [Xabier Zubizarreta 1987az geroztik zen alkate, eta kargua berreskuratu zuen 1999an, ETaren su-etenean, EHekin. 2003an, hautagaitza legez kanpo utzi zutenez, EHAKrekin aurkeztu zen, eta bigarren geratu zen, EAJ-PNVk eta EAK osatutako koalizioako Ignacio Lakuntza Antonen atzetik].



Urriaren 3a. Zenbait kaputxadunek Caja Laboralen, Grupo Vitalicioaren, Argentariaren eta Kutxaren bulegoei eraso zieten, molotov koktelekin. Montterren Biteri kaleko bulegoari ere eraso zioten.

Azaroaren 12a. Mexikoko Poliziak Joseba Mirena Garitonaindia Ansoategi atxilotu zuen, Toluca, eta Espainiako Poliziari entregatu zion. Azken horiek torturatu zutela salatu zuen, behin espetxeratu zutenean.

1998

Ekainaren 23a. Pertsona batek sasi artean erdi-lurperatuta zegoen edukiontzi bat aurkitu zuen, Zaldizpe kaletik hurbil zegoen baserri-bide batetik paseatzen zebilela, eta Ertzaintzari deitu zion. Zulo bat zen. Barruan, ETak egindako eskuko bi granada, pistola bat, bi kargagailu eta ehun kartutxodun zorro bat aurkitu zituzten.

Ekainaren 29a. Auzitegi Nazionalak 32 urteko espetxe-zigorra jarri zien Jose Luis Erostege Bidagureni, Jose Miguel Gaztelu Otxandorenari, Josu Uribetxeberria Bolinagari eta Javier Ugarte Villarri, Jose Antonio Ortega Lararen bahiketagatik.

Uztailaren 6a. Jaurlearitzaren kalkuluen arabera, EAEn 1.500 isun jarri ziren, 1995az geroztik, jakinarazi gabeko manifestaldiak zirela-eta. 86,7 milioi pezeta izan ziren, guztira. Gai horri lotuta, Arrasateko Ezker Abertzaleak gutxi gorabeherako kalkulu hau plazaratu zuen: baimenik gabeko manifestaldiei eta elkarretaratzeei kartelak jartzeagatik eta beste ekintza batzuk egiteagatik jarritako isunak gehitzen bazaizkie, 25 milioi pezetako isun administratiboak jarri dituzte Arrasaten. Aitziber Uribetxebarria Etxabe 17 egun izan zuten preso, Martuteneko espetxean, berari jarri ziotena ez ordaintzea erabaki zuelako.

Irailaren 1a. Enrike Pagoaga Gallastegi atxilotu zuten, Poliziarengandik ihesi Iparraldean errefuxiatu zirenen aurkako sarekada baten ostean, besteak beste, haren anaia Jose

Mariarekin (Hendaian), Yolanda Berruete Montonekin eta Maria Isabel Ariztimuño Mendizabalekin batera. Espainiako Poliziari entregatu zioten, Irunen. Enrike Pagoagak instantzia polizialean torturatu zutela salatu zuen. Auzitegi Nazionalak aske utzi zuen, hilaren 5ean.

Irailaren 16a. Irailaren 12an Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu ostean, ETAk mugarik gabeko su-etena iragarri zuen. Gerora, **azaroaren 11n**, su-etena abiatu ostean, barne-arazoetarako sailak eskolta kendu zien PPko kargudun politikariei.

Urriaren 17a. Angel Iturbe Abasolo eta Belen Gonzalez Peñalva ETAko militanteek ihes egin zuten Santo Domingon deportatuta zeudela izendatu zieten etxetik. Azaroaren 1ean, ETAk mugarik-gabeko su-etena berresten zuen komunikatua plazaratu zuen, eta bere gain hartu zuen Santo Domingoko ihesaldia.

1999

Otsaila. Arratsaldeko lehen orduetan, zenbait ezezagunek su eman zioten Paco Garcia Rayaren autoari, San Andres auzoan. Estolderiaren tapa batekin beirak hautsi, eta koktel molotov bat jaurti zioten barrura. Autoa kiskalita geratu zen. Egun batzuk geroago, PSE-EEko zinegotziak mozio bat aurkeztu zion Udalari, beste auto bat erosteko dirua aurrera ziezaioten eskatzeko, eta behin kontsorzioak autoa erretzeagatiko kalte-ordainak emandakoan diru hura itzultzeko konpromisoa hartu zuen. Ez zuten mozio hura onartu.

Otsailaren 28a. Jaurlaritzako barne-arazoetarako sailburuak, Javier Balzak, berretsi egin zituen urtarrilean esandakoak: *“Hasiak gara PSE-EEko eta UAko zinegotziak babes-teko neurriak artikulatzen, ez Polizia Nazionalak ez Guardia Zibilak ez baititu hautetsi horiek babesten, soilik PPko karguak baizik, eta hau ez da kritika bat. Laster izango dute Ertzaintzaren babesa kargu guztiek”*¹⁴⁸.

Martxoaren 27a. Zenbait pertsonak bost koktel molotov jaurti zituzten PSE-EEko zinegotzi eta alkatetzarako hautagai Jose Ignacio Jimenoren eta haren emaztearen etxearen aurka. Bikotea ez zegoen etxean. Hiruk Arrasate pasealekuko fatxada jo zuten. Beste bietako bat sukaldeko leihotik sartu zen, eta kalte material handiak eragin zituen. Bosgarren molotov koktela bizilagun batzuen logelan sartu zen, eta, era berean, kalte handiak eragin zituen. Bizilagunak erretiroa hartutako bikote bat ziren, eta ez zeuden etxean. Alderdi politiko guztiek gaitzetsi zuten ekintza hura, HBk ezik.

Irailaren 27a. Agustin Ibarluzea zauritu zen, Gudari Egunekeo ekintzetan Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilota batek jota. Garezurreko traumatismoa eragin zioten.

148 *El Diario Vascon* jasotako elkarrizketa, 1999/02/28.

Urriaren 14a. Postetxeko beiratea hautsi zuten pikotxekin eta mazoekin, eta likido sukoia isuri zuten barrura. Bulegoan zeuden langileek ez zuten kalterik izan, baina zaku bat gutun eta instalazio elektrikoaren parte bat erre ziren. Lokalaren paretak belztuta geratu ziren. Urte batzuk lehenago ere eraso zuten bulego hura bera.

Azaroaren 13a. Berrito espetxeratu zuten Arantzazu Sasiain Etxabe, Frantziako Poliziak Baionan atxilotu eta gero.

2000

Martxoaren 20a. Auzitegi Nazionalak 33 urteko espetxe zigorra ezarri zien Jose Luis Erostege Bidaguren, Jose Miguel Gaztelu Otxandorena eta Jesus Maria Uribetxeberria Bolinagari, 1985/12/05ean Arrasaten Mario Manuel Leal Baquero guardia zibila erail izanagatik.

Apirilaren 25a. Udaleko PSE-EEko lau zinegotziek eta PPko biek mehatxuak jaso zituzten, eskutitz anonimo banaren bidez. Beren karguak eta Euskal Herria "berehala" uzteko esaten zieten gutun horietan. Besteak beste, hauxe zioten eskutitzek: *"Jakin ezazu Euskal Herrian hedatutako Espainiako okupazio-indarretako kideztat hartzen zaitugula, eta zuek ordezkatzeko duzuen Estatuaren eskutik gure herrian ez dela batere demokraziarik eta indar horiek direla horren erantzule zuzenak"*. Eta amaitzeko, *"kargua berehala uzteko eta Euskal Herriatik alde egiteko"* exijitzen zuten idatziek. *"Gainerakoan, herri honek bere burua defenditzeko eskubide ukazina du, eta egoki irizitako ekintzak egingo ditu zure kontra eta zure ondasunen kontra"*.

Apirilaren 25a. Goizaldean, Jose Ramos Prieto PPko herriko zinegotziaren etxebizitzari eraso egin zioten, Udalpe kalean, molotov koktelaren bidez. Erasoaren ondorioz sute arin bat sortu zen; senar-emazteek eta semeetako batek itzali zuten. Zinegotziaren osasun-egoera makala zela-eta, Jose Ramos ospitaleratu egin zuten Arrasateko Ospitalean, zaintzan edukitzeko.

Apirilaren 26a. Arrasateko PSE-EEko lau zinegotziek prentsa-agerraldia egin zuten bezperan jasotako mehatxuak salatuz. Honela adierazi zuen Matilde Martin zinegotziak: *"Ez diogu uko egingo. Alde egiten badugu, hilkutxa batean joatera behartzen gaituztelako izango da, gure adiskidearekin [Fernando Buesa] egin zuten moduan"*. Paco Garciak, berriz, honako hau gehitu zuen: *"Gu jazartzeko gai izango dira, baina alferrik ariko dira. Ni isilarazteko, hil egin beharko naute"*. Beste bi zinegotziak Blanca Roncal eta Ismael Gonzalez ziren.

Abuztuaren 21a. Ertzaintzak Esther Unzueta atxilotu zuen Arrasaten, ETaren Bizkaiako azpiegitura desegiteko xedea zuten ikerketekin loturik. Haren lagun Iker Garitaonandia Ansoategi ere atxilotu zuen Ertzaintzak, baina aske geratu zen kargurik gabe. Garitaonandiak torturak salatu zituen.

Urriaren 12 eta 13a. Hilaren 12an, Frantziako Poliziak Jose Maria Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen Baionan, eta biharamunean, Aitziber Uribetxeberria Etxabe, Baionan bertan.

Urriaren 21a. ETak lehergailua jarri zuen Jose Maria Gallastegi Azcoaga enpresariaren "Jose Maria Gallastegi y Cia, S.A., JOMA" enpresan. Bonbak kalte material handiak sortu zituen. Eraso bere gain hartzeko mezuan, eskatutako diru-estortsioa ez ordaindu izana argudiatu zuen ETak.

Abenduaren 8a. PPK eta PSOEk Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Akordioa sinatu zuten; "Alderdien Legea" edo "Terrorismoaren aurkako Itun" berria ize-nez ere ezaguna.

2001

Urtarrilaren 17a. Ertzaintzak Egoitz Garrido 20 urteko gaztea atxilotu zuen, aurreko urtean banku-bulego baten aurkako erasoan parte-hartzea egotzita.

Otsailaren 10a. ETako kideek trokelatzeko makina bat lapurtu zuten Arrasaten, ibilgai-luen matrikulak egiteko.

Martxoaren 8a. Jose Maria Loiti Arrasateko EAJko zinegotziari eraso egin zion burua estalita zeraman pertsona batek, alderdiaren egoitzara zihoala. Hiru puntu eman behar izan zizkioten esku bateko hatz lodian. Arratsaldean, Udalbatzak, EHko zinegotzien gehiengoarekin, elkartasuna adierazi zion Loitiri, baina ez zuen eraso gaitzetsi.

Martxoaren 9a. Haikako hamabost kideren atxiloketa zela-eta, hainbat protesta izan ziren kalean. Arrasaten, Ertzaintzaren kargekin amaitu zen protesta, eta hainbat pertsona zauritu ziren.

Martxoaren 27a. Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen Arrasaten, kale-borrokarekin lotura izatea egotzita: Alberto Marin, Igor Zearreta eta Xabier Mondragon Etxaniz. Atxilotuek Zornotzan eta Bilbon zuten familia-etxebizitza. Azkena aske geratu zen.

Maiatzaren 8a. Amaia Arrietak, Jarrai-Haika-Segi sumarioan auzipetuta, Madrilgo Auzitegi Nazionalean aurkeztu zuen bere burua, eta epaileak espetxeratzeko agindua zuen. Egun berean, Baltasar Garzon epaileak legez kanpo utzi zuen Haika, eta kalera-tutako autoan zehaztu zuen 1992tik Haikako edo Jarraiko 62 gazte atxilotu zituztela segurtasun-indarrek.

Maiatzaren 9a. Ezezagunek molotov koktelekin eraso zioten UGTren egoitzari, eta kalte larriak eragin zituzten.

Maiatzaren 17a. Jesus Alberto eta Piter Encinas anaiak atxilotu zituen Ertzaintzak. Aske geratu ziren gero.

Ekainaren 13 eta 14a. Polizia-operazioak Arrasaten, Gasteizen eta Aramaion. Espainiako Polizia Nazionalak zazpi pertsona atxilotu zituen. Arrasaten, Natale Landa (Ekin sumarioa), abokatu, eta Nerea Hernandez atxilotu zituen. Baita Jesus Mari Goikoetxea Garralda eta Premin Sampedro Larrañaga ere; hauek torturak salatu zituzten. Aramaion atxilotuetako bi aske geratu ziren. Poliziak Arrasateko ezker abertzalearekin loturiko hainbat lokal miatu zituen. Guillermo Ruiz Polanco Auzitegi Nazionaleko epailearen arabera, operazio horren bidez ETaren Soxua komandoa deseginda geratu zen, eta 35 kilo lehergai konfiskatu ziren. Ezker abertzaleak bere ingurune osoa operazio horretan nahasteko eta auzipetzeko ahalegina salatu zuen.

Abuztuaren 9a. Frantziako Poliziak Jose Mari Pagoaga Gallastegi atxilotu zuen Baionan; epaileak espetxeratzeko agindua eman zuen.

Irailaren 8a. Iñaki Saez eta Asier Heriz hil egin ziren eta Iranzu Benito [Iñaki Saezen emaztea] zauritu, trafiko-istripu batean, Brievako (Ávila) espetxean preso zegoen Lurdes Txurruka bisitatzera zihoazela. Saez Soroluzen bizi zen, baina Arrasaten egiten zuen lan.

Irailaren 8a. Iñaki Saez eta Asier Heriz espetxera bisitan zihoazela istripuz hil zirela jakin ondoren, burua estalitako hainbat lagunek, modu antolatuan, molotov koktelak jaurti zituzten Makala kaleko Ertzaintzaren komisariaren kontra. Ez zen zauriturik izan, baina sute txikiak piztu ziren aurreko eta alboko fatxadetako hainbat leihotan. Kalean aparkatuta zeuden lau ibilgailuk ere kalte handiak izan zituzten.

2002

Urtarrilaren 21a. Mehatxu bat jaso ondoren, Gipuzkoako hainbat epaitegi hustu zituzten. Azkenean faltsua izan zen mehatxua.

Otsailaren 6a. Segiko militanteen aurkako polizia-operazio baten ondoren, burua estalitako hainbat lagunek lehergailuak jaurti zituzten Herriko Etxearen kontra, eta 18.000 euroko kalteak eragin zituzten. PSE-EEren egoitzaren fatxada, Olarte kaleko lehen solairuan kokatua, baita goiko pisuetako bi etxebizitza ere, belztuta geratu ziren. Zenbait leiho ere kaltetuta geratu ziren. Atentatuak eta sabotajeak kontuan hartuta, azken urteetako hogeigarrena izan zen egun horretakoa.

Maiatzaren 3a. Goizaldean, burua estalitako hainbat lagunek kalteak eragin zituzten Banco de Guipúzcoa banketxearen bulego batean, Sebero Altube eta Maalako Errebala kaleen arteko bidegurutzean.

Maiatzaren 7a. Torturaren Aurkako Taldearen mozio bat, Unai Romanok jasandako torturei buruzkoa, aurkeztu zen udalbatzaren osoko bilkuran. Talde batek Romanoren aurpegiaren pankarta bat sartu zuen osoko bilkuren aretoan. Giroa gaiztotu egin zen, zinegotzien eta bertaratutako jendearen artean hainbat akusazio izan ziren, mehatxuak ere bai batzuen eta besteen artean...

Maiatzaren 29a. Ignacio Maria Mallagaray Cortazar Caja Laboraleko zuzendaritzako kidea atxilotu zuen poliziak, ETAren finantza-sarearekin zerikusia izatea egotzita.

Uztailaren 3a. Baltasar Garzon epaileak Batasunari egotzi zion hainbat greba-deialditan eta borroka-jardunalditan kale borrokako berrogeita hamar bat ekintzaren ondorioz sortutako kalteen erantzukizun zibil solidarioa, eta 24 milioi euro exijitu zizkion. Alderdiak ez zuenez zenbateko horren abalik aurkeztu, 109 banku-konturen saldoak blokeatzeko agindu zuen epaileak, eta 75 herriko taberna eta elkarteren lokalak enbargatzeko.

Irailaren 27a. Gazte Asanbladako hogeita hamar gazte inguru identifikatu zituen Ertzaintzak, asteroko bilera egiteko zain zeudela. Ertzainek pentsatu zuten, Gudari Eguna zela-eta, gazteak ekintzaren bat egitekotan zirela, gazteek beraiek gero azaldu-takoaren arabera. Gazteetako bik salatu zuten, halaber, mendira eraman zituztela eta han torturatzeko mehatxua egin zirela.

Azaroaren 14a. Barne Sailak iragarri zuen 70 milioi euro bideratuko zituela mehatxatutako lokalak eta pertsonak babesteko. Eta Askatasunaren aldeko Fundazioak Euskal Herrian Estatuaren presentzia handiagoa aldarrikatu zuen biharamunean.

Abenduaren 19a. Hainbat protesta eta errepide-mozketa izan ziren herrian, Baltasar Garzon epaileak Herri Batasunako hainbat mahaitako hogeitaka kide Auzitegi Nacionalean aurkeztera deitu zituelako. Epaileak auto bat kaleratu zuen azaroaren 21ean, eta azken hamabost urteotako kargudun abertzaleei ETAko kide izatea egotzi zien. HBko hautetsiak eta hautetsi ohiak aske geratu ziren fidantzapean.

2003

Urtarrila. Cristina Goirizelaia Gonzalez atxilotu zuen poliziak Daxen. Arrasatearra 2000. urteko azarotik, poliziak ETAren komando bat desegin zuenetik, zegoen etxetik ihes eginda. Cristina Gorizelaia lurreko zinegotzia izan zen.

Otsailaren 19a. Askatasunaren aldeko eta terrorismoaren aurkako Itunaren jarraipen-batzordeak [2000an sinatua], Diputatuen Kongresuan bilduta, PPren Gobernuak eta PSOEek sinatutako akordioa berretsi zuen terrorismo-delituengatik zigorrak 40 urtera handitzeko eta espetxe-onurak eskuratzea eragozteko. Horrela jakinarazi zuten PSOEko bozeramaile Jesus Calderak eta PPko idazkari nagusi Javier Arenasek. Azken

honek adierazi zuen akordio hori "ETArri emandako erantzuna"¹⁴⁹ zela, egun batzuk lehenago ETAk Joseba Pagazaurtundua (45 urte) hil baitzuen Andoainen.

Maiatzaren 8a. Gauerdia pasatxo, UGT sindikatuaren egoitzari eraso egin zioten, Garibai kaleko solairuarte batean. Ezezagun batzuek su eman zioten lokalari, kristalak harrika puskatu eta molotov koktelak jaurtita. Kalterik handienak ekitaldi-aretoan izan ziren, hormak belztuta eta sabaia erdi erorian geratu baitziren.



Ekainaren 23a. Lur Pagoagak, Illart Azkaratek eta "Papi" goitzeneko pertsona batek gaueko manifestazio batean parte hartu zuten Sanjoanetan. Lehen biek pankarta zeramaten eta hirugarrenak baimena eskatu zuten. Lau hilabeteren buruan, Auzitegi Nazionalean Del Olmo epailearen aurrean deklaratzera deitu zituzten, "terrorismoa goratzea" leporatuta. Ertzaintzak atestatu bat egin zuen manifestazioaren harira, eta atzealdean "Gora ETA" oihuak entzun zirela jaso zuen. Auzia artxibatuta geratu zen.

Uztailaren 31a. Ertzaintzak Enrike Letona Biteri atxilotu zuen, aurrez 16 urte pasatxo preso egon eta gero. Auzitegi Nazionalak beste sumario bat zabaldu zuela-eta, Letona atxilotzeko agindu judiziala eman zuen. Abenduaren 20ra arte egon zen espetxean.

Azaroaren 16a. Frantziako Poliziak Igor Letona Biteri atxilotu zuen, hainbat urte espetxean igaro ondoren, "gaizkile elkarteko kide izateagatik".

Azaroaren 18a. Espainiako Polizia Nazionalak Saioa Alzua Galparsoro, 28 urtekoa, eta Gaizka Azkarate Garai, 30 urtekoa, atxilotu zituen, azken hori HBren hautagai izandakoa 1995ean. Baltasar Garzonek zuzendutako polizia-operazio zabal bat izan zen, ETako ustezko kideen eta laguntzaileen aurka. Biek salatu zuten atxilotuta egon ziren denboran torturak jasan zituztela. Deklarazioa hartu ondoren, epaileak espetxera bidali zituen. Ia hiru urte egon ziren espetxean eta aske atera ziren, epaiketarik gabe.

2004

Martxoaren 16a. Guardia Zibilak berriro atxilotu zuen Enrike Letona Biteri. Ondoren, baldintzapeko askatasunean aske utzi zuten, fidantzapean.

149 Agentziak eta Abc, 2003/02/19.

Maiatzaren 13a. Auzitegi Nazionaleko Zigor-arloko lehen aretoak hamar urteko espetxe zigorrera kondenatu zituen Ibon Etxezarreta eta Koldo Carrasco, Arrasateko Recambios Egido enpresan ibilgailuen matrikulak trokelatzeko makina bat “xede terroristarekin lapurtzeagatik” [2001/02/10], eta establezimenduko langilea legez kanpo atxilotzeagatik (plastikozko bridekin poste batera lotu zuten eta enbalatzeko zintarekin estali zioten ahoa).

Abenduaren 16a. Beste gertakari batzuegatik espetxean zeuden bi pertsonari 17 hilabeteko espetxe zigorra ezarri zien epaileak, Matilde Martin Delgado PSE-EEko zinegotziari heriotza-mehatxuak egiteagatik.

2005

Otsailaren 11a. Jarrai-Haika-Segiko 33 gazteren aurkako epaiketa hasi zen. Haien artean zen Amaia Arrieta arrasatearra. Arrietak 2001ean Auzitegi Nazionalan aurkeztu zuen bere burua, eta geroztik lau urte zeramatzan espetxean, ahozko epaiketaren zain.

Martxoaren 29a. Eneko Ostolaza Ikaran atxilotu zuen Guardia Zibilak. Atxilotuak polizien zaintzapean zela torturak jasan zituela salatu zuen.

Apirilaren 7a. Gorka Aztiria Etxeberria eta Gaizka Olabarrieta Kormenzana atxilotu zituen Espainiako Polizia Nazionalak Arrasaten, eta epaileak espetxeratu egin zituen. Biek torturak salatu zituzten.

Ekainaren 10a. Julen Atxurra Egurrola eta Jose Luis Agirre Lete epaitu zituzten, Jose Antonio Ortega Lara bahitzeko agindua eman izanaren akusaziopean.

Uztailaren 24a. Hilaren 20an Cahorsen, Tolosa (Frantzia) iparraldean, hil zen Imanol Gomez (23 urte) ETAko kidearen heriotzaren ondorioz, hainbat protesta izan ziren. Egun horretan, su eman zioten birziklatzeko hainbat edukiontziri.

Urriaren 7a. Ertzaintzako agenteek Maritxu Kajoi festetan jarritako txosnako pankartak eta kartelak kentzeko agindu zuten. Inguruko hormetan itsatsitako hainbat kartel ere kendu zituzten, CESPAn enpresaren furgoneta baten laguntzarekin (garbiketarako kontratatutako enpresa). Bost gazte identifikatu zituzten eta beste bat atxilotzeko keinua egin zuten. Irati Elkartean ere sartu ziren ertzainak. Askatasunak salatu egin zituen gertakari horiek.

Urriaren 7a. Ezezagunek eraso egin zioten Batzokiari.

2006

Otsailaren 22a. Gaueko 21:00ak aldera, hainbat ezezagunek bi suziri jaurti zituzten PSE-EEko herriko militante baten aurka. Biktimak ez zuen zauririk izan, baina salaketa jarri zuen Ertzaintzaren komisarian.

Otsailaren 22a. Gauez baita ere, ezezagun batzuek margo gorria jaurti zuten Arrasateko bake-epaitegiaren aurka (Ignacio Zuloaga kalean), eta PSE-EE alderdiaren egoitzaren aurka. Azken honetan, honelakoak idatzi zituzten: "Egindakoa ordainduko duzue" eta "Faxismoari kaña".

Apirilaren 27a. Euskal Autonomia Erkidegoko Garbitze Batzordeak erabaki zuen irekita baino argitu gabe zeuden hainbat espediente judizial amaitutzat ematea, horien artean Etxabe kasua. Honela jasota geratu zen: 75-X-6. Ignacio Echave Orobengoaren erailketa, gerra-armarekin, terrorismoaren prebentzioa Elorrioko Kanpazarren".

Ekainaren 20a. Frantziako poliziak Kristina Larrañaga Arando atxilotu zuen Azkainen, eta epaileak espetxeratzeko agindu zuen.

Irailaren 28a. Gaueko 21:15ak aldera, burua estalitako hainbat lagunek bi molotov koktelekin eraso zioten PSE-EEren Olarte kaleko egoitzari. Bizilagun batzuek itzali zuten sua, baina fatxada belztuta geratu zen. EAEko PSE-EEren egoitza baten aurkako bigarren eraso izan zen astebetearen.

Urriaren 17a. EHUko 103 ikasle libre geratu ziren kargurik gabe Getxoko epaitegian. 2003an Unibertsitateen Lege Organikoaren aurka ikasleen itxialdi batean parte hartzeagatik zeuden auzipetuta gazteak. Hasiera bateko asmoa zen ikasleak Auzitegi Nacionalean epaitzea, "ETArekin zeharka lotura izateagatik". Epaiketean identifikatu ondoren, jada 2006an, bertaratutako gehienek aretoan ez jarritzea eta EHUko Errektoretzara joatea erabaki zuten protestaldiaren "kriminalizazioa" salatzeri. Beste toki batzuetan elkartasuna adierazteko mobilizazioak izan ziren, hala nola Mondragon Unibertsitatean. Ikasleen artean Arrasateko hainbat gazte zeuden; besteak beste, Eneko Barberena gaur egungo zinegotzia.

Urriaren 24a. Idazkari judizialak, Ertzaintzaren laguntzarekin, Arrasateko Irati Elkartean zegoen materialaren inbentarioa egin zuen. Gauza bera egin zuten Oñatin (Arrano taberna), Bergaran (Arrano Beltza) eta Aretxabaletan (Urbaltz). Agindu judizialaren bidez ertzainek inbentarioa egiten zuten bitartean, dozenaka pertsona, haserre eta urduritasun zantzu nabarmenekin¹⁵⁰, hurbilean jarri ziren, honela zioen pankarta baten atzean: "Errepresioa ez da bidea. Euskal Herriak autodeterminazioa behar du". Aurrean, hamar bat ertzain.

¹⁵⁰ Goiena 2006/10/24. "Ertzaintza eta idazkari judiziala Debagoieneko hainbat Herriko Tabernatara sartu dira".

2007

Urtarrilaren 5a. Etxean, gasolina eta aerosolekin egindako lehergailu bat jaurti zuten Jokin Zaitegi kaleko La Caixaren kutxazain baten kontra, eta sute handia piztu zen. Horren ondorioz, eraikineko hiru atarrietako bizilagunek utzi egin behar izan zituzten beren etxebizitzak goizaldean. Haien artean zegoen Ambrosio Fernandez Recio, 79 urteko erretiratu, bihotz-biriketako arazoekin. Berak ez ezik, beste pertsona batzuek ere kalteak jasan zituzten kearen eta kaleko hotzaren eraginez. Kanean ordubete eta bi orduren artean egin ondoren, hogeita lau familiari –berrogeita hamar bat pertsonari– Arrasateko bi hoteletan eta Eskoriatzako batean eman zieten ostatu. Bankuaren bulegoa suntsituta geratzeaz gain, eraikineko eta etxebizitza batzuetako gas-, ur- eta elektrizitate-instalazioetan kalte nabarmenak sortu ziren.



Urtarrilaren 5a. Gau horretan bertan beste bi kutxazain automatikori egin zioten eraso Garibai eta Biteri kaleetan, Kutxaren bati eta BBVAren beste bati. Kalteak ez ziren handiak izan.

Urtarrilaren 6a. Kaltetutako atarrietako bitan bizi ziren bizilagunek beren etxera itzuli ahal izan zuten, baina 4. zenbakiko bizilagunek, aldiz, maletatan eta poltsetan beharrezko gauzak hartzera baino ezin izan zuten sartu; izan ere, etxebizitzak artean ez zeuden bizitzeko baldintza egokietan.

Urtarrilaren 7a. Ambrosio Fernandezek osasun-egoerak okerrera egin zuen, eta Debagoieneko Ospitalean ingresatu zuten, "sukarragatik, kontzientzia-mailaren gale-ragatik eta hipotentsioagatik"¹⁵¹. Arrasateko Udaltzainburuak, Jose Luis Etxebarriak, familiaren bozeramaile lanetan, jakinarazi zuen Ambrosio Fernandezek La Caixaren aurkako erasoaren aurretik ere "osasun-espeditente konplikatua" zuela: "aurrez bi tronbosi jasan zituen eta arnasketa-arazoaren aurrekariak ere bazituen". Gehitu zuen gaueko hotzak –bizilagunak pijama hutsean eta zapatilekin jaitsi ziren kalera– eta bere etxebi-

151 Jorge Cancio Fanlo elkargokidearen txostena, 2007/01/08koa.

zitzaren azpian piztutako suaren kea arnastu izanak "litekeena da bere osasun-egoera okertzea"¹⁵².

Urtarrilaren 8a. Ambrosio Fernandez Txagorritxuko ospitalera eramatea erabaki zuten medikuek eta senideek, eta ZIUn ingresatu zuten; izan ere, nahiz eta tratamendua jarri, pazientearen hipotentsioak gora egin zuen. Honela zioen mediku-txostenak:

Pazientea, jatorrizko ospitaleko mediku-txostenaren arabera, kalean egon da gauez, etxeko atarian indarkeriazko ekintza bat egin ondoren etxebizitza hustu behar izan zutelako, eta arnas-gutxiegitasuna, hipotentsioa eta sukarra sentitzen hasi zen. Aldian behin dardara egiten zuen. Hori dela eta, Debagoieneko Ospitalean ingresatu zuten 2007/01/07an. Ura eman eta antibiotiko bidezko tratamendua jarri arren, hipotentsioa areagotu egin zitzaion, eta kontzientzia-maila gutxitu. Gurekin kontsulta egin ondoren, zentro honetara ekartzea erabaki zen.

*Ingresatu eta ordu gutxira, pazienteak intubatu eta arnasketa mekanikora konektatu behar izan genuen*¹⁵³.

Urtarrilaren 11a. Udalak kontzentrazio isila deitu zuen Arrasateko plazan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontseiluak babestua, urtarrilaren 5eko kale-borrokako eraso gaitzesteko.

Urtarrilaren 12a. Segiren borroka-eguna, Jarrai-Haika-Segi sumarioko gazteei ezarritako zigorrak handitu izanagatik protestatzeko. Ertzaintzak pertsona bat atxilotu zuen 13:00ak inguruan, manifestazio batean. Manifestariek zenbait edukiontzi gurutzatu zituzten errepedean.

Urtarrilaren 19a. Amaia Arrieta arrasatearra eta haren laguna, Igor Ortega, atxilotu zituzten Donostiako beren etxebizitzan, Jarrai-Haika-Segi epaiketako sententziaren irakurketarako. Amaia Arrietak berekin eraman zuen Ilargi alaba, zigorraren gainerakoa espetxean betetzeko.

Otsailaren 24a. Maria Murgoitio 80 urteko arrasatearrak eta Gabriel Urizar presoaren amak, pelbisa apurtu zuen, Ertzaintzaren karga batean, Bilbon, euskal presoan aldeko manifestazio batean.

Martxoaren 3a. Ambrosio Fernandez Recio hil egin zen Txagorritxuko Ospitalean. ZIUn ingresatuta egon zen bi hilabeteetan "hainbat konplikazio sortu ziren eta, azkenik, horien guztien eraginez, hil egin zen"¹⁵⁴. Donostian kontzentrazio bat egin zen heriotza

152 *El Diario Vasco*, 2007/03/05.

153 S. Iribarrenek, Txagorritxuko Medikuntza Intentsiboko mediku ondokoak, sinatutako mediku-txostena, 2007/03/03.

154 *El Diario Vasco*, 2007/03/05.

gaitzesteko. [Espainiako Gobernuak terrorismoaren biktimatzat onartu zuen Ambrosio Fernandez]¹⁵⁵.

Martxoaren 5a. Ambrosio Fernandezek aldeko hileta-elizkizunak egin ziren herriko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Martxoaren 23a. Eusko Legebiltzarreko alderdi politiko guztiek, EHAK-k izan ezik –“doluminak eta elkertasuna” adierazi zizkion alderdi honek Ambrosio Fernandezek familiari-, Barne Sailari eta Barne Ministerioari eskatu zioten “izapideak egiten jarraitzeko eta dokumentazioa osatzeko”, hildakoaren familiak Biktimekiko Elkartasun Legean aurreikusitako laguntzak jaso ahal izan zituzten.

Ekainaren 16a. ANVk Arrasateko alkatetza berreskuratu zuen, gainerako udal talde politikoak ez baitziren elkarren artean ados jarri.

Azaroaren 30a. Natale Landa abokatua atxilotu zuen Guardia Zibilak, Madrilen 18/98 epaiketako sententziaren irakurketarako. 2009an, azkenik, Auzitegi Gorenak absolbitu egin zuen.

Abenduaren 25a. Natividad Junco oñatiarra hil zen trafiko-istripu batean, autoan Teruelgo espetxean senide bat bisitatzen zela zatorrela. Debagoienean oihartzun handia izan zuen heriotzak.

2008

Urtarrilaren 6a. Guardia Zibilak Igor Portu Juanena eta Mattin Sarasola Yarzabal ETako kideak atxilotu zituen Arrasaten, biak lesakarrak, zeramaten motxilan bi arma zituztela. 2006ko abenduan Barajasko (Madril) T-4an bonba bat jartzea leporatu zieten. Atentatu hartan Diego Armando Estacio eta Carlos Alonso Palate hil ziren. [Lehergai horrek apurtu zuen ETak 2006ko martxotik indarrean zuen su-etena].

Urtarrilaren 7a. Atxilotu eta 16 ordura, Igor Portu Donostia Ospitaleko ZIUn ingresatu zuten urgentziaz. Igor Porturen mediku-txostenaren arabera, atxilotuak larruazalpeko enfisema, biriketako zulaketa, saihestasun-herur bat hautsita, begi batean hemorragia eta gorputzean hainbat hematoma zituen. 27 egun egon zen ingresatuta. Portuak berak nahiz Sarasolak atxilotuta egon ziren denboran tortura larriak jasan zituztela salatu zuten. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren lehen sententziak (2010/12/30) berretsi egin zituen torturak, eta 2 eta 4 urteko zigorra ezarri zien Guardia Zibileko sarjentu bati, kabo bati eta beste agente batzuei. [Auzitegi Gorenak ezeztatu egin zuen sententzia hori 2011/11/2an, salaketa faltsua zela eta tortura-frogarik ez zegoela argudiatuta. 2018/02/13an Giza Eskubideen Auzitegi Gorenak zigortu egin zuen Espainia, Portu

155 *El País* 2011/12/18.

eta Sarasolari tratu bidegabea eta umiliagarria eragiteagatik, eta atxilotuei 30.000 eta 20.000 euroko kalte-ordaina ematera behartu zuen].

Urtarrilaren 29a. Estatuko Fiskaltzak EHAKren egoitzak ixtea eta kontuak enbargatzea eskatu zuen, baita hauteskundeetarako hautagaitzak aurkeztea debekatzeko kautelazko neurriak hartzea ere. Otsailaren 8an, Baltasar Garzon epaileak eten egin zuen ANV eta EHAK alderdien jarduera. Poliziak hainbat pertsona atxilotu zituen eta zenbait egoitza miatu.

Martxoaren 7a. ETak Isaias Carrasco Miguel PSE-EEko zinegotzi ohia hil zuen 13:30ak aldera, bere etxebizitzatik gertu, Navas de Tolosa kalean, emaztea (Maria Angeles Romero) eta alaba nagusia (Sandra) metro gutxira zituela. Isaias Carrascok 42 urte zituen, bi alaba eta seme baten aita zen, eta Bidelaneko langilea zen AP-1 autopistan. Isaias Carrasco autoan zegoela, lanerako bidea hartzekotan, gizabanako batek gerturatu eta bost tiro jo zizkion distantzia laburrera. Larri zaurituta, 13:50ean ingresatu zuten herriko ospitalean, baina bihotz-biriketako bi geldialdi izan ondoren, hil egin zen azkenean.

Ino Galparsoro alkatea ospitalera bertaratu zen, baina Isaias Carrascoren hurbilekoek "ez zara ongietorria" adierazi zioten. Era berean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bereganako keinu eta begirada serioak jaso zituen. Jose Luis Rodriguez Zapatero presidentea pribatuan bildu zen familiarekin, eta Alfredo Rubalcaba familiaren etxebizitzara bertaratu zen. Alderdi politiko gehienek bertan behera utzi zuten hauteskunde-kanpaina egun horretan.

Isaias Carrascoren gorpuzkiak ospitaletik udaletxeko osoko bilkuren aretora eraman zituzten, eta han egokitu zuten hil-kapera. Han berriro ere tirabirak sortu ziren, batez ere Mariano Rajoy eta Patxi Lopezen artean; izan ere, hasiera batean PSE-EEK ez zuen asmorik PPko kideak hartzeko. Militante sozialista nabarmen batek ez zion utzi Mariano Rajoyri Isaias Carrascoren gorpua zegoen tokira gerturatzen.

Martxoaren 8a. Bost minutuko kontzentrazio isila plazan, udaletxearen parean. Jendetza bildu zen Isaias Carrascoren aldeko hileta-elizkizunean. Juan Maria Uriarte gotzainak eman zuen meza San Joan Bataiatzailearen parrokan. Elizkizunaren ondoren, adiskideek hilerriraino eraman zuten hilkutxa, alderdi politikoetako agintariak eta buruzagiak (Mariano Rajoy, Chaves...) segizioan zirela.

Lurperatzea amaitzean, Sandra Carrascok komunikatu bat irakurri zuen eta "koldarrak" deitu zien aita hil zutenei.

Martxoaren 10a. Ehunka pertsona elkartu ziren Arrasateko udaletxe aurreko plazan, atentatua gaitzesteko; Isaias Carrascoren lankideek egin zuten deialdia. ELA sindikatua ere kontzentrazioa bildu zen bere pankartarekin, eta horrek Damaso Casado Euskadiko UGTko idazkari nagusiaren haserrea eragin zuen.

Martxoaren 29a. PSE-EEK berriro nabarmendu zuen herriko alkatetzak ezin zuela ANVren esku jarraitu, eta EAJ interpelatu zuen. Hurrengo egunetan, ETAk hiru lehergailu jarri zituen PSE-EEren beste horrenbeste egoitzaren kontra, nahiz eta poliziak zainduta egon.

Isaias Carrascoren alaba zaharrenak, Sandrak (hau ere AP-1 autopistako langilea), aitaren lanpostua eskatu eta hartu zuen, Donostiatik Arrasatera sartzeko bidesariaren kabinan.

Apirilaren 3a. Iciar Lamarain PPko zinegotziak minutu bateko isilunea eskatu zion Udalbatzari Isaias Carrascoren oroimenez, eta premiazko mozio bat aurkeztu zuen ETAREN jardunaren aurka, bertaratuen irain eta mehatxuen artean. Mozioak ez zuen aurrera egin, hainbat zinegotzi falta zirelako; PSE-EEko 4 eta EAJko bat, hain zuzen.

Apirilaren 18a. Grande-Marlaska epaileak agindutako polizia-operazioa hamar gazteren aurka Errenteria, Oiartzun eta Arrasaten. Azken herri honetan Josu Arruabarrena atxilotu zuten, baina atxilotu eta lasterrera, Donostia ospitalean ingratu behar izan zuten gastroenteritis akutu baten ondorioz. Hiru pertsona atxilotu zituzten atxiloketenatik protestan ari zirela, eta ondoren aske utzi zituzten.

Apirilaren 20a. PSE-EEren egoitzen zaintza indartu zuten berriro, hilaren 17an Elgoibarko Herriko Etxearen aurka atentatu bat izan ondoren.

Apirilaren 24a. PSE-EE eta EAJ alderdiek lau printzipio etiko jasotzen zituen mozio bat aurkeztu zuten, "Udalak" Isaias Carrascoren erailketaren aurrean adierazitako iritzien harira. Mozioan ohartarazten zuten, udal karguek oinarri etiko horiek onartu ezean, haien dimisioa eskatuko zutela. PSE-EEK (4 zinegotzi) eta EAJk (4) mozioaren alde bozkatu zuten; PP (1), EA (1) eta EB-Zutik abstenitu egin ziren eta EAE-ANV (7), Aralarrek (1) eta EB-Zutik alderdiko kide batek kontra bozkatu zuten; horren ondorioz, mozioak ez zuen aurrera egin, Ino Galparsoro (EAE-ANV) alkatearen kalitatezko botoarengatik. Bestalde, Iciar Lamarain PPko zinegotziak zentsura-mozioa aurkeztu zuen eta PSE-EEK horren alternatiba bat. Ez batak ez besteak ez zuen aurrera egin. Osoko bilkuran jendetza bildu zen eta tirabira handiko uneak eta irainak izan ziren: elkarren aurkako erasoak eta txaloak nork bere aldeko. Irteeran ere tirabirak izan ziren, eta hainbat zinegotziren aurkako oihuak entzun ziren: "Zuek faxistak zarete terroristak". Ezker abertzaleak aurrez kontzentrazioa deitua zuen udaletxearen aurrean. EAJk eta PSE-EEK adierazi zuten azkenean ez zela bete alde zurretik "adostutakoa".

Apirilaren 29a. Ino Galpasoro Markaide Auzitegi Nazionalera deitu zuten, baina zitzioan ez zen adierazten zer leporatzen zitzaion. Auzitegian, EAE-ANV alderdiko alkatea [herriko lehen emakumea alkatetzan, 2007-2011] atxilotzeko agindu zuen Baltasar Garzon epaileak, EAE-ANVren jarduerak eteteko auto judiziala ez betetzeagatik desobediencia eta "talde armatuarekin" kolaboratzea leporatuta.

Apirilaren 30a. Ino Galpasoro (ANV) espetxera bidali zuen epaileak, Auzitegi Nazionalean berriro aurkeztu ondoren. Poliziak udaletxea miatu zuen eta alderdi politiko horrekin loturiko dokumentuak eraman zituen. Baltasar Garzon epailearen ustez nahikoa zantzu zeuden Galparsoro auzipetzeko “talde terroristarekin kolaboratzeagatik edo kide izateagatik eta kautelazko neurriak urratzeagatik”. Ezker abertzalearen iritziz “kasu harrigarria” izan zen Europan.

Apirilaren 30a. Arratsaldean. Aurrez aurrekoak izan ziren Ertzaintzaren eta manifestazio bateko partaideen artean. Manifestariak Ino Galpasoro alkatearen atxiloketa salatzen zuten.

Maiatzaren 1a. Goizean: ezker abertzaleak pankarta bat zintzilikatu zuen udaletxeko balkoian: “PSOE-PNV mozioekin lortu ez duzuen indarrez? Ino askatu!” eta prentsaurreko masibo bat egin zuen plazan. **Arratsaldean:** Giroa tenkatu egin zen Ino Galparsororen atxiloketagatik protesta egiten zuten manifestarien eta Ertzaintzaren artean, polizia honen hiru furgoneta Garibai kalean agertu zirenean eta ertzainek pankarta zeramatenak identifikatzeko eskatu zutenean.

Maiatzaren 3a. Milaka pertsona –“5.000 inguru” *El País* egunkariaren arabera- manifestatu ziren herrian “Salbuespen egoera stop - Euskal Herriak Autodeterminazioa” pankartaren atzean, Ino Galparsoro askatzea eskatzeko. Guardia Zibilak kontrolak ezarri zituen autopistan eta San Prudentzian. Hainbat pintada azaldu ziren PSE-EEri “faxista” eta EAJri “espainola” izatea egotziz. Eusko Jaurlaritzak komunikatu bat kaleratu zuen ETAK maiatzaren 1ean Arrigorriagan eta Donostian eginiko bi atentatu salatzeke, baita Ino Galparsoro alkatearen espetxeratzea gaitzesteko ere, horrek “ez garamatzalako bakearen bidera”.

Maiatzaren 6a. Ertzaintzako agenteek identifikatzeko eskatu zieten maiatzaren 8rako greba orokorrerako deialdia egiteko prentsaurrekoa eman zuten pertsonen. Espetxeratutako alkateari elkartasuna adieraztea eta espetxeratu izana salatzea ziren greba-deialdiaren xedeak.

Maiatzaren 8a. Greba-deialdia herrian, Ino Galparsoro alkatea aske uztea eskatzeko. MCCko hainbat enpresak lan-geldialdiak egin zituzten eta herriguneko saltokiek itxi egin zuten. Ertzaintzak hogeita bat pertsona identifikatu zituen. Manifestazioak izan ziren goizez eta arratsaldez “Erabakia herriarena. Udala herritarrena” pankarta buruan zela. Horma-irudi bat margotu zuten Biteri plazan. **Bezperan**, udal langileek kontzentrazioa egin zuten “Ino Udaletxera” goiburuararekin, eta **hilaren 9an**, Debagoieneko Mankomunitateak Galparsoro aske uzteko eskatu zuen.

Maiatzaren 9a. Goizaldean, ezezagun batzuek su eman zioten Jose Luis Apraiz Arrasateko EAJ-Eako bozeramailearen auto partikularrari, gidariaren leihoa hautsi eta likido sukoia barnera isurita. Sua ez zen ibilgailu osora zabaldu, baina eserlekuak erreta geratu ziren.

Uztailaren 3a. PSE-EEko hiru zinegotzik utzi egin zuten osoko bilkura, jarduneko alkateak, Oihana Aranburuk (ANV) Ino Galparsororen argazki bat kentzeari uko egin ondoren (apirilaren 30ean atxilotu zuten arte alkateak betetzen zuen lekuan zegoen argazkia).

Uztailaren 28a. Ino Galparsoro alkatea behin-behineko askatasunean atera zen Soto del Realeko espetxetik, 30.000 euroko fidantza ordainduta. Apirilaren 30etik zegoen preso. Ehunka lagunek ongietorria egin zioten egun hartan bertan herrian, eta **hilaren 30ean**, omenaldi publikoa egin zioten.

Urriaren 7a. Arrasateko Udalbatzak onartu egin zuen ETAk Santoñan, Ondarroan eta Gasteizen eginiko azken atentatuen gaitzespena, PSE-EEK aurkeztua eta EAJk eta PPK babestua. Ezker abertzaleak beste mozio bat aurkeztu zuen Auzitegi Gorenak ANV eta EHAK alderdiak legez kanporatu izana kondenatzeko, baina alderdiaren beraren babes besterik ez zuen lortu.

Azaroaren 29a. ANVren sorreraren 78. urteurrena oroitu zen herrian.

Abenduaren 22a. Herriko PSE-EEK adierazi zuen prest zegoela, beste behin, Ino Galparsoro alkatearen aurkako zentsura-mozioa bultzatzeko, EAJ eta EA "sinatzeko prest baleude", Azpeitiko Udaleko erregidorearekin gertatu zen moduan.

2009

Urtarrilaren 13a. Lorea Zeziaga atxilotu zuen Frantziako poliziak Baionan. Aske geratu zen gero.

Otsailaren 8a. Auzitegi Gorenak ezeztatu egin zituen D3M eta Askatasunaren hautagaitzak, eta Auzitegi Konstituzionalak berretsi egin zuen epaia hilaren 12an.

Martxoaren 13a. Ertzaintzako agenteek kendu egin zituzten Banco Guipuzcoano banketxearen burdin-hesian aluminiozko euskarri batekin jarritako herriko preso enerretratuak, Auzitegi Nazionalak horrela agindu ondoren. Argazkiak jendaurrean erakustea "terrorismoa gorestea" eta "biktimak umiliatzea" zela adierazi zuen epaitegi horrek.

Martxoan zehar. Polemika sortu zen herrian Arrasateko Portaloira Topaguneak herriko atarrietan, baita Carrasco-Romero familiaren atarian ere, jarritako kartelak zirela-eta, berriki hildako biktima batekiko sentiberatasunik ez agertzeagatik. Karteletan, sinadura-bilketa kanpaina baten berri ematen zen, Udalean aurkezteko mozio bat babesteko. Mozioaren xedea zen larri gaixo dauden preso en askatasuna eskatzea. Mozioaren testuan Arrasateko preso hauek aipatzen ziren: Jon Agirre, Josu Uribe txeberria eta Jose Ignacio Gaztañaga.

Maiatzaren 24a. Arrasateko bi gazte, Aitor Urizar eta Julen Ugalde, El Helmantico (Salamanca) futbol-zelaitik kanporatu zituen Espainiako Poliziak, Realaren eta Salamancaren arteko partidaren presoen bi bandera goratzeagatik. Gerora jakin zen hirugarren bat ere kanporatu zutela futbol-zelaitik. Indarkeriaren aurkako Batzordeak 4.000 euroko isuna jarri zion bakoitzari, eta urtebetean kirol-estadioetan sartzeko debekua. Nahiz eta lau helegite jarri, administrazio-isuna ezarri egin zitzaizen azkenean.

Irailaren 25a. Ertzaintzaren furgonetek hartu zuten plaza Maritxu Kajoi jai-egunaren bederatziurreneko ospakizunetan, "Azken ostirala" ospatzea galarazteko.

Irailaren 26a. Arrasateko bizilagun-talde batek "Utzi Arrasate bakean!" agiria aurkeztu zuen prentsaurrekoan, eta urriaren 1ean eskubide zibil eta politikoen alde manifestazio bat egiteko deialdia plazaratu zuen.

Azaroaren 24a. Guardia Zibilak sarekada zabala egin zuen Segiko 34 gazteren aurka Euskal Herriko hogeitaka herritan, eta etxeak, egoitzak, lokalak eta gaztetxeak miatu zituen. Protestak. Irati Mujika Larreta, Arrasateko Irati Elkarteko langilea, Amezketan atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta espetxeratu egin zuten. Atxilotuak torturak salatu zituen abokatuaren aurrean: "poltsa", kolpeak, sexu-mehatxuak¹⁵⁶... Madrilerako bide osoan, "eskuak soka batekin lotuta" izan zituen, eta ibilbidearen zati batean, "plastikozko poltsa bat buruan". Madrilgo polizia-etxean, berriz, "denbora gehienez begiak estalita" eduki zuten eta "ariketa fisikoak egitera behartu, belaunak klak egin arte". Une batean, "biluztu egin zuten eta bortxatzeko mehatxua" egin zioten¹⁵⁷. Segiko kide iza-teagatik talde terroristako kide izatea leporatu zioten, baina 2014ko ekainean absolbitu egin zuten. Azaroaren 28an milaka pertsonak manifestazioa egin zuten Bilbon, elkartasuna adierazteko.

Azaroaren 29a. Su eman zioten hainbat edukiontziri.

2010

Urtarrila. Aritz Arrieta Kabiketa PSE-EEko zinegotziak ETaren laugarren eskutitza jaso zuen mehatxuekin, urte eta erdiko epean. Laugarren honetan, honela esan zioten: "Zu eta zure alderdia zarete Euskal Herriak bizi duen jazarpen-egoeraren erantzuleak (...) Alde egin ezazu Euskal Herritik, edo zure, zure ondasunen eta zure familiaren aurka joko dugu"¹⁵⁸. Eskutitzetako hiru udaletxeko buzoian jaso zituen eta laugarrena etxean. Haietako batean, argazki bat ageri zen diana batekin.

156 *Mondraberr* 2014/01/09.

157 Esaldi hori eta komatxo arteko besteak *Europa Press* agentziak jasotakoak dira 2016/10/30ean, Auzitegi Konstituzionalak babes-eskaera onartu ondoren.

158 *Interviú* 2010/04/27.

Abenduaren 30a. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak bi urte eta lau urte eta erdi arteko espetxe-zigorak ezarri zizkien lau guardia zibili, Igor Portu Jaunarena eta Mattin Sarasolaren atxilotetan tortura larrien bi delitu eta lesioen delitu bat eta arau-hauste bat egin izanagatik [bi atxilotuei 2010eko maiatzean ezarri zieten kondena, Barajasko T-4an atentatua egin eta Diego Armando Estacio eta Carlos Alonso Palate hil izanagatik]. Sententziak frogatutzat eman zuen guardia zibilek atxilotu, eskuburdinak ezarri eta lur orotako ibilgailuetan sartu zituztela ETAko bi kideak, eta ondoren, baso pista batera eramane eta han kolpatu, iraindu eta mehatxatu egin zituztela.

2011

Urtarrilaren 10a. ETAk su-eten “iraunkor eta orokorra, nazioarteko komunitateak egiaz-tatu ahal izango duena” iragarri zuen.

Urtarrila. Koldo Balanzategi salatu zuen Ertzaintzak, irain eta kalumniengatik, polizia-ki-degoei egotzitako hainbat errepresio-ekintzari buruzko datuak jasotzen zituen kartel/horma-irudi batean haren aztarnak aurkitu ondoren. Kasua ez zen epaitzera iritsi, pres-kribatu egin baitzuen denboran.

Apirilaren 28a. ETAk enpresari-elkarteei jakinarazi zien amaitutzat eman zuela estortsio ekonomikoa edo “zerga iraultzailea”.

Maiatzaren 6a. Jon Agirre Agiriano ETAko kidea aske utzi ondoren antolatutako mani-festazio bat galarazi zuen Ertzaintzak, Auzitegi Nazionalak debekatu egin baitzuen eki-taldia (Agirre Agirianok 30 urteko espetxe zigorra bete zuen). Preso ohia Garibai kaleko balkoira agertu eta bertaratuak, Biteri plazako lurrean eserita, “Bizi arteko zigorrik ez! Euskal presoak Euskal Herrira” zioten karteekin txaloka eta goraka hasi zirenean hasi ziren polizia-kargak ere. Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen eta Bergarako komi-sariara eramane. Pertsona asko zaurituta eta kolpatuta geratu ziren, pilotakaden eta borra-kolpeen eraginez.

Maiatzaren 25a. Herriko alderdi politiko, sindikatu eta elkarteetako hainbat ordezkari-k “oso larritzat”¹⁵⁹ jo zituzten bai hilaren 6ko gertaerak bai eta preso-egoera ere, eta hainbat ekintza iragarri zituzten; besteak beste, hilaren 27an Herriko Plazan kontzen-trazioa egiteko deia egin zuten.

Irailaren 17a. Elkartasunezko kontzertua Gaztetxean, 2009ko udaberrian Salamancako El Helmántico zelaian preso-egoera atera zuten hiru gazteen isuna ordaintzeko. Talde hauek aritu ziren: Arkada Social, Never Surrender, Dirty Brothers, Intérprete Desconocido eta Kate’s Maniacs. Sarrera: bost euro.

159 *Mondraberr* 2011/05/26.

Urriaren 20a. Nazioarteko ordezkari talde batek, Kofi Annan buru zela [Nazio Batuen idazkari nagusia 1997 eta 2006 artean], “Aieteko Adierazpena” egin eta hiru egunera, ETAk beste adierazpen bat kaleratu zuen.

ETAk bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki du. ETAk Espainia eta Frantziako gobernuei dei egiten die, gatazkaren ondorioei konponbide ematea helburu izango duen elkarrizketa-prozesu zuzena zabaltzeko, konfrontazio armatua gainditu ahal izateko. Adierazpen historiko honekin ETAk bere konpromiso argi, sendo eta behin-betikoa erakusten du.

Azaroaren 7a. Udalbatzak onartu egin zuen Debagoieneko Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen Batzordearen proposamena bere egitea, aldeko 19 botorekin eta kontrako batekin (PP). Udalbatzak adierazi zuen frankismoaren biktimek eskubidea dutela *egian, justizian eta erreparazioan oinarritutako aitortza jasotzeko, altxamendu militar faxista gertatu zenetik 72 urte joan diren honetan, erabateko isiltasunean eta inpunitatean. Orobat, eskubide zibil, politiko eta sozialen defentsan errepresioa, espetxea eta heriotza jasan zuten herritarren izaera politikoa* ere onartu zuen Udalbatzak, horrek ekar ditzakeen ondorio guztiekin; besteak beste, haien aurka abiarazitako sumario eta erabaki judizialak bertan behera uztea.

Azaroaren 15a. Goi-Auzitegiko Zigor Aretoaren sententzia batek onartu egin zituen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak Igor Portu eta Mattin Sarasolari eragindako torturen-gatik 2010eko abenduan kondenatutako lau guardia zibilek jarritako errekurtsioak. Kolpe horiek “ez frogatutzat” eman zituen eta deskalifikatu egin zituen gertakarien lekukoak.

2012

Abuztuaren 8a. Josu Uribetxeberria Bolinaga ETako presoak gose-grebari ekin zion, aske uztea eskatzeko. Egun batzuk lehenago, Leongo espetxetik Donostia Ospitalera eramán zuten Uribetxeberria, minbizi terminal, zabaldu eta sendaezina diagnostikatu ondoren. 200 presok baino gehiagok bat egin zuten baraualdiarekin. Azkenik, Barne Ministerioak hirugarren gradua eman zion **abuztuaren 17an**, eta, horren bidez, Auzitegi Nazionalak “arrazoi humanitarioengatik” behin-behinean aske uzteko izapideak jarri zituen martxan, jokabide-arau batzuk beteta. Fiskalak errekurritu egin zituen neurriok.

Irailaren 9a. Banco de Santander banketxearen bulego bateko kutzazainari su eman zioten. Inguruko hormetan honelako pintadak agertu ziren: Sua kapitalari”.

Irailaren 12a. Auzitegi Nazionalak Josu Uribetxeberria Bolinagaren askatasuna berretsi eta baldintzapen erdi-aske utzi zuen, nahiz eta Fiskaltzak horren kontrako errekurtsioa jarri zuen eta hainbat sektorek, besteak beste Covite elkarteak, aurkako jarrera gogorra erakutsi. Covitek “traizio onartezintzat” salatu zuen Espainiako Gobernuaren erabakia. Uribetxeberriak etxean jarraitu zuen preso.

Irailaren 14a. PSE-EE alderdiak lekuz aldatu zuen egoitza, Olarte kaletik Elma eta Martxoaren 8a kaleen arteko bidegurutzera. Aurreko kokalekuan hogeitik gora eraso eta atentatu jasan zituen sozialisten egoitzak. Egoitzari "Agrupación Socialista de Arrasate Marcos Vitoria" izena eman zioten.

Azaroaren 18a. AVTk aurkeztutako kereilaren ondoren, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak txosten bat egiteko eskatu zion Ertzaintzari, urrian Josu Uribetxeberria ETako kideari espetxetik atera ondoren egin zitzaion omenaldiari buruz, jakiteko ea terrorismoa goretsi ote zen eta ikertzeko nork hartu zuen parte omenaldian eta zer gertatu zen ekitaldian.

2013

Otsailaren 4a. Auzitegi Nazionalak Joseba Garitaonaindia preso ohia eta Bergarako beste hiru lagun (Amaia Osa, Sebas Etxeberria eta Inaxio Manuel) epaitu zituen, "terrorismoa goratzea" leporatuta, Korrikaren 2011ko edizioko tarte batean presoan argazkiak eramateagatik. Otsailean baita ere, Josu Zubizarreta Bergarako epaitegira deitu zuten deklaratzera, 2012ko Sanjoanetan presoan argazkiekin pankarta bat jartzeagatik. Antza denez, Ertzaintzak pankarta konfiskatu ondoren eta Erandioko komisarian aztertu ondoren, haren aztarnak aurkitu zituzten.

Maiatzaren 7a. Frantziako Poliziak Julen Mendizabal Elezkano eta Kepa Arkauz atxilotu zituen, Montpellierren lehena eta Bloisen bigarrena, Frantzian biak. Epailak espetxeratzeko agindua eman zuen.

Maiatza. Ezezagunek su eman zioten kutzazain bati, eta "Kapitalismoari Sua" margotu zuten.

Ekainaren 24a. Donostiako Administrazioarekiko auzien 3. epaitegiak bertan behera utzi zuen, kautelazko neurri gisa, Sanjoanetako jai-egitarauan presoan oroimenez egitekoa zen kalejira. Carlos Urquijok, Espainiako Gobernuaren ordezkariak, horrela eskatu zion Estatuko Abokatutzari. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiak, Juan Calparsorok, Inazio Azkarragaurizar Larrea (Bildu) alkatearengana jo zuen argitzeko ea Udalak presoan aldeko ekitaldi bat sartu zuen festetako egitarauan.

Irailaren 30a. Guardia Zibilak Ekain Zubizarreta Iribecampos arrasatearra atxilotu zuen Hernanin. Aske geratu zen gero.

Urriaren 14a. 2009ko sarekadan Segiko kide izateagatik atxilotutako 40 gazteen aurkako epaiketa hasi zen Madrilen. Irati Mujika ez zen bertaratu, eta beste hiru gazte ere ez, "Auzitegi Nazionalari desobedientzia agertuz epaitegi horrek ez duelako sinesgarritasunik"¹⁶⁰. Plazan deitutako batzar batean, Irati Mujikak bere erabakia azaltzeko idatzitako mezu bat irakurri zen.

¹⁶⁰ Mondraberi 2013/10/14.

Abenduaren 28a. Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (AVT) hainbat kide hiru autobusetan etorri ziren Madrildik, Euskal Herriko bost herritan, horien artean Arrasaten, biktimen omenezko ekitaldiak egiteko. Ekitaldien helburua zen “aurre egitea” eta Parot doktrinaren ondoren zigorrak bete dituzten ETako presoek herrietan “memoria” eta “zigorrak osorik bete ditzatela” aldarrikatzea. Ertzaintzaren babes handiarekin, omenezko ekitaldiak antzerakoak izan ziren herri guztietan: lore-eskaintza bat Espainiako bandera baten gainean, minutu bateko isilunea eta otoitz bat. Bertaratuek pankarta bat zeramaten “Verdad, memoria, dignidad y justicia” goiburuarekin (Egia, memoria, duintasuna eta justizia), baita Espainiako hainbat bandera eta kartel ere, mezu honekin: “Para un final con vencedores y vencidos” (Amaieran egon daitezen garaileak eta garaituak).

2014

Urtarrilaren 9a. Kalez jantzitako hainbat poliziak Irati Mujika Arrasateko Irati Elkarteko langilea atxilotu zuten Aramaion. Mujikak ia hiru hilabete zeramatzan bilatzeko eta atxilotzeko aginduarekin, Auzitegi Nazionalera, Segiren aurkako epaiketara ez joatea erabaki zuenetik. Ilunabarrean manifestazio bat egin zen Arrasaten, atxiloketa horren eta beste zazpiren aurka protestatzeko.

Maiatzaren 2a. Margoak jaurti zituzten hiru banketxeren kontra. Antzeko ekintzak gertatu ziren Donostian, Legution eta Galdakaon ere.

2015

Urtarrilaren 16a. Josu Uribetxeberria Bolinaga hil zen, minbiziaren eraginez. Biharamunean ekitaldi zibil bat egin zen Aldai parkean, eta senide eta hurbilekoez gain, Inaxio Azkarragaurizar alkatea (Bildu) eta hainbat preso ohi bertaratu ziren.

Maiatzaren 4a. Auzitegi Nazionalak 17 urteko espetxealdi txikiko zigorra ezarri zion Jose Luis Erostegi Bidagureni [aurrez ETako kide izateagatik eta Jose Antonio Ortega Lara bahitzeagatik kondenatuta zegoen] Arrasaten Ramos Ramirez Guardia Zibileko kabo lehena erailteagatik, 1986ko ekainaren 8an. Javier Ugarte Villar absolbitu egin zuen epaileak, ez zelako frogatuta geratu gertakarietan parte hartu zuenik.

Ekainaren 26a. Auzitegi Nazionalak 32 urteko espetxe zigorra ezarri zion Beñat Aginagalderi, 2008an Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzia erail izanagatik. Epaiketa errepikatu egin zen fiskaltzak eskatu ondoren Auzitegi Gorenak horrela aginduta, 2014an frogarik ez zegoela-eta absolbitu egin baitzuten Aginagalde. Orduko hartan Aginagaldek ukatu egin zuen ETako kide zenik. Zigor Aretoko hirugarren atalak oraingo honetan hiru delitu hauen errudun jo zuen Beñat Aginagalde: erailketa, armak edukitzea eta helburu terroristekin kalteak sortzea.

2016

Apirilaren 16a. Eusko Jaurlaritzak omenaldia egin zien Arrasaten 1936ko lehen ertzainei; besteak beste, Miguel Etxagibel 97 urteko arrasatearrari, promozio hartatik bizirik geratzen zen bakarrari.

Urriaren 29a. Paco Garcia Rayak iragarri zuen utzi egingo zuela politika aktiboa, PSE-EE alderdian hainbat kargu bete ondoren (zinegotzi, batzarkide eta legebiltzarkide) eta Arrasateko talde sozialistaren arduradun izan ondoren. “Euskadira bake-garaia iristen zenean erretiratuko nintzela agindu nuen. Eta horrela izan da”, adierazi zuen *El Diario Vasco* egunkarian¹⁶¹.

Azaroaren 6a. EAJk Batzokiaren eta bertako bi langileren aurkako eraso salatu zuen. Hiru lagunek pintura jaurti zieten langileei, eta lokalaren fatxadara ere bota zuten. Egoitzaren sarreran, trapuzko bi panpina eta kartel bat utzi zituzten, Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza askerako itunaren aurkako testua-ekin, eta goiburu honekin: “TTIP-PNV-PSOE”.

Azaroaren 7a. Udaleko talde politiko guztiek EAJren Batzokiaren aurkako eraso salatu eta gaitzetsi zuten, ohar baten bidez. Aldi berean elkartasuna adierazi zieten erasoan kaltetutako bi pertsoneri.

Abenduaren 1a. Olatz Etxabek (Batallón Vasco Españolek 1975an hil zuen Iñaki Etxaberen alaba) eta Sandra Carrascok (ETAk 2008an hil zuen Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi ohiaren alaba) beren lekukotzak eman zituzten Arrasateko Memoriaren Plazan. Herriko alkatea, Maria Ubarretxena Cid, zenbait alkate ohi, hala nola Inazio Azkarragaurizar Larrea (Bildu) eta Ino Galparsoro Markaide (ANV), PSE-EEko ordezkariak, Carmelo Barrio PPko legebiltzarkidea eta beste zenbait ordezkari politiko bertaratu ziren ekitaldira, biktimekin batera. Biktimen artean, besteak beste, han zen Maria Angeles Romero, Isaias Carrascoren alarguna.

2017

Irailaren 22a. EAJ-PNV alderdiaren Batzokiaren aurkako beste eraso bat gertatu zen: Iñigo Urkullu lehendakariaren eta EAJren aurkako pintadak agertu ziren, lehenari “kolarazionista” eta alderdiari “espainola” deituz.

¹⁶¹ *El Diario Vasco*, 2018/01/15.

2018

Urtarrilaren 18a. Ibon Iparragirre ETako preso ondarroarra Arrasateko Aita Menni ospitale-zentroan ingresatu zuten, Alcalá-Meco espetxetik ekarrita. Presoa espetxealdi arinduan zegoen, hiesarekin gaixo fase terminalean, eta arazo neurologikoekin.

Martxoaren 2a. Hainbat ezezagunek mezu hau margotu zuten EAJ-PNVren egoitzaren atzeko horman: "PNV lotu zure txakurrak".

Martxoaren 3a. Isaias Carrascoren eraiketaren hamargarren urteurrena. Alkateaz eta Udalbatzako gainerako talde politikoetako ordezkariez gain, EH Bildu lehen aldiz izan zen omenaldian, senide, alderdikide eta Isaiasen hurbilekoekin batera, hil zuten tokian, Navas de Tolosa kalean (han bizi zen).

Martxoaren 6a. Arrasateko Baleike, EAJ-PNV, Irabazi eta PSE-EE udal taldeek, EH-Bilduren abstentzioarekin, segidako adierazpen hau onartu zuten. Maria Ubarretxena alkateak (EAJ-PNV) irakurri zuen testua:

Arrasateko Udalak ez du nahi ETak eragindako Isaias Carrascoren eraiketa bidegabearen 10. urteurrena, isiltasunean igaro. Udal honen konpromisoa da gure herrian indarkeriaren bidegabekeria jasan duten pertsona guztien sufrimendua aitortzen duen memoria eraikitzea.

Bizikidetzak baketsu eta inklusibo baten alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu. Arrasateko etorkizunari elkarrekin eta elkarbizitzan begiratu nahi diogu.

Martxoaren 29a. Hainbat ezezagunek mezu hauek margotu zituzten udaletxeko arkupeetan: "Españolari sua", "PNV español", "Española ez" eta "EAJ Espainolen morroi".

Apirilaren 20a. ETak bi adierazpen egin zituen sortutako kalteei buruz, Euskal Herriari zuzenduta. Komunikabideek jaso eta sakon aztertu zituzten adierazpen horiek egun honetan eta hurrengoetan, eta edukiari buruzko eztabaida zabaldu zen¹⁶².

(...) Gehiegizko sufrikarioa. ETak onartu du eta bere gain hartu du samin horretan izandako arduraz zuzena, eta adierazi nahi du halakorik inoiz ez zuela gertatu behar edo ez zela denboran hainbeste luzatu behar (...) samin handia eragin dugu, konponbiderik ez duen kalte asko ere. ETaren ekintzek eragindako hildako, zauritu eta biktimei, gatazkaren ondorioz kaltetuak izan diren heinean, errespetua agertu nahi diegu. Zinez sentitzen dugu. Akatsen ondorioz edo akats izan diren erabakiak hartu izanaren ondorioz, gatazkan

¹⁶² Gara 2018/04/20, 5. or. "ETak Euskal Herriari: eragindako kalteari buruzko adierazpena" eta "Eragindako kalteari buruzko adierazpena dela-eta, ETaren argibide oharra" (2018ko apirilaren 8koak, bi-biak).

parte-hartze zuzenik ez zuten biktimak ere eragin ditu ETak (...) Badakigu inolako erantzukizunik ez zuten hainbat herritar kaltetzera eraman gaituela gure jardunak. Atzerabiderik ez duten kalte larriak ere eragin ditugu herritarren artean. Haiei eta haien senideei barkamena eskatzen diegu. (...) Oxala ez balitz halako ezer inoiz gertatu. Oxala askatasuna eta bakea aspaldi errotu izan balira Euskal Herrian. (...) Etorkizunari begira, berradiskidetzea da Euskal Herrian egin beharreko lanetako bat (...).

Maiatzaren 3a. ETaren desagiteari buruzko adierazpena publiko egin zen Genevako Henri Dunant Zentroaren egoitzan: “ETak Euskal Herriari, azken adierazpena”. Mezu horretan, “Erakundearen ziklo historikoa eta funtzioa amaitutzat” eman zituen ETak. Honakoak ere berretsi zituen: “ETak bere egitura guztiak erabat desegin ditu” eta “bere ekinbide politikoa bukatutzat jo du”. Hala adierazi zuen David Harlandek, Zentroaren zuzendariak: “Gaur, maiatzak 3, 14:00etan, bukatu du ETAK”.

Maiatzaren 4a. Goizean, ETaren amaierari buruzko ekitaldi bat egin zen Kanboko Arnaga etxean, nazioarteko hainbat ordezkari bertan zirela eta komunikabideen jakin-min handiarekin. Jean Rene Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko presidentek eta Baionako auzapezak egin zituen anfitrioi lanak. Irati Agorria Cuevasek, Cuathemoc Cardenasek, Jonathan Powellek eta Michel Camdessusek irakurri zuten “Arnagako Adierazpena”. Idatzi horren pasarteak dira honako hauek:

Aieteko adierazpenetik hona azken zazpi urte hauetan aurrerapauso nabarmenak egon dira (...) Gai garrantzitsu batzuk oraindik konpondu gabe diraute, hala nola preso direnen edo ihesean diren pertsonen auzia; lurraldeko eguneroko bizitza zein politika osoki normalizatzeko etenik gabeko esfortzuak beharko dira. Nagusiki egiteke gelditzen dena berradiskidetze prozesua da. (...) Zauriak sakonak dira. Familiak eta komunitateak banatuta daude. Biktima guztiak bereizkeriarik gabe aitortu eta laguntzeko lan egin behar da. Honek alde guztiek iraganarekin zintzotasunez jokatzeari eskatzen du, baita zauriak sendatzeko eta komunitate partekatua berreraikitzearen eskuzabaltasunez jardutea ere.

la ordu berean, Mariano Rajoy Espainiako Gobernuaren presidentek honela berretsi zuen: “ETA desagertu da, baina esan dudan moduan, Espainiak jarraituko du haien krimenak ikertzen, haien delituak epaitzen eta haien kondenak betearazten”; beraz, salbuespen-neurrietan ez zela aldaketarik izango gaineratu zuen. “Ez dute ezer lortuko desagertu direla iragarrita ere”, adierazi zuen, eta horixe bera berretsi zuen bere Kabineteko bozeramaileak, Iñigo Mendez de Vigok: “Gobernuak ez du aldatuko bere espetxe-politika”.

Arratsaldean, Uxue Barkos Nafarroako presidentek eta Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak agiri bateratu bat plazaratu zuten Bertizko Jaurean: “Bizikidetzea sendotzeko proposamen eta konpromiso partekatuak, ETak behin betiko desagertu dela iraga-

rri ondoren". Biak bat etorri ziren: ETAk ez zuen inoiz existitu behar, ETAk eragindako biktima bakar bat ere ez zen inoiz gertatu behar eta halakorik berriro ez gertatzeko oinarriak jarri behar dira. Epe laburrerako helburuen artean, bi hauek finkatu zituzten: gutxienekoen errelato partekatu bat egitea, "iraganari buruzko gogoeta kritikoa" jasoko duena, eta espetxe-politika testuinguru berrira egokitzea.

Maiatzaren 17a. Memoria Plaza erakusketa ibiltaria ikusgai izan zen maiatzaren 17tik 25era Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Maiatzaren 17a. Guardia Zibileko agenteek berrogeita hamar bat preso ohiren autoak, higiezinak, nominak eta beste hainbat ondasun konfiskatu zituen, "Zerga" izeneko operazioan. Preso ohi horien artean zegoen Enrike Letona arrasatearra, espetxean 16 urte egindakoa. "Goiena" agerkariari eginiko adierazpenetan, Letonak esan zuen inork ez ziola ezer jakinarazi eta kontutik dirua ateratzera joan zenean jabetu zela euro bakar bat ere ez zegoela. Barne Ministerioaren arabera, "operazioaren xedea da presoek, erantzukizun zibilagatik, Estatuarekin duten zorra likidatzea", kondenaren zati moduan.

Maiatzaren 18a. Protesta-manifestazioa Arrasaten: "Erasoen ginetik baietza sortzen".

Maiatzaren 23a. Txosten hau idatzi duen lantaldeak udaletxean entregatu zuen lana.

10. PROPOSAMENAK ETA AZKEN APUNTEAK

Dagoeneko, "Arrasaten 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena" amaitu da, baina honekin ezin da bukatutzat eman, *Memoria partekatu baterantz* ibili beharreko bide luzea, beste hainbat urrats eman behar baitira. Izan ere, memoria soziala, zentzu sakonean ulertuta, ez da egun jakin batean amaitzen den prozesu bat edo orrialde batzuetara mugatu daitekeen zerbait, non liburu baten itxurapean gorderik eta ondo iltzaturik geratzen den oroimena; ezta halako ekitaldi berezi baten bitartez edo orogarrri bat ipiniz erabat itxita uzten den aro bat ere. Aitzitik, memoria soziala etengabe eraikitzen doan prozesu kolektibo bat da, egungo zein biharko herritarren ekimenez zein borondatez berrosatzen joan ohi dena; belaunaldiz belaunaldi geroan ere hornitzen jarraituko dena, nola edo hala. Azken batean, memoria kultura da, herri edo jendarte batek etenik gabe jasotako eraikina.

Hortaz, iraganeko gertakarien datu objektiboak txostenean jasoak izan dira; dena dela, ziur aski elementu berriak azalduko dira aurrerantzean ere. Baina datu guztiak ezagutzea bezain garrantzitsua izango da haiek interpretatzea, iraganean gertatutakoa nola ulertzen den edo nolako esanahia ematen zaion baita gakoa, etorkizunerako irakasgai izan dadin.

Memoria ez datza iragana den horretan lehengoratzean, ezpada hura oraina oinarri hartuta etengabe berreraikitzean. Historialarien memoria erudituek berak ere etengabe berrinterpretatzen du iragana orainaren argitan: aztertzen diren gertaerak lehengoak izan litezke, baina haiei buruzko interpretazioa aldatu egiten da. Maizenik, gertaerak ez dira arazo izaten, baina bai, ordea, gertaera horiei ematen zaion esanahia. ¹⁶³

Lerro hauen helburua, jakina, ez da lauzpabost lerrotan txostenaren mamia laburtzea. Alabaina, ideia batzuk azpimarratzekotan honakoak lirarteke ondorioztatzen diren ardatz nagusienak, gure iritziz: **sakoneko saminak gaurdaino** irauten du eta **itxi gabeko zauriak asko dira oraindik**; eta horiekin uztarturik, **biktima guztienganako aitortzarik eza** antzematen da nabarmenki, hutsune hori betetzea premiazko eginkizun bihurtu delarik, lehenik eta behin.

Horrez gain, iraganari buruz **alde guztiak egin beharko luketen hausnarketa kritikoa** errepikatu da elkarrizketa ugaritan; batzuek zein besteek betekizun hori hurkoari leporatzen dioten arren, sarritan. Bestalde, **presoen egoera larria** gizalegez bideratzea litzateke beste eginkizun garrantzitsua -sakabanaketaren amaiera eta preso gaixo zein

¹⁶³ GROPPPO, Bruno. (2002) *Las políticas de la memoria. Sociohistórica*, (11-12). Universidad Nacional de La Plata, FaHCE.

adinduak kaleratzea-. Arestian bildutako ideia hauek zuzendu ezean, oztopo nagusi bihur daitezke bizikidetzan aurrera egiteko.

Dena den, aipaturiko ardatz horiekin batera, kezka nagusi bat antzematen da orokorrean, zehar lerro gisa; **nolako kontakizuna geratuko** den etorkizunerako, **nork eta nola gauzatuko** duen. Beraz, arreta berezia ipini beharko litzateke puntu hauen guztien inguruan, iraganetik datorren samin guztia gainditu, bizikidetzan berreskuratu eta memoria partekatu bateranzko bidea elkarrekin egingo bada.

Bestalde, sarreran esan bezala, txosten hau ixtear zegoela, gertakari esanguratsu bat eman da dihardugun gaiaren inguruan, ETArekin desegitea. Izan ere, albiste honek erabateko garrantzia izan dezakeela uste dugu, motibazio politikozko indarkeria burutu duen eragile nagusietako batek amaitutzat eman baitu bere jarduera, behin betirako. Iritziak iritzi, eskenatoki berri honek aukera gehiago eskaini beharko lituzke, iragan hurbilean pentsaezinak ziren urratsak eman ahal izateko. Hain zuzen, orain arte ezezagunak ziren bideak errazkiago jorra litezke testuinguru berri honetan, zauriak itxiz eta ezberdinen arteko hurbilketak emanez, bizikidetzan berrosatzeko bidea gauzatu dadin.

Gogoeta orokorretatik zehaztapenetara jaitsi behar, ordea, eraginkor izatekotan. Ildo honetan, txostenaren lanketan jardun dugun bitartean zenbait iradokizun jaso ditugu solaskideengandik etorkizunari begira. Proposamen horiek nolabait birmoldatuz, hemen aurkezten ditugu era labur batean:

- Biktima guztienganako aitortza bideratzeko ekimenak sustatu. Arrasaten izandako biktimak ugariak dira, erantzuleak ezberdinak izanik. Herritarren eta erakundearen aldetik, ordea, oso jarrerak ezberdinak eman dira. Beraz, ezinbestekoa dirudi hutsune horiek lehenbailehen betetzea, Isaias Carrascorengandik hasita, adibidetzat harturik.
- Biktimen arteko hurbilketa prozesuak garatu. Herritar askoren iritziak, Olatz Etxabe eta Sandra Carrascok elkarrekin burutu zuten lehen topaketa hura (Arrasate, 2016ko abendua) eredugarri izan zen, gero beste saio batzuetan jarraipena izan duelarik. Ezertan errepikatu beharrik gabe, gehiago urratzeko bide bat agerian geratu da.
- Txostenaren inguruan eztabaida ireki, Arrasateko herriko esparru ezberdinetara zabalduz. Udaletxeko Memoria eta Bizikidetzaren Mahaian lehenik eta herritarrengana hedatuz ondoren (Gazteak, Nagusiak. Emakumeak ...), hainbat elkarrekin bidez.
- Egiaren bila gehiago sakondu, datuak ikertuz eta txostenaren mugak gaindituz. Testuan esan bezala, badira zenbait gertakari argitasun gehiago eskatzen dutenak eta ikerlari gehiagoren lana beharko dutenak.

- Transmisioa bermatu, gazteei zuzendurikoa lehenetsiz. Horretarako bide berriak jorratu behar, ohikoak diren espazio zein bitartekoez gain bestelakoak bilatu (euskarri digitalak, ikus-entzunezkoak, hezkuntza ez arautua, espazio informalak, komikiak, ...). Erabat baztertu gabe orain arteko bideak.
- Hezkuntzarako Plan berariazkoa eratu, ikastetxeekin bat eginik. Egitasmo zehatzak sustatu daitezke, memoriaren transmisioa zein gogoeta landuz, Giza Eskubideen kulturen oinarri sendoak ipiniz. Plan trinko horretan Debagoiena bailara osoa aintzat hartzea oso baliagarria litzateke.
- Familiak duen ezinbesteko eginkizuna balioetsi, heziketaren zein balioen transmisioaren alorrean "etxeak" duen garrantzia azpimarratuz eta aurretik aipaturiko Hezkuntza plan trinkoarekin uztartuz.
- Memoria eta Bizikidetzaren elkarlanerako topalekua eratu, hainbat eragile eta Udaletxearen artean. Egitasmo ezberdinak antolatu asmoz (mintegiak, argitalpenak, bideoak, testigantzen entzuketa edota bilketa, ...), Memoria eta transmisioaren inguruan.

Nolanahi ere proposamen hauen helburua zera da, inoren erritmoak bortxatu gabe, ezta geldi araziz ere, iraganetik irakaspenak ateratzea; itxuraz gainditutzat ematen den egoera latza eta mingarria etorkizunean berriro errepikatu ez dadin. Indarkeriazko iragana ahaztu gabe, ibilbide zein sentsibilitate desberdineko herritarren artean memoria partekatzea; aniztasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bizikidetzarako bidean.

EPILOGOA

*Entzuten duzu goizean
negar isil bat haizean.*

*Ezker nahiz eskuin aditu
bi belarri hartzen ditu.*

*Odolak ihes zainetik
lubaki biren gainetik.*

*Mugagabea lausoa
oinazezko itsasoa.*

*Bandoei egin gabe men
ote genezake omen?*

*Omen pairatu dutenei
gure bular estuei dei.*

*Hartu nauzunean aintzat
brintzatu dira harkaitzak.*

*Egiaren arragoa
beti da zabalagoa.*

*Brintzatu bada harkaitza
hor erneko da zuhaitza.*

Jon Sarasua Maritxalar

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

AHOZKO ITURRIAK

18 elkarrizketa pertsonal eta datuak egiaztatzeko 14, herriko zenbait pertsonarekin.

IDATZIZKO ITURRIAK

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Dokumentazio gunea.
- Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen artxibo-ondarea. www.gesto.org
- Arovite datu-basea. Euskadiko indarkeria terroristari buruzko *on line* artxiboa.
- Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen datu-basea.
- Euskal Memoria Fundazioaren datu-basea.
- Boletín de Noticias del País Vasco, 1975eko salbuespen-egoerako ezkutuko argitalpena. Bilbo.
- Fernando Buesa Fundazioaren *on line* Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Gasteiz.
- Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu bidegabeei buruzkoa: *Ahantzuratik ateratzen*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2017.
- *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri, 1960-2010*. Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusia. 2015.
- VascoPress. "Dokumentatzeko eta eguneratzeko 1.176. kronika" 2004/08/30ekoa. 2004ra arteko "ETAren atentatu guztiak" jasotzen dituen txosten monografikoa (ETAren *Zutabe* boletinean argitaratutakoak).
- *Egin, Berria, Gara* eta abarren urtekariak.

- *Goiena, Mondraberrri, El Diario Vasco, El País, La Vanguardia, ABC, El Mundo* eta abarren hemeroteca digitalak.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE AGIRRE, Joxean (coord., 2010). *Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960-2010*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- AGIRRE, Lorea. www.berria.eus/ 2017-11-16
- ALONSO, Rogelio; DOMINGUEZ, Florencio eta GARCIA REY, Marcos (2010). *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*. Madril: Espasa.
- AMNISTÍA INTERNACIONAL (2018). *Informe 2017/18. La situación de los Derechos Humanos en el mundo*.
- ARGITUZ (2011). Biktima guztiekiko errespetuzkoa izango den politika publiko bateranzko bide luzea. Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen inguruko politika publikoen baloraziorako txostena. www.argituz.org
- ARGITUZ (2015). Memoria partekatu baterantz. Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Errenteriako Udala. <http://www.errenteria.net/es/html/9/6557.shtml>
- ARGITUZ (2017). Memoria partekatu baterantz. Lasarte-Orian 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Lasarte-Oriako Udala:
- http://administrazioa.lasarte-oria.eus/eu/ficheros/24_16588eu.pdf
- ARGITUZ (2017). Memoria partekatu baterantz. Elgoibarren 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena. Elgoibarko Udala. <https://elgoibar.eus/index.php/148-banner/3200-herritarren-ekarpenak>
- ATXAGA, Mikel. *La implantación del euskera a través de treinta años de historia*, 72. zkia, EUSKAL ETXEAK.

- BIZKARRALEGORRA OTAZUA, Elisabete (2017). *Ser Basque Izan. La resistencia vasca no violenta en el franquismo (1957-1977)*. 1 eta 2. tomoak. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- CARMENA Manuela, LANDA Jon Mirena, MUGICA Ramon eta URIARTE Juan Mari (2013). *Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en el caso vasco (1960-2013)*. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- CCOO, LAB eta ESK. *Cómo se desmantela la Unión Cerrajera*, 1993ko urtariraren 3tik 13ra bitartean Monterron etxean egindako erakusketaren harira egindako argitalpena.
- DEL PALACIO ALONSO, Josemaria (2017). *Secuelas de nuestras guerras y derrotas, de la República a la 'modélica' Democracia*. Letras de Autor. Ateneo Republicano Araba.
- ETXEBERRIA, Francisco; MARTIN BERISTAIN, Carlos eta PEGO, Laura (2017). *Proyecto de investigación de la tortura en el País Vasco (1960-2014)*. IVACKREI. EHuko Kriminologiaren Euskal Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK) / Consejo de la Juventud de Euskadi (2017). *'Gazteak eta Bakea. Iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizuneko erronkak'* <http://egk.eus/eu/bakea-hiru-urteetan-egindako-lanaren/>
- EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA (2014). Hainbat egile. *Deklaratu gabeko gerra*. Andoain: Aise Liburuak.
- GROPPPO, Bruno. (2002) *Las políticas de la memoria. Sociohistórica*, (11-12). La Platako Unibertsitate Nazionala, FaHCE.
- FONSECA, Carlos (2014). *Informe sobre la situación procesal de los atentados perpetrados por organizaciones terroristas con resultado de muerte entre 1960 y 2014. Caso vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- FORO DE ASOCIACIONES de Educación en Derechos Humanos y por la Paz / Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren ELKARTEEN FOROA (2011). *Municipios por la convivencia. Orientaciones éticas para la acción municipal en el País Vasco*. Bilbo.

- GESTO POR LA PAZ- Euskal Herriko Bakearen aldeko koordinakundea (2011). *Las víctimas de actuaciones indebidas del Estado en la lucha antiterrorista*. www.gesto.org
- GARAI, Juan Ramon. *1947ko maiatzaren huelga Gipuzkoako Debagoienean*, Intxorta. Mondraberrri web orrian.
- GURRUCHAGA ABAD, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos. Conciencia y libertad bilduma.
- HALBWACHS, Maurice (2004), *Los Marcos sociales de la memoria*. Bartzelona: Anthropos.
- HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara (2018). *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)*. Catarata / Ramon Rubial Fundazioa.
- INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016ko martxoa). *Informe sobre la injusticia padecida por las personas amenazadas por ETA (1990-2011)*. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetz Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon; RUIZ VIEYTEZ, Eduardo J. eta URRUTIA ASUA, Gorka (2016ko maiatza). *Informe sobre la injusticia padecida por el colectivo de ertzainas y sus familias a consecuencia de la amenaza de ETA (1990-2011)*. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetz Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- LANDA, Jon Mirena (2008). *Informe sobre víctimas de vulneraciones de derechos humanos derivados de la violencia de motivación política*. Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza. Vitoria-Gasteiz.
- LOPEZ ROMO, Raul (2014). *Informe Foronda. Los contextos históricos del terrorismo en el País Vasco y la consideración social de sus víctimas. 1968-2010*. EHUko Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutuak argitaratua, Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Sustapenerako Zuzendaritzak eskatuta.
- MARTIN BERISTAIN, Carlos (koord.), 2013. *El tiempo es ahora. ¿Es posible una memoria incluyente en el ámbito local?* Argituz, Giza Eskubideen aldeko elkarte, Gasteiz.
- NUÑEZ, Luis (koord.) *Euskal Herria y la libertad*. Zortzi tomo. Tafalla: Txalaparta, 1993.

- OSSE, Anneke (2007). *Entender la labor policial. Recursos para activistas de derecho humanos*. Amnesty International Nederland / EDAI. Hemen duzu eskura, Nazioarteko Amnistiaren web orrian: <http://amnistiainternacional.org/publicaciones/51-entender-la-labor-policialrecursos-para-activistas-de-derechos-humanos.html>
- SAEZ DE LA FUENTE ALDAMA, Izaskun (ed.); PRIETO MENDAZA, Jesus, BILBAO ALBERDI, Galo eta ETXEBERRIA MAULEON, Xabier (2017). *Misivas del Terror. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Deustuko unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroa.
- SARAVIA BELLES, Mauro eta MONGE SARABIA, Julia (2017). *Emeek emana*. Erakusketaren testua. Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- SECRETARÍA GENERAL PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA (2016). *Sugerencias de políticas de paz y convivencia para el ámbito local*. Eusko Jaurlaritzza.
- SILVA, Lorenzo. SANCHEZ, Manuel. ARALUCE, Gonzalo (2017). *Sangre, sudor y paz. La Guardia Civil contra ETA*. Bartzelona: Península.
- TODOROV, Tzvetan, (2008), *Los abusos de la memoria*. Bartzelona: Paidós.
- UGARTE GASTAMINZA, Josu, koord. (2018). *La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Madril: La Esfera de los Libros.
- URIBE, Kirmen (2016), *Elkarrekin esnatzeko ordua*. (318-319 or.). Susa: Zarautz
- VARONA MARTINEZ, Gema (2015). DE LA CUESTA ARZAMENDI, José Luis, MAYORDOMO RODRIGO, Virginia, OLALDE ALTAREJOS, Alberto. *El derecho a la memoria de las víctimas del terrorismo*. IVAC-KREI, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatuta.
- VINYES, Ricard (ed.) (2009), *El estado y la memoria: Gobiernos y ciudadanos frente a los traumas de la historia*. Bartzelona: RBA

HACIA UNA MEMORIA COMPARTIDA

1956 - 2018 *Arrasate-
Mondragón*



HACIA UNA MEMORIA COMPARTIDA

*ARGITUZ,
Asociación
Pro Derechos Humanos*
Mayo de 2018

EL GRUPO DE INVESTIGACIÓN

Gamiz, Aintzane
Moñux, Jon
Ormazabal, Sabino
Salinas, Maitena

MARCO NORMATIVO

Astigarraga, Juana Mari
Pego, Laura

DISEÑO E IMPRENTA:

ORIGINAL comunicación gráfica

DEPÓSITO LEGAL: SS-1386-2018

ISBN: 978-84-09-07224-8

PRÓLOGO

EAJ/PNV Arrasate-Mondragón, EHBildu Arrasate, PSE-EE Arrasate-Mondragón, Arrasateko Baleike Udal Taldea e Irabazi-Arrasate

En septiembre de 2016 se puso en marcha la mesa de Memoria y Convivencia conformada por todas las fuerzas políticas representadas en el Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón: EAJ-PNV, EHBildu, PSE-EE, Baleike e Irabazi. Los miembros de la mesa eran conscientes de que abordar la memoria de lo sucedido, y por tanto afrontar las graves vulneraciones de derechos humanos y sufrimientos padecidos en Arrasate-Mondragón, suponía nombrar heridas aún hoy muy vivas y dolores en ocasiones negados o silenciados. Eran conscientes asimismo de que, para que el trabajo realizado pudiera contribuir a la reconstrucción de la convivencia, el consenso sobre esa mirada al pasado era imprescindible.

Finalmente, tras meses de intenso diálogo —en los que el trabajo y la asesoría de los expertos de Argituz e Intxorta 1937 ha resultado necesario—, ha sido posible alcanzar los consensos de base necesarios para construir una memoria compartida. Una memoria que queda recogida en los presentes documentos. Caminar hacia ella ha supuesto un ejercicio de generosidad mutua, puesto que más allá de las diferentes lecturas del pasado que cada cual pueda tener, se ha primado el acuerdo necesario para avanzar hacia la convivencia.

Todo ello ha supuesto abrir el foco más allá de los sufrimientos vividos como propios, acercándonos a aquellos que hemos podido sentir más lejanos. No se pretende con ello equiparar o mezclar, sino dar un lugar a todo lo ocurrido, sin caer en el olvido. Con estos trabajos se quiere contribuir a poner las bases de verdad, justicia y reparación para todas las víctimas, así como a visibilizar todas las realidades de sufrimiento del municipio.

Tras acordar que para dar sentido a todo lo ocurrido era necesario abordar el trabajo de memoria desde la instauración de la II República hasta nuestros días, por cuestiones metodológicas se decidió dividir el trabajo en dos períodos. La Asociación Intxorta 1937, con una amplia experiencia en recuperación de la Memoria Histórica y un gran trabajo avanzado a este respecto en Arrasate-Mondragón, ha sido la encargada de recoger lo ocurrido durante el período 1936-1956. Desde una mirada histórica abierta ha elaborado un trabajo que trata de recoger el impacto que el Alzamiento militar con-

tra el Gobierno de la II República y el Franquismo tuvieron en las vidas de mujeres y hombres de Arrasate.

Por su parte, la Asociación pro derechos humanos Argituz, que cuenta con una acreditada experiencia avalada por los trabajos realizados en otros municipios, se ha encargado de elaborar la memoria correspondiente a los años 1956-2018. Su trabajo recoge las violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en el municipio desde la mirada del Derecho Internacional de los Derechos Humanos.

Dos trabajos, que pretenden respetar los diferentes abordajes metodológicos que cada contexto requiere, pero con elementos comunes: aplicar una metodología contrastada y aceptada, elaborar una memoria veraz y rigurosa de lo ocurrido y una memoria no parcial sino inclusiva, una contribución encaminada a la reconstrucción de la convivencia de nuestro municipio.

Así, cada uno de los dos libros, resultado del trabajo elaborado por Intxorta 1937 y Argituz, se presenta bajo un mismo título “Hacia una memoria compartida”, conscientes de que —tras años de confrontación— caminar hacia un espacio común y compartido de la verdad de los hechos violentos ocurridos y de las vulneraciones de derechos humanos padecidos es un proceso dinámico.

Finalmente, las personas que durante estos meses hemos conformado la mesa de Memoria y Convivencia, queremos agradecer profundamente la colaboración y confianza mostrada por todas aquellas personas que han aportado su testimonio o han colaborado facilitando información, documentación y datos. Las narrativas personales y vivencias sinceras son, sin lugar a dudas, las que contribuyen a dimensionar todo lo ocurrido durante décadas en nuestro municipio, siendo su aportación también una contribución a la convivencia. A su vez, la mesa quiere agradecer el enorme trabajo de documentación, análisis y redacción realizados por los miembros de Intxorta 1937 y Argituz, que han dado forma a la voluntad y el compromiso de los miembros de la mesa.

Conscientes de que estos trabajos no son el final del proceso, es nuestro deseo que sirvan de base común para seguir avanzando en la reconstrucción de la convivencia de nuestro municipio.

ÍNDICE

INTRODUCCIÓN	330
1. JUSTIFICACIÓN, OBJETIVO, CONTENIDO Y CRITERIOS	333
1.1 Justificación y objetivo	333
1.2 Contenido	334
1.3 Criterios para la clasificación de los casos	341
2. MARCO NORMATIVO: EL CONCEPTO VÍCTIMA Y SUS DERECHOS	345
2.1 Declaraciones y recomendaciones internacionales sobre la condición de víctima y sus derechos	345
2.2 El estatuto de víctima en la Unión Europea	350
2.3 Legislación estatal	351
2.4 Legislación autonómica	354
3. CONULCACIONES DE DERECHOS HUMANOS EN ARRASATE	359
3.1 Conculcación del derecho a la vida	359
3.2 Conculcaciones del derecho a la integridad física, psíquica y moral	375
3.3 Otras conculcaciones de derechos humanos	391
4. CASOS POR ESCLARECER	409
5. TABLA RESUMEN	417
6. OTROS HECHOS DE VIOLENCIA Y SUFRIMIENTO	419

7. HECHOS QUE HAN CAUSADO ESPECIAL IMPACTO EN EL MUNICIPIO	425
8. ALGUNOS TESTIMONIOS: SOBRE VIOLENCIA, CONCULCACIÓN DE DDHH, CONVIVENCIA Y MEMORIA	441
8.1 Impacto de las acciones violentas en las personas entrevistadas	442
8.2 Conculcación de derechos humanos y víctimas	464
8.3 Convivencia	503
8.4 Memoria y futuro	525
8.5 Nuevas fórmulas	541
9. CRONOLOGÍA DEL CONTEXTO: ALGUNOS HECHOS VIOLENTOS EN ARRASATE	547
9.1 Últimos años del Franquismo	547
9.2 Desde la muerte de Franco hasta la Constitución	572
9.3 Tras la aprobación de la Constitución	584
10. PROPUESTAS Y ÚLTIMOS APUNTES	639
EPÍLOGO	643
BIBLIOGRAFÍA Y FUENTES	645

INTRODUCCIÓN

Abordar la cuestión de la Memoria colectiva supone un trabajo delicado, ya que la percepción de la misma varía dependiendo de las experiencias personales acumuladas. Negociar como sociedad una memoria inclusiva y compartida nos lleva a una comparación casi inevitable entre lo propio y lo ajeno. Por este motivo se torna importante analizar el sufrimiento padecido durante décadas por toda la sociedad en su conjunto, y por las víctimas en especial, a través de la conculcación sistemática de los derechos humanos fundamentales en diferentes formas e intensidades: asesinatos, torturas, secuestros, extorsión económica, violencia de persecución, sabotajes, entre otros.

El objetivo de este informe no es otro que mostrar aquellos hechos y algunas víctimas vinculadas con el pueblo de Arrasate, para dar luz a todo aquello que a día de hoy, y quizás todavía en un futuro próximo, dificulta una convivencia real y estable entre sus habitantes. El enfoque que sigue este informe es aquel basado en uno de los principios universales del Derecho Internacional en relación a los Derechos Humanos donde: “a igual conculcación de derecho humano corresponde mismo derecho a verdad, justicia y reparación”, en aplicación del principio de no discriminación. No compete al equipo redactor de este informe valorar o enjuiciar aquello que expone sino estudiar, analizar, recopilar, contrastar y publicar a través de este libro lo ocurrido en Arrasate, o en relación al pueblo, en cuanto a la violencia con objetivo político se refiere llevada a cabo entre 1956 y 2018. La cronología de sucesos, los testimonios tomados a diferentes personas, así como los criterios empleados en la elaboración de esta publicación y los principios jurídicos en los que se basa, dotan a este informe de forma cuantitativa y cualitativa del rigor necesario para suponer un pequeño paso en la recuperación de la convivencia a nivel municipal, y por extensión, a toda la sociedad vasca, en el camino hacia una memoria compartida.

Creemos relevante y urgente tomar testimonio a aquellas personas que de forma directa han vivido la crudeza de la violencia y han sido víctimas de la misma, antes de que esta Memoria viva deje de serlo y perdamos la posibilidad de trabajar sobre realidades y no supuestos. Desde la consciencia de la dificultad que supone dar cabida a todo tipo de sensibilidades, cuando el sufrimiento ha hecho mella hasta el agotamiento, invitamos a abordar este informe como una herramienta más para avanzar en la convivencia, para acercar posturas y realidades, o cuanto menos, conocer aquellas que nos son ajenas; en definitiva, para contribuir en la construcción de una memoria compartida. Si pretendemos sanar heridas, el silencio no es una opción, eso nos recuerda la historia, por ese motivo nuestro enfoque consiste en dar a conocer los hechos y

los consiguientes traumas e impacto emocional, psicológico y físico derivado de los mismos. Mostrar las diferentes verdades desde la aceptación de un marco básico: la Declaración Universal de los Derechos Humanos y los tratados, normas y recomendaciones internacionales. El respeto a la dignidad de las personas en todas sus facetas. Es importante mencionar que en este informe se exponen todas las verdades, todos los relatos, todos los hechos, todas las visiones que han estado a nuestro alcance y hemos podido recoger. Faltarán datos, hechos, quizá haya errores y pedimos disculpas de antemano por ello. Nuestro deseo es que el trabajo realizado sirva de base y de inicio para llegar a una memoria social compartida y ayude a entender lo que pasó, cómo pasó, por qué pasó y, ante todo, contribuya a restaurar la convivencia y la confianza entre todas y todos, para que lo ocurrido no caiga en el olvido y para que las generaciones futuras conozcan lo que sucedió y aprendan de nuestros errores.

Queremos mostrar nuestro profundo respeto y gratitud a toda persona que ha colaborado en este informe aportando datos y testimonios, a sabiendas de lo doloroso y difícil que ese acto supone, porque gracias a su generosidad hemos podido hacer un estudio de campo riguroso, y aunque no perfecto, sí bienintencionado.

POSDATA: Coincidiendo en el tiempo con la finalización de este informe, se ha producido un hecho muy relevante a efectos del tema abordado en este trabajo, la disolución de ETA. A partir de ahí, se cierra una etapa de la sociedad vasca vivida bajo el uso de la violencia de motivación política. Sin embargo, no desaparecen las múltiples consecuencias derivadas de la violencia de muy diferente signo, sufrida durante décadas. Ahora bien, el contexto recién estrenado abre una ventana a las oportunidades, para analizar y sanar las heridas producidas en nuestro pasado reciente de violencia. Asimismo, debería servir para poder construir una sociedad en convivencia, sin más tensiones que las propias de una comunidad plural y diversa que debe hacer frente a esos retos, en un clima de diálogo sincero, buscando el entendimiento con el otro desde el respeto al diferente, y resolviendo, siempre, las legítimas divergencias por cauces pacíficos y democráticos.

1. JUSTIFICACIÓN, OBJETIVO, CONTENIDO Y CRITERIOS

1.1 JUSTIFICACIÓN Y OBJETIVO

